

LEHENENGO ZATIA




CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
MEMORIA SOZIOEKONOMIKA

08



© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako
Batzordea
Gran Vía, 81-7º
48011 Bilbo

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Grafika, S.L.
Inprenta: Grafilur, S.A.
Lege Gordailua: BI-42-10

08

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
MEMORIA SOZIOEKONOMIKA

KRISIALDITIK IRTETEKO
OINARRIAK



José Luis Ruiz García
Presidente

Memoria sozioekonomikoaren edizio inprimatu hau aurkezten dugu. Euskal Ekonomi eta Gizarte Arazoetako Batzordearen osoko bilkurak 2009ko urriaren 23an onartu zuen. Agiri honetan, 2008ko euskal ekonomiaren portaera eta gizarte egoera aztertu ditugu eta diagnostiko bat eskaintzen dugu. EEGAB osatzen duten gizarte eta ekonomi eragileekin aldeztu aurretik konpartitu duguna. Horregatik, lehenik eta behin, Memoria Sozioekonomikoaren Batzordea osatzen duten eta zenbait hilabetetan zehar dokumentu hau eztatadatu eta osatu duten kideei eskerrak eman nahi dizkiet: Antxon Tomasena (CCOO), Raúl Arza (UGT), Eduardo Aréchaga (Confebask), Jaime Fernández (Confebask), Rafael Aranguren (aurrezki kutxak eta finantza entitateak), Miren Garmendia (arrantza erakundeak), Mikel de la Fuente (UPV-EHU), Francisco Javier Sanz (kooperatibak), eta Felicísimo Ayastuy, Antón Borja, Iñaki Barrenetxea, María Luz de la Cal eta Aitor Bengoetxea adituak. Era berean, Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga EEGABen azterlan eta proiektuetako arduradunei eskerrak ematen dizkiet.

Gogora ekarri nahi nuke, nahiz eta errepikakorra suertatu daitekeen, memoria sozioekonomikoak balio handiko analisiak direla Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomiaren eta gizartearen erradiografia egin nahi badugu. Honelako lanak kontrastatutako datuetan oinarritzen dira, eta beren balorazioak itxuraldatu ditzaketen abagune zehatzetatik eta bestelako premietatik urruntzen dira. Baina, azaldutakoaz gain, memoria sozioekonomikoaren baliorik handiena da ekonomi eta gizarte eragileek elkarrekin eta ados jarrita egin duten gogoeta baten emaitza dela. Eragile horiek memoria hau lantzen aritu dira jo eta ke, euskal gizartearen errealitatearen adierazpena erakusteko asmoarekin.

Dokumentu honek egiaztatu du nazioarteko finantza krisiaren eragina euskal ekonomia errealerara etorri dela 2008an. EAEko ekonomiaren hazkuntzaren kopuruek erakusten dute urte hasieran desazelerazio garbia dagoela, urteko lehen hiruhilekoetako datuek erakusten dutenez. Datuek urtearen amaieran txarrera egin dute, hurrengo urtean joera negatiboa sortuz. Horrela, 2008ko lehen hiruhilekoan BPGak %3,2ko hazkundera izan zuen. Kopuru hauek gero eta txikiagoak dira. Azken hiruhilekoan, hain zuzen ere, bilakaera ia laua izan zen (%0,4). Okerragoa izan da industri sektorearen portaera, euskal ekonomian funtsezko pisa duena: azken hiruhilekoan %2,8ko atzerakada pairatu du. Eraikuntzaren sektoreak, bestalde, bigarren hiruhilekotik aurrera hasi zuen bere atzerakada. Ekonomiaren narriadura lan merkatuan eta langabeziaren kopuruetan islatu da. Beraz, azken urteetan pobrezia areakatu da borrokan eta ongizatearen aurrerapenean lortutako hobekuntzak hondatzeko arriskua dago.

Testuinguru honetan, EEGABeko adituek uste dute ezinbestekoa dela produktibitatean eta lehiakortasunean hobekuntzak lortzea, hainbat eremu bultzatuz: hezkuntza eta prestakuntza, ikerkuntza, prozesuaren eta produktuaren berrikuntza, eta teknologiararen hedapena eta transferentzia. Horregatik, memoriaren egileek uste dute I+G+Bko inbertsio publikoa areagotu behar dela, baina baliabideak euskal ekonomia hoberen kokatuta dagoen eremuetara bideratuz.

EEGABko adituek azaldu dituzten oharrek kontuan izan beharrekoak dira, batez ere gaur egun bizi dugun egoeran. Garrantzitsua da gure ekonomiaren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten oinarriak ezartzea, atzeraldi ekonomikoa azkarren gainditzeko duten ekonomien artean egon gaiten. Bestalde, memoria honek gertatzen ari diren aldaketa sozial eta demografikoen berri ere ematen du. Arazo kezagarrien artean, laneko eta familiako bizitzak adiskidetzeko, ingurumenaren gaineko kontzientziazioaren aurrera egiten jarraitu beharra edo eskola bertan behera uztea daude.

Aurkibidea 1

EAEn JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

1. GIZA BALIABIDEAK EAEn	12
1.1. DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA	12
1.1.1. EUSTATEN proiektio demografikoak 2020rako	13
1.1.2. Oinarritzko adierazle demografikoen eboluzioa	18
1.1.3. Familiak eta lan-bizitza eta bizitza pertsonala adiskidetzeko arazoak	26
1.1.4. Inmigrazioa EAEn	32
1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZAREN SUSTAPENA	44
1.2.1. Gastu publikoa hezkuntzan	44
1.2.2. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza	45
1.2.3. Unibertsitate irakaskuntzaren eboluzioa	48
1.2.4. Ikerkuntza euskal herriko unibertsitatean	52
1.2.5. Unibertsitateko gradu-dunen laneratzeko maila	53
1.2.6. Hezkuntzazko adierazleak	55
2. PRODUKZIOAREN EGITURA ETA BERRIKUNTZA EAEn	67
2.1. PRODUKZIOAREN EGITURA	67
2.1.1. Enpresen demografia eta egitura	67
2.1.2. Nekazaritza eta arrantza sektorea	70
2.1.3. Industria	77
2.1.4. Eraikuntza	81
2.1.5. Zerbitzuak	84
2.2. I+G+B JARDUERAK ETA IKTAK	95
2.2.1. Euskal Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak	95
2.2.2. EAEko enpresa sektorearen I+G+b jarduerak	100
2.2.3. IKTen sektorea EAEn	109
2.2.4. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn	111
2.2.5. Komertzio elektronikoa EAEn	
Familiak eta erabiltzaileak	119
2.2.6. Euskadi Plana Informazioaren Gizartean	
2010eko Euskadiko Agenda Digitala	123
3. INGURUMENAREN EGOERA EAEn	125
3.1. EAEko 2002-2020ko INGURUMEN ESTRATEGIAREN JARRAIPENA: INGURUMENENKO ADIERAZLEAK	125
3.2. HERRITARREN JARRERA INGURUMENARENGANA	140
3.3. ENPRESA INDUSTRIALA ETA INGURUMENA	144
3.3.1. Enpresen ingurumen konpromisoa:	
ingurumenaren kudeaketa	144
3.3.2. Enpresa industriaren gastua	
ingurumena babesteko	145
4. PRODUKZIOAREN AZPIEGITURAK	146
4.1. GARRAIOA	146
4.1.1. Errepide bidezko garraioa	146
4.1.2. Trenbide bidezko garraioa	150
4.1.3. Airezko garraioa	151
4.1.4. Itsasozko garraioa	152
4.2. ENERGIA	154
4.3. TELEKOMUNIKAZIOAK	157

2

EAEko EKONOMIA

1. KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA	164
1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK	164
1.2. EBOLUZIO EKONOMIKOA EREMUJA	166
1.3. EUROPAR BATASUNA. EURO EREMUJA	168
1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA	172
1.5. AUTONOMI ERKIDEGOAK	175
2. EAEko ABAGUNE EKONOMIKOA	177
2.1. EBOLUZIO OROKORRA	177
2.2. BARNE-ESKAERA	179
2.3. KANPO-SEKTOREA	181
2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA	185
3. EAEKO SEKTORE PUBLIKOA	189
3.1. DIRU-SARRERAK	189
3.2. GASTUAK	192
3.3. AURREKONTUKO SALDOA	193
3.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA	193
3.5. ERAKUNDEEN TRANSFERENTZIAK	197
3.6. EAEko SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIAIA	200
4. GIZARTE-EKONOMIA	202
4.1. GIZARTE-EKONOMIAREN SEKTOREA: KONTZEPTUAK ETA MAGNITUDE NAGUSIAK	202
4.2. GIZARTE-EKONOMIA EAEn	203
4.2.1. Gizarte-ekonomiaren kontuak 2006an	205
4.2.2. Eusko Jaurilaritzako Gizarte-Ekonomiako Zuzendaritzaren erregistroak	208
5. LAN MERKATUA EAEn	211
5.1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN EBOLUZIOA	212
5.1.1. Okupazioa	212
5.1.2. Langabezia	217
5.2. SARRERA ETA IRTEERA FLUXUAK LAN MERKATUAN	221
5.2.1. Kontratazioaren ikuspegia	221
5.2.2. Iraipen indibidualen eta kolektiboen eboluzioa	225
5.3. LAN-HARREMANAK ETA LAN-OSASUNA	226
5.3.1. Lan-osasuna	226
5.3.2. Lan-gatazka	229
5.3.3. Negoziazio kolektiboa:	
Soldata igoera eta lansaila	230
5.4. SOLDATAK EAEn	232
5.4.1. 2006ko soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak	232
5.4.2. 2007ko lan-kostuari buruzko urteko inkestaren emaitzak	234
5.5. ENPLEGU ZERBITZU ETA POLITIKAK EAEn	235
5.5.1. Lan eta Inmigrazio Ministerioaren Enplegu Politikak - EEZP	236
5.5.2. Eusko Jaurilaritzaren Enplegu Politikak	241
6. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK	246
6.1. KONTSUMO-ONDASUNEN PREZIOAK	246
6.2. KOSTUAK	248
6.2.1. Lan-kostuak	248
6.2.2. Produktibitatea	250
6.2.3. Unitateko lan-kostuak	251
6.3. ERRENTAK	252
6.3.1. Errenten banaketa faktoriala	252
6.3.2. Per capita errenta	253

3

BIZI-KALITATEA EAEn

1. ZENBAIT KOLEKTIBO ZAURGARRIREN BIZI-BALDINTZAK.....	258
1.1. GIZARTE-ZAILITASUNEAN DAUDEN HAURRAK.....	258
1.1.1. Gizarte-zailtasunean dauden adingabeak babesteko figurak.....	258
1.1.2. EAEn gizarte-babesa jasotzen duten adingabearen kolektiboa.....	259
1.1.3. Lagundu gabe dauden adingabe atzerriarren kasua.....	263
1.1.4. Pobrezia bizi diren adingabeak.....	265
1.2. EZINDUTAKO PERTSONAK.....	267
1.2.1. Datu nagusiak. Ezintasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun-Egoerari buruzko Inkesta [EAME] 2008.....	267
1.2.2. Lan merkatua.....	271
1.2.3. Bizi-baldintzak eta gizarteratzea.....	274
2. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA.....	276
2.1. OSASUN SISTEMAREN FINANTZAZIOA ETA GASTUA.....	276
2.1.1. Laguntza-jardueraren gastua.....	276
2.2. OSASUNAREN IKUSPEGI OROKORRA ETA LEHENTASUNA DUTEN ARAZOAK.....	278
2.2.1. Bizi-itxaropenaren eta hilkortasunaren adierazleak.....	278
2.2.2. Gaixotze-adierazleak: Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak.....	282
2.2.3. Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak: Sexu Transmisioko Infekzioak (STI).....	283
2.3. OSASUNAREN DETERMINANTEAK.....	284
2.3.1. Bizi-ohitura osasuntsuak.....	284
2.3.2. Prebentzio-praktikak: minbizi zerbikala eta bularretako minbizi.....	288
2.4. OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK.....	290
2.4.1. Sarrera.....	290
2.4.2. Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jarduera.....	292
3. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA.....	300
3.1. LURZORUA ETA ERAIKUNTZA-KOSTUAK.....	300
3.1.1. Lurzorua EAEn.....	300
3.1.2. Estatistika eraikuntzaren kostuetan.....	302
3.2. ETXEBIZITZA HUTSAK EAEN. 2007KO DATUAK.....	302
3.3. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA EAEn.....	305
3.3.1. Salgai dauden etxebizitzaren eskaintza eta prezioak.....	305
3.3.2. Alokairu erregimena.....	309
3.3.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa autonomi erkidegoen arabera.....	311
3.3.4. Eraikuntza-jarduera.....	313
3.4. ETXEBIZITZA BEHARRAK ETA ESKAERA EAEn.....	314
3.4.1. Beharizanen kuantifikazioa.....	314
3.4.2. Pertsona eta familia behartsuen ezaugarriak eta motiboak.....	315
3.4.3. Etxebizitza behartsuen ezaugarriak.....	317
3.4.4. Alokairu-etxebizitzaren eskaera.....	319
3.4.5. Finantza ahalmena eta esfortzua.....	320
3.5. ETXEBIZITZA-POLITIKA.....	323
3.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika.....	323
3.5.2. Foru aldundien etxebizitza politika.....	326
4. AISIALDIA, KULTURA ETA KONTSUMOA.....	327
4.1. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN.....	327
4.2. FAMILIEN GASTUA KULTURAREN KONTSUMOAN.....	327
4.3. EAEKO BIZTANLEEN OHITURAK DENBORAREN ERABILERA SOZIALEAN.....	330
4.3.1. Komunikabideen eragina.....	330

4.4. KULTUR ETA AISIALDI JARDUEREN ESKAINTZA EAEn.....	331
4.4.1. Kultur ekipamenduetara doazen bisitariak.....	331
4.4.2. Biltzar eta azoka jarduera.....	332
4.5. ARGITALPEN-PRODUKZIOA.....	335
4.6. EUSKARAREN EGOERA ETA HIZKUNTZ POLITIKA.....	340
4.6.1. Euskararen egoera soziolinguistikoa: ezagutza-maila.....	340
4.6.2. Euskararen egoera soziolinguistikoa: transmisioa.....	341
4.6.3. Euskararen egoera soziolinguistikoa: erabilera eta jarrerak.....	341
4.7. KONTSUMOA ETA KONTSUMITZAILEAREN DEFENTSA.....	343
4.7.1. Kontsumoaren errekamazioa.....	343
4.7.2. Errekamazioen ebazpena: kontsumoko arbitrajea.....	343
4.7.3. Merkatu-kontrola.....	344
5. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA.....	347
5.1. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO 2007KO INKESTAREN EMAITZAK.....	347
5.2. POBREZIARI ETA GIZARTE-EZBERDINTASUNEI BURUZKO 2008KO INKESTA: POBREZIAREN ETA PREKARIOTASUNAREN ERAGINA.....	350
5.2.1. Mantenimenduaren dimentsioan dauden arazoak.....	350
5.2.2. Pilaketa dimentsioan dauden arazoak.....	352
5.2.3. Benetako pobreziaren eragina hurbilketa.....	354
6. JARDUERA JUDIZIALAREN EBOLUZIOA EAEn.....	357
6.1. JUSTIZIAREN ZIFRAK.....	357
6.2. PROZESUAREN ADIERAZLEAK.....	358

4

GIZARTE-BABESA EAEn

1. LANGABEZIAREN BABESA: INEM-SPEE.....	367
1.1. LANGABEZIAKO ESTALDURA ETA PRESTAZIOEN JASOTZAILEAK.....	367
1.2. LANGABEZIAREN BABESEKO GASTUA ETA DIRU-SARRERA.....	371
2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK EAEn.....	372
2.1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETAREKIN.....	372
2.2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITUTAKO KUDEAKETAREKIN: ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKOAK EZ DIREN PRESTAZIOAK.....	376
2.2.1. Gizarte Zerbitzuaren kotizatu gabeko pentsioak.....	376
2.2.2. Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntzako pentsioak.....	378
2.2.3. LISMI prestazioak.....	378
3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN AURKAKO NEURRIAK EAEn.....	381
3.1. POBREZIAREN ETA BAZTERKETAREN AURKAKO PRESTAZIOAK.....	382
3.1.1. Oinarritzako errenta.....	382
3.1.2. Gizarte Larrialdiko Laguntzak.....	383
3.2. GIZARTERATZEA MESEDETEZKO PROGRAMAK.....	385
3.2.1. AUZOLAN programa.....	385
3.2.2. Gizarteratze programen kudeaketa errazteko indartze programa.....	385
3.2.3. Gizarteratze eta laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak.....	386

4. GIZARTE AURREKUSPENEN SISTEMA OSAGARRIAK EAEn.....	387
4.1. BABESTUTAKO BIZTANLERIA.....	388
4.2. BABESAREN INTENTSITATEA.....	391
4.3. ERAKUNDE BABESLEAK. HAIEN DIMENTSION EKONOMIKOA.....	394
4.4. ARAUBIDE FISKALA.....	396

5

GARAPENERAKO LANKIDETZA

1. GIZA GARAPENA. ZORRA ETA GARAPENERAKO LAGUNTZA MUNDUKO TESTUINGURUAN.....	402
1.1. GIZA GARAPENAREN INDIZEA. 2007-2008KO EMAITZAK.....	402
1.2. GARAPENERAKO LAGUNTZA OFIZIALA ETA ZORRAREN ZAMA.....	402
2. EAEKO GARAPENERAKO LAGUNTZA 2008an.....	406
2.1. LANKIDETZAREN ETA GARAPENERAKO LAGUNTZAREN FONDOA.....	407
2.2. EUSKAL FONDOA.....	409

6

JARDUN ARAUGILEA EAEn

1. JARDUN ARAUGILEA EAEn.....	412
1.1. LEGEBILTZARRA ETA EUSKO JAURLARITZA.....	412
1.2. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIAK.....	417
1.3. EUSKO LEGEBILTZARRAREN VIII. LEGEGINTZALDIAREN BALANTZEA.....	417

7

LABURPENA ETA AURREGOGOETAK

01.

EAEn JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK



1. GIZA BALIABIDEAK EAE-N

1.1. Demografia eta inmigrazioa

Nazio Batuek emandako azken datuen arabera, munduko biztanleria 6.800 milioi pertsonakoa da, eta hiru urtetan 7.000 milioikoa izango da; 2050ean 9.000 milioikoa izango da, hain zuzen ere, 2000koa baino %50 handiagoa. Hazkunde hori guztia herrialde pobreetan eta garapen bideko herrialdeetan izango da; izan ere, bertako oraingo biztanleriak (5.600 milioi biztanle) 2.300 milioi biztanleko hazkundea izango du. Hazkunde horren erdia bederatzi herritan izango da: India, Pakistan, Nigeria, Etiopia, Amerikako Estatu Batuak, Kongo, Tanzania, txina eta Bangladesh. Herri garatuak, bestalde, ozta-ozta gairatutako dituzte oraingo 1.230 milioiak, eta 2050ean, hain zuzen ere, 1.280 milioi izango dira. Izan ere, NBEk egindako kalkularen arabera, bertako biztanleria 80 milioitan murriztuko litzateke, herrialderik pobreenetatik inmigrazioa iritsi ezean; inmigrazio hori urtero 2,4 milioi biztanlekoa izango dela dago aurreikusita.

Bestalde, EUROSTATEk egindako kalkularen arabera, Europar Batasuneko biztanle kopurua 497,5 milioi pertsonakoa izan da 2008ko urtarirlean, 2007ko urtarirlean baino 2,4 milioi handiagoa. Milako 4,8ko hazkunde horri esker (aurreko urtean milako 4,3koa), beste urte batean ere mantendu egin da 1960tik honako hazkunde-joera etengabea; urte horretan oraingo Batasuneko biztanleria 400 milioi biztanlekoa zen. Bilakaera


positiboa, urte honetan ere, inmigrazioaren jokabidearen eraginezkoa da, aldaketa osoaren %20 baino ez baita berezko hazkundearen edo begetatiboaren eraginezkoa.

Izan ere, inmigrazioa, hazkunde osorako efektiboak gehitzeaz gain, hazkunde naturalerako ere lagungarria da, jaiotzen zati handia pertsona immigranteek eragin baitituzte. Immigranteak, gainera, sarritan gazteagoak dira, eta ekarpen urriagoa egiten dute hilkortasun-tasara. Hori garrantzi handikoa da Espainian (2007an milioi bat immigrante baino gehiago), baita beste zenbait herritan ere; adibidez, Irlandan, Zipren eta Luxenburgon (1.000 biztanleko 10 immigrante). Hori oso lagungarria izan da estatu horietako biztanleria-zifren bilakaera onerako.

Etorkizuneko bilakaerari dagokionez, EUROSTATEk dioenez, EB-27ko biztanleria 520,7 milioi biztanlekoa izango da 2035ean; gero, apurka-apurka murrizten joango da, harik eta 2060an 505,7 milioi biztanle eduki arte. Urteko jaiotza kopurua jaitsi egingo da aldi osoan, eta heriotza kopurua, berriz, gero eta handiagoa izango da, "baby boom" deritzon belaunaldiak zahartzearen ondorioz. 2015ean, hazkunde begetatiboa negatiboa izango da, eta, 2035etik aurrera, migrazio-saldoak ez dira nahiko izango joera horri aurre egin ahal izateko; horrenbestez, biztanle kopuru osoa murrizten hasiko da.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak¹ emandako azken datuen arabera (2008ko urtarilari buruzko datuak), biztanle kopurua 2000n hasitako goranzko joeraren barruan dago oraindik. Hain zuzen ere, 2008an biztanle kopurua 2.157.112 pertsonakoa

1.1.1. Grafikoa. Hazkunde demografikoaren proiektzioa EB-27an, osagaien arabera. Pertsonak milioietan



Iturria: EUROSTAT, EUROPOP 2008.

¹ Biztanleen Udal Erroldako zifrak ezin dira zehatz konparatu Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuko zifrekin, metodologia desberdinak erabiltzen baitira. Udal Errolda administrazio-erregistroa da, eta Espainiako 8.000tik gorako udalerrietariko bakoitzak eraten, mantentzen eta kudeatzen du. Bertako datuak etxebizitza udal-mugartean edukitzea eta bertan bizitzea egiaztatzen dute, eta bertako ziurtagiriak agiri publikoak eta sinesgarriak dira, administrazio-ondore guztietarako. Hala eta guztiz ere, Biztanleriaren Zentsua estatistika bat da, eta Estatistikako Institutu Nazionalak egiten du. Bertan jasotako datuak estatistika-sekretuak babesten ditu, eta Erroldaren kasuan ez da halakorik gertatzen, bertan pertsonak identifikatzea ezinbestekoa baita.

I.1.1. LAUKIA. EAE-KO BIZTANLERIAREN ORAINTSUKO BILAKAERA. 2002-2008

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Araba	291.860	294.360	295.905	299.957	301.926	305.459	309.635
Bizkaia	1.133.444	1.133.428	1.132.861	1.136.181	1.139.863	1.141.457	1.146.421
Gipuzkoa	682.977	684.416	686.513	688.708	691.895	694.944	701.056
EAE	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.124.846	2.133.684	2.141.860	2.157.112

Iturria: INE. Biztanleen Udal Errolda.

izan da (2007ari dagokionez, %0,71); hau da, aurreko urtekoa baino 15.252 biztanle gehiago egon dira, eta 2002an baino 50.000 gehiago. Lurralde Historikoei buruzko datuek agerian jarri dutenez, biztanleriak Araban izan du hazkunderik handiena (azken urtean %1,37); Gipuzkoan hazkundera motelagoa izan da (%0,88), eta Bizkaian batez bestekotik beherakoa izan da (%0,43).

Zifra horiei dagokionez, EAEn erroldaturiko atzerriko biztanleriaren ehunekoa %5,4koa da, eta 2007ko urtarilaren lean %4,6koa izan zen; hortaz, %17,4ko aldaketa erlatiboa egon da. Hazkunde hori Estatuan aldi horretan izandako %14,1eko hazkundera baino handiagoa da; hala ere, atzerriar kopuruak EAEn duen ehunekoa oso urrun dago Estatuko %11,3tik (errolda azkenekoz gaurkotu denean, bost milioi atzerriar), eta oraindik ere urrunago zenbait erkidegotako ehunekoetatik: Madril, Valentziako Erkidegoa eta Murtzia %15, eta Balearrak %20.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gainera, desberdintasun batzuk daude immigranteen presentzian, bai Lurraldeka eta bai adin-taldeka. Lurraldeka, Arabak ia bi puntutan gainditzen du batez bestekoa (%7,38), eta ehunekoa %12koa da 16 eta 44


urte bitartekoan artean. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, batez bestekotik hurbilagoko zifrak daude, bai ratio orokorrean (hurrenez hurren %5,11 eta %5,13) eta bai lehen aipaturiko adin-tarte horretan.

1.1.1. EUSTATEN proiektzio demografikoak 2020rako

EUSTATEk proiektzio berriak egin ditu EAerako; horiek, 2020ko epemugarekin, bertako biztanleriaren bilakaera orokorra aurreikusi dute, baita bertan eragina duen aldagai bakoitzaren bilakaera ere. Ondoren, proiektzio horren emaitzak laburbilduko ditugu.

Lehenengo eta behin, aipatzekoa da mende aldaketak haustea ekarri duela EAeko biztanleriaren bilakaerara, aldatu egin baita aurreko urteetako atzerantzko joera, hazkunde demografikoari lotutako aldi batean sartzeko. Hilkortasunaren, ugalkortasunaren eta migrazioen etorkizunari buruz egindako hipotesietan oinarrituz, epe laburrean joera hori mantendu egingo dela dirudi, eta, gero, egonkortasun-aldi batean sartuko gara, biztanle kopuruaren zifretan. Aldi berean, eta haurren efeki-

I.1.2. Grafikoa. Biztanleria atzeritararren ehunekoa, adin taldeen eta lurraldeen arabera. 2008



Iturria: INE. Udal Errolda 2008.

I.1.2. LAUKIA. BIZTANLERIAREN BILAKAERA URTERIK URTERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 1975-2020 (MILATAN)

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	GUZT.	GIZO.	EMAK.	GUZT.	GIZO.	EMAK.	GUZT.	GIZO.	EMAK.	GUZT.	GIZO.	EMAK.
1975	2.071,8	1.026,7	1.045,1	237,4	119,2	118,2	1.154,8	570,0	584,7	679,7	337,5	342,2
1980	2.141,4	1.061,6	1.079,8	257,3	129,2	128,1	1.189,2	587,6	601,6	694,9	344,8	350,1
1985	2.142,0	1.056,9	1.085,1	268,3	134,2	134,1	1.182,4	581,7	600,7	691,3	341,0	350,3
1990	2.104,8	1.034,5	1.070,4	272,4	135,6	136,8	1.156,0	566,0	590,0	676,4	332,8	343,6
1995	2.099,1	1.027,5	1.071,6	281,3	139,6	141,7	1.141,3	555,9	585,4	676,5	331,9	344,5
2000	2.079,2	1.016,0	1.063,2	284,6	141,1	143,5	1.122,2	545,2	577,0	672,4	329,7	342,7
2005	2.115,4	1.033,4	1.082,0	301,8	150,2	151,6	1.127,3	546,3	581,0	686,3	336,9	349,4
2010	2.194,1	1.071,7	1.122,4	323,7	161,7	162,0	1.168,4	564,7	603,7	701,9	345,3	356,6
2015	2.225,5	1.086,3	1.139,2	335,9	167,7	168,2	1.181,1	569,6	611,5	708,5	349,1	359,5
2020	2.232,1	1.089,1	1.143,0	343,1	171,0	172,1	1.181,5	569,1	612,5	707,5	349,0	358,5

Iturria: EUSTAT. Proiekzio Demografikoak 2020.


boak apur bat suspertu egingo diren arren, EAEko gizartea hel-
tzeke eta zahartzeko prozesua indartu egingo da.

(a) EAEko hazkundera eta egitura demografikoa

2006ko amaieran, EAEn 2.132.000 biztanle zeuden, eta proie-
ktaturiko aldian 2.232.000 biztanlerako gorakada egongo dela
dago aurreikusita; hau da, 100.000 pertsonako hazkundera
egongo da (urtean milako 3,3ko batez besteko tasa). Hazkun-
dea lehenengo urteetan pilatzen da, eta, epe ertainean, be-
herakada handia egongo da urteko hazkunde-tasan, eta hori
2007ko milako 9,1etik 2020ko milako 0,0ra igaroko da.
Hazkunde erritmoaren murriztapen gero eta handiagoa, bes-
talde, bi faktore konbinatzearen eraginezkoa izango da: alde
batetik, lehenengo urteetan saldo begetatiboa apur bat po-
sitiboa izango da, baina 2014tik aurrera alderantzizko joera


egongo da, heriotza kopurua berriro ere jaiotza kopurua baino
handiagoa izango baita; bestalde, migrazio-saldoa positibo
mantenduko da, baina gero eta txikiagoa izango da, eta, hain
zuzen ere, 2007ko 18.000 immigranteetatik 2020ko 4.000 im-
migranterara igaroko da.

Azken bosturtekoetan gertatu den bezala, biztanleriaren
bilakaera, batez ere, migrazio-jarioen intentsitatearen eta
joeraren arabera izango da, jario horiek eragiten baitute
gehien hazkunde demografikoaren erritmoan. Epe laburrean,
jaiotza eta heriotza kopuruaren arteko aldeak eragin positiboa
(baina garrantzi urrikoa) izango du hazkundera, eta horren
joera laster aldatu egingo da; hain zuzen ere, aldiaren amaie-
ran, saldo begetatiboaren eraginezko galerak joan den men-
deko 90eko hamarkadakoak baino handiagoak izango dira.
Zenbakitan, berezko hazkundeak 7.000 biztanleko ekarpena


**I.1.3. Grafikoa. EAEko proiektzio demografikoa 2020rako: Aurreikusitako hazkundera, osagaien arabera. Per-
tsonak milatan**

Iturria: EUSTAT. Proiekzio Demografikoak. 2020

I.1.4. Grafikoa. EAEko biztanleria-piramideak 1975ean eta 2006an




I.1.5. Grafikoa. Ugalkortasun-tasen bilakaera eta proiektzioa (milatan), amaren bost urteko adin taldeen arabera. EAE




egingo du 2007tik 2011ra, eta 2016tik 2020ra bitartean, berri, 15.000ko murriztapena izango du. Gero eta negatiboa izango den saldo begetatiboren eraginezko galerak ezin izango dira konpentsatu migrazioekin; horrela, epe luzean, aurreikusitako joerak mantenduz gero, EAEko biztanle kopurua beharrezko fasean sartuko da berriro. Jaiotzen urteroko jarioak, bestalde, agerian jartzen du iraganezko dinamika demografikoak etorkizunekoan izango duen

eragina. Egindako aurreikuspenaren arabera, 2020an emakumeen ugalkortasuna 1,42 seme-alabarik hurbileko balioetara suspertuko bada ere, EAEn bizi diren ametak jaiotako haur kopurua nabarmen murriztuko da 2010etik aurrera, ugalkortasun-adinean dauden emakumeen kuota gero eta gehiago urritzearen ondorioz. Horrela, 25-39 urte bitarteko emakumeen bolumenak (jaiotza guztien ia %90 talde horren barruan) %27tik gorako murriztapena izango du. Horrek eragin itzela

I.1.6. Grafikoa. EAEko biztanleriaren bilakaera, adin talde nagusien arabera, 2005era arte; eta 2006-2020rako proiektzioa

Iturria: EUSTAT. Proiektzio Demografikoak 2020.

I.1.7. Grafikoa. EAEko migrazio-jario mota desberdinen bilakaera eta proiektzioa

Iturria: EUSTAT.

izango du jaiotza-tasan, proiektaturiko aldiko azken urteetan jaiotza kopurua urteko 18.000 jaiotzatik beherakoa izango baita berriro ere (2001-2002 biurtekoan izandakoaren antzeko kopurua). Gainera, ugalkortasun-adinean iritsitako immigrante kopurua gero eta txikiagoa izango da, eta horren eragina 2020tik aurrera luzatu eta indartuko da. Horren ondorioz, jaiotza-zifra gero eta urriagoa izango da, baldin eta ugalkortasun maila aurreikusitakoa baino askoz gehiago suspertzen ez bada.

Bestalde, biztanleen zifra osoaren bilakaerarekin batera, adinaren arabera egituren ere aldaketa garrantzitsuak egongo dira. 2020ko piramideak 2006koari dagokionez dituen aldaketak zenbait faktoreren eraginezkoak izango dira: lehenengo eta behin, biztanleria-egituren ohiko inertzia handiaren eraginezkoak, zenbaki-diferentzial handiko kohorteko piramidearen profiletik igarota; bestalde, fenomeno demografikoetan aurreikusten den bilakaeraren eta horrek adin-egiturekin duen loturaren eraginezkoak. Kohortek ugarienak, gaur egun hel-

duen eta gazteen artean kokatzen direnak, helduetara igaroko dira, eta, aldi berean, efektibo kopuru txikiagoko belaunaldiek ordeztuko dituzte. Horren ondorioz, 20-39 urte bitarteko biztanle taldea murriztu eta 40-59 urte bitartekoa, aldiz, handitu egingo da. Biztanleriaren hazkunde itzela izango da piramidearen goialdean, belaunaldi ugariagoak iristearren eta adin nagusiagoetan bizirik irauteko baldintzetan egongo diren hobekuntzen arteko erlazio positiboaren ondorioz. Azkenik, 20 urtetik beherako biztanlerian, fenomeno eta egitura demografikoen arteko lotura egiztatzen da; izan ere, haur eta gazte kopurua handitu egingo da, ugalkortasuna handiagoa izatearen eta inmigrazioak egingo duen ekarpenaren eraginez. Hala eta guztiz ere, gero adin ugalkorreko emakume kopurua murriztu egingo da, eta, horrela, 4 urtetik beherako efektiboak 2006an erregistraturikoak baino gutxiago izango dira 2020an.

Adin talde handien arabera bilakaerak agerian jartzen duenez, 16 urtetik beherakoen taldea handitu egingo da 2017ra arte, eta urte horretan talde hori 331.000 pertsonatik hurbilekoa izango da; gero, beheranzko joera hasiko du, taldean mende honetako bigarren hamarkadan jaiotako kohorteak sartu ahal. 2020an taldeko efektiboak 325.000 pertsona ingurukoak izango dira (2006an baino 44.000 gehiago). Zifra horrek agerian jartzen du joan den mendeko 90eko hamarkadako lehenengo bosturtekoan izandako mailetara itzuliko garela. Bestalde, lan egiteko adinean dagoen biztanleriak (16-64 urte bitarteko biztanleak) egonkortasun handiagoa dauka, baina 2010etik aurrera beheranzko joerarekin; horren eraginez, 2006tik 2020ra ia 49.000 pertsona murriztapena egongo da (%3,4ko beherakada). Azkenik, 65 urteko edo gehiagoko biztanleriak mantendu egingo du hazkunde iraunkorreko joera, ia


400.000 pertsonatik 500.000 pertsona baino gehiagora igaroko baita 2006tik 2020ra (hau da, %26,5eko hazkunde).

(b) Biztanleriaren etorkizuneko joerak, Lurralde Historikoen arabera


EUSTATEk egindako aurreikuspenaren arabera, hiru Lurralde Historikoei hazkunde demografiko positiboak izango dituzte, baina intentsitatean desberdintasun handiak egongo dira euren artean. Aipatzekoa da Arabako aurreikusitako ibilbidea, bertako egoiliar kopuruak 37.000 pertsonakoa baino murriztapen apur bat handiagoa izango baitu 2006tik 2020ra (urteko milako 8,2ko batez besteko tasa). Beste bi lurraldeen dinamismo demografikoa, aldiz, txikiagoa izango da. Bizkaiko biztanle kopuruak 44.000 pertsonatik gorako hazkunde izango du (urteko batez bestekoa milako 2,7koa). Hazkunde absolutu eta erlatiborik txikienak Gipuzkoan egongo dira: +20.000 biztanle eta urteko milako 2,8. Desberdintasun horiek luzatu eta sakondu egiten dituzte azken bosturtekoetan ikusitako joerak: horien eraginez, gainera, Arabako biztanleriak EAEn duen partaidetza gero eta handiagoa izango da. Partaidetza hori %15,4koa izango da 2020an; Gipuzkoako partaidetza 2006ko %32,3tik 2020ko %31,7ra igaroko da.

Lurralde Historikoetako biztanleriaren bilakaera, bestalde, EAE osorako aurreikusitakoaren antzekoa da; hau da, lehenengo urtean irabaziak metatu eta, gero, egonkortze-aldia egongo da. 2007-2011 bosturtekoarako aurreikusitako hazkunde-tasa aurreko bosturtekoa baino handiagoa da, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan. Aldiz, azken aldiak tasa hori nabarmen murriztuko da bi lurraldeetan; Araban, berriz, hazkunde demografikoa oraindik ere nabaria izango da, baina aurreko bosturtekoetan baino erritmo motelagoa izango du.

I.1.8. Grafikoa. Iraganeko hazkunde-tasen eta proiektaturiko tasen arteko konparazioa EAEn eta Lurralde Historikoen arabera



Iturria: EUSTAT.

I.1.9. Grafikoa. EAEko proiektzio demografikoa 2018rako: Aurreikusitako hazkundera, osagaien arabera

Iturria: INE. Proiektzio Demografikoak 2018.

Arabako dinamismo handiagoa, izan ere, intentsitate erlatibo handiagoko migrazio-saldook egotearen (+32.000) eta saldo begetatiboak (+5.000) eginkizun garrantzitsuagoa izatearen eraginezkoa izango da. Bizkaian, bestalde, dinamika demografikoaren ezaugarri nagusia hauxe izango da: heriotza kopurua jaiotza kopurua baino handiagoa izatea, urte guztietan; horrek ia 14.000 biztanle galtzea eragingo du, eta hori, berriz, 58.000 pertsonako saldo positiboarekin konpentsatuko da. Azkenik, Gipuzkoako hazkunde moderatuagoa migrazioaren ekarpen urriagoaren eraginezkoa izango da (+19.000), baita berezko hazkundearen ekarpen urriaren eraginezkoa ere (1.000 pertsona baino apur bat gehiago), eta hazkunde hori 2015ean negatiboa izango da.

Adin talde nagusiek Lurralde Historikoen arabera duten bilakaera, oro har, EAE osorako azaldukoaren antzekoa da, baina bereizitasunak ere baditu. Lurralde guztietan haurren biztanleria hazi egingo da lehenengo urteetan, eta gero murriztu egingo da; beherazko joera hori lehenago helduko da Gipuzkoara, eta azkenen Arabara iritsiko da. Hala eta guztiz ere, aldiaren amaieran, 16 urtetik beherako biztanleria 2006koa baino apur bat handiagoa izango da; batez ere, Araban (%25), gero Bizkaian (%16) eta, azkenik, Gipuzkoan (%12).

Helduen biztanleriaren ibilbideak aldeak ditu lurralde batetik bestera; izan ere, Araban gorakadaxoa izango du (%+3), eta Bizkaian eta Gipuzkoan murriztu egingo da (hurrenez hurren, %-3,5 eta %-6). Azkenik, adinik nagusieneko biztanleriaren hazkundera orokorra izango da, batez ere Araban (%+40), eta txikiena Bizkaian izango da (%+22). Hala eta guztiz ere, 2020an ere, adineko pertsonen garrantzi erlatibo txikiagoa Araban izango da (%20,8), eta ehunekorik handiena Gipuzkoakoa izango da (%23,1). Azken batean, Arabako biztan-

leriak Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak baino hazkunde erlatibo handiagoa izango du, eta apur bat gutxiago zahartuko da; gainera, dinamismo demografiko handiagoa izango du berriro, azken hamarkadotan gertatu den bezala.

Amaitzeko, INEk proiektzio demografiko berriak argitaratu ditu 2008-2018 aldirako. EAEko egindako zenbatespenen arabera, erakunde horrek biztanle kopurua etengabe galduko dela aurreikusi du, eta galera hori, aldiaren amaieran, 28.000 pertsonakoa izango da. Izan ere, EUSTATEN proiektzioetan ez bezala, INEren aurreikuspenen arabera, EAEko migrazio-saldoa negatiboa izango da aintzat hartutako aldi osoan, beste herri batzuetatik iritsitako pertsona kopurua ez baita nahikoa izango estatuko gainerako eskualdeekiko migrazio-mugimenduak konpentsatzeko (saldo negatiboko mugimenduak). Horren ondorioz, aztertutako urte horietan, atzerriarekiko saldoa 10.663 pertsonakoa izango da, eta gainerako Autonomia Erkidegoekiko saldoa -21.089 pertsonakoa izango da. Era berean, INEren proiektzioek aurreikusi dutenez, hazkunde begetatiboa (jaiotzak ken heriotzak) negatiboa izango da 2011tik aurrera; EUSTATEk egindako kalkuluen arabera, berriz, egoera hori 2014tik aurrera gertatuko da.

1.1.2. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera

(a) Biztanleriaren berezko mugimendua

2007rako behin behineko datuek diotenez, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren aldaketa, jaiotza eta heriotza kopuruaren arteko kenduratzat, migrazio-mugimenduak kontuan hartu barik) positiboa izango da, laugarren urtez jarraian, eta hori EAEn ez da 1986tik gertatu: urte horretan 20.559 jaiotzakoa (aurreko urtean baino %2,8 gehiago) eta 19.252 heriotzakoa (2006an baino %4 gehiago) izan zen. Horren ondorioz,

I.1.3. LAUKIA. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA EAE-N

	Bizirik jaiotakoak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde beget.	Tasa
2001	17.647	8,5	18.087	8,7	-440	-0,2
2002*	18.133	8,7	18.619	8,8	-486	-0,1
2003*	19.267	9,2	19.305	9,2	-38	0,0
2004*	19.594	9,3	18.684	8,9	910	0,4
2005*	19.715	9,3	19.425	9,2	290	0,1
2006*	20.043	9,5	18.507	8,7	1.536	0,8
2007*	20.596	9,7	19.252	9,1	1.344	0,6

(*) Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasa.
Iturria: EUSTAT "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta geuk landuta.

+1.344ko hazkunde begetatiboa egon da, edo milako 0,6koa. EAEko hazkunde begetatiboak beherakada etengabea izan du 14 urtetan, eta, oraindik behin betiko datuak ez baditugu ere, esan daiteke 2004an geldiarazi egin dela, azkenean; hala ere, hurrengo urteotan berretsi egin beharko da joera hori. 60ko hamarkadan eta 70eko hamarkadaren hasieran izandako saldo begetatibo gogorren ostean, 1990ean sango negatiboa izan zuen lehenengoz 1937tik, eta gutxienekoa 1996an izan zen: urte horretan EAEk 2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan zuen.


Beti bezala, 2007an jokabidea desberdina da lurralde bate-tik bestera; hala ere, Bizkaia, 2006an 77 biztanleko saldo positiboa izan ondoren (hamarkada osoan lehenengoz), 222 biztanle galdu ditu 2007an. Aldiz, Gipuzkoak eta Arabak urte horretan ere handitu egin dute biztanle kopurua, hain zuzen ere, 953 eta 613 pertsona, hurrenez hurren.

2007an jaiotza kopuruak bilakaera positiboak izan ditu hiru lurraldeetan, baina intentsitate desberdinekoak; alde batetik, Araban 3.027 haur jaio ziren (%+3,7); Bizkaian 10.416 jaiotza

egon ziren, aurreko urtean baino %3,3 gehiago. Gipuzkoan, azkenik, 7.153 haur jaio ziren, 2006an baino %1,6 gehiago. Eraitza horiek milako 9,7ko jaiotza-tasa adierazten dute EAE-rako, eta horrek finkatu egiten du jaiotza-tasan 1995ean hasi-tako gorakadatxo (bi hamarkada lehenagoko datuetara itzuli gara, 1985eko datuetara). 60ko hamarkadan zifra hori milako 20tik gorakoa zen, eta Estatuko batez bestekoa baino handia goa zen. Gaur egun, gorakadatxo egon arren, EAEk Estatuko (milako 10,8) eta Europako (10,6) batez bestekotik beherako tasak ditu.

Aipagarria da, urte honetan ere, ama ezkongabeetatik sortu-riko jaiotza kopuru gero eta handiagoa. 2007an EAEen jaiotako haurren %27 bikote ezkongabeen seme-alabak dira (2006an %24,7). Azken hamazazpi urte hauetan, ratio hori ia laukoiztu egin da, 1990ean guraso ezkongabeetatik jaiotako haurren ehunekoa %7,7koa baitzen. Konparazioa eginez, Estatuko (2006an %28,4) eta EBko (2005ean %33) batez bestekotik be-herako ratioa da, EBko estatuen arabera, ehunekoak honako hauen artekoak dira: Suediaren (%54,7) edo Estoniaren (%58,1)

I.1.10. Grafikoa. Jaiotzen bilakaera Lurraldeka, eta ezkondu gabeko amatik jaiotako ehunekoa, EAE



eta Zipreren (%5,6) edo Greziaren (bizirik jaiotako %5) artekoak. EBtik kanpo, aipatzekoa da Islandiako tasa altua, 2006an jaiotako %65,6ren ama ezkongabea baitzen.

Bestalde, EUROSTATen datuen arabera, 2007an EBn 5,3 milioi jaiotza egon zen, 2006an baino %0,8 gehiago, eta 2002an baino %5 inguru gehiago; azken urte horrexetan egon zen jaiotza kopururik txikiena, Bigarren Mundu Gerratik. 60ko hamarkadan, bizirik jaiotako enuteroko zifra 2 milioitik gorakoa zen, 1965etik 1995era bitartean ugalkortasun-tasek izandako beherakada nabaria hasi baino lehen. Jaiotza-tasarik altuena Irlandan dago (milako 16,2); baxuena, berriz, 2006an bezala, Alemanian (milako 8,3).

Jaiotza-tasak azken urteotan izandako murriztapenean gehien eragin duen faktoreetariko bat, jakina denez, amatasuna gero eta gehiago atzeratzea da. 2007an joera hori mantendu egin da, eta EAEko amen adina aurreko urtekoaren antzekoa da. 2007an haurrak izan zituzten emakumeen %76,3 hogei-ta hamar urtetik gorakoak ziren. Talderik ugariena 30-34 urte bitartekoa da (%44,7), eta zifra hori 2006koa baino apur bat baxuagoa da; 35 urtetik gorako amen taldea urte horretan ere handitu egin da (jaiotza guztien %31,6; hau da, aurreko urtean baino puntu erdi handiagoa).


Ama guztien batez besteko adina 32,2 urtekoa da, eta lehenengo haurra duten amen batez bestekoa, berriz, 31,2 urtekoa. Horrela, lehenengo haurra izan duten amak EAEn dira beste inon baino zaharragoak, EBri dagokionez. Azken hamarkadan, 30 urtetik beherako ama talde guztiek garrantzia galdu dute; hala ere, azken urte horretan nolabaiteko gorakadatxoa egon da 25 urtetik beherako amen taldean, emakume immigra-teen eraginez, eta guztizkoaren ia %6ra heldu da.

I.1.4. LAUKIA. MILA BIZTANLEKO JAIOTZAK ETA HERIOTZAK EB-N. 1975 ETA 2007

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2007	1975	2007
EB-27	14,7	10,6	10,7	9,6
ALEMANIA	9,9	8,3	12,6	10,0
AUSTRIA	12,4	9,2	12,7	9,0
BELGIKA	12,2	11,4	12,2	9,5
BULGARIA	16,6	9,8	10,3	14,8
ZIPRE	16,3	10,8	9,8	6,9
DANIMARKA	14,2	11,7	10,1	10,2
ESLOVAKIA	20,6	10,1	9,5	10,0
ESLOVENIA	16,6	9,7	10,1	9,1
ESPAINIA	18,8	10,9	8,4	8,5
ESTONIA	14,9	11,8	11,6	13,0
FINLANDIA	13,9	11,1	9,3	9,3
FRANTZIA	14,1	12,8	10,6	8,3
GREZIA	15,7	9,8	8,9	9,6
HOLANDA	13,0	11,0	8,3	8,1
HUNGARIA	18,4	9,7	12,4	13,2
IRLANDA	21,1	16,2	10,4	6,3
ITALIA	14,9	9,5	10,0	9,6
LETONIA	14,2	10,2	12,2	14,5
LITUANIA	15,7	9,6	9,5	13,5
LUXENBURGO	11,1	11,4	12,2	8,1
MALTA	18,8	9,5	9,5	7,6
POLONIA	19,0	10,2	8,7	9,9
PORTUGAL	19,8	9,7	10,8	9,8
ERRESUMA B.	12,4	12,6	11,8	9,4
txEKIAR E.	19,1	11,1	12,4	10,1
ERRUMANIA	19,6	10,0	9,3	11,7
SUEDIA	12,6	11,7	10,8	10,0
EAE	19,1	9,7	7,1	9,1


Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

I.1.11. Grafikoa. Jaiotzen bilakaera, amaren adinaren arabera. EAE



Iturria: Eustat. Jaiotzen Estatistika.

I.1.12. Grafikoa. Nazioarteko adopzioak EAEn: Lurralde bakoitzeko eskabide kopurua eta azkenean egindako adopzio kopurua



Iturria: Geuk landuta, Foru Aldundien datuak erabiliz.

EAEko jaiotzei buruzko azterketa amaitzeko, eta alderdi kuantitatibotik begiratuta garrantzi handikoa ez bada ere, nazioarteko adopzioen fenomenoak aipatuko dugu; izan ere, garrantzi handia dauka gizartean, bikote kopuru jakinari seme-alabak edukitzeko nahia betetzeko aukera ematen baitio. Zenbait urtetan eragin handia izan du, eta, kopuruaren aldetik, gero eta garrantzi handigoa, bikoteek Foru Aldundiei egindako egokitasun-eskabideei dagokienez (manuzko alde aurreko txostena, eskabidea estatu jakinera bidaltzeko); ondoren, azken bi urtetan, adopzioen eskari kopurua murriztu egin da, batez ere prozedurak gogortu egin direlako eta estatu batzuk gero eta baldintza gehiago jartzen dituztelako (batez ere txinak, adopzioan hartutako haurrik gehienak bertakoak izan baitira orain arte). Guztia ere, urtero 300 haur inguru hartzen dira adopzioan EAEn (aurkezten diren eskabide guztien %50 baino gutxiago).

Europar Batasunean, azken datu erabilgarriek diotenez (2004ari buruzko datuak), nazioarteko 20.000 adopzio egin dira (Amerikako Estatu Batuetan 23.000), horietatik ia herena Espainian, Garrantziaren arabera, Espainiaren atzetik Frantzia, Italia, Suitza eta Holanda daude. Jatorri-herri nagusiak, EAEn bezala, txina, Errusia, Kolonbia eta Ukraina dira.

Bestalde, heriotzei dagokienez, 2007an EAEn 19.252 heriotza egon dira, aurreko urtean baino %4 gehiago; horietatik %52 gizonak izan dira eta %48 emakumeak. 2007ko heriotzen %30,2 tumoreen ondoriozkoak izan dira. Ondoren, zirkulazio-sistemako gaixotasunen ondoriozkoak, %29,7rekin, eta, hirugarrenez, nahiko urrunago, arnasketa-gaixotasunen eraginezko heriotzak (%9,6)².

Halaber, EUSTATEN Heriotzen Estatistikak agerian jarri duenez, Euskal Autonomia Erkidegoan 2007an hildakoen batez besteko adina 76,8 urtekoa izan da (2006an 76,6), gizonen kasuan 73,1 eta emakumeen artean 80,9. 83 urtera arte, ia adin guztietan, gizonen heriotza kopurua emakumeen kopurua baino handiagoa da. Hala eta guztiz ere, 84 urtetik aurrera, alderantzizkoa gertatzen da, eta emakumeen heriotza kopuruak bikoiztu egin du gizonena (inflexio puntu hori iraunkor mantendu da 2006ko datuei dagokienez).

Europar Batasuneko datuei dagokienez, 2003an mailarik altuena lortu zen, ia 5 milioi heriotzarekin; horrek milako 10,5eko tasa adierazten du urte horretan, eta EAEn tasa 9,2koa izan zen. Beheranzko itxurazko joera horren barruan, EBko heriotzen zifrek urte batetik besterako gorabehera garrantzitsuak izaten dituzte, eta, beraz, urte batzuk itxaron behar dira joera hori berresteko. 2007ko datuek diotenez, 4,8 milioi hildako egon dira, 2006ko kopuru bera, eta, horrela, hazkunde begatiboa edo berezkoa (jaiotzak ken heriotzak) milioi erdi bat pertsonakoa izan zen Europar Batasunean.

(b) Migrazio mugimenduak

EUSTATEN Migrazio Mugimenduen Estatistikak, 2007ari buruzkoak, urte horretan EAEn 17.692 pertsonako irabazia zenbatu du (aurreko urtean baino %22,4 gehiago); horrela, migrazio-saldoa positiboa izan da zortzigarren urtez jarraian. Lurraldeka, zifra absolutuetan migrazio-saldorik handiena Bizkaian dauka; hain zuzen ere, 9.209 pertsonako saldo positiboa eta %16ko hazkundera 2006tik. Arabak, bestalde, 4.224

² Memoria Sozioekonomikoari buruzko kapituluari zehatz aztertzen dira EAEko biztanleriaren heriotzen eragileak.

pertsona irabazi ditu (%+36), eta Gipuzkoak 4.259 pertsona (%+26).

Europar Batasun osoko joerei dagokienez, EUROSTATen datuek 2007ari buruz diotenez, beharakada nahiko handiko aldi baten ostean, 90eko hamarkadan EBn nazioarteko migrazio-jarioen saldo positiboak bi milioi pertsonako hazkundera izan zuen 2003an, dagoeneko finkaturik dauden datuen arabera. 2007an, bestalde, migrazio-saldoak hazkundera izan du 2006tik, eta 1,91 milioi pertsonakoa da (aurreko urtean 1,64 milioikoa); hain zuzen ere, migrazioaren tasa gordina milako 3,3koa da EB-27rako, eta 3,8koa EB-25erako. Jario guztien %84 baino gehiago hiru estatuturi soilik dagokie: Espainia, Italia eta Erresuma Batua. Gainera, migrazio-saldotan tasa gordin negatiborik handienak Poloniak eta Errumaniak dituzte (hurrenez hurren, %-3,6 eta %-4,7).

Bestalde, 2007an, 199.608 pertsonak (aurreko urtean baino %0,7 gutxiago) egoitza-aldaketaren bat egin zuen EAEn; mugikortasuna, kasu guztien %44,9an, udalerri beraren barruan izan zen, eta %22,5ean EAEko bi udalerri desberdinen artean. Gainerako kasuei dagokienez, 41.361 kasutan kanpoko inmigratioak izan ziren (jatorria EAetik kanpo eta helmuga EAE), eta 23.669 kasutan, berriz, kanpoko emigratioak (jatorria EAE eta helmuga bertatik kanpo).


EAEn eta gainerako Autonomia Erkidegoen arteko mugimendua soilik aintzat hartuz gero, 2007an EAEn iritsitako pertsona kopurua joandakoa baino 2.192 pertsonakoa txikiagoa izan zen; beraz, urte horretan ere, saldoa negatiboa izan zen. Bestalde, atzerriko estatuetatik iritsitako pertsonen migrazio-saldoa positiboa da, hain zuzen ere, 19.884 pertsonakoa, eta horrek %9,7ko hazkundera adierazten du aurreko urteari dagokionez.

II.1.5. LAUKIA. EAE-KO MIGRAZIO SALDOEN BILAKAERA

	Atzerriarekin	Estatuarekin	Kanpoko Migrazio Saldoa*			
			EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2000	6.362	-3.802	2.560	1.463	804	293
2001	8.417	-1.338	7.079	2.278	3.184	1.525
2002	9.890	-3.653	6.237	2.301	3.425	774
2003	9.700	-3.449	6.251	1.828	3.617	806
2004	11.664	-2.640	9.024	2.955	5.168	901
2005	14.742	-1.478	13.264	3.028	7.603	2.633
2006	18.134	-3.676	14.458	3.271	8.021	3.166
2007	19.884	-2.192	17.692	4.224	9.209	4.259

(*) Estatuarekiko eta atzerriko estatuekiko migrazio-saldoen batuketak.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduen Estatistika".

I.1.13. Grafikoa. Migrazio Saldoen bilakaera EAEn



I.1.6. LAUKIA. MIGRAZIOAK LURRALDEAREN ETA MOTAREN ARABERA. 2007

	Inmigrazioa	Emigrazioa	Kanpoko Mig. Sald.	Barruko Migr. Helmuga	Barruko Migr. Jatorria	Barruko Mig. Sald.	Udalerri barruko Migrazioak
EAE	41.361	23.669	17.692	44.978	44.978	0	89.600
Lurralde Historikoak							
Araba	7.857	3.633	4.224	4.133	3.961	172	17.547
Bizkaia	22.081	12.872	9.209	27.323	27.434	-111	46.854
Gipuzkoa	11.423	7.164	4.259	13.522	13.583	-61	25.199
Eskualdeak							
Arabako Ibarrek	140	117	23	228	172	56	72
Arabako Lautada	6.508	2.804	3.704	2.439	2.371	68	15.689
Arabako Mendialdea	47	20	27	117	107	10	82
Arratia Nerbioi	413	156	257	848	658	190	627
Bidasoa Beherea	1.727	1.234	493	1.224	1.159	65	2.964
Bilbo Handia	17.115	10.627	6.488	19.030	20.198	-1.168	36.676
Deba Beherea	912	452	460	1.085	1.073	12	2.077
Deba Garaia	910	544	366	909	1.139	-230	2.197
Donostialdea	3.754	3.309	445	5.841	5.815	26	12.305
Durangaldea	1.772	775	997	2.288	2.136	152	3.429
Enkartzioak	569	340	229	908	696	212	1.094
Errioxa Arabarra	516	341	175	230	155	75	440
Gernika-Bermeo	818	384	434	1.131	1.105	26	2.174
Goierri	2.215	770	1.445	1.754	1.774	-20	2.149
Gorbeia Inguruak	145	79	66	422	301	121	221
Kantauri Arabarra	501	272	229	697	855	-158	1.043
Markina-Ondarroa	556	212	344	640	684	-44	1.264
Plentzia-Mungia	838	378	460	2.478	1.957	521	1.590
Tolosaldea	721	317	404	1.339	1.321	18	1.020
Urola-Kostaldea	1.184	538	646	1.370	1.302	68	2.487

Iturria: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistikak.

Erkidegotik kanpoko mugikortasunari dagokionez, 2007an horrek EAEko mila biztanletik 30,5ean izan du eragina (Arabako milako 37,5; Bizkaian milako 30,7, eta Gipuzkoan milako 27,1); tasa horiek nahiko txikiak dira, gainerako autonomia-erkidegoetakoekin konparatuta; izan ere, horietan, batez beste, mila biztanletik 51 mugitzen dira. EAEri biztanlerik gehien ematen dioten erkidegoak honako hauek dira: Murtzia, Katalunia, Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Valentziako Erkidegoa eta Aragoi. Gainera, EAEko emigranteak erakartzen dituzten erkidegoak Kantabria, Gaztela eta Leon, Nafarroa, Errioxa, Galizia eta Madril dira, ordena horrekin. Seien artean, EAE uzten duten pertsonen erdia jasotzen dute.


Atzeritarren inmigrazio kopurua 28.928koa izan zen 2007an (2006an baino 4.676 gehiago); hain zuzen ere, EAEn egindako sarrera guztien %70 dira, 2000tik EAEn hazkunde nabaria egon da atzerriko inmigranteen sarrera-bolumenean. Balio absolutuetan, 7.328 sarreretatik 2006ko ia 29.000 sarreretara igaro gara; hau da, zazpi urtetan sarrera-bolumena 3,9 aldiz handiagoa da. Kontuan hartu behar da, gainera, atzerriko inmigrante horietariko batzuk beste Autonomia Erkidego batzuetatik datozela (7.113 pertsona).

Azkenik, titulazioari dagokionez, inmigrazio guztien %54k heziketa mailarik baxuenak dituzte, eta emigrazioen kasuan

ehuneko hori %52koa da; heziketa mailari altuenei dagokionez, berriz, emigrazioen kasuan %16 dira, eta inmigrazioetan %15. Gainera, inmigranteen eta emigranteen batez besteko adina desberdina da (hurrenez hurren, 30,9 eta 35,1).

(c) Ezkontzak

Jaiotzen eta Heriotzen, Estatistikarekin batera, Biztanleriaren Berezko Mugimendua osatzen du. Estatistika horren antzinasunak (Estatuan 1861etik daukagu horri buruzko informazioa, Elizaren artxiboei esker) aukera ematen du aldi horretan izan diren aldaketa demografikoak hobeto ezagutzeko. EUSTATen datuen arabera, 2007an EAEn 9.613 ezkontza egin ziren, sexu desberdineko egoiliarren artekoak (sexu berekoen arteko 101 ezkontza), hain zuzen ere, aurreko urtean baino 165 gutxiago. Aipagarria da ezkontza zibilen kopuruak azken urteotan izandako hazkunde garrantzitsua, 1990eko %23,3tik 2007ko %51,1era igaro baita. Guztira, 4.913 ezkontza dira; ezkontza katolikoak, berriz, 4.689 izan dira, eta beste erlijio batzuetakoak 11. Lurralde Historikoen arabera, ezkontza-ehunekorik handiena Bizkaian eta Gipuzkoan egon da (bi kasuetan %52), eta, gero, Araban (%51). Ezkondu baino lehenagoko egoera zibila kontuan hartuta, ezkongabeko gizonak %91,7 izan dira, eta ezkongabeko emakumeak %9,6 (gizonen antzeko ehunekoak).

I.1.14. Grafikoa. Ezkontza zibilen ehunekoaren bilakaera, lurralde historikoen arabera

Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika.

**I.1.7. LAUKIA. FENOMENO DEMOGRAFIKOAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA.
1.000 BIZTANLEKO TASAK. 2007**

	Jaiotza-tasa	Heriotza-tasa	Ezkontza-tasa	Ezk. desegiteko tasa
Andaluzia	12,07	8,20	5,24	2,96
Aragoi	10,05	10,27	4,32	2,35
Asturias	7,43	11,89	5,03	3,54
Balearrak	11,42	7,50	4,08	3,66
Kanariak	9,74	6,61	3,27	4,05
Kantabria	9,32	10,10	5,50	2,88
Gaztela eta Leon	8,06	10,77	4,74	2,09
Gaztela-Mantxa	10,24	9,02	5,25	2,23
Katalunia	11,71	8,45	4,14	3,57
Valentziako E.	11,31	8,44	4,56	3,46
Extremadura	9,46	9,76	4,99	2,06
Galizia	8,01	11,05	4,35	2,87
Madril	12,19	6,83	3,72	3,07
Murtzia	13,37	7,28	4,17	2,72
Nafarroa	11,08	8,72	4,52	2,30
EAE	9,78	8,98	4,33	2,49
Errioxa	10,57	9,11	4,38	2,63
Ceuta	20,56	7,24	5,39	3,69
Melilla	19,49	661,00	7,35	3,93
GUZTIRA	10,95	8,57	4,47	3,04


Iturria: INE.

Horrela, EAEn ezkontza-tasa 1.000 biztanleko 4,3 ezkontzakoa da, Europar Batasuneko estatuen multzo osoko tasa (milako 4,9) eta Estatukoa (milako 4,5) baino apur bat txikiagoa. Ezkontza-tasarik handieneko Europako estatuak honako hauek dira (2007rako behin-behineko datuak): Errumania (1.000 biztanleko 8,8 ezkontza), Zipre (7,5) eta Danimarka (6,7). Ratoririk

baxuenak dituztenak Eslovenia (milako 3,2), Bulgaria (3,9) eta Luxenburgo eta Hungaria (biak 1.000 biztanleko 4,1 ezkontzarekin) dira.


Halaber, amatasun-adinak gora egitearekin batera, ezkontideen adinak ere gora egin du: 2007an ezkontutako gizon ezkongabe gazteen batez besteko adina 33 urtekoa izan zen

I.1.15. Grafikoa. Ezkontzen diren ezkongabeen batez besteko adina. EAE



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika.

I.1.16. Grafikoa. Ezkontza-desegiteak EAEn: Banantzeen eta dibortzioen bilakaera



Iturria: INE. Deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika.
(*) Desegite kopuru osoaren barruan, elizako deuseztasunak ere sartzen dira.

EAEn, eta emakume ezkongabeen kasuan 31 urtekoa. 1986tik, senar-emazteen batez besteko adinak 5.6 eta 6.1 urteko hazkundera izan du hurrenez hurren, senarren eta emazteen kasuan. Fenomeno hori, neurri handiagoan edo txikiagoan, Europa osoan gertatu da, baina eremu geografikoen arabera desberdintasunekin: Baltikoko estatuetan eta, oro har,

Ekialdeko European ezkontideen adina txikiagoa da bi sexuetan. Mendebaldeko European baino.

Bestalde, INEren "Deuseztasunen, Banantzeen eta Dibortzioen Estatistika"³ deritzonak dioenez, dibortzio eta banantze kopurua egonkortu egin da, bai EAEn eta bai Estatuan. Hain zuzen ere, 2007an 4.956 dibortzio eta 377 banantze egon zi-

³ "Deuseztasunen, Banantzeen eta Dibortzioen Estatistika" Lehen Auzialdiko, Instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriako epaitegiek emandako informazioan oinarrituz egin da (ezkontza-lotura desegiteko prozesuei buruzko informazioa).

ren. Deuseztasunen oraingo batez besteko kopurua 6koa da, informazio hori jakitera eman denetik.

Guztira, erreferentziako urtean 5.337 deuseztasun egon ziren, 2006an baino %7,1 gutxiago; hain zuzen ere, mila biztanletik 2,5eko ratioa, eta Estatuko batez bestekoa milako 3koa da. Ezkontza deuseztasunen tasarik handiena duten autonomia-erkidegoak Kanariak (milako 4), Balearrak (3,7) eta Katalunia (3,6) dira; tasarik txikiena duten autonomia-erkidegoak, berriz, Extremadura (2,1), Gaztela eta Leon (2,1) eta Gaztela-Mantxa (2,2). Nazioarteko konparazioei dagokienez, dibortzioen tasa gordin, azken urteotan, milako bi ingurukoa da Europar Batasunean; hain zuzen ere, Maltako Otik (dibortzioa ez dago legeztatuta) eta Italiako 0,8tik Estoniako eta txekiar Errepublikako milako 3ra eta Lituaniako milako 3,4ra.

2005ean (oraindik motel) eta 2006an eta 2007an (ageri-agerian), aldaketa bat ikusi da deuseztatzeen osaketan; hau da, dibortzio kopuruak gora eta banantze kopuruak behera egin du, banantzearen eta dibortzioaren arloko Prozedura Zibilaren Legea eta Kode Zibila aldatu dituen uztailaren 8ko Estatuko 15/2005 Legea onestearen ondorioz. Arau horrek aukera ematen du alde zuzenetik banandu barik dibortziazeko.

EAEn banantzen edo dibortziazten diren pertsonen profilari dagokionez, azken datu erabilgarriek adierazitakoaren arabera (2005ari buruzko datuak), gehienak 30-50 urte bitartekoak dira, eta gehienetan emakumeak gizonak baino gazteagoak dira. Gainera, kasu guztien erdian, ezkontideek ez dute seme-alabarik: kasu guztien %36,5ean seme-alaba bateko bikoteak dira, %17,4an bi seme-alabako bikoteak, eta %1,7an hiru seme-alabako edo gehiagoko bikoteak.

1.1.3. Familiak eta laneko bizitza eta bizitza pertsonala adiskidetzeko arazoak

Familia gizartearen funtsezko elementua da, gizartean dituen eginkizunak garrantzitsuak direlako; batez ere, haurren gizarteko kokapena eta identifikazioa egitea, mendekotasuna duten seme-alabak zaintzea, kideen mantenuaz arduratzea, kideak sozializatzea, horiei euskarri afektiboa eta emozionala ematea, eta elkarri laguntza eta babesa ematea.

EUSTATEN "Inkesta Demografikoa 2008" deritzon jasotako datuen arabera, 1996tik 2006ra bitartean EAEn 104.000 familia inguru sortu ziren, eta horrek %15eko hazkundea adierazten du. Hazkunde hori biztanleriak izandakoa baino askoz handiagoa da (gutxi gorabehera %2), eta aldaketa nabariak sortu ditu familien egiturari eta tamainari: batez besteko tamaina 1996ko 3,05etik 2006ko 2,73ra igaro da, eta 2006an 2,64koa da; horrela, hamar urte horietan murriztapena %13,4koa izan da. Tamaina hori, Europar, Suediako, Finlandiako eta Danimarkako familiek izandakoaren antzekoa da; Danimarkan soilik da txikiagoa (2,5). EB-27ko batez besteko tamaina, 2007ko datuen arabera, 2,9 pertsonakoa da.

Familien tipologiari dagokionez, hamar urtetan pertsona bakarrek osaturiko familia kopuruak %6leko hazkundea izan du, eta seme-alabarik gabeko senar-emazteek edo bikoteek osaturiko familia kopuruak (ondorengorik ez dutenak edo horiekin bizi ez direnak) %51 baino hazkunde apur bat handiagoa, eta guztizkoaren %22 dira orain. Bi familia mota horien osaketa, adinari dagokionez, antzekoa da; izan ere, bi kasuetan ere, %61 baino apur bat gehiago emakumeak dira, ezkongabeak %48 eta alargunak %41,5. 1996an bakarrik bizi ziren emakume bananduak edo dibortziatuak 7.000 ziren, eta 2006an zifra hori bikoiztu egin da, eta orain 14.000 dira (%8,4). Bestalde, seme-alabarik gabeko familia kopuruak 59.000ko hazkundea izan du; aipagarria da halako familietan 80 hamarkadan seme-alabarik gutxien eduki zutenak sartzea, horiek independentzatu egin baitira.

Bestalde, familia tradizionala (aita, ama eta seme-alaba bat edo gehiago) 1986ko %63tik 1996ko %51ra eta 2006ko %40,8ra igaro da. Aldi berean, horren batez besteko tamaina murriztu egin da: 1986an 4,3; 1996an 3,9, eta 2006an 3,7. Zifra absolutuetan halako 30.600 familia inguru galdu dira 1996tik 2006ra.


Azkenik, EUSTATEN inkestak agerian jarri duenez, guraso bakarreko familia kopurua murriztu egin da, baina halako familien ezaugarriak finkatu egin dira: 2001etik 2006ra 16.000 inguruko murriztapena egon da; gainera, seme-alabadun ai-

1.1.8. LAUKIA. FAMILIAK MOTAREN ETA B.B. TAMAINAREN ARABERA (MILATAN). EAE 2006

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Familiak	B. best. tamaina	Familiak	B. best. tamaina	Familiak	B. best. tamaina	Familiak	B. best. tamaina
Guztira	787,0	2,64	111,3	2,66	423,5	2,62	252,1	2,65
Pertsona bakarrekoa	169,7	1,00	24,7	1,00	89,7	1,00	55,2	1,00
Konposatua	21,3	2,34	3,4	2,55	11,3	2,27	6,6	2,32
Nuklearra seme-alaba barik	164,7	2,00	23,8	2,00	87,5	2,00	53,4	2,00
Nuklearra seme-alabekin	299,3	3,59	43,4	3,61	161,3	3,56	94,5	3,61
Guraso bakarrekoa	65,5	2,39	8,0	2,49	37,5	2,37	20,0	2,37
Handitua	38,1	4,00	4,6	3,92	21,4	4,00	12,0	4,04
Polinuklearra	28,5	5,33	3,3	5,41	14,7	5,27	10,4	5,37


Iturria: EUSTAT. Inkesta Demografikoa, 2006.

I.1.17. Grafikoa. Emakumeen jarduera eta enplegu tasaren eta jaiotza tasaren bilakaera EAE-n



Iturria: Geuk landuta. EUSTATen datuetan oinarrituz.

I.1.18. Grafikoa. Amatasunak / aitasunak enpleguan duen eragina, 25-49 urte bitarteko gizon-emakumeen kasuan. EB, 2007




Iturria: EUROSTAT. Lan-indarraren inkesta, 2007.

Oharra: Adierazleak enplegu-tasen arteko desberdintasuna adierazten du, ehunekotan, 12 urtetik beherako seme-alabak aintzat hartuta eta aintzat hartu barik.

ta bakarreko familia kopurua (%30.4) seme-alabadun ama bakarreko familia kopurua (%15.4) baino gehiago murriztu da. Murriztapen erlatibo horren zergatia 2001eko guraso bakarreko familia asko 2006an pertsona bakarreko familia bihurtzea izan da, seme-alabak independizatzearen eraginez; murriztapen hori ez da konpentsatu familia berriak sortuta, banantzedo dibortzio-prozesuen ondorioz. Guztiarekin ere, tipologia hori guztizkoaren %8.3koa da.

Azken urteotan, familiak izandako aldaketek eta horiek ugalkortasun-tasetan izandako eraginek gero eta interes handiagoa sortu dute, joera horrek dituen ondorio garrantzitsuak dituelako. Ugaltzeko eta laneratzeko adinak bat etortzearen eraginez, emakume gazteak egoera zailean daude, seme-alabak edukitzeko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek enpleguarekin bateratu nahi dute amatasuna, eta, gainera, 15 urtetik beherako seme-alabak dituzten familia gero

I.1.19. Grafikoa. 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren enplegu-tasa, seme-alaba kopuruaren eta sexuaren arabera. EAE, 2008

Iturriak: EUSTAT. BJA.

eta gehiagotan, bikoteko bi kideek etxetik kanpo egiten dute lan. Horren ondorioz, bizikidetz-unitateetan arazo berriak sortu dira, ordaindutako lana eta familiaren zaintza adiskidetu behar izatearen arloan. Lanaren eta familiako bizitzaren arteko gatazka hori nabarmendu egiten da bi une hauetan: haurrak txikiak direnean eta, gero eta sarriago, mendekotasuna duten adineko pertsonak zaindu behar direnean.

Europako Batzordeak, egoera horretaz jabetuta, lehentasunezko sei arloetarikoen artean sartu du adiskidetz horren hobekuntza, 2006-2010eko gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako lan-planean; Europako Parlamentuak berak ere epaiak eman ditu amatasun- eta aitasun-baimenen legea hobetzeko. Izan ere, 2008ko urteroko estrategia politikoan, Batzordeak ekimen berriak abiatzeko konpromisoa hartu zuen, familiako eta lanbideko bizitza adiskidetzeko. Horrela, 2008ko urriaren 3ko Jakinarazpenean⁴, langileek familia-zergatien eraginezko baimena finkatzeko proposamenak aurkeztu zituen; batez ere, amatasuneko gutxieneko baimena 14 astetik 18ra luzatzea, OITek emandako gomendioaren arabera (Espainian 16 astekoa), emakumeei malgutasun handiagoa emateko, eta, horrela, baimena nola hartu nahi duten eurek erabakitze (erditu baino lehen edo gero) eta amatasun-baimena hartzen duten edo horren ostean berriro laneratzen diren emakumeen enpleguaren babesa hobetzeko.

Gainera, azpimarratu egin zen haurtzaindegi eskuragarriak eta kalitatezkoak egotea funtsekoa dela, gurasoek adiskidetzeari aukeratu ahal izateko; bertan salatu zenez, estatukiderik gehienak oraindik urrun daude 3 urtetik derrigorrezko eskola-

tze-adinera arteko haurren %90eko estaldura eskaintzeko helburutik, baita Bartzelonan 2002an finkaturiko 3 urtetik beherako %33tik ere (batez ere, 3 urtetik beherakoak); halaber, halako zerbitzuak edukita ere, garestiak izaten dira, edo irekitzeko ordutegiak ez dira bateragarriak izaten lanaldi osoko ordutegiarekin edo ordutegi ez-ohikoekin.

Izan ere, EUROSTATEk oraintsu egindako inkesta baten arabera, amatasunaren eta enpleguaren arteko lotura negatiboa da Europar Batasuneko estatuk gehienetan (-12,4 puntuko batez bestekoa); izan ere, seme-alaba kopurua zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta txikiagoa da amen enplegu-tasa; gizonen kasuan, berriz, eragin hori positiboa da (+7,3 puntu). Hala ere, estatu batetik besterako desberdintasunak nahiko handiak dira, adin txikiak zaintzeko zerbitzu-eskaintzaren arabera. EAEk ez dauka datu horiekin zuzenean konparatzeko moduko informazioirik; dena den, EUSTATEN "Biztanleria Jarduaren Arabera" inkestak dienez, emakumeen lan-tasa handiagoa da, oro har, seme-alaba bakarra duten artean, ama ez diren artean baino; oraindik ere handiagoa da bi seme-alaba dituzten artean, baina 3 seme-alabako edo gehiagoko emakumeen artean beherakada handia dauka. Gizonen artean ere badago beherakada hori, baina emakumeen kasuan baino motelagoa da.

2006an estatukideen artean egindako inkesta batek agerian jarri duenaren arabera, 3 urtetik beherakoak eskolatzeko %33ko helburua gainditzen duten bakarrak Danimarka, Holanda, Suedia, Belgika eta Espainia dira; Portugal, Erresuma Batua, Frantzia, Luxenburgo eta Eslovenia hurbildu egiten dira helburura. Gainerako herririk gehienak oso urrun daude hel-

⁴ JAK (2008) 635 azkena, "Oreka hobe laneko bizitzan: bizitza pribatua, lanekoa eta familiakoa adiskidetzeko laguntza gehiago". Europako Erkidegoen Batzordea, 2008.10.3.

**I.1.9. LAUKIA. HIRU URTETIK BEHERAKOEI LAGUNTZEKO ZENTROAK.
ESKAINTZARI ETA ESKARIARI BURUZKO DATUAK. 2007**

	Plazak / 1.000 haur		Bete gabeko esk. %	Eskariaren familia-egoera, %		
	Zentro pribatuak	Zentro publikoak		Ama eta aita lanean	Ama bakarrik lanean	Aita bakarrik lanean
Andaluzia	7,9	9,4	68,2	82,4	12,8	4,8
Aragoi	17,4	10,6	44,8	82,8	11,2	6,0
Asturias	10,2	6,5	71,1	81,1	13,2	5,7
Balearrak	26,1	9,5	39,2	77,0	15,1	8,0
Kanariak	16,6	10,6	57,6	67,3	22,1	10,5
Kantabria	10,4	12,7	52,4	77,0	15,5	7,5
Gaztela eta Leon	21,0	11,3	51,8	76,8	14,8	8,4
Gaztela-Mantxa	13,8	23,7	19,9	82,4	11,5	6,1
Katalunia	17,7	15,4	39,6	85,4	9,8	4,8
Valentziako Erk.	4,4	4,8	81,8	83,7	11,0	5,3
Extremadura	4,3	23,1	54,0	85,1	10,3	4,6
Galizia	14,3	12,8	54,2	77,3	15,8	6,9
Madril	24,0	12,8	37,7	84,2	11,3	4,4
Murtzia	1,4	9,5	74,4	82,2	12,0	5,8
Nafarroa	15,7	25,4	28,8	80,1	12,4	7,6
EAE	22,9	29,4	10,5	85,1	10,3	4,6
Errioxa	21,9	18,4	23,1	81,3	12,2	6,5
Ceuta	11,7	4,7	38,8	72,0	15,4	12,6
Melilla	11,7	4,7	76,3	75,3	10,8	13,9
GUZTIRA	14,3	27,1	50,8	82,0	12,3	5,6

Iturria: LINM. Lehen haurzarorako zerbitzuen kalitatea eta eskariaren zenbatespena. 2007.

burua lortzetik; batzuk, gainera, %10etik beherako tasa dute, adibidez, Greziak, Hungariak, Austriak edo Poloniak. 3 urtetik derrigorrezko eskolatze-adinera bitarteko haurrei dagokienez, zortzi estatuk %90 gainditu dute, eta batzuk ia %100era heltzen dira, esaterako, Belgika edo Danimarka. Espainiak, iturri horrek dioenez, gainditu egin du %90.

Estatuan, Lan eta Inmigrazio Ministerioak egindako ikerketa baten arabera (Autonomia Erkidegoek emandako datuetan oinarrituz eta Europar Batasunak eskatuta egindako ikerketa), 3 urtetik beherako haurren zaintzarako zentroetan eskaintzarik handiena duen autonomia-erkidegoa EAE da (adin talde horretako mila haurreko 52,3 plaza, eta estatuko batez bestekoa milako 27,1ekoa da); halaber, bete gabeko eskariaren ratioa %10,5 dela kalkulatu da (Estatuko ratioa baxuena), eta Estatuko batez bestekoa %50,8 da. “Haurtzarorako zerbitzuen kalitatea eta eskariaren zenbatespena” txostenak (2007), autonomia-erkidego batzuetan bete gabeko eskariaren proportzio handia ez ezik, agintariak emandako datuen barreiadura ere nabarmendu zuen, baita eskaintza pribatuaren zati handi baten kontrolik eza ere.

Haur txikiak eta mendekotasuna duten familiako beste kide batzuen zaintzak EAEan dituen zailtasunei dagokienez, Emakundek oraintsu egindako ikerketa batean ondorioztaturikoaren arabera, gero eta pertsona gehiagok familiako eta laneko bizi-tza adiskidetzeko lan-baldintzak malgutzeko neurriak aukeratu zituzte; neurri horiek, gehienbat lanaldi-murritzapenak, mugatu egiten dute eurak erabiltzen dituzten pertsonen (batez ere, emakumeak) lanbide-garapena.


I.1.10. LAUKIA. BADU ZEURE ENPRESAK HALAKO BATERATZE NEURRIEN BAT INSTALATUTA? (INOREN KONTURAKO LANGILEAK). ERANTZUN ANITZA. EAE 2008

	EMAK.	GIZ.
Lan-arrazoien eraginezko lanaldi-murritzapena	71,7%	64,0%
Familiakoak zaintzeko eszedentzia	59,2%	53,9%
Malgutasuna oporraldietarako eta baimenetarako	49,4%	57,5%
Ordutegi malguak	48,3%	54,1%
Ordaindutako baimenak	46,8%	51,0%
Trebakuntzarako baimenak	48,1%	45,0%
Beste zergati batzuen eraginezko lanaldi-murritzapena	49,5%	41,1%
Ordaindu gabeko oporrak	13,7%	14,7%
Ordu jakinetik aurrera bilerak egiteko debekua	12,7%	13,9%
Etiket lan egiteko aukera (telelana)	5,7%	5,8%
Hautzaindegiak, haurren zaintza	3,9%	5,9%
Ezein ere ez	6,7%	9,2%

Iturria: EMAKUNDE. “Desberdintasuna EAEko emakumeen lanbideko ibilbidean eta egoeran. Emakume-talentua galtzearen kostu erlatiboa”. 2009.

Ikerketan parte hartu zuten pertsonen iritziz, enpresek adiskidetasun-neurriak buruz duten jarrera, oro har, ez da uniformea; kasu batzuetan, erraztu egiten da ordutegi-malgutasuna, eta

I.1.20. Grafikoa. Egokitzen dira zeure enpresako / sozietateko neurriak bizitza pribatua eta laneko bizitza adiskidetzeko oraingo beharrianetara? (Langileak). EAE, 2008



Iturria: EMAKUNDE. "Desberdintasuna EAEko emakumeen lanbideko ibilbidean eta egoeran. Emakume-talentua galtzearen kostu erlatiboa". 2009.

beste zenbaitetan, berriz, zaildu egiten da hori. Ikerketak dienez, lan-tipologia oso desberdinak daude; batzuek bidaia-tzeko arduraldi eta aukera handiagoa behar dute, eta, kasu horietan, oraingo adiskidetzeko-neurriak ez dira bateragarriak. Gehienetan, gizonen lanpostuak izaten dira.

Inkestaturiko pertsonen enpresetan ezarritako adiskidetzeko-neurriek zantzuak ematen dituzte oraingo lan-egoeraren argakia egiteko; lehenengo eta behin, aipatzekoa da emakumeen %6,7k eta gizonen %9,2k euren enpresetan adiskidetzeko-neurriak ez dagoela esatea. Halako neurriak dituzten enpresetan, gehien aipatzen direnak familia-zergatien eraginezko lanaldi-murriztapena (emakumeen %71,1 eta gizonen %64) eta familiakoak zaintzeko eszedentzia (%59,2 eta %53,9, hurrenez hurren) dira. Bigarren postuan, bi sexuen kasuan %50 inguruko ratioekin, malgutasun mota desberdinak daude (ordutegiak, oporraldiak), baita baimenak ere (ordaindutakoak, trebakuntzarakoak, etab.). Beste neurri mota bat, adibidez, telelanak edo lantokietan haurtzaindegiak egoteak, ratio oso txikiak dituzte.

Familia-kargak dituzten langileek neurri horiei ematen dioten erabilerrari dagokionez, oro har, emakumeek gehiago erabiltzen dituzte adiskidetzeko-neurriak, eta, batez ere, lanorduen murriztapena eragiten dutenak: amatasunaren eta aitatasunaren eraginezko baimenak eta murriztapenak. Langileek enpresen sentikortasun mailari buruz egindako balorazioaren aldetik, gizonak 6,29 puntu ematen dizkiete, batez beste, eta emakumeek 6,53. Ikerketan, gainera, esaten da balorazioa txarragoa dela lanaldi-murriztapena duten emakumeen kasuan (10etik 6,31 puntu).

Bizitza pertsonala eta lanbidekoa adiskidetzeko neurri erabilgarriak hartzeari buruzko balorazioak, oro har, agerian jartzen

du familia-kargak dituztenen artean poztasun eza handiagoa dagoela, gehienbat gizonen artean. Hau da, oraingo adiskidetzeko-neurriekiko desadostasunik handiena dutenak familiako kargak dituzten gizonak dira, uste baitute neurriak ez direla euren beharrianetara egokitzen.

Halako egoerak arintzeko, 2002an Eusko Jaurilaritzak "Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearen arteko I. Plana" abiatu zuen, familiei seme-alaba kopurua askatasunez aukeratzeko ekiditen dieten oztopo ekonomikoak eta gizarteak edo lanbidekoak kentzeko. Plan horrek 220 milioi eurotik gorako gastua eragin zuen, funtsezko hiru neurri motatan: haur-eskolen finkapena (%34), familiei seme-alabak jaiotzeagatik eta adopzioan hartzeagatik emandako diru-laguntzak (%30,7) eta langileei laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko emandako laguntzak (%23,9).

Bigarren Plana 2006an abiatu eta 2010era arteko indarraldia izango du. Plan horren Bitarteko Ebaluazioaren txostena (2006-2008), bestalde, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko neurriei jarraipena emateko eta neurriok indartzeko nahiz zabaltzeko eratu da, baita aurreko Planean aurreikusitako gastu-kontzeptuak betetzeko laguntza berriak sartzeko ere; plan horretan ondorioztatzen denez, lehenetsun nagusienetarikoa bat familiaren arloko arazuko esparru zabala lortzea da, EAEn aurrerantzean garatzen diren gizarte-politiken oinarriak finkatzeko, eta, horrela, 2020an Europarekin konbergentzia lortzeko.

Hori 2008an gauzatu da, Familiei Laguntzeko Legea onetsi denean, familia-politika integralerako oinarriak eta esparru juridiko handiagoa zuzkitzeko, eta, horrela, familien eta familiako kideen bizitza-kalitatea eta ongizatea hobetzeko. Horretarako, Legeak euren arduratan seme-alabak dituzten familientzako

1.1.11. LAUKIA. FAMILIAKOAK ZAINTEAREN ERAGINEZKO LANEKO ESZEDENTZIAK: SEME-ALABEN ETA FAMILIAKO BESTE KIDE BATZUEN ZAINZA. EAE ETA ESTATUA

	EAE						ESTATUA					
	Guztira		Seme-alabak		Familiakoak		Guztira		Seme-alabak		Familiakoak	
	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.
2005	86	1.821	70	1.737	16	84	1.465	30.270	946	27.457	519	2.813
2006	133	1.817	112	1.728	21	89	1.817	33.388	1.223	30.052	594	3.336
2007	150	2.248	116	2.113	34	135	2.327	37.910	1.481	33.335	846	4.575
Gizarte Segurantzako 1.000 afiliatuko ratioak:												
2005	0,16	5,00	0,13	4,77	0,03	0,23	0,14	4,19	0,09	3,80	0,05	0,39
2006	0,24	4,80	0,20	4,56	0,04	0,23	0,17	4,37	0,11	3,93	0,05	0,44
2007	0,27	5,70	0,21	5,36	0,06	0,34	0,21	4,75	0,13	4,18	0,08	0,57

Iturria: LINMren datuekin landuta. Laneko Estatistiken Urtekaria.

1.1.12. LAUKIA. ERABILI DUZU INOIZ HALAKO ADISKIDETZE NEURRIRIK? (FAMILIAKO KARGAK DITUZTEN INOREN KONTURAKO LANGILEAK). ERANTZUN ANITZA. EAE. 2008

	EMAK.	GIZ.
Amatasun/aitatasun baimena, bai biologikoa eta bai adopziozkoa	25,9%	12,3%
Familia zergatien eraginezko lanaldi-murritzapena	20,3%	13,3%
Oporraldietarako eta baimenatarako malgutasuna	13,0%	16,8%
Ordaindutako baimenak	8,9%	17,3%
Ordutegi malguak	17,3%	9,1%
Jaio aurreko azterketetarako, erdizteaz prestatzeko eta seme-alaba jaioberriak ospitaleratzeko baimenak	13,5%	5,3%
Trebakuntzarako baimenak	6,5%	8,3%
Seme-alabak edo familiakoak zaintzeko baimenak	7,2%	6,9%
Haurdunaldiko arriskuaren eraginezko etetea	9,2%	1,3%
Ordaindu gabeko oporrak	4,7%	4,2%
Beste zergati batzuen eraginezko lanaldi murritzapena	4,0%	3,8%
Familiakoak zaintzeko eszedentzia	4,9%	2,7%
Haurrak zaintzeko haurtzaindegia	—	3,4%
Etxean lan egiteko aukera (telelana)	2,2%	1,5%
Ordu jakinetik aurrea bilerak egiteko debekua	1,3%	—
Ezein ere ez	44,8%	45,5%

Iturria: EMAKUNDE. "Desberdintasuna EAEko emakumeen lanbideko ibilbidean eta egoeran. Emakume-talentua galtzearen kostu erlatiboa". 2009.

laguntzen zuzenbide subjektiboa ezartzen du, eta, gainera, familien aldeko indarreko neurrien banaketa antolatzen eta neurri berriak arautzen ditu. Halaber, familiaren arloko eskumen-banaketa arautzen da, hiru administrazio-mailen artean, eta, aldi berean, horren erakunde-antolamendua garatzen da, bi

euskarritan oinarrituz: Familiaren Euskal Kontseilua eta Familiaren Behatokia.


Halaber, programa batzuk finkatzearekin eta handitzearekin batera (seme-alaben jaiotzetarako laguntzak, lehenengo seme-alabaren jaiotzetarako ere bai; haurren zaintza adiskidetzeko programa...), II. Planak programa osagarriak sartzen ditu; esate baterako, zaintzaileak kontratatzeko programa edo mendekotasuna duten adin nagusikoen zaintzarako laguntzak. Hala eta guztiz ere, Planaren helburuak zein neurritan betetzen diren eta horrek zer estaldura maila duen jakiteko, txostenean esaten da beharrezkoa dela zenbait programatan kuantifikatzeko moduko adierazleak edukitzea (halakorik ez duten programetan).

Ebaluatu ahal diren programen artean, honako hauek aipatuko ditugu:


1. Ardurapeko seme-alabak edukitzeagatik ematen diren laguntzak: 2008an 28.175 laguntza eman ziren, aurreko urtean baino %40 gehiago, eta, horretarako, 25,3 milioi euroko aurrekontua betearazi zen. Laguntza horiek lehenengo seme-alabaren jaiotzetarako ere hedatuta, eta 2008an jaiotakoan banaketa kontuan hartuz (jaiotakoan %56 lehenengo seme-alabak izan ziren), %97ko estaldura maila lortzen da, eta hori egonkortu egin da planaren hiru urteko indarraldian.

2. 3 urtetik beherako haurrak dituzten familientzako diru-laguntzak, baita haurtzarorako laguntza-sarea finkatzekoak ere, hiru urtetik beherakoentzat: 2007/08 ikasturtean 4.960 laguntza eman dira, aurreko urtean baino %11,2 gutxiago, eta horien zenbatekoa 4,1 milioi eurokoa izan da. Laguntza horien estaldurari dagokionez, txostenak beherakada detektatu du, 2006/07 ikasturteko %18,7tik 2007/2008ko %16,6ra igaro baita.

3. Inoren konturako langileei emandako laguntzak, langileok seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi murritzapenean daudenean: 2008an 10.651 laguntza eman ziren, 2007an baino %41 gehiago, eta horietan egindako gastua 11,1 milioi eurokoa izan zen. Halaber, 10 laguntzatik 8 lanaldi murritzapenerako izan dira, eta gehienetan lanaldiaren

I.1.21. Grafikoa. EAEn emandako adiskidetze-neurrien bilakaera. Eszedentziak eta lanaldi-murritzapenak

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila.

I.1.22. Grafikoa. Inmigrazioaren bilakaera EBn, taldeen arabera. 2002=100

Iturria: EUROSTAT.

%33-40 murriztu da; halakoak hartu dituzten gizonak %3 baino ez dira izan.


1.1.4. Inmigrazioa EAEn

Nazioarteko migrazioak, denboraldi laburrean, nazioarteko agenda politikoaren eta garapen-agendaren gai nagusi-netarikoak izatera igaro dira, eta oraingo gizartearen eta ekonomia globalaren ezaugarri garrantzitsuenetarikoak dira. 1850-1910eko aldian, mundu osoko lehenengo migrazio-etapa

nagusia bizi izan zen; XX. mendeko 90eko hamarkadatik, berriaz, Bigarren Mundu Gerraren ostean hasitako migrazio-etapa handiaren bigarren zatia iritsi zen.


2006ko urtarilean, Europar Batasunean bizi ziren beste estatu batzuetako pertsonak 18,5 milioi inguru ziren, hau da, ia 493 milioi pertsonako biztanleriaren %3,8 (EUROSTATen datuak, EB-27). EBko hazkunde demografikoaren faktore nagusia inmigrazioa da oraindik, eta estatukiderik gehienetan inmigrazio garbi positiboa dago, urteko 500.000 eta milioi bat pertsona

I.1.23. Grafikoa. EBko hiritartasuna lortzea (milak)



Iturria: EUROSTAT.

I.1.24. Grafikoa. Immigrante kopurua, EAera eta Estatura iristearen zergatiaren arabera. Erantzun anitza. %. 2007



Iturria: INE. Inmigrazio Inkesta Nazionala 2007.

bitartekoa, 90eko hamarkadako zatirik handienean; 2002tik hona, gainera, 1,5 eta 2 milioi pertsona bitarteko mailetaraino hazi da. Azken informazio erabilgarria 2007ari buruzkoa da, eta urte horretan, 1.1.2. atalean ikusi dugunez, Batasuneko migrazio-saldo garbia 1,9 milioi pertsonakoa izan da, aurreko urtean 1,6 milioikoa izan ondoren.

Inmigrazioaren tipologia alde handia dago estatukide batetik bestera. Horrela, familia berriro biltzeko joera nabarmena da Austrian, Frantzia edo Suedian; beste zenbait estatutan, adibidez, Espainian, Portugalen edo Erresuma Batuan, lan-inmigrazioak ehuneko altua dauka⁵. Espainian erregularizazio garrantzitsuak egin ziren, eta Frantzia, Alemanian eta Herbe-

⁵ Gobernuak EAEn duen Ordezkaritzak emandako datuen arabera, 2007an 2.700 immigrante heldu dira geure erkidegora, familia berriro biltzeko prozesuen bidez. Administrazio-baimenei buruzko datuak askoz ere altuagoak izan arren, kontsultxe batzuek bederatzitik hamabost hilabetera bitarteko aldia behar izaten dute Estatuan sartzeko bisatuak emateko, immigranteei laguntzeko taldeek salatu dutenaren arabera.

hereetan, berriz, erregularizazio mugatuak, immigrante talde espezifikoetarako. EBn, bertatik kanpoko beste estatukide batzuetako pertsona talderik nagusienak Turkiakoak (2,3 milioi), Marokokoak (1,7 milioi), Albaniakoak (0,8 milioi) eta Aljeriakoak (0,6 milioi) dira. Hala eta guztiz ere, atzerrian jaiotako estatukideetako (esate baterako Frantzia, Suedia, Herbehereak eta Erresuma Batua) hiritar kopurua kanpoko herrietako nazional kopurua baino handiagoa da, immigrante askok harrera-estatuko hiritartasuna lortu baitute.

Hiritartasuna lortzeko ekintza hori, sarritan, harrera-estatuan integraztearen adierazletzat hartzen da; horretarako, izan ere, bertako hizkuntza, kultura eta gizartearen ezagutu behar dira, eta nolabaiteko ekarpen ekonomikoa ere egin behar da. Europar Batasuneko estatu askotan, haur baten hiritartasuna bere gurasoek dutenaren arabera da, eta ez haurra jaiotzeko lekuaren arabera; beraz, nolabaiteko hiritartasuna eskuratzaren eragina ez da immigranteetara mugatzen, horien ondorengoetara ere heltzen baita.


EB-27ko estatukide batean hiritartasuna lortu duen pertsona kopurua gero eta handiagoa izan da hamarkada honetako lehenengo urteetan; baina hazkunde-ratioa murrizten joan da, 90ko hamarkadako ratioari dagokionez. 2006an 735.000 hiritar europar berri erregistratu ziren, horietatik %60 baino gehiago Frantzian, Alemanian eta Erresuma Batuan. Europako hiritar berri horien jatorriari dagokionez, gehienak Europatik kanpoko eta Afrikako estatuetatik iritsitakoak dira, batez ere Turkiatik eta Marokotik iritsitakoak. Gainera, europar hiritartasuna lortu duten Irakeko, Somaliako eta Iraneko pertsona kopurua nahiko handia da, Europako estatuetan duten presentzia aintzat hartuta.

EAE ez da fenomeno horietatik kanpo gelditu, eta bertako kultura-aniztasuna gero eta handiagoa da, bertara iritsitako biztanle talde berriak handitzen baitoaz. Hurbileko beste gizarte batzuen tasetara heldu ez bagara ere, EAEn kanpoko inmigrazioak hazkunde nabaria izan du azken urteotan, eta aniztasun handiko panorama sortu da. Izan ere, inmigrazio masiboak eta epe laburrerakoak aldatu egin ditu ekonomiaren eta gizartearen epe luzerako joerak; gainera, geldiarazi egin du biztanleria zahartzeko joera, eta belaunaldi-berriztapena erraztu du, baita gizarte-jokabide berrien sarrera ere.

INEk 2008an (2007ko datuekin) lehenengoz argitaraturiko *"Inmigrazioaren Inkesta Nazionala"* izenekoak agerian jarri duenez, EAEn bizi diren immigranterik gehienak lan hobeari bila heldu ziren Euskal Autonomia Erkidegora (%42,9), baita familia berriro biltzeko (%32,1), bizitza-kalitatea hobetzeko (%23,9) eta enplegurik ez zutelako ere (%21,8), eta erantzun bat baino gehiago aipa daiteke. Beraz, migrazio-fenomenoa gehienbat ekonomikoa da, eta, Eusko Jaurlaritzak egindako *"Batasunetik kanpoko inmigrazioaren eragin ekonomikoa EAEn"* ikerketan (2008) adierazitakoaren arabera, EAEko eta Espainiako ekonomian atzerriko langileak sartzeara honako honetan oinarrituriko metaketa-ziklo batekin batera etorri da: lanak Europako banaketan izandako aldaketak, emakumeak lan-merkatuan modu masiboan sartzeara eta euroa sartzaren ondorioz sorturiko metaketa-baldintza berriak. Langile immigranteak sartzeara eta finkatzeara ez da egoeraren arabera faktorea, egiturazko faktorea baizik, eta gure ekonomiaren hazkunde berria euskarritu du.


Ikerketa horretan egindako zenbatespenaren arabera, EAEko atzerri-politikara atxikitako gizarte-gastu publikoa 233,9 milioi eurokoa izan da 2006an (gastu osoaren %4), eta ratio hori biztanle immigranteek urte horretan izandako garrantziaren ara-

I.1.25. Grafikoa. 16 urtetik gorako immigranteak, adin taldeen arabera. EAE eta Estatua. %. 2007



Iturria: INE. Inmigrazio Inkesta Nazionala 2007.

I.1.26. Grafikoa. Atzeritarren ehunekoaren bilakaera. EAE eta Estatua



Iturria: INE. Udal Errolda.

berakoa izan da. Gizarte-gastuak, gainera, immigranteek 2.905 euroko batez bestekoa izan du 2006an, eta bertoko biztanle bakoitzeko gastu soziala, berriz, 2.828 eurokoa izan da. Laneko errentetatik lorturiko zerga-bilketari dagokionez, biztanle immigranteen ekarpena bertokoena baino %23,5 handiagoa izan da; beste modu batera esateko, immigrante bakoitzak gizarte-gastuko 76 euro gehiago xurgatu du, baina EAEko Ogasunean bertoko bakoitzak baino 1.097 euro gehiagoko ekarpena egin du. Izan ere, biztanle immigranteek jardueraren tasa altua dute, eta, beraz, zergadun-ehuneko handiagoa ere bai.

(a) Bilakaera demografikoa

Udal Erroldak emandako datuen arabera, azken urtean EAEn bizi den immigrante kopuruak gora egin du. 2005etik 2008ra, EAEn eroldaturiko atzerriko biztanleen bolumenak %60ko hazkundera izan du. 2005ean 72.894 immigrante bizi ziren EAEn, eta 2008ko urtarrilaren 1ean Udal Erroldan 116.650 zeuden erregistratuta, aurreko urtean baino %19 gehiago. 1998tik 2008ra, bertoko biztanle kopuruak 44.534 pertsonako murriztapena izan du. Baina, aldi horretan, biztanleria osoak 56.918 biztanleko hazkundera izan du. Hori ezinezkoa izango

I.1.13 LAUKIA. EAE-KO ATZERRITARREN BIZTANLERIAREN BILAKAERA, NAZIONALITATE TALDEEN ARABERA

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Handitzea EB-27	0	0	0	0	9.484	13.764
Handitzea EB-25	547	579	688	797	913	1.169
Europa 15	10.454	10.613	11.839	13.497	15.120	17.025
EB guztira	11.001	11.192	12.527	14.294	25.517	31.958
Europako gainerako estat.	3.180	4.852	7.044	9.439	2.824	3.401
EUROPA GUZTIRA	14.181	16.044	19.571	23.733	28.341	35.359
Magreb	5.961	7.441	8.877	10.292	11.623	13.765
Afrikako gainerako estat.	3.032	2.961	4.504	4.673	5.199	6.324
AFRIKA GUZTIRA	8.993	11.152	13.381	14.965	16.822	20.089
AEB eta Kanada	889	867	956	920	766	802
Amerika Latinoa	22.657	28.327	35.054	41.293	47.558	54.506
AMERIKA GUZTIRA	23.546	29.104	36.010	42.213	48.324	55.308
txina	1.340	1.558	2.120	2.530	2.810	3.258
Asiako gainerako estat.	1.064	1.197	1.560	1.983	2.119	2.531
ASIA GUZTIRA	2.404	2.755	3.680	4.513	4.929	5.789
OZEANIA	102	105	120	111	93	95
Aberri gabeak	5	6	5	7	15	10
GUZTIRA	49.231	59.166	72.767	85.542	98.524	116.650

Iturria: INEren datuetan oinarrituz landuta.

I.1.14. LAUKIA. EAE-KO IMMIGRANTEEN FEMINIZAZIO INDIZEA. 2008


Kontinentea	%	Estatua	%	Feminiz. indizea.
Amerika: I.F.=59	50,2	Kolonbia	18,3	60
		Ecuador	13,1	54
		Bolivia	8	64
		Brasil	5,7	70
		Argentina	5,1	51
Afrika: I.F.=24	22,3	Maroko	11,9	28
		Aljeria	3,7	25
		Senegal	3,3	7
		Beste batz.	3,4	
Europa. I.F.=39	20,2	Errumania	10,2	45
		Portugal	8,2	28
		Frantzia	1,8	49
Asia: I.F.= 27	7,3	txina	4,2	47
		Pakistan	3,1	0
N=3.101	100,0	N=3.101	100,0	45

Iturria: IKUSPEGIren inkesta, atzeritar biztanleriari buruz, 2007.

zen gure erkidegora atzerriko 101.452 immigrante iritsi barik. Hau da, biztanle kopuruaren murriztapena atzeritik iritsitako saldo positiboarekin konpentsatu da. Immigrante kopuruak izandako hazkunderen eraginez, talde horrek gero eta garrantzi handiagoa dauka guztizko biztanle kopuruaren barruan: 2008an atzerriko biztanleriaren ehunekoa %5,4koa zen, eta Estatuan %11,3koa.

Eusko Jaurilaritzako Inmigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) egindako Erroldako datuen aurrerapenaren azterketak⁶ agerian jarri duenez, Lurralde Historikoen arabera, immigranterik gehien duena Bizkaia da berriro ere, atzerriko 58.130 pertsonarekin (guztizkoaren %49,8); gero, Gipuzkoa eta Araba, hurrenez hurren 35.786 (%30,7) eta 22.734 (%19,5) immigranterekin. Hala ere, inmigrazio-ehunekorik handiena Araban dago: %7,3. Bizkaian ehuneko hori %5,1ekoa da, eta Gipuzkoan ere bai. Laburtzeko, esan daiteke EAEko atzeritarren erdia Bizkaian bizi dela, eta inmigrazio-ehunekorik handiena Araban dagoela.


EAEko atzeritarrek ia zati berdinetan banatuta daude sexua-
ren arabera: %51,4 gizonak eta %48,6 emakumeak. Osaketa hori apur bat feminizatuagoa da EAEn Estatuan baino, Estatuan gizonen ehunekoa %53,2koa baita. Hori EAEn, gehienbat Bizkaian, Amerika Latinoko biztanle gehiago egotearen eraginezkoa da, biztanleria horrek emakumeen presentzia handiagoa baitauka, gainerako estatuetatik iritsitakoak baino. Gainera, Ikuspegik EAEko immigrantei 2007an egindako inkesta batek agerian jarri duenez, edozein adin taldetan Amerika Latinoko immigranteen taldeko kiderik gehienak emakumeak dira, eta Afrikako eta Portugaleko immigrante taldeko kiderik gehienak, berriz, gizonak. Europako beste estatu batzuetatik iritsitakoei dagokienez, errumaniarren eta frantsesen artean, feminizazio-indizeak laginaren batez bestekoaren ingurukoak dira, hau da, %45ekoak. Azkenik, txinatik iritsitakoan kasuan, bi sexuen arteko banaketa orekatua dago.

I.1.27. Grafikoa. EAEko hamar nazionalitate nagusien bilakaera. 2002-08

Iturria: INE. Udal Errolda.

⁶ Azterketa honen balio absolutuak ez datoz bat behin betiko datuen guztizkoekin. Ikuspegik egindako ustiapena dago jasota, INEk 2008an aurkezturiko zenbatespenetan oinarrituz egindakoa, ehunekoen desberdintasnak txikiak direlako. Nolanahi ere, behin betiko datuek agerian jarri dute aurrerapenak gutxietsi egin duela atzeritarren biztanleriak guztizkoaren barruan duen garrantzia, bai EAEn eta bai Estatuan.

1.1.28. Grafikoa. Atzeritarren biztanleriak EAE-n eta estatuan duen garrantziaren bilakaera



Iturria: INEren eta LINMren datuetan oinarrituz landuta.

Oharra: Erregularizazio indizea hemen bizitzeko baimena duten atzeritarren eta errolatuta dauden arteko zatidura da.

Aldi berean, jatorrizko estatuak ama-hizkuntzak baldintzatzen dituzte; arlo horretan, bi kasu garrantzitsu daude hiztun kopuruari dagokionez: bata, gaztelania, emakume-aurpegia duena, eta bestea, arabiarra, gizon-fisonomiaduna.

EAE-n errolaturiko nazionalitate taldeetan oinarrituta ikusten denez, Amerika Latinoko nazionalitateak dira nagusi, horiek EAEko immigrante guztien %46,7 baitira. Hala ere, aurreko urteekin konparatuta, galdu egin dute garrantzi erlatiboa, urte horietan euren ehunekoa immigrante guztien %48koa baino handiagoa baitzen. Ipar Amerikako estatuen (Kanada eta Amerikako Estatu Batuak) ekarpena iraunkor mantendu da (%1 inguru).

Nazionalitateei dagokionez, hamar garrantzitsuen artean Amerika Latinoko bost (Kolonia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Paraguai), Europar Batasuneko bi (Portugal eta Errumania), Magrebeko bi (Maroko eta Aljeria) eta Asiako bat (txina) daude. Errumania, 12.837 pertsonarekin, EAEko nazionalitate garrantzitsuenak da lehenengoz, atzeritar egoiliarren %11 bertakoak baitira; hain zuzen ere, %47,4ko hazkundera izan du 2007tik. Ondoren, Kolonia (12.055 pertsona errolatuta) eta Bolivia (11.857) daude, hurrenez hurren, %10,3rekin eta %10,2rekin.

Bestalde, Lan eta Inmigrazio Ministerioaren datuek agerian jarri dutenez, 2007ko abenduaren 31n 83.875 atzeritarrek zuten EAE-n bizitzeko baimena, aurreko urtean baino 21.647 gehiagok. Datu horiek 2008ko urtarilaren lehen errolaturikoekin konparatuta lortzen den erregularizazio tasak edo indizeak agerian jartzen du errolaturiko atzeritarren %72k hemen bizitzeko baimena zutela, erreferentziako datan. Erregularizazio-tasa hori 7 puntu hazi da aurreko urtetik, eta, baxuagoa izan arren, Estatuko batez bestekoaren goranzko ildoari jarraitzen

dio; izan ere, Estatuan %76ko tasa egon da 2008an, aurreko urtean baino 9 puntu gehiago.

Halaber, ikuspegik 2007an egindako inkesta baten arabera, EAE-n bizi diren atzeritarrik gehienak orain dela bi-sei urte bitartean heldu dira hona. Oso oraintsukoa den ezarkuntza-kasu bat boliviarrarena da, horietatik %1 baino ez baitago 2002a baino lehenagotik. Gainera, atzeritarren %22,8k egoera irregularran zeudela zioten, eta %63,8k hemen bizitzeko baimen-modalitatearen bat zuten garai hartan. Gainerakoak Espainiako edo EBko beste herriren bateko nazionalitatea zuten. Horrenbestez, emaitzak nahiko koherenteak dira Lan Ministerioaren datuetan oinarrituz lortzen diren erregularizazio-tasaren datuekin.


(b) Lan-merkatua

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (EEZP), 2008ko abenduan, enplegua eskatzen zuten 10.005 atzeritar erregistratu zituen EAE-n, eta talde hori eskatzaile guztien %9,9koa da (Estatuan %13,1); gainera, 2007ko abendutik %96ko hazkundera izan du (inskribatutako pertsona guztien kasuan hazkundera %34,9koa).


Horien artean, %77,5 EBtik kanpokoak dira. Halaber, eta Euskal Autonomia Erkidegora oraintsu iritsitako atzeritarren eta mugimendu horien zergati nagusia ekonomikoa izatearen ondorioz, lana eskatzen duten atzeritarren ehunekoa etengabe hazi da azken urteotan (2006an %5,4; 2007an %6,8koa, eta 2008an %9,9koa); ikusiko dugunez, Gizarte Segurantzako afiliazioen kasuan ere gauza bera gertatu da.

Bestalde, Euskadiko Enplegu Zerbitzuan (Lanbide) 2008ko lau garren hiruhilekoan enplegu-eskatzailetzat inskribatutako immigrantei buruzko informazioak agerian jarri duenez, 8.596

I.1.29. Grafikoa. Atzerritaren lan eskariak, sexuaren eta jatorriaren arabera, euskadiko enplegu zerbitzuan izena emanda dutenei dagokienez. 2007-VI eta 2008



I.1.30. Grafikoa. Immigrante landunak, hiru urte baino gehiago hemen bizi izan direnak, ikasketa mailaren arabera. %. 2007



atzeritar dira, aurreko urtean baino %32 gehiago, eta horrek inskribaturiko pertsona guztien %16,7 adierazten du (2007ko laugarren hiruilekoan %14,8). Horietatik %62,8 gizonak dira eta %37,2 emakumeak; horrek agerian jartzen du immigranteen enplegu-eskariaren ehunekoan EAEko biztanleria osoko eskatzaileen ehunekoan baino gizon gehiago dagoela (Lanbiden

enplegu-eskatzaitzat erregistraturiko pertsonen %53,5 emakumeak dira), behintzat ekonomia normalizatuari dagokionez. INEren “*Inmigratio Inkesta Nazionala*” deritzonak lanean ari diren immigranteen ikasketa maila jakiteko aukera ematen du: aipatzekoa da, bai EAEn eta bai Estatuan, immigranteen %70ek baino gehiagok bigarren hezkuntzako edo unibertsitateko ikas-

1.1.15. LAUKIA. 3 URTE BAINO GEHIAGOTIK HEMEN BIZI DIREN ETA LANEAN ARI DIREN IMMIGRANTEAK, AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA, KONTUAN HARTUTA HASIERAKO ETA ORAINGO JARDUERA ADARRA. 2007

	ESTATUA		EAE	
	Has. Jar.	Oraing. Jar.	Has. Jar.	Or. Jar.
Eraikuntza	353.181	438.414	6.972	9.603
Ostalaritza	323.299	298.315	5.858	5.066
Motorreko ibilgailuen, motozikleten eta ziklomotoeen konponketa, baita gai pertsonalen eta etxean erabiltzeko gaien konponketa ere	243.223	287.104	5.553	4.984
Manufaktura-industria	202.730	249.857	5.072	6.335
Etxeetako jarduerak	338.811	213.720	10.353	8.629
Higiezin jarduerak eta enpresa-zerbitzuak alokatzeko jarduerak	176.335	208.393	1.779	2.122
Garraioa, bilketa eta komunikazioak	84.385	132.490	738	2.055
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	269.996	116.325	2.922	—
Beste gizarte- eta zerbitzu-jarduerak batzuk, erkidegoari emandakoak	92.522	95.187	2.323	1.321
Osasun- eta albaitaritza-jarduerak; gizarte-zerbitzua	65.585	83.395	1.667	2.370
Hezkuntza	65.241	70.736	3.583	3.977
Herri Administrazioa, defentsa eta derrigorrezko Gizarte Segurantzaren	20.375	36.601	1.327	1.060
Finantza-bitartekotza	17.800	20.591	393	344
Energia elektrikoaren, gasaren eta uraren produkzioa eta banaketa	4.534	6.794	—	91
Erauzketa-industriak	4.265	3.885	—	—
Ez daki	1.541	2.903	—	205
Arrantza	4.353	2.677	204	584
Lurraltetik kanpoko erakundeak	915	1.706	—	—
Inkestaturikoak guztira	2.269.092	2.269.092	48.744	48.744



Iturria: INE. Inmigrazio Inkesta Nazionalea 2007.

ketak edukitzea. EAEn, hain zuzen ere, ia erdiek (%47,9) bigarren hezkuntzako ikasketak dituzte, eta horietatik %33,7k bigarren ziklokoak; gainera, %23,4k unibertsitateko titulazioa dute. Inkesta horretako datuetan alde handiak daude autonomia-erkidego batetik bestera, eta EAE Estatuko batez bestekoaren antzeko mailetan dago. Kontuan hartu behar da, hala eta guztiz ere, immigranteen arteko talde oso espezifikoak dela; hain zuzen ere, estatuan hiru urtetik hona bizi eta ikerketa egiteko unean lanean ari zirenak, eta, beraz, datuok kontuz aztertu behar dira. Izan ere, lanbideren “*Inmigrazioa eta lan-merkatua*” txostenean (2005ari buruzko datuak), agerian gelditu da langabeturik dauden immigranteen hezkuntza maila askoz ere baxuagoa dela: bi bosten baino gehiago ez dira oinarritzko mailara iristen, eta oso gutxi dira lanbide-heziketako (%10) edo unibertsitateko (%8,7) ikasketak dituztenak; bertoko biztanleen artean ehuneko horiek, hurrenez hurren, %26,8 eta %47,7 dira. Halaber, immigranteen %20k ez dute euren ikasketei buruzko informaziorik eman, eta Euskadiko Enplegu Zerbitzuko zerrendetan inskribaturik dauden autoktonoen kasuan ehuneko hori %2,2koa da. Eskaturiko enplegu motari dagokionez, ekonomia aurreratuetatik iritsitako immigranteek trebakuntza askoz ere handiagoko lanak eskatzen dituzte, eta menpeko ekonomietatik iritsitakoek, ostera, askoz ere oinarritzkoagoak diren lanpostuak. Zerbitzuen eta administrazioaren arloko enplegurik gehien eskatzen dutenak Amerika Latinokoak dira: Afrikak, berri, enplegu gutxi eskatzen du zerbitzuetan, eta bertakoek eskaturiko enplegua askoz ere industrialekoa da. Gehien eskatzen diren enpleguak, garrantziaren arabera ordenatuta, honako hauek dira: garbitzaileak, etxeko langileak, kargako langileak, eraikuntzako beharginak, industriako beharginak...

Ikuspegik 2007an immigranteei egindako inkestak agerian jarri duenez, EAEn bizi diren atzeritarren %69,3 lanean ari dira, %17,8 langabezian, eta gainerakoak ez-aktiboak dira (haurrak, zaharrak, etab.). Lanean ari direnetatik, %88,5 inoren konturako lanean dabilta, eta %11,4 euren kontura ari dira; tasa horrek hazkunde handia dauka txinako, Pakistaneko eta Senegaleko immigranteen kasuan. Inoren konturako lanean ari direnen artean, %6k kontratu mugagabea dute, %49,3k aldi baterako kontratua eta %23,4k ez dute kontraturik. Azkenik, kontratuen %91,1 hemen lortu dituzte, eta %5,4 baino ez dute lortu jatorrizko herrian.

Diru-sarrera mailari eta beste lan-baldintza batzuei dagokienez, %51,7k diote hilean 1.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztela; %33,1ek 1.000 eta 1.500 euro bitarteko diru-sarrerak dituzte, eta %7,6k 1.500 eurotik gorakoak. Boliviarren %73,7k, errumaniarren %64,1ek eta brasildarren, kolonbiarren eta ekuadortarren %61,3k diote 1.000 euro baino gutxiago irabazten dituztela hilean. Finkapenik handieneko diru-sarreraren arloan, portugaldarrak daude, horien %34,3k hilean 1.500 eurotik gora irabazten dutela baitiote; ratio hori %9,5era murrizten da argentinarren artean. Hileko diru-sarreraren batez bestekoa, atzeritarrek euren lan nagusiari dagokionez adierazitakoa, hileko 810 eurokoa da; zifra horren gainetik asiarrak (830€) eta europarrak (975€) daude, eta azpitik amerikarrak (760€) eta afrikarrak (767€). Oro har, atzeritarrek diote 1,08 enplegu dituztela, astean 43,4 orduko lanaldia dutela eta %48,5ek aste-buruetan lan egiten dutela, batez beste.


EAEn Gizarte Segurantzaren afiliaturiko immigranteen datuek adierazitakoaren arabera, horiek gero eta presentzia handia-

I.1.31. Grafikoa. Atzeritarren EAE-n duten lan egoera**I.1.32. Grafikoa. Atzeritarren afiliazioa gizarte segurantz. Lurralde historikoen arabera bilakaera, eta afiliatu kopuru osoarekiko ehunekoa. EAE**

goa dute lan-merkatuan. 2008ko abenduaren 31n, EAEen 49.538 immigrante zeuden Gizarte Segurantzaren afiliatuta, aurreko urtean baino %5,4 gehiago. Urteko batez bestekoak kontuan hartuta, 2008koa (51.954) 2007koa baino %15,4 handiagoa da, eta EAEko afiliatu guztien %5,4koa (tasa horrek %14,3ko hazkundea izan du 2007koari dagokionez). %5,4ko afiliazio-ratio hori Estatuko %10,8koa (2008) baino nahiko baxuagoa da, baina goranzko joera mantentzen du. Jatorriaren arabera, kotizatzen duten immigranteen %65,2 EBtik kanpoko estatuetakok


dira; %69,9 araubide orokorrean afiliaturik daude, %13,9 autonomoen araubidean, %11,8 etxeko langileen araubidean, eta %4,4 nekazaritzako eta itsasoko araubidean. Gainera, atzerriko bost afiliatutik hiru gizonak dira, baina emakumeen partaidez gora egin du, ekonomia "normalizatu" gero eta gehiago sartzearen ondorioz. Amaitzeko, EAEko afiliatu atzeritarrek Estatuan afiliaturiko atzeritar guztien %2,5 dira (2007an %2,3), eta ratio hori proportzionala da EAEen erroldaturiko atzeritarrek Estatuko datuarekiko duten %2,2ko ratioarekin.

I.1.33. Grafikoa. Zein dira EAEko arazo nagusiak? (Gehienez 3 erantzun)




Iturria: Ikuspegiaren Barometroa, 2008ko ekaina.

I.1.34. Grafikoa. Zein neurritan zaude ados esaldiok diotenarekin? EAE, 2008




Iturria: IKUSPEGIren Barometroa, 2008.

I.1.35. Grafikoa. Aukera berdintasunean eskuratu behar dituzte eskubideak immigranteek eta hemengoek? EAE, 2008



Iturria: Barometroa, IKUSPEGI, 2008

I.1.36. Grafikoa. Zure ustez zer tratu ematen diete EAE-ko bitanleek immigranteei? EAE, 2007**(c) EAEko biztanleriak inmigrazioarekiko duen jarrera**

Ikuspegiko Barometroaren arabera (2008ko ekaina), EAEko biztanleen ustez, inmigrazioak ez dakar arazorik. Izan ere, %2k soilik aipatzen dute EAEko arazo nagusitzat. Gainera, bat-bateko hiru erantzunen multzoan, arazotzat EAEko biztanleen %7,2k baino ez dute ikusten, langabezia (%54,4), etxebizitza (%42,9) eta terrorismoa (%42,5) baino askoz ere atzerago, eta hiriko segurtasun ezaren atzetik (%10,5) eta drogen antzeko posizioan (%6,7). Emaitza horiek 2007ko Barometroko emaitzekin konparatuta ikusten denez, inmigrazioa arazotzat ikusten dutenen ehunekoa %15etik %7,2ra murriztu da. Era berean, etxebizitzaren eta terrorismoaren

tasak ere murriztu egin dira, eta langabeziarekiko kezka tasak %46,8tik %54,4rako hazkundea izan du. Hala eta guztiz ere, inmigrazioa arazo pertsonaltzat ikusten dutenen ehunekoa 7 hamarreko hazkundea izan du, eta %4,2tik %4,9ra igaro da. Inmigrazioak EAEko ekonomian duen eraginari dagokionez, 2007an bezala, EAEko gizarteak ez daki ea inmigrazioak gizartearen ondorio positiboak ala negatiboak dituen; hain zuzen ere, Oitk 10erako eskalan, batez besteko puntuazioa 4,89koa da. Era berean, onartu egiten da atzeritarrek aukera ematen dutela ekonomia hobeto ibiltzeko eta hemengoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzeko; baina esaten dute horrek sol-

I.1.16. LAUKIA. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZA SAILAREN GASTU LIKIDATUAREN EBOLUZIOA

Urteak	Euroak, milaka	Jaurilaritza guztira (milaka eurotan)	EJ-k likidatutako gastu osoaren %	BPG, milaka euro (2005eko oinarria)	BPGaren %	2001eko oinarria=100	Ikasle kop guztira (1)	Gastua ikasleko, eurotan
2001	1.579.449	5.724.498	27,6	43.930.667	3,60	100	431.902	3.657
2002	1.700.754	6.026.306	28,2	46.226.280	3,68	108	427.086	3.982
2003	1.819.806	6.392.507	28,5	49.241.753	3,70	115	426.530	4.267
2004	1.882.886	6.725.309	28,0	53.305.396	3,53	119	462.517	4.071
2005	2.021.892	7.312.911	27,6	57.289.143	3,53	128	435.579	4.642
2006	2.140.099	7.770.938	27,5	61.760.620	3,47	135	437.900	4.887
2007	2.403.160	8.584.886	28,0	66.427.468	3,62	152	438.745	5.477
2008	2.589.172	9.317.300	27,8	68.428.685	3,78	164	483.671	5.353

(1) Ikasle kopuru osoan erregimen orokorreko nahiz erregimen bereziko ikasleak sartzen dira.

Erregimen orokorreko ikasleen artean unibertsitatekoak ez diren ikasleak (hemen hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorreko ikasleak sartzen dira) eta unibertsitateko ikasleak sartzen dira.

Erregimen bereziko ikasleen artean, arte plastikoetako eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kiroleko eta diseinuko goi-ikasketetako ikasleak sartzen dira.

Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuekin eta EAEko kontu orokorretako datuekin.

I.1.17. LAUKIA. HEZKUNTZAKO GASTUA 2006AN															
	BPG (milaka €)	Gastua hezkuntzan guztira				Gastua unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan				Gastua unibertsitateko irakaskuntzan					
		Guztira (milaka €)	Gastu arrunta	%	Kapital- gastua	Gastua/ BPG	Guztira (milaka €)	Gastu arrunta	%	Kapital- gastua	Guztira (milaka €)	Gastu arrunta	%	Kapital- gastua	Gastua/ BPG
BPG guztira	982.303.000														
GUZTIRA (1)		40.545.419	88,1	11,9		29.673.329	91,7	8,3		8.612.055	75,0	25,0			
Hezkuntzako administrazioak		37.026.904	89,2	10,8	3,77	27.655.985	92,7	7,3	2,82	8.216.820	76,7	23,3	0,84		
guztira															
MEC		1.887.436	93,4	6,6		842.071	88,3	11,7		240.800	89,3	10,7			
Andaluzia	135.754.944	6.248.621	87,6	12,4	4,60	4.836.844	91,1	8,9	3,56	1.397.368	75,6	24,4	1,03		
Aragoi	30.263.672	986.748	90,7	9,3	3,26	736.129	94,3	5,7	2,43	238.834	79,4	20,6	0,79		
Asturias	21.322.595	850.850	84,2	15,8	3,99	588.496	94,4	5,6	2,76	187.201	76,3	23,7	0,88		
Illes Balears	24.366.468	716.297	89,6	10,4	2,94	638.682	91,3	8,7	2,62	75.496	74,7	25,3	0,31		
Kanariar Uharteak	39.105.664	1.619.234	92,7	7,3	4,14	1.331.772	94,1	5,9	3,41	272.798	85,9	14,1	0,70		
Kantabria	12.341.982	451.029	90,7	9,3	3,65	352.175	96,2	3,8	2,85	98.854	71,3	28,7	0,80		
Gaztela eta Leon	52.655.707	2.045.153	87,9	12,1	3,88	1.544.656	89,2	10,8	2,93	489.743	83,5	16,5	0,93		
Gaztela-Mantxa	33.154.192	1.564.108	89,5	10,5	4,72	1.365.968	90,4	9,6	4,12	197.690	82,6	17,4	0,60		
Katalunia	183.906.293	5.518.536	88,5	11,5	3,00	4.231.007	91,6	8,4	2,30	1.247.253	77,3	22,7	0,68		
Comunitat	95.844.359	3.673.367	88,4	11,6	3,83	2.672.479	96,3	3,7	2,79	977.978	66,4	33,6	1,02		
Extremadura	16.210.574	889.570	91,4	8,6	5,49	760.981	92,8	7,2	4,69	124.003	82,6	17,4	0,76		
Galizia	50.359.715	2.161.101	88,8	11,2	4,29	1.686.142	92,8	7,2	3,35	456.561	74,3	25,7	0,91		
Madril	173.926.344	4.708.271	87,6	12,4	2,71	3.105.959	92,8	7,2	1,79	1.516.431	76,2	23,8	0,87		
Murtzia	25.172.607	1.106.436	87,9	12,1	4,40	860.663	93,9	6,1	3,42	245.773	66,9	33,1	0,98		
Nafarroa	16.564.058	532.691	94,2	5,8	3,22	454.892	95,4	4,6	2,75	73.102	86,7	13,3	0,44		
EAE	60.622.986	2.151.201	93,7	6,3	3,55	1.757.577	95,0	5,0	2,90	351.016	86,5	13,5	0,58		
Erioxa	7.248.860	219.111	92,8	7,2	3,02	179.258	94,6	5,4	2,47	39.011	84,5	15,5	0,54		
Hezkuntza administrazioak															
guztira (2)		4.158.732	77,6	22,4		2.628.442	80,2	19,8		422.353	42,9	57,1			

(1) Banaketa hau lortzeko, administrazioak banatu ez duena eta doikuntza-partidak kendu dira zenbateko osotik.

(2) Beste ministerio. sail eta toki korporazio batzuk aintzat hartzen ditu.

Tuturria: MEC eta INE

(1) Banaketa hau lortzeko, administrazioak banatu ez duena eta doikuntza-partidak kendu dira zenbateko osotik.

(2) Beste ministerio, sail eta toki korporazio batzuek aintzat hartzen ditu.

Iturria: MEC eta INE

datetan ondorio kaltegarriak dituela eta gizarteko sektorerik zaurgarrienetan kaltea sortzen duela.

Halaber, 2008ko Barometroak dioenez, biztanleek uste dute EAEko biztanleria osoaren %16,8 inguru atzerritarrek direla (2007an baino puntu bat gutxiago), baina 2008ko urtarrilean erroldaturiko atzerritarren ehunekoa %5,4koa zen. %78,9k uste dute atzerritar kopurua "gehiegizkoa" edo "nahikoa" dela (2007tik alde handirik ez); hala ere, erroldaturiko atzerritarren datua ematen zaienean, gehiegi direla uste dutenen zifrak %59ko murriztapena dauka (2007koaren antzeko ratioa). Bestalde, EAEko biztanleriak (2007an baino gehiago) nahi du immigranteek osasun-laguntza eta seme-alabentzako hezkuntza edukitzea; halaber, zerbitzuak eta eskubideak erregularizaturiko immigrantei murriztearen aldekoa da hemengo biztanleria (aurreko urtean baino neurri handiagoan).

Azkenik, hemengoek atzerritarrekiko duten jarrera ikusteko moduari dagokionez, Ikuspegik 2007an egindako atzerriko biztanleriaren Inkestak⁷ agerian jarri zuenez, atzerritarren

%73k diote inoiz edo ia inoiz ere ez dutela nabaritu hemengo biztanleek euren aurkako jarrera dutenik.

Afrikako eta, batez ere, Afrika Beltzeko immigranteek nabaritu dute gehien euren aurkako jarrera (%57k diote "inoiz" edo "ia inoiz" ere ez dutela ukapenik sentitu). Gainera, %63k diote inoiz edo ia inoiz ez dutela diskriminaziorik sentitu, ez dutela begiradarik nabaritu eta ez dutela euren aurkako gauza negatiborik entzun edo bestelako jarrera txarrik igarri. Berriro ere, pertzepzioirik txarrean afrikarrek dute, eta europarrak eta argentinarrak neurri txikiagoan sentitzen dira ukapen-jarreraren jasotzaile.

1.2. Hezkuntza eta hezkuntzaren sustapena

1.2.1. Gastu publikoa hezkuntzan

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastuen aurrekontuko behin betiko likidazioa, 2008an, 2.589.172 mila euro da. Bigarren partida garrantzitsuena da, Osasunarenaren ondoren (3.240.668 mila euro). Horrek esan nahi du aurreko ekitalditik %7,7ko hazkunde egon dela. Hazkunde hori 2006tik 2007ra arte izandakoa (%12,3) baino txikiagoa da.

1.1.18. LAUKIA. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN GASTU LIKIDATUAREN XEHEKAPENA, ZENBATEKOA, MILAKA EUROTAN

	2005	2006	2007	2008	Var. 2007-08
BPG prezio arruntetan	57.289.143	61.760.620	66.427.468	68.428.685	3,0
Unibertsitateaz kanpoko ikasleak, helduen hezkuntza gabe	305.708	310.309	314.573	319.414	1,5
Unibertsitateko ikasleak	72.394	68.924	66.077	65.101	-1,5
Erregimen bereziko ikasleak	33.238	32.930	31.233	25.044	-19,8
HHEko ikasleak	24.239	25.737	26.862	29.112	8,4
Egitura eta babesak	38.194	41.061	48.293	60.067	24,4
Haur eta lehen hezkuntzak	698.872	760.166	848.251	934.102	10,1
Bigarren hezkuntza, osabid, LH	802.801	840.599	878.533	934.335	6,4
Unibertsitateko hezkuntza	252.237	261.965	321.047	329.661	2,7
Erregimen bereziko irakaskuntza	77.930	72.188	52.813	56.224	-100,0
Aurrekontu propioa	70.743	71.905			
Ekonomi eta Gizarte Inbertsioen Plan Bereziaren kontura	7.188				
Hezkuntzako berrikuntza eta irakasleen etengabeko prestakuntza	24.721	26.713	37.436	39.303	5,0
Etengabeko ikaskuntza eta helduen hezkuntza, HHE			68.027	73.112	7,5
Hezkuntzaren sustapena	80.866	85.536	94.773	102.372	8,0
Kirol irakaskuntzak (kulturaren kontura)	1.472		0		
Hezkuntza sistema euskalduntzea	33.727	30.985	31.163	32.719	5,0
Ikerkuntza	11.235	16.293	22.823	25.377	11,2
Euskadi Plana Informazioaren Gizartean	8.495	4.878	0	0	
Berrikuntza Fondona				1.900	
GUZTIRA	2.021.892	2.140.100	2.282.319	2.589.172	13,4
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza (haur, lehen eta bigarren hezkuntza, HEE kanpo) BPGan	2,62	2,59	2,60	2,73	
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza (haur, lehen eta bigarren hezkuntza, HEE kanpo) ikasleko	4,912	5,159	5,489	5,850	
Unibertsitateko hezkuntza / BPG (%)	0,44	0,42	0,48	0,48	
Unibertsitateko hezkuntza ikasle bakoitzeko	3,484	3,801	4,859	5,064	
Ikerkuntza / BPG (%)	0,02	0,03	0,03	0,04	

Iturria: EAEko Kontu Orokorrak eta geuk egina.

⁷ Inkestari buruzko informazio gehiago lortzeko, irakurri EAEko 2007ko Memoria Sozioekonomikoko "Demografia eta Inmigrazioa" kapitulua; bertan, EAEko biztanleria atzerritarrek ukapenari edo diskriminazioari buruzko pertzepzioari buruzko epigrafe espezifikoak dago.

Eusko Jaurlaritzaren gastu osoan, Hezkuntza Sailari esleitutako diru-zenbatekoaren partaidetzaren portzentajea %27,8 da, hau da, aurreko urtea baino zerbait gutxiago, 2 dezima hain zuzen ere. Gastu hori EAEko BPGaren %3,78 da, 2007an izandako portzentajea (%3,62) baino 0,16 puntu gehiago beraz.

Hezkuntza Sailaren gastuaren ratioa ikasle bakoitzeko (ikasle guztiak kontuan izanik, hau da, erregimen orokorrean nahiz berezian: hizkuntzak, musika, dantza...) jaitsi egin da, 5.477 eurotik 5.353 eurora. Izan ere, azken urte honetan ikasle-kopurua hezkuntzako gastua baino gehiago igo da.

MECek argitaratu dituen azken datuen arabera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gastu publikoa EAEn, 2006. urtean, 2.151 milioi euro izan da. Estatu osoan, hezkuntza administrazioei dagokien gastua 37.027 milioi euro izan da. Ondorioz, hezkuntza administrazioen gastua BPGan⁸ %3,55 da EAEn (%2,90 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,58 unibertsitateko hezkuntzan) eta %3,77 estatuan (%2,82 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,84 unibertsitateko hezkuntzan).

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, aurrekontuaren zatirik handiena hartzen duten programak haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBH dira. Horiek guztiak batera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren gastu osoaren %72,2 dira. Berezi nabarmendu behar dira egitura eta babes programen (%24,4) eta neurri txikiagoan ikerkuntzan (%11,2) eta haur eta lehen hezkuntzan (+%10,1) izan diren gehikuntzak.

Irakaskuntza motaren arabera banatuta, BPGan gastua unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan (haurrekuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza, HHE kontuan izan gabe) gehitu da, %2,6 izatek %2,73 izatera igaro baita. Unibertsitateko irakaskuntzan egonkorra da: %0,48.

Ikasle bakoitzeko gastua unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan (haurrekuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza, HHE kontuan izan gabe) gehitu da, 5.489 eurotik 5.840 eurora; baita unibertsitate irakaskuntzan ere, 4.859 euro izatek 5.064 izatera igaro baita.

MECek argitaratu zuen "Hezkuntzaren kopuruak Espainian" liburuan ageri diren datuen arabera, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan (lanerako prestakuntza izan ezik) ikasle bakoitzeko gastu publikoa, 2006. urtean, EAEn 9.059 euro izan zen (6.251 euro ikasle publiko eta itundu bakoitzeko gastu publikoaren kasuan). Horrenbestez, EAE ikasle bakoitzeko gasturik handiena duden erkidegoa da bi kasuetan. Estatuko batez bestekoa 5.751 euro da (4.888 euro, ikasle publiko eta itundu bakoitzeko gastu publikoaren kasuan). EAEtik hurbil daude Nafarroa (7.324 euro), Asturias (7.050), Kantabria (6.648) eta Galizia (5.569).

1.2.2. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza

1.2.2.1. Ikasleen eboluzioa hezkuntza mailen arabera

EUSTATen datuen aurrerapenaren arabera, 2008/2009. ikasturtea EAEn unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko

irakaskuntzan matrikulatutako 325.984 ikaslerekin hasi da guztira (helduentzako hezkuntza kontuan izan gabe). Beraz, hazkuntza berria dago, aurtan %1,9koa (2007-2008 ikasturtean baino 6.142 ikasle gehiago).

Aurreko urteetan gertatu ez den bezala, gehikuntzaren azalpena da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO) eta irakaskuntza ertainak gehitu direla, baita beheko mailak ere (haurrekuntza, lehen hezkuntza eta DBH); azken horietan, hezkuntza berezia aintzat hartu gabe, 2007-2008 ikasturtean, EUSTATen behin-behineko datuen arabera, 269.418 ikasle matrikulatuta zeuden, 90.399 Haur Hezkuntzan, 109.949 Lehen Hezkuntzan eta 69.070 DBHn.

Lehen eta haur hezkuntzetan, azken maila horretako gehikuntza, bi kasuetan, %2,4 izan da. Beraz, gehikuntza berriro moteldu da. Horrela, 2006-07 ikasturtean, haur hezkuntzaren hazkuntza %4,4 izan zen. 2007-08an, berriz, %4,1 izan zen. 2008-09an, %2,4. Bestalde, Haur Hezkuntzan, gehikuntza %3,5etik %3,3ra eta azkenik %2,4ra igaro da.

Nabarmendu behar dugu estreinako aldiz matrikulazioaren gehikuntza DBHra iritsi dela. Hor %0,3ko gehikuntza izan da. Beste modu batean esateko, errekuperazio demografikoa 12 urtetik gorako adinetara iritsi onmen da.

Bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan matrikulatutako ikasle kopurua %2,2 igo da. Gehikuntza nagusia, zereginen ikaskuntza aintzat hartu gabe, goi mailako LH-n (%3,4), maila ertaineko LH-n (%2,7) eta gero batxilergoko matrikulazioan (%1,4) gertatu da.

2008-09 ikasturtean irakaskuntza ertainetan ikasten duten 55.517 ikasleetatik 29.808k, hau da, % 53,2ak (aurreko urtean %53,6), batxilergoa aukeratzen dute derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren. % 46,8ak lanbide heziketa aukeratzen dute (aurreko urtean %46,4), eta gainerakoek zereginen ikaskuntza.

Maila ertaineko titulazio profesionalen artean, eskaera handiena dutenak, EUSTATen datuen arabera, hauek dira oraindik ere: metala eta fabrikazio mekanikoa (%16,1, 2006-07 ikasturtean %16), elektrizitatea eta elektronika (%11,3, aurreko ikasturtean %11,4), osasuna (%13,3, aurreko ikasturtean %13) eta administrazioa (%9,6, aurreko ikasturtean %9,1). Bigarren taldea, apalagoa, ondoko hauek osatzen dute aurtan ere: automozioa eta ibilgailuen mantenimendua (%8,6, aurreko ikasturtean %8,8), irudi pertsonala (%8, aurreko ikasturtean %8,2), eta produktzio zerbitzuak eta mantenimendua (%7,4, aurreko ikasturtean %7,4).

Goi-mailako titulazioen artean ondoko hauek nabarmendu behar dira: administrazioa (%13, aurreko ikasturtean %12,7), elektrizitatea eta elektronika (%12,6, pisu erlatibo 0,3 puntu jaitsi da), metala eta fabrikazio mekanikoa (%11,1, aurreko denboraldian %11,4), komunitatearentzako zerbitzuak / zerbitzu

⁸ INEren datuen arabera.

I.1.19. LAUKIA. IKASLEAK, TITULARTASUNAREN ETA MAILAREN ARABERA (1)

	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09ko behin- behinekoak	2006-07/2007-08 (%)	2007-08/2008-9 (%)
Zentro guztiak, hezk. bereziarekin	300.525	301.497	305.708	310.309	314.573	319.842	325.984	1,7	1,9
Beheko mailak, hezk. berezirik gabe	235.266	238.776	244.948	251.249	257.608	264.518	269.418	2,7	1,9
Haur hezkuntza	63.980	68.754	76.255	81.273	84.851	88.308	90.399	4,1	2,4
Lehen hezkuntza	97.139	97.802	98.502	100.497	103.859	107.329	109.949	3,3	2,4
Hezkuntza berezia (haur-lehen hezkuntza)	404	412	382	397	404	412	423	2,0	2,7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	74.147	72.220	70.191	69.479	68.898	68.881	69.070	0,0	0,3
Hezkuntza Berezia (DBH)	172	168	186	201	184	199	202	8,2	1,5
Irakaskuntza ertainak edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO), hezk. berezirik gabe	64.298	61.734	59.815	58.087	55.982	54.326	55.517	-3,0	2,2
Batxilergoa	34.469	32.631	31.667	30.719	30.043	29.112	29.524	-3,1	1,4
LH. maila ertaina	11.203	10.999	11.050	11.023	10.523	10.266	10.539	-2,4	2,7
LH. goi-maila	18.626	18.104	17.098	16.345	15.416	14.948	15.454	-3,0	3,4
Zereginen ikaskuntza (LH. Hezkuntza Berezia)	385	407	377	375	395	387	424	-2,0	9,6
DBHO osotik batxilergoak ordezkatzen duen %	53,6	52,9	52,9	52,9	53,7	53,6	53,2	-0,1	-0,8
DBHO osotik LH-k ordezkatzen duen %	46,4	47,1	47,1	47,1	46,3	46,4	46,8	0,2	0,9

(1) Unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko ikaskuntzak. Hemen ez dira aintzat hartu helduen hezkuntza ezta erregimen bereziko irakaskuntzak ere (arte eta ofizioak, hizkuntzak eta musika).

Iturria: EUSTAT

soziokulturalak (%9,6), eta informatika (%8; jaisten jarraitzen du: 2006-07 ikasturtean %9,3 izan zen, 2005-06an %11,8, eta 2003-04an familia profesionalik eskatuena zen, ikasle guztien %13,3 bereganatuz).

1.2.2.2. Eboluzioa, zentroen eta eredu soziolinguistikoaren titulartasunaren arabera

(f) Eboluzioa, titulartasunaren arabera

Hezkuntzaren erreforma abian jartzeko helburuz 1994. urtean eskola planifikazioa egiterakoan, sare bakoitzari esleitu behar zitzaizkien portzentajeak zenbatekotu ziren Kuota horiek, sare publikoaren kasuan, %48,4an finkatu ziren 3-16 tarterako (Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta DBH) eta %58,9an derrigorrezko hezkuntzaren ondokoa.

Eskolako mapa egin zen moduaren ondorioz, aurreko urteetako memoria sozioekonomikoetan islatu dugunez, 12 urte-tik aurrerako ikasle asko galdu zituen sare publikoak. Horrela, Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2005eko txostenaren arabera, 2001-02 ikasturtera arte, ehuneko lau punturaino galdu dira 3-16 urteko tartean, eta zazpi puntu 16-19 tartean. Eboluzio honen arrazoitzat jotzen da zentro pribatuen ituntzeak gora egin

duela, baita zenbait faktore soziologiko ere, hala nola zentro horien ideologiak, ikasketa-eskaintza handiagoa izatea, eta eskolaz kanpo egiten dituzten jarduerak.

EUSTATEk argitaratutako datuen arabera, irakaskuntza publikoko prestakuntza ziklorik txikienetan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBH) matrikulatutako ikasleen portzentajeak igotzen jarraitzen du azken urteetan; 2007-08 ikasturtean %48,5ekoa da. Mailaren arabera banatuta, ikus dezakegu haur hezkuntzak eta lehen hezkuntzak aipatutako helburua gainditu dutela, matrikulazio publikoko %51,1arekin eta %49,2arekin hurrenez hurren.

DBHn, 4,8 puntu geratuko lirateke helburua lortzeko (%48,8) eta DBHOaren kasuan, helburura (%58,9) dagoen distantzia 6,4 puntukoa da.

Azkenik, esan behar dugu EUSTATEN 2007ko datuen arabera (dauzkagun azken kopuruak), zentro pribatuen %83 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin itunduak direla, bai osorik, bai zati batez. Estaldura hori %98ra iristen da derrigorrezko hezkuntzan, hau da, lehen hezkuntzan eta DBHn. Gainerako mailetan ere portzentajeak altuak dira: batxilergoan %97, lan heziketan %93 eta haur hezkuntzan %83.

I.1.20. LAUKIA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK

		2004-05 IKAST.		2005-06 IKAST.		2006-07 IKAST.		2007-08 IKAST.	
FAMILIA		Maila ertaina	Goi-maila	Maila ertaina	Goi-maila	Maila ertaina	Goi-maila	Maila ertaina	Goi-maila
Nekazaritza / nekazaritzako jarduerak	Guztira	176	149	163	141	150	141	130	126
	% emakumeak	22,2	28,9	22,7	23,4	22	23,4	29,2	24,6
Itsasoa eta arrantza / itsasoko eta arrantzako jarduerak	Guztira	58	98	71	144	83	144	76	127
	% emakumeak	1,7	8,2	1,4	13,2	0	13,2	1,3	7,9
Metala / fabrikazio mekanikoa	Guztira	2104	2145	1884	1976	1679	1976	1653	1653
	% emakumeak	3,7	11,9	4,8	13,4	6,313282	13,4	6,2	12,6
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira	1325	2.201	1.325	2.116	1.200	2.116	1165	1883
	% emakumeak	2	10,1	3,7	9,1	4,166667	9,1	3,8	9,2
Kimika	Guztira	110	745	97	643	82	643	59	517
	% emakumeak	66,4	58	39,1	58	63,41463	58	64,4	55,3
Eraikuntza eta obrak / eraikuntza eta obra zibila	Guztira	145	640	125	672	98	672	92	690
	% emakumeak	5,5	30,3	10,4	34,4	9,183673	34,4	8,7	32,2
Zura / zura eta altzariak	Guztira	229	62	247	43	243	43	231	50
	% emakumeak	5,7	21	6,5	20,9	9,465021	20,9	8,2	18,0
Ostalaritza eta turismoa	Guztira	640	695	628	680	622	680	585	616
	% emakumeak	45,2	67,9	42	64,9	41,80064	64,9	40,0	60,6
Osasunekoia / osasuna	Guztira	1264	1152	1317	1091	1363	1091	1370	1043
	% emakumeak	93,2	83,2	92,6	84,6	91,8562	84,6	93,1	83,6
Arte grafikoak	Guztira	231	336	219	319	191	319	185	285
	% emakumeak	48,5	55,7	46,1	53,3	46,59686	53,3	51,4	58,9
Automozioa / autopropul- tsatutako ibilgailuen mantenimendua	Guztira	943	393	970	420	925	420	878	449
	% emakumeak	2,8	2,5	2,1	2,9	2,702703	2,9	2,2	4,2
Irudia eta soinu / komunikazioa, irudia eta soinu	Guztira	78	321	72	344	66	344	73	342
	% emakumeak	56,4	43,3	48,6	42,7	57,57576	42,7	54,8	37,1
Ile-apaintza eta estetika / irudi pertsonala	Guztira	830	204	841	195	842	195	823	214
	% emakumeak	98,4	100	98,3	100	98,57482	100	99,1	99,5
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	Guztira	118	401	108	434	104	434	110	464
	% emakumeak	24,6	35,7	27,8	28,8	36,53846	28,8	30,0	28,4
Administrazioa	Guztira	1073	2075	1003	2023	955	2.023	985	1938
	% emakumeak	81,6	76,1	82,5	77,2	81,15183	77,2	79,2	77,9
Komunitatearentzako zerbi- tzuak/ zerbitzu soziokulturalak	Total	124	1287	215	1338	199	1.338	239	1428
	% emakumeak	94,4	92,5	93,5	92,7	91,9598	92,7	91,2	90,5
Komertzioa eta marketinga	Guztira	447	892	366	837	346	837	320	824
	% emakumeak	78,5	58,3	77,3	55,1	79,47977	55,1	71,6	52,4
Informatika	Guztira	341	2274	547	1.807	571	1.807	527	1240
	% emakumeak	24	27	21,9	25,1	20,31524	25,1	20,1	23,4
Ehungintza, jantzigintza eta larrua	Guztira	25	47	16	71	1	71	0	79
	% emakumeak	92	93,6	93,8	90,1	100	90,1	—	94,9
Elikagaien industriak	Guztira	31	15	22	19	28	19	10	8
	% emakumeak	35,5	80	31,8	68,4	28,57143	68,4	40,0	62,5
Mantenimendua eta produktzioarako zerbitzuak	Guztira	758	966	787	1032	775	1.032	755	972
	% emakumeak	3,7	13,1	4,2	13	1,419355	13	3,3	10,6
Guztira	Guztira	11.050	17.098	11.023	15.313	10.523	15.313	10.266	14.948
	% emakumeak	37,9	42,8	38,2	43,1	38,6	45,2	40,2	43,8

Iturria: EUSTAT.

(g) Eboluzioa, eredu soziolinguistikoaren arabera

Hezkuntza sistemak, Euskadiko Eskola Kontseiluak azaltzen duenez, funtzio erabakigarria bete du euskara berreskuratzeko prozesuan. Halere aurrerapen horrek ez du bermatzen lortu nahi den maila, indarrean dagoen araudian jasota dagoena.

Hain zuzen ere, egin diren ebaluazioek, aurreko memoria sozioekonomikoetan zehaztuak, agerian uzten dute hau batez ere A ereduan gertatzen dela, B ereduan ere nahiko sarri, eta D ereduan ere kontuan izateko moduko fenomenoak dela.

I.1.21. LAUKIA. IKASLEEN BANAKETAREN EBOLUZIOA, ZENTROEN TITULARTASUNAREN ARABERA*

	2003/2004			2004/2005			2005/2006			2006/2007		
	Guzt.	Publik.	Prib.	Guzt.	Publik.	Prib.	Guzt.	Publik.	Prib.	Guzt.	Publik.	Prib.
Guztira*	304.763	48,4	51,6	309.336	48,5	51,5	313.590	48,9	51,1	318.844	49,2	50,8
Beheko mailak	244.948	47,3	52,7	251.249	47,5	52,5	257.608	48,1	51,9	264.518	48,5	51,5
Haur hezkuntza	76.255	51,4	48,6	81.273	50,6	49,4	84.851	51,0	49,0	88.308	51,1	48,9
Lehen hezkuntza	98.502	47,8	52,2	100.497	48,4	51,6	103.859	48,7	51,3	107.329	49,2	50,8
DBH	70.191	42,1	57,9	69.479	42,6	57,4	68.898	43,4	56,6	68.881	44,0	56,0
DBHOko mailak	59.815	53,1	46,9	58.087	52,9	47,1	55.982	53,0	47,0	54.326	52,5	47,5
Batzilergoa	31.667	53,9	46,1	30.719	53,3	46,7	30.043	53,3	46,7	29.112	52,6	47,4
LH, maila ertaina	11.050	57,7	42,3	11.023	57,4	42,6	10.523	57,5	42,5	10.266	56,7	43,3
LH, goi-maila	17.098	48,8	51,2	16.345	49,1	50,9	15.416	49,2	50,8	14.948	49,4	50,6

* HHE eta hezkuntza berezia kanpo utzita. Iturria: EUSTAT.

I.1.22. LAUKIA. GOI-MAILAKO HEZKUNTZAN (1. ETA 2. ZIKLOAK) MATRIKULATUTAKO IKASLEEN EBOLUZIOA, SEXUAREN ETA DENBORALDIAREN ARABERA

	1996-97	1997-98	1998-99	1999-2000	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08 (behin-behinekoak)
Guztira	88.914	88.557	87.386	85.202	80.336	76.129	74.197	71.960	69.696	66.322	63.691	61.649
Gizonak	41.147	40.686	40.101	38.867	36.418	34.467	33.564	32.346	31.746	30.219	29.048	27.831
Emakumeak	47.767	47.871	47.285	46.335	43.918	41.662	40.633	39.614	37.950	36.103	34.643	33.818

Iturria: EUSTAT.

I.2.3. Unibertsitate irakaskuntzen eboluzioa⁹

EUSTATen datuen arabera, goi-irakaskuntzako matrikulazioa EAEn (unibertsitate guztientzat, bai publikoak bai pribatuak) 1997-98 ikasturteaz geroztik jaitsi da, zenbait etenekin. Sexuaren arabera banatuta, joera errepikatzen da (emakumeen kasuan, ordea, jaitsiera 1998-99 ikasturtean hasi zen). Azken datuek, 2007-08ko ikasturteari buruzkoak eta behin-behinekoak direnak, ikasle-kopuruan %3,2ko beherakada erakusten dute aurreko ikasturtearen aldean (%4,2 gizonentzat eta %2,4 emakumeentzat). Horrela, nahiz eta azken bost urtekoan ez den biztanle-kopurua igo, 80ko eta 90eko hamarkadetan izandako jaitsiera unibertsitateko irakaskuntzetako matrikulazio-kopuruan islatzen ari da.

Sexuaren ikuspegitik, emakumezkoen matrikulazioaren proportzioak, kopuru osoaren aldean, %50 gainditzen du. 2007-08 ikasturtean, matrikulazioen %54,9 emakumeenak dira. Portzentaje hori pixka bat handiagoa da aurreko ikasturtearen erregistratutakoa baino (%54,4).

Bestalde, INEren unibertsitateko estatistikaren aurrerapenak agerian uzten du 2007-2008 ikasturtean estatuko unibertsitateetan 1.396.607 ikasle matrikulatu direla. Hau da, aurreko ikasturtearen aldean %1eko jaitsiera gertatu da. EAEn, jaitsiera hori %2,5era

iristen da. Horrela, unibertsitatearen kopuru absolutuaren beherazko joera, estatuan 2000-01 ikasturtean eta EAEn ikasturte bat lehenago hasi zena (estatistika-seriea 1998-99 ikasturtean hasi zen, aurreko ikasturteei buruzko informaziorik ez baitaugaru), berresten da. Joera horren arrazoiak, neurri handi batean, adin horretako biztanle-kopurua jaitsi dela da.

Hain zuzen ere, 18 eta 25 urte arteko biztanle guztien artean unibertsitateko portzentajeak gora egin du 2007-08 ikasturtean. EAEn, 2006-07 ikasturtean %30,7 izanik, 2007-08 ikasturtean %31,2 zen. Estatuan, berriz, 18 eta 25 urte arteko biztanle guztien artean unibertsitateko portzentajea %30,6 izatetik %31 izatera igaro da. Bestela esanda, estatuan, unibertsitateko kopurua, 18 eta 25 urte arteko biztanle guztien artean, EAEn baino pixka bat txikiagoa da, baina eboluzioa goranzkoa da.

EUSTATen unibertsitateko estatistikara itzuliz, hona hemen zenbait berezitasun:

- Matrikulazioaren gutxikuntza sare pribatuan nahiz publikoan gertatzen da, nahiz eta jaitsiera handiagoa den pribatuan publikoan baino. Hain zuzen ere, 2002-03 eta 2007-08 ikasturteen artean, matrikulazioa %31,3 jaitsi zen pribatuan, eta publikoan %14,9.

⁹ EAEko unibertsitate egitura lau unibertsitatek osatzen dute batez ere: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak, Mondrago Unibertsitateak eta UNEDek bere zentro elkartuen bidez.

I.1.23. LAUKIA. UNIBERTSITATEKO IKASLEEN EBOLUZIO HISTORIKOA (HIRUGARREN ZIKLOA AINTZAT HARTU GABE)

	EAE			Estatua			% EAEko ikasleak / estatukoak guztira
	ikasleak	18 eta 25 urte arteko biztanleak	% ikasle, 18 eta 25 urte arteko biztanleen artean	ikasleak	18 eta 25 urte arteko biztanleak	% ikasle, 18 eta 25 urte arteko biztanleen artean	
1999-2000	78.225	266.591	29,3	1.587.055	5.229.436	30,3	4,9
2000-01	74.958	257.365	29,1	1.554.972	5.158.001	30,1	4,8
2001-02	70.905	246.816	28,7	1.526.907	5.107.285	29,9	4,6
2002-03	69.386	235.747	29,4	1.507.147	5.046.474	29,9	4,6
2003-04	66.649	222.678	29,9	1.488.574	4.970.979	29,9	4,5
2004-05	64.650	210.691	30,7	1.446.879	4.835.684	29,9	4,5
2005-06	61.352	199.803	30,7	1.433.016	4.739.361	30,2	4,3
2006-07	58.313	190.092	30,7	1.410.440	4.614.791	30,6	4,1
2007-08	56.849	182.320	31,2	1.396.607	4.499.702	31,0	4,1

Iturria: INE.

I.1.24. LAUKIA. MATRIKULAZIOEN EBOLUZIOA 1 ETA 2. ZIKLOETAN, ZENTROEN TITULARTASUNAREN ARABERA

	2002-03		2003-04		2004-05		2005-06		2006-07		2007-08	
	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %
Guztira	76.129	54,8	74.197	55,1	71.960	54,5	69.696	54,4	66.322	54,4	61.649	54,9
Publikoa	57.109	55,5	55.958	56,2	54.943	55,6	54.180	55,7	51.758	55,4	48.580	55,6
Pribatua	19.020	52,4	18.239	51,4	17.017	50,5	15.516	49,8	14.564	50,6	13.069	52,1
publikoko matrikulazioa %	75,0	—	75,4	—	76,4	—	77,7	—	78,0	—	78,8	—

Iturria: EUSTAT, datu-basea.

I.1.25. LAUKIA. MATRIKULAZIOAREN EBOLUZIOA, TITULAZIOEN ARABERA

	1995-96	1996-97	1997-98	1998-99	1999-2000	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08
Arkitektura	993	1.291	1.359	1.380	1.401	1.379	1.370	1.352	1.318	1.320	1.539	1.541	1.486
Goi-ingeniarietza	5.316	9.498	8.467	8.479	9.130	9.254	9.036	9.153	9.046	8.700	8.212	7.717	7.142
Lizentziaturak	53.647	50.485	50.225	47.660	44.892	41.232	38.282	36.215	33.882	31.807	29.383	27.801	27.086
Diplomaturak	15.541	16.925	17.347	18.168	18.089	17.074	15.837	15.583	15.276	15.405	15.057	14.833	14.739
Arkitekto teknikoa	—	—	—	—	—	—	—	76	148	231	284	291	311
Ingeniarietza teknikoa	9.546	10.715	11.159	11.699	11.690	11.397	11.459	11.818	12.290	12.233	11.847	11.508	10.885
Guztira	85.043	88.914	88.557	87.386	85.202	80.336	75.984	74.197	71.960	69.696	66.322	63.691	61.649

Iturria: EUSTAT.

- Zentro publikoetako matrikulazioak, matrikulazio osoarekin alderatuta, goranzko joera dauka: 2002-03 ikasturtean %75 zen eta 2007-08 ikasturtean, %78,8. Estatuan, INEren datuen arabera, ikasleen %86,4 zentro publikoetan matrikulatu dira eta %13,6 zentro pribatuetan.
- Sexuaren ikuspegitik, emakumezkoen matrikulazioa, matrikulazio osoarekin alderatuta, apur bat igo da, %54,4tik %54,9ra, zenbait urtez egonkor mantendu ondoren.

Matrikulazioen eboluzioaren titulazioen araberrako analisiak, 2007 eta 2008. urteen artean, EUSTATen datuen arabera, jaitziera erakusten du guztietan, arkitektura teknikoan izan ezik. 2007-08 ikasturtean, eskaeraren sakoneko analisia, titulazioen arabera, egiten badugu, ikusiko dugu lehenengo 15ak ondoko hauek izan zirela:

- 2.000 matrikulazio baino gehiago: enpresen zuzendaritza eta administrazio lizentziatura (5.186 ikasle, %0,5eko gehikuntza

aurreko ikasturtearen aldean), enpresa-zientzietako diplomatura (3.923 ikasle, %2,2 jaitziera), ingeniari-za industrial (2.949 ikasle, %2,5eko jaitziera), ingeniari-za tekniko (espezialitatea: mekanika— (2.849 ikasle, %4,8ko jaitziera), psikologiako lizentziatura (2.734 matrikulazio, %1,5eko jaitziera) eta zuzenbideko lizentziatura (2.673 ikasle, %4,4ko jaitziera).

Aurreko ikasturtean, 2.000 matrikulaziotik gorako enorden berbera izan zen, psikologiako eta zuzenbideko lizentziaturetan izan ezik (alderantziz suertatu ziren).

- 2.000 matrikulaziotik behera: ingeniari-za tekniko (espezialitatea: industrial— (1.959 matrikulazio, %10,8ko jaitziera), haur-hezkuntzako maisua/maistra (1.424 matrikulazio, aurreko ikasturtean baino %1,1 gehiago), lehen hezkuntzako maisua/maistra (1.632 matrikulazio, aurreko urtean baino %1,9 gutxiago), gizarte hezkuntzako diplomatur (1.535 matrikulazio, %1,2 gehiago), arkitektura (1.486 matrikulazio, aurreko urtean baino %3,6 gutxiago), arte ederretako lizentziatura (1.399, %3,3 gutxiago), kudeaketa-informatikako ingeniari-za tekniko (1.336, %8,9 gutxiago), medikuntza eta kirurgiako lizentziatura (1.310, %4,5eko igoera) eta ingeniari-za informatikoa (1.219, %15,5 gutxiago).

2006-07 ikasturteetik 2007-08 ikasturtera izandako aldakuntzak erakusten du gehienek ikasleak galdu dituztela. Salbuespenak haur hezkuntzako maisu/maistretan, gizarte hezkuntzako diplomaturan eta medikuntza eta kirurgiako lizentziaturan daude. Titulazio horietan emakumeak daukan parte hartzeari dagokionez, hiru talde daude:

- Emakume asko dituztenak (%70 inguru edo gehiago emakumeak): haur hezkuntzako maisua/maistra, haur hezkuntzako maisua/maistra, psikologiako lizentziatura, gizarte hezkuntzako diplomatura, medikuntza eta kirurgiako lizentziatura, eta arte ederretako lizentziatura. Aurreko urteetan izandako berberak.
- Emakumeen presentzia %50 %-60 dena: zuzenbideko lizentziatura, enpresen zuzendaritza eta administrazioko lizentziatura, arkitektura, eta enpresa-zientzietako diplomatura. Aurreko urteetan izandako berberak hemen ere.
- Emakumeak %29 baino gutxiago direnak: kudeaketa-informatikako ingeniari-za tekniko (%28,2), ingeniari-za industrial (%26,3) eta ingeniari-za industrial (%26,1).
- Emakumeak %20 baino gutxiago direnak: ingeniari-za tekniko elektroniko industrial (%17,9) eta ingeniari-za tekniko mekaniko (%17,8).

1.2.3.2. Unibertsitateko hirugarren zikloa EAEn


EUSTATen datuen arabera, unibertsitateko hirugarren zikloko matrikulazioak 2001-02 ikasturteaz geroztik zeukan goranzko joera hau 2005-06 ikasturtean hautsi zen, eta harrezkero jarraitzen du. Halere, 2004-05 ikasturtean, hirugarren zikloan 2.698 ikasle ari ziren ikasten (2003-04 ikasturtean baino 101 gehiago). 2005-06 ikasturtean 2.602ra jaitzi zen kopurua (%3,6ko jaitziera), 2006-07 ikasturtean 2.386 ikaslerara jaitzi zen, eta 2007-08 ikasturtean 2.249 ikaslerara.

1.1.26. LAUKIA. IKASLEEN EBOLUZIOA 2007-08 URTEAN GEHIEN ESKATU DIREN 15 TITULAZIOETAN

	2002-03		2003-04		2004-05		2005-06		2006-07		2007-08		2006/07 eta 2007/08 aldakuntza
	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	
Enpresen zuzend eta adm lizen.	6.601	58,9	6.249	58,8	5.861	58,7	5.861	57,7	5.161	57,3	5.186	57,6	0,5
Enpresa zien diplom	4.484	54,1	4.258	53,7	4.110	53,1	4.110	52,4	4.011	53,6	3.923	53,4	-2,2
Ingen. industrial	3.748	25,5	3.584	25,8	3.356	26,3	3.356	25,5	3.024	25,4	2.949	26,3	-2,5
Ingen tekn mekanikoa	3.030	16,9	3.121	16,9	3.175	17,4	3.175	17,6	2.994	18,2	2.849	17,8	-4,8
Psikologia liz.	2.862	79,3	2.822	81,8	2.792	79,5	2.792	80,0	2.775	79,1	2.734	79,3	-1,5
Zuzenbide liz	5.127	59,5	4.203	60,5	3.658	58,8	3.658	59,4	2.797	58,3	2.673	59,0	-4,4
Ingen tek elektr indus	2.747	20,7	2.676	19,6	2.528	19,3	2.528	18,8	2.197	17,7	1.959	17,9	-10,8
Haur hezk maisu/maist	1.839	89,3	1.872	89,7	1.883	91,4	1.883	91,0	1.824	90,1	1.844	89,9	1,1
Lehen hezk maisu/maist	1.330	72,2	1.518	73,1	1.587	72,7	1.587	73,7	1.663	74,3	1.632	75,4	-1,9
Gizarte-hezk diplom	1.440	84,4	1.451	83,7	1.480	82,3	1.480	82,1	1.517	82,5	1.535	81,5	1,2
Arkitektura	1.352	53,5	1.318	54,0	1.320	53,8	1.320	54,1	1.541	53,9	1.486	54,6	-3,6
Arte eder liz	1.552	69,8	1.515	70,2	1.539	71,0	1.539	70,9	1.447	69,5	1.399	69,3	-3,3
Kudeaketa-inform ingen tek	2.107	32,0	2.155	34,0	1.969	33,6	1.969	31,8	1.466	28,8	1.336	28,2	-8,9
Medik eta kirurg liz	1.240	78,6	1.228	78,5	1.194	77,6	1.194	77,3	1.254	77,5	1.310	77,6	4,5
Ingen inform	1.960	25,4	1.871	25,9	1.790	24,5	1.790	25,2	1.443	26,1	1.219	26,1	-15,5

Iturria: EUSTAT. Datu-basea.

I.1.37. Grafikoa. Hirugarren zikloan matrikulatuta dauden ikasleak, tituluaren eta sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT. Datu-basea.

I.1.27. LAUKIA. DOKTORETZA IKASTAROETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN EBOLUZIOA

	2006-07			2007-08			Aldakuntza kop. osoetan, 2006-07 eta 2007-08	Aldakuntza emakumeetan, 2006-07 eta 2007-08
	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GUZTIRA	EMAKUMEAK			
		kop	%		kop	%		
Estatua	72.741	37.682	51.8	66.973	35.024	52,3	-7,9	-7,1
Unibertsitate publikoak	68.673	35.742	52.0	63.220	33.287	52.7	-7.9	-6.9
Unibertsitate pribatuak	4.068	1.587	39.0	3.753	1.737	46.3	-7.7	9.5
EAE								
UPV-EHU	1.971	1.049	53.2	1.668	893	53.5	-15.4	-14.9
MONDRAGON	120	43	35.8	110	41	37.3	-8.3	-4.7
DEUSTU	187	97	51.9	159	81	50.9	-15.0	-16.5
EAE GUZTIRA	2.278	1.189	52.2	1.937	1.015	52.4	-15.0	-14.6
Unibertsitate publikoak (1)	1.971	1.049	53.2	1.668	893	53.5	-15.4	-14.9
Unibertsitate pribatuak (2)	307	140	45.6	269	122	45.4	-12.4	-12.9

(1) UPV-EHU barne.

(2) Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea barne.

Iturria: INE.

Aurreko urteetan ez bezala, sare pribatuan matrikulazioan gehitu egin da. Azken bi urteetan 414 ikasletik 719 ikaslera igaro da. Halere, gehienek (2.249tik 1.530ek, hau da, %68ak) hirugarren zikloko ikasketak sare publikoko zentroetan ikasten jarraitzen dute.

Sexuari dagokionez, emakume kopuruak gizon kopurua gainditzen du (1.173 emakume eta 1.076 gizon).

INEren datuen arabera, EAEen matrikulatuta dauden ikasleen kopurua (UPV-EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko

Unibertsitatea kontuan izanik), doktoretza ikastaroetan, berriro jaitsi da 2006-07 ikasturtean eta 2007-08 ikasturtean, %14,6 (aurreko ikasturtean %8,1 jaitsi zen). Matrikulazio kopurua 1.937 pertsonara iristen da. Haietatik 1.015 (%52,4) emakumeak dira. Bestela esateko, emakume gehiago dago gizon baino. Berdin gertatzen da estatuan (%52,3 emakumeak dira). Gainera, haien pisua kopuru osoan gora doa EAEen eta estatuan. Zentro hauen titulartasunari dagokionez, matrikulaziorik gehienak sare publikoan egiten dira, bai EAEen bai estatuan

(EAEn, %86,1). Aitzitik, pisua pixka bat arindu da sare pribatuaren mesedetan (aurreko urtean, %86,5 ziren). Hain zuzen ere, Deustuko Unibertsitateko ikasleen kopurua, kopuru osoarekin alderatuta, %8,2 da oraindik ere (kopuru absolutuetan ikasleak galdu dituen arren) eta Mondragon Unibertsitatea %5,3tik %5,7ra igo da (kopuru absolutuetan honek ere ikasleak galdu dituen arren).

1.2.4. Ikerkuntza Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatean

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten diren I+G+b jardueren eta haien neurriari dagokien, bereiztu egin behar dira fondo espezifikoak (kanpo-finantzazioa duten proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerkuntzarako bekak, eta ikerkuntzako azpiegiturarako inbertsioak) eta fondo orokorrak, irakasleek ikerkuntza jardueretan ematen duten denbora eta horrek dakarren kostu orokorraren estimazioan oinarritzen direnak: irakasleen gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastuak, inbertsioak eta bestelako gastuak.

Lehenengoetan oinarrituta, ondorioztatu da UPV-EHUK egingako ikerkuntza jarduerak azken hamarkadan hazi dela (2003

eta 2004. urteen artean gertatuko erorketa kontuan izan gabe). 1997 eta 2006. urteen artean, jarduera hori %138,6 igo zen: 20,5 milioi eurotatik 48,7 milioi eurotara. Baina bereziki deigarria da 2006 eta 2007. urteen artean gertatutako hazkuntza: %24,5, 60,8 milioi eurotaraino.

Gehiena, %36,3 (22,1 milioi euro), ikerkuntza proiektuei dagokie. Horren ondoren, Unibertsitatea Antolatze Legearen (UAL) 83. artikularen itzalpean sinatutako kontratuak datoz, fondo guztien %21,2 direnak (12,8 milioi euro). Aitzitik, balio absolutua azken bi urteen artean jaitsi da eta prestakuntzan ari diren langileentzako fondoak eta azpiegitura zientifikorako fondoak nabarmen igo dira.

Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua arlo berberetan kontzentratzen da. Horrela, 2007. urteetan, zientzia esperimentalak guztien %36,4 ziren (2006an %39,3), teknikoak %30,1 (2002an %26,2), eta gizarte eta lege zientziak %11,5 (2002an %12,9).

Fondoen jatorriari dagokionez, gehienak Eusko Jaurlaritzatik datoz, gero estatutik, zuzeneko kontratazioetik eta fondo propioak, 28,9 / 23 / 21,2 / 20,9 proportzioan. Nabarmena da fondo

1.1.28. LAUKIA. EMANDAKO / KONTRATATUTAKO I+G+B JARDUERA MOTEN EBOLUZIOA (eurotan)

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Ikerkuntza proiektuak	11.658.668	10.348.341	14.245.278	16.563.063	14.472.938	19.228.592	19.139.665	22.439.020	22.078.138
I+G kontratuak, UALen 83. artikularen arabera	5.479.362	7.731.744	7.442.210	6.902.292	8.253.657	9.966.061	9.993.403	13.235.928	12.879.145
Ikerkuntza taldeak	2.396.645	1.702.108	3.427.773	4.256.376	4.763.786	4.395.127	5.811.131	6.447.949	8.289.127
Ikerkuntzaile / teknikarien kontratazioa	620.085	554.571	568.849	546.225	536.588	1.843.658	2.677.727	569.210	1.111.497
Prestakuntza ari diren langileak	3.523.854	3.934.706	4.553.747	6.275.609	6.208.889	1.704.000	2.102.400	2.051.638	9.935.973
Azpiegitura zientifikoa	1.609.614	1.995.834	1.373.710	2.423.285	4.172.648	1.301.818	5.655.172	981.772	3.542.695
Ikerkuntzaile mugikortasuna	795.035	532.076	282.220	455.435	556.772	346.937	243.463	623.372	801.934
Ekipamenduak	189.845	526.767	295.820	318.702	648.067	220.594	743.615	2.222.177	868.958
Bestelakoak	134.567	0	0	0	0	0	196.362	236.467	1.254.158
GUZTIRA	26.407.675	27.326.147	32.189.607	37.740.987	39.613.345	39.006.788	46.562.937	48.807.533	60.761.625

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea kopurutan, 2007-08.

1.1.29. LAUKIA. I+G+B JARDUEREN EBOLUZIOA, EREMU ZIENTIFIKOEN ARABERA

	2003	2004	2005	2006	2007
Zientzia esperimentalak	10.975.751	18.655.092	24.843.322	19.174.523	22.108.443
Irakaskuntza teknikoak	11.343.502	11.414.390	9.154.935	12.804.217	18.319.582
Osasun zientziak	7.033.966	4.056.031	3.589.662	4.413.473	5.801.784
Gizarte eta lege zientziak	7.811.321	2.903.553	4.521.404	6.290.040	6.983.260
Humanitateak	2.448.805	1.977.722	4.313.712	5.183.629	5.861.931
Zenbait arlo	0	0	139.904	941.650	1.686.625
GUZTIRA	39.613.345	39.006.788	46.562.937	48.807.533	60.761.625

Oharra: 2003rako, urteko memorietan dagoen informazioa, programa motaren arabera eta finantzazio iturriaren arabera, batuz eskuratu dira datuak. Beraz, estimazio hutsa dira.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea kopurutan, 2007-08.

I.1.30 LAUKIA. I+G+B FONDOEN JATORRIAREN BILAKAERA

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Autonomikoa	9.219.844	8.435.866	10.297.960	17.124.901	15.699.487	11.999.900	15.434.027	15.125.591	17.548.293
Estatukoa	3.127.063	5.248.019	5.838.103	6.804.455	8.862.877	10.592.559	10.195.368	14.037.027	13.964.226
Zuzeneko kontratazioa	5.479.362	7.731.745	7.442.210	6.902.292	8.253.657	9.966.061	9.993.403	13.235.928	12.879.145
Fondo propioak	7.090.272	5.748.717	6.906.162	5.572.381	6.088.476	4.482.238	5.483.460	5.665.904	12.670.458
Nazioartekoa	1.491.134	161.800	1.705.172	1.336.958	708.670	1.965.885	5.456.680	743.083	3.699.503
GUZTIRA	26.407.675	27.326.147	32.189.607	37.740.987	39.613.167	39.006.788	46.562.937	48.807.533	60.761.625

Oharra: 1999-2003 urteetarako, urteko memorietan dagoen informazioa, programa motaren arabera eta finantzazio iturriaren arabera, batuz eskuratu dira datuak.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea kopurutan, 2007-08.

I.1.31. LAUKIA. BESTE EMAITZA BATZUK. ARGITALPENAK ETA ERREGISTRATUTAKO PATENTEAK

	Argitalpenak*			Patenteak					
	Zientzia esperimentalak, zientzia teknikoak eta osasun zientziak	Gizarte eta lege zientziak eta humanitateak	Guztira	Eskaerak (GUZTIRA)	Espainiarak	Europarrak	Nazioartekoak	PCT (Berriak eta luzapenak)**	Emandakoak
2000	626	53	679	3	3	—	—	—	0
2001	742	34	776	5	4	—	1	—	5
2002	670	39	709	3	3	—	—	—	3
2003	778	52	830	7	5	1	—	1	2
2004	824	55	879	10	7	—	—	3	3
2005	970	57	1.027	14	9	—	—	5	7
2006	1.069	77	1.146	29	15	2	3	9	0
2007	1.126	97	1.223	34	16	7	6	5	0

* Science Citation Index-en eta Social Science Citation Index-en erregistratutako argitalpen zientifikoak.

**PCT: Patent Cooperation Treaty.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea kopurutan, 2007-08.

propioek 2006 eta 2007. urteen artean izandako hazkundera, aurreko urteetako joerarekin alderatuta.

Azkenik, patenteen gain, emaitzak txikiak dira oraindik ere. 2007an eskatutako patente kopurua 34 da, baina ez zen bat ere eman. Bestalde, argitalpen kopurua apurka-apurka gehitu da, 1.223raino iritsi arte. Haietatik gehienak argitalpen zientifikoak dira, zientzia esperimentaletan, zientzia teknikoetan eta osasun zientzietan erregistratuak.

1.2.5. Unibertsitateko gradudunen laneratzeko maila


2008. urtean, Egailanek, bere Lan Merkatuko Behatokiaren bidez, 2004ko promozioan UPV-EHuko unibertsitate tituladunen laneratzeari buruzko inkesta berria egin zuen. Unibertsitateko ikasketak amaitu zituztenetik 3 urte eta erdi igaro ondoren egiten den inkestatik dator informazioa. Promozio hori amaitu zuten guztietatik (7.612), guztira 5.708 ikasle ohik parte hartu zuten. Erantzun maila %76 izan zen (2003an lortutakoa baino 5 puntu handiagoa). Horrek emaitza globalen fidagarritasuna

bermatzen du eta titulazio ezberdinetako lan-egoerei hurbilketan nahiko argigarria egiteko bidea ematen du.


Ondokoa nabarmendu behar dugu:

- Amaitu duten pertsonen kopuruan atzerantzko joera dago: %20 1998ko promozioaren aldean, eta %8 2003ko promozioaren aldean. Teknikoak eta osasuna salbuespena dira, aurreko promozioan baino %4 eta %7 ikasle gehiago baitituzte.
- Emakumeen presentzia %61 da. Aurreko promozioaren aldean %11eko jaitiera izan dute. Zehazki, haien presentzia %2 jaitsi da teknikoetan eta humanitateetan, eta osasunean gehitu da.
- Jakintza-eremua aukeratzeko orduan, sexuaren arabera saillapenak bere horretan dirau. Karrera teknikoetan graduatutako emakumeak %11 dira, eta gizonetan %48 (aurreko promozioan, %5 eta %30 izan ziren, hurrenez hurren). Bestalde, osasunaren eremuan emakumeak %87 dira (aurreko promozioan, %81).

I.1.38. Grafikoa. Lanean txertatzea. Enplegu tasa. Okupatutako biztanleen/Promozio osoaren %.
Batez besteko enplegu tasa % 89,9



I.1.39. Grafikoa. Lanean txertatzea. Langabezi tasak. Langabezian dagoen biztanleriaren/Lanean dagoen biztanleriaren %. Langabeziaren batez besteko tasa % 6,9



Lortutako datuek ondokoa erakusten dute:
2004ko promozioiko **jarduera-tasa**¹⁰ %96,5 izan zen, hau da, aurreko promozioan baino 1,6 puntu gehiago.
%89,8ko **enplegu-tasak** erakusten du enplegu-maila 5,9 puntu igo dela 1998koaren aldean. Sexuaren arabera ezberdintasuna ez da garrantzitsua: %89,5 emakumeentzat eta %91,4

gizonentzat. Emakumezkoen tasa handiagoa da gizartean, gizarte izaerakoetan eta ekonomi izaerakoan. Humanitateetan bakarrik dago gizonentzakoen azpitik.

Langabezi tasa %6,9 izan zen, urte hauetan bizi izan dugun egoera ekonomiko onaren ondorioz. Emakumeen kasuan gizonen kasuan baino handiagoa da: %7,2 eta %3 hurrenez hurrenez.

¹⁰ Biztanleria aktiboa: lanean ari direnak eta langabetuak.

rrren. Osasunean emakumeen artean ez dago ia langabeziarik, teknikoetan dauden gizonezkoenaren antzekoa, ekonomi eta gizarte izaerakoetan txikiagoa, eta benetan handia humanitateetako emakumeen artean.

Karrera amaitzen denetik lehenbiziko lanpostua lortzen den arte igarotzen den denbora hilabete 1 gehitu da; beraz, ia 10 hilabete dira. Gizarte izaerakoetan, ekonomi eta lege izaerakoetan eta humanitateetan urte bete ingurukoa da, urte erdikoa teknikoetan, eta 3 hilabetekoa osasunekoetan.

Lanean hasteko biderik ohikoenak, oraindik ere, gizarte-harremenen sarea da (eragin asko galdu zuten arren, %12) eta autokandidaturak bidaltzea. Haien ostean, Internet eta unibertsitateko bekak eta praktikak.

Egindako ikasketak eta lanpostua bat etortzeari buruz.

- Bat datorren lanpostua¹ prestakuntza tertziarioaren mailan %84 da. Aurreko promozioaren baino %1,5 altuagoa beraz. Osasunean %100 da eta teknikoetan %96.
- Unibertsitateko ikasketen baldintza duten lanpostuak %5 gehitu dira aurreko promozioaren aldean; %77ra iritsi dira. Osasunean %99 da eta teknikoetan %88.
- Unibertsitate mailako funtzioak dituzten lanpostuak %5 gehitu dira aurreko promozioaren aldean; %72ra iritsi dira. Osasunean %97 da eta teknikoetan %83.

Azkenik, esan behar dugu **lanaren egonkortasuna** hobetu dela. Lana duten pertsonen portzentajea (enplegu-emaleak, autonomoak, kooperatibetako kideak nahiz soldatadun finkoak) 3,6 puntu igo den neurrian, %55era iritsi arte. Are handiagoa da teknikoetan eta ekonomikoetan (%68) eta erdia osasunean (%35). Bestalde, kontratu mugagabea duten biztanle soldatadunen portzentajea 4 puntu igo da aurreko promozioaren aldean, eta %51ra iritsi da.

1.2.6. Hezkuntzako adierazleak

Azken urteetan, hezkuntza sistemek adierazleak egiteko aukera aintzat hartzen dute, sistemaren ezagutza errazteko eta gai honetan erabakiak hartzen direnean orientazioa emateko. Sailkapen asko aurkez daitezke, baina ondoko hau egitea erabaki da:

- Sailkapen erraza egitea eta beste hezkuntza sistema batzuenekin alderaketa erraza egitea ahalbideratzen duten bost adierazle kategoria aintzat hartzea. Hauek dira: testuinguruaren, eskolatzaren, baliabideen, hezkuntza prozesuen eta hezkuntza emaitzen inguruko adierazleak.
- **Lehenetsitako adierazleen** multzo bat definitzea, urtean behin aztertuko direnak.

1.1.32. LAUKIA. ADIERAZLEEN SAILKAPENA

	AZTERTU BEHARREKO EZAUGARRIAK	LEHENETSITAKO ADIERAZLEAK (URTEROKOAK)
Testuinguruaren eta eskolatzaren inguruko adierazleak	Testuinguru sozioekonomikoaren egoera. Adibidez: ezaugarri demografikoak eta eskolatzeara, ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak. Biztanleriaren jatorrak eta espektatibak hezkuntzari buruz.	• Helduen ikasketa-maila.
Eskolatzaren inguruko adierazleak	Eskolatzaren egoera.	• Eskolatzeara eta eskolatzeko itxaropena. • Eskolatzeara tasen eboluzioa, derrigorrezkoak ez diren mailletako adinetan. • Goi-mailako hezkuntzan sartzea. • Atzerriko ikasleak. • Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea.
Baliabideen inguruko adierazleak	Helburuak lortzeko dauden baliabideak (materialak eta giza baliabideak).	• Hezkuntzako gastu osoa, BPGan. • Gastu publikoa hezkuntzan. • Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko. (Ikusi kapituluaren hasiera)
Hezkuntza prozesuen inguruko adierazleak	Zentroen antolaketa eta funtzionamendua, hezkuntza jarduna eta eskolako giroa izaera kualitatiboko adierazleak dira, izaera kuantitatibokoak bainoago.	
Hezkuntza emaitzen inguruko adierazleak	• Hezkuntza sistemak izandako lorpenak. • Ebaluazio probak. • Oinarritzko gaitasunak, jarrerak eta balioak eskuratzea. • Lortutako tituluen ziurtagiriak. • Adinaren egokitasuna derrigorrezko etapetan. • Lan-merkatuan sartzea eta laneko diru-sarrerak.	• 15 urte izatean funtsezkoak diren gaitasunak (hau ez da urtero aztertzen baizik eta PISA egiten denean) • Ikasleen adinaren egokitasuna. • Eskola behar baino lehen uztea. • Graduazio tasak. • Zientzietako, matematiketak eta teknologiatik goi-graduatuak. • Langabezi tasak, hezkuntza mailaren arabera.

¹ Bat datorren lanpostua unibertsitate titulazioa behar duena da (egindako titulazio akademikoarekin zerikusirik izan ez arren), eta bat ez datorren lanpostua infraokupazioa dakarrena da, hau da, unibertsitarioari statusa nabarmen galtzea dakarkiona.

Epigrafe honetan zehar, adierazle horietako batzuk aztertuko ditugu, EUROSTATEk, EUSTATEk eta ISEIk (Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak) argitaratutako azken datuetan oinarrituta.

1.2.6.1. Testuinguruaren inguruko adierazleak. Helduen ikasketa-maila.

Datu berriak ez dagoenez, irakurleari aurreko urteko memoria sozioekonomikoa bidaltzen diogu.

1.2.6.2. Eskolatzearen inguruko adierazleak

(a) Eskolatzetasa

Eskolatzetasa garbia honela definitzen da: maila eta adin-talde bakoitzeko ikasleen eta adin-talde bakoitzeko pertsona kopuru osoaren artean dagoen erlazioa. Maila ezberdinetan ikasteko adinak ondoko hauek dira teoriarik: Haur hezkuntzako lehenengo zikloa (0-2 urte), haur hezkuntzako bigarren zikloa (3-5 urte), lehen hezkuntza (6-11 urte), bigarren hezkuntza (12-17 urte), DBH (11-15 urte), batxilergoa (16-17 urte), maila ertaineko LH (16-17 urte), goi-mailako ikasketak (18-29 urte). Eskolatzetasa adinaren arabera kalkulatzeko, EUSTATEk egindako biztanleria-piramidea, eguneraturik, erabili da, azkenengo ikasturtean izan ezik, zeinetan proiektzioetako datua aplikatu den.

2007-08 ikasturteko irakaskuntzaren estatistika-datuak eskolatzetasetan gehikuntzak erakusten dituzte aurreko ikasturtearen aldean adin-tarteetan, 17 urtera arte.

Bestalde, aurreko denboraldietan bezala, ikusten da eskolatzetasa jaitxi egiten direla adinaren eta ikasketa-mailak gora egiten duten heinean, salbu eta LH-ko eskolatzetasa, teoriarik dagozkion adinetan (16-21 urterekin) ikasten denetan.

18 urtekoen nazioarteko eskolatzetasa alderatuz gero, EUROSTAT eta EUSTATEN datuen arabera, EAE, 2006an %77,7 eta 2007an %76,7 izan zituen, EB-27ak izandako batez beste-ko tasaren gainetik legoke (%77,4), baina EB-25ak daukanaren

azpitik (%78,3). Euro eremuan dagoen portzentajetik urruti dago (%81,4) eta, beraz, erreferentziako lurralderik gehienetan dagoenetik urruti.

(b) Goi-mailako hezkuntzan sartzetasa: Unibertsitatean sartzeko proba gainditu duten ikasleak

INEren datuen arabera, 2008. urtean Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko proba 9.081 lagunek egin zuten (25 urtetik gorakoentzako probetan matrikulatutako pertsonak kontuan izan gabe). Hau da, aurreko urtean baino %3,4 gutxiago. Guztietatik %94ak gainditu zuen: aurreko ikasturtean lortutako portzentaje bera. Bestalde, estatuko unibertsitate publiko guztietan proba egiteko 196.153 lagun matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean erregistratutakoak baino %1 gutxiago alegia. Haietatik %85ak gainditu zuen, aurreko urteko portzentaje bera, eta Euskal Herriko Unibertsitatean lortutakoa baino txikiagoa.

Hautatutako aukerak kontuan izanik, ia ikasle guztiak (9.056) aukera bakar batean matrikulatu ziren. 25 ikasle, berriz, konbinatutako aukerak hautatu zituzten: hau da, aukera bat baino gehiagoko probetara aurkeztu ziren, beste aukera batzuei lotutako ikasgai bat edo gehiago aukerako ikasgai gisa ikasi zutelako.

Eskaera gehien izan zuten aukerak, lehenik eta behin, bide zientifiko eta teknikoa izan zen, matrikulen %33,7arekin, eta gero gijarte zientziak, %27,6arekin. Lehentasunak sexuaren arabera aldatzen dira. Horrela, nesken kasuan, aukerarik eskatuena gijarte zientzia izan zen, eta horren atzetik, osasun zientziak.

EUSTATEN datuen arabera, 2008an EAEn 9.163 pertsona matrikulatu ziren EAEn unibertsitatean sartzeko probak egiteko (hemen ere, 25 urtetik gorakoentzako probak egin zituzten pertsonak ez ditugu aintzat hartu: 449 ikasle izan ziren). Haietatik 7.557 ekaineko deialdikoak dira, eta 1.632 iraileko deialdikoak. Proba 8.588 lagunek gainditu zuten guztira (%93,7). Batez besteko nota 6,7 izan zen. Lehenengo deialdian ikasleen %97,1ak gainditu zuen. Bigarrenetan, berriz, %78,2ak

I.1.33. LAUKIA. ESKOLATZETASA GARBIAK EAEn, MAILAREN, ADINAREN ETA DENBORALDIAREN ARABERA

	0-2 urte		3-5 urte		6-11 urte		12-15 urte		16-17 urte		18-21 urte		22-25 urte		26-29 urte	
	04-05	07-08	04-05	07-08	04-05	07-08	04-05	07-08	04-05	07-08	04-05	07-08	04-05	07-08	04-05	07-08
Guztira	39,8	47,8	100,6	100,5	99,6	102,5	98,8	100,8	86,8	87,1	64,9	64,2	27,2	27	7,5	7,7
Haur eta lehen hezkuntzak	39,8	47,8	100,6	100,5	99,6	102,5	3,2	3,4	0	0	0	0	0	0	0	0
Bigarren hezkuntza guztira	0	0	0	0	0	0	95,6	97,5	86,8	87,1	17,2	17,1	1,9	1,9	0,5	0,5
DBH	0	0	0	0	0	0	95,6	97,5	17,5	16,9	0	0	0	0	0	0
Batxilergoa	0	0	0	0	0	0	0	0	64,5	65,6	8,3	7,9	0,7	0,5	0,1	0,1
LH	0	0	0	0	0	0	0	0	4,7	4,6	8,8	9,1	1,2	1,4	0,4	0,5
Goi-mailako ikasketak guztira	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	47,8	47	25,3	25,1	7	7,2
Unibertsitatekoak ez diren goi-mailako ikasketak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	11,6	11,3	4,8	4,8	0,9	1
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	36,1	35,7	20,6	20,3	6,1	6,2

Iturria: EUSTAT.

I.1.34. LAUKIA. 18 URTEKO IKASLEEN % HEZKUNTZAN (ISCEDeko MAILA GUZTIAK)

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Zipre	:	29,6	24,1	31,6	23,2	28,4	30,4	29,7	30,8
Turkia	:	18,0	15,4	16,2	22,3	23,4	29,6	31,7	38,9
Malta	:	52,9	37,1	59,3	56,6	42,8	39,8	53,9	42,8
Erresuma Batua	50,4	54,8	57,6	56,3	57,1	53,8	60,5	60,3	47,4
Mazedonia	39,4	42,6	43,9	46,1	48,6	49,1	50,1	51,9	52,5
Errumania	39,7	45,1	51,7	59,0	59,2	58,5	58,3	58,4	62,7
Kroazia	:	:	:	:	:	:	60,8	62,4	62,7
AEB	61,8	55,0	59,0	64,4	63,9	57,2	57,0	60,9	62,7
Portugal	65,8	64,9	59,9	66,3	60,5	62,7	64,8	66,0	66,7
Espainia	64,8	64,8	67,2	68,8	66,8	68,2	68,8	69,6	70,0
Luxenburgo	:	65,8	70,5	71,7	70,3	71,4	69,0	66,6	70,1
Islandia	66,8	67,0	68,2	67,8	71,7	73,1	74,8	75,1	73,4
Bulgaria	47,8	47,4	46,2	46,1	50,6	67,7	73,6	74,9	75,6
EB-27	68,1	69,5	71,4	72,9	74,3	74,9	76,5	77,9	77,4
EAE	73,9	76,2	75,3	75,2	77,2	76,3	75,2	75,6	77,7
EB-25	70,3	71,4	73,0	74,2	75,5	76,0	77,6	79,2	78,3
Austria	67,5	67,7	68,1	69,3	69,0	69,4	75,7	76,8	78,3
Frantzia	82,6	81,6	81,3	80,1	79,9	79,7	79,6	78,7	78,8
Danimarka	74,6	76,2	76,8	80,5	78,3	80,9	81,1	81,4	80,0
Estonia	65,5	71,8	73,8	74,1	77,0	79,3	80,5	82,0	80,2
Suitza	:	:	:	:	80,4	80,3	80,5	80,6	80,5
Euro eremua (15)	:	:	:	:	:	:	:	:	81,4
Holanda	78,6	79,9	78,4	77,3	76,8	76,2	78,3	78,9	81,9
Hungaria	61,7	67,8	74,6	73,4	73,3	75,9	76,4	79,3	82,2
Eslovakia	:	:	:	56,6	63,8	72,2	82,1	81,4	82,4
Liechtenstein	:	:	84,5	:	:	89,9	:	92,8	84,9
Alemania	85,7	85,1	85,8	82,6	85,7	86,9	85,5	85,5	85,6
Italia	68,3	69,7	67,1	69,6	73,2	75,9	77,2	80,5	85,6
Norvegia	88,3	87,7	86,8	86,1	85,1	85,8	85,6	85,5	86,1
Letonia	61,1	66,0	68,9	72,8	76,6	78,9	83,3	85,2	86,2
Txekiar Errep.	63,8	60,5	70,1	86,1	87,5	88,3	90,8	87,9	86,9
Eslovenia	66,7	73,3	77,7	81,4	83,8	85,7	87,2	89,4	88,7
Irlanda	73,1	75,1	74,1	81,3	78,4	81,3	83,4	89,7	89,5
Grezia	69,3	66,1	87,8	64,5	75,9	73,6	75,6	81,4	90,4
Belgika	:	85,3	84,9	85,4	86,6	88,0	90,1	88,8	91,1
Lituania	67,0	71,5	77,4	83,9	85,2	87,4	88,9	90,1	93,1
Polonia	73,0	74,4	77,5	82,0	85,0	85,4	86,9	92,9	93,6
Finlandia	84,5	85,3	87,3	88,5	89,3	91,9	93,3	93,6	94,0
Suedia	96,0	95,5	95,5	94,7	93,6	94,5	95,3	95,7	94,6

(-) Ez dago daturik. Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

gainditu zuen. Batez besteko notak 6,9 eta 5,6 izan ziren, hurrenez hurren.

(c) Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea

“Ikaskuntza iraunkorraren europar espazioa gauzatzea” baztordearen oharra, 2001eko azaroan argitaratua, ikaskuntza

iraunkorraren definizio zabalagoa bereganatzen du: “ikuspegi pertsonal, zibiko, sozial edo laboraletik ezagutzak, eskumenak eta gaitasunak hobetzeko asmoz bizitzan zehar egiten den ikaskuntza oro”¹².

Definizio horretan oinarrituta, europar herritarrek beren ezagutzak, gaitasunak eta ahalmenak bizitz osoan zehar egunera-

¹² Ikaskuntza iraunkorra 25-64 urte arteko pertsonen dagokien, jokuatuak izan edo ez, baldin eta inkestaren aurreko lau asteetan ikasketa motaren bat egin badute, bai enpresaren edo lantokiaren esparruan bai hortik kanpo.

Adierazle honek zenbait aldaketa jasan ditu. Lehen, definizioari dagokiona. Izan ere, 2003. urteaz geroztik, ikastaro, tailer eta abarrek guztiak dira prestakuntza (baldin eta inkestaren aurreko lau asteetan egin badira), eta ez bakarrik araututako prestakuntza edo prestakuntza instituzionala. Bigarrenik, 2006ko lehenengo hiruhilekotik aurrera, eraldatutako bertsio bat dago, araututako ikasketetako oporretan dauden ikasleak eta arautu gabeko ikasleak ikasten ez dituzten ikasleak zenbakizaitetik baztertzen dituen. Hirugarrena datua lortu den uneari dagokio, 2005. urtera arte, 2. hiruhileko edo udaberriko datua hartzen zen aintzat. 2006. urteaz geroztik, lau hiruhilekoen urteko batez bestekoari dagokio datua, 1995. urteaz geroztik datu guztiak irizpide berri horrekin birkalkulatuta dira. Aldaketa horien ondorioz, 2005. urtean aurkeztutako datuen eta gaur egungo datuen artean desberdintasun txiki batzuk daude, EB-ko herrialderik gehienetan eragina dutenak.

**I.1.35. LAUKIA. UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAN MATRIKULATU DIREN ETA GAINDITU DUTEN IKASLEAK
(25 URTETIK GORAKOENTZAKO PROBAKOAK KANPO), 2008**

	BI SEXUAK											
	Total			Zientifiko-teknikoa			Osasun Zientziak			Gizarte Zientziak		
	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %
GUZTIRA	196.153	166.955	85	43.555	37.566	82	50.615	44.552	88	64.293	53.607	83
EAE-EHU	9.081	8.536	94	3.062	2.858	93	2.503	2.391	96	2.636	2.453	93
	EMAKUMEAK											
	Total			Zientifiko-teknikoa			Osasun Zientziak			Gizarte Zientziak		
	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %
GUZTIRA	113.356	97.569	86	13.073	11.442	88	33.701	29.722	88	40.978	34.692	85
EAE-EHU	5.259	4.991	95	1.016	963	95	1.829	1.761	96	1.764	1.652	94
	BI SEXUAK											
	Giza Zientziak			Arteak			Konbinatuak (I)					
	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %			
GUZTIRA	23.022	23.337	88	4.743	4.169	88	9.925	6.724	68			
EAE-EHU	682	641	94	173	170	98	25	23	92			
	EMAKUMEAK											
	Giza Zientziak			Arteak			Konbinatuak (I)					
	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %	Matrik. (M)	Gaind. (G)	Gaind. %			
GUZTIRA	16.977	15.011	88	3.374	2.961	88	5.253	3.741	71			
EAE-EHU	501	468	93	136	134	99	13	13	100			

(I) Aukera konbinatuan gaititzen duten ikasleek hartutako aukeretako bat gaititzen du. gutxienez. Talde honetan sartzen dira batxilergoa atzerrian egin eta sarbide probak (baliozkogarriak) unibertsitate honetan egiten dutenak.
Iturria: INE.

I.1.36. LAUKIA. IKASKUNTZA IRAUNKORRA (parte hartzen duten 25-64 urte arteko biztanleen portzentajea)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
EB-27	7,1 (e)	7,2	8,5 (b)	9,3	9,7	9,6	9,5
EB-25	7,5 (e)	7,6	9,0 (b)	9,9	10,3	10,2	10
EB-15	8,0 (e)	8,1	9,8 (b)	10,7	11,3	11,2	11 (p)
Belgika	6,4	6,0	7,0	8,6 (b)	8,3	7,5 (p)	7,2
Bulgaria	1,4	1,2	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3
Txekiar Errep.	:	5,6	5,1 (b)	5,8	5,6	5,6	5,7
Danimarka	18,4	18,0	24,2 (b)	25,6	27,4	29,2	29,2
Alemania	5,2	5,8	6,0 (i)	7,4	7,7	7,5	7,8
Estonia	5,4	5,4	6,7	6,4	5,9	6,5	7
EAE	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4	13,2
Irlanda	:	5,5	5,9 (b)	6,1	7,4	7,3	7,6
Grezia	1,2	1,1	2,6 (b)	1,8	1,9	1,9	2,1
Espainia	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5 (b)	10,4	10,4
Frantzia	2,7	2,7	7,1 (b)	7,1	7,1	7,6	7,4
Italia	4,5	4,4	4,5	6,3 (b)	5,8	6,1	6,2
Zipre	3,4	3,7	7,9 (b)	9,3	5,9 (b)	7,1	8,4
Letonia	:	7,3	7,8	8,4	7,9	6,9 (p)	7,1
Lituania	3,5	3,0 (b)	3,8	5,9 (b)	6,0	4,9 (p)	5,3
Luxenburgo	5,3	7,7	6,5 (b)	9,8	8,5	8,2	7
Hungaria	2,7	2,9	4,5 (b)	4,0	3,9	3,8	3,6
Malta	4,6	4,4	4,2	4,3 (b)	5,3	5,5	6
Holanda	15,9	15,8	16,4 (b)	16,4	15,9	15,6	16,6
Austria	8,2	7,5	8,6 (b)	11,6	12,9	13,1	12,8
Polonia	4,3	4,2	4,4	5,0 (b)	4,9	4,7	5,1
Portugal	3,3	2,9	3,2	4,3 (b)	4,1	4,2 (p)	4,4
Errumania	1,0	1,0	1,1	1,4 (p)	1,6	1,3	1,3
Eslovenia	7,3	8,4	13,3 (b)	16,2	15,3	15,0	14,8
Eslovakia	:	8,5	3,7 (b)	4,3	4,6	4,3	3,9
Finlandia	17,2	17,3	22,4 (b)	22,8	22,5	23,1	23,4
Suedia	17,5 (b)	18,4	31,8 (b)	32,1	33,4 (e)	32 (e)	—
Erres. Batua	20,9	21,3	26,8 (b)	29,4	27,5	26,6 (p)	—

(-) Ez dago daturik (e) Estimazioa (b) Seriean haustura (p) Behin-behinekoa
Iturria: Eurostat eta ISE-IVEI.

tzeko eta osatzeko erronkari aurre egin behar diote, garapen pertsonaleko maila handiagoa lortzeko, eta lan-merkatuan ahalik eta kualifikaziorik handienarekin mantendu ahal izateko. Europar Batasunak ezarritako helburua da 2010. urterako lane-rako adinean (25-64 urte artean) dauden biztanleen %12,5ak gu-txienez ikaskuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzea, eta ez dadila egon %10 baino tasa txikiagoa daukan herrialderik. EUROSTATen datuen arabera, ikaskuntza iraunkorreko parte hartzea egonkorra da azken urteetan. 2007. urtean EB-15ean %11koa da, EB-25ean %10, eta EB-27an %9,5. Egonkortasun hori kontuan izanik, pentsatu behar dugu zaila izango dela 2010ean %12,5eko helburura iristea.

Bestalde, herrialdeen artean ezberdintasun handiak daude. 19 herrialdek %10 baino portzentaje txikiagoak zituzten eta gainerakoak %10,4aren (Espainia) eta %32aren (Suedia) artean zeuden 2006an.

Horrenbestez, Espainia, %10,4ko tasarekin, helburutik 2,3. pun-tura dago, baina bilakaera positiboa izan du.

EAEn, ISEIk (Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak) dauzkan datuen arabera, denboraldiko bilakaerak adierazten du ikaskuntza iraunkorraren tasan etengabeko au-rrerapena gertatu dela. 1995. urteko %4,3tik 2007ko %13,2ra iritsi da. Beraz, 2010erako aurreikusitako helburua lortu da.

Jarduera hauetan parte hartzeko portzentajearen generoaren arabera dauden ezberdintasunak ez dira oso handiak, salbu eta Danimarkan (%34,2 emakumeak dira eta %24,2 gizonak) eta Finlandian (%27,5 eta %19,4); hain zuzen ere, trebakun-tza portzentajerik handienak dituzten herrialdeak dira horiek. EAEn, portzentajeak (%14,4 eta %12 dira.

1.2.6.3. Finantzetakoak ez diren baliabideen inguruko adierazleak

(a) Irakasleak/taldea, ikasleak/irakaslea eta ikasleak/taldea

EAEn, irakasleen ratioa talde bakoitzeko handiagoa da bi-garren hezkuntzan oinarritzko hezkuntza baino (2, eta 1,3

1.1.37. LAUKIA. IKASGELAREN TAMAINA BATEZ BESTEZ ETA IKASLE / IRAKASLE RATIOA (DOB) ELGAn, 2006

	Ikasgelaren tamaina, batez bestez		Ikasleak / irakasleak (DOB)		
	Lehen hezkuntza	Bigarren hezkun. (1. maila)	Lehen hezkuntza	Bigarren hezkuntza	Hezkuntza tertziarioa
Alemania	22,1	24,7	18,7	15,1	12,4
Australia	23,9	24,0	16,0	12,2	m
Austria	19,7	23,9	13,9	10,7	13,0
Belgika	m	m	12,6	9,9	18,7
Belgika (Fr)	20,3	m	—	—	—
Kanada	m	m	X(6)	15,9	m
Danimarka	19,5	20,1	X(4)	m	m
AEB	23,1	24,3	14,6	15,2	15,1
Eslovakiar Errep.	19,7	22,8	18,6	13,9	12,4
Espainia	20,7	24,7	14,2	10,5	10,8
Finlandia	m	m	15,0	12,9	15,8
Frantzia	22,5	24,3	19,3	11,9	17,0
Grezia	18,9	21,8	10,6	8,2	27,8
Hungaria	20,0	21,4	10,4	11,2	16,5
Irlanda	m	m	19,4	14,6	17,9
Islandia	18,2	19,7	X(4)	10,7	10,7
Italia	18,4	21,0	10,7	10,7	20,4
Japon	28,3	33,3	19,2	13,7	10,8
Korea	31,6	35,8	26,7	18,2	m
Luxenburgo	15,8	19,8	11,3	9,0	m
Mexiko	19,8	29,5	28,0	30,2	14,5
Norvegia	a	a	10,9	9,9	10,5
Zeelanda Berria	m	m	17,7	14,6	16,7
Herbehereak	—	—	—	—	—
Polonia	20,1	24,7	11,5	12,7	17,3
Portugal	19,0	22,7	10,6	7,9	12,7
Erresuma Batua	24,5	22,4	19,8	13,7	16,4
Txekiar Errep.	20,2	23,3	17,3	12,1	18,5
Suedia	m	m	12,1	12,6	9,0
Suitza	19,4	19,1	15,1	11,9	m
Turkia	27,2	a	26,7	15,8	16,8
Batezbes ELGA	21,5	24,0	16,2	13,2	15,3
EB 19 batezbes	20,2	22,7	14,5	11,9	16,0

Iturria: Education at a glance, 2008.

I.1.38. LAUKIA. IRAKASLE / TALDE, IKASLE / IRAKASLE ETA IKASLE / TALDE RATIOAK

	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08		
							Guztira	Publ.	Prib.
Oinarrizko irakaskuntza (1)									
Irakasleak / taldea	1,5	1,5	1,4	1,5	1,5	1,5	1,5	1,6	1,3
Irakasleak (DOB) (2)/taldea	1,4	1,4	1,4	1,3	1,3	1,3	1,3	1,5	1,1
Ikasleak / irakaslea	12,3	12,3	12,7	12,1	12,3	12,6	12,5	10,4	15,6
Ikasleak / irakaslea (DOB)	12,8	12,8	13,2	14	13,9	14	13,9	11,2	18,3
Ikasleak / taldea	18,1	18,3	18,3	18,2	18,1	18,3	18,5	16,8	20,6
Bigarren hezkuntza (3)									
Irakasleak / taldea	2,2	2,3	2,2	2,3	2,3	2,3	2,3	2,6	2
Irakasleak (DOB) / taldea	2,1	2,2	2,1	2,2	1,8	1,9	2	2,5	1,4
Ikasleak / irakaslea	9,9	9,3	9,1	8,8	8,7	8,4	8,2	6,8	10,1
Ikasleak / irakaslea (DOB)	10,5	9,7	9,6	9,2	10,7	10,4	9,7	7,1	14,7
Ikasleak / taldea	21,7	21	20,5	20,1	19,8	19,4	19,1	17,8	20,4
Unibertsitateko ikasketak									
Ikasleak / irakaslea	16,7	15,5	15	14,3	14,1	13,3	11,6	11,4	12,6
Ikasleak / irakaslea (DOB)	19,9	18,3	17,7	16,7	16,4	15,6	13,5	12,8	17,1

(1) Oinarrizko irakaskuntza: haur eta lehen hezkuntzak barne.

(2) DOB: dedikazio osoa baliokidetasuna. Dedikazio osoa duten irakasleak gehi dedikazio partziala duten irakasleen erdia. Bigarren hezkuntza.

(3): DBH, batxilergoa eta lan heziketa barne.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren estatistika.

I.1.39. LAUKIA. EGOKITASUN TASAK ADIN ESANGURATSUETAN (1), SEXUAREN ARABERA (%)

	2006/2007				2007/2008			
	Guztira	Gizonak	Emak.	Emak-gizon ezb	Guztira	Gizonak	Emak.	Emak-gizon ezb
7 urte (2)	100	100,4	99,6	-0,8	99,7	100,3	99,1	-1,2
9 urte (3)	97,4	97	97,9	0,9	97,4	98,1	96,7	-1,4
11 urte (4)	93,2	92,2	94,3	2,1	97,4	97,7	97,1	-0,6
12 urte (5)	89,8	87,9	91,7	3,8	87,9	86,4	89,5	3,1
13 urte (6)	83,1	80	86,4	6,4	82,9	79,9	85,9	6
14 urte (7)	78,1	73,4	83,1	9,7	77,5	73,9	81,4	7,5
15 urte (8)	71,2	65,4	77,3	11,9	70,3	65,1	75,7	10,6
16 urte (9)	64,4	57,3	71,8	14,5	64,7	58,8	71	12,2
17 urte (10)	57,7	50,9	64,8	13,9	74,5	68,8	80,6	11,8

(1) Beren adinerako teorien egokia den mailan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako pertsona guztien arteko erlazioa.

(2) Maila egokiak teorien: lehen hezkuntzako 2. maila.

(3) Maila egokiak teorien: lehen hezkuntzako 4. maila.

(4) Maila egokiak teorien: lehen hezkuntzako 6. maila.

(5) Maila egokiak teorien: Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 1. maila

(6) Maila egokiak teorien: Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. maila

(7) Maila egokiak teorien: Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. maila

(8) Maila egokiak teorien: Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 4. maila.

(9) Maila egokiak teorien: Batxilergoko 1. maila eta maila ertaineko LH-ko 1. maila.

(10) Maila egokiak teorien: Batxilergoko 2. maila eta maila ertaineko LH-ko 2. maila.

Iturria: EUSTAT.

DOBen¹³). Datu horien inguruan egonkortasuna dago azken urteetan.

Analisia zentroen titulartasunaren arabera egiten badugu, ikusiko dugu ratioak batez bestekoa baino handiagoak direla zentro publikoetan eta txikiagoak zentro pribatuetan.

Bestalde, dedikazio osoaren baliokidean dauden irakasle bakoitzeko ikasle ratioaren baliorik handiena, aurreko urteetan ez bezala, oinarrizko irakaskuntzetan ematen da DBHn aldakuntza bat ikus dezakegu, urteen arabera, 9 eta 11 artean. Ratioak, DOBen neurtuak, ondokoak dira: 13,5 unibertsitateko

¹³ Dedikazio osoa duten irakasleak gehi dedikazio partziala duten irakasleen erdia.

ikasketetarako, 9,7 bigarren hezkuntzarako, eta 13,9 oinarritzko irakaskuntzarako.

ELGAK argitaratutako azken datuek (*Education at a glance, 2008*), 2006koak, erakusten dute irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko ratioak EAEn daudenak baino handiagoak direla (EUSTATen datuen arabera) bai lehen hezkuntzan (16,2 eta 13,9), bai bigarren hezkuntzan (13,2 eta 9,7), bai goi-mailako hezkuntzan (15,3 eta 13,5).

1.2.6.4. Hezkuntza emaitzen inguruko adierazleak

a) Ikasleen adinaren egokitasuna

Egokitasun tasei dagokienez, hau da, teorien beren adinerako egokia den mailan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako pertsona guztien arteko erlazioa, esan dezakegu adinak gora egin ahala tasa honek behera egiten duela, baina azken etapetan hobetzen dira. Zehazki, 12 urtera arte oso altuak dira, 16 urtera arte jaitsi egiten dira, eta gero berriro igotzen dira.

Hain zuzen ere, deigarria da 17 urteko adinaren tasan aztertu diren azken bi urteetan gertatu den hazkundea: 2006-07 urtean %57,7 izatetik 2007-08 ikasturtean %74,5 izatera igaro da. Gainerako adinetan (salbuespenak albuerak) tasa horrek beherantzko bilakaera izan du.

Generoaren ikuspegitik, esan dezakegu 12 urtetatik aurrera emakumeek egokitasun tasa altuagoak dauzkatela gizonek baino. Baina bilakaerari erreparatu gero, bien arteko aldea gero eta txikiagoa da. Horrela, 2006-07 ikasturtean emakumeen aldeko 3,8 puntu zeuden 12 urterekin; 13 urterekin 6,4 puntu; 14 urterekin 9,7 puntu; 15 urterekin 11,9 puntu; 16 urterekin 14,5 puntu; eta 17 punturekin 13,9 puntu. Ikasturte bat beranduago, berriz, datuak hauek dira hurrenez hurren: 3,1; 6,75; 10,6; 12,2 eta 11,8.

b) Eskola behar baino lehen uztea

Eskola behar baino lehen uztea definitzeko, 18 eta 24 urte arteko biztanleak hartzen dira aintzat, gehienez ere oinarritzko

1.1.40. LAUKIA. ESKOLA BEHAR BAINO LEHEN UZTEA (%) (asko jota, ISCED 0, 1, 2 edo 3c)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
EB-27	17,3	17,1	16,3	15,8	15,5	15,2	15,2
EB-25	17,0	16,7	15,8	15,2	15,1	15,0	15,0
EB-15	19,0	18,7	17,9	17,2	17,1	16,8	16,9
Alemania	12,5	12,6	12,8 (i)	12,1	13,8	13,9	12,7
Austria	10,2	9,5	9,3 (b)	8,7 (i)	9,0	9,6	10,9
Belgika	13,6	12,4	12,8	11,9 (b)	13,0	12,6	12,3
Bulgaria	20,3	21,0	22,4	21,4	20,0	18,0	16,6
EAE	14,7	13,2	15,8	13,4	14,5	15,6	15,4
Zipre	17,9	15,9	17,4 (b)	20,6	18,1	16,0	12,6
Danimarka	9,0	8,6	10,3 (b)	8,5	8,5	10,9	12,4 (b)
Eslovakia	—	5,6	4,9 (b)	7,1	5,8	6,4	7,2
Eslovenia	7,5	4,8 (u)	4,3 (u)	4,2 (u)	4,3 (u)	5,2 (u)	4,3 (u)
Espainia	29,2	29,9	31,3	31,7	30,8 (b)	29,9	31,0
Estonia	14,1	12,6	11,8	13,7	14,0	13,2	14,3
Finlandia	10,3	9,9	8,3 (b)	8,7	9,3	8,3	7,9
Frantzia	13,5	13,4	13,6 (b)	13,1	12,0	12,3	12,7
Grezia	17,3	16,7	15,5 (b)	14,9	13,3	15,9	14,7
Hungaria	12,9	12,2	11,8 (b)	12,6	12,3	12,4	10,9
Irlanda	—	14,7	12,3 (b)	12,9 (p)	12,3 (p)	12,5	11,5
Italia	26,4	24,3	23,5	22,3	21,9	20,8	19,3
Letonia	—	19,5	18,1	15,6	11,9	19,0 (p)	16,0 (p)
Lituania	13,7	14,3 (b)	11,8	9,5 (b)	9,2	10,3	8,7
Luxenburgo	18,1	17,0	12,3	12,7	13,3	17,4	15,1
Malta	54,4	53,2	48,2	42,0 (b)	41,2	41,2	37,3
Herbehereak	15,3	15,0	14,2 (b)	14,0	13,6	12,9	12,0
Polonia	7,9	7,6	6,3	5,7 (b)	5,5	5,6	5,0
Portugal	44,0	45,1	40,4	39,4 (b)	38,6	39,2 (p)	36,3 (p)
Erres. Batua	17,7	17,8	16,8	14,9	14,0	13,0	—
Txekiar Errep.	—	5,5	6,0 (b)	6,1	6,4	5,5	—
Errumania	21,3	23,2	23,2	23,6 (b)	20,8	19,0	19,2
Suedia	10,5 (b)	10,4	9,0 (b)	8,6	11,7 (b)	12,0	8,6 (b)

Iturria: Eurostat eta ISEI-IVEI.

Oharra: EB-ko datuak Eurostaten datu-basetik aterata zirela 2009ko otsailaren 27an. Azken eguneraketa, 2008ko azaroaren 14an.

(i) Ez dago daturik.

(b) Seriean haustura

(i) Kontzeptu eta definizio harmonizatuak ezarri direnez gero, aurreko urteekin ezin daiteke erkatu.

(p) Behi-behineko datua

(u) Datu honek erkatua izateko arazoak ditu.

I.1.41. LAUKIA. GRADUAZIOAREN TASA GORDINA, IKASKETA MAILAREN, DENBORALDIAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	2005/2006				2006/2007			
	Guztira	Gizonak	Emak.	Emak-gizon ezb	Guztira	Gizonak	Emak.	Emak-gizon ezb
DBH	83.4	78.4	88.7	10.3	83.0	78.4	87.8	9.4
Batxilergoa	63.9	55.3	72.8	17.5	63.5	54.9	72.7	17.8
Teknikaria	20.8	23.2	18.3	-4.9	19.7	21.5	17.8	-3.7
Goi teknikaria	32.2	33.4	30.9	-2.5	32.1	34.6	29.3	-5.3
Diplomatua, arkitekto teknikoa eta ingeniari teknikoa	22.0	17.5	26.8	9.3	22.4	17.6	27.6	10.0
Lizentziatua, arkitektoa eta ingeniarria	27.0	21.3	32.9	11.6	24.9	20.1	29.9	9.8

Iturria: EUSTAT.

I.1.42. LAUKIA. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKOAN GRADUATU DIREN 20-24 URTE ARTEKO PERTSONEN PORTZENTAJEA (DERRIGORREZKOAREN ONDOKOA: ISCED 3a, 3b edo 3c)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
EB-27	76.6	76.7	76.9	77.2	77.5	77.9	78.1
EB-25	76.5	76.7	77.0	77.3	77.6	77.9	78.0
EB-15	73.6	73.7	74.0	74.4	74.7	75.0	75.2
Alemania	73.6	73.3	72.5	72.8	71.5 (b)	71.6	72.5
Austria	85.1	85.3	84.2	85.8 (i)	85.9	85.8	84.1
Belgika	81.7	81.6	81.2	81.8	81.8	82.4	82.6
Bulgaria	78.1 (b)	77.4	76.3	76.1	76.5	80.5 (i)	83.3
EAE	81.4	80.9	78.3	81.5	81.0	81.2	80.8
Zipre	80.5	83.5	79.5	77.6	80.4	83.7 (p)	85.8
Danimarka	78.4 (i)	78.6	76.2 (b)	76.2	77.1	77.4	70.8 (b)
Eslovakia	94.4	94.5	94.1	91.7	91.8	91.5	91.3
Eslovenia	88.2	90.7	90.8	90.5	90.5	89.4	91.5
Espainia	65.0	63.7	62.2	61.2	61.8	61.6	61.1
Estonia	79.8	81.4	81.5	80.3	82.6	82.0	80.9
Finlandia	86.1	85.8	85.3	84.5	83.4	84.7	86.5 (p)
Frantzia	81.8	81.7	81.3 (b)	81.7	83.4	83.2	82.4
Grezia	80.2	81.1	81.7	83.0	84.1	81.0 (p)	82.1
Hungaria	84.7	85.9	84.7 (b)	83.5	83.4	82.9	84.0
Irlanda	83.9	84.0	85.1 (p)	85.3 (p)	85.8 (p)	85.7	86.7
Italia	67.9	69.6	71.0	73.4	73.6	75.5	76.3
Letonia	71.7 (i)	77.1 (b)	75.4	79.5	79.9	81.0	80.2
Lituania	80.5	81.3 (b)	84.2	85.0	87.8	88.2	89.0
Luxenburgo	68.0	69.8	72.7 (b)	72.5	71.1	69.3	70.9
Malta	40.1	39.0	45.1 (b)	51.0	53.7	50.4	54.7
Herbehereak	72.7	73.1	75.0	75.0	75.6	74.7	76.2
Polonia	89.7	89.2	90.3	90.9	91.1	91.7	91.6
Portugal	44.4	44.4	47.9	49.6	49.0	49.6	53.4
Erres. Batua	76.9	77.1	78.7	77.0	78.2	78.8	78.1
Txekiar Errep.	90.6	92.2	92.1	91.4	91.2	91.8	91.8
Errumania	77.3	76.3	75.0	75.3	76.0	77.2	77.4
Suedia	85.5 (b)	86.7	85.8	86.0	87.5	86.5	87.2

(-) Ez dago daturik (e) Estimazioa (b) Seriean haustura (p) Behin-behinekoa
Iturria: ISEHVEI.

bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa amaitu dutenak (*INSN 2 - ISCED 0, 1, 2 edo 3c*), eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasten ari ez direnak eta prestakuntzarik egin ez dutenak. Fenomeno hau Europako hezkuntza politiken kezka handietako bat izan da eta oraindik ere bada.

Lisboako Europar Kontseiluaren 2000ko martxoko batzarraz geroztik, ikasketak behar baino lehen uzten dituzten gazteen %19,3ko batez bestekoa murriztu beharra funtsezko helburua da. Helburutzat hartu zen "2010erako estatu kide guztiek gutxienez eskola behar baino lehen uzteko tasa erdiraino jaistea (2000ko datuez ari da), EB-ren batez besteko indizea %10etik beherakoa izan dadin".

Adin-tarte honetako gazteek beren trebakuntzarekin jarraitzea da asmoa, bai modu arautuan (derrigorrezko hezkuntzaren ondokoa) bai hezkuntza sisteman ez dagoen beste trebakuntza mota batekin, eta biztanleriaren portzentaje bat jakintzaren gizartetik kanpo gera dadila ekiditea. Halere, adierazle horrek ez ditu aintzat hartzen nahitaezko eskola behar baino lehen uzten duten ikasleak, eta nahitaezko eskola gaingiditzen ez duten ikasleen portzentajea ez du eskolaporrotzat jotzen.

Adierazle honen bilakaerak, Europako herrialdeetan, beheranzko joera dauka, baina esan behar dugu helburua anbiziotsua dela, estatu kide asko %10eko helburutik oso urruti baitaude. EUROSTATen datuen arabera, Espainian eskola behar baino lehen uzten duten ikasleen tasa %31 da 2007. urtean. EB-15 osatzen zuten herrialdeen herrialdeen batez bestekoa %16,9 da. Halere, 10 herrialde berriak sartu direnez geroztik, tasa %15era jaitsi dira. Horren arrazoiak da zabalkuntzan sartu diren herrialdeetan eskola behar baino lehen uztearen tasa EB-ko kide diren gainerako estatu kideena baino askozaz ere txikiagoa dela. Hain zuzen ere, tasarik txikiak Eslovenia (%4,3), Polonia (%5), txekiar Errepublika (%5,5, 2006an) eta Eslovakiak (%7,2) dituzte. Finlandian eskola uzten dutenen tasa txikia ere aipagarria da (%7,9).

ISEIren (Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) datuen arabera, EAEn tasa %13,2 eta %15,8 artean egon da. Horrek esan nahi du EB-k 2010erako finkatutako helburua lortzea zaila izango dela seguruenik. Emakumeen kasuan ere, %10etik beherako tasetan egion ohi badira ere, 2007an %11ra iritsi ziren. Bestalde, gizonentzako tasa %19,6koa da.

Sexuaren aldagaiak zifra esanguratsuak ematen ditu. 2007an, Europar Batasuneko lau herrialdeetan izan ezik (Bulgaria, Errumania, Austria eta Alemania, hauetan ez baita atzeman sexuen arteko ezberdintasunik), gainerako herrialdeetan ikasketak behar baino lehen uzten dituzten gizonen proportzioa handiagoa emakumeena baino. Eslovakia, Portugal, Zipre eta Espainiako kasuetan, talde bien arteko aldea 10 puntu baino handiagoa da. EAEn, eskola behar baino lehen uzten duten mutilen tasa neskena baino 8,6 puntu handiagoa da.

(c) Graduazio tasak

Ikasketa mailaren graduazio tasei dagokionez (DBH, batxilerra, teknikaria, goi teknikaria, diplomatua, arkitekto teknikoa eta

ingeniari teknikoa; eta lizentziatua, arkitektoa eta ingeniaria), guzti-guztiak murriztu dira 2005-06 eta 2006-07 ikasturteen artean, salbu eta diplomatuen, arkitekto teknikoen eta ingeniari teknikoen kasuetan, haien kasuan portzentajea %22tik %22,4ra igaro baita.

Generoaren ikuspegitik, datuek agerian uzten dute graduazio tasa handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino DBHn, batxilergoan eta ziklo bateko eta biko unibertsitate titulazioetan. Aitzitik, "teknikari" eta "goi teknikari" titulazioetan gizon gehiago graduatzen dira emakume baino. Azken horietan, egoera zuzendu beharrean okertu egin omen da, gizonen aldeko tarteak 2005-06 eta 2006-07 ikasturteen artean gora egin baitu.

(d) Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa amaitu duten 20-24 urteko pertsonak.

Funtsezkoa da biztanleria helduaren portzentaje handi batek bigarren hezkuntzako goi titulazioa eduki dezala, hezkuntza maila (biztanleriarena orokorrean eta langileena zehazki) areagotzeko.

EB-k 2010erako finkatu duen helburua da 20 eta 24 urte arteko pertsonen %85ak, gutxienez, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak amaitzea (*ISCED 3a, 3b o 3c long*).

EUROSTATen datuen arabera, ikasketa horien amaitze tasa gero eta handiagoa da estatu kiderik gehienetan. Hain zuzen ere, 2007an EB-27ko 9 herrialdek lortu dute helburu hau. Hauek dira: Zipre (%85,8), Finlandia (%86,5), Irlanda (%86,7), Suedia (%87,2), Luxenburgo (%89), Eslovakia (%91,3), Eslovenia (%91,5), Polonia (%91,6) eta txekiar Errepublika (%91,8). Aitzitik, kontuan hartzen badugu EB-27, EB-25 eta EB-15eko batez bestekoak hurrenez hurren %78,1, %78 eta %75,2 direla, 2010ean %85eko helburua lortzea zaila izango da.

EAEn, 1992-1999 denboraldian, adin-talde honetan derri-gorrezko bigarren hezkuntzan titulaturako pertsonen portzentajeak goranzko joera etengabea izan du. %69,3 izatetik %83,2 izatera igaro da. Aldiz, 2000. urtetik 2007. urtera arte, portzentajea %81 inguru mantentzen da. Zifra hori %85eko helburutik nahiko urruti geratzen da.

Generoaren ikuspegitik, ikus dezakegu EB-ko herrialdeetan, autonomi erkidegoan eta EAEn bertan emakumeek beti lortzen dutela gizonen baino portzentaje handiagoa goi-mailako bigarren hezkuntzako titulazioa eskuratzerakoan. EAeko kasuan, emakumeen eta gizonen arteko aldea 11,3 puntukoa da: %86,6 eta %75,3, hurrenez hurren.

(e) Zientzietako, matematiketako eta teknologiatikako goi graduatuak

EB-k garapen ekonomikoa eta ikerketa zientifikoa bultzatzeko helburuarekin, funtsezkotzat jo du matematiketako, zientzietako eta teknologietako graduatu tasa handitzea. Halaber, helburutzat hartu du diziplina hauetan sexuen artean dauden desorekak berdintzea, ikasketa hauek hasi eta amaitzen dituzten emakumeen kopurua gizonena baino txikiagoa baita.

**I.1.43. LAUKIA. ISCED 5A, 5B eta 6ko GRADUATUEN TASA ZIENTZIETAN, MATEMATIKETAN ETA TEKNOLOGIAN
(20 eta 29 urte arteko 1.000 biztanle bakoitzeko)**

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EB-27	10,0 (s)	10,6 (s)	11,1 (s)	12,1 (s)	12,5 (s)	13,2	13,0
EB-25	10,4 (s)	11,0 (s)	11,4 (s)	12,3 (s)	12,7 (s)	13,5	13,3
Euro eremua (13)	10,0	10,4	10,9	11,9	:	:	12,8
Euro eremua (15)	9,9 (s)	10,3 (s)	10,8 (s)	11,8 (s)	12,7	13,5	12,8
Belgika	9,7	10,1	10,5	11,0	11,2	10,9	10,6
Bulgaria	6,6	7,5	11,7	8,3	8,5	8,6	8,5
Txekiar Errep.	5,5	5,6	6,0	6,4	7,4	8,2	10,0
Danimarka	11,7	12,2	11,7	12,5	13,8	14,7	13,8
Alemania	8,2	8,0	8,1	8,4	9,0	9,7	10,7
Estonia	7,8	8,3	8,0	8,8	8,9	12,1	11,2
Irlanda	24,2	22,9	20,5	24,2	23,1	24,5	21,4
Grezia	:	:	:	:	8,0	10,1	:
Espainia	9,9	11,2	11,9	12,6	12,5	11,8	11,5
Frantzia	19,6	20,1	:	22,0	:	22,5	20,7
Italia	5,7	6,2	7,4	9,1	10,8	12,4	9,1
Zipre	3,4	3,7	3,8	3,6	4,2	3,6	4,3
Letonia	7,4	7,6	8,1	8,6	9,4	9,8	8,9
Lituania	13,5	14,8	14,6	16,3	17,5	18,9	19,5
Luxenburgo	1,8	—	—	—	—	—	—
Hungaria	4,5	3,7	4,8	4,8	5,1	5,1	5,8
Malta	3,4	2,7	3,1	3,6	:	3,4	5,0
Holanda	5,8	6,1	6,6	7,3	7,9	8,6	9,0
Austria	7,2	7,3	7,9	8,2	8,7	9,8	10,8
Polonia	6,6	7,6	8,3	9,0	9,4	11,1	13,3
Portugal	6,3	6,6	7,4	8,2	11,0	12,0	12,6
Errumania	4,9	5,3	5,8	9,4	9,8	10,3	10,5
Eslovenia	8,9	8,2	9,5	8,7	9,3	9,8	9,5
Eslovakia	5,3	7,5	7,8	8,3	9,2	10,2	10,3
Finlandia	16,0	17,2	17,4	17,4	:	17,7	17,9
Suedia	11,6	12,4	13,3	13,9	15,9	14,4	15,1
Erres. Batua	18,5	20,0	20,3	21,0	18,1	18,4	17,8
Kroazia	:	:	:	5,6	5,4	5,7	6,0
Mazedonia	3,7	3,1	3,1	3,3	3,7	4,0	4,3
Turkia	4,4	4,7	5,0	5,2	5,6	5,7	6,2
Islandia	8,4	9,1	9,2	9,5	10,8	10,1	11,3
Liechtenstein	:	:	:	5,6	0,9	12,7	10,4
Norvegia	7,9	8,6	7,7	9,3	9,0	9,0	9,3
Suitza	:	:	15,1	14,1	14,6	16,1	16,8
AEB	9,7	9,9	10,0	10,9	10,2	10,6	—
EAE	20,2	23,8	24,6	25,3	26,1	27,1	—

ISCED 5A: unibertsitateko titulazioak, 5B: goi-mailako prestakuntza zikloak eta 6: doktoretzak. (s) estimazioa. Iturria: EUROSTAT eta ISEI-IVEI.

I.1.44. LAUKIA. 25 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLEEN LANGABEZI TASAK, HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Lehen hezkuntzaren aurrekoa, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehen maila (ISCED 0, 1 eta 2)												
EB-27	:	:	:	10,8	9,6	10,1	10,2	10,6	10,4	10,0	9,2	9,8
EB-25	:	:	:	10,9	9,6	10,0	10,3	10,6	10,4	10,0	9,2	9,9
EB-15	12,2	12,1	11,2	10,2	8,7	9,1	9,4	9,7	9,6	9,4	8,8	9,6
Espainia	19,3	17,5	14,6	13,8	10,3	11,1	11,2	11,3	9,3 (b)	9,0	9,0	13,2
Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa eta bigarren hezkuntzaren ondokoa, tertziarioa ez dena (ISCED 3 eta 4)												
EB-27	:	:	:	8,1	7,8	8,2	8,2	8,4	8,0	7,2	6,0	5,6
EB-25	:	:	:	8,1	7,7	8,1	8,3	8,5	8,1	7,2	6,1	5,7
EB-15	8,7	8,4	7,7	6,9	6,2	6,5	7,0	7,2	7,0	6,6	5,8	5,6
Espainia	17,4	15,2	13,0	11,1	8,1	9,4	9,7	9,2	7,3 (b)	6,8	6,8	9,3
Tertziarioa (ISCED 5 eta 6)												
EB-27	:	:	:	4,5	4,0	4,3	4,6	4,7	4,5	4,1	3,6	3,4
EB-25	:	:	:	4,4	3,9	4,2	4,6	4,7	4,6	4,1	3,6	3,5
EB-15	5,8	6,8	5,2	4,4	3,9	4,2	4,6	4,7	4,6	4,2	3,7	3,6
Espainia	13,5	12,7	10,7	9,1	6,6	7,5	7,4	7,3	6,1	5,5	4,8	5,8

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey.

I.1.45. LAUKIA. LANGABEZI TASAREN EBOLUZIOA, HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA

	2004		2005		2006		2007		2008	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
GUZTIRA	11,0	9,7	9,2	7,3	8,5	7,0	8,3	6,1	11,3	6,4
Analfabetoak	25,3	6,7	21,6	18,8	18,4	16,7	25,3	25,0	30,1	13,6
Lehen hezkuntza	12,1	9,3	10,5	9,8	10,1	7,9	10,6	6,8	16,7	8,1
Bigarren hezkuntza.										
Lehen etapa eta trebakuntza eta laneratze egokiak	12,6	13,4	11,1	8,9	10,5	9,6	10,2	8,1	14,3	9,3
Bigarren hezkuntza.										
Bigarren etapa eta trebakuntza eta laneratze egokiak	11,0	9,8	8,8	7,7	8,2	6,7	8,1	7,3	10,7	7,8
Trebakuntza eta laneratzea bigarren hezkuntzako tituluarekin (2. etapa)	13,8	0,0	6,9	0,0	5,9	—	13,8	—	12,7	—
Goi-hezkuntza, doktoretza izan ezik	8,4	8,1	6,9	6,0	6,1	5,8	5,4	4,5	6,4	4,2
Doktoretza	3,0	13,9	1,7	0,0	3,2	—	2,7	—	1,9	—

Iturria: BAI, INE.

EUROSTATen datuen arabera, zientzietako, matematiketako eta teknologiko graduatuen tasan bilakaera positiboa dago. Europako batez besteko kopuruak hauek izan dira 2006. urtean: 13 graduatu 20 eta 29 urte arteko mila biztanleko EB-

27an, 13,3 graduatu mila biztanleko EB-25ean eta 18,8 graduatu mila biztanleko euro-eremuan (EA15).

Espainiar estatuan, 2006. urtean, tasa 11,5ekoa da 20 eta 29 urte arteko mila biztanleko.

I.1.46. LAUKIA. IKASKETA MAILAK

ISEI-IVEI	International Standard Classification of Education (ISCED 1997)	ITZULPENA: Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (INSN)
ISEI-IVEI adierazle hau egiten du, EUSTATetik hartutako definizioak erabiliz.	INSNek adierazle hau egiten du, ISCEDetik hartutako definizioak erabiliz	
Ikasketa mailak:	Ikasketa mailak:	Ikasketa mailak:
• Ikasketarik gabe (analfabetoak eta ikasketarik gabekoak): idazten eta irakurtzen ez dakiten pertsonak, edo badakiten arren ikasketarik egin ez dutenak. • Lehen hezkuntza (eskolaurrea eta lehen hezkuntza): Ama-eskolak, haurtzaindegiak, eskolaurrea eta antzekoak. OHO eta lehen hezkuntza bezalako ikasketak. • Bigarren hezkuntza (profesionalak eta bigarren hezk): lan heziketako ikasketak eta oinarritzko batxilergoko ikasketak eta baliokideak. Goi batxilergoko edo BBBko ikasketak, unibertsitatean sartzea eta antzekoak. • Unibertsitate ikasketak (erdi-goi mailakoak eta goi mailakoak): ingeniari teknikoak eta perituak, irakasle eskola, erizaintza eta maila bereko beste batzuk, eta lizentziaturak, goi ingeniariak eta antzekoak, eta doktoretza eta espezializazioa.	• Pre-primary education: ISCED 0 • Primary education: ISCED 1 First stage of basic education • Lower secondary education: ISCED 2 Second stage of basic education • (Upper) secondary education ISCED 3 • Post-Secondary non tertiary education ISCED 4 • First stage of tertiary education ISCED 5 (not leading directly to an advanced research qualification) • Second stage of tertiary education ISCED 6 (leading to an advanced research qualification)	• Lehen hezkuntzaren azpitik (INSN 0): Irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak, eta idazten eta irakurtzen dakiten arren gutxienez 5 urtez eskolaturik egon ez diren pertsonak. • Lehen hezkuntza (INSN 1): Gutxienez 5 urtez eskolaturik egon diren pertsonak, gehienetan 5 edo 6 urterekin hasita eta 11 edo 12 urterekin amaituta, maila altuago bat bete ez dutenak. • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza - DBH (INSN 2) • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (INSN 3 eta 4) Batxilergo, teknikari (maila ertaineko trebakuntza zikloak) eta titulazio baliokideak eta asimilagarriak dituzten pertsonak. • Goi hezkuntza (INSN 5): Goi teknikariko titulua duten pertsonak (goi mailako trebakuntza zikloak), unibertsitateko diplomatuak, lizentziatuak, doktoreak eta titulazio baliokideak edo asimilagarriak. • Goi hezkuntza (INSN 6): Diploma aurreratuak eta doktoretza tesiak

a, b eta c hizkien bidez, ISCED 5era igarotzen diren edo igarotzen ez diren ISCED 3ko titulazioak adierazten dira.

EAEn ere, ISEIren datuen arabera, etengabeko bilakaera positibo gertatu da graduatuen tasan: 2000tik 2005era, 20,2 izatetik 27,1 izatera igaro da, 20 eta 29 urte arteko mila biztanleen artean. EB-ko herrialde guztietako zifra altuenetako bat da, seguruenik gure erkidegoan LH teknologikoak daukan garrantzi handiaren ondorioz.

Hain zuzen ere, iturri beraren arabera, tasarik altuenak goi-mailako LH irakaskuntza mailari dagozkio, eta haien atzetik lizentziaturak, diplomaturak eta doktoretzak daude, hurrenez hurren.

Generoaren ikuspegitik, 2005ean, arlo horietan graduazio tasa 22,1 puntu txikiagoa zen emakumeen artean, gizonetan baino (15,7 eta 37,8, milako). Horrek erakusten du graduazio zientifikoak eta teknologikoak bultzatu behar direla emakumeen artean.

(f) Lan eta langabezi tasak, jasotako prestakuntza mailaren arabera

Hezkuntza maila ezberdinak dituzten pertsonen lan egiteko dituzten aukerak hezkuntza maila bakoitzean dagoen lan-esku eskaintzaren arabera eta lan-merkatuaren beharizanen arabera dira. Halere, oro har, EUROSTATen datuak aztertuz gero (datuak erantsitako laukian ageri dira), langabezi tasak behera egiten du hezkuntza mailak gora egiten duen neurrian. BAI-2008ko datuetan oinarritutako analisiak (ELGAK eta EUROSTATEk ez bezala, BAIk 16 urtetik aurrera ematen du informazioa) erakusten du, era berean, langabezi tasek behera egiten dutela prestakuntza mailak gora egiten duen neurrian, bai Espainiar estatuan bai EAEn.



2. EAE-KO PRODUKZIO EGITURA ETA BERRIKUNTZA

2.1. Produkzio egitura

1.1.1. Enpresen Egitura eta Demografia

EUSTATEko Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren azken datuetan, 2008ari buruzkoetan, 203.911 establezimendu ageri dira, EAEan aktiboan dauden 184.290 enpresari dagozkionak (lehen

sektoreko enpresak izan ezik); hain zuzen ere, 2007an baino 4.601 establezimendu eta 3.815 enpresa gehiago dira.

Datu horiek agerian jarri dutenez, 2008an EAEko enpresa kopuruak (lantegiak, saltokiak, bulegoak...) %2,1eko hazkundea izan du, aurreko urtean baino 5,2 puntu gutxiago; enpleguak %2,5eko hazkundea izan du, 2007an baino 2 puntu gutxiago, eta batez besteko neurria enpresa bakoitzeko 5,1ean mantendu da.

1.2.1. LAUKIA. ENPRESAK EGOITZA SOZIALAREN ARABERA

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Guztira (EAE ETA ESTATUA)	151.120	154.376	155.653	158.709	164.086	168.231	180.475	184.290
EAE	148.432	151.459	152.533	155.507	160.417	164.374	176.167	179.953
ESTATUKO gainerako esk.	2.688	2.917	3.120	3.202	3.669	3.857	4.308	4.337
EAE (%)	98,2	98,1	98,0	98,0	97,8	97,7	97,6	97,6
ESTATUKO gainerako esk. (%)	1,8	1,9	2,0	2,0	2,2	2,3	2,4	2,4

Iturria: EUSTAT. JED.

1.2.2. LAUKIA. EAE-KO ENPRESA KOPURUAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA, JARDUERA ADARRAREN ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	Enpresa kopurua					Enplegua					Batez besteko enplegua				
	2006	2007	2008	2006-07	2007-08	2006	2007	2008	2006-07	2007-08	2006	2007	2008	Dif. 2006-07	Dif. 2007-08
Guztira	168.231	180.475	184.290	73	21	880.002	919.370	942.479	45	25	52	51	51	-01	00
Industria eta energia	14.248	14.700	14.463	32	-16	222.392	222.781	222.378	02	-02	156	152	154	-05	02
Eraikuntza	26.347	29.010	30.660	101	57	87.062	92.409	96.526	61	45	33	32	31	-01	00
Merkataritza eta konponk.	41.344	43.798	43.834	59	01	138.980	146.841	148.234	57	09	34	34	34	00	00
Ostalaritza	13.476	14.324	14.333	63	01	45.611	48.223	48.847	57	13	34	34	34	00	00
Garraioa eta komunikazioak	13.966	14.576	14.515	44	-04	49.851	52.465	53.191	52	14	36	36	37	00	01
Finantza-bitartekotza	2.643	2.794	2.868	57	26	20.960	21.449	21.235	23	-10	79	77	74	-03	-03
Enpresetarako zerbitzuak	33.606	37.053	38.828	103	48	120.808	128.425	139.594	63	87	36	35	36	-01	01
Adm., Hezk. Osasuna eta Gizarte Zerbitzua	10.673	11.477	11.746	75	23	152.773	162.359	166.994	63	29	143	141	142	-02	01
Zerbitzuko beste jarduera batzuk	11.928	12.743	13.043	68	24	41.565	44.418	45.480	69	24	35	35	35	00	00
Pertsona fisikoa	100.155	106.496	107.911	63	13	141.101	151.286	153.840	72	17	14	14	14	00	00
Sozietate anonimoa	9.111	9.191	8.964	09	-25	276.478	272.547	271.213	-14	-05	303	297	303	-07	06
Sozietate mugatua	39.696	44.252	46.534	115	52	239.659	261.281	279.755	90	71	60	59	60	-01	01
Beste sozietate eta elkarte batzuk	17.919	19.180	19.545	70	19	108.709	114.452	117.175	53	24	61	60	60	-01	00
Beste sozietate bat*	8.450	9.074	9.193	74	13	42.860	45.830	47.723	69	41	51	51	52	00	01
Ondasun-erkidegoa	8.345	8.889	9.101	65	24	20.463	22.533	22.887	101	16	25	25	25	01	00
Kooperatiba	1.124	1.217	1.251	83	28	45.386	46.089	46.565	15	10	404	379	372	-25	-06
B. forma juridiko batzuk	1.350	1.356	1.336	04	-15	114.055	119.804	120.496	50	06	845	884	902	39	18
Toki-korporazioa	386	390	390	10	00	24.222	24.801	25.383	24	23	628	636	651	08	15
Erakunde autonomoa edo asimilatua	905	906	885	01	-23	24.189	26.444	26.039	93	-15	267	292	294	25	02
Erlijiozko erakundeak															
Estatuko eta AAEEko administrazio-organoa	59	60	61	17	17	65.644	68.559	69.074	44	08	1.112,6	1.142,7	1.132,4	30,0	-10,3

*Taldeko erregularra, komanditarioa, elkartea, sozietate zibila eta zehaztu gabeko beste mota batzuk.

Iturria: EUSTAT. JED.

I.2.3. LAUKIA. ESTABLEZIMEDU KOPURUAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA EAE-N

	Establezimenduak				Enplegua				B. besteko enplegua		
	2006	2007	2008	Ald. %	2006	2007	2008	Ald. %	2006	2007	2008
Guztira	186.306	199.310	203.911	2,3	880.002	919.370	942.479	4,5	4,7	4,6	4,6
Industria eta energia	14.768	15.211	14.985	-1,5	222.392	222.781	222.378	0,2	15,1	14,6	14,8
Eraikuntza	27.039	29.826	31.523	5,7	87.062	92.409	96.526	6,1	3,2	3,1	3,1
Merkataritza eta motorreko ibilgailuen konponketa	47.911	50.702	50.935	0,5	138.980	146.841	148.234	5,7	2,9	2,9	2,9
Ostalaritza	14.267	15.170	15.195	0,2	45.611	48.223	48.847	5,7	3,2	3,2	3,2
Garraioa	15.154	15.795	15.766	-0,2	49.851	52.465	53.191	5,2	3,3	3,3	3,4
Finantza-bitartekotza	4.714	4.941	5.161	4,5	20.960	21.449	21.235	2,3	4,4	4,3	4,1
Enpresetarako zerbitzuak	35.166	38.747	40.615	4,8	120.808	128.425	139.594	6,3	3,4	3,3	3,4
Ad., Hezk., Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	14.015	14.833	15.367	3,6	152.773	162.359	166.994	6,3	10,9	10,9	10,9
Zerbitzuko beste jarduerak batzuk	13.272	14.085	14.364	2,0	41.565	44.418	45.480	6,9	3,1	3,2	3,2

Iturria: EUSTAT, JED.

I.2.4. LAUKIA. ESTABLEZIMENDUEN EGITURA, TAMAINAREN ARABERA

	2006		2007		2008	
	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua
Guztira	186.306	880.002	199.310	919.370	203.911	942.479
≤ 2	138.702	164.064	149.278	177.624	152.518	183.220
3-5	25.246	92.829	26.644	97.795	27.371	100.268
6-9	8.925	63.966	9.299	66.567	9.521	68.222
10-14	4.297	50.269	4.569	53.275	4.669	54.513
15-19	2.424	40.499	2.525	42.139	2.520	41.894
20-49	4.397	134.344	4.630	140.738	4.889	147.714
50-99	1.378	95.263	1.415	98.005	1.452	100.078
100-249	682	102.172	697	104.236	713	107.055
250-499	180	61.725	181	62.864	179	61.883
≥ 500	75	74.871	72	76.127	79	77.632

Iturria: EUSTAT, JED.

Egoitza EAEn duten enpresen ehunekoa %97,6an mantendu da, eta termino absolutuetan handitu egin da egoitza EAEn dutenen eta egoitza soziala Estatuko gainerako eskualdeetan dutenen kopurua.

Sektoreka, enpresa-hazkunderik nabariena Eraikuntzako %5,7 (aurreko urtean %10,1) eta Enpresetarako zerbitzuetako %4,8 (aurreko urtean %10,3) izan dira; eta beherakadarik handienak Industrian eta Energiari (%-1,6) eta Garraioan eta Komunikazioetan (%-0,4).


Enpleguari dagokionez, batez bestekotik (%2,5) gorako hazkundeak egon dira Enpresetarako zerbitzuetan (%8,7), eraikuntzan (%4,5) eta Administrazioan, Hezkuntzan, Osasunean eta Gizarte Zerbitzuetan (%2,9); eta beherakadak egon dira Finantza Bitartekotzan (%-1) eta Industrian eta Energiari (%-0,2).

Enpresen batez besteko tamaina, lehen esan dugunez, 5,1 enpleguko da. Batez besteko tamaina gaitzen dutenak ho-

nako hauek dira: Industria eta energia, Administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak, eta Finantza Bitartekotza, hurrenez hurren, enpresa bakoitzeko 15,4, 14,2 eta 7,4 enplegu. Nortasun juridikoa aintzat hartuta, eta enpresarik txikienak, hau da, titulartzat pertsona fisikoa duten enpresak (enpresa bakoitzeko 1,4 pertsona, batez beste) albo batera utzita, batez besteko tamaina 10,3 pertsonakoa da (2007an 10,4 eta 2006an 11,9); bertan, sozietate anonimoek 30,3 langileko batez besteko lanpostu-zerrenda dute (aurreko urtean 29,7), eta kooperatibek 37,2 pertsonakoa (aurreko urtean 37,9).

Azterketa-unitatetatik establezimendua hartuta ikusten denez, horien kopuruak %2,3ko hazkundeak izan du, eta enpleguak %4,5eko hazkundeak; hain zuzen ere, 203.911 establezimendu eta 942.479 enplegu dira, eta establezimendu bakoitzeko batez besteko enplegua 4,6koa da; horrek aurreko urtearekiko egonkortasuna adierazten du.

I.2.1. Grafikoa. Enpleguak EAEko establezimenduetan izandako bilakaera, establezimenduaren tamainaren arabera



Iturria: Geuk landuta, Eustateko "d2JED" d3 deritzon oinarrituz.

Establezimendu kopuruan eta enpleguan hazkunderik handiena duten sektoreak Eraikuntza eta Enpresetarako zerbitzuak izan dira; lehenengoak %5,7ko hazkundera izan du establezimendu kopuruan eta %6,1koa enpleguan, eta bigarrenak %4,8koa eta %6,3koa, hurrenez hurren.

Aurreko urteetan bezala, enplegu-tamainaren arabera egitura ez da aldatu. Horri dagokionez, 2.423 establezimenduk (guztizkoaren %1,2) 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 346.648 enplegu (guztizkoaren %36,8). Aldiz, 152.518 establezimenduk (guztizkoaren %74,8) ez dira 3 lanpostura heltzen, eta enplegu guztiaren %19,4 baino ez dute biltzen.

Establezimendu kopuruaren gorakada 17.398 establezimendu berri jarri ostean hastearren ondoriozkoa da; aurreko urtean baino %14 gutxiago dira eta 38.163 pertsonarako enplegua sortu dute (aurreko urtean 37.718). Baita 12.797 establezimendu ixtearen ondoriozkoa ere (aurreko urtean baino %77,2 gehiago).

eta horietan 29.507 pertsonak galdu dute lana (2007an baino %95,2 gehiago). Horrela, sartzen eta irteten diren establezimenduen arteko enplegu-saldo garbia 4.601koa da; 2008an jardura mantendu duten establezimenduetan enpleguak gora egin du, hain zuzen ere, 14.453 pertsonatan, eta, horrela, 23.109 lanpostu sortu dira.

Establezimendu berrien (sartzen direnak) batez besteko tamaina irteten direnena baino txikiagoa da (establezimendu bakoitzeko 2,2 eta 2,3 pertsona, hurrenez hurren).

Establezimenduen errotazio handiagoa Eraikuntzan, Merkataritzan eta konponketan eta Enpresetarako zerbitzuetan egon da; horien artean establezimenduen alta guztien %70,4 eta baxa guztien %66,2 biltzen dira, eta enpleguaren %72,2 ere bai.

Errotaziorik txikieneko geruzak tamainarik txikienekoak dira: 2 enplegatuko edo gutxiagoko establezimenduak, hain zuzen ere, establezimenduen errotazio osoaren %70,4 eta enplegua-

I.2.5. LAUKIA. ESTABLEZIMENDUEN EGITURA ENPLEGU TAMAINAREN ARABERA

	2007				2008			
	Establezimenduak		Enplegua		Establezimenduak		Enplegua	
	Kop.	% bertikala	Enpleguak	% bertikala	Kop.	% bertikala	Enpleguak	% bertikala
Guztira	199.310	100,0	919.370	100,0	203.911	100,0	942.479	100,0
0 a 2	149.278	74,9	177.624	19,3	152.518	74,8	183.220	19,4
3 a 5	26.644	13,4	97.795	10,6	27.371	13,4	100.268	10,6
6 a 9	9.299	4,7	66.567	7,2	9.521	4,7	68.222	7,2
10 a 19	7.094	3,6	95.414	10,4	7.189	3,5	96.407	10,2
20 a 49	4.630	2,3	140.738	15,3	4.889	2,4	147.714	15,7
≥ 50	2.365	1,2	341.232	37,1	2.423	1,2	346.648	36,8

Iturria: EUSTAT, JED.

I.2.6. LAUKIA. ENPLEGU HAZKUNDEAN EGINDAKO EKARPENA, JARDUERA ADARRAREN ETA ENPLEGU GERUZAREN ARABERA. ERROTazioA. 2008

	Establezimenduak					Enplegua				
	Hazkunde osoa (altak-baxak) + gelditu direnak	Ekarpena (% bertikala)	Hazkundearen eragileak			Hazkunde osoa (altak-baxak) + gelditu direnak	Ekarpena (% bertikala)	Hazkundearen eragileak		
			Sarre-rak	Daude-nak	Irte-erak			Sarre-rak	Daude-nak	Irte-erak
Guztira 2006	4.775	—	17.921	0	13.146	26.203	—	38.662	20.459	32.918
Guztira 2007	13.004		20.227	0	7.223	39.368		37.718	16.769	15.119
Guztira 2008	4.601	100.0	17.398	0	12.797	23.109	100.0	38.163	14.453	29.507
Aldaketa 2006-07	172.3	—	12.9		-45.1	50.2	—	-2.4	-18.0	-54.1
Aldaketa 2007-08	-64.6	—	-14.0		77.2	-41.3	—	1.2	-13.8	95.2
Industria eta energia	-226	-4.9	773	-57	942	-403	-1.7	4.171	1.569	6.143
Eraikuntza	1.697	36.9	4.810	-26	3.087	4.117	17.8	7.873	1.733	5.489
Merkataritza eta konponketa	233	5.1	3.147	53	2.967	1.393	6.0	6.401	6.11	5.619
Ostalaritza	25	0.5	738	-12	701	624	2.7	1.744	39	1.159
Garraioa eta komunikazioak	-29	-0.6	998	22	1.049	726	3.1	1.744	1.333	2.351
Finantza-bitartekotza	220	4.8	409	15	204	-214	-0.9	827	-714	327
Enpresetarako zerbitzuak	1.868	40.6	4.294	-6	2.420	11.169	48.3	8.474	7.214	4.519
Adm., Hezk., Osasuna eta Gizarte Zerbitzua	534	11.6	1.173	5	644	4.635	20.1	4.995	1.571	1.931
Zerbitzuko b. jarduerak batzuk	279	6	1.056	6	783	1.062	4.6	1.934	1.097	1.969
≤2	3.240	70.4	15.205	-571	11.394	5.596	24.2	17.755	67	12.226
3-5	727	15.8	1.311	215	799	2.473	10.7	4.682	691	2.900
6-9	222	4.8	406	29	213	1.655	7.2	2.904	258	1.507
10-14	100	2.2	186	56	142	1.238	5.4	2.138	723	1.623
15-19	-5	-0.1	87	8	100	-245	-1.1	1.423	22	1.690
20-49	259	5.6	167	196	104	6.976	30.2	4.945	5.189	3.158
50-99	37	0.8	24	41	28	2.073	9.0	1.649	2.375	1.951
100-249	16	0.3	10	17	11	2.819	12.2	1.346	2.991	1.518
250-499	-2	0.0	1	1	4	-981	-4.2	x	-82	x
≥ 500	7	0.2	1	8	2	1.505	6.5	x	2.219	x

(x) Konfidentzialtasunaren eraginez babesturiko laukitxoak.
Iturria: EUSTAT. JED.

ren errotazioaren %24.2. Hala eta guztiz ere, urte honetan ere aipagarria da, enplegu-sorkuntzaren arloan, geruza horrek ez ezik 20-49 enpleguko geruzak ere (+6.976) izan duen dinamika, establezimendu berrien eta lehendik dauden artean izandako hazkundearen ondorioz.

2.1.1. Nekazaritza eta Arrantza Sektorea


Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako behin-behineko datuetan adierazitakoaren arabera (2009ko otsailaren 17an argitaraturiko datuak), 2008an lehen sektorea BEGeko %0.7ra baino ez da heldu, EAEko oinarritzko prezioetan (aurreko urtean %8.8), eta enpleguaren %2.3ra baino ez (aurreko urteko ehuneko bera). Horrela, lehen sektoreko balio erantsia 418.819 milioi eurokoa izan da, eta enplegua 23.818 lanpostukoa. Hau da, 2007tik 2008ra, lehen sektoreko BEGek %0.2ko murriztapena izan du EAEn, eta enpleguak %1.7ko murriztapena izan du.

Bestalde, Gizarte Segurantzako abenduko afiliazio-datuak agerian jarri dutenez, Nekazaritza Araubide Berezirako (inoren konturako langileak bakarrik) eta Itsasoko Araubide Berezirako afiliazioak gora egin du, hurrenez hurren, %6an eta %0.5ean. 18/2007 Legea aplikatuz, Nekazaritzako Araubide Berezirako norberaren konturako langileak, 2008ko urtariletik, Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezirako sartu dira, Nekazaritzako Langileen Sistema Berezirako (NLSB) berrian. Horri dagokionez, 2007an norberaren konturako Nekazaritza Araubide bereziko afiliatuak 6.488 pertsona ziren.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Baso Ustiapena


Nekazaritza-errenta izenduna edo balio korrontekoa (NBI). Nekazaritza-errentaren balio izenduna %8.6an murriztu da 2007tik 2008ra, gehienbat bitarteko kontsumoen (gastuak: ongariak, pentsuak eta gasolioa) balioak gora eta intentsitatearen prezioak behera egitearen ondorioz.

1.2.2. Grafikoa. Gizarte segurantzako batez besteko afiliatu kopurua (urteko abenduan)



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.

1.2.3. Grafikoa. Azken Produkzioaren eta Nekazaritza Errentaren Bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila

Nekazaritza-errentaren aldagaiek honako jokabide hau izan dute 2008an, 2007an izandakoari dagokionez. Nekazaritzako Azken Produkzioaren balioa (nekazaritza+abeltzaintza+basoa+beste produkzio batzuk) %0,5 hazi da, nekazaritzako eta abeltzaintzako prezioek gora egitearen eraginez, intsinis pinuaren prezioak behera egin arren. Prezio iraunkorretan, nekazaritzako produkzioek %0,9ko hazkundea izan dute, abeltzaintzakoek %4,7ko murriztapena, eta basokoek %2,5eko

hazkundea; beraz, Nekazaritzako Azken Produkzioaren bolumenak %0,8ko murriztapena izan du. Bitarteko kontsumoen balioa %19,7 hazi da, ongariaren, pentsuen eta erregaien prezioek izandako hazkundearen ondorioz. Diru-laguntzak mantendu egin dira, baina desagertu da behien hobekuntza genetikorako saria, eta erabat sartu dira Erremolatxaren Plan Sektorialari dagozkion laguntzak; horrela, kopuru orokorrak %0,4ko hazkundea izan du.

Nekazaritza-errenta balio errealean (deflatatua). Nekazaritza Errenta izendunaren bilakaera negatibo hori balio errealean ere ikusten da (%3,9ko behin-behineko deflatoarea). Horrela, EAEk 2008ko Nekazaritza Errenta erreala (baso-sektorea aintzat hartu barik) %10,6an murriztu da; Estatuan %7,8an murriztu da, eta EB-25ean murriztapena txikiagoa izan da (%6,3).

Deflatoarea aplikatu ondoren, Nekazaritzako Azken Produkzioak %0,9ko murriztapena izan du EAEn (EB-25ean %4,3ko hazkundea), bitarteko kontsumoek (gastuak) %13,7ko hazkundea izan dute (EBn %10,8koa) eta diru-laguntzak %3,3an murriztu dira (EB-25ean %1,5ean).

1.2.7. LAUKIA. NEKAZARITZA ERRENTA ERREALAREN (deflatatua) ETA LANDUNEN BILAKAERA (aldaketa-ehunekoak)

	2007/2008		
	EAE	ESTATUA	EB-25
Nekazaritza-errenta (erreala)	-10,6	-7,8	-6,3
N. Azken Produk. (nekazaritza eta abeltz.)	-0,9	—	4,3
Nekazaritzako Azken Produkzioa	0,8	—	3
Abeltzaintzako Azken Produkzioa	-3,5	—	6,3
Bitarteko kontsumoak	13,7	—	10,8
Diru-laguntzak	-3,3	—	-1,5
Nekazaritzako eskulanaren hazkundea	0	-4,6	-2,1
Landun bakoitzeko nekazaritza-errenta	-10,6	-3,4	-4,3

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

1.2.8. LAUKIA. NEKAZARITZA MAGNITUDEAK (EUROAK MILETAN)

	2007*	2008*	% aldaketa 2007-2008		
	Balioa	Balioa	Balioa	Produk.	Prezioak
NEKAZ. AZKEN PRODUK.	521.658,8	524.493,0	100,5	99,2	101,4
Nekazaritzako azken prod.	273.236,4	286.079,4	104,7	100,9	103,8
Zerealak	36.977,3	35.648,7	96,4	100,6	95,9
Lekadunak	3.109,3	2.963,7	95,3	92,7	102,9
Patata	15.467,5	9.906,7	64,0	76,6	83,7
Erremolatxa	6.269,9	5.240,1	83,6	97,3	85,9
Industriako beste batzuk	1.123,0	975,0	86,8	58,5	148,4
Barazkiak	68.410,5	70.553,9	103,1	98,3	104,9
Frutak	12.504,5	14.860,7	118,8	120,4	98,7
Mahastia	96.718,4	115.879,0	119,8	106,6	112,4
Beste batzuk	32.656,0	30.051,6	92,0	96,3	95,5
Abeltzaintzako azken prod.	171.993,6	172.414,4	100,2	95,3	105,2
Abereak/Behi-okela	33.166,9	29.602,7	89,3	93,8	95,2
Ab./Ardi- eta ahuntz-okela	7.357,6	7.319,9	99,5	97,3	102,3
Abereak/Txerri-okela	8.097,0	8.148,4	100,6	96,3	104,5
Behi-esnea	78.731,8	83.219,5	105,7	95,3	110,9
Arrautzak	29.419,3	28.020,0	95,2	95,8	99,4
Beste batzuk	15.221,1	16.103,7	105,8	95,9	110,3
Basoko azken produkzioa	60.450,2	48.361,4	80,0	102,5	78,1
Intsinis pinuaren zura	48.523,9	34.998,6	72,1	100,2	72,0
Beste batzuk	11.926,6	13.362,8	112,0	112,0	100,1
Beste produkzio batzuk	15.978,5	17.637,9	110,4	100,0	110,4
BITARTEKO KONTSUMOAK	180.855,9	213.737,5	118,2	98,7	119,7
DIRU-LAGUNTZAK	66.356,4	66.650,4	100,4	97,0	103,5
AMORTIZAZIOAK	52.918,3	53.476,9	101,1	100,8	100,3
BEG mp	340.802,9	310.755,5	91,2	99,4	91,7
NEKAZ. ERRENTA (BEGb)	354.241,0	323.929,0	91,4	98,8	92,6

Aurrerapena. Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Saila.

¹ EAEn kasuan, ustiapenerako diru-laguntzak 2007an nekazaritza-errenta osoaren %18,7 izatetik 2008an %20,6 izatera igaro dira. Estatuan %28tik %31,7ra igaro dira. Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruneako Ministerioak (ILIIM) emandako datuen arabera.

Nekazaritzako Azken Produkzioko azpisektoreei dagokienez, nekazaritzakoak %0,8ko hazkundea izan du, eta abeltzaintzakoak %3,5eko murriztapena.

EAEko nekazaritza-landunen kopurua aurreko urtekoen antzeko zifretan mantendu da; ILIIMek Estatuari buruz dioenaren arabera, landun kopurua %4,6an murriztu da, eta EB-25erako zenbatespenek %2,1eko murriztapena izan dute, zona osorako.

Nekazaritzako Azken Produkzioa (nekazaritza, abeltzaintza, basoa eta beste produkzio batzuk). Nekazaritzako azken produkzioaren balioa 524,5 milioi eurokoa da, eta 2008an %0,5eko hazkundea izan du; produkzioa %0,8an murriztu eta prezioek %14ko hazkundea izan dute.

Hain zuzen ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako azken produkzioaren balioa hazi egin da, eta basoko azken produkzioaren balioa, berriz, murriztu egin da.

Nekazaritzako azken produkzioaren balioaren hazkundea, bestalde, produkzioak (%+0,9) eta prezioak (%+3,8) gora egitearen eraginezkoa da. Bestalde, abeltzaintzako azken produkzioaren hazkundea prezioen hazkundearen (%+5,2) zuzeneko ondorioa da, eta ez produkzioaren ondorioa (%-4,7).

Basoko azken produkzioaren balioa murriztu egin da, eta hori prezioek izandako beherakadaren eraginezkoa da (ia %22ko beherakada); produkzioak %2,5eko hazkundea izan du.

Nekazaritzako Azken Produkzioa. Nekazaritzako produkzioen barruan (oro har, 286 milioi euro), murriztapenak ikusten dira honako hauen produkzioan: lekadunak (%-7,3), patata (%-23,4), erremolatxa (%-2,7), barazkiak (%-1,7) eta industriako beste batzuk (%-41,5). Zerealen, fruten eta mahastiaren produkzioak, berriz, gora egin du, hurrenez hurren, %0,6an, %20,4an eta %6,6an. Bestalde, lekadunen, industriako beste batzuen, barazkien eta mahastiaren prezioek gora egin dute; eta zerealen, patataren, erremolatxaren eta fruten prezioek, ostera, behera.

Abeltzaintzako Azken Produkzioa. Abeltzaintzako azken produkzioa 172 milioi eurokoa izan da, aurreko urtekoa baino %0,2 handiagoa. Balio-hazkunde hori prezioen gorakadaren (%5,2) eraginezkoa da, produkzioak %4,7ko murriztapena izan baitu. Izan ere, produkzioaren murriztapenak ikusten dira azpialal guztietan: behi-okela, ardi- eta ahuntz-okela, txerri-okela, behi-esnea eta arrautzak.

Prezio-hazkundeak, bestalde, behi-esneak (%+10,9), txerri-okelak (%+4,5) eta ardi- eta ahuntz-okelak (%+2,3) izan dituzte.

Basoko azken produkzioa. 2008an, hostozabalak mozteko baimenek %43ko hazkundea izan dute, eta intsinis pinuaren prezioek, ostera, %28ko murriztapena.

I.2.9. LAUKIA. NEKAZARITZAKO MAKROMAGNITUDEEN BILAKAERA, 2000-2007 (euroak miletan)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007 a	2008 a
NEK. AZKEN PRODUKZIOA	483.131,9	469.665,1	449.013,2	477.760,0	468.265,7	487.937,0	521.658,8	524.493,0
Nek. Azken Produkzioa	201.652,3	218.274,6	200.509,2	236.593,4	245.035,5	253.683,6	273.236,4	286.079,4
Zerealak	23.353,1	27.311,3	21.105,1	22.505,9	26.308,7	25.217,0	36.977,3	35.648,7
Lekadunak	1.982,7	2.027,5	1.387,7	3.410,2	2.256,3	3.249,3	3.109,3	2.963,7
Patata	13.134,8	12.279,1	9.667,3	14.045,6	8.920,7	14.910,0	15.467,5	9.906,7
Erremolatxa	9.059,8	11.469,7	9.036,7	10.949,4	11.427,3	6.827,2	6.269,9	5.240,1
Industriako beste batzuk	1.115,4	679,3	729,0	865,2	397,4	741,4	1.123,0	975,0
Barazkiak	54.919,9	63.755,3	52.127,7	56.420,0	62.665,8	68.082,1	68.410,5	70.553,9
Frutak	9.946,2	12.459,6	12.895,7	14.175,6	11.958,9	13.798,8	12.504,5	14.860,7
Mahastia	72.457,1	67.699,2	78.596,0	90.192,7	102.982,5	95.126,0	96.718,4	115.879,0
Beste batzuk	15.683,1	20.593,6	14.964,0	24.028,9	18.117,9	25.731,8	32.656,0	30.051,6
Abeltz. Azken Produkzioa	176.341,9	164.850,5	173.118,9	160.908,5	149.656,5	158.249,5	171.993,6	172.414,4
Abereak/Behi-okela	39.340,1	40.146,1	37.313,2	32.838,3	31.223,4	33.026,5	33.166,9	29.602,7
Ab./Ardi- eta ahuntz-okela	8.675,1	6.600,7	6.748,1	7.633,9	7.833,1	7.941,7	7.357,6	7.319,9
Abereak/Txerri-okela	7.323,3	5.786,2	8.285,4	8.802,7	6.585,6	9.063,9	8.097,0	8.148,4
Behi-esnea	80.096,9	74.400,3	74.339,9	73.248,6	68.875,8	66.785,9	78.731,8	83.219,5
Arrautzak	20.010,7	19.352,2	25.284,7	21.964,0	21.522,7	25.245,8	29.419,3	28.020,0
Beste batzuk	20.895,8	18.565,1	21.147,4	16.421,0	13.615,9	16.185,6	15.221,1	16.103,7
Basoko Azken Produkzioa	90.000,2	70.964,1	63.027,5	66.922,6	58.740,9	60.646,9	60.450,2	48.361,4
Intsinis pinuaren zura	76.318,8	58.838,5	53.908,5	53.212,3	50.362,1	50.314,0	48.523,9	34.998,6
Beste batzuk	13.681,4	12.125,6	9.119,0	13.710,4	8.378,8	10.332,9	11.926,3	13.362,8
Beste produkzio batzuk	15.137,6	15.575,8	12.357,6	13.335,4	14.832,8	15.357,1	15.978,5	17.637,9
BITARTEKO KONTSUMOAK	165.486,8	163.357,9	168.143,5	179.400,4	161.346,5	167.711,5	180.855,9	213.737,5
DIRU-LAGUNTZAK	48.432,5	60.525,9	59.460,8	61.116,5	63.041,3	68.329,8	66.356,4	66.650,4
AMORTIZAZIOAK	33.442,4	33.545,2	34.401,5	34.508,6	46.903,2	52.053,5	52.918,3	53.476,9
BEG mp	317.645,1	306.307,2	280.869,7	298.359,6	306.919,2	320.225,5	340.802,9	310.755,5
NEKAZ. ERRENTA (BEGb)	332.635,2	333.287,9	305.929,0	324.967,5	323.057,3	336.501,8	354.241,0	323.929,0

a: aurrerapena. Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Saila

Bitarteko kontsumoak. Horien balioa 2007koa baino %18,2 handiagoa izan da. Hazkunde hori, berriz, batez besteko prezioen hazkundearen (%19,7) ondoriozkoa da, kontsumituriko kantitateek, oro har, %1,3ko murriztapena izan baitute. Hain zuzen ere, kontsumituriko fitosanitario kantitatean hazkundeak egon dira, eta kontsumituriko pentsu eta zoosanitario kantitatean, aldiz, murriztapenak.


Prezioek gora egin dute talde guztietan, batez ere ongarrietan (%84), gasolioan (%21) eta pentsuan (%17,8). Halaber, hazien

eta zoosanitarioen prezioek ere gora egin dute (hurrenez hurren, %3 eta %3).

Ustiapenerako diru-laguntzak. 2008an, ustiapenerako diru-laguntzak 66,7 milioi eurokoak izan dira, nekazaritzako errenta osoaren %20,6 (2007an %18,7); beraz, %0,4ko murriztapena egon da aurreko urteari dagokionez.


Amortizazioak. %1,1 hazi eta 53,5 milioira heldu dira, traktore kopuruak izandako hazkundearen ondorioz.

I.2.4. Grafikoa. EAEko arrantza-ontzidiaren bilakaera



Iturria: SEAS. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila. Eusko Jaurlaritza.

I.2.5. Grafikoa. EAEko arrantza-ontzidiko arrantzale kopuruaren bilakaera



Iturria: SEAS. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila. Eusko Jaurlaritza.

Urte honetan ez da egon gure baxurako ontzidiaren espezie-rik tradizionalenen arrantzarik. Horrela, Kantauriko antxoaren arrantza itxita egon da, eta atunaren kanpainan (hegalaburra eta hegaluzea) emaitza oso txarrak lortu dira.

Arrantza-sektorearen produkzio-egituraren bilakaerak, oro har, azken hamarkadako beheranzko joera mantendu du; hala eta guztiz ere, azpisektoreen araberako aldaketak ikusten dira.

2008an arrantza-ontzidiak 17 unitate galdu ditu (16 baxurakoak eta 2 altura handikoak, eta atunontzi izoztaile 1 gehiago dauka); beraz, %5,8ko murriztapena izan du, eta urtea 274 unitaterekin amaitu du. Murriztapen horrek ez du eraginik izan bakailao-ontzien sektorean, horrek mantendu egin baitu bere ontzidi txikia, ezta atunontzi izoztaileen azpisektorean ere, unitate bat gehiago baitauka.

Ontzi kopuruaren murriztapenak eragina izan du sektoreko langile kopuruan. Horrela, urtea 188 arrantzale gutxiagorekin amaitu da, eta horrek %6,7ko murriztapena adierazten du 2007ari dagokionez; horrenbestez, 2008an itsasoko langile kopurua 2.624 pertsonakoa izan da.

Baxurako ontzidian ontzirik txikiak daude, Erregistro Gordinean 150 tonatik beherako edukiera dutenak; ontzidi horretako unitate batzuek perpendikularren arteko 17,4 m-ko luzera (dimentsioari dagokionez), 61,7 tona (edukierako Erregistro Gordina) eta 304,8 ZPko potentzia izan dute. Hauxe da EAEko arrantza-ontzidiko azpisektorerik ugariena, eta arrantzan kostaldetik hurbilen egiten duten ontziak dira; besteak beste, honako arteak erabiltzen dituzte:

- *kaza* berdelarako eta atunetarako,
- *ingurasarea* (arte mota hau sarda handietan dabilzan espezieak harrapatzeko erabiltzen da; arrainak sare handi batekin inguratu eta sare hori, apurka-apurka estutu egiten da.

Sareak goialdean flotagailuak ditu, eta behealdean berunak; sarea behetik ixten da, zerra izeneko soka batetik tenkatuta), pelagiko txikiak harrapatzeko, batez ere, antxoak; azkenik,

- *beita bizia*, atunak harrapatzeko.


Azpisektore honetan 210 unitate daude (EAEko arrantza-ontzidi osoaren %76,6). Berak sortzen du enplegurik gehien, eta 1.484 arrantzale ditu; hain zuzen ere EAEko arrantza-ontzidiko enplegu osoaren erdia baino gehiago da (EAEko arrantza-ontzidiko tripulazio osoaren %56,5).

Altura handiko flotari dagokionez, unitate kopurua murriztu duen bakarria freskoko alturako azpisektorea da; unitateak Ondarroaren (gehienak) eta Pasaiaren artean banatuta daude. 34 ontzi ditu (2007an baino bi ontzi gutxiago, %5,6ko murriztapena), eta 409 arrantzaleko tripulazioa (40 langile gutxiago, eta %8,9ko murriztapena). Freskoko alturako ontzien batez besteko luzera 29,3 metrokoa da (perpendikularren artean); batez besteko potentzia 594,8 ZPkoa da, eta batez besteko edukiera 207,2 tonakoa (Erregistro Gordina).

Bakailao-ontzien azpisektorea altuera handiko ontzidiko azpisektorerik txikiena da, eta 5 unitate ditu, 2007ko kopuru bera, baina enpleguak %19,1eko murriztapena izan du, eta 102 tripulataile daude (2007an baino 24 gutxiago). Batez besteko balioak 45,2 metroko luzerakoak dira, perpendikularren artean, dimentsioari dagokionez; 1.772 ZPko batez besteko potentzia dute, eta 652,3 tona, edukierako Erregistro Gordinean. EAEko arrantza-flota osoaren %1,8 dira, eta Pasaiako (Gipuzkoa) portuan daude guztiak; ontzidirik zaharrena da, eta batez besteko adina 24 urte ingurukoa da.

Unitate kopurua handitu duen azpisektore bakarria atunontzi izoztaileena da (Bermeoko portuko ohiko ontziak), eta 2008ko amaieran 25 unitate izan ditu, aurreko urtean baino bat ge-

I.2.6. Grafikoa. EAEn lehorreraturiko baxurako harrapaketen kantitatea eta balioa



Iturria: SEAS. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila. Eusko Jaurlaritza.

hiago (%4.2ko hazkundera). Ontzien batez beteko dimentsioa 67.04 metroko luzerakoa da, perpendikularren artean; batez besteko edukiera 1.565.8 tonakoa da Erregistro Gordinean, eta batez besteko potentzia 4.357.8 ZPkoa, ontzi bakoitzeko.

2008an, EAEko baxurako lonjetan enkantean jarritako harripaketen guztizkoa 53.081.5 tonakoa izan da (2007an baino %11.4 gehiago). Kantitateen hazkundera, batik bat, honako hauen arrantzaldi onaren eraginezkoa izan da: berdela (26.003,6 tona, eta %16 2007ko kantitateari dagokionez), txitxarroa (4.570,04 tona eta %94,7ko hazkundera) eta legatza, tarteko legatza eta merlenka (3.789,3 tona eta %29,8ko hazkundera 2008ari dagokionez), sardina (6.096 tona eta %97,8ko hazkundera), eta, kantitatearen aldetik urriagoak izan arren, harripaketa handiagoak lortu dituzten beste espezie batzuk; esate baterako, barbarina, meroa, paneka, urraborua, mihi-arraina eta bisigua. Hala eta guztiz ere, atunen arrantzak

(adibidez, hegaluzea eta hegalaburra) emaitza negatiboak izan ditu 2007ari dagokionez. Hegalaburraren kasuan, 1.254.5 tona jarri dira enkantean, hau da, aurreko urtean baino %30,1 gutxiago. Hegaluzeari dagokionez, 6.005.4 tona erregistratu dira, eta horrek %23,2ko murriztapena adierazten du.

2008an Kantauriko antxoaren arrantza itxita mantendu da, arrantza-tokia suspertu ahal izateko; hala ere, 2005eko bigarren erditik itxita egon da, 2006ko alferreko ahaleginaren kasuan izan ezik; beraz, EAEko baxurako flotaren errentagarritasuna nabarmen murriztu da.

2008an 64,8 milioi euro bildu dira, eta horrek, 2007an bildutako 66,7 milioi euroekin konparatuta, %2,8ko murriztapena adierazten du; hori Kantauriko antxoaren arrantza itxtearen eta atunen arrantza izandako emaitza txarren eraginezkoa izan da. Atunen kasuan, hegalaburrak 5.035,3 milioi € bildu ditu, eta horrek 2007koa baino %39,2 gutxiago adierazten

I.2.10. LAUKIA. EAE-KO BAXURAKO ONTZIDIAK LEHORRERATURIKO ARRANTZA

	2006			2007			2008				% ald. 2007-2008		
	K	B	P	K	B	P	K	B	%	P	K	B	P
Antxo	781	8,8	11,3	0	0	0	0	0	—	—	—	—	—
Hegalaburra	937	4,3	4,6	1796	8,3	4,6	1.254	5,0	7,8	4,0	-30,2	-39,3	-12,7
Hegaluzea	14.128	32,6	2,3	7.818	23,6	3	6.005	19,4	30,0	3,2	-23,2	-17,7	7,8
Txitxarroa	2.464	2	0,8	2.347	1,4	0,6	4.570	2,5	3,8	0,5	94,7	76,5	-9,9
Berdela	12.613	6,2	0,5	22.416	7,2	0,3	26.004	8,7	13,4	0,3	16,0	20,6	11,4
Legatza*	2.448	11,1	4,5	2.913	11,2	3,8	3.780	13,7	21,2	3,6	29,8	22,7	-4,3
Bisigua	0,152	0,003	17,1	17	0,2	9,8	21	0,2	0,3	8,3	20,9	-14,8	-15,4
Gainerako esp.	8.525	13	1,5	10.352	14,8	1,4	11.447	15,3	23,6	1,3	10,6	3,4	-4,5
Guztira	41.895	78,1	1,9	47.658	66,7	1,4	53.082	64,8	100,0	1,2	11,4	-2,8	-12,8

K: kantitatea tonatan; B: balioa milioi €-tan; P: prezioa €-tan

(*) tarteko legatza eta merlenka ere barne. Iturria: Seas. Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

I.2.11. LAUKIA. EAEko BAXURAKO LONJETAN ENKANTEAN JARRITAKO KANTITATEAK ETA BALIOAK, PORTUEN ARABERA (2007-2008)

Portua	2007. urtea		2008. urtea		% aldaketa	
	Kantitateak tonatan	Balioak mila €-tan	Kantitateak tonatan	Balioak mila €-tan	Kantitateak	Balioak
Armintza	30,25	128,42	16,29	56,31	% -46,15	% -56,15
Bermeo	8.608,46	7.231,22	6.909,16	6.452,07	% -19,74	% -10,77
Elantxobe	4,39	12,76	10,71	14,65	% 143,95	% 14,81
Lekeitio	923,22	613,92	1.106,76	630,63	% 19,88	% 2,72
Mundaka	7,63	49,22	7,86	48,27	% 3,01	% -1,93
Ondarroa	10.005,68	8.898,75	9.591,12	7.922,03	% -4,14	% -10,98
BIZKAIA guztira	19.579,63	16.934,29	17.641,90	15.123,96	% -9,90	% -10,69
Donostia	623,17	1.463,60	896,31	1.432,18	% 43,83	% -2,15
Getaria	15.323,46	16.758,75	17.752,56	15.552,01	% 15,85	% -7,20
Hondarribia	6.731,84	12.004,56	9.561,59	9.646,76	% 42,04	% -19,64
Mutriku	124,60	184,90	173,04	203,37	% 38,88	% 9,99
Pasaia	5.275,20	19.374,07	7.056,14	22.868,87	% 33,76	% 18,04
GIPUZKOA guztira	28.078,27	49.785,88	35.439,64	49.703,19	% 26,22	% -0,17
GUZTIRA	47.657,90	66.720,17	53.081,54	64.827,15	% 11,38	% -2,84

Iturria: SEAS. Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

du; hegaluzearen kasuan, %23,2ko murriztapena egon da, eta diru-sarrerak 6.005,4 mila €-koak izan dira. Beste espezie batzuetan ere diru-sarrerak murriztu egin dira; esaterako, pardoak, makaela, muxarra, lupia eta oilarra. Bestalde, espezie batzuetan, aurreko urtean baino diru-sarrera handiagoak lortu dira; adibidez, txitxarroa (2.471,4 mila €-ko diru-sarrera izan ondoren, %71,3ko hazkundea izan du 2007ari dagokionez), sardina (%81,3ko hazkundea eta 1.900,6 mila €-ko diru-sarrerak), legatza (13.747,1 mila € eta %22,89ko hazkundea) edo berdela (8.686,5 mila € eta 2007an baino %20,4 gehiago). Beste espezie batzuen kasuan ere (zapoa, urraburua, meroa, krabarroka edo bakalada) diru-sarrera handiagoak egon dira. EAEko baxurako lonjetan enkantean jarritako arrainaren batez besteko prezio osoa 1,2 euro/kiloa da, eta 2007koa baino %12,9 baxuagoa da. Beherakada orokor hau zenbait espezie-eren egoeraren eraginezkoa da; adibidez, bisigua (enkantean jarritako kantitateak handiagoak izatean, prezioa %15,4an murriztu da), hegalaburra (%12,7 merkeago), txitxarroa (%9,9) eta legatza (%4,3).


2.1.2. Industria

Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera (2009ko otsailaren 17an argitaraturiko datuak), industria-sektorea EAEko balio erantsi gordin osoaren %29ra heldu da 2008an (2007an baino lau hamarren gutxiago), eta 258.219 lanpostu izan ditu, hau da, enplegu osoaren %25,2 (2007an baino 3 hamarren gutxiago).

Halaber, datu horiek agerian jarri dutenez, 2007ko lehenengo hiruhilekotik aurrera, produkzioaren hazkunde tasa, apurka-apurka, ahultzen joan ziren, eta 2008ko laugarren hiruhilekoan %2,8ko urteko hazkunde tasa negatiboa egon da. Horrela, industriako BEGren hazkundea 2008an aurreko urtean baino 3,8 puntu baxuagoa izan da; hain zuzen ere, %0,2ko hazkundea egon da, eta horrek 18.051.288 milioi euro egiten ditu guztira.

Bestalde, Estatu osoko industriako BEGek, INEren datuen arabera, %2,7ko urte batetik besterako tasa negatiboa izan du. Izan ere, hiruhileko beherezko hazkunde-profila adierazten du; lehenengo hiruhilekoan zero hazkundearekin hasi eta lau-

1.2.7. Grafikoa. Industriako adierazle nagusien bilakaera. Zuzendutako datuak



Iturria: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. 2008. behin-behineko datuak.

1.2.12. LAUKIA. INDUSTRIA SEKTOREKO ADIERAZLEAK

	2005	2006	2007	2008
BEG Bolumen-indizea	100.0	104.2	108.4	108.6
BEG €-ak milatan	15.238.236	16.115.793	17.286.015	18.051.288
Enplegu osoa	249.696	250.862	259.141	258.219
BEGen aldaketa	4,9	4,2	4,0	0,2
Enpleguaren aldaketa	-0,6	0,5	3,3	-0,4
Produktibitatea (enplegu osoan neurtuta)	5,5	3,7	0,7	0,5

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta CET.

I.2.13. LAUKIA. INDUSTRIA SEKTOREAREN BILAKAERA (urteko aldaketaren tasak)

		BEG Bolumeneko indizea (zuzenduta)	Landunak (zuzenduta)	Produktibit.
2005	t1	4,1	-0,3	4,5
	t2	4,8	-0,3	5,1
	t3	5,0	-0,8	5,9
	t4	5,7	-0,9	6,7
2006	t1	5,2	-0,3	5,4
	t2	3,3	-0,2	3,6
	t3	3,9	0,7	3,2
	t4	4,3	1,7	2,6
2007	t1	5,3	3,7	1,6
	t2	4,8	3,7	1,0
	t3	3,9	3,2	0,6
	t4	2,2	2,6	-0,5
2008	t1	1,7	0,4	1,4
	t2	1,4	-0,1	1,5
	t3	0,5	-0,5	0,9
	t4	-2,8	-1,2	-1,5

Zuzendutako datuak. Aldaketaren urte batetik besterako tasak. Iturria: EUSTAT.

garrenean %-5,5eko urte batetik besterako aldaketa-tasarekin amaitu du.

Enpleguari dagokionez, zifrek agerian jarri dute (258.219 lanpostu, EUSTATEN Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera) urteko %0,4ko batez besteko murriztapena egon dela (922 lanpostu gutxiago), 2007an %3,3ko hazkundera egon ondoren. Horrenbestez, sektoreko produktibitate errealek urteko batez besteko %0,5eko hazkundera izan du (aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago).

Industria Produkzioaren Indizeak (IPI)², behin-behineko datuen arabera, jardueraren murriztapena adierazten du, horren aldaketa-tasak 2007tik 2008ra 7,3 puntuko beherakada izan baitu EAEn; hain zuzen ere, %3,9ko hazkundetik %3,4ko murriztapenera igaro da. Lurralde historikoen datuek 9,7 puntuko murriztapena adierazten dute Gipuzkoan (%+5,5etik %-4,2ra), 6 puntukoa Araban (%+1,9tik %-4,1era) eta 5,9 puntukoa Bizkaian (%+3,5etik %-2,4ra).

INEren datuen arabera, IPiren (indize orokorra) EAEko batez besteko tasak Estatukoak baino murriztapen txikiagoa izan du. Horrela, 2007tik 2008ra, EAEn %4,5eko hazkundetik %2,5eko gutxitzera igaro da (7 puntuko beherakada), eta Estatuan %+2,4tik %-7,1era (9,2 puntuko murriztapena). 2008ko abenduan, urte batetik besterako aldaketaren tasak, hurrenez hurren, %-14 eta %-16 dira.

Europarekin konparatzeko, datuen erabilgarritasuna aintzat hartuta (Eurostatek eskainitako datuak), abenduko urte batetik besterako aldaketaren tasa (urtaroka egokituta) erabiliko dugu; hori, ondoren ikusiko dugunez, nahiko adierazgarria da. Datu-iturri horren arabera, IPiren urte batetik besterako aldaketaren

tasa (abenduan) %-19,6koa izan da Estatuan eta %-12,1ekoa EB-27an, eta euroaren zonan, berriz, %-12,7koa.

EUSTATEN arabera, batez besteko murriztapen hori, batez ere, honako hauek eragin dute: kontsumo iraunkorreko ondasunek (urte honetan %15,7ko murriztapena); bitarteko ondasunek, %4,5eko hazkunde-tasatik %5eko gutxitzera igaro baitira (9,5 puntuko beherakada); eta ekipoko ondasunek, %7,3ko hazkunde tasatik %2,2ko gutxitzera igaro baitira (9,5 puntuko murriztapena). Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren produkzio-indizean ere murriztapena egon da, baina hori beste hiru kasuetan egondakoa baino txikiagoa izan da. Energiaren kasuan alderantzizkoa gertatu da, hau da, %5eko hazkundera izan du, aurreko urtean %1eko murriztapena izan ondoren.

Beste modu batera esateko, produkzioan murriztapenik handiena izan dutenak barne-dinamismoa galtzearen eta etxebizitzaren salmenta erortzearen eraginpeko kontsumo-ondasunak (batik bat, kontsumo pribatua) izan dira, hau da, kontsumo iraunkorreko ondasunak (etxebizitzetako etxetresna elektrikoak).

IPiren azterketa sektorialetik (datu gordinak) ondorioztatzen denez, EAEko industriako hiru sektorerik garrantzitsuenek, hau da, metalurgiak, makineriak eta garraioko materialak, jokabide desberdina dute, eta lehenengo biek, azken 5 urteotan (azkena, bi kasuetan, 2002an) tasa negatiborik izan ez badute ere, 2008an tasa negatiboak izan dituzte. Horrela, makineria-sektorearen indizeak 11,4ko puntuko murriztapena izan du, eta %6,3ko hazkunde-tasatik %5,1eko gutxitzera igaro da. Metalurgia-sektoreak 10,2ko puntuko beherakada da izan du, eta %5,3tik %-4,9ra igaro da. Bestalde, garraioko materialaren

² EUSTATEk 2009ko otsailaren 4an argitaraturiko datuen arabera.

I.2.14. LAUKIA. IPI-REN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN, ETA ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOA. Urteko batez besteko hazkundera

	EAE guztira	Lurralde historikoak			Ondasunen helburu ekonomikoa					
		Araba	Gipuzk.	Bizkaia	Kontsumo-ondasunak			Kontsumo-ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
					Guzt.	Iraunkorra	Ez-iraunk.			
2001	1,5	0,8	1,7	1,6	1,1	-1,3	2,3	3,8	0,6	0,1
2002	-1	1,6	-2,5	-0,9	2,7	3,5	2,4	-4,4	0,2	-2,9
2003	1,9	2,6	2,2	1,2	-0,6	-4,7	1,4	1,1	0,8	14,1
2004	3,3	6,3	2,2	2,8	-0,8	-3,5	0,5	4,3	1,7	16,1
2005	3,6	3	3,6	3,8	0,5	-0,4	0,9	7,2	1,4	7,1
2006	4,9	2,1	5,7	5,5	1,5	1,2	1,6	8	4,8	3,4
2007	3,9	1,9	5,5	3,5	0,3	-1,3	1,1	7,3	4,5	-1
2008b	-3,4	-4,1	-4,2	-2,4	-6,9	-15,7	-3	-2,2	-5	5

Egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak. b. Behin-behineko datuk Iturria: EUSTAT. IPI.

I.2.15. LAUKIA. IPI JARDUERA SEKTOREEN ARABERA (Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundera)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
4. Metalezkoak diren eta ez diren mineralak	6,3	2,9	6	-11,8	-3,5	11,6	14,2	-14,2
5. Elikadura-industria	4,6	6,6	5,7	-0,6	-0,2	0,3	-0,4	-2,3
6. Ehungintza eta jantzigintza	-7,3	-3,9	-1,3	-3	-10,2	-5,3	2	-5
7. Larruaren eta zapaten industria	0,2	-0,9	-22,6	-14	-14,5	-18,8	-14,6	-11,4
8. Zuraren industria	4,6	4,5	1,1	0,1	-3,7	3,5	3,9	-19,2
9. Papera, edizioa eta grafikoak	0,2	-1,4	-3,5	1,9	5,8	1,2	4	-4,4
10. Petrolioaren fintzea	-3,5	-14,2	22,2	7	-5,9	1,9	-2,1	5,9
11. Industria kimikoa	3,9	6	3	-0,5	0,5	8,3	0,9	-3,4
12. Kautxua eta plastikoa	3	-1,1	6	5,2	0	2,2	3,7	-8,6
13. Metalezkoa ez den industria	-0,1	1,2	-2,1	-10,4	-2,9	4,1	6,5	-7,6
14. Metalurgia eta metalezko gaiak	0,6	-2	1,2	2,1	1,5	7	5,3	-4,9
15. Makineria	2,9	-4,4	0,6	6,2	3,2	5,6	6,3	-5,1
16. Material elektrikoa	4,3	-7,2	-2,1	5,2	10,3	5,2	8,2	1,9
17. Garraioko materiala	3,8	4,7	0	5,2	3,8	7,1	9,1	3,2
18. Beste manufaktura batzuk	-4,2	1,4	-3,6	-6,8	-0,3	0,9	1,4	-12,1
19. Energia elektrikoa, gasa eta ura	1,6	2,2	11,2	20,7	11,1	3,8	-0,4	4,9

b. behin-behinekoak.

Iturria: EUSTAT IPI (2008ko otsailean argitaraturiko datuak).

sektoreak, batez beste, %3,2ko hazkundera izan du, 2007an baino 5,9 puntu gutxiagokoa, baina oraindik ere goranzko produkzio-indizea dauka.

Gainerako sektore guztiek (material elektrikoa eta energia elektrikoa, gasa eta ura izan ezik) hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte, eta aipagarriak dira honako hauek izandako erortzeak: zuraren industria (%-19,2), metalezkoak diren eta ez diren mineralak (%-14,2), larruaren eta zapaten industria (%-11,4), kautxua eta plastikoa (%-8,6) eta metalezkoa ez den industria (%-7,6).

Industria-ondasunei dagokienez, EUSTATen IPRIk %6,6ko urteko batez besteko hazkundera izan zuen 2008an, aurreko urtean %4koa izan ondoren, batez ere honako hauetan izandako hazkundearen ondorioz: petrolio-fintzea (%+22,4); energia elektrikoa, gasa eta ura (%+17,3) eta erauzketa-industriak

(metalezkoak diren eta ez diren mineralak) (%+14,3); baita, baina neurri txikiagoan, elikadura (%+5,6); metalurgia eta metalezko artikulua (%+4,7) eta industria kimikoa (%+4,6).

EAEko funtsezko hiru sektoreetarik bakoitzaren IPRIri dagokionez, berdintasunak egon dira. Horrela, garraioko materialaren IPRIk %4,9tik %2,1erako murriztapena izan du (2,8 puntu gutxiago), eta metalurgiaren eta metalezko gaien IPRIk %7,2tik %4,7rako murriztapena (2,5 puntu gutxiago); makineriaren IPRIk hamarren leko hazkundera izan du (%2,4tik %2,5era).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, energiaren prezioak %20ko hazkundera izan du, kontsumo-ondasunen prezioak %4,5eko hazkundera, bitarteko ondasunen prezioak %4,2koa eta ekipo-ondasunen prezioak %3koa.

INEren behin-behineko datuek diotenez, indize horren hazkundera handiagoa da EAEen Estatuan baino. Abenduko urte bate-

I.2.16. LAUKIA. IPRI KONTUAN HARTUTA ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOA ETA JARDUERA SEKTOREA
(Urteko batez besteko hazkundea)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Indize orokorra	1	0,6	1,2	4,3	5,2	5	4	6,6
<i>Ondasunen helburu ekonomikoa</i>								
Kontsumo-ondasunak	3,8	2,5	1,5	1,9	1,7	2,9	4,1	4,5
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	2,2	1,1	0	0,9	2,2	0,6	1,4	3,1
Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunak	4,7	3,3	2,4	2,4	1,5	3,9	5,3	5
Ekipo-ondasunak	1,7	1,6	1,8	1	1,8	0,9	3,9	3
Bitarteko ondasunak	1,5	0,9	1,2	6,8	5,2	6,3	6	4,2
Energia	-4,8	-4,6	0,1	5,5	17	8,9	-1,4	20
<i>Jarduera-sektoreak</i>								
Erauzketa-industriak (metalezkoak diren eta ez diren mineralak)	5,5	2,6	4,6	9,5	11,5	2,5	2,9	14,3
Manufaktura-industria	1,1	0,9	1,4	4,6	5,3	4,5	4,8	5,6
Elikadura	5,9	3,2	2	3,1	1,1	3,6	5,5	5,6
Ehungintza eta jantzigintza	0,7	2,8	1,9	0,5	2,8	4,5	-0,2	2,7
Larrugintza eta zapatagintza	1,6	0,8	2,5	-4,8	-1	2,9	2,9	1,7
Zuraren industria	2,5	-0,2	-0,2	0,3	0,1	2,2	5,6	2,5
Papera, edizioa eta arte grafikoak	2,7	3,1	1,4	-0,3	0,3	4	1,4	2,1
Petrolio-fintzea	-7	-4,5	1,9	9,6	23,7	7,4	1,5	22,4
Industria kimikoa	1,5	1,8	0,5	2,7	4,4	3,6	5,2	4,6
Kautxua eta plastikoa	4,1	0,4	0,4	1	1,7	3,9	2,8	4,1
Metalezkoa ez den industria	4	2,8	1,8	1,4	2,4	3,7	5,3	2,5
<i>Metalurgia eta metalezko gaiak</i>	0,4	0,8	1,9	10,7	6,9	7,3	7,2	4,7
Makineria	2,7	1,7	2,4	0,1	2,9	2,2	2,4	2,5
Material elektrikoa	1,4	0,6	0,3	0,7	0,5	2,7	2,8	2,5
Garraioko materiala	1	1,1	0,7	0,3	0,5	-2	4,9	2,1
Beste manufaktura batzuk	2,6	2,1	-0,5	2,5	3,7	8,5	8,4	6,2
Energia elektrikoa, gasa eta ura	-0,7	-4,6	-3,2	-2	3,4	10,6	-4,7	17,3

b behin-behinekoak 2000 oinarria.

Iturria: EUSTAT. IPRI.

tik besterako IPRIK %5,7ko hazkundea izan du Estatuan, eta %5,8koa EAEn.

EUSTATEN Industria Inkestaren azken datuek, 2007ari buruzkoek (2005 oinarria; 2005rako, 2006rako eta 2007rako bakarrik erabilgarria), aditzera ematen dutenez, 2006tik 2007ra, industria-sektoreko balio erantsiak %5,96ko hazkunde nominaleko tasa izan du, eta enpleguak %1,8ko hazkunde. Bestalde, inbertsioak %3,1eko murriztapena izan du.

Sektoreka ikusten denez, Metalurgiak eta metalezko gaiak, Makineria eta Garraioko materiala oraindik ere funtsezkoak dira gure ekonomian, produkzioari eta enpleguari dagokienez.

Metalurgia eta metalezko gaiak; hauxe sartzen da barruan: Siderurgia, Burdinarena ez den metalurgia, Galdaketak, Metalezko eraikuntza, Forjaketa eta estanzak, Ingeniaritza mekanikoa eta metalezko gaiak. Hain zuzen ere, industriako BEGen %32,8, enpleguaren %35,8, inbertsioaren %31,3 eta salmenta garbien %31,6.

Makineria; hauxe sartzen da barruan: Makina-erreminta, Etxeko tresnak eta Beste makineria bat; hain zuzen ere, industriako BEGen %11,3, enpleguaren %13, inbertsioaren %8 eta salmenta garbien %10,5.

Garraioko materiala: Automobilak eta horien piezak, Itsas eraikuntza eta Garraioko beste material batzuk; hain zuzen

ere, industriako BEGen %8,3, enpleguaren %7,9, inbertsioaren %6,2 eta salmenta garbien %9.

Eduki teknologikoari dagokionez, eta ELGak egindako sailkapenaren arabera, teknologia maila altuaren barruan, aireontziak eta espazio-ontziak, farmaziako produktuak, bulegoko makineria eta ekipamendu informatikoa, material elektronikoa eta medikuntzako, kirurgiako eta doitasuneko hornidurak eta tresnak sartzen dira. Maila baxuan manufaktura eta birziklapena, zura, papera eta paperaren produktuak, elikadurako produktuak, edariak eta tabakoak, ehungintzako eta jantzigintzako produktu, larrugintzakoak eta zapatagintzakoak ditugu. Ertain-altuan honako hauek sartzen dira: makineria eta ekipamendu elektrikoa, motorreko ibilgailuak, produktu kimikoa (farmaziakoak izan ezik), garraioko beste material batzuk eta makineria eta ekipo mekanikoak. Ertain-baxuan ontziak, kautxuaren produktuak eta plastikozko materialak, petrolio-fintzeko produktuak, burdinazkoak diren eta ez diren materialak, metalezko produktuak eta metalezkoak ez diren produktu mineralak.

EUSTATEN datuen arabera, 2007 eta 2000 konparatuta, atzerakada erlatiboa egon da eduki teknologikoko sektore altuan eta ertain-altuan, batez ere enpleguari dagokionez; izan ere, balioa sortzearen aldetik ez dago argi, "sailkatu gabeko"

I.2.17. LAUKIA. INDUSTRIA SEKTOREAREN MAGNITUDEAK SEKTOREKA. 2005 oinarria

	Banaketaren % (Industria = 100)					Inberts./ enpl.	Emitza/ enpleg.	BEG	Enpleg.	Inberts.	Zergen osteko emaitzak
	BEG	Enpleg.	Inberts.	Salmenta garbiak	Zergen osteko emaitzak						
	2007	2007	2007	2007	2007	2007	2007	ald. % 06-07	ald. % 06-07	ald. % 06-07	% ald. 06-07
INDUSTRIA GUZT. (milatan)	17.615.267	255.294	2.598.755	62.025.278	4.471.006	10,2	17,5	5,96	1,77	-3,06	16,34
	100	100	100	100	100	—	—	—	—	—	—
4. Met. diren eta ez diren mineralak	0,78	0,31	0,50	0,49	1,68	16,52	94,85	10,44	0,89	-51,80	24,34
5. Elikadura- industria	5,55	6,43	7,06	6,33	5,79	11,18	15,77	3,40	-0,69	-27,29	23,17
6. Ehung. eta jantzig.	0,69	1,36	0,38	0,53	0,88	2,86	11,25	8,38	-2,36	4,89	11,48
7. Larrugintza eta zapatagintza	0,06	0,10	0,00	0,06	0,04	0,24	6,87	39,30	-1,87	14,29	1.036,27
8. Zuraren industria	1,71	2,72	2,35	1,45	0,98	8,80	6,33	4,93	0,17	-25,27	-9,89
9. Papel, edizioa eta grafikoak	4,77	5,59	5,93	3,76	4,07	10,81	12,77	4,59	-1,19	11,98	19,73
10. Petrolio- fintzea	2,00	0,41	4,56	9,02	6,64	112,65	281,95	-6,45	5,30	101,29	17,52
11. Industria kimikoa	2,94	2,42	3,77	3,66	3,13	15,86	22,71	-13,25	-1,12	21,53	-17,40
12. Kautxua eta plastikoa	6,04	7,06	4,30	5,85	2,68	6,20	6,65	-1,56	-3,78	-21,21	-27,68
13. Metalezkoa ez den industria	3,88	3,11	2,98	2,91	7,92	9,77	44,61	7,55	1,65	-12,73	46,33
14. Metalurgia eta metalezko gaiak	32,80	35,81	31,28	31,62	28,86	8,89	14,12	13,09	5,20	8,29	52,67
15. Makineria	11,27	12,97	7,96	10,45	8,24	6,25	11,13	3,31	-0,09	-14,77	3,41
16. Material elektrik.	6,18	7,73	4,65	5,12	6,17	6,13	13,99	5,77	2,78	35,66	18,24
17. Garraioko materiala	8,31	7,88	6,20	8,99	6,32	8,01	14,04	9,31	-0,15	-7,01	40,85
18. Beste manufaktura batzuk	2,81	4,54	2,20	2,49	1,62	4,93	6,23	0,65	3,80	-38,87	-7,02
19. Energia elek., gasa, ura	10,20	1,56	15,84	7,27	14,97	103,55	168,36	2,02	-0,77	-8,98	-15,63

Iturria: EUSTAT. Industria Inkesta.

jardueretan hazkundera egon da. Era berean, aipatzekoa da produktibitateak eduki ertain-altuko sektoreetan izandako murriztapena, baita ertain-baxukoetan izan duen hazkundera ere. Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da zenbait autore sailkapen sektorialean nabardurak egiten hasi direla, ELGAK erabilitako intentsitate teknologikoaren eraginez; izan ere, produkzio-jarduerak bilakatu egiten dira, eta ez dira beti teknologia jakinen eraginpean edo bahituta gelditzen. Zientziak eta teknologiak produkzio-egitura osoan eta industria tradizionaleko sektoreetan hedatzen dira; adibidez, ibilgailua eta makinak

elektronikaren sektorean patentatzen dira, gero eta gehiago; eta, oro har, teknologia baxukotzat sailkatutako sektoreak horien erabiltzaile nagusiak dira; horrela, zientzian oinarritutako sektore bihurtzen dira.


2.1.4. Eraikuntza

2009ko otsailean argitaraturiko Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako behin-behineko datuen arabera, eraikuntzak BEGen %9 dauka, EAEko 2008ko prezio-korronteetan (5.594.426 milioi euro), 2007an baino hamarren bat gutxiago,

I.2.18. LAUKIA. EAE-KO INDUSTRIAREN EDUKI TEKNOLOGIKOA, ELGA-KO SEKTOREEN ARABERA

	2000	2005	2006	2007	1995-2005	2000-07	Garran. 2000n	Garran. 2007	2006-07
ENPLEGUA									
Guztira	236.055	249.696	250.862	255.294	2.6	1,1			1,8
Tek. maila altua eta ertain altua	73.159	76.051	76.553	77.125	2.8	0,8	31,0	30,2	0,7
Teknologia maila altua	11.673	11.054	11.019	11.466	3,8	-0,3	4,9	4,5	4,1
Teknologia maila ertain altua	61.486	64.997	65.534	65.659	2,6	0,9	26,0	25,7	0,2
Tek. maila ertain baxua eta baxua	158.335	168.738	169.519	173.403	2,6	1,3	67,1	67,9	2,3
Teknologia maila ertain baxua	107.859	115.917	116.617	120.440	2,6	1,6	45,7	47,2	3,3
Teknologia maila baxua	50.476	52.821	52.902	52.963	2,5	0,7	21,4	20,7	0,1
Sailkatu barik	4.561	4.907	4.790	4.766	-0,3	0,6	1,9	1,9	-0,5
BEG									
Guztira	12.303.989	15.701.676	16.624.164	17.615.267	6,4	5,3			6,0
Tek. maila altua eta ertain altua	3.834.709	4.527.442	4.813.903	4.937.126	6,5	3,7	31,2	28,0	2,6
Teknologia maila altua	533.487	578.859	601.322	659.292	7,1	3,1	4,3	3,7	9,6
Teknologia maila ertain altua	3.301.222	3.948.583	4.212.581	4.277.834	6,5	3,8	26,8	24,3	1,5
Tek. maila ertain baxua eta baxua	7.621.408	9.533.268	9.924.530	10.743.783	6,2	5,0	61,9	61,0	8,3
Teknologia maila ertain baxua	5.577.992	6.998.945	7.277.026	7.997.634	6,4	5,3	45,3	45,4	9,9
Teknologia maila baxua	2.043.416	2.534.323	2.647.504	2.746.149	5,7	4,3	16,6	15,6	3,7
Sailkatu barik	847.872	1.640.966	1.885.731	1.934.358	7,8	12,5	6,9	11,0	2,6
SALMENTAK									
Guztira	40.478.983	52.957.698	57.760.863	62.025.278	7,5	6,3			7,4
Tek. maila altua eta ertain altua	12.756.489	15.043.961	16.188.676	17.092.221	7,9	4,3	31,5	27,6	5,6
Teknologia maila altua	1.599.483	1.563.388	1.669.208	1.817.351	9,3	1,8	4,0	2,9	8,9
Teknologia maila ertain altua	11.157.006	13.480.573	14.519.468	15.274.870	7,8	4,6	27,6	24,6	5,2
Tek. maila ertain baxua eta baxua	25.677.584	33.675.267	36.748.314	40.117.062	7,1	6,6	63,4	64,7	9,2
Teknologia maila ertain baxua	18.959.068	25.459.860	28.168.529	31.050.393	7,4	7,3	46,8	50,1	10,2
Teknologia maila baxua	6.718.516	8.215.407	8.579.785	9.066.669	6,0	4,4	16,6	14,6	5,7
Sailkatu barik	2.044.910	4.238.470	4.823.873	4.815.995	10,1	13,0	5,1	7,8	-0,2
PRODUKTIBITEA									
Guztira	20,2	8,3	5,4	4,1					
Tek. maila altua eta ertain altua	26,2	4,5	5,6	1,8					
Teknologia maila altua	19,8	0,9	4,2	5,4					
Teknologia maila ertain altua	27,7	5,0	5,8	1,4					
Tek. maila ertain baxua eta baxua	20,7	7,9	3,6	5,8					
Teknologia maila ertain baxua	23,2	9,0	3,3	6,4					
Teknologia maila baxua	14,5	5,1	4,3	3,6					
Sailkatu barik	21,0	19,5	17,7	3,1					

Iturria: EUSTAT. Industria Estatistika.

I.2.8. Grafikoa. Eraikuntzako adierazle nagusien bilakaera

Iturria: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. 2008ko behin-behineko datuak.

eta enplegu osoaren %9,1 (93.367 lanpostu); aurreko urtean 97.351 lanpostu eta enplegu osoaren %9,6 izan zituen.

2008, BEGen arabera, industriak eta zerbitzuek oraindik ere tasa positiboak dituztenean. Horrela, industriak eta zerbitzuek, hurrenez hurren, %0,2ko eta %3,3ko hazkunde erreala dutenean, eraikuntzak %0,1eko murriztapena izan du (prezio korranteetan, berriz, 5.371,7 milioi eurotik 5.594,4 milioi eurora igaro da, hau da, %4,1eko hazkundea egon da).

Hiruhileko bilakaeraren profila beheranzkoa da; hain zuzen ere, lehenengo hiruhilekoan urteko %2,3ko hazkundea egon da, eta laugarrenean %-2,9ko murriztapena.

EAEko eraikuntzaren BEGen gutxitze hau Estatukoa baino txikiagoa da, bertan %3,3koa izan baita; Estatuan, gainera, jarduera ere erori egin da, eta laugarren hiruhilekoan %8ko urteko aldaketa tasa negatiboa egon da.

Eurostaten datuen arabera, eraikuntzako sektoreak izandako produkzioaren urte batetik besterako aldaketa, 2007ko abenduan, %-10,1ekoa izan da EB-27an, %-6,7 euroaren zonan (15) eta %-23,7 Estatuan.

2008ko lehenengo hiru hiruhilekotan, BPGren deflatoreak gorakadaxoa izan du (2007ko azken hiruhilekoan izandako %3,8tik 2008ko lehenengo hiruhilekoko %4,2ra eta bigarren eta hirugarren hiruhilekotako %4,8ra); hala ere, ondorengo joera murriztapenerakoa da, eta azken hiruhilekoan deflatorea %3,6an hazi da. Urteko batez bestekoak %4,3ko hazkundea izan du, aurreko urtekoak baino 4 hamarren handiagoa. Etxebizitza berriaren eta librearen metro koadroaren prezioaren batez besteko aldaketaren tasa 14,2 puntutan murriztu da 2007tik 2008ra, eta %12,8tik %-1,4ra igaro da.

I.2.19. LAUKIA. Datu-iturri horren arabera, eraikuntza sektorea murriztu egin da, ERAIKUNTZA SEKTOREAREN BILAKAERAREN eraginez (urteko aldaketaren tasak)

		BEG Bolumen-indizea (zuzenduta)	Landunak (zuzendut.)	Produktibitatea	Deflatorea
2005	1. hir.	4,3	3,4	0,8	4,6
	2. hir.	4,6	3,8	0,8	4,7
	3. hir.	4,7	3,7	0,9	4,4
	4. hir.	5,2	3,9	1,3	4,2
2006	1. hir.	3,9	4,8	-0,8	3,3
	2. hir.	4,4	3,6	0,8	3,5
	3. hir.	4,2	3,1	1,1	4,6
	4. hir.	4,1	2,0	2,0	4,8
2007	1. hir.	5,3	2,0	3,2	4,3
	2. hir.	5,0	1,4	3,5	4,1
	3. hir.	4,9	0,7	4,2	3,6
	4. hir.	3,3	0,3	3,0	3,8
2008	1. hir.	2,3	-0,2	2,4	4,2
	2. hir.	1,1	-1,4	2,5	4,8
	3. hir.	-1,0	-6,0	5,3	4,8
	4. hir.	-2,9	-8,8	6,5	3,6

Zuzendutako datuak. Urte batetik besterako aldaketaren tasak.

Iturria: EUSTAT.

I.2.20. LAUKIA. ERAIKUNTZA-SEKTOREAREN BILAKAERA

	Eraikuntzaren koiuntura-indizea Urte batetik besterako aldaketaren tasak				Hiruhileko kontu ekonomikoak (Zuzendutako datuak) Urte batetik besterako aldaketaren tasak			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua	BPG korront.	BPG bolumen kateatua	BPGren deflator.	Lanpost.
	Zuzendutako datuak							
2003	—	—	—	—	16,9	4,9	11,4	6,2
2004	7,3	7,8	6,4	1,4	10	4,4	5,3	4,9
2005	8	9	5,7	0,7	9,4	4,7	4,5	3,7
2006	7,9	8,4	6,9	1,3	8,4	4,2	4,1	3,4
2007 b	—	—	—	—	8,7	4,6	3,9	1,1
2008 b	—	—	—	—	4,1	-0,1	4,3	-4,1


b behin-behineko datuak.

Iturria: EUSTAT.

I.2.21. LAUKIA. ERAKUNDEEN LIZITAZIO OFIZIALA EAE-N

	EAE						Estatua	% EAE / Estatua	
	2000	2005	2006	2007	2008	Ald. 07-08	Ald. 06-07	2006	2007
Eraikuntza	321	412	623	862	911	5,7	-6,6	6,9	7,8
Obra Zibila	815	1.409	2.637	2.088	1.451	-30,5	1,0	7,5	5,2
Ad. Nagusia	123	159	623	584	205	-64,9	6,3	3,6	1,2
Ad. Autonomik.	231	325	303	570	767	34,6	-0,7	4,3	5,9
Toki Administ.	782	1.338	2.334	1.795	1.390	-22,6	-13,4	16,4	14,7
Lizitazio guztia	1.136	1.821	3.260	2.950	2.362	-19,9	-1,3	7,3	5,9

Iturria: SEOPAN.

I.2.9. Grafikoa. EAEko lizitazio publikoa, administrazioaren eta obra motaren arabera

Iturria: Seopan.

Enpleguari dagokionez, Hiruhileko Kontu Ekonomikoek agerian jarri dute enplegua erortzen ari dela. 2008ko lehenengo hiruhilekoko %0,2ko aldaketa-tasa negatibotik laugarren hiruhilekoan izandako %-8,8ko tasara; urteko batez besteko aldaketa %-4,1ekoa izan da, aurreko urtekoa baino 5,2 puntu baxuagoa. Horrela, 2008an enplegua 93.367 lanpostukoa izan zen (aurreko urtean baino 3.984 gutxiago).

Eraikuntzaren Koiuntura Indizeari dagokionez, Memoria Sozioekonomiko hau ixteko egunean, argitaraturiko azken datuak 2007ko lehenengo bi hiruhilekoei buruzkoak dira. SEOPANen datuen arabera, EAEko lizitazio ofizialak %19,9ko murriztapena izan du 2008an (Estatuan %-1,3), obra zibileko lizitazioak izandako %30,5eko murriztapenaren ondorioz; izan ere, azken aldian, eraikuntzan beste hazkunde bat egon da (%5,7). Halaber, EAEn egindako lizitazio publikoaren proportzioak behera egin du, Estatukoari dagokionez, eta %7,3tik %5,9ra igaro da. Lehen esan dugunez, Estatuan lizitazioak behera egin du; baina, EAEn ez bezala, beherakada eraikuntzan izan da (%-6,6), eta ez herrilaretan (%+1).

Erakundearen arabera, EAEko lizitazioaren zatirik handiena Toki Administrazioak egindakoa izan arren (%58,8), hazi egin den bakarra EAEko Administrazioa izan da (%+34,6).

2.1.5. Zerbitzuak

2008an zerbitzu-sektorea, EUSTATEN Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera, BEGen %61,3koa izan da (38.179.992 milioi uro), eta EAEko enpleguaren %63,4koa (650.364 enpleguko batez bestekoa urtean); bertan, merkatuko zerbitzuak sektore horren %83koak izan dira, balio erantsi gordinari dagokionez.

Balio erantsi errealak, edo kateaturiko bolumenekoak, EAEko zerbitzu-sektorean, %3,3ko hazkundea izan du 2008an, aurreko urtean baino 9 hamarren gutxiago. Merkatuko zerbitzuek %2,5eko hazkundea izan dute (aurreko urtean baino 2 puntu gutxiago), eta merkatukoak ez direnak, berriz, %7,3ko hazkundea izan dute (aurreko urtean %2,6ko hazkundea). Sektorean enpleguak %2,4ko hazkundea izan du, aurreko urtean %3,2ko hazkundea izan ondoren. Bestalde, zerbitzu sektorean prezioek

I.2.22. LAUKIA. ZERBITZU SEKTOREAREN BILAKAERA (aldaketaren tasak)

		Zerbitzuen BEG. Bolumenaren indizea			Langil.	Deflat.
		Guzt.	Merk. zerbitz.	Merk. ez diren zerb.		
2005	1. hir.	3,2	3,2	3,2	3,2	3,2
	2. hir.	3,4	3,4	3,3	3,6	3,4
	3. hir.	3,6	3,6	3,3	3,5	3,6
	4. hir.	3,8	3,8	3,6	3,7	3,8
2006	1. hir.	4,3	4,5	3,4	3,3	4,3
	2. hir.	4,5	4,8	3,2	2,8	4,5
	3. hir.	4,6	4,9	3,3	3,0	4,6
	4. hir.	4,6	4,8	3,4	3,2	4,6
2007	1. hir.	4,2	4,7	1,4	3,2	4,2
	2. hir.	4,0	4,5	1,5	3,4	4,0
	3. hir.	4,1	4,5	1,9	3,0	4,1
	4. hir.	4,6	4,4	5,5	3,2	4,6
2008	1. hir.	3,9	3,3	7,0	3,0	3,9
	2. hir.	3,4	2,6	7,4	2,8	3,4
	3. hir.	3,2	2,3	7,7	2,2	3,2
	4. hir.	2,5	1,6	7,1	1,6	2,5

Zuzendutako datuak. Urte batetik besterako aldaketaren tasak.
Iturria: EUSTAT.

beherako joera izan dute urte honetan, lehenengo hiru hilekoko %3,9ko aldaketa-tasatik laugarren hiru hilekoko %2,5eko tasara; joera hori aurreko urtekoaren aurkakoa da.

BEGk EAEko zerbitzu-sektorean izandako hazkundea Estatukoak baino apur bat handiagoa da; bertan, INEren behin-behineko datuen arabera, %3,1eko hazkundea izan da, eta urtean zehar beheranzko bilakaera ikusten da, lehenengo hiru hilekoan %1,5eko hazkundea eta laugarrenean %8ko murriztapena egon baita.

Zerbitzu-sektorearen barruan, aipagarria da Enpresetarako zerbitzuak eta Merkataritza eta Konponketa adarren

garrantzi handiagoa. Horrela, lehenengoa BEG osoaren %16,2koa (2007ko datua) eta enpleguaren %12,3koa (2006ko datua) da; eta bigarrena %11koa eta %14,2koa, hurrenez hurren.

2002tik 2007ra bitartean, enpresetarako zerbitzu-sektoreko BEGek urteko batez besteko %5,1eko hazkunde erreala izan du, eta prezioek urteko batez besteko %3ko hazkundea izan dute. Enpleguak, bestalde, 2003tik 2006ra urteko %5,2ko hazkundea izan du. Merkataritza eta Konponketa sektoreko BEGek, berriz, urteko batez besteko %3,6ko hazkunde erreala izan dute, eta prezioak urteko %3ko batez besteko tasara

I.2.23. LAUKIA. EAE-KO ZERBITZU SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA

	EGITURA										urteko aldaketaren %		
	BEG korrontea					Enplegua					BEG*	Prezioak	Enplegua
	1990	2000	2005	2006	2007	2000	2003	2004	2005	2006			
21. Merkataritza eta konponketa	13,9	10,8	11,0	11,0	11,0	14,1	15,4	14,0	14,3	14,2	3,6	3,0	3,0
22. Ostalaritza	3,6	3,7	3,7	3,7	3,7	3,8	4,9	5,3	5,1	5,2	1,8	4,5	1,9
23. Garraioa eta komunikazioak	6,6	7,3	7,0	7,0	7,0	4,9	5,5	5,6	5,1	5,2	4,5	1,7	0,8
24. Banka eta aseguruak	4,2	6,4	6,0	6,3	6,3	2,8	2,4	2,4	2,1	2,1	2,6	5,0	1,1
25. Enpresetarako zerbitzuak	11,7	15,4	16,2	16,2	16,2	3,8	5,0	10,6	12,0	12,3	5,1	3,0	5,2
26. Herri Administrazioa	5,2	4,8	4,7	4,5	4,5	2,5	6,5	5,8	5,5	5,4	2,0	3,4	0,9
27. Hezkuntza	3,8	4,1	4,0	3,9	3,9	4,5	6,8	6,4	6,1	6,1	3,0	3,2	1,4
28. Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5,2	4,9	4,8	4,8	4,8	3,1	3,9	5,0	4,7	4,8	3,6	2,8	1,7
29. Zerbitzu pertsonalak	2,4	2,5	2,5	2,4	2,4	2,0	4,9	3,8	4,2	4,2	3,4	2,9	5,5
30. Etxeko zerbitzua	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	2,7	2,5	2,5	2,8	2,9	4,1	2,3	5,6
Zerbitzuak guztira	57,2	60,3	60,3	56,1	60,2	44,1	57,9	61,4	61,9	62,4	3,7	3,2	2,9
EAE GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	3,7	3,3	2,0

* BEG erreala (bolumen kateatua).
Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.

igo dira. Enplegua, 2003-2006 bitartean, urteko batez besteko %3ko tasara hazi da.

Bigarren taldean Garraioa eta komunikazioak azpisektorea sartzen da, eta hori BEGeko %7ra heldu da, eta 2002tik 2007ra urteko %4,5eko batez besteko hazkundea izan du; Banka eta aseguruak azpisektorea BEG osoaren %6,3ra heldu da, eta urteko batez besteko aldaketa-tasa, 2002tik 2007ra, %2,6koa izan da.

Zerbitzu sektorean prezioek 2002 eta 2007 bitartean izandako hazkundea %3,2koa izan da, eta indize orokorra, berriz, %3,3koa da.

Merkataritza

Merkataritza eta konponketa sektorea, EUSTATen Kontu Ekonomikoetako azken datu erabilgarrien arabera, EAEko balio erantsiaren %11ra heldu da (6.391.375 milioi euro, 2007ko datua), eta enpleguaren %14ra (139.830 lanpostu, 2006ko datua). 2008an salmentek behera egin dute. Beherakada hori kontsumoa moteltzearen eraginezkoa izan da (kontsumo pribatua %3,4ko tasatik %1,1eko tasara), baita prezioek gora egitearen eraginezkoa ere.

Horrela, **Barne Merkataritzako salmenten Indizeak**, prezio iraunkorretan, %3,9ko murriztapena izan du 2008an, aurreko urtean %3,4ko hazkundea izan ondoren; beraz, bi aldien artean 7,3 puntuko murriztapena egon da. Prezioei dagokienez, 2007an %3,7ko gorakada izan zuten, eta 2008an %4koa.

Merkataritzako Indizeko okupazioaren datuek agerian jarri dutenez, sektorean enpleguak %0,2ko hazkundea izan du, aurreko urteko %2,7koa baino txikiagoa. Bi merkataritza motek, handizkakoak eta txikizkakoak, hazkundeak izan dituzte enplegu-indizean, baina aurreko urtekoak baino txikiagoak.

Merkataritzako salmenta errealean bilakaeran desberdintasunak ikusi dira, horren dimentsio desberdinetan³. Salmenten beherakada handizkako merkataritzan txikizkakoan baino handiagoa da. Horrela, handizkako merkataritzako salmentek, 2007an %4,6ko hazkunde erreala izan ondoren (prezio iraunkorretan), 2008an %5eko murriztapena izan zuten, eta horrek 9,6ko beherakada adierazten du. Bestalde, txikizkako merkataritzako salmentek, 2007an %1,4ko gorakada izan ondoren, %2,3ko beherakada izan dute, eta, hortaz, 3,7 puntuko beherakada egon da.

txikizkako merkataritza espezializatua eta ez-espezializatua bereizita ikusten denez, lehenengoak bigarrenak baino bilakaera txarragoa izan du. Merkataritza espezializatuan salmentek %2,1eko beherakada izan dute, aurreko urtean %1,8ko gorakada izan ondoren, eta, beraz, beherakada 3,9 puntukoa izan da. Bestalde, merkataritza ez-espezializatuan salmentek %2,8ko beherakada izan dute, aurreko urtean %0,5eko gorakada izan ondoren, eta, horrenbestez, 3,3 puntuko beherakada egon da.

txikizkako merkataritza espezializatuan, aipatzekoa da beste kontsumo-ondasun batzuetan egon den beherakada (2007tik 2008ra 6,7 puntu, %3,1etik %3,6rako beherakada), baita etxerako ekipamenduetan egon dena ere (%+0,3tik %5,5era, eta, beraz, 5,8 puntuko beherakada). Bestalde, pertsonaren ekipamenduak hazkunde-tasa positiboa mantendu du, 2007koa baino txikiagoa, baina positiboa (%3,1 eta %4,7, hurrenez hurren).

Elikadurako salmentek, bestalde, beherantz jarraitu dute, eta %2,4ko aldaketa-tasa negatiboa mantendu da.

Handizkako merkataritzan, bilakaera negatiboa izan da maki-neriaren kasuan, eta ekipamendua, berriz, 2007ko %13,5eko hazkunde-tasa positibotik 2008ko %4,1eko tasa negatibora

1.2.24. LAUKIA. BARNE MERKATARITZAKO SALMENTA INDIZEAREN BILAKAERA ETA MERKATARITZAN DABILTZAN LANGILEAK*

	SALMENTA INDIZEA					LANDUNEN INDIZEA		
	Indize orokorra	Handizk.	Txikizk.	Prez.	Kontsumo pribatua	Guzt.	Handizk.	Txikizk.
2003	2	1,6	2,8	2,4	3,7	1,8	1,3	2,2
2004	2,7	1,6	4,1	5,1	4,6	1,6	1,1	1,9
2005	0,1	-0,2	1,4	3,9	4,1	2,2	2,2	2,1
2006	5,9	8,1	2,1	3,3	3,7	1,9	1,9	2
2007	3,4	4,6	1,4	3,7	3,4	2,7	2,5	2,8
2008 b	-3,9	-5	-2,3	4,0	1,1	0,2	0,4	0,1

(*) Aldaketa-tasak prezio korranteetan (hau da, tasa errealeak). b. behin behineko datuak
Iturria: EUSTAT "Barne Merkataritzaren Indizea" eta "Kontu Ekonomikoak".

³ Neurriaren arabera, establezimendu mota desberdinak daude:

- 120 eta 400 m²-ko azalera duten establezimendu txikiak.

- Supermerkatu ertainak eta handiak, 400 eta 2.500 m² bitarteko salmenta-azalera dutenak (EAEn 262 inguru, 757 m²-ko batez besteko azalera-ekin eta 198.349 m²-ko azalera osoarekin).

- 2.500 m²-tik gorako salmenta-azalera duten hipermerkatuak (EAEn 32 establezimendu, hiriguneetan daudenak barne, Araban 4, Gipuzkoan 12 eta Bizkaian 14).

I.2.25. LAUKIA. HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMENTA INDIZEAREN BILAKAERA, SEKTOREEN ARABERA*

	Handizkako merkataritza				Txikizkako merkataritza							
	Nekaz. prod. eta elikadura	Elikad. ez diren kontsumoko beste gai batzuk	Prod. erdi landuak; txatarra	Mak. eta ekip.	Espez.	Elik.	Pertson. ekipam.	Etxeko ekipam.	B. konts. ondas. batzuk	Ez-espez.	Elikaduraren nagusitasuna	Gainerako produk. nagusit.
2003	1,1	9,4	-0,8	-0,8	3,1	-3,2	6	1,9	2,7	2,3	2,3	2,4
2004	3,3	4,3	-0,9	5,9	5,5	-1,8	9,5	1,8	6,1	1,5	2,1	-1,5
2005	0	-3,6	-1	5,4	2	-2,5	3,8	-2,5	5,4	0,3	0,5	-0,6
2006	2,9	3,9	13,2	7,2	3	1,6	5,4	3,7	1,5	-0,1	0,1	-1,3
2007	2,3	6,9	1,5	13,5	1,8	-3,4	4,7	0,3	3,1	0,5	0,4	1
2008 b	-1	-2,7	-7,9	-4,1	-2,1	-3,4	3,1	-5,5	-3,6	-2,8	-2,4	-5,7

(*) Indizearen aldaketa-tasa prezio iraunkorretan. b Behin-behineko datuak.
Iturria: EUSTAT "Barruko Merkataritza Indizea".

I.2.26. LAUKIA. JARDUERA AZALERA HANDIETAN

	Salmenta-indizearen aldaketa erreala, AHMI (egutegi-efektuak zuzenduta)			Landunen aldaketa (urtaro banaketa barik)
	Orokorrean	Elikadura	Gainerako produktuak	
1998	8	4,1	13,8	8,9
1999	4,8	4,3	5,6	2,6
2000	3,2	2,1	4,6	3,6
2001	2,2	1,4	2,9	4,8
2002	2	2,8	1,1	5,3
2003	3,6	1,2	6,3	1,6
2004	3,5	0,2	8,3	5,1
2005	8,8	-0,6	14,5	11,6
2006	1,7	0,8	2,2	2,4
2007	-0,2	-1	0,3	0,8
2008	-4,9	-1,6	-6,5	-2,3

Iturria: EUSTAT.

igaro da; hortaz, 17,6 puntuko beherakada egon da. Halaber, produktu erdi landuen salmentak beheranzko joera mantendu du.

Bestalde, **Azalera Handiko Merkataritza Indizeak⁴ (AHMI)**, egutegi-efektua zuzendu ondoren, %4,9ko beherakada erregistratu du salmentetan, elikadura-produktuen salmentek izan dako murriztapenaren ondorioz (%-1,6), baina batez ere gainerako produktuen murriztapenaren ondorioz (%-6,5). Lurralde historikoen arabera, hiruretan ere aldaketa negatiboak egon dira: Araban %-8, Bizkaian %-4,8 eta Gipuzkoan %-3,2. Enpleguak behera egin du azalera handietan, eta, hamarkada osoan lehenengoz, %2,3ko beherakada izan du.

Turismoa eta Ostalaritza

EUSTATEk turismo-establezimendu hartzaileei buruz egindako Inkestak hoteletan (hotelak, apartahotelak, landa-hotelak eta pentsioak) eta nekazaritza-turismoetan (nekazaritza-turismoak eta landetxeak) ostatua hartu duten bidaiariei buruzko datuak jaso dira; datu horien arabera, EAEko hotel-establezimenduetan egon den bidaiari kopuruak behera egin du 2007tik 2008ra, eta, horrela, apurto egin da aurreko urteetako goranzko joera. Horrela, EAEko hotel-establezimenduetan ostatu hartu duen bidaiari kopurua (EAEkoak aintzat hartu barik) 1.668 milioia izan zen 2007an, aurreko urtean baino %4,7 txikiagoa. Beherakada hori, izan ere, atzerriko turismoak izandako

⁴ Salmentek eta okupazioak azalera handiko merkataritza-sektorean (2.500 metro koadroko edo hortik gorako salmenta-azalera duten merkataritza-establezimenduak: hipermerkatuak, supermerkatuak, biltegi handiak eta txikizkako merkataritzako beste establezimendu ez-espezializatu batzuk, adibidez, kontsumoko kooperatibak) izandako bilakaeraren koiuntura-adierazlea.

I.2.27. LAUKIA. BIDAIRIARI KOPURUAK, IGAROTAKO GAU KOPURUAK ETA BATEZ BESTEKO EGONALDIK (EGUNETAN) IZANDAKO BILAKAERA

	2004			2006			2007			2008		
	Bidaariak	Igarotako gauak	B. besteko egonald.	B	G	BBE	B	G	BBE	B	G	BBE
Guztira EAE barik	1467102	2.801.668	1,91	1.683.154	3.307.097	1,96	1.749.658	3.379.723	1,93	1.667.584	3.212.842	1,93
Estatua EAE barik	966.039	1.852.163	1,92	1.118.647	2.204.831	1,97	1.086.724	2.106.827	1,94	1.021.097	1.969.049	1,93
Atzerrit.	501.063	949.505	1,89	564.507	1.102.266	1,95	662.934	1.272.896	1,92	646.487	1.243.793	1,92
EAEkoak	283.332	487.990	1,72	324.394	551.343	1,70	343.688	577.144	1,68	352.862	576.721	1,63

Iturria: EUSTAT, Turismo-establezimendu hartzaileen inkesta.

I.2.28. LAUKIA. IGAROTAKO GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO MAILA

	Okupaturiko plazak guztira (igarotako gauak)	B. b. egonaldia egunetan (Estatua)	B. b. egonaldia egunetan (atzerrian)	B. b. egonaldia egunetan (orokorrean)	Plaza bakoitzeko okupazio maila	Gela bakoitzeko okupazio maila
2003	2.963.193	1,86	1,9	1,87	44,18	53,31
2004	3.289.658	1,87	1,89	1,88	46,86	56,13
2005	3.459.802	1,88	1,94	1,9	47,63	57,29
2006	3.858.440	1,91	1,95	1,92	48,34	57,55
2007	3.956.867	1,88	1,92	1,89	46,94	57,3
2008	3.789.563	1,93	1,92	1,88	44,16	54,28

Iturria: EUSTAT.

%-2,5eko gutxitzearen eta Estatukoak izandako %-6ko gutxitzearen eraginezkoa da.

Igarotako gau kopuruak (EAEko turisten kasuan izan ezik) %4,9ko beherakada izan du, eta, beraz, batez besteko egonaldia, 1,93 egunekoa izan da; Estatuko bisitarien kasuan ere 1,93koa izan da, eta Estatutik kanpokoen kasuan 1,92koa.

EAEko bidaiariak eta igarotako gauak aintzat hartuta, batez besteko egonaldia 1,88 egunekoa da, eta okupazio maila berriro ere murriztu egin da, %46,94tik %44,16ra, urteko batez besteko plaza bakoitzeko, eta %57,3tik %54,28ra gela bakoitzeko.

INEren Hotel Okupazioaren Inkestako datuek⁵ ondoko erkidegoekiko edo antzeko erkidegoekiko konparazioa ahalbidetzen dute (Asturias, Kantabria, Nafarroa, Galizia eta Errioxa); datuok agerian jarri dutenez, EAEn sarturiko bidaiari kopurua 2.112 mila pertsonakoa izan da, eta ondoko erkidegoetako batez besteko aritmetikoa (Galizia barne sartuta) 1.474koa izan da (Galizia sartu ezean, 962koa). Kopuru hori aurreko urtekoa baino %1,6

txikiagoa izan da, eta ondoko erkidegoetan gutxitzea %5,24koa izan da (Galizia barne sartuta, eta, bestela, %4,8koa).

Bestalde, EAEn igarotako gau kopurua ondoko erkidegoetako batez besteko aritmetikotik gorakoa da, baina aurreko urtekoa baino txikiagoa da (%-2,43); hala ere, gutxitze horrek EAEn ondoko erkidegoetan baino tasa txikiagoa dauka: %-4,59 Galizia barne sartuta eta %-6,6 barne sartu barik. Batez besteko egonaldia murriztu egin da, eta 1,85 egunetik 1,83 egunera igaro da. EAEko batez besteko egonaldia, urte honetan ere, erkidego mugakide guztietan izandakoa baino txikiagoa da, Errioxaren kasuan izan ezik.

Eurostaten datuen arabera, 2008an EB-27an antzeko hoteletan eta establezimenduetan igarotako gauak 1.578 milioi izan ziren, eta horrek %0,5eko beherakada adierazten du aurreko urteari dagokionez, 2007an %3,4 eta 2006an %+2,9 izan ondoren. 2008an, egoiliarrek igarotako gau kopurua egonkor mantendu zen, eta ez-egoiliarrek igarotakoak, berriz, %1,1eko beherakada izan zuten.


⁵ Hotel Ostatueta Okupazioaren Inkesta hobetzeko, INEK bi aldaketa metodologiko egin ditu:

1. Inkestaren esparrua osatzen duten direktorioak gaurkotu (AAEEtako turismo-sailek adierazitakoak).

2. Informazioa biltzeko sistema aldatu, horrek zabalduetako informazioa gehiago banantzeko aukera ematen du, eta datu-bilketaren denbora-eremua erreferentziako hilabetera hedatzen du.

2006ko urtariletik aurrera argitaraturiko datuak ez dira, beraz, 2005eko abendura arte argitaraturikoekin zuzen konparatzeko modukoak. Konparazioa errazteko, urteen arteko datuak lotzeko aukera ematen duten koefizienteak egin dira.

I.2.10. Grafikoa. EAEko bidaiari-sarreraren bilakaera. Hotel-establezimenduak



Iturria: EUSTAT.

Aurreko urteko aldi berarekin konparatuta, igarotako gau kopuruak %1,6ko hazkundea izan zuen urtariletik apirilera, eta maiatzetik abuztura, ostera, %0,5eko murriztapena; irailetik abendura %3,2ko beherakada izan zuen.

Bestalde, INEren datuen arabera, plaza bakoitzeko okupazio maila berriro ere gutxitu egin da kasu honetan 2,9 puntukoa, harik eta 46,2ra heldu arte; antzeko erkidegoetako batez besteko aritmetikoa 37,8koa da, Galizia barne hartuta, eta 38,6koa

I.2.29. LAUKIA. KONPARAZIO ADIERAZLEAK EAE-N ETA ESTATUAN

	Biairiari kopurua (milatan)						Igarotako gauak (milatan)						B. besteko egonaldia (egunetan)					
	Guztira		Espainiakoak		Atzerrikoak		Guztira		Espainiakoak		Atzerrikoak		Guztira		Espainiakoak		Atzerrikoak	
	07	08 b	07	08 b	07	08 b	07	08 b	07	08 b	07	08 b	07	08 b	07	08 b	07	08 b
Estatua	84423	82951	48641	47182	35783	35769	271689	268407	116597	113011	155093	155396	322	324	240	240	433	434
Asturias	1617	1490	1446	1321	171	169	3429	3149	3053	2785	375	363	212	211	211	211	219	215
Kantabria	1132	1075	948	889	184	186	2691	2499	2310	2115	381	384	238	232	244	238	207	206
Galizia	3740	3526	3008	2834	732	692	8025	7790	6598	6432	1427	1358	215	221	219	227	195	196
Nafarroa	768	749	592	576	176	173	1463	1417	1148	1124	315	293	191	189	194	195	179	169
EAE	2146	2112	1463	1408	683	703	3961	3865	2673	2552	1288	1313	185	183	183	181	189	187
Errioxa	524	533	444	451	80	82	932	925	790	790	142	135	178	174	178	175	178	166
Antzeko erkidegoak*	1556	1474	1287	1214	268	260	3308	3156	2780	2649	528	507	213	214	216	218	197	195
Antzeko erk.* Gal. izan ezik	1010	962	857	809	153	152	2129	1998	1825	1704	303	294	20	20	21	20	20	19
Aldaketak																		
EAE	2007-2008 (%)												Diferencia 2007-2008					
	-160	-374	300	-243	-453	194	-002	-002	-002									
Antzeko erkidegoak*	-524	-570	-302	-459	-470	-403	001	002	-002									
Antzeko erk.* Gal. izan ezik	-480	-562	-015	-616	-667	-309	-141	-093	-344									

* Asturias, Kantabria, Galizia, Nafarroa eta Errioxako batez besteko aritmetikoa.

Iturria: INE "Hotel Okupazioaren Inkesta".

I.2.30. LAUKIA. BATEZ BESTEKO OKUPAZIOA ETA HOTELEKO PREZIOEN INDIZEA EAE-N ETA ESTATUAN

	Plaza bakoitzeko okupazio maila **		Hoteleko Prezioen Indizea (HPI)		Irekitako establezimendu kopurua***		Kalkulaturiko plaza kopurua***		Langile kopurua***	
	2007	2008 b	2007	2008 b	2007	2008 b	2007	2008 b	2007	2008 b
Estatua	56,0	53,6	115,4	116,3	14.228	14.684	1.298.846	1.338.210	198.191	200.543
Asturias	39,6	35,8	112,4	113,9	631	641	23.422	23.815	3.052	3.045
Kantabria	43,1	40,0	115,0	115,5	362	366	16.852	16.868	2.579	2.580
Galizia	37,0	34,8	118,6	118,2	1.454	1.497	58.962	60.620	7.614	7.556
Nafarroa	40,7	37,0	122,9	122,9	239	252	9.745	10.416	1.470	1.526
EAE	49,1	46,2	114,9	113,9	401	416	21.881	22.672	4.098	4.226
Errioxa	44,5	41,7	120,7	120,4	120	135	5.708	6.017	1.010	1.016
Antzeko erkidegoak*	41,0	37,8	117,9	118,2	561	578	22.938	23.547	3.145	3.145
Antzeko erkidegoak* Gal. izan ezik	42,0	38,6	117,7	117,6	338	348	13.932	14.279	2.028	2.042

b behin-behinekoak * Asturias, Kantabria, Galizia, Nafarroa eta Errioxako batez besteko aritmetikoa.

** Haztaturiko okupazio maila plaza bakoitzeko. *** Urteko batez bestekoa

Iturria: INE "Hoteleko Okupazioaren Inkesta".

I.2.31. LAUKIA. URTEKO MAGNITUDEAK NEKAZARITZA-TURISMOETAN

	Bidaia kopurua			Igarotako gauak			B. besteko egonaldia		
	2006	2007	2008 b	2006	2007	2008 b	2006	2007	2008 b
GUZTIRA (EAE izan ezik)	69.480	66.377	68.674	239.250	234.281	237.253	3,4	3,5	3,5
GUZTIRA (EAErekin)	103.639	108.163	112.341	310.955	324.493	326.158	3,0	3,0	2,9
Estatua (EAErekin)	93.794	97.476	99.476	271.520	276.334	270.222	2,9	2,8	2,7
EAE	34.159	41.786	43.667	71.705	90.212	88.905	2,1	2,2	2,0
Atzerria	9.845	10.687	10.687	39.435	48.159	48.159	4,0	4,5	4,5
Estatua, EAE izan ezik	59.635	55.690	55.809	199.815	186.122	181.317	3,4	3,3	3,2

Iturria: EUSTAT. Turismo Establezimendu Hartzaileen Inkesta.

barne hartu barik; hoteleko prezioen indizea (HPI⁶), berriz, antzeko erkidego mugakideetako baxuagoa da EAEn (Asturiasen kasuan izan ezik, horrek indize bera baitauka), eta Estatuko indizea baino baxuagoa ere bada. Horrela, 2008an, EAEko HPI 113,9koa izan da, eta erkidegoko mugakideetako batez bestekoa 118,2koa izan da Galizia barne sartuta, eta 117,6koa barne sartu barik.

EAEn hotel-jardueran diharduen establezimendu, plaza eta langile kopuruari dagokionez, adierazle guztiek hazkundeak izan dituzte. 15 hotel-establezimendu gehiago daude, eta urteko plaza erabilgarri kopuruak %3,6ko hazkundera izan du; sektore horretan lan egiten duen langile kopuruak ere %3,1eko hazkundera izan du, eta, guztira, 4.226 pertsona dira.

Bestalde, 2008an, EAEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan 68.674 bidaia-sarrera erregistratu dira (EAEkoak aintzat hartu barik), eta horrek aurreko urtean baino %3,5 gehiago adierazten du; igarotako gau kopurua 237.253koa izan da,

hau da, 2007an baino %1,3 gehiago. Bidaia bakoitzeko batez besteko egonaldia, hala eta guztiz ere, hamarren bat txikiagoa izan da (3,3 egunetik 3,2 egunera 2007tik 2008ra).

Azkenik, Ostalaritzari dagokionez, Ostalaritza Sektoreko azken Inkesta Ekonomikoa 2006ko uztailan argitaratu zen (2004ko datuekin), eta ez dago 2006ko Memoria Sozioekonomikoan jasotako informazioa gaurkotzeko datu berriak; beraz, irakurleak argitalpen hori kontsultatu beharko du, sektoreak EAEn dituen datu nagusiak jakiteko.

Finantza sektorea

Testuinguru sozioekonomikoaren eraginez, banku zentral nagusiek diru-politika hedakorrak aplikatu behar izan dituzte, eta, horren eraginez, interes-tasa ofizialak zerotik gero eta hurbilago dauden mailetan gelditu dira.

2008an, Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalak behetik aldatu du, bost aldiz, esku-hartze tasa. Horrela, 2007an

⁶ Enpresaburuek Espainiako hoteletan ostalua hartu duten bezeroei aplikaturiko prezioen multzoak izandako bilakaeraren neurrak estatistikoa. Beraz, sektoreko prezioak eskaintzaren ikuspegitik neurtzen ditu.

I.2.32. LAUKIA. KREDITU ERAKUNDEEK ETXEEI MAILEGUETARAKO EZARRITAKO INTERES TASA ETA EZIAGE

	ZMTE*			UTB (urteko tasa baliokidea)		
	Haztaturiko b.b. tasa					
	Etxebizitza-kreditua	Kontsum. kreditua	B. helb. batzuk	Etxebizitza	Kontsumoa	B. helb. batzuk
2003	3,32	7,99	4,31	3,46	8,62	4,8
2004	3,23	7,8	4,2	3,39	8,42	4,69
2005	3,32	7,77	4,18	3,46	8,34	4,6
2006	4,56	8,84	5,09	4,74	9,41	5,58
2007	5,38	9,53	6,36	5,53	10,07	6,84
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03

* ZMTEn ez dira sartzen komisioak, eta UTBn bai.
Iturria: Espainiako Bankua, Estatistika Aldizkaria.

I.2.33. LAUKIA. KREDITU ERAKUNDEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (12/31ko saldoak)

	Euroak milioietan				EAEko banak. 2008	Estatua 2008	Estatua- rekiko %	Aldaketaren %		
	2005	2006	2007	2008				2005-06	2006-07	2007-08
Guztira	62.351	72.772	82.203	87.420	100,0	1.842.797	4,7	16,7	13,0	6,3
Herri Adm.	1.344	1.477	1.336	2.028	2,3	47.688	4,3	9,9	-9,5	51,8
Sektore Pribatua	61.007	71.295	80.867	85.391	97,7	1.795.109	4,8	16,9	13,4	5,6
Bankuak	26.225	30.113	33.870	35.186	40,2	840.270	4,2	14,8	12,5	3,9
Herri Adm.	469	573	561	784	0,9	28.751	2,7	22,2	-2,1	39,8
Sektore Pribatua	25.756	29.541	33.309	34.402	39,4	811.519	4,2	14,7	12,8	3,3
Aurrezki Kutxak	27.837	32.666	36.903	39.566	45,3	906.081	4,4	17,3	13,0	7,2
Herri Adm.	839	857	731	1.161	1,3	18.145	6,4	2,1	-14,7	58,8
Sektore Pribatua	26.998	31.809	36.172	38.405	43,9	887.936	4,3	17,8	13,7	6,2
Kred. Koop.	8.289	9.992	11.429	12.668	14,5	96.545	13,1	20,5	14,4	10,8
Herri Adm.	36	47	43	84	0,1	792	10,6	30,6	-8,5	95,3
Sektore Pribatua	8.253	9.945	11.386	12.585	14,4	95.662	13,2	20,5	14,5	10,5

Iturria: Espainiako Bankua, Estatistika Aldizkaria.

erreferentziako interes-tasa %4,25ekoa zen, 2008ko urtarri-lean %3ra murriztu zuen, martxoan %2,25era, apirilean %2ra, urrian %1era eta urte amaieran %0,25era (2007ko abenduan erregistraturiko maila baino 4 puntu beherago).


Europako Banku Zentralak, bi aldiz, egun batera igo zuen esku-hartze tasa, %4tik (2007ko ekainean finkatua) %4,25era 2008ko uztailera. Hala ere, 2008ko urritik abendura murriztapenak egin zituen, guztira oinarritzko 1,75 puntu: 0,5 urrian, 0,5 azaroan eta puntu 1 abenduan. Horrela, erreferentziako interes-tasa urte amaieran %2,5ekoa izan zen, urtarrilean erregistraturiko maila baino 1,5 puntu gutxiago.

Japoniako Bankuari dagokionez, 2008an horren esku-hartze tasa bitan murriztu da (urrian eta abenduan), bakoitzean 2 hamarretan. Horrela, erreferentziako interes tasa (*call money*) %0,1ekoa izan zen urte amaieran, urtarileko maila (%0,5) baino 4 hamarren gutxiago.

Diru-merkatuko interes-tasek, bestalde, hasieran gora egin zuten, epe guztietan; baina, gero (irailetik urrira), beherantzko

joera hasi zuten. Horrela, hilabeteko Euriborrak %4,2an hasi zuen urtea, eta %2,99an amaitu; hiru hilerako Euriborra urtarileko %4,88tik abenduko %3,29ra igaro zen; eta urtebeterako Euriborra urtarileko %4,5etik abenduko %3,45era igaro zen. Kreditu-erakundeek etxeei utzitako tasak (UTB), 2007tik 2008ra, %10,07tik %10,99rako gorakada izan du kontsumorako maileguen kasuan, eta %5,53etik %5,83rako hazkundera etxebizitzaren kasuan.

Kreditu-erakundeek EAEn emandako kreditu osoak berriro ere gora egin du 2008an, eta 87.420 milioi eurokoa izan da. Hala eta guztiz ere, hazkunde-erritmoa berriro ere moteldu egin da, 2007tik 2008rako urteko hazkunde-tasa aurreko urtekoaren erdia baita (%13tik %6,3ra igaro da). Moteltze hori sektore pribatuari emandako kredituaren hazkunde urriagoaren eraginezkoa izan da, horren aldaketa-tasa %13,4tik %5,6ra igaro baita. Aldiz, Herri Administrazioei emandako kredituak %51,8ko hazkundera izan du.

I.2.11. Grafikoa. Etxebizitza lortzeko hipoteka-bermeko kredituak

Beste sektore egoiliar batzuei finantza-erakundeek tasa desberdinen arabera emandako kredituaren hazkunde-tasak aztertuta ondorioztatzen denez, bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek emandako kreditu-saldo guztiek gora egin dute, baina aurreko urtean baino neurri txikiagoan (hau da, hazkunde-erritmoa moteldu egin da). Finantza-erakunde bakoitzak beste sektore egoiliar batzuei emandako kreditu osoari dagokionez, horren zatirik handiena lehenengo bi erakundeek dute, baina kredituaren murriztapenik handiena ere eurek izan dute. Horrela, aurrezki-kutxen balantzeetan, beste sektore egoiliar batzuei 2008an emandako kredituaren saldo osoaren %45,3 biltzen da; bankuek magnitude horren %40,2 biltzen dute eta kreditu-kooperatibek gainerako %14,5; 2007tik 2008rako aldaketa-ratioak, hurrenez hurren, %12,5etik %3,9ra, %13tik %7,2ra eta %14,4tik %10,8ra igaro dira.

Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren saldoen hazkunde-erritmoak izandako moteltzean, segurutik, eragina izan du etxebizitza lortzeko hipoteka-bermeko kredituaren hazkunde txikiagoak. Horrela, Espainiako Bankuak Estatu osorako emandako datuen arabera (ez dago autonomia-erkidego bakoitzerako datu erabilgaririk), 2007tik 2008ra magnitude horrek %5,4ko hazkunde izan du, 2006tik 2007ra %14ko hazkunde eta 2005etik 2006ra %22,4ko hazkunde izan ondoren.

Horri dagokionez, Espainiako Jabetzaren, Merkataritzaren eta Ondasun Higigarrien Erregistroaren Elkargoaren datuek (INEren Hipoteka Estatistikak argitaraturikoak) aditzera eman dute EAEn eraturiko hipoteka kopuruak %9,9ko murriztapena izan duela, 2007 baino lehen erregistraturiko tasa positiboan osten. Bestalde, hipotekaturiko etxebizitza kopuruak berriro ere behera egin du, 2006ra arte aldaketa-tasak positiboak

izan ondoren. Hain zuzen ere, 2007tik 2008ra %15,4ko murriztapena egon da, eta 37.977tik 32.118ra igaro da.

Hipotekaturiko finkarako maileguan utzitako batez besteko zenbatekoak %9,1eko murriztapena izan du, eta 198,1 mila euro izan dira (aurreko urtean 217,9). Bestalde, hipotekaturiko etxebizitzarako utzitako batez besteko zenbatekoak ere %0,6ko beherakada izan du (164,4 mila eurotik 163,3 mila eurora).

Finantza-erakundeek gordailuei dagokionez, titulartzat Herri Administrazioak dituztenen saldo osoa, 2008an, 5.733 milioi eurokoa izan zen EAEn, Espainiako Bankuko Estatistika Aldizkariak emandako datuen arabera, eta zifra horri urteko %2,4ko hazkunde-tasa dagokio. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak 70.610 milioi eurokoak izan ziren, eta zifra horren urteko hazkunde-tasa %18koa da.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitate desberdinen (agerikoa, aurrezkia eta epea) arabera aztertuta ikusten denez, ageriko gordailuak 12.813 milioi eurokoak dira, 2008an %6,4ko hazkunde izan ondoren; eta aurrezkiko gordailuen saldoak %9,1eko hazkunde izan du, eta 14.174 milioi euro dira; epeko gordailuen saldoak %25,3ko hazkunde izan du, eta 43.623 milioi euro dira.

Azkenik, Burtsari dagokionez, 2007ko abuztutik 2008ko azken asteetara arteko aldia negatibo, konplexu eta garrantzitsuenetarikoa izan da, mundu osoko finantza-merkatuen historia osoan. Amerikako Estatu Batuetako higiezinaren merkatuan sorturiko krisia eta horrek finantza-merkatuetan izandako deribazioa ("sub-prime" deritzon arrisku handiko hipoteka-aktiboetan oinarrituz) finantza-aktibo guztietara hedatu da, eta konfiantza eza handia eragin du eragile ekonomikoen artean. Finantza-, diru-, kreditu- eta balio-merkatu guztiek eta erregulaturiko eta erregulatu gabeko finantza-tresna guztiek aurreko-

I.2.34. LAUKIA. LANDAKO ETA HIRIKO FINKEN HIPOTEKAK EAE-N

	2006			2007			2008 (b. behineko datuak)			Aldaketa					
										2006-07			2007-08		
	Kop.	Zenbat. (€-ak milioit.)	B. b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (€-ak milioit.)	B. b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (€-ak milioit.)	B. b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (€-ak milioit.)	B. b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (€-ak milioit.)	B. b. zenbat. (€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	58.633	11.412	194.634	51.904	11.310	217.907	46.745	9.261	198.127	-11,5	-0,9	12,0	-9,9	-18,1	-9,1
Landako fink.	1571	507	322.460	1578	528	334.835	1316	380	289.021	0,4	4,3	3,8	-16,6	-28,0	-13,7
Hiriko finkak	57.062	10.905	191.115	50.326	10.782	214.241	45.429	8.881	195.494	-11,8	-1,1	12,1	-9,7	-17,6	-8,8
Etxebizitzak	43.328	6.747	155.715	37.977	6.244	164.406	32.118	5.246	163.344	-12,3	-7,5	5,6	-15,4	-16,0	-0,6
Orubeak	1.795	1.946	108.408	1.745	2.390	136.969	1.524	1.799	118.022	-2,8	22,8	26,3	-12,7	-24,7	-13,8
Hiriko beste finka batzuk	11.939	2.213	185.330	10.604	2.148	202.575	11.787	1.836	155.777	-11,2	-2,9	9,3	11,2	-14,5	-23,1

Iturria: INE Hipoteken Estatistika (Espainiako Jabetzaren, Merkataritzaren eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaile Elkargoa).

I.2.35. LAUKIA. SEKTORE PRIBATUAREN ETA HERRI ADMINISTRAZIOEN GORDAILUAK GORDAILU ERAKUNDEETAN (XII-3IKO SALDOAK)

	Euroak milioietan			Banak.	Estatua	Estatuko guzt. %	Aldaketaren %	
	2006	2007	2008				06-07	07-08
GUZTIRA PRIB. ETA PUBLIKOA	57.272	65.433	76.344	—	1.218.488	5,7	14,2	16,7
SEKTORE PRIBATUA GUZTIRA	52.462	59.837	70.610	100	1.143.674	6,2	14,1	18,0
Ageriko gordailuak	11.904	12.040	12.813	18,1	248.998	5,1	1,1	6,4
Aurrezkiko gordailuak	13.137	12.988	14.174	20,1	179.815	7,9	-1,1	9,1
Epeko gordailuak	27.422	34.810	43.623	61,8	714.861	6,1	26,9	25,3
Bankuak		18.346	22.136	31,3	497.684	4,4	15,6	20,7
Ageriko gordailuak	5.731	5.681	5.625	8,0	124.194	4,5	-0,9	-1,0
Aurrezkiko gordailuak	4.058	3.917	4.521	6,4	57.602	7,8	-3,5	15,4
Epeko gordailuak	6.081	8.749	11.991	17,0	315.888	3,8	43,9	37,1
Aurrezki Kutxak	27.841	31.515	36.923	52,3	573.199	6,4	13,2	17,2
Ageriko gordailuak	4.512	4.729	5.426	7,7	114.154	4,8	4,8	14,7
Aurrezkiko gordailuak	6.923	6.990	7.078	10,0	103.928	6,8	1,0	1,3
Epeko gordailuak	16.407	19.797	24.418	34,6	355.117	6,9	20,7	23,3
Kreditu Kooperatibak	8.750	9.976	11.551	16,4	72.791	15,9	14,0	15,8
Ageriko gordailuak	1.661	1.631	1.764	2,5	10.650	16,6	-1,8	8,2
Aurrezkiko gordailuak	2.156	2.080	2.574	3,6	18.285	14,1	-3,5	23,8
Epeko gordailuak	4.933	6.265	7.215	10,2	43.856	16,5	27,0	15,2
SEKTORE PUBLIKOA GUZTIRA	4.810	5.596	5.733	100	74.813	7,7	16,3	2,4
Bankuak	1.428	1.440	1.115	19,4	33.731	3,3	0,8	-22,6
Aurrezki Kutxak	2.869	3.453	3.807	66,4	37.992	10,0	20,4	10,3
Kreditu Kooperatibak	514	702	811	14,1	3.091	26,2	36,6	15,5

b. Behin-behineko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria.

rik gabeko likidezia eta balorazio-tirabiren eraginpean gelditu dira, eta horren ondorioek ziurgabetasun handia sortu dute: gainera, munduko ekonomia nagusiek izandako dezelerazioa magnitude handiko krisi global bihurtu dute.

Balio-merkatuek gero eta intentsitate handiagoarekin nabaritu dituzte finantza-krisiak munduko ekonomian eta, hain zuzen ere, kotizaturiko enpresetan eragindako ondore eta itxaropen

negatiboak. Adierazle batzuek historia osoko galerarik larrienak izan dituzte, edo Depresio Handian eta petrolioaren 1974ko krisian erregistraturikoekin parekatzeko moduko galerak. Espainian, IBEX 35 deritzona %40an erori zen 2008an; bere historia osoko urteko erregistrorik txarrena izan zen, eta Espainiako burtsak orain dela 135 urtetik hona (ordutik daude adierazle orokorrak) izandakorik txarrena.

I.2.36. LAUKIA. BILBOKO BURTSAREN INDIZEA, 2000

	AZKENA	MAXIMOA	MINIMOA	ALDAK. % (azkena/azkenaurr.)
2003	1.381,8	1.393,7	976,2	26,76
2004	1.633,1	1.638,5	1.361,1	18,18
2005	1.921,5	1.956,4	1.611,6	17,66
2006	2.577,5	2.635,8	1.611,6	34,14
2007	2.626,6	2.798,3	2.406,3	1,9
2008	1.589,9	2.625,7	1.338,6	-39,47

2000ko oinarria, 1999ko abenduaren 31n.
Iturria: Bilboko Burtsa.

I.2.37. LAUKIA. BILBOKO BURTSAKO KONTRATAZIO BOLUMENA (*)

	2005		2006		2007		2008		Aldaketaren % 2006-07		Aldaketaren % 2007-08	
	Guztira (erosketak eta salment.)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salment.)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salment.)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salment.)	Erosketak	Guz.	Erosketak	Guz.	Erosketak
BURTSA GUZTIRA	101.094,6	49.766,2	180.207,1	89.132,9	237.517,8	120.286,6	222.575,2	113.432,0	31,8	35,0	-6,3	-5,7
ERRENTA ALDAKORRA	89.101,6	43.769,7	171.612,1	84.835,2	229.963,1	116.507,7	219.635,9	111.962,4	34,0	37,3	-4,5	-3,9
Merkatu jarraitua: SIBE	88.618,2	43.528,0	170.805,9	84.432,1	229.952,7	116.502,5	219.635,7	111.962,3	34,6	38,0	-4,5	-3,9
Merkatu tradizionala: eragiketa-aretoa (ahotsez)	483,4	241,7	806,2	403,1	10,4	5,2	0,2	0,1	-98,7	-98,7	-98,1	-98,1
ERRENTA FINKOA	11.993,0	5.996,5	8.595,0	4.297,7	7.554,7	3.778,9	2.939,3	1.469,6	-12,1	-12,1	-61,1	-61,1
Merkatu jarraitua: elektronikoa	23,9	11,9	22,2	11,4	21,5	12,2	9,6	4,7	-3,2	7,0	-55,3	-61,5
Merkatu tradizionala: eragiketa-aretoa (ahotsez)	15,3	7,7	14,7	7,3	15,1	7,6	12,4	6,2	2,7	4,1	-17,9	-18,4
Kontuan Idazteko Zerbitzuak (KIZ)	11.953,8	5.976,9	8.558,1	4.279,0	7.518,1	3.759,1	2.917,4	1.458,7	-12,2	-12,2	-61,2	-61,2

(*) Euroak milioitan.
Iturria: Bilboko burtsa.

Bilboko burtsari dagokionez, horren indizea 1.589,9 puntura heldu zen 2007ko abenduan, eta horrek %39,5eko beherakada adierazten du, aurreko urteari dagokionez. Aldaketa-tasa ehuneko 41,37 puntu txikiagoa da aurreko urtekoa baino, orduan 2.626,6 puntuko indizearekin amaitu baitzen; eta Estatuan erregistraturikoaren ia berdina izan zen, bertan *Ibex 35* adierazleak %39,4ko murriztapenarekin itxi baitzuen urtea (15.182,3 puntuetatik 9.195,8 puntuetara).

Bilboko burtsako 2008ko kontratazio-bolumenak (erosketak eta salmentak) %6,3ko murriztapena izan du, 14.942,6 milioi euro (aurreko aldian 57.310,7ko hazkundera). Gutxitze hori, batik bat, errenta finkoaren eraginezkoa da (%-61,1), baina errenta aldakorrek kontratazioak ere behera egin du (%-4,5).

Kontratazio osotik, %51 erosketek dagokie, eta horiek, aurreko urteari dagokionez, %5,7ko murriztapena izan dute.

Lanbide- eta enpresa-zerbitzuak

Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen Sektoreko azken Inkesta Ekonomikoa 2006ko uztailan argitaratu zen (2004ko datuekin), eta, 2004ko Memoria Sozioekonomikoan jasotako informazioa gaurkotzeko datu berriak ez dagoenez, irakurleak argitalpen hori kontsultatu beharko du sektoreak EAEn dituen datu nagusiak jakiteko.

Gizarte Zerbitzuak

Epigrafe hau V. kapituluko Sarreran aztertu da (EAEko Gizarte Babesa).

2.2. I+G+b jarduerak eta IKT-ak

2.2.1. Euskal Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak

I+G gastuak. EAEn, EUSTATen datuen arabera, kopurua 1.090 milioi eurora iritsi zen guztira 2007an, aurreko urtean baino % 20 gehiago. Gastu horretatik, Bizkaia 503 milioi (% 46) dagozkio, Gipuzkoari 447 (% 41) eta Arabari 110 (% 13).

EAEn I+G arloak duen enpresa burutzapenak antza du, hasiera batean, enpresaren sektoreak Estatuan egindakoarekin. Bertan, EINen datuen arabera, enpresek I+G arloko gastuaren % 55,9 burutu zuten (% 57,2 aurreko urtean). Hala eta guztiz ere, kontu handia edukitzea komeni da informazio hau interpretatzerakoan, izan ere, Frascatiren⁷ gidaliburuko metodologiak talde honetan sarrarazten ditu batez ere finantzazio pribatua duten zentro teknologikoak. Ondorioz, enpresakoa bakar-bakarrik den estatu portzentajea txikiagoa litzateke. EB-15ean, EUROSTATen arabera, enpresek gastuaren % 63,7 egin zuten, baina lehen adierazitako kontua kasu honetan ere aintzat hartu behar da.

Garrantzitsua da aipatzea, EUSTATen arabera, I+G arloak urtean, termino absolutuetan eta enpresetan nahiz zentro teknologikoetan izandako hazkundearen jatorria kapital gastuen hazkundera dagoela (inbertsioak: azpiegiturak eta makineria), eta ez horrenbeste gastu korrontetean.

Esfortzua I+G arloan. BPG gainean I+G arloak edukitako gastua 2007an, EUSTATen arabera, % 1,65era iritsi zen, aurreko urtean baino 0,18 puntu gehiago (% 1,47). Horrela, azken ur-

teetan adierazle honek edukitako egonkortasuna apurto da. Lurralde Historikoka, kasuan kasuko portzentajeak hauek dira: Gipuzkoan % 2,05 (lehenengo aldiz EBren batez bestekoa gaindituz, EB-27: % 1,83; EB-15: % 1,91 eta Eurozonaldean: % 1,86), Bizkaian % 1,52 eta Araban % 1,28.


EINek EAEn erregistratutako esfortzua EB-27k 2007an edukitako batez besteko balioaren gainetik eta guzti kokatzen da (% 1,87ko kopurua % 1,83aren aldean). Aitzitik, ez da gauza bera alderaketa EUSTATen⁸ datuekin eginez gero. Edonola ere, aipatutako batez besteko balioarekiko tartearen murriztapenerako joera nabarmen ageri da.

EINen arabera, estatu mailako batez bestekotik gorako kopuruak ageri dituzten AAEak (% 1,27) hauek dira: Madril (% 1,96 urte honetan eta % 1,98 aurrekoan), Nafarroa (% 1,89 urte honetan eta % 1,92 aurrekoan), EAE (% 1,87 urte honetan eta % 1,6 aurrekoan) eta Katalunia (% 1,48 urte honetan eta % 1,43 aurrekoan). Hazkunde tasa handienak ageri dituzten AAEak hauek dira: Gaztela-Mantxa, Murtziako Eskualdea eta Euskal Autonomia Erkidegoa.

Gaia aurrerapen handiena eduki duten herrialdeak, % 2,5etik gorako portzentajeak agertuz, hauek dira: Suedia, Finlandia, Japonia, Suitza, Islandia, EEBB, Alemania, Danimarka eta Austria.

Langile kopurua I+G arloan (DOB). Goranzko joerarekin jarraitzen du. Gauzak horrela, 2007an 14.435 pertsonara iritsi zen, hau da, okupatutako biztanleriaren % 14,2 (% 13,2 aurreko urtean; erregistratutakoa baino milako kopuru bat gehiago⁹ Estatuan (% 9,88)

1.2.12. Grafikoa. I+G arloan egindako esfortzuen alderaketa (%)




Iturria: EUSTAT, INE, EUROSTAT.


⁷ Frascatiren Gidaliburua, izenburu ofizialtzat "Arau Praktikoaren Proposamena Ikerketa eta Garapen Esperimentaleko Inkestetarako" duena, ELGaren proposamen bat da. Horrek I+G arloko estatistikan aditua zen talde bat bildu zuen 1963 urtean, gidaliburua idazte aldera. Gaur egun erreferentzia gisa hartzen da Ikerketa eta Garapen gisa zer jarduerak hartzen den zehazte aldera.

⁸ EUSTATen lagina erroldakoa da (zuzenean errolda bitartez lehen mailako datuak eskuratzea), eta EINena erroldakoa da enpresa handientzat eta lagin erakoa ETEentzat (lagin bat DIRCEtik -Enpresen Direktorio Nagusia- abiatuz hautatzea eta biztanleriaren kopuru osora eramatea). Halaber, datuak argitaratzen diren uneen, BPGa ezberdina da: EUSTATena EINena baino handiagoa da (65.928.497 mila euro, 65.146.711 mila euroren aldean).

⁹ 2006ko datuak.

I.2.13. Grafikoa. I+G arloko esfortzuaren eta enpleguaren bilakaera EAEn.

Iturria: Eustat.

I.2.14. Grafikoa. I+G arloko gastuaren finantzazioaren bilakaera, funtsen jatorria gorabehera

Iturria: Eustat.

eta Europar Batasunean (% 9,9), eta lurralde dinamikoenetan erregistratzen diren balioetatik hurbil edota gora kokatzen direnak: Frantzia (% 13,8), Alemania (% 12,8) eta Japonia (% 14,1). Gure Memoria Sozioekonomikoaren aurreko edizioetan aipatu izan dugun moduan, ezaugarri hori oso adierazgarria da.

I+G arloan egindako gastuaren finantzazioa (gastua funtsen jatorriaren arabera).

Azken urteetan I+G arloko gastuaren finantzazioan sektore pribatuak edukitako pisua pixka bat galdu dela ikus badaiteke

ere, haren finantzazio iturri garrantzitsuen izaten jarraitzen du. Gauzak horrela, sektore pribatuak I+G arloan egindako gastuaren kopuru osoaren % 58,9 finantzatzen du, alegia, 642,5 milioi euro (% 63,8ko kopurua 2005 urtean eta % 61,2ko kopurua 2006 urtean). Administrazioak aldiz % 37,6 finantzatzen du (% 32,4ko kopurua 2005 urtean eta % 35,4ko kopurua 2006 urtean).

Ondorioz, EAE Lisboako helburutik 7,1 puntura kokatzen da. Helburua, hain zuzen ere, I+G arloan egiten den gastu osoaren % 66 funts pribatuekin finantza dadila da.

Estatuan, EInen datuen arabera, Administrazio Publikoak % 43,7 finantzatzan du eta sektore pribatuak, aldiz, % 45,5 (Lisboako helburutik 20,5 puntura).

EB-27n, EUROSTATen datuen arabera, 2005 urtean (eskura dagoen azkeneko datua), kasuan kasuko portzentajeak % 55 eta % 35ekoak izan ziren. I+G arloan egindako gastuaren finantzazio pribatuko ratio altuenak, EUROSTATen arabera, hurrengo herrialdeetan ageri dira: Luxenburgon (2005eko datua % 79,7), Japonian (2005eko datua % 76,1), Suitzan (2003ko datua % 69,7), Alemanian (2005eko datua % 67,4 eta 2006ko datua % 68,1), Finlandian (2005eko datua % 66,9) Suedian (2005eko datua % 65,7) eta EEBn (2006ko datua % 64,9).

Aintzat hartuz gero, EUSTATen arabera, 2007ko EAeko BPGa 65.928,5 milioi eurora iritsi zela, orduan sektore pribatuak finantzaturiko I+G arloaren zatiak BPGaren % 0,98 hartzen du. Europar Batasunaren "A more research-intensive and integrated European Research Area. Science, Technology and Competitiveness, key figures report 2008/2009" agiriari aipatu egiten du EB-27n ratio hori murriztu egin zela 2000 eta 2006 artean, hain zuzen ere % 1,05etik % 1era. Bartzelonako helburuak % 2an finkatzen du balioa.

Bestalde, Administrazio Publikoak EAEn finantzaturiko I+G BPGaren % 0,37koa da. EB-27n, aurreko paragrafoan aipatu-

tako iturria gorabehera, 2006 urteko portzentajea % 0,63n kokatzen da. Bartzelonako helburuak % 1ean finkatzen du balioa.

I+G arloan egindako gastua, diziplina zientifikoa gorabehera. Berrito ere azpimarragarria da ingeniariaritz eta teknologia (gastu osoaren % 72,2), distantzia handira osasun zientziak edukiz % 10,5arekin eta zientzia zehatzak/naturalak % 9,4arekin. Bestalde, gizarte eta nekazaritza zientziek, hurrenez hurren, % 4,2 eta % 3,7 hartzen dute. 2005 eta 2006 artean hazkunde nagusiak zientzia zehatz/naturaletan (% +48,2) eta gizarte zientzietan (% +35) jazo baziren ere, 2006 eta 2007 artean azpimarragarriak dira nekazaritza zientzietako hazkundeak (% +180,2, aurreko aldiro erorialdia orekatuz) eta osasun zientzietakoak (% +63,5).

I+G arloan egindako gastua diziplina zientifikoaren arabera eta funtsen jatorria gorabehera. Ingeniaritzan eta teknologian egindako ikerketa sektore pribatuak finantzatzan du batez ere (enpresa eta zentro teknologikoen diziplinako gastu osoaren % 71,5 finantzatzan dute). Osasun zientzietan, zientzia zehatz/naturaletan, nekazaritza eta gizarte zientzietan kontrakoa gertatzen da hain zuzen. Izan ere, Administrazioak gastuaren % 71,8, 69,5, 73 eta 66,3 finantzatzan du hurrenez hurren. Ondorioz, 2006an osasun zientzietan igarritako joera aldaketa, hain zu-

I.2.38. LAUKIA. ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK 2007 (*)

	Alemania	Espainia 2007	Frantzia	Italia	Portugal	Erre. Batua	EEBB	Japonia	EB -27	EAE 2006	EAE 2007
I+G gastuak											
BPGari buruz (%)	2,53	1,27	2,09	1,09	0,83	1,78	2,61	3,32	1,83	1,47	1,65
Gastuaren finantzazioa (%)											
Enpresak	67,4	45,5	52,2	39,7	36,3	45,2	64,9	76,1	54,6	61,2	58,9
Administrazioak	28,4	43,7	38,4	50,7	55,2	31,9	29,3	16,8	34,2	35,4	37,6
Beste iturri batzuk	0,5	3,8	1,9	1,6	3,8	5,9	5,8	6,8	2,3	0,3	0,3
Atzerititik	3,7	7	7,5	8,0	4,7	17,0	0,0	0,3	8,9	3,1	3,2
Gastua gauzatzea (%)											
Enpresak	69,9	55,9	63,3	51,1	41,7	61,7	70,3	76,4	63,7	79,5	81,3
Enpresak bakar-bakarrik											
TZek										57,2	55
Administrazioak	13,8	17,6	17,3	18,2	13,6	10,0	11,1	8,3	13,5	3,3	3,5
Unibertsitateak	16,3	26,4	18,2	30,2	32,9	26,1	14,3	13,4	21,9	17,2	15,2
IAGEPak	0,0	0,2	1,3	0,5	11,8	2,2	4,2	1,9	0,9	0,0	0,0
Langileak (DOB)											
Guztira	489.145	201.109	353.554	175.248	25.728	323.358	—	921.173	2.167.381	13.065	14.435
Okupaturiko biztanleriari dagokionez (%)	12,8	9,88	13,8	7,5	5,0	11,1	—	14,1	9,9	13,2	14,2
Ikerlariak (DOB)											
Guztira	282.063	122.625	204.484	82.489	21.126	180.450	139.682	704.949	1.300.990	8.145	9.220
Okupaturiko biztanleriari dagokionez (%)	7,4	6,02	8,0	3,6	4,1	6,2	10,0	10,8	5,9	8,3	9,1

(*) 2007ko datuak edo eskura dagoen azkeneko urtekoak.

BEA=Berdintasuna Erosketa Ahalmenean.


DOB = Dedikazio osoaren baliokidea.

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistikak eta EUROSTAT.

I.2.39. LAUKIA. MURRU BARNEKO GASTUAK DIZIPLINA ZIENTIFIKOAREN ETA BURUTZAPEN SEKTOREAREN ARABERA, FUNTSEN JATORRIA GORABEHERA (MILA EUROTAN)

	2006					2007					Aldakuntza %a 2006/07				
	Guztira	Funtsen jatorria				Guztira	Funtsen jatorria				Guztira	Funtsen jatorria			
		Adm.	Enpr.	IAGEP	Atzerria		Adm.	Enpr.	IAGEP	Atzerria		Adm.	Enpr.	IAGEP	Atzerria
Guztira	907.722	321.759	555.082	2.294	28.587	1.090.265	409.532	642.541	3.036	35.156	20,1	27,3	15,8	32,3	23,0
Diziplina zientifikoa															
Ingeniaritza eta teknologia	668.157	161.567	482.584	1.593	22.413	786.881	194.946	562.495	2.272	27.168	17,8	20,7	16,6	42,6	21,2
Osasun z.	70.153	41.074	27.689	98	1.292	114.711	82.358	29.261	315	2.778	63,5	100,5	5,7	221,4	115,0
Z. zehatzak/natur z.	108.953	80.931	24.778	258	2.986	101.941	73.385	26.400	273	1.883	-6,4	-9,3	6,5	5,8	-36,9
Nekazal z.	14.547	10.623	3.352	5	566	40.759	28.341	10.287	6	2.126	180,2	166,8	206,9	20,0	275,6
Gizarte z.	45.912	27.564	16.679	339	1.330	45.973	30.502	14.099	171	1.201	0,1	10,7	-15,5	-49,6	-9,7
Burutzapen sektorea															
Administrazioa	30.124	26.224	2.804	0	1.097	38.113	33.201	3.604	6	1.302	26,5	26,6	28,5	500,0	18,7
Goi-mailako irakaskuntza	156.243	114.415	38.187	918	2.722	165.962	129.130	32.678	1.041	3.112	6,2	12,9	-14,4	13,4	14,3
Z. teknol. GABEko enpresak	519.251	95.079	416.227	153	7.792	599.857	110.295	477.143	159	12.259	15,5	16,0	14,6	3,9	57,3
Zentro teknologikoak	202.104	86.041	97.864	1.223	16.976	286.333	136.905	129.116	1.830	18.483	41,7	59,1	31,9	49,6	8,9

Iturria: EUSTAT. "I+G jardueren buruzko estatistika".

I.2.15. Grafikoa. I+G arloan jarduten duten DOB langileen bilakaera, okupazioa eta sexua gorabehera

Iturria: EUSTAT.

zen ere gastuaren finantzazioan sektore pribatuak garrantzia hartzea eragiten zuena, ez zen 2007an jazo.

I+G arloko langileak DOB moduan, diziplina zientifiko eta okupazio mota gorabehera. 2006 eta 2007 artean, I+G arloko jardueretan dedikazio osoan dagoen langile kopurua hazi egin da berriro ere, eta hazkundea aurreko urteetan erregistratutakoa baino altuagoa izan da: 2005ean % 4,9, 2006an

% 4,5 eta 2007an % 10,5. Lehen aipatu den moduan, 14.435 pertsonara iritsi dira.

Horietatik % 63,9 (9.220,3 pertsona) ikertzaileak dira.

EAEn dedikazio osoan lan egiten duten 14.435 pertsonetatik % 70,8k ingeniaritzarekin eta teknologiarekin zerikusia duten jardueretan lan egiten du, eta gainerakoa zientzia zehatz eta naturaletan (% 10,4), osasun zientzietan (% 9), gizarte

I.2.40. LAUKIA. DOB MODURA LANEAN HARTUTAKO LANGILEAK DIZIPLINA ZIENTIFIKOA GORABEHERA

	2001		2002		2003		2004		2005		2006		2007	
	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %	Guzt.	Emak. %
Guztira	10.618,6	27,5	13.065,3	32,0	11.352,6	30,5	11.925,1	30,7	12.505,5	31,7	13.065,3	32,0	14.434,9	33,0
Zientzia zehatzak eta natur zientziak	725,4	40,9	1.554,0	45,6	1.060,0	42,3	1.408,0	42,1	1.343,0	44,7	1.554,0	45,6	1.506,4	45,8
Ingeniariitza eta teknologia	7.989,2	22,5	9.234,4	25,7	8.289,8	24,8	8.518,2	25,1	8.953,3	25,6	9.234,4	25,7	10.219,8	26,6
Osasun zientziak (1)	703,3	45,0	1.093,2	48,8	676,9	46,2	906,4	48,0	1.044,4	49,4	1.093,2	48,8	1.305,2	52,2
Nekazal zientziak (2)	362,1	37,9	221,9	52,0	399,5	47,8	271,9	44,2	380,3	49,7	221,9	52,0	462,2	49,6
Gizarte eta giza zientziak	838,6	44,9	961,8	46,5	926,4	48,3	820,6	45,0	784,5	47,1	961,8	46,5	941,3	47,4

(1) Farmazia barne. (2) Abeltzaintza, basozaintza eta arrantza barne.
Iturria: EUSTAT. I+G jardueren buruzko estatistika.

I.2.41. LAUKIA. LANGILEAK BURUTZAPEN SEKTOREKA ETA OKUPAZIOA GORABEHERA

	GUZTIRA		EMAKUMEAK		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	2006	2007	2006	2007	2007					
	%a, guztizko bertik./a.	%a, guztizko bertik./a.	%a, guztiaren/a.		Kop.	%a, guztizko horiz./a.	Kop.	%a, guztizko horiz./a.	Kop.	%a, guztizko horiz./a.
Guztira	20.260	22.595	6.462	7.429	14.814	65,6	5.517	24,4	2.262	10,0
Enpresak	64,5	66,1	26,8	27,9	8.073	54,1	5.076	34,0	1.776	11,9
Enpresa bakarrik	49,2	50,5	22,8	23,9	5.619	49,2	4.336	38,0	1.463	12,8
Zentro teknologikoak	15,4	15,5	39,5	41,0	2.455	70,0	740	21,1	313	8,9
Administrazio Publikoa	5,4	5,6	39,3	44,3	1062	83,4	114	8,9	79	7,7
Goi-mailako irakaskuntza	30,1	28,3	41,5	42,3	5.679	88,8	327	5,1	350	6,1

Iturria: EUSTAT. I+G jardueren buruzko estatistika.

eta giza zientzietan (% 6,5) eta nekazal zientzietan (% 3,2) banatzen da.


Emakumeek I+G arloko jardueretan duten paperak hazten jarraitzen du (2006an guztizkoaren % 32 baziren, 2007an % 33 dira), baina oraindik gizonezkoak baino gutxiago dira (% 33, % 66aren aldean). Estatu mailan, EInen arabera, emakumeak jende guztizkoaren % 38,9 dira.

Okupazioa aintzat hartuz gero (ikertzaileak, teknikariak edo langile laguntzaileak), ikus daiteke ikertzaile emakumeen proportzioa jardueren horietan lanean ari diren langile emakumeen gainean handiagoa dela ikertzaile gizonezkoen beren genero taldearen aldean. Gizonezkoen artean, I+G

jarduerak egiten dituztenen % 63 ikertzaileak dira eta emakumeen artean, aldez, portzentajea % 65,7ra igo da. Estatu mailan, ikertzaileak dira I+G jarduerak egiten dituzten emakumeen % 59,4, gizonezkoen % 62aren aldean.

Eremuka, EAEn emakumeak duen agerpen handiena hurrengoetan igartzen jarraitzen da: nekazal zientziak eta osasun zientziak. Horietan, I+G jardueretako langile guztien % 49,6 eta % 52,2 emakumeak dira hurrenez hurren.

I+G arloan dauden langileak, burutzapen sektorea gorabehera. 2005 eta 2006 artean, % 11,5 areagotu da, 22.595 pertsonara iritsiz. Enpresaren sektorea da langile gehienari lan ematen dion sektorea. Gauzak horrela, I+G arloan jarduerak egiten dituztene-

I.2.16. Grafikoa. Emakumeak I+G jardueretan, burutzapen sektorea gorabehera

Iturria: EUSTAT.

tatik % 50,5 enpresan kokatzen da (aurreko urtean % 49,2koa zen kopuru hori, eta aurrekoan % 48,4koa), % 28,3 goi mailako hezkuntza erakundeetan, % 15,5 zentro teknologikoetan (aurreko urtean portzentajea % 15,4koa zen eta urtebete lehenago berdina), eta % 5,6 Administrazio Publikoan.

EB-27n, EUROSTATen datuen arabera, 2006 urtean, dedikazio osoarekiko baliokidean neurtua, % 50 enpresaren sektorean ari da lanean, % 30 goi mailako hezkuntza erakundeetan eta % 15 Administrazioan.

EUSTATen datuen arabera, emakumeen proportzioa areagotu egin da % 31,9tik % 32,8ra igaroz 2006 eta 2007 artean. Eta, egia esan, hazi egiten da termino absolutuetan sektore bakoitzean.

Ikertzaile - laguntzeko langile (teknikari eta laguntzaileak) erlazioari dagokionez, hona hemen datuak: 83-17 Administrazioan; 89-11 Goi-mailako hezkuntzan; 49-51 enpresaren sektorean, eta 70-30 zentro teknologikoetan. Termino globaletan, hona hemen kopuruak: 66-34.

2.2.2. I+G+b jarduerak EAEko enpresen sektorean**Enpresa sare osoko I+G adierazleak, zentro teknologikoak kanpoan utzita**

EUSTATen datuen arabera, 2007an I+G jarduerak egin zituzten enpresak 1.255 izan ziren (aurreko urtean: 1.106). Horietatik 688 industriaren sektorekoak dira eta 527 zerbitzuen sektorekoa. Aldiz, aurreko urtean kasuan kasuko balioak 635 eta 405 izan ziren. Jarduera horietan dedikazio osoan lanean hartutako langileei dagokionez, % 9,2ko hazkundera egon da industrian eta % 13,5koa zerbitzuen sektorean.

I+G jardueretarako langile gehien jartzen dituzten sektoreak hauek dira: I+G jarduerak, sektorean lan egiten duten langileen % 25,5 jarduera horietan soilik jardunez; doitasun gaiak, % 9,5; material elektronikoa, % 8,8; makina erreminta, % 6,8 eta informatikako jarduerak % 5,6.

I+G jarduera adarra alde batera utzita, I+G jarduerak egitea jarduera nagusizatzen duten enpresen jarduna ere barne hartzen duena (hau da, ingeniariak eta teknologiko aholkularitzak), eta, beraz, gainerakoez ezberdina den profila, helburuak eta finantzazioa duena, ikus dezakegu, batez beste, euskal enpresen gastu horiek finantzatzeko jarraitzen dutela portzentaje altu batean enpresaren beraren funtsekin. Aitzitik, komeni da datu horiekin kontu izatea, izan ere, proiektu askoren finantzazioaren benetako jatorria zehaztea ez da posible. EUSTATen hitzetan, posible da enpresa batek beste baten lankidetzaren proiekturen batean, finantzazioaren jatorria publikoa izatea.

Industriak I+G arloan, eduki teknologikoaren arabera, egindako gastuaren azterketari dagokionez, II.2.1 Kapituluaren (Ekoizpen Egitura) aipatzen den moduan, atzerapausoa igarri da eduki teknologiko altu eta ertaineko sektoreetan, batez ere enpleguari dagokionez. Izan ere, balio sorrerako terminoetan, ez dago argi "saikatu gabeko" jarduerak areagotzeagatik.

Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da hainbat egile sektoreko saikapena bera nabartzen hasi direla, ELGAK erabilitako intentsitate teknologikoari jarraiki. Izan ere, ekoizpen jarduerak ezberdinek aurrerantz egiten dute, eta ez dira zenbait teknologiatan harrapatuta geratzen. Zientziak eta teknologiak ekoizpen

I.2.42. LAUKIA. ENPRESA KOPURUAREN ETA I+G ATALEKO LANGILEEN BILAKAERA (ZT gabe)

	Enpresa kop.					DOB langileak				
	2004	2005	2006	2007	Aldak. 2006-07	2004	2005	2006	2007	Aldak. 2006-07
Guztira	923	1.053	1.106	1.255	13,5	6.403,3	6.613,1	7.083,9	7.874,8	11,2
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, erauzketak eta energia	12	13	14	10	-28,6	72,8	64	57,6	66,3	15,1
Industria	554	613	635	688	8,3	3.911,3	4.058,4	4.035,9	4.407,1	9,2
Eraikuntza	19	22	20	30	50,0	29,2	34,3	37,2	50,3	35,2
Zerbitzuak	338	405	437	527	20,6	2.390,0	2.456,4	2.953,2	3.351	13,5

Iturria: EUSTAT. I+G jardueren buruzko estatistika.

1.2.43. LAUKIA. ENPRESA SEKTOREKO (ZT gabe) ADIERAZLEAK, JARDUERA ADARRA GORABEHERRA. I+G 2007

	Enpresa kop	DOB langileak	Barruko gastuaren banaketa		Berezko funtsen %a	Besteren funtsen %a	Enplegu osoa EAEn	EAEn I+Gn lan egiten duten langileen %a
			2006	2007				
Guztira	1.255	7.874,8	519.251	599.857	72,6	27,4	924.744	0,85
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, erauzketak eta energia	10	66,3	4.236	14.466	88,6	11,4	7.947	0,83
Industria	688	4.407,1	311.652	336.554	79,1	20,9	218.431	2,02
M-A Kimikoa eta petrolioaren finitza	48	335,8	19.844	20.534	66,6	33,4	6.528	5,14
M-B Kautxua eta plastikoa	46	175,8	12.688	11.181	84,8	15,2	17.932	0,98
M-B Industria ez metalikoa	15	58,4	2.592	4.998	93,5	6,5	6.617	0,88
M-B Metalurgia	45	179,3	25.133	19.754	88,2	11,8	22.549	0,80
M-B Artikulu metalikoak	146	577,1	35.970	37.509	86,8	13,2	54.759	1,05
M-A Makina erreminta	42	297,4	16.744	18.819	71,7	28,3	4.373	6,80
M-A Etxetresnak	7	83,4	19.461	6.358	71,5	28,5	5.928	1,41
M-A Bestelako makineria.	104	514,8	33.860	42.298	87,1	12,9	19.900	2,59
M-A Material elektrikoa	40	344,3	28.042	22.787	75,6	24,4	10.161	3,39
A Material elektronikoa	22	316,8	13.209	18.846	81,5	18,5	3.606	8,79
A Zehaztapen materiala	38	364,6	19.124	22.956	81,3	18,7	3.840	9,49
M-A Garraio materiala	43	589,6	73.702	76.495	69,0	31,0	19.414	3,04
Beste manufaktura batzuk	92	569,8	11.283	34.019	87,0	13,0	42.824	1,33
Eraikuntza	30	50,3	1.812	4.227	80,7	19,3	92.409	0,05
Zerbitzuak	527	3.351,0	201.551	244.610	62,6	37,4	605.957	0,55
A Informatikako jarduerak	125	740,2	32.497	39.804	68,2	31,8	13.133	5,64
A I+G jarduerak	71	1.195,6	80.382	95.194	55,5	44,5	4.687	25,51
Beste enpresa jarduerak batzuk	183	751,8	49.805	63.264	63,3	36,7	96.206	0,78
Beste zerbitzu batzuk	148	663,4	38.868	46.348	71,2	28,8	491.931	0,13

Iturria: EUSTAT. I+G jardueren buruzko estatistika.

sare osoan eta industria tradizionalen sektoreetan zehar hedatzen dira, adibidez ibilgailu eta makineriak geroz eta gehiago patentatzen dute elektronikaren sektorean; eta, orokorrean, teknologia baxukotzat sailkatutako sektoreak haien erabiltzaile nagusi bihurtzen dira, zientzian oinarritutako sektore bihurtuz. EUROSTATen datuen arabera, EB-27ko esportatutako high-tech produktuen portzentajea, esportazio guztien aldean, egonkor mantendu da % 17an, 1995 eta 2006 artean. Aitzitik, 2006an aldiko maila baxuenerako erorketa jazotzen da (% 16,6). Bestalde, aurrerago *Berrikuntza Indize Europarra* aztertzerakoan ikusiko dugun moduan, teknologia ertainaren eta altuaren esportazioen pisua nabarmenki adierazgarriagoa da EAEn EBN baino: esportazio guztien % 53,6 Euskadiren kasuan, eta % 48,1 Europar Batasunaren kasuan.

Enpresa sarearen berrikuntza

Osloko Gidaliburuaren hirugarren berrikuspenaren arabera (2006an argitaratua):

- Berrikuntza bat produktu (ondasun edo zerbitzu), prozesu, merkaturatzeko metodo berri edo antolamendu metodo berriren baten edo nabarmenki aldarazitako baten sarrera da enpresaren barruko praktikan, lantokiaren antolamenduan edo kanpo harremanetan.
- Bestalde, **jarduera berritzaileak** bat datoz berrikuntzak sartzaren helburura benetan eramaten duten edo hara

eramateko helburua duten zientzia, teknologia, antolamendu, finantza eta merkataritza eragiketa guztiek. Jarduera hauetako batzuk berritzaileak badira ere bere horretan, beste batzuk ez dira berriak baina beharrezkoak suertatzen dira berrikuntzak sartu ahal izateko. Berrikuntzako jarduerak berrikuntza zehatz baten sorrerarekin uztartzen ez diren I+G jarduerak ere sartzen dituzte.

- Berrikuntza mota guztietan ageri den ezaugarria da sartu egin behar izan direla. Produktu berri (edo hobetu) bat sartu dela esaten da merkaturatu denean. Prozesu bat, merkaturatzeko metodo bat edo antolamendu metodo bat sartu dela esaten da enpresaren eragiketen esparruan benetan erabili denean.
- **Enpresa berritzaile** bat inkestan aintzat hartutako aldiaren berrikuntza sartu duen enpresa bat da.
- Gerta daiteke inkestan aztertutako aldiaren zehar enpresa batzuk jarduerak berritzaileak garatzea, berrikuntza bat benetan sartu izan gabe. Berrikuntzen garapenean eta sarreraren esku hartzen duten jarduerak guztiak, ondoren sartzeko aurrekusi direnak barne, berrikuntzako jarduerak dira. Emandako aldiaren berrikuntza jarduerak hiru motatakoak izan daitezke:
 - Lortu direnak, berrikuntza sartzeko lortu zutelako (nahiz eta berrikuntzak ez duen zertan merkataritza arrakasta izan).
 - Garatzeko bidean daudenak, eta sartzaren fasea oraindik iritsi ez direnak.
 - Berrikuntza sartu aurretik bertan behera utzitakoak.

I.2.44. LAUKIA. SEKTOREEN ZERRENDA I+G ARLOAN DUTEN INTENTSITATEA GORABEHERA. EINen, ELGAre, EUROSTATen ZERRENDEN KONBINAZIOA

Altua	• Farmaziako industria • Bulegoko makineria eta informatikako materiala • Osagai elektronikoak • Irrati, telebista eta komunikazio gailuak • Osasunaren alorreko tresnak, zehaztasunekoak, optikoak eta ordulariak • Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala • Industria kimikoa farmazia industria izan ezik. • Makineria eta ekipok • Makineria eta gailu elektrikoak	Baxua	• Papera eta paper produktuak fabrikatzea eta argitalpen eta inprimatze jarduerak eta grabazioak egitekoak • Elikadura, edari eta tabako produktuak lantzea • Egurra ekoiztea eta egur eta kortxo produktuak fabrikatzea, altzariak izan ezik. • Lasto artikulua eta trentzatu daitezkeen materialekin eginikoak fabrikatzea. • Ehun, larru eta larru adoboko produktuak fabrikatzea, mailetak fabrikatzea. • Eskuko poltsak, gerriko artikulua eta larrutegia, eta oinetakoak • Altzariak fabrikatzea, isg manufaktura industriak, eta birziklapena
Ertain-altua	• Ibilgailuen industria • Itsasontzien, trenbideen, motorren eta bizikleten eta garraiorako beste material batzuen eraikuntza. • Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa • Kokea, petrolio fintzeko produktuak eta erregai nuklearra fabrikatzea • Itsasontziak eta bestelako ontziak eraiki eta konpontzea.	Teknologia altuko edo punta-puntako teknologikiak zerbitzuak	• Posta eta telekomunikazioak • Informatikako jarduerak • Ikerketa eta garapena
Ertain-baxua	• Metalarekin landutako produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipok salbu • Metal komunak fabrikatzea • Kautxu eta plastiko produktuak fabrikatzea		

Iturria: EIN (Metodologia).

- **Jarduera berritzaileak dituen enpresa** bat inkestan aztertutako aldiaren zehar berrikuntza jarduerak garatzen dituen enpresa bat da, garatzeko bidean dauden berrikuntzak eta bertan behera utzitakoak dituzten enpresak barne hartuz. Beste era batera esatearren, "jarduera berritzaileak dituzten enpresak" bezala hartutako aldiaren zehar berrikuntzako jarduerak garatzen dituzten enpresa guztiak, jarduerak berrikuntza bat sartzea ekarri duen edo ez alde batera utzita.

EINen eta EUSTATEN arabera, metodologiaren aldetik zera aintzat hartu behar da:

- **Enpresa berritzaileen** (merkatuan produktu edo prozesu berriak edo hobetuak sartzen dituztenak) **eta berrikuntza teknologikorako jarduerak dituzten enpresen artean dagoen aldea.**

Berrikuntza teknologikorako jarduerak dira lan zientifikoen, teknologikoen, antolamenduko, finantzarioen eta merkataritzako multzoa, ezagutza berrietan egindako inbertsioa barne hartuz. Horiek teknologikoki berriak diren edo hobeturi dauden produktuak edo prozesuak egitea eramaten dute edo eraman nahi dute. Horien artean, hurrengo zazpiak aintzat hartzen dira: Barruko I+G; I+G erostea (edo kanpoko I+G), makineria eta ekipamendua erostea; kanpoko beste ezagu-

tza batzuk erostea lizentzia, patente eta copyright moduan; prestakuntza; merkaturaren berrikuntzak sartzea eta diseinua; ekoizpenerako edota banaketarako beste prestaketa batzuk.

- **Berrikuntzari** buruz hitz egiten denean, hau hurrengoetan zatitu ohi da: **Produktukoa, prozesukoa, martxan edo bertan behera eratutakoa.** Baina **enpresa berritzaileei** buruz hitz egiten dugunean, **produktu edo prozesu berrikuntzak dituzten enpresei** buruz ari gara bakarrik, eta ez martxan edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituztenei buruz.

Laugarren eta azken Community Innovation Survey delakoaren datuen arabera, CIS (2006), EB-27n (Frantzia kanpo utzita), industriako enpresa guztien % 41,2 eta zerbitzuen sektoreko % 36 aktiboak izan ziren berrikuntzan. Lider Alemania da, hantortzentajeak % 70 eta 56,6koak baitira. Ez EINek, ez EUSTATEk, ez dute informaziorik argitaratzen EAEn jarduera berritzaileak dituzten enpresen portzentajeari buruz, bai, ordea, gai horretan egiten den gastuari buruz, datozen lerroetan jakinaraziko dugun moduan.

EINen Berrikuntza Teknologikoko Inkestako datuen arabera¹⁰, berrikuntza teknologikoko jardueretan gastu gehien egiten duten AAEak hauek izaten jarraitzen dute: Madril (guztiaren %

¹⁰ Industriaren, eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreko 9 soldatapeko baina gehiagoko enpresa laginari zuzendutako azterlan da. Berrikuntza modura, nekazaritzaren, abeltzaintzaren, ehizaren, basozaintzaren eta arrantzaren adarraren azterketa sartu zen 2006an. Inkestak ez zuen 2005era arte Hezkuntzaren adarra hartzen, eta urte horretatik aurrera Hezkuntzaren adarreko enpresak sartzen dira (80. atala, CNAE-93ren arabera). Salbuespena 8030 adarreko enpresak dira (Goi mailako irakaskuntza). Aldiz, EUSTATEk hezkuntzaren sektore osoa sartu izan ohi du. Ondorioz, 2005 urtera arte, EINen Estatistikarekin alderatzeko garaian distortsio elementu garrantzitsua zen. Hori 2005ean zuzendu bazen ere, ez da erabateko zuzenketa, ez baita sartzen 8030 adarra. Bestalde, 2006 urtean, EINek, berrikuntza modura, nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basozaintza eta arrantzaren adarraren azterketa jaso zuen, EUSTATEk ez bezala.

1.2.45. LAUKIA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTUA

	2004		2005		2006		2007	
	Gastua (% bertikala)	BPGaren gaineko gastua	Gastua (% bertikala)	BPGaren gaineko gastua	Gastua (% bertikala)	BPGaren gaineko gastua	Gastua (% bertikala)	BPGaren gaineko gastua
Guztira	2.010.243 (100)	3,8	2.161.666 (100)	3,8	2.353.019 (100)	3,8	2.609.914 (100)	4,0
Barruko I+G	38,3	1,4	38,4	1,4	38,6	1,5	41,8	1,7
Kanpoko I+G	11,4	0,4	13,5	0,5	15,6	0,6	13,7	0,5
Makineria	39,6	1,5	38,4	1,4	37,4	1,4	34,0	1,3
Bestelako ezagutzak	2,8	0,1	3,3	0,1	2,8	0,1	2,9	0,1
Prestakuntza	2,1	0,1	1,7	0,1	1,3	0,0	1,1	0,0
Merkaturatzea	1,7	0,1	2,7	0,1	2,9	0,1	4,4	0,2
Diseinua eta prestakuntzak	2,7	0,1	1,9	0,1	1,4	0,1	2,1	0,1

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza Teknologikoko Inkesta.

31,9), Katalunia (guztiaren % 21,7) eta EAE (guztiaren % 9,7). Eta gastu horretan hazkunde gehien ikusi dutenak 2006 eta 2007 artean Murtzia, Gaztela eta Leon eta Andaluzia izan dira.

EUSTATEN Berrikuntza Teknologikoko Inkestako datuen arabera¹¹, berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastu osoa % 10,9 areagotu da aurreko aldiaren aldean, 2007an 2.610 milioi eurora iritsiz. Gastu horrek BPGaren % 4 hartzen du (2006an % 3,8 izan zen), eta horrek aurreko urteetan igarritako egonkortasun joera apurtzen du. Beste urtebetez ere, gastu horren zati handiena barruko I+G arloari eta makineria eta ekipoa erosteari dagokio (% 41,8 eta 34 hurrenez hurren), BPGaren % 1,7 eta 1,3 hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da barruko I+G arloan esfortzu gehiago pilatu dela (BPGaren % 1,5etik 1,7ra igarotzen da), kanpoko I+G arloaren kaltetan (BPGaren % 0,6tik 0,5era igarotzen da) edo makineria erostearen kaltetan (% 1,4tik 1,3ra igaroz).

Jarduera adarren arabera, industriaren barruan gastua hurrengoetan pilatzen da: *garraio materialean*, gastuaren % 14arekin (kopuru osoaren gaineko pisua mantenduz); *metalurgia eta salgai metalikoetan*, gastuaren % 8,2arekin baina guztizkoaren gaineko pisua murriztuz; *makinerian*, gastuaren % 5,6arekin, eta, baita ere, kopuru osoaren gaineko pisua jaitziz; eta *material elektrikoan*, % 4,2arekin eta *kopuru osoaren gaineko pisua areagotuz*.

Lehenengo bietan gastuaren zati handiena makineria erosteko erabiltzen den arren, hurrengo bietan gastu handiena barruko I+G arloko gastua da.

Bestalde, zerbitzuen sektorean, azpimarragarria da enpresentzako zerbitzuen adarra, gastuaren % 25,3arekin. Bertan, gastu

osoaren % 78,1 barruko I+G arlokoa da. Halaber, deigarria da bankuen eta aseguruaren sektoreak kopuru osoaren aldean hartutako pisua, % 1,9tik % 7,5era igaroz.

Aurreko urteetan ikusitako joerekin bat eginez, gastuak gora egin zuen enpresaren tamainak gora egitean, baina ikusi da 3 eta 9 enplegu arteko enpresak bereziki aktiboak direla eta 10 eta 19 eta 50 eta 99 artekoak ez direla horrenbeste.

EINEK horri buruz emandako informazioak banaketa maila ezberdina erabiltzen du (250 langiletik beherako enpresak eta 250 langile eta gehiagoko enpresak), eta, hori oinarri hartuta, ikus aditeke EAEn ETEen gastuan izandako parte-hartzea 250 langiletik gorako enpresen parte-hartzea baino altuagoa izan dela. Bestalde, Estatuan, 2006 arte, altuagoa zen 250 langiletik gorako enpresen gastuan zuten parte-hartzea (eta, gainera, goranzko joerarekin). 2007an, ordea, aldaketa igarri da joera horretan.

Jarduera berritzaileak egiten dituzten enpresa guztiek ez dituzte produktu berriak edo nabarmenki hobetutako daudenak merkaturatu sartzen. CIS 2006aren arabera, EB-27an, produktu berriak edo hobetutakoak sartzen dituzten 9 langiletik gorako enpresak jarduera berritzaileak dituzten enpresen % 32,6 dira (% 34 industrian eta % 30,3 zerbitzuetan). Eslovenia (% 51,1), Suedia (% 51,3) eta Luxenburgoko (% 58,9) dira portzentajea % 50aren gainetik duten herrialde bakarrak. Estatu espainiarren kasurako ratioa % 18,3an kokatzen da iturri berdinen arabera.

EINen datuen arabera, 2005-07 aldian, 9 enplegutik gorako Estatuko enpresen % 23,5 berritzaileak dira produktuan edo prozesuan, eta EAEn portzentajea % 31,8eraino iristen da, EAEn

¹¹ Edozein tamaina eta jarduera sektoreko euskal enpresei zuzendua, lehen mailari, administrazio publikoari eta etxeko zerbitzuari salbu (ikus nola EINEK ez bezala, honek hezkuntza osoa hartzen duen). Beste era batera esanda, populazio esparrua hau da: Edozein tamainako establezimenduak eta hurrengo jarduera sektorekoak CNAE-93 Rev. Iaren arabera: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, hurrengoak kanpoan geratzen dira: Lehen sektorea (A eta B), administrazio publikoa (L) eta etxeko zerbitzua (P).

I.2.46. LAUKIA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTUA, JARDUERAREN ADARRA, TAMAINA ETA JARDUERA MOTA GORABEHERA. 2007

	GUZTIRA 2006	GUZTIRA 2007		Barruko I+G	Kanpoko I+G	Makineria	Bestelako ezagutzak	Presta- kuntza	Merkatura- tzea	Diseinua eta presta- kuntzak
	% bertikala	milakoetan	% bertikala							
Guztira	2.353.019,2	2.609.914	100,0	41,8	13,7	34,0	2,9	1,1	4,4	2,1
Industria	49,6	1.220.787,4	46,8	29,9	20,9	39,3	3,9	0,8	2,4	2,7
5. Elikagaien industria	1,7	91.945,2	3,5	4,4	1,6	54,4	18,3	0,6	17,1	3,5
6. Ehunak eta jantzigintza	0,0	1.461,4	0,1	62,7	9,9	25,2	0,0	0,2	0,8	1,2
7. Egurraren industria	1,2	17.318,6	0,7	5,5	2,2	85,2	0,0	0,1	6,7	0,3
9. Papera, edizioa eta grafikak	1,6	38.525,8	1,5	1,7	1,9	89,4	0,5	0,4	0,0	6,1
11. Industria kimikoa	1,5	43.128,2	1,7	61,4	26,6	7,3	0,0	1,0	1,8	1,9
12. Kautxua eta plastikoa	1,3	30.956,9	1,2	44,1	18,9	34,8	0,0	0,5	0,5	1,2
13. Industria ez metalikoa	0,8	12.627,9	0,5	61,5	17,1	11,3	1,1	2,4	6,1	0,4
14. Metalurgia eta metalezko art.	9,8	214.999,7	8,2	25,8	21,4	46,1	0,2	0,6	0,4	5,5
15. Makineria	6,1	146.750,8	5,6	63,1	14,4	12,8	2,9	2,5	1,8	2,4
16. Material elektrikoa	4,1	110.399,1	4,2	59,1	28,5	4,9	0,5	1,0	2,9	3,0
17. Garraio materiala	14,0	364.328,2	14,0	22,0	16,2	59,9	0,0	0,4	0,3	1,3
18. Bestelako manufaktura batzuk	0,9	34.599,5	1,3	22,9	3,8	54,4	0,3	1,0	9,3	8,2
Bestelako industriak	6,6	113.746,0	4,4	7,6	65,4	4,4	22,1	0,0	0,0	0,3
Eraikuntza	2,3	26.618,2	1,0	4,4	28,9	61,3	0,6	1,5	0,4	3,0
Zerbitzuak	48,0	1.362.508,4	52,2	53,2	7,0	28,6	2,1	1,5	6,2	1,6
21. Dendak eta konponketak	6,8	201.419,7	7,7	8,5	3,1	48,6	6,0	3,3	30,4	0,1
22. Ostalaritza	0,4	2.357,6	0,1	0,4	3,6	91,7	0,4	2,4	1,5	0,0
23. Garraioak eta komunikazioak	2,4	42.662,3	1,6	22,3	19,1	47,8	2,6	1,0	0,5	6,8
24. Bankua eta aseguruak	1,9	195.901,5	7,5	8,7	4,9	75,0	2,9	1,2	3,5	3,7
25. Zerbitzuak enpresentzat	23,7	659.798,6	25,3	78,1	9,6	6,6	1,3	0,9	2,2	1,4
27. Hezkuntza	9,4	175.912,1	6,7	90,4	1,6	4,6	0,3	1,8	0,4	0,9
28. Osasuna eta gizarte zerbitzuak	2,6	73.322,8	2,8	6,2	3,0	87,7	0,4	1,5	0,3	1,0
29. Zerbitzu pertsonalak	0,7	11.133,7	0,4	19,5	21,8	57,7	0,2	0,3	0,5	0,1
Enplegu mailak										
Otik 2ra	6,3	233.050,9	8,9	3,0	0,9	94,3	0,1	0,8	0,8	0,1
3tik 9ra	15,9	346.819,9	13,3	28,4	25,9	29,8	1,2	0,9	10,9	2,9
10etik 19ra	7,8	166.654,7	6,4	41,4	17,2	30,6	5,0	1,0	3,4	1,4
20tik 49ra	14,4	382.934,4	14,7	52,6	9,8	20,0	1,2	2,6	9,9	3,9
50etik 99ra	9,4	217.861,4	8,3	58,5	17,2	16,5	2,8	1,9	1,3	1,8
100 eta gehiagokoak	46,2	1.262.592,6	48,4	46,5	12,9	31,6	4,1	0,7	2,2	1,9

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoko Inkesta.

Estatuan baino ehuneko 8,31 puntu gehiago edukiz. Aurreko aldian, 2004-06, berritzaileak izan ziren Estatuan 9 enplegutik gorako enpresen % 25,3 eta EAEn % 27,7. Ondorioz, enpresa berritzaileen portzentajea areagotu egin da gure Erkidegoan eta murritzu egin da Estatuan.

EUSTATEN datuen arabera, berrikuntzarako jardueretan egindako gastua areagotu egiten den bitartean, enpresa berritzaileek (pro-

duktuan edota prozesuan) enpresa guztien aldean hartzen duten portzentajeak beheranzko joera du 2003tik, hain zuzen ere % 16,5etik 16,1era. Berrikuntzak martxan edota bertan behera utzita dituzten enpresak sartzen badira (EBEak: Enpresa berritzaileak edo martxan dauden berrikuntzak dituztenak edo bertan behera utzi dituztenak), portzentajea areagotu egiten da pixka bat, nola-baiteko egonkortasuna mantenduz, % 17aren inguruan.

I.2.47. LAUKIA. JARDUERA BERRITZAILEETAN EGINDAKO GASTU OSOAREN BANAKETA, ENPRESAREN TAMAINA GORABEHERA (portzentaje bertikalak)

	2004		2005		2006		2007	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Guztia (milaka eurotan)	12.490.813	1.186.154	13.635.950	1.348.099	16.533.416	1.558.139	18.094.616	1.754.758
250 langiletik behera	44,6	50,8	40,4	52,8	39,9	49,5	44,7	59,3
250 langile eta gehiago	55,4	49,2	59,6	47,2	60,1	50,5	55,3	40,7

Iturria: EIN.

I.2.48. LAUKIA. ENPRESA BERRITZAILEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ENPRESA GUZTIEN GAINEAN

	2001-03	2002-04	2003-05	2004-06	2005-07
Enpresa berritzaileak guztira (produktu eta prozesu berrikuntzekin)	16,5	16,8	16,9	16,6	16,1
EBEak guztira (produktu edo prozesu berrikuntzekin, martxan edo aurrera aterata ez direnak).	—	17,4	17,1	17,1	17
9 enplegu (produktuan eta prozesuan) baino gehiagoko enpresa berritzaileak	32,1	31,9	33,3	32,7	32
9 enplegu baino gehiagoko EBEak guztira (produktu edo prozesu berrikuntzekin, martxan edo aurrera aterata ez direnak).	—	34,7	35,2	34,5	34,6

EBEak: enpresa berritzaileak edo martxan berrikuntzak dituztenak edo arrakastarik gabeko berrikuntzak saiatu dituztenak.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoko Inkesta.

9 langiletik gorako enpresa berritzaileak bakarrik aintzat hartuz gero, enpresa berritzaileen portzentaje orokorrak % 32 hartzen du (% 32,7 aurreko aldian). 9 enplegutik gorako EBEen kasuan, portzentajea % 34,6raino eramaten da (% 34,5 aurreko aldian).

Sektoreen ikuspegitik begiratzuz gero, berritzaileak dira zerbitzu enpresen % 18,6 eta industriaren sektorekoen artean % 18,4. Hala eta guztiz ere, tamaina handiagoko enpresez ari garenean, industriakoak dira berritzaileen bezala ageri direnak: % 35,5, zerbitzuen sektorean erregistratzen den % 34aren aldean.

Jarduera azpisektoreka hurrengoak ageri dira nabarmen industriaren: Industria kimikoa (sektoreko enpresen % 50,4 berritzaileak dira), makineria (% 37,5) eta egurraren industria (% 22,1). Zerbitzuetan: Banku eta aseguruak (% 56,3), hezkuntza (% 36,6) eta osasuna (% 26,7).

Berrikuntza teknologikoaren motaren arabera bereizketak eginez gero, berriro ere nagusi dira prozesuko berrikuntzak, produktuko aldean, bai 9 enplegutik gorako establezimenduetan, bai 9tik beherakoetan. Zehazki, enpresa guztien ondoan, berrikuntzak egin dituztela esaten dutenen portzentajea % 14,5koa da (% 15,1 aurreko aldian), produktuko berrikuntzak egiten dituztenen portzentajea % 5,5koa besterik ez den bitartean (% 5,8 aurreko aldian). 9 enplegutik gorako establezi-

menduetako portzentajeak altuagoak dira, baina prozesuko berrikuntzaren lidergoa mantendu egiten da produktuaren berrikuntzaren aurretik: % 26,9 prozesuko berrikuntzen kasuan eta % 14,1 produktuarenean (% 27,9 eta % 14,4 hurrenez hurren, aurreko aldian).

Bestalde, enpresa berritzaileetan, negozio kopuruen % 25,2 beren produktu berritzaileetatik dator, eta, aldez, eraldatu gabeko edo aldaketa txikiren bat jasandako produktuak gainerako % 74,8 dira. Produktu horiek egiten dituen enpresarentzat ez ezik merkaturako ere berritzaileak badira, batez besteko inpaktu ekonomikoa haren negozio kopuruen % 12,1koa izaten da. 9 langiletik gorako enpresen kasuan, portzentaje horiek aldatu egiten dira pixka bat, % 22,4 bihurtuz produktu berriek edo nabarmenki hobeturiokoei dute entzutea negozio kopuruen gainean. Produktua, gainera, berria bada merkatuentzat, batez besteko inpaktu ekonomikoa % 8,7koa da. Jarduera sektoreen arabera, berrikuntzak gehien eragindako sektorea zerbitzuena da.

Kanpoko finantzazioari dagokionez, EUSTATEN datuen arabera, finantzazio publikoa eskuratu duten enpresa berritzaileen portzentajea egonkor mantendu da, % 27,7aren inguruan 2005-07an. Laguntzen jatorria gorabehera, establezimendu kopuru altuagoa babesten duen administrazioa Eusko Jaurlaritzak da,

I.2.49. LAUKIA. ENPRESA BERRITZAILEEN %A. JARDUERA ADARRAREN ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKO MOTAREN ARABERA. 2005-07

	Enpresak guztira						9 enplegutik gorako enpresak					
	Berrikuntza teknologiko mota					Enpresa berritzaileak	Berrikuntza teknologiko mota					Enpresa berritzaileak
	EBEak guztira	Produk-tukoa	Proze-sukoa	Martxan	Kale egind.		EBEak guztira	Produk-tukoa	Proze-sukoa	Martxan	Kale egind.	
Guztira	17,0	5,5	14,5	3,3	1,1	16,1	34,6	14,1	26,9	12,6	3,3	32,0
Industria	20,1	13,7	12,4	10,9	3,6	18,4	39,2	22,9	24,9	21,7	6,9	35,5
5. Elikagaien industria	18,3	16,4	10,0	8,7	7,6	18,0	31,4	20,7	21,0	14,0	7,4	29,7
6. Ehunak eta jantzigintza	4,1	1,7	3,2	0,8	0,3	3,6	32,1	19,9	22,9	9,2	3,8	26,4
7. Egurraren industria	22,1	11,0	13,3	2,3	0,6	22,1	43,7	21,7	38,7	17,4	4,9	43,7
9. Papera, edizioa eta grafikak	13,1	10,7	12,2	0,5	0,2	12,7	21,1	4,6	16,0	3,2	0,4	18,4
11. Industria kimikoa	62,5	40,3	34,2	46,6	23,9	50,4	67,8	42,6	37,9	42,8	23,3	56,8
12. Kautxua eta plastikoa	22,6	14,6	16,3	13,6	7,8	20,0	43,3	23,1	27,4	20,6	5,7	36,7
13. Industria ez metalikoa	14,4	8,0	5,0	8,5	2,4	8,3	46,9	26,2	16,3	27,6	7,7	26,9
14. Metalurgia eta metalezko art.	15,6	9,1	13,6	9,1	1,1	15,2	31,7	13,2	25,6	13,0	2,8	30,5
15. Makineria	39,3	30,8	19,5	25,9	7,6	37,5	53,1	46,2	21,8	46,6	14,4	49,6
16. Material elektrikoa	25,7	13,1	8,3	18,3	6,8	17,2	49,3	33,2	23,4	35,7	8,6	42,7
17. Garraio materiala	26,3	17,7	15,1	21,0	12,1	23,2	38,4	26,0	29,2	28,5	14,8	34,2
18. Bestelako manufaktura batzuk	21,5	18,8	7,6	13,6	1,1	20,7	58,5	37,8	36,1	21,4	8,2	51,6
Bestelako industriak	20,7	8,0	11,2	12,9	5,5	13,6	29,9	11,4	12,2	21,9	11,5	22,4
Eraikuntza	1,1	0,3	0,9	0,3	—	0,9	16,7	2,9	14,3	5,0	—	14,3
Zerbitzuak	19,6	5,7	17,2	3,0	1,0	18,6	36,0	12,0	30,5	9,7	2,3	34,0
21. Dendak eta konponketak	14,7	3,7	13,4	2,4	2,2	14,6	28,3	12,0	22,9	6,8	2,5	26,5
22. Ostalaritza	6,4	0,1	6,3	0,0	—	6,4	24,6	1,6	23,2	0,8	—	24,4
23. Garraioak eta komunikazioak	25,7	2,1	23,9	2,0	0,1	24,3	26,0	8,9	22,3	6,9	1,4	25,6
24. Bankua eta aseguruak	56,3	51,5	56,2	21,6	0,0	56,3	84,6	67,8	81,6	36,5	0,4	84,6
25. Zerbitzuak enpresentzat	21,9	5,8	17,1	4,4	0,9	18,9	27,8	14,7	14,7	17,4	4,8	22,8
27. Hezkuntza	37,0	3,0	36,2	3,0	0,6	36,6	67,8	12,2	64,5	12,2	2,4	66,2
28. Osasuna eta gizarte zerbitzuak	26,7	10,8	19,3	0,2	0,1	26,7	25,2	2,9	23,9	2,8	1,3	25,0
29. Zerbitzu pertsonalak	13,6	2,9	13,1	0,4	—	13,2	38,6	4,3	35,4	3,0	—	36,3

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoko Inkesta.

haren pisua foru aldundiak eta EB bezalako beste iturri batzuenagatik murrizten ari bada ere.

Azkenik, aipatzekoa da 2004-2006 eta 2005-07 aldian murriztu egin dela patente eskaeren eta indarreko patenteen kopurua, eta hori hala dela bai enpresa berritzaileen mul-

tzoan, bai tamaina handienekoan (10 enplegu edo gehiago). Gauzak horrela, 2005-07 aldian, asmakuntzak edo beren establizimenduan garatutako berrikuntzak babesteko patenteren bat eskatu zuten enpresen portzentajea 1,4an kokatu zen, eta 2007aren amaieran indarrean patenteren bat zutenak % 1,9

I.2.50. LAUKIA. PRODUKTU BERRIKUNTZEN NEGOZIO KOPURUEN GAINKO INPAKTUA

	Guztira produktu berrikuntza duten establezimenduak		10 langile eta gehiagoko establezimenduetan, eta produktu berrikuntzarekin	
	Establezimenduarentzako produktu berriaren arabera	Merkatuarentzako produktu berriaren arabera	Establezimenduarentzako produktu berriaren arabera	Merkatuarentzako produktu berriaren arabera
Guztira 2003-05	22	14,8	20,4	7,9
Guztira 2004-06	25,3	13,6	23,7	8,7
Guztira 2005-07	25,2	12,1	22,4	8,7
Industria	19,4	8,3	23	7,9
Eraikuntza	18,3	3,5	9,5	0
Zerbitzuak	26,7	13,1	22,4	10

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoko Inkesta - BTI.

I.2.51. LAUKIA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA FINANTZAZIO PUBLIKOA DUTEN ESTABLEZIMENDUAK

	Guztira	Tokiko Adm.	Foru Aldundiak	Eusko Jaurlaritza	Adm. nagusia	Europar Batasuna
2001-2003	36,8	3,6	10,1	29,2	2,4	2,1
2002-2004	29,8	3,1	11,1	24,0	5,6	3,4
2003-2005	27,9	3,3	9,1	22,0	4,8	3,9
2004-2005	27,6	5,3	8,2	20,3	3,1	5,8
2005-2007	27,7	1,6	10,9	15,8	3,3	6,5

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoko Inkesta - BTI.

I.2.52. LAUKIA. ESTABLEZIMENDU BERRITZAILEAK ETA PATENTE BIDEZKO BABESA (establezimenduen %a)

	Enpresa berritzaileak guztira		10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileak	
	Patentea eskatzen duten enpresen %a	Aldiaren amaieran indarrean zegoen patentea zuten enpresen %a	Patentea eskatzen duten enpresen %a	Aldiaren amaieran indarrean zegoen patentea zuten enpresen %a
2002-2004	2,7	3,4	7,4	12,4
2003-2005	1,3	1,5	6,3	8,5
2004-2006	1,5	2,5	6,6	10,9
2005-2007	1,4	1,9	5,3	7,5

Unitatea: establezimendu portzentajea.

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoko Inkesta - BTI.

ziren. Aurreko aldiari, horiei dagozkien portzentajeak 1,5 eta 2,5 izan ziren.

10 enplegu edo gehiagoko enpresa berritzaileen taldea aintzat hartuz gero, portzentajeak altuagoak dira, baina murriztapenerako joera mantendu egiten da.

Hala eta guztiz ere, komenigarria da jarduera sektorearen arabera dauden aldeak aintzat hartzea. Gauzak horrela, industriaren sektorean, aintzat hartutako aldiari, patentea eskatu duten industriako enpresen portzentajea % 12,2raino iritsi da, eraikuntzaren % 3,2aren eta zerbitzuen % 0,3aren aldean. Bestalde, aztertutako aldiaren amaieran indarrean zegoen

patentea zuten enpresei dagokienez, portzentajeak hauek izan ziren hurrenez hurren: % 15,8, % 3,2 eta % 0,5. Tamaina handiagoko enpresa multzoa aintzat hartuz gero (10 enplegu edo gehiago), portzentajeak altuagoak dira baina aldeak industriaren sektorearen alde mantentzen dira.

Berrikuntzaren Indize Europar Berria

Berrikuntzaren Indize Europarrak (European Innovation Scoreboard) neurtu egiten du herrialdeen ekonomiek berrikuntzako jardueretarako duten gaitasuna eta horiek zein neurritan garatzen dituzten.

Berrikuntza Adierazleen Ohola berriak (EIS 2008) aldaketa metodologiko nabarmena jasan du, eta horrek galarazi egiten du aurreko edizioekiko alderaketa egitea.

EBko kide diren 27 herrialdeekin gehi Kroazia, Turkia, Islandia, Norvegia eta Suitzarekin kalkulatu da, eta xedetzat herrialde hauek sailkatzea du, beren ekonomiek berrikuntzako jardueretarako duten gaitasuna eta horiek zein neurritan garatzen dituzten aztertuz. 3 bloke nagusitan egituratu da, eta horiek berrikuntzako 7 dimentsio ezberdin garatzen dituzte, guztira berrikuntzako 29 adierazlerentzat.

- Berrikuntzako “gaikuntzaren” blokeak “giza baliabideak” eta “Finantzazioa eta Laguntza” dimentsioak hartzen ditu. 9 adierazle ditu.
- “Enpresako jarduerak” blokeak 3 dimentsio ditu: “Enpresako inbertsioak”, “Enpresako loturak eta ekimena” eta “Etekinak”. 11 adierazle biltzen ditu.
- “Produktibitateen” blokeak “Berritzaileak” eta “Eragin ekonomikoak” dimentsioak biltzen ditu. 9 adierazle hartzen ditu.

Bloke eta dimentsio bakoitzerako, nahiz indize orokorrerako, adierazle sintetiko bat kalkulatu da, haren balioa 0 eta 1 artean kokatzen denerako. Herrialde guztientzako metodologia berdina erabiltzen da. Gainera, adierazle bakoitzak urte berdina hartzen du erreferentzia gisa herrialde guztietan.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2008an EAE 11. postuan kokatu zen EB-27ren multzoan, 0,49ko puntuazioarekin. Kopuru hori EB-27ren batez bestekoaren gainetik kokatzen da, batez bestekoa 0,48n kokatu baitzen.

EB-27ko herrialdeak lau kategoriatan multzokatzen dira, eskuratuak puntuazioa aintzat hartuta. Lehenengoan, “berrikuntzan lider diren herrialdeetan”, Suedia dago 0,64erkin, Finlandia 0,61ekin, Alemania 0,58rekin, Danimarka 0,57rekin eta Erresuma Batua 0,55ekin. Europar Batasuneko izan edo ez aintzat hartu gabe, Suitza ere kokatuko litzateke talde horren barruan, 0,68arekin.

Bigarren talde bat, “berrikuntza altuko herrialdeak”, alegia, 0,49 eta 0,53 arteko puntuazioekin, hau da, batez besteko europarraren gainetik, hauek eratu dute: Austria, Irlanda, Luxenburgo, Belgika, Frantzia eta Herbehereak. Talde honen barruan kokatuko litzateke EAE.

Hirugarren taldean, “berrikuntza arineko herrialdeak”, hurrengoak daude: Zipre, Estonia, Eslovenia, txekiar Errepublika, Espainia, Portugal, Grezia eta Italia. Eta laugarrenean, aldiz, “berrikuntza gutxiko herrialdeetan”, alegia, hauek: Malta, Hungaria, Eslovakia, Polonia, Lituania, Errumania, Letonia eta Bulgaria.

Europako batez bestekoari dagokionez, EAE dimentsio haueetatik hirutan da nagusi: Giza Baliabideak, Enpresa loturak eta ekimena eta Eragin ekonomikoak. Gainerako dimentsioetan, eskuratutako puntuazioa EBN lortutakoa baino baxuagoa da. Bestalde, 2006ko EAEko Memoria Sozioekonomikoan islatu zen moduan, berrikuntzako zazpi adierazleren azpimultzoa erabilita, Maastricht Economic Research Institute of Innovation and Technology eta Europako Batzordeak berrikuntzaren beste adierazle sintetiko bat landu zuten lurraldeka. Aztertutako 203

lurralde europarretatik, EAE 55. postuan kokatzen zen urte hartan, Madrilgo Erkidegoa 31.ean, Nafarroa 76.ean eta Katalunia 82.ean. Stockholm eta Västsverige lurraldeak Suedian eta Oberbayen Alemanian dira aipatutako ranking horren buruan ageri direnak.

Giza baliabideen dimentsioak kualifikazio eta hezkuntza altuko pertsonen disponibilitatea harrapatzen du, berrikuntzarako funtsezko datu gisa.

- 20 eta 29 urte arteko milako 47,9 Zientzia eta Ingeniari-tzetako eta Gizarte Zientzia eta Giza Zientzietako ikasketetan lizentziatu dira, Europako tasak milako 40,3 hartzen duen bitartean.
- Goi mailako hezkuntza duen biztanle portzentajea (Unibertsitate mailakoa edo Goi-mailako Lanbide Heziketakoa), 25 eta 64 urte artean dagoena, % 42,5ekoa da, Erkidegoko batez bestekoaren, % 23,5, ia kopuru bikoitza.
- 25 eta 64 urte arteko biztanleen % 13,2ak prestakuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzen du, European kopuru hori % 9,7koa den bitartean.
- Gutxienez bigarren hezkuntza amaitu duen 20 eta 24 urte arteko biztanleria, % 79,7, batez besteko europarraren (% 78,1) gainetik kokatzen da pixka bat.

Enpresa loturak eta ekimena dimentsioak agerian uzten du enpresek laguntzarako egindako esfortzuak eta lankidetzari emandako garrantzia, bai enpresa berritzaileen artean, bai sektore publikoarekiko.

- Enpresak berritzeko portzentajea azpimarragarria da: % 12,4, European lortzen den % 5,1aren aldean. Aldiz, berrikuntzan laguntzen duten ETE berritzaileen portzentajea pixka bat baxuagoa da, % 8,2 Erkidegoan, batez besteko europarraren % 9,4aren aldean.

Eragin ekonomikoak dimentsioak berrikuntza jardueren enpleguari, esportazioei eta salmentei ekarritako arrakasta ekonomikoa integratzen du.

- Ezagutza maila altuko zerbitzu sektoreetan lanean hartutako langileak enplegu osoaren % 19,3 dira, Europako % 14,5aren aldean.
- Teknologia ertain-altuko eta altuko eskulan sektoreetako enplegua guztia % 8,8 da, erkidegoko batez besteko % 6,7aren aldean.
- Teknologia ertainaren eta altuaren esportazioak esportazio guztien aldean % 53,6koak dira, hau da, Europar Batasunean (% 48,1) baino ehuneko 5,5 puntu gehiago.
- Produktuko berrikuntzek negozio kopuruaren gainean duten inpaktu ekonomikoa % 15,4koa da EAEen, Europako batez besteko % 14,9aren aldean.

Gainerako dimentsioetan eskuratutako puntuazioa batez besteko europarra baino baxuagoa bada ere, aipatzekoak dira EAEk antzeko emaitzak edota emaitza hobeak eskuratzen dituen adierazle batzuk, EBrekin alderatzerakoan.

- Banda zabala erabiltzeko aukera duen 10 langile edo gehiagoko enpresa portzentajea altuagoa da (% 87,4) European eskuratutako % 77,0ko portzentajea baino.

- Berrikuntza teknologikoren bat garatu duten ETEak % 30,5 dira, EBko % 33,7aren aldean.
 - Berrikuntzagatiko baliabide eraginkortasunak esan nahi du enpresa berritzaileen % 19,6ak langile kostuak murrizten dituela eta % 9,4ak material eta energia kontsumoa murrizten duela, Europar portzentaje horiek % 18,0 eta % 9,6koak diren bitartean, hurrenez hurren.
 - BPG gainerako I+G arloko gastu publikoa baxuagoa da Autonomia Erkidegoan, % 0,31, Europar baino, % 0,65. Gastu pribatua altuagoa da, EAEn % 1,34 lortuz, EB-27ko % 1,17aren aldean.
- Alderdi ez hain positiboan,
- Arriskuko Kapitalari eskainitako BPGaren portzentajea baxuagoa da (% 0,03 vs. % 0,16).
 - Berrikuntzako jardueretan egindako gastua (I+G arlokoa aintzat hartu gabe) salmenten gainera, 10 enplegu eta gehiagoko enpresetan, txikiagoa da (% 0,75, eta % 1,03 EB-27n).
 - EPO patente kopurua milioi bat biztanleko 6,6koa da EAEn, Europako 10,3aren azpitik.
 - Teknologikoak ez diren berrikuntzak (marketing edo antolamendukoak) dituzten ETEen portzentajea, % 27,1, EBn erregistratutako kopurua (% 40,0) baino txikiagoa da.

2.2.3. IKTen sektorea EAEn

EUSTATen datuen arabera, IKTen sektorea 2.175 enpresak eratzen du eta 2006 urtean balio erantsiaren % 3,9 eta enpleguaren % 2,5 hartu zuten EAEn (% 3,8 eta 2,2 hurrenez hurren aurreko urtean).

IKTen sektoreko enpresen % 8,1ak (2005 urtean % 7,2) I+G jarduerak egiten ditu, sektore guztientzat lortutako emaitza baino askoz ere altuagoa. Sektore guztien kasuan, portzentajea ez da % lera iristen (% 0,7). IK_e en sektoreko I+G arloko jarduerak egiten dituzten enpresa gehienak zerbitzuen adarrean kokatzen dira.

Jarduera horietan aritu zen langile kopurua 1.422,8 izan zen DOB moduan, lantaldea % 12 areagotuz 2005eko datuekiko EUSTATen arabera. Horietatik 772,1 (% 54,3) ikertzaileak dira. Sektorean emakumeek duten parte-hartzeari dagokionez, emakumeak dira langileen % 23,3 eta ikertzaileen % 22. Portzentaje horiek aurreko urtean erregistratu zirenak baino altuagoak dira, baina biak sektoreen multzorako dauden batez bestekoak baino baxuagoak dira: % 27,5 eta 28,7 hurrenez hurren.

Alde adierazgarriak ere igarri dira sektore guztien eta IKTen artean, berrikuntzan. Gauzak horrela, 2006an, IKTen sektore-

I.2.53. LAUKIA. IKT-EN SEKTOREKO MAGNITUDE NAGUSIAK EAE-N

		IKT-en sektorea guztira		Industria		Zerbitzuak		INDUSTRIA GUZTIRA
		2005	2006	2005	2006	2005	2006	2006
Datu orokorrak	Enpresak	2.001	2.175	243	256	1.758	1.919	169.456
	Negozio kop. (milaka €)	4.443.073	4.931.300	871.975	1.011.700	3.571.098	3.919.600	—
	Balio erantsia (milaka €)	1.927.413	2.146.900	319.770	378.600	1.607.643	1.768.300	54.903.000
	Okupatuak	23.406	24.277	6.872	7.049	16.534	17.228	987.058
I+G	I+G egiten duten enpresak	145	177	38	50	107	127	1.192
	DOB Langile guztiak	1.343,7	1.422,8	585,2	583,4	758,5	839,4	9.765,4
	Emakumeen %a	22,9	23,3	19,6	19,4	25,5	26,1	27,5
	DOB ikertzaileak	731,9	772,1	371,5	375,7	360,4	396,4	5.304
Establezimendu berritzaileak	Emak. %	20,7	22	16,7	19,1	24,9	24,7	28,7
	Guztira (%)	26,6	38,3	17,0	27,9	28,2	39,8	16,6
	9 langileetik gorakoak (%)	45,5	48,1	58,9	63,8	41,9	43,7	32,7
Jarduera berritzaileko establezimenduak	Guztira (%)	31,0	44,8	22,3	30,1	32,4	46,9	16,5
	9 langileetik gorakoak (%)	58,3	53,9	62,9	66,4	57,0	50,4	31,8

Iturria: EUSTAT.

I.2.54. LAUKIA. I+G ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA

	2002	2003	2004	2005	2006	2006, enpresa sektorearen multzoa
I+G egiten duten enpresak	50	121	130	142	177	1.192
I+G arloan egindako barne gastua (milaka eurotan)	76.893	68.052	64.155	68.354	73.509	721.354
Langile kopurua I+G arloan (DOB)	1.438	1.287	1.208	1.270	1.422,8	9.765,4
Emakume kopurua I+G arloan (DOB)	386	331	276	292	331,9	2.684
Ikertzaileak (DOBen) I+G arloan	487	688	618	688	772,1	5.304
Ikertzaile emakumeak (DOBen) I+G arloan	93	141	118	145	170	1.524,7
Gastua berrikuntzan (milioi €-tan)	—	—	—	—	144,2	—
						2006, sektore multzoa
Intentsitatea I+G (gastua/negozio kopurua)	—	2,7	2,8	2,6	2,6	0,6
Intentsitatea berrikuntzan	—	4,3	4,5	4,2	4,2	1,6

Iturria: EUSTAT.

ko establezimenduen % 38,3 berritzaileak dira, sektore guztietakoen % 16,6aren aldean. Halaber, IKT sektoreko establezimenduen % 44,8k jarduera berritzaileak egin zituen, sektore guztietakoen % 16,5aren aldean. Enpresaren tamaina aintzat hartuz gero, 10 langile eta gehiagokoen kasuan, % 53,9ko portzentajea eskuratu zen, sektore guztietan lortutako % 31,8aren aldean.

IKTen sektoreko I+G arloko barne gastua 73,5 milioi eurokoa izan zen 2006an, eta % 7,5eko hazkundea jasan du aurreko urtearen aldean. Kopuru hori EAEko enpresen sektore osoak I+G arloan egindako gastu osoaren % 10,2 da. Gastu horren zati handiena, % 94,3 zehazki, gastu korrontea da. Berrikuntzako gastua 144,2 milioi eurokoa da.

Bi gastuen intentsitateari dagokionez, hau da, berrikuntzako gastu kopurua eta negozio kopuruarekiko I+G arlokoa, IKTen sektoreak baliabide proportzio altuagoa jarri zuen I+G+b arlorako, gainerako sektoreek baino.

Bestalde, espero zitekeen moduan, IKTen erabilera sektorean oso zabalduta dago, eta are gehiago 9 langiletik gorako enpresetan. Interneten erabilera sektoreko establezimenduetan % 97,9ra iristen da, sektore multzoaren batez bestekoak hartzen

duen % 61,6aren aldean. Internetarako sarbidea duten establezimenduen % 68,7ak webgunea du, eta % 96ak banda zabaleko konexioa, sektoreen multzoko % 40 eta 86,8aren aldean hurrenez hurren. Eta % 97ak posta elektronikoa du, sektore osoaren batez bestekoaren % 57,6aren aldean.

Aitzitik, merkataritza elektronikoaren zabalkundea, gainerako sektoreetan igartzen dena baino altuagoa bada ere, baxua da oraindik. Elektronikoki salmentak egin zituzten establezimenduak % 5,5 dira (9 langiletik gorakoen kasuan % 10,9), eta erosketak egin zituztenak % 44,5 (% 42,9a 10 langile edo gehiagoko establezimenduen kasuan).

Datu hauek Estatuko gainerakoekin alderatuta, 9 langiletik gorako establezimenduetan, EAEko IKTen sektoreak teknologia horien erabilera tasa altuagoak ditu adierazle gehienek kasuan. Bereziki deigarriak dira, kontrako egoeran egoteagatik, hurrengoak: Banda zabaleko konexioa duten establezimenduen portzentajea, Estatuko % 97,4rekin gure erkidegoak erregistratzen duen % 92,5aren aldean; eta salmenta elektronikoak egiten dituzten establezimenduen portzentajea, EAEn ehuneko 1,8 puntu baxuagoa baita (Estatu mailako % 12,7, EAEko % 10,9aren aldean).

I.2.55. LAUKIA. IKT ERABILTZEN DUTEN 9 LANGILETIK GORAKO ENPRESEN %A, EAE-N ETA ESTATUAN

	2005		2006	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Internet	96,3	99,5	98,6	98,6
Webgunea*	61,1	90,5	65,4	86,7
Banda zabala*	97,6	89,7	97,4	92,5
Posta elektronikoa	95,8	99,5	97,2	98,6
Erosketa elektronikoak	25,3	43,6	29,9	42,9
Salmenta elektronikoak	13,1	13,4	12,7	10,9

Iturria: EUSTAT.

* Internetarako sarrera duten establezimenduak.

2.2.4. IKT ekipamenduak eta erabilerak EAEn

Etxebizitzetan

IKT ekipamenduen maila familetan. EUSTATen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak azpimarratu egiten du oraindik ere IKT ekipamenduen mailak etxebizitzetan goranzko joeran jarraitzen duela.

bideoaren, antena parabolikoaren eta ordaindutako telebistaren kasuan izan ezik (horiek lehenengo aldiz murriztu egiten dute beren sarrera 2007 eta 2008 artean, % 19,8tik % 13,6ra igaroz). Arrazoa DVD eta TDT bezalako ordezkoi ondasunen finkapena da. Gauzak horrela, areagotu egin da hurrengo sarrera: ordenagailuarena (2004ko laugarren hiruhilekoko % 48,4tik 2008ko hiruhileko berdineko % 58,7ra), internetena (% 34,2tik % 50,1era), teletestua (% 72,8tik % 83,8ra) eta telefono mugikorrarena (% 79,5etik % 88,7ra).

EUROSTAT eta EINen datuen arabera, 16 eta 74 urte arteko gutxienez kide bat duten eta Internetarako sarbidea duten etxebizitzetan portzentajea % 60koa izan da 2008an EB-27n. Aldiz, banda zabalerako sarbidea dutenen kasuan, portzentajea % 48koa izan da, eta Estatuan, kopuru horiek hurrenez hurren % 51 eta % 45ekoak izan dira. Ondorioz, EAE, hurrenez hurren % 57 eta 44ko portzentajeekin, batez besteko europarraren azpitik dago pixka bat, eta Suedia, Finlandia, Danimarka, Luxenburgo eta Erresuma Batua bezalako erreferentziako herrialdeetan igarri diren balioetatik urrun dago.

Zehazkiago adierazteko, EINen datuen arabera, 2008an, EAEk lehenengo tokia betetzen zuen autonomia erkidegoen rankingean, telefono finkoa zuen etxebizitza portzentajearen (% 92); hirugarrena ordenagailua zuen etxebizitza portzentajearen (% 66,4) eta internetarako sarbidekoan (% 57), Madril eta Kataluniaren atzetik; hamabigarrena telefono mugikorrari dagokionez (seigarrena 2007an eta bosgarrena 2006an) eta hamahirugarrena banda zabaleko konexioan (bederatzigarren tokia aurreko al-dian). Ondorioz, EAEk tokiak galdu ditu Estatuan banda zabaleko konexioan eta mugikorraren sarreran.

IKT ekipamendu maila, familia mota gorabehera. Aurreko urteetan igarritako joera mantendu egiten da; horrela, ordenagailuaren, interneten eta telefono mugikorraren sarrera areagotu egin da etxebizitza mota guztietan (seme-alabak dituzten familiak, seme-alabarik gabekoak eta pertsona bakarreko etxebizitzak), baina seme-alabak dituzten familiak dira oraindik ekipamendu maila altuenak ageri dituztenak. Bigarrenik, seme-alabarik gabeko familiak kokatzen dira eta, ondoren, pertsona bakarreko etxebizitzak.

15 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean.

Ordenagailuaren eta Internetarako konexioaren eta haren erabileraren sarrera

IKT ekipamenduek etxebizitzetan/familetan edukitako sarre-rarekin jazotakoari jarraiki, IKTek 14 urtetik gorako biztanleen

I.2.56. LAUKIA. FAMILIAK, ETXEBIZITZAKO IKT EKIPAMENDUA GORABEHERA

		2004 IV. hiruhilekoa	2005 IV. hiruhilekoa	2006 IV. hiruhilekoa	2007 IV. hiruhilekoa	2007 IV. hiruhilekoa
Ekipamendu informatikoak	Ordenagailua	48,4	50,1	53	57	58,7
	Internet	34,2	36,9	40,6	45,7	50,1
	Bideoa	71,5	69	64,9	64,1	59,9
Telebistako ekipamenduak	Teletestua	72,8	79,1	79,6	83,3	83,8
	Ant. parabolikoa	14,6	9,7	11,1	11	9,5
	Ordaindutako telebista	7,5	8,2	15,2	19,8	13,6
Bestelakoak	Telefono mugikorra	79,5	81,2	85,6	88	88,7

Iturria: EUSTAT, IGI.

I.2.57. LAUKIA. FAMILIAK (16-74 urte), ETXEBIZITZAKO IKT EKIPAMENDUA GORABEHERA

		2004	2005	2006	2007	2008
Internet	EB -27	40	48	49	54	60
	Espainia - EUROSTAT	34	36	39	45	51
	Espainia - EIN	33,6	37	41,1	44,6	51
	EAE - EIN	42,7	43,2	45,7	50	57
	EB -27	14	23	30	42	48
Banda zabaleko konexioa	Espainia - EUROSTAT	15	21	29	39	45
	Espainia - EIN	14,7	24,5	32,6	39,2	44,6
	EAE - EIN	14,7	24,2	33,1	40	43,7

Iturria: EUROSTAT eta EIN.

I.2.58. LAUKIA. ETXEBIZITZAK AAEE ETA EKIPAMENDU MOTA GORABEHERRA. 2008.

	Ordenagailua	Internerako sarbidea	Banda zabaleko konexioa	Tel. finkoa	Tel. mugikorra
Guztira	63,6	51	44,6	81,3	92,1
Andaluzia	59,4	43,7	38,9	73,5	90,1
Aragoi	64,2	51,7	45,2	90,1	90
Asturias	63,5	53,1	47,7	86,4	92,7
Balear Irlak	64,6	54,9	49,9	83,4	91,4
Kanariar uharteak	65,5	52,5	45,4	76	93,9
Kantabria	66,2	53,7	49,4	82,1	93,8
Gaztela eta Leon	58,4	41,7	34,8	81,4	89
Gaztela-Mantxa	56,1	40,5	36,3	74,9	88,8
Katalunia	71	60,1	52,5	86,9	94,2
Valentzia	60,5	48,4	42,5	75,7	93
Extremadura	53,3	42,9	35,3	72,7	91,5
Galizia	53,6	39,7	31,8	81,8	87
Madril	71,9	62,3	57,9	88,5	95,3
Murtzia	57,2	42,3	35,8	70,1	92,3
Nafarroa	66,3	55,8	44	88,2	92,9
EAE	66,4	57	43,7	92,6	92
Errioxa	63,3	50,6	45,1	81,7	92,6
Ceuta	56,8	48	46	66,1	81,9
Melilla	62	50,2	45,9	71,6	92,6

Iturria: EIN.

I.2.59. LAUKIA. ETXEAN ORDENAGAILUA, INTERNET ETA TELEFONO MUGIKORRA DUTEN FAMILIAK, FAMILIA MOTAREN ARABERA (%)

	Ordenagailua			Internet			Telefono mugikorra		
	Seme-alabekin	Bikote-arekin	Perts. bakarrekoak	Seme-alabekin	Bikote-arekin	Perts. bakarrekoak	Seme-alabekin	Bikote-arekin	Perts. bakarrekoak
2004 IV. hiruhilekoa	68,5	23,4	20,1	48,4	16,6	14,2	94,4	68,3	51,8
2005 IV. hiruhilekoa	71,7	25,8	19,9	53,5	19	13,2	96,1	73,3	52,8
2006 IV. hiruhilekoa	74,7	34,1	20,4	58,4	25,5	13,8	97,6	81,5	62,2
2007 IV. hiruhilekoa	80,1	37,6	24,5	65,7	29	17,2	98,4	86,2	67,6
2008 IV. hiruhilekoa	82,3	38,5	28,7	71,9	31,7	22,4	98,6	87,5	70,1

Iturria: EUSTAT, IGI.

artean edukitako sarrerak zabalitzen jarraitzen du, bideoaren eta antena parabolikoaren kasuan izan ezik.


PCaren eta Interneterako konexioaren eremuari helduz, 2007ko azkeneko hiruhilekoaren eta 2008ko azkeneko hiruhilekoaren artean igarri egin da ordenagailuaren sarrera ehuneko 0,9 puntu areagotu dela, eta biztanleria horren % 67,1 hartzen duela. Bestalde, 15 urte edo gehiago eta Interneterako sarbidea etxean duen biztanleriaren portzentajea ehuneko 17,6 puntu areagotu da, eta % 54tik % 58,1era igaro da.

Internet erabiltzen duten pertsonen portzentajea, EUSTATen arabera, % 50,5era iritsi da 2008an 15 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean. Kopuru horrek ehuneko 3,1 puntuko hazkundea dakar aurreko urteko % 47,4aren aldean (2006an portzentajea % 41,6koa zen eta 2005ean % 37,6koa).

EINen datuen arabera, EAEk hazten jarraitu du erabilerari dagokionez, eta posizioak mantendu edo irabazi ditu estatu mailako rankingean. Gauzak horrela, 2007 eta 2008 artean, azken 3 hilabeteetan 16-74 urte arteko pertsonen artean hurrengoak erabili dituztenen portzentajeak hauek dira: Ordenagailua % 59,2tik % 63,7ra igaro da; Internet, % 53,6tik % 59,5era, eta Internet bidez erosi dutenen portzentajea % 13,3tik % 15,4ra igaro da. Lehenengo kasuan eta azkenekoan, PCaren erabilerak eta Internet bidezko erosketak 6. kokalekua mantentzen dute rankingean, eta bigarren kasuan 6. kokalekutik 4.erako mugimendua igarri da.

EUROSTATen eta EINen 2008ko datuak gurutzatuz gero, ikus daiteke Interneten erabileraren gaian, EAEk, % 51,5arekin, estatuko batez bestekoaren, % 49koa, gainetik dagoen kokalekua

I.2.17. Grafikoa. 15 urte eta gehiagoko biztanleria, etxeko IKT ekipamenduak gorabehera



Iturria: EUSTAT, IGI.

I.2.60. LAUKIA. IKT EKIPIAMENDUEN ERABILERA BIZTANLERIAREN ARTEAN (hurrengoa egin duten 16-74 urte arteko pertsonen %a)

	Azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili dute		Azken 3 hilabeteetan Internet erabili dute		Internet erabili dute gutxienez astean behin azken 3 hilabeteetan. 2008 urtea	Internet bidez erosi dute azken 3 hilabeteetan	
	2007	2008	2007	2008		2007	2008
Guztira	57,2	61,0	52,0	56,7	49,2	13,0	13,3
Andaluzia	52,8	55,5	47,0	50,7	43,7	9,5	9,7
Aragoi	61,4	62,7	56,1	55,7	48,8	11,7	15,7
Asturias	58,0	60,2	53,8	54,9	47,5	11,8	11,2
Balear Irlak	58,7	63,6	55,5	60,6	52,2	17,5	20,0
Kanariar uharteak	59,0	61,4	53,1	57,6	47,5	10,7	9,8
Kantabria	54,9	61,4	51,2	57,2	50,2	11,7	15,4
Gaztela eta Leon	57,0	57,9	50,6	52,3	45,0	10,3	12,2
Gaztela-Mantxa	49,0	56,1	42,8	50,5	43,7	7,8	9,5
Katalunia	61,2	68,0	56,2	64,2	59,1	18,3	16,2
Valentzia	55,5	58,6	49,9	55,6	46,4	11,4	10,8
Extremadura	45,7	49,5	39,5	43,5	36,3	7,7	10,2
Galizia	46,6	52,1	43,0	47,6	37,9	9,5	11,6
Madril	67,7	70,0	63,8	67,0	59	19,5	18,8
Murtzia	50,7	53,4	45,1	48,7	40,1	8,2	9,1
Nafarroa	60,1	65,2	54,2	59,0	49,2	12,7	15,6
EAE	59,2	63,7	53,6	59,5	51,5	13,3	15,4
Errioxa	53,6	60,0	49,3	56,1	50,0	13,7	13,9
Ceuta	52,8	56,5	49,5	54,7	46,8	5,4	11,3
Melilla	62,8	55,8	59,1	48,6	39,3	11,6	10,8
EB-27, EUROSTAT					56,0		
EB-25, EUROSTAT					58,0		
EB-15, EUROSTAT					60,0		
Espainia, EUROSTAT					49,0		

Iturria: EIN (prentsaurrekoa) eta EUROSTAT.

duela internet inkestaren aurretiko hiru hilabeteetan gutxienez astean behin erabili duten pertsonen dagokienez, baina por-

tzentaje hori EB-27ko, % 56, EB-25eko, % 58, eta EB-15eko, % 60, batez bestekoa baino txikiagoa dela.

Aurreko urteetan bezala, genero, adina, prestakuntza maila eta laneko egoera gorabehera egindako azterlanetik ondorioztatzen da aldeak mantentzen jarraitzen dutela, bai sarrerari dagokionez, bai erabilerari dagokionez. Ondorioz, taldeen arteko zirikitu digitala mantendu egiten da, eta hori gizarte talde ezberdinen ongizatea bera baldintzatzen iritsi daiteke.

Sarrera generoa gorabehera: Ordenagailuaren sarrera tasa hazi egin da gizonezkoen artean, baina murriztu egin da emakumeen kasuan 2008 urtean. Bestalde, interneterako konexioaren sarbide tasa hazi egin da emakumeen nahiz gizonen artean. Alderaketa eginez gero, sarrera tasak altuagoak dira gizonen artean, emakumeen artean baino, eta, gainera, zirikitua handitu egin da aurreko urteko kopuruaren aldean. Gauzak horrela, 2007an ordenagailuaren sarrera tasa % 67,7koa zen gizonen kasuan, emakumeen % 64,7aren aldean (3 puntuko aldea). 2008an, aldea 5,6 puntura iritsi da (% 70 gizonezkoentzat eta % 64,4 emakumeentzat). Interneterako konexioen kasuan, 2007an tasa % 55,3koa bazen gizonentzat, emakumeentzako % 52,8aren aldean (2,5 puntuko aldea), 2008an 5,4 puntukoa da (% 60,9 gizonentzat eta % 55,5 emakumeentzat).

Interneten erabilera generoa gorabehera: Tasa hazi egin da bi generoentzat, baina bi tasen artean dagoen aldea areagotu egin da 2007 urteko kopuruaren aldean. Horrela, gizonak dira kokaleku hobean jarraitzen dutenak (2007 urtean aldea 6,2 puntukoa bazen, 2008an 8,8 puntukoa izatera iritsi zen). Ondorioz, erabileraren tasa % 55era iristen da gizonezkoen kasuan, emakumeen kasuko % 46,2aren aldean.

EBn, EUROSTATen datuen arabera, inkesta baino aurreko azkeneko hiru hilabeteetan gutxienez astean behin Internet erabili duten gizonen portzentajea, 2008an, emakumeena baino altuagoa da. Eta hori EB-15ean (% 63, % 56aren aldean: 7 p.), EB-25ean (% 61, % 55aren aldean: 6 p.) edo EB-27an (% 60, % 53aren aldean: 7 p.) ikusi ahal izan da. Alderdi positibo modura, aipatzekoa da gizonen aldeko alde horiek handiagoak zirela aurreko urteetan.

Sarrera adina gorabehera: Interneterako ordenagailua eta konexioa duen biztanleria portzentajeak behera egiten du adinarekin (urteak urtera tasek hobera egiten badute ere, adin taldea gorabehera). Horrela, oso altuak dira 15-24 urte multzoan, ehuneko 0,3 eta 3,3 puntu areagotzen dira hurrenez hurren 2007 eta 2008 urteen artean, eta % 93,1 eta % 86,1 izatera iristen dira hurrenez hurren. 25 eta 44 urte arteko taldeak bigarren posizioa betetzen du, goranzkoak izaten jarraitzen duten aldakuntza tasekin. Horrek ordenagailuen kasuan % 81 gainditzen duten sarrera tasak eta Interneterako % 67 gainditzen dutenak ekartzen ditu. Eta 45 urte edo gehiagoko adin taldeko sarrera kopuru murriztagoetan dago oraindik, % 52,3 eta % 45,4arekin hurrenez hurren.

Interneten erabilera adina gorabehera: Erabilera ratioek behera egiten dute ere adinarekin, baina kasu honetan adin gutxien eta gehieneko multzoen arteko aldeak nabarmenagoak dira. Horrela, 15 eta 24 urte arteko EAEko biztanleriaren % 88,2 erabiltzailea da, 45 urtetik gorakoen % 27,1aren aldean.

Hala eta guztiz ere, eta aurreko urteetan gertatu denaren aldean, bi taldeen arteko aldeak beherantz egin du (61,5 puntu 2005ean, 63,7 puntu 2006an, 67,8 puntu 2007an eta 61,1 puntu 2008an). Hain zuzen ere, bereziki deigarria da lehenengo taldearen erabileran igarritako erorketa (% 91,4tik % 88,2ra).

Sarrera, prestakuntza maila gorabehera: Prestakuntza maila geroz eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da ere ordenagailuaren eta interneterako konexioaren sarrera, eta kasuan kasuko sarrerak hazi egin dira aurreko urteetako kopuruaren aldean (ordenagailua salbuespena da lehen hezkuntzako ikasketak eduki eta 15 urtetik gorako biztanle taldearen kasuan). Horrela, goi mailako ikasketak dituen 15 urtetik gorako biztanleriaren % 89,5ak ordenagailua duen bitartean (2006an kopurua % 86,4koa zen eta 2007an % 87,6koa), portzentaje hori % 77,2ra murriztu zen bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten biztanleen artean (% 75,7 aurreko urtean) eta % 35era (% 36, 2007an) lehen hezkuntzako ikasketak bakarrik dituztenen. Interneterako konexioen kasuan, portaera antzekoa da, nahiz eta portzentaje txikiagoekin: % 82 goi mailako ikasketak dituztenen taldearen kasuan, % 65,5 bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenen kasuan eta % 29 lehen hezkuntzako ikasketak bakarrik dituztenen kasuan.

Interneten erabilera, prestakuntza maila gorabehera: 2005 eta 2006 artean erabilera ratioan murriztapena igarri bazen ere lehen hezkuntzako ikasketak bakarrik zituen biztanleria taldean (% 4,1etik % 3,9ra), badirudi joerak ez duela berean jarraitzen, izan ere, 2007 urtean, ratioa % 5,6an kokatu zen eta 2008an % 6,3an. Beste bi kasuetan, bigarren hezkuntzako eta goi mailako ikasketena, portzentajeak altuak eta goranzkoak dira —prestakuntza mailarekin eta aurreko urtearen aldi berdinari dagokionez—.

Sarrera, laneko egoera gorabehera: Ikasten edota lanean ari diren biztanleria taldeak dira, berriro ere, ordenagailu eta interneterako konexioko zuzkidura tasa handienak ageri dituztenak, eta gai horiei dagozkien tasak murriztu egiten dira nabarmenki pertsona inaktiboak edota langabetuei buruz arituz gero. Horrela, ikasleek ordenagailuaren sarrera tasa % 95etik gora eta interneterako konexioarena % 90etik gora dituzten bitartean, inaktiboak edota langabetuak ez dira, hurrenez hurren, % 42 eta % 35era iristen.

Interneten erabilera, laneko egoera gorabehera: Lehen deskribatutako egoeraren antzekoa igarri da Interneten erabileraren gaian: ikasten ari diren pertsonen % 95,4 interneten erabiltzaile dira, langabezian dauden edota inaktiboak diren % 17,7ak bakarrik erabiltzen duen bitartean. Bereizki azpimarragarria da ikasleen erabilera ratioa konexioarena baino altuagoa izaten jarraitzea (% 95,4, % 90aren aldean). Horren arrazoia etxebizitza ez den beste puntu batzuetatik sartzea da.

Bestalde, zera ikusi da: gizarte talde guztietan interneten erabilera portzentajeak gorantz egiten ari direla ikusi bada ere (salbuespenak salbuespen, adibidez 15-24 urte taldea eta ikasleak), gizarte taldeen arabera aldeak handiagoak dira oraindik erabilerari dagokionez, zuzkidurari dagokionez baino (beste era batera esatearren, gizarte talde bakoitzean

I.2.61. LAUKIA. ORDENAGAILUAK ETA INTERNETERAKO KONEXIOA ETA HAREN ERABILERA EAE-KO 14 URTEKO BIZTANLEEN ARTEAN EDUKITAKO ERROTZEA, HAIEN EZAUGARRIAK GORABEHERA (%)

		Ordenagailua etxean					Internet									
							Interneterako konexioa etxean					Erabilera				
		IV 2007	IV 2008	Ald. 2007-08	Ald. 2007ko b.b.-rekin	Ald. 2008ko b.b.-rekin	IV 2007	IV 2008	Ald. 2007-08	Ald. 2007ko b.b.-rekin	Ald. 2008ko b.b.-rekin	IV 2007	IV 2008	Ald. 2007-08	Ald. 2007ko b.b.-rekin	Ald. 2008ko b.b.-rekin
15 urte edo gehiagoko biztanleria		66,2	67,1	0,9	0	0	54	58,1	4,1	0	0	47,4	50,5	3,1	0	0
Sexua	Gizona	67,7	70	2,3	1,5	2,9	55,3	60,9	5,6	1,3	2,8	50,6	55	4,4	3,2	4,5
	Emakumea	64,7	64,4	-0,3	-1,5	-2,7	52,8	55,5	2,7	-1,2	-2,6	44,4	46,2	1,8	-3	-4,3
Adina	15-24	92,8	93,1	0,3	26,6	26	82,8	86,1	3,3	28,8	28	91,4	88,2	-3,2	44	37,7
	25-34	80	82,3	2,3	13,8	15,2	64,8	70,8	6	10,8	12,7	75,9	79,2	3,3	28,5	28,7
	35-44	78	81,4	3,4	11,8	14,3	59,1	67,5	8,4	5,1	9,4	62,6	70,1	7,5	15,2	19,6
	45 eta gehiago	51,9	52,3	0,4	-14,3	-14,8	42,8	45,4	2,6	-11,2	-12,7	23,6	27,1	3,5	-23,8	-23,4
Ikasketa maila	Lehen hezkuntza	36	34,9	-1,1	-30,2	-32,2	27,5	29	1,5	-26,5	-29,1	5,6	6,3	0,7	-41,8	-44,2
	Bigarren hezkuntza	75,7	77,2	1,5	9,5	10,1	60,8	65,6	4,8	6,8	7,5	56,7	60,7	4	9,3	10,2
Lotura jarduerarekin	Goi-mailako hezkuntza	87,6	89,5	1,9	21,4	22,4	76,3	82	5,7	22,3	23,9	85,7	88,7	3	38,3	38,2
	Ikaslea	94,7	95,8	1,1	28,5	28,7	85,7	90	4,3	31,7	31,9	95,5	95,4	-0,1	48,1	44,9
Jarduerarekin	Okupatua	80	82,2	2,2	13,8	15,1	65,2	71,2	6	11,2	13,1	64	68,7	4,7	16,6	18,2
	Jardun gabe/Langabezian	41,9	41,9	0	-24,3	-25,2	32,6	34,8	2,2	-21,4	-23,3	15,3	17,7	2,4	-32,1	-32,8

Iturria: EUSTAT, IGI.

internet erabiltzen duen eta 15 urte edo gehiagoko biztanle talde osoaren portzentajearen arteko aldea handiagoa da beti, konexioari dagokionez igarritako aldea baino), eta egoera, orokorrean, sakontzen ari dela dirudi (batez besteokarekiko aldeak handiagoak dira 2007an, 2008an baino). Hain zuzen ere, ikasleek eta 15-24 urteko taldeak bakarrik apurtzen dute ikuspegi hori. Labur adieraztearren, kroniko bihurtzeko joera dago, batez ere talde ahulenen kasuan. Hori aurreko urteetan ikusi izan dugu ere: "sarbidearen zirrikitua" konplexuagoa den "erabilera zirrikitu" bati erantzen zaio.

Oinarritzko IKTen zuzkidura (PC, posta elektronikoa, internet eta telefono mugikorra), enpresetan

Enpresetan egindako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren (IGI-Enpresak) azkeneko edizioak erakutsi egiten du IKT ekipamenduak euskal enpresetan sartzeko prozesuak gorantz jarraitzen duela.

Hedadura gehieneko ekipamendua telefono mugikorra da oraindik, atzetik ordenagailu pertsonala, Interneterako konexioa eta posta elektronikoa edukiz. Horrela, establezimenduei dagokionez, telefono mugikorra langileen esku jartzen dutenen portzentajea % 79,2ra iristen da (gogorarazi dezagun 2003 eta 2004 artean murriztapena jazo zela haren sarreran). Ordenagailu pertsonala dutenen portzentajea % 74,8ra iristen da. Internet dutenen portzentajea areagotu egin da berriro ere, kasu honetan ehuneko 4,8 puntu, eta % 66,4ra iristen da. Aldiz, posta elektronikoa dutenen portzentajea ehuneko 5,9 puntu hazi da, eta % 63,5era iristen da. Jarduera sektoreak gorabehera, azpimarragarria da nabarmen industria, gainerako sektoreen gainetik, nahiz eta deigarria den telefono

mugikorrak eraikuntzan duen sarbidearen zabalkundea, urten honetan ere hazi egiten delako aurreko urtean jazotako behe-rakadaren aldean.

Bestalde, teknologia hauek erabiltzen dituen langile kopurua areagotu egiten da ere. Langileen % 60,5ak ordenagailu pertsonala du, eta % 49,5ak posta elektronikoa eta internet ditu. Jarduera sektorea, beste urtebetez eta aurreko kasuan ez bezala (ekipamendu maila), gainerakoan artetik nabarmen ageri dena zerbitzuen sektorearena da, izan ere, langile gehienak bulegoan daude, eta hor erabiltzen dira batik bat ekipamendu hauek. Hori, batez ere, zerbitzuen sektorean ekipamendu maila oso altuak ageri dituzten jarduerak daudelako gertatzen da. Horien artean, teknologia berriei uztarturikoak, finantza bitartekaritza eta enpresentzako zerbitzuenak aipatu daitezke.

Enplegu mailen arabera azterketan, zera ikusten da lehenik eta behin: enplegu maila guztietan hazkunde esanguratsuak jazo badira ere, establezimenduek, enplegu tamaina handiagoa edukitzen joan ahala, hazkunde murriztagoak dituzte, ekipamenduetan izandako hobekuntza marjina eskasa dela eta. Bigarrenik, aipatutako aldeak establezimenduen alorrean igartzen dira gehiago, enplegu aldeetan baino. Horren arrazoia, besteak beste, establezimendu txikien garapen handiagoa da, eta baita establezimendu handietan langile guztiek ekipamendu horietarako sarbiderik ez edukitzea ere.

Joera hori eskala europarrean ere igarri da. Bertan, EUROSTATen datuen arabera, interneterako sarbideak saturazio puntua lortu du enpresa handien artean (ia-ia % 100era iristen da) nahiz ETEen artean (EB-15en % 95aren eta EB-27ren % 93aren artean kokatzen da), eta hori sektore gehienetan igartzen da.

I.2.62. LAUKIA. EAE-KO ESTABLEZIMENDUETAN IKT EKIPAMENDUAK IZANDAKO BILAKAERA, JARDUERA SEKTOREA GORABEHARA (establezimenduen %a)

	Industria				Eraikuntza				Zerbitzuak				GUZTIRA			
	PC	Mezu elek.	Internet	Tel. Mug.	PC	Mezu elek.	Internet	Tel. Mug.	PC	Mezu elek.	Internet	Tel. Mug.	PC	Mezu elek.	Internet	Tel. Mug.
2002	65,9	45,7	50	69,2	39,4	17,1	20,5	76,4	54,5	35,4	37,6	55,5	53,6	34	36,5	59,4
2003	68,9	51,3	55,5	72,7	46,6	25	30,2	81,8	58,5	40,9	43,3	59,7	57,9	39,8	42,7	63,8
2004	70,6	52,8	57	75	52,1	28,9	37,5	85,6	60,1	43,9	46,1	58,5	59,9	42,7	45,9	63,6
2005	74,9	61,4	64,3	81,6	60,7	33	44,6	94,6	64	49	51,7	66,8	64,5	48	51,9	71,7
2006	77,8	64,9	66,2	81	64,2	38,6	48,8	93,2	68,4	53,1	56,8	68,2	68,6	52	56,4	72,8
2007	79,5	68,6	71,2	80,3	68	49	56,3	91,4	70,3	58	61,5	72,6	70,7	57,6	61,6	75,8
2008	80,8	73,1	74,5	84,8	73,9	58,1	65,1	92,2	74,4	63,5	65,8	76,3	74,8	63,5	66,4	79,2

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

I.2.63. LAUKIA. ENPRESETAKO IKT EKIPAMENDUA (IKTrekin lanean hartutako langileen %a)

	Industria guztira			Eraikuntza			Zerbitzuak			Guztira		
	PC	Mezu elek.	Internet	PC	Mezu elek.	Internet	PC	Mezu elek.	Internet	PC	Mezu elek.	Internet
2002	65,9	45,7	50	69,2	39,4	17,1	20,5	76,4	54,5	35,4	37,6	55,5
2003	68,9	51,3	55,5	72,7	46,6	25	30,2	81,8	58,5	40,9	43,3	59,7
2004	70,6	52,8	57	75	52,1	28,9	37,5	85,6	60,1	43,9	46,1	58,5
2005	74,9	61,4	64,3	81,6	60,7	33	44,6	94,6	64	49	51,7	66,8
2006	77,8	64,9	66,2	81	64,2	38,6	48,8	93,2	68,4	53,1	56,8	68,2
2007	79,5	68,6	71,2	80,3	68	49	56,3	91,4	70,3	58	61,5	72,6
2008	80,8	73,1	74,5	84,8	73,9	58,1	65,1	92,2	74,4	63,5	65,8	76,3

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

I.2.64. LAUKIA. ENPRESEN IKT EKIPAMENDUA TAMAINA GORABEHARA (IKT duten establezimenduen edo langileen %a)

	Ordenagailu pertsonala				Posta elektronikoa				Internet			
	%a Establ./a.		%a, enplegu/a.		%a Establ./a.		%a, enplegu/a.		%a Establ./a.		%a, enplegu/a.	
	2001	2008	2001	2008	2001	2008	2001	2008	2001	2008	2001	2008
Guztira	50,3	74,8	46,4	60,5	23,2	63,5	25,8	49,5	26,2	66,4	23,4	49,5
Otik 2ra	42,1	65,1	37,5	58	16,3	52,6	14,5	45,1	19,5	56,3	17,2	48,9
3tik 9ra	70,6	87,5	46,4	61	36,6	76,3	23,1	47,6	39	78,7	23,4	50,1
10etik 19ra	94,9	97	42,2	56,2	63,6	93,6	21,5	46,1	66,9	92,6	21,5	47,3
20etik 49ra	98,1	98,4	47,1	56,6	78,9	95,9	27,5	46,6	81,2	93,4	26,2	46,9
50etik 99ra	99,3	99,7	51	61	94	98,9	34,3	53	94,4	98,4	31,7	52,4
≥ 100	99,9	99,9	52,7	64	93,5	99,6	33,9	53,3	93,1	99,5	24,2	49,2

Iturria: EUSTAT, IGI - Enpresak.

I.2.65. LAUKIA. INTERNETERAKO SARBIDEA DUTEN 9 LANGILETIK GORAKO ENPRESEN PORTZENTAJEA

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
EB -27	—	88	91	92	93	93
EB -25	—	89	91	93	95	94
EB -15	85	91	92	94	95	95
ESPAINIA	82	87	90	93	94	95

Iturria: EUROSTAT.

IKT espezializatuagoen zuzkidura enpresetan

Aurreko urteei jarraiki eta IKT espezializatuenen gehiengoak sarrera maila murriztak ageri baditu ere, hazkundeak igarri dira horien guztien erabilieran. Salbuespena intranetarena da, haren sarrerak behera egin baitu % 17,8tik 15,4ra. Erabilienak funtsen transferentzia elektronikoak (establezimenduen %

54ak ditu) eta tokiko sarea edo sare zabaldua (establezimenduen % 43,6ak) dira oraindik. Bigarren talde bat sare pribatu birtual batek edo balio erantsiko batek (establezimenduen % 18,9) eta haririk gabeko sareak (wireless) eratzen du, % 17,1arekin. Datuen truke elektronikoaren, intranetaren edo extranetaren zabalkundea hastapenetan daude oraindik.

I.2.66. LAUKIA. SARE ETA TRUKE INFORMATIKO ETA ELEKTRONIKOKO EKIPAMENDUAREN ARABERAKO ESTABLEZIMENDUEN %A.

	Tokiko sarea edo sare zabaldua			Haririk gabeko sarea (wireless)			Sare pribatu birtuala edo balio erantsikoa			Intraneta			Estraneta			Funtsen transferentzia elektronikoak			Datu elektronikoen trukea (DET)		
	01	07	08	01	07	08	01	07	08	01	07	08	01	07	08	01	07	08	01	07	08
Guztira	8,8	37,7	43,6	0	10,8	17,1	0	11,5	18,9	4,8	17,8	15,4	1,2	8	9,2	18,2	43,6	54	8,9	12,3	15,6
Industria	14,7	48	48	0	12,3	19,1	0	15,2	19,8	5,3	19,1	11,5	1,6	8	8,6	16,6	48,6	56	12,8	14,7	18,2
Eraikuntza	4,2	23,3	36,5	0	4,4	12,8	0	6,5	12,8	1,2	11,8	9,2	0,1	1,6	1,9	4,6	28,6	43,2	4,7	7,1	11,3
Zerbitzuak	8,8	39,2	44,4	0	11,8	17,7	0	12	19,9	5,2	18,8	17	1,3	9,1	10,6	20,3	45,8	55,7	9	13	16,1
Enplegu mailak																					
0tik 2ra	3,8	26,4	29,9	0	8	13	0	6,1	11,1	1,5	10,7	7,6	0,2	4,5	4,9	14,3	34,8	43,6	5,8	7,9	10,1
3tik 9ra	17,3	53,9	59,5	0	13,7	20,7	0	18,4	27	9,8	27	23,5	2,6	11,5	13,1	26,7	59,3	67,6	13	17,8	20,4
10etik 19ra	38,5	76,8	76	0	19,1	30,6	0	27,4	37	21,9	39,6	32,5	5,1	22,6	22,9	40,8	69,1	75,9	29,6	25,7	31,8
20tik 49ra	53,3	88,1	86,5	0	28,1	30,5	0	37,3	44,8	36,2	52,8	45,7	11,3	26	25,4	43,8	71,6	79,3	38	32,3	38,8
50etik 99ra	70,2	96,8	94,1	0	35,9	46,8	0	50,6	61,8	50,5	69,7	57,4	17,3	35,9	32,6	48,2	71,4	79,6	52,4	48,8	49,9
≥ 100	79	97,3	97,4	0	53,5	57,6	0	68,3	71,1	67,9	83,6	74,2	26,5	48,7	43,3	54,9	72,1	78,9	64,5	56,9	58,2

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

I.2.67. LAUKIA. INTERNETERAKO SARBIDEA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %A, ERABILERA MOTA GORABEHERRA.EAE.

	%a, establ. guztien/a.			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			9 enplegutik gora		
	01	07	08	01	07	08	01	07	08	01	07	08	01	07	08
Dokumentuak bilatzea	82,6	94,0	96,0	80,2	92,7	95,1	75,3	95,4	96,6	83,7	93,9	96,0	83,5	95,5	96,4
Hornitzaileen eta bezeroen datu baseetara sartzea	22,4	41,2	42,7	28,3	41,1	45,4	23,7	38,3	43,0	21,3	41,6	42,3	29,1	53,2	51,5
Prestakuntza: Prestakuntzako materialak eskuratzea	9,4	27,4	46,7	7,1	20,5	38,5	5,6	20,2	36,8	10,2	29,3	49,4	17,8	39,8	56,6
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	5,7	18,3	21,1	6,1	18,7	22,3	1,6	11,2	11,1	5,9	19,4	22,8	9,1	18,8	22,6
Ondasunak eta zerbitzuak saltzea	2,6	4,7	5,5	1,5	7,2	7,7	1,1	1,3	0,5	2,9	5,0	6,1	3,8	6,7	8,2
Administrazio Publikoarekin izapideak egitea	22,5	44,6	52,8	21,7	50,4	55,8	23,8	38,4	47,8	22,5	44,9	53,4	43,9	74,2	78,8
Bankuko informazioa edo informazio finantzarioa eskuratzea	0,0	70,1	73,5	0,0	79,2	83,0	0,0	66,1	74,0	0,0	69,7	72,4	0,0	80,6	83,1
Lehiakideak aztertzea	0,0	25,2	28,3	0,0	32,0	32,1	0,0	12,8	22,5	0,0	26,5	28,9	0,0	39,5	42,3
Langile berriak topatzea	0,0	14,4	18,1	0,0	14,1	16,1	0,0	9,3	13,0	0,0	15,3	19,2	0,0	28,2	33,1
Salmenta osteko zerbitzuak eskuratzea	0,0	18,4	22,2	0,0	17,9	21,4	0,0	11,0	14,0	0,0	19,7	23,7	0,0	25,5	30,0
Produktu digitalak jaso edo behera kargatzea	0,0	37,6	40,9	0,0	37,8	37,7	0,0	28,2	33,1	0,0	39,1	42,7	0,0	49,9	51,8
Bankuko transakzioak edo transakzio finantzarioak egitea	0,0	63,8	66,6	0,0	76,5	76,6	0,0	59,1	67,4	0,0	63,1	65,4	0,0	79,0	78,6

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

Teknologia hauek zabalduago daude industriako sektoreetan eta zerbitzuenetan, eraikuntzan baino. Hain zuzen ere, industriak eta zerbitzuek antza gehiagoko portaera ageri dute, teknologia gorabehera aldakuntza txikiekin.

Establezimenduaren tamaina funtsezko aldagai gisa ageri da berriro ere, teknologia horien sarrera azaltzerakoan. Hain zuzen ere, teknologia horiek, dituzten ezaugarri bereziak direla eta, tamaina handiagoko erakundeei uztartuta joan ohi dira. Horrela, tokiko sarearen sarrera 90 enplegutik gorako enpresen artean % 97,4ra iristen da, eta 3tik beherako enpresen artean % 29,9ra bakarrik iristen da. Halaber, sare birtuala 99 enplegutik gorako enpresen % 71,1ak erabiltzen du ia-ia, eta 3tik beherako enpresen % 11,1ak. Antzeko portaera igarri da funtsen truke elektronikoaren eta intranetaren kasuan.

IKTen erabilera enpresan: Interneten erabilera

Euskal enpresek interneti emandako erabilera motari dagokionez, lehenik eta behin, dokumentazio bilaketa egongo litzateke (% 96); bigarrenik, bankuko informazioa edo informazio finantzarioa eskuratzea (% 73,5), eta, hirugarrenik, bankuko transakzioak edo transakzio finantzarioak egitea (% 66,6). Bigarren talde batean, hurrengoak daude: Administrazio Publikoaren izapideak egitea (% 52,8); prestakuntza: prestakuntza materiala iristea (% 27,4tik % 46,7ra igoz); hornitzaile-bezeroen datu baseetara sartzea (% 42,7) eta produktu digitalak eskuratu edo behera kargatzea (% 40,9).

Kasu hauetan guztietan, nolabaiteko dinamismoa igarri da tamaina handiagoko enpresa taldeen artean, hau da, 9 enpleguak gainditzen dituzten haien artean.

Igarri egin da establezimenduen portzentajeak gora egin duela berriro ere erabilera mota ezberdin bakoitzaren baitan, salbuespenik gabe, 2006 eta 2007 artean.

Jarduera sektoreen arabera bereizketa eginez, dinamismo gehien ageri dutenak industriaren eta zerbitzuen sektoreak direla igarri da. Zehazki, zerbitzuen sektoreak erabilera ratio

handiagoak erregistratzen ditu, gainerako sektoreek baino, dokumentuen eta prestakuntzaren bilaketara iristeari dagokionez: prestakuntza materiala iristea, ondasunak eta zerbitzuak erostea, langileak topatzea, salmenta osteko zerbitzuak eskuratzea eta produktu digitalak eskuratu eta behera kargatzea. Bestalde, industria nabarmen ageri da interneten erabilerari dagokionez, hornitzaileen datu baseetara iristeari, ondasunak eta zerbitzuak saltzei, administrazioarekiko izapideak egitei, bankuko informazioa edo informazio finantzarioa eskuratzeari, lehiakideen analisiari eta bankuko transakzioak edo transakzio finantzarioak egitei dagokionez.

Enpresek teknologia berrien erabilerari dagokionez duten kokalekua aztertzerakoan garrantzitsua den beste adierazle bat haiek interneten duten presentzia da, presentzia hori zerbitzari propio bateko webgune baten bitartez edo beste zerbitzari batean kokatutako webgune bitartez izan alde batera utzita. EUSTATEk eskainitako azkeneko datuen arabera, ehuneko 4,1 puntuko hazkundea igarri da 2007 eta 2008 artean, eta hori, beraz, 2007ko 3,1eko eta 2006ko 3,3ko hazkundea baino altuagoa da. Gauzak horrela, webgunea du interneterako konexioa duten establezimenduen % 30,3ak. Horietatik % 16,5ak beste zerbitzari batean kokaturik du webgune hori.

Portzentaje horiek areagotu egiten dira establezimenduen tamainak gora egin ahala (0 eta 3 enplegu arteko establezimenduen % 17,6tik, 100etik gorako enpresen % 87,6ra arte –% 41,5 be-rezko hostingarekin–), eta aldatu egiten dira jarduera sektoreak gorabehera, industriaren eta zerbitzuen webguneen erabilera pixka bat altuagoa baita.

Azpirarragarria da:

- 2006 eta 2007 artean webgunea duten eta 20 enplegutik gora dituzten establezimenduen portzentajea jazotzen den murriztapen arina.
- Webgunea beste zerbitzari batean kokaturik edukitzea nahiago izatea. Joera hori badirudi egiaztatzen ari dela, 2006

1.2.68. LAUKIA. ENPLEGU MAILA ETA ESTRATUAREN ARABERAKO ESTABLEZIMENDUAK ETA WEBGUNEAREN DISPONIBILITATEA

	Guztira			Berezkoa			Nonbaiten kokatua		
	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007
Guztira	6,2	26,2	30,3	0,0	13,2	13,7	0,0	12,9	16,5
Jarduera adarra									
Industria	10,4	33,3	36,1	0,0	14,7	12,9	0,0	18,6	23,1
Eraikuntza	1,1	13,7	18,3	0,0	7,3	6,7	0,0	6,4	11,6
Zerbitzuak	6,4	27,6	31,9	0,0	14,1	15,1	0,0	13,5	16,8
Enplegu mailak									
0tik 2ra	2,1	16,0	17,6	0,0	7,7	7,3	0,0	8,3	10,3
3tik 9ra	13,3	41,4	45,1	0,0	21,5	21,9	0,0	19,8	23,2
10etik 19ra	27,7	55,0	58,4	0,0	28,1	26,3	0,0	26,9	32,1
20tik 49ra	42,4	69,4	67,6	0,0	38,3	30,3	0,0	31,2	37,2
50etik 99ra	59,0	87,2	85,9	0,0	44,6	35,9	0,0	42,6	49,9
100 eta gehiago	64,7	88,6	87,6	0,0	45,2	41,5	0,0	43,4	46,0

Iturria: EUSTAT. IGI Enpresak.

I.2.69. LAUKIA. WEBGUNEAK DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %A, SEKTOREA, TAIMAINA ETA ESKAINITAKO PRESTAZIOAK GORABEHERA.

	Guztira												9 enplegutik gorako establezimenduak		
	Guztira			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak					
	01	07	08	01	07	08	01	07	08	01	07	08	01	07	08
Enpresari buruzko informazio orokorra	97,9	96,9	98,3	97,7	96,8	98,8	100	94,9	99,8	97,9	97	98,1	97,9	97,8	98,3
Ondasunen eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoa	0	84,5	80,8	0	83,7	83,2	0	68,2	54,8	0	86	83,2	0	86,9	85,7
Produktuen/zerbitzuen ordainketa zuzena	19,4	13	11,6	1,6	4,8	4,8	0	1,8	0	23,4	15	13,6	8,7	9,4	10,5
Eskaeren jarraipena	16,6	16,2	14,9	6,3	6,8	6,8	2,3	6,8	4,2	19	18,2	16,9	10,8	14,2	14,9
Saldu osteko zerbitzua	30,3	22,8	24,7	11,3	14,4	13,5	0,5	7,5	12,4	34,8	25,2	27,2	24,8	25,2	23,8
Produktu digitalen banaketa zuzena	13,6	9,3	8,9	2,1	5,7	3,1	0,6	4,7	3,6	16,2	10,1	10,1	10,5	8,7	9,6
Transakzio babestuak	27,5	17,7	16,8	1,9	9,2	5,9	6,9	9,1	2,1	33,1	19,6	19,5	23,4	19,4	17,1
Informazioaren pribatutasun aitortpena	34,7	36,6	43,4	4,6	22,1	26,9	31,9	13,1	16,3	40,6	40,4	48,1	36,4	43,8	48,5
Enplegu eskaintzei buruzko informazioa	24,9	20,5	25	2,8	6	8,9	10,9	14,3	11,4	29,5	22,9	28,2	26	28	33,1
Edukien pertsonalizazioa ohiko erabiltzaileentzat	0	0	16,5	0	0	6,6	0	0	8	0	0	18,5	0	0	16
Ezintasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna	0	0	15,1	0	0	6,6	0	0	8	0	0	16,8	0	0	17,3
Produktuak pertsonalizatu edo diseinatzeko aukera	0	0	5,2	0	0	3,1	0	0	0	0	0	6	0	0	5,6

Iturria: EUSTAT. IGI Enpresak.

eta 2007 artean sendotzeagatik nonbaiten kokaturiko webgunea, norberarenaren kaltetan.

Establezimenduetako webguneek eskaintako prestazioei dagokienez, EUSTATen datuen arabera, gehienek (% 98,3) enpresari buruzko informazio orokorra eskaintzen dute, eta baita enpresari buruzko zerrenda edo katalogo orokorren bat ere (% 80,8ak, aurreko urteko % 84,5aren aldean). Bigarrenik, informazioaren pribatutasuna aitortzean oinarritzen diren eskaintako prestazio multzoa (% 43,4, aurreko urteko % 36,6aren aldean), enplegu eskaintzei buruzkoa (% 25), salmenta osteko zerbitzua (% 24,7, aurreko aldiko % 22,8aren aldean) eta enplegu eskaintzei buruzko informazioa (% 20,5, aurreko aldiko % 21,5aren aldean) topa ditzakegu. Eta hirugarrenik, establezimenduen webguneen % 5,2aren eta 16,8aren artean, zerbitzu eta edukietan bestelakoak dituztenak daude, adibidez transakzio babestuak (establezimenduen webguneen % 16,8ak), produktu digitalen banaketa zuzena, produktu/zerbitzuen ordainketa zuzena, eskaeren jarraipena, ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna, ohiko erabiltzaileentzako edukiak pertsonalizatzea eta produktuak pertsonalizatu edo diseinatzeko aukera ematen dutenak (establezimenduetako webguneen % 5,2).

Berriro ere ikusi dezakegu zerbitzuen sektoreko establezimenduek ezarpen eta aniztasun maila altuagoa eskaintzen dutela eskaintako zerbitzuetan, industriaren sektorearen gainetik nabarmen. Aldiz, eraikuntzaren sektorekoek batez bestekoaren azpitik kokatzen den ezarpena erregistratzen dute, enpresari buruzko informazio orokorraren kasuan salbu.

2.2.5. Merkataritza elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak

EINen datuen arabera (2008ko urrian argitaratutakoak), EAEn, inkestaren erreferentziako aldiari (hiru hilabete) interneten erabiltzaile diren guztietatik, bide hau erabilia azkeneko hilabetearen eraketaren bat egiten duen erabiltzaile portzentajeak gora egin duela ikus daiteke, ratioa 2007 eta 2008 artean % 13,8tik 17,1era igaroz. Portaera hori ez da Estatuan ere gertatzen, bertan bilakaera beheranzkoa delako % 14,7tik % 14ra igarotzean.

Internet bitartez erosi ez duten pertsonen portzentajea aintzat hartuz gero, ondorioztatzen da EAE, % 53,8arekin, ongi kokatuta dagoela gainerako autonomia erkidegoei dagokienez, izan ere, hiruk bakarrik du azpitiko portzentajerik: Balearrek (% 46,9), Errioxak (% 52) eta Aragoik (% 52,7).


Hala eta guztiz ere, azken hilabetearen erosi duten pertsonen portzentajea aztertuz gero, hiru autonomia erkidego aktiboago topa ditzakegu: Balearrak (% 21,2), Madril, (% 18,1) eta Aragoi (% 17,4). 2007an, bost izan ziren EAE baino autonomia erkidego aktiboagoak: Katalunia (% 19,6), Madril (% 19,3), Balearrak (% 18,5), Errioxa (% 15,1) eta Valentzia (% 14,1).

EAEko merkataritza elektronikoen hedapena EBkoaren ezberdina da, izan ere, EUROSTATen arabera, 2008 urtean internet bitartez azken 3 hilabeteetan EB-27n erosi zuen pertsona portzentajea % 24an kokatzen da, EB-25ean % 26an eta EB-15ean % 29an. EUROSTATEk Estatutako eskaintako datua % 13koa da, beraz, alderaketa arrazoizkoa da datuak erabat homogeneoak izan ez arren. Aipatutako merkataritza horretarako joera gehien duten herrialdeen artean, hauek daude: Erresuma Batua

**I.2.70. LAUKIA. AZKEN 3 HILABETEETAN INTERNET ERABILI ETA EROSKETA
EGIN DUTEN PERTSONAK (% bertikalak)**

	2005eko lehen bolada (lehenengo sei hilekoa)		2006ko lehen bolada (lehenengo sei hilekoa)		2007ko lehen bolada (urrian argitaratutakoak)		2008	
	Guztira Estatuan	EAE	Guztira Estatuan	EAE	Guztira Estatuan	EAE	Guztira Estatuan	EAE
Interneten erabiltzaile guztiak azkeneko 3 hilabeteetan	15.131.420	819.771	15.970.998	668.758	17.580.587	751.968	19.572.899	974.595
Azken hilabeteetan erosi duten pertsonen %a	9,7	10,4	13	15,3	14,7	13,8	14	17,1
Orain dela hilabete 1 baino gehiago eta 3 baino gutxiago erosi duten pertsonen %a	7,9	11,9	8,2	7,3	10,3	11	9,3	8,9
Orain dela hilabete 1 baino gehiago eta urte 1 baino gutxiago erosi duten pertsonen %a	7,7	6,2	9,7	14	10,1	10,8	—	—
Orain dela 3 hilabete baino gehiago eta urte 1 baino gutxiago erosi duten pertsonen %a	—	—	—	—	—	—	10,7	12,3
Orain dela urte 1 baino gehiago erosi duten pertsonen %a	3,7	2,9	5	5,9	4,6	10,4	6,5	8
Internet bitartez erosi ez duten pertsonen %a	71	68,7	64,2	57,5	60,3	54	59,5	53,8

Iturria: EIN.

I.2.18. Grafikoa. Internet bitartez azken hilabeteetan erosi duen eta erosi ez duen pertsona portzentajea. 2008

Iturria: EIN.

(% 49), Holanda (% 43), Danimarka (bakoitza % 47arekin), Alemania (% 42), Suedia (% 38) eta Luxenburgo (% 36). 2008 urtean, internet bitartez xede pribatuekin edo etxerako gehien erosi diren bi produktuak, azken 12 hilabeteetan EAEen,

EINen datuen arabera, aurreko urteetan erregistratu ziren berdinak izan dira: bidaiak eta oporretarako ostatuak (internet bitartez azkeneko 12 hilabeteetan eta xede pribatueterako erosi dutenen % 64,7) eta emanaldietarako sarrerak (% 41,8).

I.2.71. LAUKIA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOAREN ERABILERA XEDE PRIBATUEKIN EDO ETXERAKO

	2007		2008	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Azkeneko 12 hilabeteetan Internet bidez erosi duten pertsona guztiak (16tik 74 urte bitarte)	6.234.677	268.378	6.753.066	388.316
%a, pertsona guztien aldean				
Elikadurako produktuak	8,4	11,2	8,8	7,3
Ettxerako produktuak	12,9	16,0	13,3	18,8
Filmak edo musika	11,5	21,9	12,5	12,4
Liburuak, aldizkariak edo ikaskuntza elektronikoko materiala	19,2	20,1	20,6	20,8
Kirol arropa edo materiala	15,4	27,5	19,4	24,3
Ordenagailuko softwarea	16,3	16,6	13,0	20,4
Ekipo informatikoa (ordenagailuak eta osagarriak)	14,5	19	14,7	20,5
Ekipamendu elektronikoa	16,8	24,1	16,7	18,0
Akzio edo baloreak, aseguruak edo beste zerbitzu finantzario batzuk erostea	6,7	5,8	6,9	2,7
Bidaiek edo oporretako ostuak	61,2	60,8	60,4	64,7
Emankizunetarako sarrerak	33,2	43,3	35,9	41,8
Loteriak edo apustuak	3,9	4,2	4,0	4,3
Beste produktu edo zerbitzu batzuk	10,6	7,9	14,1	19,0

Iturria: EIN.

Edonola ere, azken hauen erosketak internet bidez behera egin du 2007 eta 2008 artean.

Jarraian arropa edo kirol materiala (% 24,3), liburuak, aldizkariak edo ikaskuntza elektronikoko materiala (% 20,8), ekipamendu informatikoa (% 20,5) eta ordenagailuko softwarea (% 20,4) daude. Eta 2007an, arropa eta kirol materiala (% 27,5), ekipamendu informatikoa (% 24,1) eta filmak edo musika (% 21,9).

Estatuan, gehien erosi diren bi gauzak aurreko inkestetan ere igarri zirenak izan dira: bidaiek edo oporretarako ostuak (internet bidez, xede pribatuekin eta azken 12 hilabeteetan erosi dutenen % 60,4ak erositak) eta emanaldietarako sarrerak (% 35,9). Ondoren, liburuak, aldizkariak edo ikaskuntza elektronikoko materiala (% 20,6), arropa edo kirol materiala (% 19,4), ekipamendu elektronikoa (% 16,7) eta ordenagailuko softwarea (% 13) egongo lirateke.

Enpresak

EAEko enpresa sareko merkataritza elektronikoa areagotzen jarraitzen du, bai sortzen dituen kopuru ekonomikoetan, bai parte hartzen duen establezimendu kopuru handiagoa sartzean. Gauza bera gertatzen da bide horretatik saltzen diren ondasun eta zerbitzuen kasuan.

2007an sortutako negozio bolumena, sarearen bitartez edo beste sistema elektronikoko batzuen bitartez (EDI, datu elektronikoen trukea, eta abar), 6.395,4 milioi eurora iritsi zen salmena elektronikoei dagokionez eta 3.102,4 milioi erostekoei dagokionez. Horrek % 13,3ko hazkundea dakar salmenten esparrura aurreko urteari dagokionez, eta % 17,2koa erosketen alorrean.

Jarduera sektoreka, ikusi da industriak negozio bolumen handiagoa sortzen duela (5.893,4 milioi euro erosketen eta salmenten artean), atzetik zerbitzuak edukiz (3.534,3 milioi euro). Eraikuntzak elektronikoki sortutako negozio kopurua oso murrizta da.

Merkataritza elektronikoa egiten duen establezimendu portzentajea (zentzu zabalenean) areagotu egin da, 2006ko % 12,8tik 2007ko % 15,3ra igaroz. Aitzitik, kopuru ekonomikoetan salmentek erosketak bikoizten badituzte ere, parte-hartzeari dagokionez produktuak bide elektronikoen eskurazten dituen establezimendu kopurua askoz ere altuagoa da.

Beste era batera esanda, parte-hartzeari dagokionez, hazkundearen jatorria bide elektronikotik erosten duten enpresen hazkunde dago, hain zuzen ere % 14,1eko portzentajea 2007 urtean. Izan ere, bide berdinetik salmentak egiten dituen enpresa portzentajeak, gora egiten badu ere, maila baxuagoetan eta hazkunde gutxiagokoetan mantentzen du kopurua. 2007an, establezimendu portzentajea % 3,6an kokatu zen.

Establezimenduen tamainaren arabera bereiziz, ikus daiteke erosketak elektronikoen portzentajea handiagoa dela 10 enplegutik beherako enpresetan, 10etik gorako enpresen baino. Aitzitik, salmentena altuagoa da tamaina handiagoko enpresen kasuan.

Gauzak horrela, on-line saldu zuen 9 enplegutik gorako enpresa portzentajea % 7,8ra mugatu zen EAEn, 2007an. EUROSTATen datuen arabera, on-line (internet, EDI edo beste sare batzuen bitartez) saldu zuen enpresa portzentajea¹² 2007an % 15koa izan zen EB-27n, % 16koa EB-25ean eta % 17koa EB-15ean.

¹² Inkesta egin zen urtearen aurreko urtea. % 1 baino gehiago on-line saltzen duten eta lanaldi osoan 9 langile baino gehiago dituzten enpresak bakarrik aintzat hartu dira (ez da finantzen sektorea sartu).

I.2.72. LAUKIA. SALEROSKETAK, JARDUERAREN ADARRAREN ETA ENPLEGU MAILAREN ARABERA (MILIOI €)


	Erosketak					Salmentak				
	2003	2004	2005	2006	2007	2003	2004	2005	2006	2007
Guztira	1.794,7	2.012,5	2.371,7	2.647,8	3.102,4	3.702,5	4.311,8	5.008,1	5.645,3	6.395,4
Jarduera adarra										
Industria	840,7	1.003,3	1.249,2	1.361,1	1.527	2.379,4	2.780,2	3.289,6	3.784,6	4.366,4
Eraikuntza	7,6	4,9	2,9	4,3	25,3	0,0	0,6	2,4	14,8	44,8
Zerbitzuak	946,3	1.004,3	1.119,6	1.292,4	1.550,1	1.323,1	1.531,0	1.716,1	1.845,9	1.984,2
Enplegu mailak										
Otik 9 bitarte	469,1	511,4	705,0	769,5	882,3	370,0	507,2	656,1	678,4	641,6
10 eta gehiago	1.325,6	1.501,1	1.666,7	1.878,3	2.220,1	3.332,5	3.804,6	4.352,0	4.966,9	5.753,8

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta - IGI Enpresak.

I.2.73. LAUKIA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (%)

	Establezimendu guztiak						10 langile edo gehiagokoak					
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Merkataritza elektronikoa	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	10	10,9	13,6	19,5	20,4	24
Erosketak	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4
Salmentak	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	2,8	3,7	4,1	5,1	6,4	7,8
%a erosketen/a (*)	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8
%a industriako erosketen/a (*)	6,3	7,2	11,2	9,2	11,5	13,9	5,8	6	12	10,3	11,3	13,8
%a eraikuntzako erosketen/a (*)	1,9	12,2	9,4	4,6	4,2	21,2	0,9	5,8	8,1	7,4	3,2	6,5
%a zerbitzuetako erosketen/a (*)	13,3	19	16,1	17,2	20,3	21,4	14,7	11,8	13	10,7	14,6	18,3
% salmenten/a (*)	16,1	20,6	22	24,6	24,4	20,7	13,4	15,5	15	19,4	21,7	31,5
%a industriako salmenten/a (*)	14,5	16,1	19,5	23,4	27	27,2	15,5	18,7	16,5	25,7	24,7	35,4
%a eraikuntzako salmenten/a (*)	0	0	0,1	10	3,3	13	0	0	0,1	10	10	25
%a zerbitzuetako salmenten/a (*)	16,4	21,5	22,7	25	24,8	22,6	12,1	13,3	14,9	16	20,6	29,4

(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa/salmenta elektronikoen batez besteko %, erosketa/salmenta guztien gainean. Iturria: EUSTAT. IGI Enpresak.

I.2.19. Grafikoa. Salmenta elektronikoa dituen establezimendu portzentajea, bezero mota eta urtea gorabehera

Iturria: EUSTAT. Prentsa oharrak.

Bestalde, on-line erosi zuten 9 enplegutik gorako enpresak % 21,4ra iritsi ziren EAEn. EUROSTATen datuen arabera, on-line (internet, EDI edo beste sare batzuen bitartez) erosi zuen enpresa portzentajea¹³ 2007an % 29koa izan zen EB-27n, % 30ekoa EB-25ean eta % 34koa EB-15ean.

Bestalde, 2007an ikusten da establezimenduen arabera erosketa guztien % 20,7 (% 18,2 aurreko ekitaldian) eta establezimenduen arabera salmenta guztien % 20,7 (% 24,4 aurreko ekitaldian) bide elektronikotik egiten direla. Merkataritza elektronikoa salmenten hartzaile izan den bezero motari dagokionez, EUSTATen arabera 2007an salmenta elektronikoen % 89,4 beste enpresa batzuei zuzendua izan zen (B2B), % 9,6ak kontsumitzaile partikularak eduki zituen hartzaile (B2C) eta gainerako % 1a beste destino batzuen artean banatu zen, adibidez Administrazio Publikoak, eta abar (B2G). Kopuru hauek aurreko urteko kopuruekin alderatuz gero, harkundeak igarri da beste enpresa batzuei egindako salmentetan, kontsumitzaileei egindako salmenten pisuaren kaltetan.

¹³ Inkesta egin zen urtearen aurreko urtea. % 1 baino gehiago on-line saltzen duten eta lanaldi osoan 9 langile baino gehiago dituzten enpresak bakarrik aintzat hartu dira (ez da finantzen sektorea sartu).

Horiek zein bidetik egin diren gorabehera, % 57,8 EDI eta beste sare batzuen bitartez egin da, % 21,2 posta elektronikoz egin da eta % 21 web orrialdearen beraren bitartez. Salmenta elektronikoa egin dituzten enpresen % 26,1ak ordainketak eskuratu ditu on-line.

2.2.6. Euskadi Informazio Gizartean Plana. Euskadiko Agenda Digitala 2010.

Euskadi Informazio Gizartean Plan berriak, EIGP 2010 izenekoa: Euskadiko Agenda Digitala, 2008ko apirilaren 22ko Gobernu Kontseiluak onetsitakoa, aldaketa planteatzen du ikuspegiari, aurreko planaren aldean: IKTak erabiltzen dituen gizarte batek hazkunde iraunkorra sortzen duen gizarte batera igarotzea, erantzukizun mailak eta gizarte parte-hartzeak areagotzen dituen erabakiak hartzerakoan, eta ezagutzaren oinarriaren gainean bizi kalitatean laguntzen duena.

Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa da, sail guztien esku-hartzearekin. Horrekin, aldi berean, gainerako agente eta erakundeak gonbidatu nahi dira, aktiboki integra daitezen Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea eraikitzeko behar den kultura aldatetan.

EIGP 2010 delakoaren helburuak

Plana bost helbururekin planteatu da:

1. Herritar aktiboak: herrialde kohesionatuta. Haren herritarrak eskudunak izango dira, bai eduki eta zerbitzu digital aurreratuak erabiltzeko, bai, bereziki, sorrera eta garapenean aktiboki laguntzeko eta bakarkako eta taldeko ongizatearen zerbitzura jartzeko.
2. Enpresa berritzailea: Euskal enpresak, haien tamaina eta sektorea alde batera utzita, intentsiboki eta estentsiboki erabiliko dituzte IKTak, lankidetzak sareak sortzeko. Horien bitartez, arrakastaz lehiatu ahalko dira edozein sektore edo merkaturatan, berritzaile izateko bezeroen atseginerako erabat izango diren produktu eta zerbitzuen garapenean, nahiz bere operatiba eta negozio eremuan bertan. Horrela, une bakoitzean eraldatu ahalko dira, lehiatzeko gaitasunak optimizatuz.
3. Zerbitzu publiko digital aurreratuak: euskal herritar eta enpresek eduki eta zerbitzu digital publiko aurreratuak edukiko dituzte, beren benetako behar eta itxaropenei erantzunez bizi kalitatea areagotzeko.
4. Euskadi sarean: herrialde bat, herritar batzuk, enpresak eta erakundeak gai izango dira euskararen eta euskal kulturaren presentzia aberatsa, dinamikoa eta etenik gabekoa mantentzeko Interneten eta baliabide digitaletan. Horri esker, posible izango da euskal kulturaren identitatea mantendu eta barreiatzea nahiz euskal herritarrei bermatzea euskarazko esperientzia digital osoa. Herrialde irekia eta abegitsua, milurteko kulturagatik eta baliabide turistikoengatik erakargarria den destinoa.
5. Infoegiturak: herritarrek, enpresek eta euskal administrazioek edozein tokitik eskuratu ahalko dituzte Informazioaren

Gizarteko zerbitzuak, horretarako segurtasun maila altuko hainbat bide eta gailu erabiliz.

Banda zabaleko estaldurak euskal biztanleria osoa hartzen badu ere ia-ia, sartzeko prezioek mantsotzea dakarte banda zabaleko konexioak intentsiboki erabiltzeko.

Aurreikus daitekeen garapen teknologikoak nonahiko konexioa edukitzea ahalbidetuko du ziurrenik, ia mugagabea, eta geroz eta prezio merkeagoetan. Balio ekarpena zerbitzuen esparrura igaroko da, bai publikoak, bai pribatuak, aniztasuna eta bereizitasuna areagotuko baitute.

Bestalde, teknologien eta erabilaren bilakaera nabarmena da, kanal berrien agerpenean, haririk gabekoak funtsean, eta sarbideko gailuetan ikus daitekeen bezala. Horien artean, lurreko telebista digitala eta telefono mugikorrek egongo lirake. Egungo azpiegiturek eboluzionatu egin beharko dute, erabilera eredu berrietara egokitzu eta beren gaitasunak areagotuz, sarbidea eta geroz eta bereziagoak diren zerbitzu digital berriak erabiltzea bermatzeko.

Merkataritzako transakzioak egiteko zerbitzu digitalen erabilera orokorra mantsotzen duen beste faktore garrantzitsu bat erabiltzaileen segurtasun ezeko pertzepzioa da, eta horretarako bi motatako jarduerak behar dira: batetik, merkataritzako transakzioen segurtasun tekniko eta juridikoa areagotzea zuzendutako ekintzak eta, bestetik, herritarrei zuzendutako barreiatze eta sentsibilizazio ekintzak.

Ilde estrategikoak eta programak

Bost jomuga estrategikoak zabaltzeko, haiekin zerikusia duten eta antzeko definizioa daramaten 5 ekimen martxan jarri gauzatzen da. Bertan, 18 jarduera programa sartzen da. Hauek beste bi ekimenekin batera doaz. Erakunde agenda digitalak eta Ezarpena, Jarraipena eta Ebaluazioa.

Helburuak

Azkenik, Planak jomugak aintzat hartuz finkatu dituen helburuak hauek dira:

- Enplegarritasuna sustatzea: Europar lider diren bost herrialdeen emaitzekin bat egitea lortu nahi da.
- Irisgarritasuna bermatzea.
- Sartzea babestea: zirrikitu digitalak murriztea.
- IKTen erabilera sustatzea, hezkuntza zentroei babesa emateko modu bezala.
- Zerbitzu aurreratuak erabilera bultzatzea.
- Prestakuntza iraunkorra sustatzea.
- Autonomoen eta mikroenpresen zirrikitu digitalari aurre egitea.
- Sinadura elektronikoen erabilera orokor bihurtzea.
- IKT sektore bat eta ikus-entzunezkoa finkatzea.
- Herritarrek zerbitzu publikoak elektronikoki eskuratzeko aukera edukitzea.
- On-line eskura dauden Zerbitzu Publikoen eskaintza sendotzea.
- Euskadi.net ataria Euskadin gehien bisitatzen diren hiru atarien artean kokatzea.

I.2.74. LAUKIA. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA PROGRAMAK

Ekimenak	Programak
1.- Herritartasun aktiboa	1. Ikaskuntza bizitza osoan zehar 2. Hezkuntza zentroa 2010 3. Barrura sartzea. 4. Nire etxea Interneten 5. Herritarren parte-hartzea.
2.- Enpresa berritzailea	6. Infozerbitzuak 7. Enpresentzako jarduerak 8. Jarduerak IKT eta ikus-entzunezko eskaintzarako 9. Inpaktu handiko eta Administrazioa buru duten proiektu integralak
3.- Zerbitzu Publiko Digitalak	10. Barne digitalizazioa 11. Administrazio arteko elkarrengarritasuna. 12. Zerbitzu digitalak 13. Edukiak (atariak)
4.- Euskadi sarean.	14. Euskal kulturarako eta kultur ondarerako zerbitzuak 15. Euskarazko esperientzia digital osoa ahalbidetzeko zerbitzuak. 16. Euskadi kalitatezko turismo destino gisa sustatzeko zerbitzuak.
5.- Azpiegiturak	17. Azpiegitura aurreratuak irisgarritasunaren, segurtasunaren eta konfiantza digitalaren esparruan. 18. Eguneratze teknologikoa
6.- Erakunde agenda digitalak	19. Tokiko Agenda Digitalak bultzatzea 20. Nazioarteko lidergoa Agenda Digitalak sustatzerakoan. 21. e-Demokrazia
7.- Ezarpena, Jarraipena eta Ebaluazioa	22. Kudeaketa, koordinazioa eta jarraipena. 23. Komunikazioa, sentsibilizazioa eta barreiapena.

Aurrekontua

Euskadi Informazio Gizartean Plana 2010 delakoaren finantzazio orokorra 285.435.200 €-koa izango da, eta jarraian zehaztuko den moduan banatuta egongo da:

• Herritar aktiboak: 104.153.000 €

• Enpresa berritzailea: 81.793.200 €

• Euskadi sarean: 6.670.000 €

• Infoegiturak: 87.469.000 €

• Erakunde agenda digitalak: 850.000 €

• Komunikazioa eta kudeaketa: 4.500.000 €

3. INGURUMENAREN EGOERA EAEN

3.1. EAEko 2002-2020ko ingurumen estrategiaren jarraipena. Ingurumeneko adierazleak

a. Airearen kalitatea eta atmosferako kutsagarriak botatzea

Azken urteetan, euskal produkzioaren birmoldaketari esker eta atmosferaren kutsadura arintzeko egin diren ekintzei esker, historikoki altuak izan diren kutsadura mailak neurri handi batean murriztu ahal izan dira. **Airearen kalitatearen¹ eta partikulen emisioen** adierazleak positiboak dira eta norabide egokian doaz. Halere, beharrezkoa da PM₁₀ partikulei dagozkien jarduketak azkartzea.

2005. urtera arte, airearen kalitate indizea kalkulatzeko, EAEko lurraldean zortzi eremu bereizten ziren. Urte horretan egindako ikerketen

ondoren, komenigarritzat jo zen EAE hamaika eremutan bereiztea. Gainera, airearen kalitate indizearen maila kopurua aldatu zen. 4 maila izatetik (ona, onargarria, txarra eta oso txarra) 6 izatera igaro zen (ona, onargarria, moderatua, txarra, oso txarra eta arriskutsua). Eremu horietako bakoitzak, era berean, urrutiko estazio batzuk dauzka. Estazio horiek sentsore edo analizatzaile automatikoak dituzte, indizea kalkulatzeko erabiliko diren kutsagarriak (SO₂, NO₂, PM₁₀, O₃ eta CO) denbora errealean neurtzen dituztenak. Estazio bakoitzean kutsagarri bakoitzaren indize indibidua la kalkulaten da. Horri *indize partziala* esaten zaio. *Estazio bakoitzerako indize orokorra egoera okerreanean dagoen kutsagarriaren indize partziala izango da.* Horrela, estazio bakoitzak bere indize orokorra izango da. Era berean, eremu bateko estazioen indize orokorretako baliorik txarrenak definitzen du eremu horretako airearen kalitatea.

1.3.1. LAUKIA. AIREAREN KALITATEARI BURUZKO LEGERIA: 1073/2002 ED. GEHIENEZKO BALIOAK + TOLERANTZIA MARJINA

Kutsagarria	Batez besteko aldia	Alertarako atalasea	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	Oharrak
SO ₂	ordu 1	500 µg/m ³ , 3 orduz segidan	440	410	380	350	350	350	350	µg/m ³ Onartuak: 24, urte zibil bakoitzeko µg/m ³ / gehi. Onartuak: 3, urte zibil bakoitzeko µg/m ³
	24 ordu		125	125	125	125	125	125	125	
	Urte zibila (*) eta negua		20	20	20	20	20	20	20	
NO ₂	ordu 1	400 µg/m ³ durante 3 horas consecutivas	280	270	260	250	240	230	220	µg/m ³ gehi. Onartuak: 18, urte zibil bakoitzeko µg/m ³ / gehi. µg/m ³
NO _x	Urte zibil I		56	54	52	50	48	46	44	
	Urte zibil I		30	30	30	30	30	30	30	
PM ₁₀	24 ordu	—	65	60	55	50	50	50	50	µg/m ³ gehi. Onartuak: I fasea: 35 urte bakoitzeko II fasea (2010): Ez da indarrean sartuko µg/m ³
	Urte zibil I		44,8	43,2	41,6	40	40	40	40	
Pb	Urte zibil I	—	0,8	0,7	0,6	0,5	0,5	0,5	0,5	µg/m ³ Muga orokorra PM ₁₀ , 2005eko urtarilaren 1etik aurrera µg/m ³ Iturri espezifikoaren inguruak PM ₁₀ , 2010eko urtarilaren 1etik aurrera µg/m ³
	Urte zibil I		1,0	1,0	1,0	1,0	0,9	0,8	0,7	
Bentzenoa	Urte zibil I	—	10	10	10	10	9	8	7	µg/m ³
CO	Gehienezko b. besteko ordutegia egunean	—	16	14	12	10	10	10	10	mg/m ³

* Urte zibila: urtarilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritza.

¹ EAEko airearen kalitatearen indizea lortzeko, kontrol eta zaintza sare bat dago, EAEko zona ezberdinetan barreiatutako estazioetan zenbait parametro denbora errealean neurtzen dituenak. Parametro horietako batzuk hauek dira: sulfuro dioxidoa (SO₂) kutsagarriak, gas oso erreaktiboek multzo bat (hala nola oxido nitrikoa (NO) eta nitrogeno dioxidoa (NO₂)), nitrogenoa eta oxigenoa proportzio ezberdinetan dauzkatenak (NO_x), karbono monoxidoa (CO), 10 µm mozketak partikulak (PM₁₀) eta ozono troposferikoa (O₃).

I.3.2. LAUKIA. AIREAREN KALITATEARI BURUZKO LEGERIA: 2008/50/EE ZUZENTARUA (transposatzeke)

Kutsagarria	Batez besteko aldia	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Oharrak
PM _{2,5}	Urte zibil 1	30	29,3	28,6	27,9	27,1	26,4	25,7	25	25* 24*	MT 2008 %20 µg/m ³

2010erako helburua den balioa: 25 µg/m³. II FASEA: 2020rako urteko muga 20 µg/m³ (*2013an Batzordeak berrikusi behar du).
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritza

I.3.3. LAUKIA. AIREAREN KALITATEARI BURUZKO LEGERIA: 1796/2003 ED. OZONRAKO HELBURU-BALIOAK ETA EPE LUZERAKO HELBURUAK

	2010erako HELBURU-BALIOA	EPE LUZERAKO HELBURUAK
1. Gizakien osasuna babesteko helburu-balioa	1. 120 µg/m ³ . Urte zibil bakoitzean ezin daiteke muga hori batez bestez 25 egunez baino gehiagotan gainditu, 3 urteko denboraldian.	1. 120 µg/m ³
2. Landaretza babesteko helburu-balioa	2. 18.000 µg/m ³ h batez bestez 5 urteko denboraldian.	2. 6.000 µg/m ³ h

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritza.

I.3.4. LAUKIA. LURRALDEAREN ZONAKATZEA

1. Araba hegoaldea
2. Arabako lautada
3. Arabako Errioxa
4. Kostaldea
5. Donostialdea
6. Oria Garaia
7. Urola Garaia
8. Ibaizabal - Deba Garaia
9. Nerbioi Garaia
10. Enkarterri
11. Nerbioi Behea

Indizearen balioa 0 da, kutsagarriaren kontzentrazioa deuseza denean. Kontzentrazioa errege dekretuak ezarritako muga-ekin bat datorrenean, 100eko balioa ematen zaio. Bestelako kontzentrazio balioetarako indizearen balioa interpolazio linealaz ateratzen da.

Airearen kalitate indizeari esleitzen zaion balioa zenbat eta handiagoa izan, txarragoa izango da eremu horretako airearen kalitatea. Eguneroko indizea da hori. Hau da, indizearen balioa egunero aldatzen da; horrenbestez, dagokion eremuko airearen kalitateari buruzko informazioa ere egunero aldatzen da. Horregatik, airearen kalitate indize ezberdinak dituen eremu bat egon daiteke.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Sailaren Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, ondorioztatu daiteke airearen kalitatea ona edo behintzat onargarria dela azpi-eremu guztietan.

Laginketa egin den 11 estazioetan egun guztietako portzentajeari dagokionez esan behar dugu airearen kalitate indize oso txarra edo txarra izan duten egunen portzentajea 3 dezima murriztu dela 2007 eta 2008. urteen urtean, %1,1etik %0,8ra; kopuru absolutuetan, 43 egunetatik 34 egunetara. Bestalde, airearen kalitatea moderatua izan den egunen portzentajea nabarmen murriztu da: %5,1etik %2,4ra; kopuru absolutuetan, 206 egunetatik 96 egunetara. Zehazki, 2008. urtean, hauek nabarmendu behar ditugu: Urola Garaia (kalitate txarreko aireko 20 egun –aurreko urtean baino 7 gehiago– eta kalitate moderatuko 26 egun), Deba Garaia-Ibaizabal (aire txarreko edo oso txarreko 6 egun eta aire-kalitate moderatuko 23 egun) eta Oria Garaia (aire txarreko edo oso txarreko 3 egun eta aire-kalitate moderatuko 13 egun).

Gas kutsagarrien emisioei dagokienez, urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuaren helburuak, airean sufite dioxidoa (SO₂), nitrogeno dioxidoa (NO₂), partikulak (PM₁₀), beruna (Pb), bentzenoa eta karbono monoxidoaren (CO) kontzentrazioetarako “muga-balioak” eta “alartarako atalaseak” definitzeaz eta ezartzeaz gain, hauek dira: airearen kalitatearen ebaluazioa, mantenimendua eta hobekuntza arautzea, aipatutako substantziei dagokienez, eta herritarrei eta Europako Batzordeari informazioa ematea, araututako substantziek gizakien osasunean eta ingurumenean dauzkaten ondorio kaltegarriak ekiditeko, prebenitzeko eta murrizteko helburuarekin.

Errege dekretu honen ondorioetarako, airean dagoen kutsagarri-maila neurtzeko, kalkulatzeko, aurreikusteko edo zenbatesteko erabiltzen den edozein metodo da “ebaluazioa”. Horrek *airearen kalitate indizea* definitzera garamatza.

I.3.5. LAUKIA. AIREAREN KALITATEA EAEn (egunetan neurtua)

	2008					Txarra edo oso txarra		Moderatua	
	Buena	Onargarria	Moderatua	Txarra	Oso txarra	2007	2008	2007	2008
Araba hegoaldea	173	192	1	0	0	0	0	3	1
Arabako lautada	212	149	3	2	0	2	2	13	3
Arabako Errioxa	184	180	1	1	0	1	1	3	1
Kostaldea	211	151	4	0	0	0	0	6	4
Donostialdea	239	122	5	0	0	0	0	7	5
Oria Garaia	156	194	13	2	1	11	3	37	13
Urola Garaia	132	188	26	20	0	13	20	42	26
Ibaizabal-Deba Garaia	172	165	23	5	1	12	6	41	23
Nerbioi Goiena	243	118	4	1	0	2	1	25	4
Enkarterri	229	133	2	0	0	0	0	5	2
Nerbioi Behea	182	169	14	1	0	2	1	24	14
EAE GUZTIRA (EGUNAK)	2.133	1.761	96	32	2	43	34	206	96
EAE GUZTIRA %	53,0	43,8	2,4	0,8	0,0	1,1	0,8	5,1	2,4

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzatik.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzaren datuen arabera, hau egin behar da:

2007. urtean SO_2 emisioek ez zuten inoiz gainditu eguneko balioa gainditu Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sare osoan, eta ez zen atzeman orduko muga-balioa gainditu zenik ($350 \mu g/m^3$). 2008. urtean, ordea, egune-

ko balioa behin gainditu zen (azaroaren 25ean, Azpeitiko estazioan), eta orduko muga-balioa 10 aldiz gainditu zen (azaroaren 25ean eta 26an Azpeitiko estazioan). Halere, legeriak eguneko muga-balioa 3 aldiz gainditzea eta orduko muga-balioa 24 aldiz gainditzea baimentzen du. Beraz, ondorioztatu behar dugu ezarritako mugak ez direla gainditu.

I.3.6. LAUKIA. KUTSAGARRIEN EBALUAZIOA

Kutsagarria	Batez besteko aldia	2007	2008	Oharra
SO_2	ordu 1	EZ DA GAINDITU	10 aldiz gainditu da AZPEITIAN	$\mu g/m^3$ Onartuak: 24. urte zibil bakoitzeko
	24 ordu	EZ DA GAINDITU	Behin gainditu da AZPEITIAN	$\mu g/m^3$ / gehi. Onartuak: 3. urte zibil bakoitzeko
NO_2	ordu 1	Behin gainditu da: ERANDION	Behin gainditu da: GASTEIZ ETORBIDEKO estazioan	$\mu g/m^3$ gehi. Onartuak: 18. urte zibil bakoitzeko
	Urte zibil 1	EZ DA GAINDITU	EZ DA GAINDITU	$\mu g/m^3$
CO	Gehienezko b. besteko ordutegia egunean	EZ DA GAINDITU	EZ DA GAINDITU	mg/m^3
O_3	3 urte	—	2010erako balio objektiboa gainditu da estazio hauetan: • 28 aldiz gainditu da IZKIn • 26 aldiz gainditu da VALDEREJON • 26 aldiz gainditu da ELCIEGON	Gizakien osasuna Onartuak: 25. urte zibil bakoitzeko
	5 urte	—	2010erako balio objektiboa gainditu da estazio honetan: • ELCIEGO	Landaretza Onartuak: 25. urte zibil bakoitzeko

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzatik.

I.3.7. LAUKIA. 2008an PM₁₀ EMISIOETAN MUGA GAINDITU DUTEN ESTAZIOAK

UDALERRIA	ESTAZIOA	Muga zenbat aldiz gainditu den	Urteko batez bestekoa	% egun datuekin (gutxienez %90 beharrezkoa)	Egun kopurua datuekin
BILBO	LARRAS PM ₁₀ Larraskitu	80	38	99	363
BILBO	MDIAZ PM ₁₀ María Díaz	65	36	96	350
AMOREBIETA	ZELAIE PM ₁₀ Amor. parkea	60	36	98	358
BILBO	MAZARR PM ₁₀ Mazarredo	60	34	99	361

■ 2008. urterako legezko muga + tolerantzia-marjina gainditzea.

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzatik.

NO₂ emisioak. Ez da inola ere gertatu 18 aldiz baino gehiagotan gainditzea legezko muga gehi NO₂ko orduko balioetarako tolerantzia-marjina urte zibil bakoitzean². Behin bakarrik (urtarrilaren 22an) gainditu da 220 µgr/m³ko orduko muga, Gasteiz Etorbideko estazioan, Vitoria-Gasteizen (222 µgr/Nm³). Gizakien osasuna babesteko urteko batez besteko balioari dagokionez, esan behar dugu 2008an inongo estaziok ez duela gainditu muga + tolerantzia-marjina (44 µgr/m³) Lortu den baliorik handiena, aurreko urtean gertatu zenez, Bilboko Zorrotzako Parkeko estazioarena izan da (42 µgr/m³).

2008an CO emisioek ez dute behin ere gainditu batez besteko ordutegia legez ezarritako mugatik gora (10 mgr/m³).

PM₁₀ emisioetan, oraindik ere legezko mugak gainditzen direla ikusten da, baina 2007an erregistratutakoak baino txikiagoak. Hain zuzen ere, 2007an 13 estaziotan urteko batez besterako muga gainditu zen (35 egun urte bakoitzean); 2008an, berriz, 4 estaziotan egin zen.

b. Uraren kalitatea

Ur kontinentalen eta itsasoko uraren egoera. Makro-ornogabe bentonikoak³

Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) y II. Ingurumen Esparru Programa (2007-2010) konpromisoa bat dira. Zehazki, 2012. urtean lurrazaleko ur-masen %80ak egoera ekologiko eta kimiko ona edo oso ona izateko, eta ur artifizialeko ur-masen eta ur-masa oso eraldatuaren %80ak potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona izateko konpromisoa. "Egoeraren" kontzeptu hori, 2000/60/EE Zuzentarauaren arabera (ur politiken eremuan jarduketarako esparru erkidea ezarri zuena), uretako ekosistemen funtzionamendua modu integratuan islatzen duten eragile guztiak aintzat hartu ondoren definitu da. Horrela erabiltzen dira

hiru adierazle mota: biologikoak, fisiko-kimikoak eta hidromorfologikoak. Zuzentarau horren arabera, egoera biologikoaren balorazioa bere adierazle biologikoetako bakoitzaren baloraziorik txarrenari dagokio. Beste bi adierazleek, egoera biologikoaren emaitzarekin batera, egoera ekologikoa zehaztea ahalbideratze dute.

Ur kontinentalen egoera: ibaiak

Guztira 123 ur-masa identifikatu dira ibai kategoriarekin: 95 ur-masa naturalak dira, 9 urtegi motakoak dira eta 19 behin-behinean oso aldatutako gisa izendatzen diren ur-masak dira. Era berean, guztira 10 ibai tipologia identifikatu dira.

Beste batzuetan bezala, analisi partzial baten bidez egin da egoeraren hurbilketa. Horretarako, makro-ornogabe bentonikoen egoera ekologikoaren balorazioa egiten da (MB indizea) eta ingurumenerako helburuak ezartzen dira (OMA); eta baldintza fisiko eta kimiko orokorren balorazioa egiten da (IFQ-R indizea).

MBI indizearekin (makro-ornogabe bentonikoak) lortutako balorazioetatik aurrera, II. Ingurumen Esparru Programaren (2007-2010) denbora-mugarako planteatutako helburuen betetze maila gaur egun txikia da. Azken kanpainetako (2004-2007) emaitzen egonkortasuna erakusten du horrek.

Azken urteetarako EAE osoan balorazioa egin zaien 114 ur-masa naturalak (ibaiak) kontuan hartzen baditugu, 2007an haietatik %32ak bete zituzten helburuak, eta 2008an, %38ak.


Ibaien kategorian ur-masa naturalen eta ur-masa oso aldatuen arteko bereizketa egiten badugu, hauek dira emaitzak:

- Ur-masa naturalak. 2008an, ingurumen helburuak betetzen dituzten masen %44 erregistratu zen. 2007an, oster, %37 baino ez ziren.


² Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

³ Honelako organismoak ibai eta errekaetako zoruei lotuta bizi dira, arroak eta hostoak bezalako gaietan. Uretan dauzkaten presentzia eta dibertsitatea uraren kalitate ekologikoaren adierazle ezin hobeak dira, bizi diren giroan gertatzen diren aldaketa fisiko, kimiko eta fisiko-kimikoen aurrean oso sentikorrak direlako. Adierazle ona dira, gainera, laginak jasotzea erraza delako eta aldaketen aurrean sentikorrak direlako.

I.3.1. Grafikoa. Ibaiak-naturalak. Makro-ornogabe bentonikoak. MBI indizea



I.3.2. Grafikoa. Ibaiak-MAMM. Makro-ornogabe bentonikoak. MBI indizea



- Ur-masa oso aldatuak. 2008an, ingurumen helburuak betetzen dituzten masen %5 erregistratu zen. 2007an, ostera, %11 baino ez ziren.

MB indizeak azaltzen duenez, helburu biologikoen betetze maila txikia da. Halere, IFQ-Rk, ingurumen helburuekin bat datozen komunitate biologikoen garapena baimentzen duten baldintza fisiko-kimiko orokorren egoera islatzen duena, hobetzeko joera argia markatu du historikoki, 2007an eta 2008an betetze portzentaje altuetara iritsiz. 1999an on-dorioztatu zen ibaien kategoriako ur-masen %40ak inguru ingurumen helburuak betetzen zituztela IFQ-R indizearen arabera. 2008an aztertu ziren ibai kategoriako 100 ur-masak kontuan izanik, gaur egun esan dezakegu %83ak helburuak betetzen dituela.

Ibaien kategorian ur-masa naturalen eta ur-masa oso aldatuen arteko bereizketa egiten badugu, hauek dira emaitzak:

- Ur-masa naturalak. 2008an, ingurumen helburuak betetzen dituzten masen %86 erregistratu zen. 2007an, ostera, %88 baino ez ziren.


- Ur-masa oso aldatuak. 2008an, ingurumen helburuak betetzen dituzten masen %68 erregistratu zen. 2007an, ostera, %74 baino ez ziren.

Ekosistemaren ikuspegitik, erantsi dezakegu, kalitate fisiko-kimiko orokorra egoera ekologikoaren hobekuntzarako oinarri-zko faktorea den arren, ez dela faktore bakarra. Beste faktore batzuek, adibidez, hidromorfologikoak eta kutsagarri zehatzei (metalak eta organikoak) dagozkienak, egoera historiko problematiko bat sortzen lagundu dute, saneamendu nahikorik ez egoteagatik jazo dena. Gabezia horren ondorioz, karga organikoko maila altuak sortu eta sortzen dira, sedimentu kutsagarriak pilatuz.


Azkenik, oso garrantzitsua da kontuan izatea kalitate fisiko-kimikoaren hobekuntzak edo konponbideak ez duela denbora-eskala berean eragiten kalitate biologikoa hobetzeko orduan; izan ere, denbora-eskala handiagoa eta kalitate kimikoa egonkortzea behar du.


Oro har, gure ibaien egoera, etorkizunari begira, itxaropen-tua dela mantendu beharra dago. Hiri eta industri izaerako

I.3.3. Grafikoa. Ibaiak-naturalak. Egoera fisiko-kimiko orokorra. IFQ-R indizea



I.3.4. Grafikoa. Ibaiak-MAMM. Egoera fisiko-kimiko orokorra. IFQ-R indizea



I.3.5. Grafikoa. Trantsizio-urak. Makro-ornogabe bentonikoen egoera

Iturria: Uraren Euskal Agentzia.

hondakin uren saneamendurako egin den ahalegin handiak emaitza positiboak eman ditu dagoeneko. Datozen urteetan, are hobetoagoak izan beharko dira. Aitzitik, badaude zenbait tar- te garrantzitsu egoera txarrean oraindik ere, bereziki Nerbioi- Ibaizabal, Deba eta Oria ibaien arroetan.

Aitzitik, EAEko Saneamenduko Plan Zuzentzailean egiteke dau- den saneamenduen birmoldaketa edota amaiera, ibaiertzak lehengoratzeko eta babesteko aurreikuspenen burutzapen progresiboa, kutsadura murritzeko programa bereziak gauza- tzea eta abar etorkizunean ibaien egoera modu progresiboan hobetzeko faktoreak izango dira.

Oro har, EAEko ibaien egoera modu negatiboan baldintza- tzen duten faktoreak ondoko hauek dira: arazketa eta sanea- mendua ez dira nahikoak, kutsadura puntuala dago (industri efluenteak), nekazaritza jardueren ondorioz kutsadura lausoa, ibaietako habitatean aldakuntzak (nekazaritzaren eta hirigin- tzaren presioen ondorioz), baliabideak oker erabiltzea (lurzo- rua eta ura modu intentsiboan aprobetxatzea, adibidez zentral hidroelektriko batzuen ondorioz) eta komunitateen aldakun- tza (espezie aloktonoak sartzeagatik).

Trantsizio uren (estuarioak) eta kostako uren egoera

“EAEko trantsizio uren eta kostako uren egoera ekologikoari jarraipena egiteko sareak”, 2008ko kanpainan, trantsizio uren (estuarioak) 32 estazio eta kostaldeko 19 estazio aztertu ditu.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Añarbeko Urek in- gurumenaren jarraipeneko zenbait azterketa egin dituzte, bai Donostiaren eta Pasaiaiko Badiaren arteko kostaldean, bai Oiari- tzungo estuarioan.

Ibaien sarean bezala, aldagai fisiko-kimikoen analisiak gain, adierazle biologikoak erantsi dira. Horrela, M-AMBI indizea ga-

ratu da, substratu biguneko makro-ornogabe bentonikoen ko- munitateetan oinarrituta. Horrek euskal kostaldearen kalitate biologikoaren bilakaera finkatzea ahalbideratzen du.

Trantsizio urretan dago arazorik gehien. Halere, hobetzeko joera dagoela ikusi dugu. 2002an, ur-masen %7ak soilik (la- ginketa estazioen %38ak) betetzen dituzten OMAk. 2008an, ordea, OMAk masen %50ak (kontrol estazioen %69ak) bete- tzen zituen.

Kostaldeko urretan, egoera aldekoa da erabat, laginketa esta- zioen %100ean helburuak bete direla erregistratu baita.

Lakuen eta barnealdeko hezeguneen egoera


EAEko hezegune edo lakuen kategoriari lotuta, 4 ur-masa mu- gatu dira (Arreoko lakua, Biasteriko laku multzoa, Salburuako hezegunea eta Altubeko laku multzoa). EAEko barnealdeko hezeguneen kalitate ekologikoari jarraipena egiteko sareak guztira 19 hezegune kontrolatzen ditu; haietatik 15, 2001/2002 ziklo hidrologikoaz geroztik.

Dauden emaitzetan oinarrituta, esan dezakegu bilakaera positiboa gertatzen ari dela, baina oraindik ez da nahikoa. 2001/2002 ziklo hidrologikoaz geroztik aztertu diren 15 heze- guneetatik, lehen zikloan %7ak soilik betetzen zituen OMAk. Azken zikloan, berriz, hezeguneen %27ak betetzen ditu OMAk. 2006-2007ko ziklo hidrologikoan lortutako emaitzak errepika- tuz.

Bainatzeko uren kalitatea


Kontseiluaren eta Europako Legebiltzarraren 2006/7 Zuzentaraua eta bere transposizioa, (bainatzeko uren kudeake- tari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuaren bidez, argitaratuz, zehaztu beharreko parametro mikrobiologikoak

I.3.6. Grafikoa. Kostaldeko urak. Makro-ornogabe bentonikoen egoera



Iturria: Uraren Euskal Agentzia.

I.3.7. Grafikoa. Barnealdeko hezeguneak. Egoera ekologikoaren bilakaera



Iturria: Uraren Euskal Agentzia.

alduz ziren. Urteko ebaluazioa araudi berrian azaldutako eran egin beharko da, argitaratu ondoko lau denboraldiaren arabera eta gutxiengo laginketa kopuru baten arabera. Gainera, bainatzeko uren sailkapena ez nahikoa, nahikoa, ona eta bikaina izango da, parametro mikrobiologikoetarako lortutako datuen seriearen ebaluazioaren arabera.

Araudi berriak ezarritako helburua da agintari eskudunek beharrezkoak diren neurri guztiak ezar ditzatela, 2015eko bainatzeko denboraldiaren amaieran bainatzeko ur guztiek kalitate nahikoa izan dezaten. Halere, trantsizio aldian gaudenez gero, denboraldi horretako lehenbiziko zatia, autonomi erkidegoen eta ministerioaren

araberako akordioaren arabera, 734/1988 ED-aren irizpideekin sailkatzen da, baina 1341/2007 ED-aren parametroetako balioak aplikatuz.

- 2. motako hondartzak: parametro ezberdinetarako gida-balioak eta aginduzko balioak betetzen dituzte, goian aipatutako errege dekretuan ezarritako baldintzekin bat etorritik.
- 1. motako hondartzak: aginduzko balioak betetzen dituzte, baina ez gida-balioak.
- 0. motako hondartzak: ez dituzte aginduzko balioak betetzen.

2003. urtean Prestige-ren hondamena pairatu zuten itsasoko 31 bainu-eremuek gida-balioak betetzen dituzte 2006. urtean. Plentzia, Gorlizko eskumakoa, Gorlizko erdikoa eta Gorlizko ezkerrekoa Bizkaian; Antillako hondartza eta Kontxakoa Nautikoa Gipuzkoan; 2004. urtean ez zuten lortu, baina 2005ean bai. Zarauzko erdikoa eta Grosekoak, Gipuzkoan, 2006. urtean lortu zuten.

2008. urtean egindako analisiak, aurrekoa edukita⁴, erakusten du 10 bainu-eremu hobetu egin direla: haietako 9 1. kategoriatik 2.era igaro dira, eta bat, Otik 2.era. Era berean, 3 bainu-eremuek sailkapena txarragoa daukate: 2. kategoriatik 1.era igaro dira. Hauek dira: Karraspio hondartza Bizkaian, Gros-Zurriola hondartza (eskuinaldea) Gipuzkoan eta Uribarri-Ganboako urtegia (eskuinaldea) Araban.

Hondartza inguruko eremuari dagokionez, sailkapena hondartza osoari dagokio, guneka bereiztu gabe (urarekin egiten denez). Horregatik, hondartzako gune guztiek sailkapen bera izango dute, ezberdintasunak izan arren.

Bizkaian, dauden 31 eremuek sailkapen hau jaso dute 2008. urtean: 20 eremu on (aurreko urtean 24 izan ziren), 11 hobegarri (2007an 6 izan ziren) eta bat ere ez txarra. Oro har, nolabait egoerak okerrera egin duela esan dezakegu. Bestalde, Gipuzkoako 23 eremuek sailkapen hau jaso dute: 18, onak (aurreko urteko berberak); 1, hobegarria (aurreko urtean 1 izan zen), eta 4, txarrak (aurreko urtean 4 izan ziren). Azkenik, Araban dauden hondartza inguruko 5 eremuetatik 4 hobe-

garriak dira eta bestea ona da. Ez dago aldaketarik aurreko urteen aldean.

c. Baliabide naturalen kontsumoa: Ur gezatako baliabideak: ura hartzea eta kontsumitzea

EAEn hornidura publikorako hartutako ura, INEk egin zuen *Ura hornidurari eta tratamenduari buruzko inkestaren* arabera, 218.3 Hm³ izan zen 2006. urtean. Beraz, beherakada berria gertatu zen 2005. urtearen aldean, %14,2koa hain zuzen ere. Erabil daitekeen ur guztia enpresak berak⁵ hartzen du, hau da, bertakoa da.

Kaptazio horiei dagokionez, azalekoak eta lurpekoak bereizten baditugu, esan behar dugu 2005 eta 2006. urteen artean lurrazaleko urak termino absolutuetan %8,9 murriztu direla. Aitzitik, kopuru osoan daukan pisua berririo hazi da: %91,5etik %97ra igaro da. Bestalde, lurpeko kaptazioak %72,6 murriztu dira.

Bestalde, EAEn hornidura publikorako kontrolatutako eta banatutako uraren bolumen osoa 2006. urtean 189,2 Hm³ izan zen. Hau da, %6,7ko beste beherakada bat. Haietatik 100,2 Hm³ (%52,9; aurreko urtean %53,5, eta 2004an %54,1) etxeak hornitzeko erabiltzen dira; 58,6 Hm³ (%31; aurreko urtean %33) sektore ekonomikoetarako; 26,4 Hm³ (%13,9; aurreko urtean %10,2) udal kontsumoetarako; eta gainerakoa, beste erabilera batzuetarako. *Udal kontsumoetan* 2005 eta 2006. urteen artean gertatutako gehikuntza nabarmendu behar dugu: %27. Banaketa sarean galdutako ura 2005etik 2006ra %3,6 jaitsi da. Erabilgarri dagoen ur guztiaren %12,6 da (2005. urtean %11,3 izan zen). Estatuan, erabilgarri zegoen ur guztiaren %16,7 banaketa sare publikoetan, ihesetan, apurketetan eta abar galdutako. Aurreko urtean %17,9 izan zen.

Bestalde, 2005 eta 2006. urteen artean, bildutako hondakin uraren bolumena %27,5 murriztu da: egunean 1.086.767 m³tik 788.237 m³ra. Haietatik %83,4 tratatutakoa da. tratatutakoa da. Hondakin urak biltzeko eta tratatzeko jarduerak hauek 36.986 mila euroko inbertsioa dakarte.

⁴ Urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretua, bainatzeko uraren kalitatearen kudeaketari buruzkoa, Europako Legebiltzarren eta Kontseiluaren 2006/7 Zuzentaraua transposatzen duena. Araudi berriaren lehentasunezko helburuak hauek dira:

- Bainatzeko urek bete behar dituzten osasun irizpideak finkatzea, uraren kalitatea bermatzeko, gizakien osasuna bermatzeko aldera. (Nahitaezko parametro analitikoetarako aldaketak sartzen ditu).
- Ingurumena kontserbatzea, babestea eta haren kalitatea hobetzea. Uren Legearen testu bat eginarene osagarri.
- Bainatzeko uraren kalitatea kontrolatzeko, sailkatzeko, kudeatzeko neurrietarako eta jendeari informazioa emateko gutxieneko xedapenak finkatzea.
- Bainatzeko urei buruzko informazio sistema berri bat sortzea (NÁVADE). Interneten kontsultatu ahal izango da. Osasun eta Kontsumo Ministerioak kudeatuko du. Espainian eta Europan erroldatuta dauden itsasoko eta barnealdeko hondartza guztiei buruzko informazioa emango die sistemak herriarrei.

⁵ Ura hartzea diogunean, ura naturatik ateratzeaz edota biltzeaz eta gero erabiltzeko gordetzeaz ari gara. Hemen, ura biltzeko eta arteria eta hodi primarioetan zehar eramatea sartzen da. Besteak beste, azaleko uraren eta lurpeko uraren kaptazioa bereiztu behar dugu. Lurpeko urak zundaketen edo zulaketen bidez hartzen dira.

Azaleko ur kontinentalak lurrazaleko korranteak dituzten urak edo lehorreko sakonune batean geratzen direnak (hau da, pilatutako urak) dira. Lurrazaleko korranteak dituzten uraren artean, ubide naturalak urak (ibaiek eta errekek) eta ubide artifizialek (ureztatze, industriarako eta nabigaziorako kanalizazio sistemak, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) sartzen dira.

Inkesta honen helburuetarako, ibaietako bazerretan gertatzen diren iragazketak lurrazaleko urtzat jotzen dira. Trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, aldiz, ez dira lurrazaleko urtzat jotzen, eta bestelako ur-baliabide mota batzuen artean sartzen dira.

Lurpeko urak lurpeko formazio batetik edo beraren bidez (hau da, akuifero batetik edo akuifero baten bidez) ateratzen dira. Akuiferoak lurpean dauden ur-biltegi guztiak dira, iraunkorrak izan edo ez, erabilera jakin baterako kalitate nahikoa baldin badute. Hemen, modu artifizialean zein modu naturalean hornitutakoak sartzen dira. Atal honetan, iturburuetatik hartutako ura sartzen da. Iragazketaren bidez sortzen den lurpeko ura ez da hemen sartzen; azaleko urtzat jotzen dugu.

I 3.8. LAUKIA. BAINATZEKO UREN KALITATEA EAEn, ITSASOKO URAK

Probin.	Udalerria	Bainatzeko Eremua	Laginketa Gunea	BAINU-UREN KALIFIKAZIOA					HONDARTZA INGURUKO EREMUAREN KALIFIKAZIOA (*)		
				02	03	06	07	08	06	07	08
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(1) Eskuma	1	1	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(2) Erdialdea	1	1	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(3) Ezkerra	1	1	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereaga hondartza	(1) Erdialdea	1	1	2	1	1	Hobegarria	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereaga hondartza	(2) Ezkerra	1	1	2		1	Hobegarria	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Arrigunaga hondartza	(1) Erdialdea	1	1	2	1	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Azkorri hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Areetako hondartza	(1) Erdialdea					1			Hobegarria
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandotes hondartza	(2) Eskuma	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandotes hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Abxaribil-Arietara hondartza	(1) Eskuma	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Abxaribil-Arietara hondartza	(2) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Abxaribil-Arietara hondartza	(3) Ezkerra	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Plentzia	Plentziako hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	1	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(1) Eskuma	2	1	2	1	1	Hobegarria	Ona	Hobegarria
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(2) Erdialdea	2	1	2	1	1	Hobegarria	Ona	Hobegarria
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(3) Ezkerra	2	1	2	1	1	Hobegarria	Ona	Hobegarria
Bizkaia	Bakio	Bakioko hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Bermeo	Aritxatxu hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Hobegarria	Hobegarria	Ona
Bizkaia	Mundaka	Laidatxu hondartza	(1) Erdialdea	1	1	1	1	1	Hobegarria	Hobegarria	Ona
Bizkaia	Sukarrieta	Toña hondartza	(1) Erdialdea	0	0	0	0	0	Hobegarria	Hobegarria	Hobegarria
Bizkaia	Sukarrieta	San Antonio hondartza	(1) Erdialdea	1	1	1	1	1	Hobegarria	Hobegarria	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laida hondartza	(1) Itsasoa	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Hobegarria
Bizkaia	Ibarrangelu	Laida hondartza	(2) Itsasadarra	2	1	2	1	1	Ona	Ona	Hobegarria
Bizkaia	Ibarrangelu	Laga hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Hobegarria
Bizkaia	Ibarrangelu	Laga hondartza	(2) Eskuma	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Hobegarria
Bizkaia	Ea	Eako hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	1	2	Hobegarria	Ona	Ona
Bizkaia	Ispaster	Ogeia hondartza	(1) Ezkerra	2	1	2	2	2	Ona	Hobegarria	Hobegarria
Bizkaia	Lekeitio	Isuntza hondartza	(1) Eskuma	1	1	2	1	1	Ona	Ona	Hobegarria
Bizkaia	Mendexa	Karraspio hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ondarroa	Arrigorri hondartza	(1) Erdialdea	1	1	1	1	1	Ona	Hobegarria	Ona
Gipuzkoa	Mutriku	Saturran hondartza	(1) Erdialdea	0	0	0	1	1	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Mutriku	Mutrikuko hondartza	(1) Erdialdea	1	1	1	1	1	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Mutriku	Ondarbeltz hondartza	(1) Erdialdea	1	1	1	1	2	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Deba	Debako hondartza	(1) Erdialdea	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Itxurungo hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Santiagoko hondartza	(1) Erdialdea	0	0	1	1	1	Hobegarria	Hobegarria	Hobegarria
Gipuzkoa	Getaria	Gaztetape hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Getaria	Malkorbe hondartza	(1) Erdialdea	0	1	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarauz	Zarauzko hondartza	(1) Eskuma	0	0	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarauz	Zarauzko hondartza	(2) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarauz	Zarauzko hondartza	(3) Pasealekua	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Antillako hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	1	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Oribarzar hondartza	(1) Erdialdea	0	0	0	0	0	Ona	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarreta hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarreta hondartza	(2) Ezkerra	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxako hondartza	(1) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxako hondartza	(2) Ezkerra	1	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa-Nautiko hondartza	(3) Nautikoa	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/ Zurriola hondartza	(1) Eskuma	2	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/ Zurriola hondartza	(2) Erdialdea	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/ Zurriola hondartza	(3) Ezkerra	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiko hondartza	(1) Eskuma	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiko hondartza	(2) Erdialdea	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Landa)	(1) Eskuma	1	1	1	1	2	Hobegarria	Hobegarria	Hobegarria
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Landa)	(2) Ezkerra	1	1	2	0	2	Hobegarria	Hobegarria	Hobegarria
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Zuaza uhartea)	(1) Eskuma	1	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Araba	Barrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Garaio)	(1) Eskuma	1	2	0	2	1	Hobegarria	Hobegarria	Hobegarria
Araba	Barrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Garaio)	(2) Ezkerra	2	2	2	2	2	Hobegarria	Hobegarria	Hobegarria

(*) Hondartza inguruko eremuaren kalifikazioa hondartza osoari dagokio, gunea bereiztu gabe (urarekin egiten denez). Horregatik, hondartzako gune guztiek sailkapen bera izango dute, ezberdintasunak izan arren.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

I.3.9. LAUKIA. EAEn HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATUTAKO ETA BANATUTAKO UR BOLUMENA

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	aldak % 04/05	aldak % 05/06
EDATEKO UR BIHURTU EZ DEN ETA ERABILGARRI DAGOEN UR GUZTIA (milaka m³)								
GUZTIRA	366.719	361.692	414.212	285.251	254.473	218.272	-10,8	-14,2
Enpresak berak egindako kaptazioa guztira	329.469	310.034	318.494	285.251	253.835	218.272	-11,0	-14,0
Beste unitate batzuei erositako ur bolumena	37.249	51.658	95.718	0	638	0		
Beste enpresa batzuei hornitu zaien eta edateko ur bihurtu den ur bolumena			0	0	0	0		
ENPRESAREN BERAREN UR KAPTAZIOAK (milaka m³)								
GUZTIRA	329.469	310.034	318.494	285.251	253.835	218.272	-11,0	-14,0
Azaleko urak	256.256	251.387	279.258	278.541	232.372	211.781	-16,6	-8,9
Lurpeko urak	33.083	26.574	17.963	6.710	20.317	5.569	202,8	-72,6
Gezatzea	35.671	27.881	18.331	0	0	0	—	—
Bestelako baliabide hidrikoak	4.459	4.192	2.942	0	1.146	922	—	-19,5
URAREN BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (milaka m³)								
Hornidura publikorako kontrolatutako eta banatutako ur bolumena guztira	202.231	195.723	213.770	214.180	202.899	189.224	-5,3	-6,7
Sektore ekonomikoak	69.502	63.611	76.315	66.045	66.967	58.632	1,4	-12,4
Etxeak	114.528	112.832	114.660	115.853	108.580	100.174	-6,3	-7,7
Udal kontsumoak	13.976	15.595	18.831	28.801	20.750	26.347	-28,0	27,0
Bestelakoak	4.225	3.685	3.964	3.481	6.602	4.071	89,7	-38,3
Banaketa sarean galdutako ura (a)	71.040	65.371	30.108	21.479	28.633	27.597	33,3	-3,6
Edateko ur bihurtu ez den eta erabilgarri dagoen ur guztia (b)	366.719	361.692	414.212	285.251	254.473	218.272	-11,0	-14,0
Banaketa sare publikoan galdutako uraren % (a/b)	19,4	18,1	7,3	7,5	11,3	12,6	—	—
Banatutako uraren zenbateko osoa (milaka eurotan)	129.205	126.297	147.501	81.677	86.869	85.635	6,4	-1,4
Hornidura zerbitzuetan egindako inbertsioaren zenbateko osoa (milaka €)	13.344	1.965	1.285	4.948	3.704	3.165	-25,1	-14,6

Iturria: INE "Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta".

I.3.10. LAUKIA. HONDAKIN UREN BILKETA ETA TRATAMENDUA EAEn (m³ egunean)

	2002	2003	2004	2005	2006	aldak % 04/05	aldak % 05/06
Bildutako hondakin uren bolumena	485.494	550.531	991.548	1.086.767	788.237	9,6	-27,5
Tratatutako hondakin uren bolumena	422.389	515.848	902.268	1.042.034	657.062	15,5	-36,9
Isuritako uraren bolumena guztira	374.676	542.108	991.457	1.085.106		9,4	-100,0
Berrerabilitako uraren bolumena guztira	33.340	8.423	0	1.509	143		-90,5
Hondakin urak biltzeko eta tratatzeko inbertsioko gastuen zenbatekoa guztira (milaka €)	26.913	39.127	7.768	64.800	36.986	734,2	-42,9
Saneamendu eta arazketa kuoten zenbatekoa guztira (mailaka €)	84.725	97.356	96.011	96.832	79.472	0,9	-17,9

2004 erreferentzia-urtetik aurrera zenbait aldaketa gertatu dira hondakin urak biltzeari eta tratatzeari buruzko ataletako datuetan, metodologia aldatu delako. Estatistika hauen erabiltzaileen premiei eta nazioarteko gomendioei egokitzea da metodologia aldatzearen arrazoia. Atal hauetan, banaketa saretik ez datozen hondakin urak ere (euri-urak, ateratze propioa eta bestelako jatorriak) sartu dira. 2003. urtera arteko estatistiketan ordea (2003koa barne), banaketa saretik zetozen hondakin urei buruzko informazioa baino ez zen aintzat hartzen.

Iturria: INE. "Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta"

Uraren per capita kontsumoa zenbait autonomi erkidegotan jaitsi da, besteak beste EAEn. Zehazki, EAEn %7,9 jaitsi da kontsumoa: biztanle bakoitzeko 129 litro egunean. Estatuko batez bestekoaren azpitik gaude beraz. Estatuan ere per capita kontsumoa egunean 166 litro izatetik 160 litro izatera jaitsi da. EAE, berriro ere, autonomi erkidegoen artean leku onean dago.

EAEk baino kontsumo txikiagoa daukan autonomi erkidegoa baitago (Nafarroa: 128).

EUSTATEk familiei ingurumenari buruz egiten dien inkesta-ren datuen arabera (2008koa), EAEko familien %97,1ak ur kontsumoa murrizten laguntzen dion ohituraren bat dauka. Ohitura horietatik ezagunenak hauek dira: "arropa garbigailua

I.3.II. LAUKIA. URAREN BATEZ BESTEKO KONTSUMOA ETA ALEKO BALIOA ETXEETAN

	BATEZ BESTEKO KONTSUMOA (litroak biztanleko eta eguneko)						BATEZ BESTEKO PREZIOA (€/m³)					
	2003	2004	2005	2006	aldk % 04/05	aldk % 05/06	2003	2004	2005	2006	aldk % 04/05	aldk % 05/06
Andaluzia	184	189	195	176	3.2	-9.7	0.79	0.94	0.92	0.96	-2.1	4.3
Aragoi	169	162	153	150	-5.6	-2.0	0.66	0.82	0.87	1.04	6.1	19.5
Asturias	161	172	180	184	4.7	2.2	0.65	0.65	0.74	0.78	13.8	5.4
Balearrak	130	142	139	150	-2.1	7.9	1.42	1.31	1.58	1.61	20.6	1.9
Kanariar Uharteak	135	147	145	141	-1.4	-2.8	1.68	1.64	1.65	1.74	0.6	5.5
Kantabria	185	187	191	201	2.1	5.2	0.6	0.69	0.68	0.71	-1.4	4.4
Gaztela eta Leon	168	172	160	147	-7.0	-8.1	0.53	0.61	0.66	0.83	8.2	25.8
Gaztela-Mantxa	184	179	174	166	-2.8	-4.6	0.57	0.63	0.74	0.87	17.5	17.6
Katalunia	183	174	162	150	-6.9	-7.4	1.04	1.92	1.04	1.11	-45.8	6.7
Valentziar komunit.	163	178	171	185	-3.9	8.2	0.83	1.2	1.36	1.3	13.3	-4.4
Extremadura	163	178	173	183	-2.8	5.8	0.73	0.72	0.81	0.84	12.5	3.7
Galizia	143	155	152	159	-1.9	4.6	0.62	0.78	0.75	0.71	-3.8	-5.3
Madril	166	171	159	148	-7.0	-6.9	0.86	1	1.09	1.27	9.0	16.5
Murtzia	149	161	162	166	0.6	2.5	1.08	1.41	1.52	1.53	7.8	0.7
Nafarroa	152	144	134	128	-6.9	-4.5	0.73	1.11	1.12	1.25	0.9	11.6
EAE	149	150	140	129	-6.7	-7.9	1.15	0.83	0.91	0.87	9.6	-4.4
Errioxa	136	141	145	148	2.8	2.1	0.54	0.96	0.98	0.93	2.1	-5.1
Ceuta eta Melilla	139	142	139	140	-2.1	0.7	0.74	0.91	0.98	1.01	7.7	3.1
Estatua	167	171	166	160	-2.9	-3.6	0.86	0.96	0.98	1.08	2.1	10.2

Iturria: INE. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta.

bete arte itxarotea" (inkesta egin zaien familien %82.6) eta "janaria aldeaz aurretik desizoztea, ur-txorrotaren azpian egin behar ez izateko" (%86.8). Ordea, %10ak soilik dauzka ura aurrezteko tresnak, hala nola, ur-emia murrizteko tresnak, infragorrien sentsoreak edo txorrotak irekitzen diren denbora mugatzen duten tenporizadoreak. Estatuan, ordea, ura aurrezteko tresnak dauzkaten etxebizitzak %17 dira.

Uraren aleko balioa (koefiziente hau honela kalkulatzen da: ura hornitzeko tasen zenbatekoa gehi hondakin uren saneamentuko tasak edo kanonak, zati kontsumorako banatutako ur bolumenak) EAEn, 2006. urtean, 0.87 euro/m³ izan zen, hau da, %4.4ko beherakada 2005. urteko balioaren aldean. Estatuan, batez besteko prezioa 1.08 euro/m³ da. Beraz, %5.9 garestitu da.

Aurten, gure erkidegoak bosgarren tokia izan zuen uraren prezioa merkeagoa zeukalako, Kantabria eta Galiziaren atzetik (0.71 euro/m³ bietan), Asturiasen atzetik (0.78), Gaztela eta Leonen atzetik (0.83) eta Extremaduraren atzetik (0.84).

d. Hondakinen sorrera eta kudeaketa. Hiri hondakinak eta hondakin arriskutsuak

Gogora ekarri behar dugu II. Ingurumen Esparru Programak (2007-2010) sei konpromiso ezarri zituela hondakinak murrizteko eta zero isuri izateko helburua betetzeko asmoz. Epigrafe honetan hiru aztertuko ditugu:

1. Hondakin arriskutsuetan dauden baliabide materialak berreskuratzea, birziklatze tasa %65eraino handituz.

2. Sortutako hiri hondakin guztien birziklatze tasa %35 izatea lortzea.

3. Hiri hondakinen zero isuri, behin betiko biltegiatzearen aurretik tratamendurik egin gabe.

Bestalde, onetsi berri den 2008-2011ko EAEko Hondakin Arriskutsuen Prebentzio eta Kudeaketa Planak guztira 40 jarduketa aipatzen ditu bere hiru helburu estrategikoak lortzeko asmoz. Hauek dira:

1. Hondakinen sorrera eta haien arriskugarritasuna prebenitzea.
2. Hondakin arriskutsuen balioztapen materialaren tasa %65 izan dadila lortzea, kudeaketaren hierarkia betetzen dela ziurtatuz.
3. Ekoizle guztiei hondakin arriskutsuak kudeatzeko zerbitzu eraginkorra eskaintzea.

INEren *Industri sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkestaren* azken datuek erakusten dutenaren arabera, aurreko urtean ez bezala, EAEn hondakin ez-arriskutsuen sorrerak gora egin du (+%1.9; urte bat lehenago %-3.1 izan zen). Aitzitik, hondakin arriskutsuen sorrera, aurreko urteetan ez bezala, apur bat murriztu da (%0.1). Halere, EAE industri sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen bigarren erkidegoa da (381.452 tona) berriro ere. Lehenengoa Katalunia da, 496.227 tonarekin.

Hiri hondakinei dagokienez, INEren *hiri hondakinak biltzeari eta tratatzeari buruzko inkestak* erakusten du 2006. urtean EAEn hiri hondakinen sorrera osoan beherakada izan dela (%-6.3). Horren azalpena da gaika aukeratu eta bildu diren hondakinak

eta nahastuta bildu direnak murriztu direla (%-13,5 eta %-3,6, hurrenez hurren).

Per capita aztertuta, INEren *hiri hondakinak biltzeari eta tratatzeari buruzko inkestaren* arabera, EAEn, 2006. urtean, nahastutako hiri hondakinaren 488 kilo jaso ziren; kopuru hori estatuko batez bestekoaren azpitik dago (500) eta aurreko urtean izandako kopuruaren azpitik ere (501). Autonomi erkidegoen arabera, Irla Balearrak (630), Ceuta eta Melilla (609), Kanariar Irlak (566), Madril (564) eta Kantabria (563) izan ziren per capita baliorik handienak izan zituztenak.

Gaikako hondakin bilketan, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira, plastikoak eta ontzi mistoak) estatuko batez besteko kopuruak baino bilteta kopuru handiagoak ditu. Zehazki, paper eta kartoi bilketan, baliorik handienak Balearretakoak (66,3 Kg/biztanle) eta EAE eta Kanarietakoak (bietan 39,3) izan ziren. Beiran, Balearrak (23,2 kg/biztanle), Nafarroa (21,9), EAE (19,7) eta Errioxa (19,1) izan ziren nagusi. Halere, urte honetan ere paper eta kartoi bilteta eta beira bilteta handitu dira (biztanle eta urte bakoitzeko 38,6 kilo biltzetik 39,3 biltzera, eta biztanle eta urte bakoitzeko 19,3 kilo biltzetik 19,7 biltzera, hurrenez hurren), baina ontzi mistoetan murriztu da (biztanle eta urte bakoitzeko 49,9 kilo biltzetik biztanle eta urte bakoitzeko 36 kilo biltzera).

EUSTATEk familiei ingurumenari buruz egiten dien inkestaren datuen arabera (2008koa), hondakin hauetan birziklatzeko ohitura handiagoa dago. Horrela, inkesta horren arabera, inkesta egin zaien EAEko familien %92,3ak paper eta kartoiak hondakinak birziklatzen ditu, %91,6ak beirazkoak eta %90,2ak plastikoak eta metalezkoak. Eta inkesta honek erakusten du hondakin organikoen bereizketa ez dagoela hain zabaldua (%32,3). Bestalde, estatuan, paperaren, beiraren eta plastiko eta metalen birziklatzea %70 eta 75aren artean dago, EAEn baino askozaz ere beherago; hondakin organikoak bereizteko ohitura, ordea, handiagoa da (%60).

IHOBEk argitaratu duen "EAEko ingurumenaren egoera 2009an" izeneko txosteneko datuek erakusten dute hondakin sorreraren (hirikoak eta arriskutsuak) joera orokorra goranzkoa dela oraindik ere. Halere, 2004az geroztik, egonkortzen ari dela ikus daiteke, eta hondakin arriskutsuen kasuan, murrizketa txiki bat ere bai.

Balorizazioari dagokionez, IHOBEk argitaratu duen 2008ko ingurumen urtekariaren arabera (EAEko ingurumenaren ebaluzioa eta ebaluazioa), 2007 eta 2008. urteetan hondakinak kudeatzeko zenbait azpiegitura abian jarri dira, hala nola, ECOFONDEN burdinurtuzko hareak berroneratzeko planta sortu berria, eraikuntza eta eraispen hondakinak tratatzeko planta (Vitoria-Gasteizen eta Urnietan), eta tratamendu mekaniko biologikoa (Vitoria-Gasteizen), konpostajekoa Azpeitian eta hondakin handien planta Ortuellan.

"EAEko ingurumenaren egoera 2009an" txostenaren arabera, hondakinaren deuseztapena galarazteko asmoz erakundeek eman dituzten erantzunen kopuru, askotarikotasun eta intentsitate handiei esker, fruituak batzen ari gara; izan ere, balioztapen adierazleek hobekuntza esanguratsuak eta iraunkorrak erakusten dituzte, 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programan 2010. urterako ezarritako helburuetarantz. Hain zuzen ere, lehen aipatu dugun agiri horren arabera, hondakin arriskutsuen balioztapen tasa, 2007. urtean, %56,8 da (helburua: %65); arriskutsu ez diren hondakinena, 2006an, %67 da (helburua: %75), eta hiri hondakinena, 2007an, %30,6 (helburua: %35). Distantzia handiagoa egin behar da eraikuntza eta eraispeneko hondakinak balioztatzeari dagokionez (%35, eta helburua: %70).

Sortzen diren hiri hondakinaren isurketa zero izateko konpromisoari dagokionez, 2007. urtean, hondakinaren %50 hondakindegian utzi ziren. Horrenbestez, zero isurketa egiteko helburua lortzetik urruti gauden arren, gaur egungo egoera aurrerapen handia da 2000. urteko egoeraren aldean, orduan hiri hondakinaren %77 hondakindegira joan baitziren.

I.3.12. LAUKIA. HIRI ETA INDUSTRI HONDAKINEN SORRERA (*) (tonak)

	ESTATUA					EAE				
	2003	2004	2005	2006	aldak. 05/06	2003	2004	2005	2006	aldak. 05/06
Hiri Hondakinak (HH)	27.586.702	27.593.142	28.062.345	28.418.545	1,3	1.180.127	1.417.521	1.465.365	1.373.616	-6,3
Nahastutako HH	24.583.907	21.207.615	21.639.537	21.861.821	1,0	1.042.390	952.375	1.068.437	1.030.168	-3,6
Gaika bildutako HH	3.002.795	6.385.527	6.422.808	6.556.724	2,1	137.737	465.146	396.928	343.448	-13,5
Industri hondakinak	59.549.968	56.231.821	60.385.254	59.253.762	-1,9	2.786.349	2.895.689	2.871.804	2.917.772	1,6
Ez arriskutsuak	57.404.557	54.261.461	58.157.360	57.122.133	-1,8	2.465.130	2.568.362	2.489.793	2.536.320	1,9
Arriskutsuak	2.145.411	1.970.360	2.227.894	2.131.629	-4,3	321.219	327.327	382.011	381.452	-0,1

Iturria: INE: Hiri hondakinak biltzeari eta tratatzeari buruzko inkesta eta Industri sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkesta.


(*) Zerbitzu sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkestak ez du autonomi erkidegoen arabera sailkapenik egiten.

I.3.13. LAUKIA. BILDUTAKO HIRI HONDAKINAK, MOTAREN ETA DENBORALDIAREN ARABERA (biztanleko eta urteko kiloak)

	1999		2000		2001		2002		2003		2004		2005		2006	
	EAE	Est.	EAE	Est.	EAE	Est.	EAE	Est.	EAE	Est.	EAE	Est.	EAE	Est.	EAE	Est.
Nahastutako hondakinak (1)	472	570	483	588	512	566	522	581	494	576	456	491	501	484	488	500
Gaikako bilketa (2)																
Papera eta kartoia	18,6	12,9	22,8	14,5	27,1	15,9	15,4	16,3	29,3	15,2	38,9	16,3	38,6	17,9	39,3	22,1
Beira	9,3	12,6	10,7	15,1	9,7	15,6	10,9	14,8	15,9	11,8	16,2	10,2	19,3	10,9	19,7	12,6
Plastikoak	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Ontzi mistoak	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	133	45,2	49,9	23,3	36	18,6


Nahastutako hondakinak (1): Etxebizitzetan, komertzioetan, bulego eta zerbitzuetan eta kalean sortutako hondakinak eta etxeetako trasteak dira. (2) Gaika bildutako hondakinak: hondakinak bereiztu eta biltzea, hondakinak dauden gai baliozgarriak bereizteko moduan. Iturria: INE

I.3.8. Grafikoa. Hiri hondakinen eta hondakin arriskutsuen sorrera




Iturria: Ingurumenaren egoera EAEn, 2009.

I.3.9. Grafikoa. Balorazio tasa, hondakin motaren arabera




Iturria: Eusko Jaurilaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Saila.

I.3.10. Grafikoa. Hiri hondakinen isurketa



Iturria: Eusko Jaurilaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Saila.

I.3.11. Grafikoa. NEN gen emisioa EAEn



e. Klima aldaketa: negutegi efektuko gasen (NEG) emisioa Kioto protokoloan aintzat hartu ziren negutegi efektuko sei gasak ondoko hauek dira: anhidrido karbonikoa (CO_2), metanoa (CH_4), oxido nitrosoa (N_2O), hidrofluorokarbonoen familia (HFC), perfluorokarbonoen familia (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF_6). Oinarritzko urteko emisioak 1990. urtean izan ziren C_2 , CH_4 , N_2O emisioen eta 1995. urtean izan ziren HFC, PFC eta SF_6 emisioen baturari dagozkio.

Kiotoko protokoloak Espainiar estatuari eskatu zion konpromisoa da **zuzeneko emisioen** gehikuntza 2008-2012 denboraldirako %15ean mugatzea, oinarritzko urtekoekin (1990) alderatuta.


CO_2 gas kutsagarriaren ondorioak klima aldaketan globalak dira. Horregatik, EAEnen ardura diren emisio guztiak hartuko dugu aintzat (emisio guztiak) EAEnen helbururako, emisioak non sortu diren gorabehera. Hala ez balitz eta zuzeneko emisioak soilik aintzat hartuko bagenitu, paradoxa bat gerta liteke: elektrizitate gehiago inportatuz emisioen helburuak betetzeko egoeran egongo ginateke, kontsumitutako energia elektrikoaren zenbatekoari buruz inolako neurririk hartu gabe. EAEnen **NEGen emisio guztia** (zuzeneko eta zetarkakoa, hau da, inportatutako elektrizitatearekin lotura dutenak barne) 2007. urtean, "EAEnen 1990-2007ko negutegi efektuko gasen emisioei buruzko inbentarioko" datuen arabera, 25,3 milioi tona CO_2 baliokidekoa izan zen. Beraz, 2006ko emisioak baino %1 gutxiago, eta oinarritzko urtean baino %21 gehiago.

Zuzeneko emisioak (hau da, elektrizitatearen inportazioetik sortzen den emisioa kontuan izan gabe) soilik kontuan hartzen baditugu, 2007. urtean 21,9 milioi tona CO_2 baliokide izan ziren. Beraz, 2006. urteko emisioak baino %4,5 gutxiago eta oinarritzko urtean baino %37 gehiago.

Sektoreka.

- **Energia.** 2007an, energia sektorearen emisioak (inportatutako elektrizitateetik sortutakoak barne) %0,3 jaitsi ziren 2006koen aldean, eta NEG emisio guztien %44 izan ziren (11,2 Mteq). 1990. urtearen aldean, emisioak %37 handitu dira. Jaitsiera horren arrazoi nagusia da elektrizitate gutxiago sortu zela fuel zentraletan (teknologia honek CO_2 asko emititzen baitu), ziklo konbinatuetan, eta birfindutako emisioetan jaitsiera egon zela.
- **Barne produkzioa eta inportatutako energia elektriko.** EAEnen barruan, energia sektorearen emisioak %10 jaitsi ziren 2006. urtearen aldean. Jaitsiera honen arrazoiak da elektrizitate gutxiago sortu zela fuel zentraletan (teknologia honek CO_2 asko emititzen baitu) eta birfintze industriaren emisioetan jaitsiera egon zela. Halere, elektrizitate gutxiago sortzeak ekarri du elektrizitate gehiago inportatzea. Hain zuzen ere, EAEn 2007. urtean egon den energia elektrikoaren kontsumoa %2 igo da 2006. urtekoaren aldean, bereziki industriako, etxebizitzetako eta zerbitzuetako kontsumoaren ondorioz. Horren ondorioz, 2006. urtean baino %28 gehiago inportatu da. Autohornidura elektrikoaren tasa azken kontsumoaren %6lean geratu da. Inportatutako energia elektrikoetik datozen emisioak beraz %34 gehitu dira 2006. urtekoen aldean. Halere, 1990. urtearen aldean, %30eko gutxikuntza izan da.
- **Industria.** Industri sektoreko NEG emisioak %5 murriztu ziren 2006. urtekoen aldean, eta EAEnen emisioen %19 izan ziren (4,7 Mteq CO_2). Emisioak %35 murriztu dira 1990eko aldean. Sektore hau energia elektrikoaren kontsumitzaile handiena da (EAEn 2007an kontsumitutako elektrizitatearen %60 baino gehiago). Sektore honi energia elektrikoaren produkzioa.

I.3.12. Grafikoa. NEGen emisioen 1990-2007 aldakuntza sektoreka (%)



Iturria: EAEko NEGen emisioen inbentarioa, 1990-2007.
*Inportatutako elektrizitateak sartuta barne

otik datozen emisioak egotziz gero, sektoreak emisio guztien %40ko ekarpena egingo luke.

- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. NEGen emisioak %23 murriztu dira 2006. urtearen aldean, batez ere jarduera honetan erregai gutxiago kontsumitu direlako. Sektore honetako emisioak EAEko emisio guztien %4 dira, 0,9 Mt CO₂ baliokiderekin. 1990. urtetik hona %16 murriztu dira.
- Etxebizitzak eta zerbitzuak sektoreak. Bi sektoreek EAEko emisioen %4 sortu zituzten. Biak batuta, %leko jaitiera izan zuten 2006. urtetik hona, gasolio gutxiago kontsumitu zutelako eta batez ere gas naturalarekin eta petroliotik likuatutako gasarekin (PLG) ordezkatu delako. Biak batuta, 2007an, energia elektrikoaren azken kontsumoaren %33 izan ziren EAEn. Sektore honi energia elektrikoaren produktioetik sortutako emisioak egotziz gero, haren ekarpena guztiaren %14 litzateke. Oinarritzko urteari dagokionez, etxebizitzak sektoreak emisioak %24 gehitu ditu; zerbitzuak sektoreak, berriz, %73 gehitu ditu.


Gas motaren arabera.

- Karbono dioxidoa (CO₂) negutegi efektuko gasen emisioan ekarpen handiena egiten duen gasa da. EAEko emisioen %89,8 da. 2006 eta 2007. urteen artean, haren emisioak %1 gehitu dira eta oinarritzko urtetik 2007. urtera arte, %30. 2006. urteko emisio mailetatik emisioak gehien jaitzi dituzten sektoreak etxebizitzak eta zerbitzuak izan dira (260.000 tona gutxiago). Garraioak, errepidezko trafikoaren ondorioz, azken urteetako joerari eutsi dio, CO₂ emisioak, 2006. urteaz geroztik, 380.000 tona CO₂ gehitu ditu (%7 inguru).
- Metanoak (CH₄) %6,6ko ekarpena egin zuten NEG emisioei, eta 2006. urtearen aldean emisioak %3an murriztu ditu. 1990. urteko balioen aldean %3ko murrizpena izan du. Murrizpen horren arazoia izan da hondakindegietan, nekazaritzan eta, neurri txikiagoan, energia prozesuetan, emisio txikiagoa izan dela.
- Oxido nitrosoaren (N₂O) emisioak %30 murriztu ziren 2006. urtekoen aldean, eta 1990. urtekoen aldean %52. NEG emi-

I.3.14. LAUKIA. NEGen EMISIO GUZTIAK GAS MOTAREN ARABERA, OINARRIZKO URTEAREKIN ALDERATUTA (CO₂ baliokide milaka tona).

	1990	1995	2002	2003	2004	2005	2006	2007	Gehikuntza 2007-oinar	% gehikuntza 2007-oinar
CO ₂	17.537	—	22.737	22.131	22.486	22.331	22.532	22.773	5.236	%30
CH ₄	1.739	—	1.840	1.823	1.804	1.793	1.735	1.638	-56	-%3
N ₂ O	697	—	652	696	713	699	478	334	-363	-%52
HFC's	—	931	1.188	1.193	638	592	798	554	-377	-%40
PFC's	—	0	0,1	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	—
SF ₆	—	0,3	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,5	%167
GUZTIRA	—	—	26.418	25.844	25.641	25.416	25.544	25.346	4.442	%21

Iturria: 1990-2007ko EAEko NEG emisioen inbentarioa.

I.3.13. Grafikoa. EA Erentzako helbururik garrantzitsuen gaur egun

Iturria: Ekobarometro soziala 2008.

sioei %14ko ekarpena egiten die. EAEn azido nitrikoaren produkzioa bertan behera uzteak ekarri du oxido nitrosoaren emisioak murriztea.

- Fluordun gasen emisioak (HFCak, PFCak eta SF₆) 2007an NEG emisio guztien %2,2 izan ziren; 2006. urtearen aldean %31ko gutxikuntza. Horrenbestez, %40 baino jaitsiera handiagoa gertatu da oinarritzko urteko (1995) mailaz geroztik. Jaitsiera honen arrazoi nagusia da industria kimikoak emisio gutxiago izan dituela.

3.2. Herritarren jarrera ingurumenarengana

Ekobarometro sozialari esker, euskal gizarteak ingurumenaren egoeraz egiten duen balorazioa jakin dezakegu, gaiaz duten iritzia eta hartzen duten jarrerak aztertuz.

Metodologiari dagokionez, 2007ko urriaren eta azaroaren artean, 2.000 inkesta egin zitzaizkien EAEn bizi ziren 14 urtetik gorako pertsonen. Aztertutako edukien artean hauek daude:

- Ingurumenaren pertzepzioa eta kezka.
- Ingurumenari buruzko informazioa eta agenteengan konfiantza.
- Ingurumenarenganako jarrera eta esfortzua.
- Kontsumoa.
- Klima aldaketa.

Bestalde, EUSTATEk familiei ingurumenari buruz egiten dien inkestari esker (2008), familien ingurumenari buruzko ohiturak, kontsumo-pautak eta jarrerak ezagutu ditzakegu, etxebizitzetako ekipamendua eta ekipamendu horretaz egiten duten erabilera ingurumenaren alderdi ezberdinei dagokienez.

a. Ingurumenarenganako kezka

Azken ekobarometro sozialak, 2008. urtean 2007ko datuekin argitaratua, eskaintzen dizkigun datuak aztertuta, inkesta egin

zaien pertsonen %12ak bakarrik uste du ingurumena babestea eta kontserbatzea dela 15 urtetik gorako EAEko biztanleek gehien lehenesten duten helburua. Pertsona gehiagok uste dute hauek lehenesten direla: aberastasuna sortzea eta lanpostu gehiago sortzea (%32), pobrezia murriztea (%21) eta langatazkak murriztea (%20).

Eboluzioaren ikuspegitik, ingurumena babestea eta kontserbatzea helbururik garrantzitsuenetako laugarrena da. Aitzitik, esan behar dugu helburu honenganako sentsibilitatea etengabe hazi dela: 2001ean %4 eta 2004an %7.


Hamar urtetara, EAEko biztanleek gehien aipatzen duten helburua, estreinako aldiz, ingurumena babestea eta kontserbatzea da (%26), gainerakoen aurretik: aberastasuna eta lanpostuak sortzea (%23), pobrezia murriztea (%14) eta langatazkak murriztea (%13).

“Ingurumenaren” kontzeptuaz galdetzen zaienean, inkesta egin zaien biztanleen %31k hiri eta herrien kutsaduraren ideia aipatzen dute. Hau da, ikuspegi negatiboa edo problematikoa daukate. Bigarren maila batean, bi kolektibo dauzkagu: natura babesteko irudi proaktiboarekin erlazionatzen duten pertsonak (%18) eta paisaia berde eta atseginen irudi positiboarekin erlazionatzen duten pertsonak (%19).

2008. urtean jasotako erantzunak aurreko ekobarometroan lortutakoekin alderatuz gero, ingurumenaren “kontzeptuaren” ikuspegiak bilakaera negatiboa edo arazotsua izan duela ikus dezakegu; jada ez du hainbesteko kutsu positiboa edo gozagarria.

Special Eurobarometer 295 “The attitudes of the European towards the environment” azterlanaren arabera, 2008. urtean 2007ko datuekin argitaratua, EB-27an, ingurumenarekin erlazionatzen den lehenbiziko ideia herrien eta hirien kutsadura da (inkesta egin zaien %22). Horren ostean daude

I.3.14. Grafikoa. "Ingurumenaren" kontzeptuaren lotura



Iturria: Ekobarometro soziala, 2008.

klima aldaketa (%19), paisaia berde eta atseginak (%13) eta naturaren babesa (%12). EB-15eko kide diren estatuen eta handitutako Europako estatuen artean ezberdintasun handia dago. EB-15ean, inkesta egin zitzaizaien pertsonen %21ak klima aldaketa aipatu zuten. Estatu Kide Berrien (EKB) kasuan, portzentajea %9 izan zen. Ordea, EKBko pertsonak errazago erlazionatzten dute ingurumena paisaia berde eta atseginekin (%21: EB-15ean, berriz, %10) eta naturaren babesarekin (%18: EB-15ean, berriz, %11).

Eurobarometroan azaltzen denez, paisaia berdeak eta ingurumenaren babesa ezaugarri "tradizionaltzat" jo daitezke, kutsu negatiborik gabe. Bestalde, klima aldaketak ingurumenaren arazo globalen izaera garaikidea islatzen du, eta kontzeptua sakonago eztabaidatzea ahalbideratzen du.

Ingurumenari buruz planteatu diren kezka ezberdinen artean, ikus dezakegu, 2004. urtean bezala, klima aldaketa lehenengo tokian dagoela (inkesta egin zaien %63; 2004an, %57). Bigarren mailan daude uraren kutsadura (inkesta egin zitzaizaien %52; 2004an, %42) eta pertsonen sortutako hondamendiak (%51; 2004an, %39). Kezka gutxien sortzen duten ingurumeneko arazoak hauek dira: genetikoki eraldatutako organismoen erabilera, garraiobideek dakartzaten ondorioak (autoaren erabilera, autobide eta errepideen eraikuntza, trafikoaren bidezko kutsadura...) eta hirietako arazoak (ataskuak, berdeguneen gabezia...).

Datu hauek Eurobarometer 295ak argitaratutakoekin erkatuz gero, ikus dezakegu 2007an kezka nagusiak berberak zirela EB eta EAEn, baina EAEko biztanleak Europako batez bestekoa baino kezkatuago daudela klima aldaketagatik, uraren kutsaduragatik, ingurumeneko hondamendiengatik (bai natu-

ralak bai pertsonen sortutakoak), biodibertsitatearen galeragatik, baliabide naturalak agortzeagatik, hondakin eta zaborrak areagotzeagatik, zaratagatik, kontsumitzeko ohiturengatik, hirietako arazoengatik eta garraiobideen ondorioengatik. Gutxiago kezkatzen dira ordea airearen kutsaduragatik, produktu kimikoek osasunean duten eraginagatik, nekazaritzako eta abeltzaintzako kutsaduragatik, eta genetikoki eraldatutako organismoen erabileragatik.


b. Ingurumeneko informazioa

Ekobarometro sozialaren arabera, EAEko biztanleek informazio gabezia handiena atzematen dieten ingurumeneko arazoak hauek dira: genetikoki eraldatutako organismoen erabilera (inkesta egin dutenen %48), produktu kimikoek osasunean duten eragina (inkesta egin dutenen %44), biodibertsitatearen galera (inkesta egin dutenen %41), nekazaritzako eta abeltzaintzako kutsadura (inkesta egin dutenen %38) eta klima aldaketa (inkesta egin dutenen %35).

Europako analisiak erakusten du informazio defizita atzematen zaien gaiak ia-ia berberak direla. Halere, portzentajeak txikiagoak dira: produktu kimikoek osasunean duten eragina (%36), genetikoki eraldatutako organismoen erabilera (%34), nekazaritzako eta abeltzaintzako kutsadura (%28), uraren kutsadura (%27), biodibertsitatearen galera eta klima aldaketa (haietako bakoitza %26).

Bestalde, informazio gabeziaren sentimendua txikiagoa da gai hauei buruz: hondamendi naturalak (%14 EAEn eta EB-27an), hirietako arazoak (%17 EAEn eta %11 EB-27an), kontsumitzeko ohiturak (%19 eta %12 hurrenez hurren) eta zarata (%20 eta %12).

I.3.15. Grafikoa. EAEko kezka nagusien rankinga



Iturria: Ekobarometro soziala 2008.

I.3.15. LAUKIA. INGURUMENEN KEZKEN ZERRENTA, 2007

	EB15	EB27	EAE
Genetikoki eraldatutako organismoen erabilera	21	20	13
Garraiobideen ondorioak	13	12	15
Hirietako arazoak	15	15	17
Nekazaritzako eta abeltzaintzako kutsadura	22	23	18
Kontsumo ohiturak	12	11	19
Zarata	7	8	20
Produktu kimikoen osasunean duten eragina	32	32	24
Hondakinak eta zaborrak areagotzea	22	24	29
Baliabide naturalak agortzea	28	26	33
Airearen kutsadura	39	40	38
Biodibertsitatea galtzea	24	23	41
Hondamendi naturalak	31	32	42
Pertsonek sortutako hondamendiak	39	39	51
Uraren kutsadura	41	42	52
Klima aldaketa	58	57	63

Iturria: Ekobarometro soziala, 2008 eta Eurobarometer 295

I.3.16. LAUKIA. INGURUMENARI BURUZKO ARAZOEI BURUZKO INFORMAZIO EZA: RANKINGA, 2007


	EB27	EAE
Hondamendi naturalak	14	14
Hirietako arazoak	17	11
Kontsumo ohiturak	19	12
Zarata	20	12
Garraiobideen ondorioak	22	13
Hondakinak eta zaborrak areagotzea	22	17
Airearen kutsadura	23	21
Uraren kutsadura	30	27
Baliabide naturalak agortzea	32	26
Pertsonek sortutako hondamendiak	32	21
Klima aldaketa	35	26
Nekazaritzako eta abeltzaintzako kutsadura	38	28
Biodibertsitatea galtzea	41	26
Produktu kimikoen osasunean duten eragina	44	36
Genetikoki eraldatutako organismoen erabilera	48	34

Iturria: Ekobarometro soziala, 2008 eta Eurobarometer 295.

Itxuraz, ez dago informazio gabeziaren eta kezken arteko korrelaziorik; izan ere informazio gabezia handia sumatzen zaien zenbait gai (produktu kimikoen osasunean duten eragina eta genetikoki eraldatutako organismoen erabilera)


kezka maila txikia sortzen dute. Ordea, biztanleek informazio gabezia ertaina sumatzen dute hiru alderdirik kezkaragirienean: pertsonek sortutako hondamendiak, uraren kutsadura eta klima aldaketa.

I.3.16. Grafikoa. Kezkaren eta informazio faltaren arteko erkaketa



Iturria: Ekobarometro soziala, 2008.

I.3.17. Grafikoa. Ingurumena babesteko ahaleginak zergatik ez diren egiten



Iturria: Ekobarometro soziala, 2008.

c. Ingurumenarenganako jarrera eta esfortzua
Ekobarometro sozialaren arabera, EAEn, 4 pertsonetatik 3k adierazten dute ingurumena babesteko ahaleginak egiten dituztela. Horietatik %58a eszeptikotzat jo dezakegu, uste baitu ingurumenaren jokatu arren ez duela eraginik izango baldin

eta gainerako pertsonek (%24) edo beste kutsatzaile handi batzuek (%34) ez badute berdin kokatzen.
Eurobarometer 295aren datuen arabera, 2007an estatu ki-deetatik gehienetan, inkesta egin zaien pertsonarik gehienek uste dute kutsatzaile handien erantzukizuna izan beharko

litzatekeela ingurumena babestea. Bestelako ikuspegia du te Holandan, Erresuma Batuan, Danimarkan, Grezian eta Alemanian: herrialde horietan, elkarriketatutako pertsonarik gehienak norbanakoaren erantzukizunaren aldekoak dira.

EAEn ingurumena babesteko ahaleginik egiten ez duen beste %25ak ahaleginik ez egiteko zenbait arrazoi aipatzen ditu: eragozpenak sortzen dizkie (kolektibo honetako %42) eta uste dute ez duela eragin handia izango kutsatzaile handiek ez badute berdin jokatzen (%31).

EAEn gertatzen den ez bezala, Eurobarometer 217aren arabera, EB-25ean ingurumena babesteko ahalegin txikiena egiten duten pertsonak. 2004an, jokabide horrek maila pertsonalean sortzen dituen eragozpenak (%21) baino, aipatzen duten arrazoiak da beren jardunak ez duela eraginik izango baldin eta kutsatzaile handiek edo gainerako pertsonak berdin jokatzen ez badute (%33 eta %27 hurrenez hurren).

d. Kontsumoa

EUSTATEk familiei ingurumenari buruz egiten dien inkestan (2008koa), EAEko familiek ondoko aldagai hauek ordenatu zituzten erostetarako egiteko orduan ematen dieten garrantziaren arabera: prezioa, marka, energia eraginkortasuna, etiketa ekologikoa izatea eta bertako edo hurbileko produktua izatea. Datuen arabera, garrantzitsuenak prezioa da (inkesta egin zuten familien %91,7arentzat garrantzitsuenak), bigarrenik energia eraginkortasuna (familien %75,8ak garrantzitsutzat jotzen du etxeko tresna elektrikoak erostekoan), hirugarrenik, produktua bertakoa edo hurbilekoa izatea (familien %56,9), Laugarrenik, marka (familien %54,7), eta bosgarrenik, etiketa ekologikoa elikagaien kasuan (familien %52,6aren ustez garrantzitsua da).

Hain zuzen ere, ekobarometro sozialaren arabera, produktuen ingurumen etiketei ematen zaien arreta eza gorantz doa. Adibidez, pertsonen %68ak ez dio batere garrantzirik ematen, edo garrantzi gutxi ematen dio, produktuek ingurumenean duten eraginari buruzko etiketak edukitzeari; 2004ko eurobarometro sozialean, berriz, portzentajea %56 zen.

e. Klima aldaketa

Ekobarometro sozialaren arabera, EAEn, 2007. urtean, inkesta egin zitzaizen pertsonen %75ak uste du klima aldaketa gertatzen ari dela.

Era berean, inkesta egin zaien pertsonen %75 oso edo nahiko kezkatuta dago klima aldaketarekin. %65ak uste du fenomeno honek eragina izango duela berarengan etorkizunean (eragin nahiko edo oso handia). %20ak uste du eragin handia izango duela bere eguneroko bizimoduan. Aitzitik, ia %67ak uste du CO₂ emisioei egiten dien ekarpena txikia edo ia deuseza dela; antzeko portzentaje batek uste du klima aldaketa murrizteko gutxi edo ezer ez egin daitekeela.

Bestela esateko, EAEko biztanleriak klima aldaketagatik eta horrek bere bizitza pertsonalean etorkizunean izango dituen ondorioengatik duen kezka (handia) eta klima aldaketa murrizteko orduan jendeak norberaren portaerari ematen dion garrantzia (txikia) ez datoz bat. Hau da, arazoaren garrantzia aitortzen da baina arazoa konpontzeko norberak daukan zereginaz ez da barneratzen; besteei egotzen zaie.

3.3. industri enpresa eta ingurumena

3.3.1. Enpresen ingurumen konpromisoa. ingurumenaren kudeaketa

Ingurumena Kudeatzeko Sistema sortzea, ingurumenarenganako konpromisoa ez ezik, lehiakortasunerako faktore garrantzitsua da nazioarteko merkatuan.

IHOBEk emandako datuen arabera, ingurumeneko ziurtagiriak edo ziurtagiri "berdeak" (ISO 14001, Ekoscan araua, EMAS Europar Araudia edo UNE ISO.301-Ecodiseño) gero eta gehiago dira. Horrela, 2007 eta 2008. urteen artean, ziurtagirien kopurua 1.130 izatetik 1.228 izatera igaro da (98 berri).

Kopuru absolutuetan, 69 ISO 14.001 ziurtagiri berri banatu dira, 2 EMAS berri, 24 EKOSCAN eta 3 ECODISEÑO. Beraz, guztira 1.048 ISO 14.001 ziurtagiri, 36 EMAS, 24 EKOSCAN eta 14 ECODISEÑO daude.

Ondorioz, EAE munduko lurralderik garrantzitsuenen artean dago alor honetan. Izan ere, hauek dira beste herrialdeen ko-

I.3.17. LAUKIA. EAEko INGURUMEN ZIURTAGIRIEN HISTORIKOA

	ISO14001	EMAS	EKOSCAN	ECODISEÑO
1999	54	1	0	0
2000	127	1	0	0
2001	224	2	0	0
2002	333	3	0	0
2003	470	6	0	0
2004	611	12	36	0
2005	767	19	49	1
2006	878	26	75	5
2007	979	34	106	11
2008	1.048	36	130	14
Aldakuntza absolutua	69	2	24	3

Iturria: IHOBE.

I.3.18. LAUKIA. NAZIOARTEKO ZIURTAPENAK. 2007

	ISO 14.001	EMAS
Japon	21.779	—
Alemania	5.800	1.979
Erresuma Batua	5.400	364
Suedia	4.865	85
Espainia*	11.205	843
AEB	8.081	—
Australia	1.964	—
Taiwan	1.597	—
Frantzia	3.629	17
Italia	9.825	761
Txina	18.979	—

Iturria: IHOBE.

puruak, 2007. urteari dagozkionak: Alemanian 5.800 ISO 14.001 ziurtagiri; Erresuma Batuan, 5.400; Suedian, 4.685; AEBetan, 8.061; Australian, 1.964; Taiwanen, 1.597; Frantzia, 3.629; Italian, 3.925; Espainian, 11.025; txinan 18.797 eta Japonen, 21.779.

3.3.2. Enpresa industrialen gastua ingurumena babesteko

Industri enpresek ingurumena babesteko egiten duten gastuari buruzko INEren inkestaren azken datuek erakusten dute 2006. urtean EAEn enpresa horiek ingurumena babesteko egin duten gastua 220,9 milioi euro izan dela. Beraz, 2005. urtean izandako datua baino %4,3 gehiago.

220,9 milioi euro horietatik 87.690.034 euro, hau da, %39,7, inbertsioetarako gasturako da (2005ean %40,9, 2004an %40,3 eta 2003an %41) eta %60,3 gastu arruntetarako.

Gastua BPGaren portzentaje gisa neurtuta, galera txiki bat gertatu da: %0,38tik %0,36ra. Eta EAEk aurreko postuetan segitzen duen arren, rankingean bi posizio atzeratu da, lau garren izatetik seigarren izatera. Asturias (%0,86), Nafarroa (%0,46), Galizia (%0,43), Kantabria (%0,39) eta Gaztela eta Leon (%0,37) ditu aurretik.

I.3.19. LAUKIA. INDUSTRI ENPRESEN GASTUA INGURUMENA BABESTEKO

	GASTUA EUROTAN				GASTUA / BPG (%)			
	2003	2004	2005	2006	2003	2004	2005	2006 p
Andaluzia	236.224.390	260.729.994	272.869.310	278.872.489	0,22	0,23	0,22	0,21
Aragoi	62.785.906	66.423.193	70.629.740	86.645.466	0,26	0,26	0,25	0,29
Asturias	86.437.063	100.763.912	129.282.155	182.993.115	0,51	0,56	0,66	0,86
Balearrak	4.402.474	8.578.446	21.385.149	18.209.920	0,02	0,04	0,09	0,07
Kanariar Uharteak	33.576.869	46.940.256	36.648.245	34.051.981	0,10	0,14	0,10	0,09
Kantabria	22.325.280	28.556.244	35.760.103	47.792.877	0,23	0,27	0,31	0,39
Gaztela eta Leon	153.536.263	184.800.061	165.240.482	194.264.504	0,36	0,41	0,34	0,37
Gaztela-Mantxa	68.330.462	91.943.337	101.354.223	111.221.225	0,26	0,32	0,33	0,34
Katalunia	528.891.058	580.469.271	601.370.205	629.136.214	0,36	0,37	0,35	0,34
Valentzia	199.326.426	214.494.486	223.981.202	252.257.387	0,26	0,26	0,25	0,26
Extremadura	12.685.038	14.519.322	15.442.785	18.225.467	0,10	0,10	0,10	0,11
Galizia	115.730.330	148.397.658	179.021.551	218.480.110	0,29	0,35	0,39	0,43
Madril	115.928.496	129.760.216	142.677.846	150.627.230	0,08	0,09	0,09	0,09
Murtzia	70.503.028	72.434.016	72.577.276	77.493.768	0,36	0,34	0,31	0,31
Nafarroa	54.084.921	58.617.935	62.128.847	76.206.491	0,41	0,41	0,40	0,46
EAE	183.329.517	198.277.508	211.847.251	220.916.516	0,38	0,38	0,38	0,36
Erroixa	15.205.304	16.738.346	17.687.774	19.394.534	0,26	0,27	0,26	0,27

p: BPGaren datuak behin-behinekoak dira. Iturria: INE

4. PRODUKZIO AZPIEGITURAK

Azpiegitura fisikoen barruan, zona jakina garatzeko behar diren ekipamenduak, egiturak eta zerbitzuak sartzen dira. Bi azpiegitura mota daude. Alde batetik, produkzio-garapenari lotutakoa (azpiegitura ekonomikoa edo oinarritzakoa), eta, honen barruan sartzen direnak uraren, elektrizitatearen eta gasaren hornidura, zabor-bilketa eta hondakinen arazketa, garraioa eta telekomunikazioak eta lurzorua kudeaketari lotutako azpiegiturak dira (uholdeen prebentzioa, drainatzeak, higadura, oihaneztatzea...). Bestetik, gizarte-azpiegitura dago, eta honen barruan sartzen diren zerbitzuak honako hauek dira: laguntza, osasuna, hezkuntza, kultura, ingurumena, prebentzioa, segurtasuna eta administrazioa.

Horrela, azpiegitura fisikoak funtsezko elementuak dira edozein gizarteren garapen ekonomikorako, ongizate orokorrerako eta kohesiorako; eragin handia dute herri bateko jardura ekonomiko orokorrean, eta, hain zuzen ere, lagungarriak dira hazkunde eta produktibitatea hazteko.

Horri dagokionez, EAE orografia zaila eta biztanleria-dentsitate altua dauka; gainera, biztanleria hirigune askotan barreiatuta dago, eta, beraz, inbertsio handia egin behar da halako azpiegituran, bai espazio nahiko handia zerbitzatu behar duelako, bai halako azpiegituraren eraikuntzak kostu handiak dituelako (ekonomiaren, gizaritearen eta ingurumenaren aldetik).

4.1. Garraioa

Kokaleku estrategikoa eta industria-jardura handia izatearen ondorioz, EAE mota guztietako trafiko mailarik handiena duen Europako zonetarikoa bat da. Errepide-sare trinkoak, trenbide-lineek, bi itsats portu handik eta hiru aireportu ahalegina egiten dute barruko eta kanpoko trafiko-beharrianak betetzeko, baita egunetik egunera zerbitzu hobeak eta kalitate handiagokoak eskaintzeko ere.

2006an hiru proiektu handi abiatu ziren: abiadura handiko trenbide-sareko lehenengo tarteak, Bilboko Supersur Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarrako lau tarte, eta A-8 autobideko ingurabidea, Donostia inguratuko duena.

Proiektu horietarako, Estatuko Administrazioak lizitazio bolumen handia egin du obra zibilean, berak baitauka Europaz gaindiko eta Penintsulako Trenbide Sarearen eskumena; Toki Administrazioek ere lizitazio-bolumen handia egin dute, Errepide Sarea Foru Aldundien eskumenekoa baita.

Horrela, Estatuko ADIF Sozietate Publikoak egindako adjudikazioak, EAEko ingeniari-tza zibilean egindakoak, Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, oso altuak izan dira 2006an eta 2007an.

Inbertsioei dagokienaz, Sustapen Ministerioak azken datuen arabera (2007ari buruzko datuak), errepideko, trenbideko eta aireko garraio-azpiegiturretan egindako inbertsioak murriztu egin dira; itsasoko garraioan egindako inbertsioek, berriz, hazkundetxoak izan dute.

4.1.1. Errepideko garraioa

(a) Azpiegitura

N-1 errepideak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du EAE; hain zuzen ere, Europako lehenengo mailako ibilbidearen barruan dago (E-5 Glasgow-París-Algeciras erreferentziako

1.4.1. LAUKIA. OBRA PUBLIKOAREN LIZITAZIOA EAE-N (milaka eurotan)

	2005	2006	2007	2008
Estatuko Administraz.	158.659	623.570	584.520	205.169
EAEko Administrazioa	324.519	303.342	570.246	767.155
Toki Administrazioa	1.337.929	2.334.084	1.795.462	1.390.121
GUZTIRA	1.821.107	3.260.996	2.950.228	2.362.445
Eraikuntza	411.757	623.362	862.325	911.305
Obra Zibila	1.409.350	2.637.634	2.087.903	1.451.140

Iturria: SEOPAN.

1.4.2. LAUKIA. EAE-N INGENIARITZA ZIBILAREN ARLOAN EGINDAKO ADJUDIKAZIOAK. SUSTAPEN MINISTERIOA ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK (euroak milatan)

	2005	2006	2007	2008
Guztira	36.910	201.052	609.119	79.349
Ministerioa eta erakunde autonomoak	425	—	—	—
Estatuko erakunde publikoak	36.485	201.052	609.119	79.349
AENA	7.623	7.371	5.650	49.741
FEVE	10.572	20.963	4.536	8.391
ADIF	3.398	173.681	548.613	8.480
Portuak	21.727	32.447	55.943	55.312
RENFE	823	641	267	1.065

Iturria: Sustapen ministerioa.

errepidea), eta, ordainpeko A-8 Bilbo-Behobia autobidearekin (bertatik E-70 La Coruña-Burdeos) eta ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen A-68 Bilbo-Zaragoza autobidearekin (E-80 Lisboa-Pau) batera, Iberiar Penintsula Europarekin komunikatzeko bide nagusienetarikoa da.

Nazioarteko trafiko-bide hauek ez ezik, EAEko barne-komunikazioa 4.000 kilometroko luzeratik gora duen errepide-sare batek osatzen du, eta horien titularrak Foru Aldundiak dira (A-8 autobidearen titulartasuna ere bai).

Eskualde barruko lotura-bide nagusietariko batzuk Debaren haraneko igarobidea eta Durango-Beasain zeharkako ardatza dira; horiek Bizkaiko eta Gipuzkoako barrualdeko industria-udal-erri nagusietariko (biztanle kopururik handienetarikoa) batzuen arteko komunikazioa ahalbidetzen du; halaber, Leizaran-go autobideak Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen ditu. Funtsean, sare hau hirurogeita hamarrek hamarkadatik eginda dago, baina inbertsioen helburua bideak hobetzea edo arazorik gehieneko puntuak ezabatzea izan da.

Bestalde, 2009ko maiatzean Gasteiz-Eibar autobidea inauguratu da; Europaz gaindiko Garraio Sarearen barruan dago, E-5 Iparralde-Hegoalde ardatzean, eta EAEn errepidearen arloan oraintsu egindako obrarik garrantzitsuenetarikoa da.

I.4.3. LAUKIA. GARRAIOKO AZPIEGITURETAN EGINDAKO INBERTSIOAK, LURRALDE EREMUAREN, GARRAIO MODUAREN, ORGANOEN ETA URTEAREN ARABERA (euroak milatan)

	EAE				ESTATUA			
	2004	2005	2006	2007 (p)	2004	2005	2006	2007 (b)
ERREPIDEA GUZTIRA	339.998	352.734	358.616(p)	254.136	7.244.489	8.318.691	8.406.032	7.843.160
Estatua	—	—	—	6	2.836.144	3.153.269	3.443.439	3.644.654
Autonomia Erkidegoak	—	—	—	—	2.081.009	2.694.519	2.736.763	2.701.620
Aldundiak	336.011	347.784	342.617 (p)	247.287	807.236	898.730	921.471	973.287
Ordainpeko Autobide Emak.	3.987	4.950	16.731	6.843	1.520.100	1.572.173	1.304.359	523.598
TRENBIDEA GUZTIRA	89.150(p)	117.702(p)	96.522(p)	51.031	4.828.743	6.244.532	7.117.017	8.192.298
Trenbideko ZN	12.629(p)	21.121(p)	20.417(p)	9.286	562.429	1.308.566	1.444.688	1.574.986
ADIF	9.175(p)	31.886(p)	29.117(p)	29.156	2.311.955	3.518.120	3.837.223	4.661.978
Autonomia Erkidegoak	—	—	—	—	359.945	301.393	330.263	383.489
RENFE	22.294(p)	1.186(p)	4.299(p)	2.023	1.270.411	743.582	1.015.718	1.106.615
Aldiriak guztira	45.052(p)	63.509(p)	42.689(p)	10.566	324.003	372.871	489.125	465.230
FEVE	9.560(p)	8.150(p)	11.437(p)	10.566	72.190	75.880	80.802	80.073
AAEEtako konpainiak	35.492(p)	55.359(p)	31.252(p)	—	251.813	296.991	408.323	385.157
AIREA GUZTIRA	21.082	21.069	14.159	12.779	2.020.161	1.512.441	1.828.821	2.163.753
Abiazio zibileko ZN	—	—	—	—	5.154	5.811	6.962	9.589
AENA	21.082	21.069	14.159	12.779	2.015.007	1.506.630	1.821.859	2.154.164
ITSASOA GUZTIRA	57.704	79.117	55.045	55.766	1.065.520	1.209.587	1.427.060	1.561.968
Merkataritzako ontzidiko ZN	103	264	660	901	7.352	9.549	8.929	10.088
Kostako ZN	9.442	3.060	2.300	8.127	145.881	140.899	158.385	183.734
Estatuko portuen erakunde publikoa	40.878	57.088	37.264	24.121	777.662	868.516	1.070.133	1.012.302
Salbamend. eta itsas segurtasu. estatuko zerbitzua	149	—	—	1.967	31.511	57.000	69.700	196.278
Portu autonomikoak	7.132	18.705	14.821	20.650	103.114	133.623	119.913	159.566

(b) behin-behinekoak. Unitatea: Euroak milatan.

Datuak EAE 2003: OTEUS Euskadiko Garraioaren Behatokia. Gainerako datuak: Sustapen Ministerioa. Estatistika-urtekariak.

I.4.4. LAUKIA. GARRAIO SISTEMAREN OSAKETA EAE-N

SISTEMA	AZPIEGITURA	ORGANO TITULARRA	ERAK. ERAGILEA
Errepide Sistema	Errepide Sare Orokorra Hiri Sarea A-68 autobidea	Foru Aldundiak Udalak Estatua	Garraio Zerbitzu Publikoaren Emakidaduna/Emailea
Trenbide Sistema	Europaz gairidiko Sarea Penintsulako Sarea	Estatua	Renfe
	Metro Sarea	EAE Estatua	Eusko Tren FEVE
	Metro/Tranbia Zubi Esekia	EAE Bilboko Portu Agintaritza	Metro Bilbao, Eusko Tren Pribatua
Portu Sistema	Interes Orokorreko Portuak Portu Autonomikoak	Estatua EAE	Portu Agintaritza EAE
Aire Sistema	Interes Orokorreko Aireportuak	Estatua	AENA
Kableko Sistema	Igogailuak eta funikullarrak	EAE	Pribatuak Publikoak
Garraio Intermodaleko Sistema	Garraio eta Logistika Zentroak	Partzuergoak/Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Iturria: Garraio Plan Gidaria 2002-2010.


EAEko errepideetan egindako batez besteko inbertsioak (eraikuntza, kontserbazioa eta ustiapena), EUSTATEk eman dako datuen arabera, ia 400 milioi euroko gastu publikoa eragin du 2007an (%16,5eko hazkundera aurreko urteari dagokio-

nez); biztanleko 185€ eta sareko km bakoitzeko 94,3€ izan dira (aurreko urtean baino %15,7 gehiago). Europako sarrerik trinkoenetarikoa da, azalerako dentsitaterik handienetarikoa baitauka (0,6 km errepide, azalerako km²-ko;

I.4.5. LAUKIA. ERREPIDE SAREA (Km) MOTAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA

	2000	2003	2004	2005	2006	2007
Estatua guztira	163.557	164.584	165.152	165.646	166.339	166.011
Edukiera handia (1+2)	10.443	12.009	12.444	13.156	13.872	14.689
Sareko gainerakoa (3)	153.114	152.575	152.575	152.490	152.467	151.322
EAE guztira	4.353	4.263	4.250	4.218	4.205	4.229
Ordainpeko autobideak (1)	196	201	206	211	211	228
Autobide askea, autobiak, galtzada biko errepideak (2)	299	318	316	325	317	345
Galtzada bakarreko errepideak (3)	3.858	3.744	3.728	3.682	3.677	3.656
ARABA guztira	1.470	1.470	1.478	1.478	1.477	1.477
Ordainpeko autobideak (1)	62	62	62	62	62	62
Autobide askea, autobiak, galtzada biko errepideak (2)	112	112	112	112	112	112
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.296	1.296	1.304	1.304	1.303	1.303
GIPUZKOA guztira	1.356	1.358	1.361	1.371	1.371	1.373
Ordainpeko autobideak (1)	75	77	81	86	86	85
Autobide askea, autobiak, galtzada biko errepideak (2)	83	85	85	91	90	126
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.198	1.196	1.195	1.194	1.195	1.162
BIZKAIA guztira	1.527	1.435	1.411	1.369	1.357	1.379
Ordainpeko autobideak (1)	59	62	63	63	63	81
Autobide askea, autobiak, galtzada biko errepideak (2)	104	121	119	122	115	107
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.364	1.252	1.229	1.184	1.179	1.191

Iturria: EUSTAT EAerako eta INE Estatutako.

I.4.1. Grafikoa. Errepideetako inbertsioa EAEn

Iturria: Eustat.

hain zuzen ere, Estatuko 0,33 baino bi aldiz handiagoa, baina biztanleko dentsitate txikiagoa): %13,5ean edukiera handiko bideek osatzen dute (%40 ordainpeko autobideak), eta Estatuan ehuneko hori %8,8koa da (14.689 km, eta horietatik 2.972 ordainpeko autobideak; hau da, Estatuan %20,2 eta EAEn %40). Bestalde, sarearen kantitatea ez ezik, kalitatea ezagutzea ere garrantzitsua da; horretarako, nahitaez baloratu beharreko elementu bat bideek zirkulaziorako duten segurtasuna edo bertako istripu kopurua da. Istripu kopurua EAEko ibilgailu-

parkearekin lotzen duen tasak, 2007an, Estatuan baino balio txikiagoa izan du berriro (hurrenez hurren, 1.000 ibilgailuko 2,7 eta 3,3); gainera, ratio hori murriztu egin da, aurreko ekitaldian izandakoari dagokionez.

Azkenik, EAEn garraioko lau zentro intermodal daude gaur egun: Gasteizko Garraioko Zentroa, Arasur (Rivabellosa, 2006ko urtarilean inauguratua), Zaisa (Irun) eta Aparkabisa (Trapagaran). "Europlataforms" Garraioko Plataformen Europako Taldearekin elkartuta daude, eta horren helburua ga-

I.4.6. LAUKIA. ERREPIDE SAREA (Km) MOTAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA

	2000	2003	2004	2005	2006	2007	Estatua 2007
Sare osoa (km) / azalera	0,60	0,59	0,59	0,59	0,58	0,59	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	2,09	2,03	2,02	1,97	1,99	1,97	3,67
Ibilgailu-parkea / sare osoa	241,6	258,6	267,8	277,5	286,6	296,2	182,6
Ibilgailu-sarea / biztanleko	0,5	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6	0,8
B. besteko inbertsioa eurotan biztanleko	108,2	148,9	159,7	162,4	162,0	185,8	—
B. besteko inbertsioa, euroak milatan, sareko km-ko	51,7	73,2	79,1	82,5	81,5	94,3	—
Errepideak km-tan	4.353	4.263	4.250	4.218	4.205	4.229	166.011
Biztanleak	2.079.210	2.095.014	2.104.396	2.140.908	2.115.383	2.147.754	45.200.737
Ibilgailu-parkea	1.051.537	1.102.418	1.138.201	1.170.574	1.205.350	1.252.519	30.318.457
B. besteko inbertsioa (euroak milatan)	224.905	311.917	336.011	347.784	342.617	398.986	—

Iturria: EUSTAT EAerako eta INE eta Sustapenek Urtekaria Estaturako.

I.4.7. LAUKIA. ERREPIDE SAREKO SEGURTASUNA, ISTRIPUEN RATIOA

	2005		2006		2007	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
Biktitudun istripuak	3.536	91.187	3.412	99.797	3.380	100.508
Ibilgailu-parkea	1.170.574	27.657.276	1.205.350	28.871.392	1.252.519	30.318.547
Istripuen ratioa, ibilgailu-parkeari dagokionez (mila ibilgailuko)	3	3,3	2,8	3,5	2,7	3,3

Iturria: Sustapen Ministerioa

I.4.8. LAUKIA. MERKANTZIEN BARNE GARRAIOA EAE-N (Tonak milatan)

	1993	1995	2000	2005	2006	2008	2007-08
ESTATUAN GARRAIATURIKOA GUZTIRA	588.150	907.789	1.496.415	1.578.525	1.673.517	1.474.552	-11,9
EAE							
Garraiatua [a+b+c]	55.724	79.627	107.109	108.243	117.683	109.654	-6,8
Kargatua (a+b)	41.812	61.526	83.661	83.999	89.340	85.244	-4,6
Deskargatua (a+c)	41.721	60.064	83.083	82.878	90.188	83.592	-7,3
Lekualdatze mota							
Eskualde barrukoa (a)*	27.809	41.963	59.635	58.634	61.845	59.182	-4,3
Eskualde barrukoa							
Guztira (a+b)	27.915	37.664	47.474	49.609	55.838	50.472	-9,6
Bidalitakoa (b)	14.003	19.563	24.026	25.365	27.495	26.063	-5,2
Jasotakoa (c)	13.912	18.101	23.448	24.244	28.343	24.410	-13,9
Ratio Interregional							
Guztira [(b+c)/(a+b+c)]	50,0	47,3	44,3	45,8	47,4	46,0	—
Bidalitakoa [b/(a+b)]	33,4	31,7	28,7	30,1	30,7	30,6	—
Jasotakoa [c/(a+c)]	33,3	30,1	28,2	29,2	31,4	29,2	—
EAEko % Estatuari dagokionez	9,5	8,8	7,2	6,9	7,0	7,4	—

* Zergati metodologikoen eraginez, guztizko honen brruan ez da udalerrri barruko garraioa sartzen.

Iturria: Sustapen Ministerioa

raioiko logistika-zentroen erabilgarritasun ekonomikoa sustatzea da.

(b) Trafikoaren bilakaera

Errepideko merkantzia-trafikoa (igartzen den nazioarteko trafikoa aintzat hartu barik) murriztu egin da 2007tik 2008ra, bai Estatuan eta bai EAEn.

EAEn kasuan, murriztapen hau eskualde barruko trafikoa (%-4,3) eta, batik bat, eskualdeen arteko trafikoa (%-9,6) murriztearen ondoriozkoa da.

Hala eta guztiz ere, EAEko ratioak, Estatuan errepidez garraiatutako merkantzia guztiei dagokienez, 2006ra arte beheranzko joera izan ondoren, 2008an berretsi egin du 2007an izandako susperraldia. Horrela, 1993an EAEk guztizkoaren

%9,5 zuen, 2000n %7,2, 2005ean %6,9, 2007an %7 eta 2008an %7,4.

Eskualdeen arteko trafikoari dagokionez, truke-bolumenik handiena erkidego mugakideekin egiten da (Gaztela-Leon, Nafarroako Foru Erkidegoa, Kantabria, Katalunia, Aragoi eta Errioxa), baita Madrilekin ere.

Azkenik, EAEn hiri-autobusetan garraiatutako bidaiari kopuruak berriro ere gora egin du, eta 72.653 milioitik 74.859 milioira igaro da; hau da, 2007an baino %3 gehiago. Ekonomia Ministerioak emandako datuek agerian jarri dutenez (Sustapen Ministerioaren Urtekarian jasotako datuak), Estatuan hazkundea %0,25ekoa da (1.851 milioi bidaiaritik 1.856 milioira).

4.1.2. Trenbideko garraioa

(a) Azpiegitura

Trenbide-sareak hasieratik izandako arazo ugariak (bide-zabalera desberdinak, trenbideko garraioaren ulermen erradiala Estatuan, loturarik eza, etab.) larritu egin dira EAEn, hemengo orografia zailaren eta lurraldearen barne-artikulazioari lehentasuna eman ez dion ulermen baten eraginez; horrek erabat zaildu du merkantzien zirkulazioa eta Europarekiko lotura. Arazo horien ondorioz, EAEn trena ez da lehiakorra beste garraiobide batzuekin, batez ere hiriburuaren arteko loturetan. Hala eta guztiz ere, trenbidea XXI. mendeko garraio publikoko sistema nagusizat hartzen dute orain, ustiapenak kostu txikiak dituelako eta ingurumenean beste garraibide batzuk baino eragin kaltegarri gutxiago sortzen duelako.

Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, 2008an EAEko trenbide-sarea 578,12 kilometro bide elektrifikatuk osatzen zuten; horietatik %52,7 ADIFenak dira (bi bide nagusiak kudeatzen dituen enpresa, Madril-Irun eta Bilbo-Miranda); %39,6 Eusko Tren enpresak kudeatzen ditu (Bilbo-Donostia-Hendaia linea), eta gainerako %7,8; azken horrek Bilbo-Santander eta Bilbo-Leon lineak kudeatzen ditu, baita eskualdeen arteko loturetarako lineak ere, Bilbo Handiaren eremuan. Ibilbide luzeko lineei eta horien nazioarteko loturei dagokionez, aipagarria Frantziako TGVrekiko lotura Irunen, baita EAEko Y deritzon proiektua ere; EAEko trenbide-trazatu berria da, abiadura handiko tren bati lotutakoa, eta horrek 30 minututan lotuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak; Madrilera eta

1.4.10. LAUKIA. TRENBIDE KM-AK EAE-N, 2008

	ELEKTRIFIKATU BARIK		ELEKTRIFIKATUA	
	Guztira	Bide bak.	Guztira	Bide bak.
ADIF	0	0	304,50	86,80
FEVE	42,70	42,70	44,96	19,75
EUSKO TREN	4,51	4,51	228,65	151,49
GUZTIRA	47,21	47,21	578,12	258,04

Iturria: Sustapen Ministerioa.

1.4.9. LAUKIA. ERREPIDEKO MERKANTZIEN GARRAIOA EAE-N, JATORRIAREN ETA HELMUGAREN ARABERA (Tonak milatan)

	2005		2006		2007	
	Helmuga EAE	Jatorria EAE	Helmuga EAE	Jatorria EAE	Helmuga EAE	Jatorria EAE
GUZTIRA	102.570	103.147	106.767	107.887	108.509	107.661
Nafarroa	4.792	3.307	5.269	3.957	4.425	3.396
Gaztela eta L.	4.866	5.028	3.620	4.980	5.876	6.035
Kantabria	2.750	2.958	2.781	2.748	3.215	2.404
Katalunia	2.095	2.400	2.257	2.780	2.315	2.503
Errioxa	1.576	1.579	1.978	1.594	2.243	1.777
Aragoi	1.453	1.446	1.953	2.042	2.358	2.129
Madril	1.605	2.305	1.724	2.366	2.202	2.857
Asturias	1.245	1.059	1.230	1.107	1.333	1.339
Valentziako E.	758	981	1.209	1.094	1.176	1.264
Galizia	1.072	936	1.029	735	1.514	1.473
Gainerakoa	1.234	2.024	1.196	1.933		
Andaluzia	—	—	—	—	613	860
Balearrak	—	—	—	—	0	0
Kanariak	—	—	—	—	0	0
Gaztela- Mantxa	—	—	—	—	602	872
Extremadura	—	—	—	—	113	172
Murtzia	—	—	—	—	331	335
Ceuta eta Melilla	—	—	—	—	0	0
EAE	79.122		82.523		80.166	

* Gainerakoaren barruan.

Iturria: EUSTAT.

Bordelera heltzeko, berriz, 2 ordu eta apur bat gehiago baino ez du behar izango.

Azkenik, aipatzekoa da EAEn geltoki intermodal bat baino ez egotea; hain zuzen ere, Arabako Jundizkoa da, RENFERen mendekoa; hori Baiona-Mouguerreko Europako Zentroarekin lehiatzen da, Europako trafikoa bereganatzeko; 20 hektarea eta erreserbako beste 50 hektarea ditu, eta trenbide-lotuneak eta autobiderako sarbideak ere baditu.

(b) Trafikoaren bilakaera

Metro Bilbao eta Euskotren enpresen bidaiari-garraioaren alde-tik ikusten denez (bi enpresa horiei buruzko datuak baino ez daude), Metro Bilbao enpresak garraiatutako bidaiari kopuruak berriro ere gora egin du; azken ekitaldiko hazkundeak %0,5koa izan da (2007ko hazkundeak %7,6koa), eta guztira 86,3 milioi izan dira. Euskotrenek garraiatutako bidaiari kopuruak, ostera, %1,5eko murriztapena izan du; jokabide hori linea guztietan ikusi da, Bizkaiko Deustua-Lezama tarteetan (%1,2ko hazkundeak) eta La Reineta funikularrean (hau ere Bizkaian) izan ezik. Aipagarria da 2008ko abenduaren 23an Gasteizeko tranbia martxan hasi zela.

4.1.3. Aireko garraioa

(a) Azpiegitura

EAEn hiru aireportu daude (Loiu, Hondarribia eta Foronda), bakoitza hiriburu-erako batetik hurbil; horrenbestez, 70 km-ko erradioan bost aireportu daude (Iruñeko Noain eta Biarritz aintzat hartuta).

Loiuko (Bizkaia) aireportua Bilbotik 12 kilometrora dago. Loiuko udal mugartean; *Espainiako iparraldeko zonarekiko komunikazio hobezinak ditu: A-8 autobidea, Santanderrekin (mendebaldearekin) eta Donostiarekin, Iruñekin eta Frantziarekin (ekialdearekin) lotzen duena; eta AP-68 autobidea, Gasteizekin, Logroñorekin, Zaragozarekin, Bartzelonarekin, Burgoekin eta Madrilekin lotzen duena. 32.000 metro koadroko azalerako terminal-eraikina eta 95.000 metro koadroko aparkamendua dauka (3.000 aparkaleku), baita hegazkinak aparkatzeko pla-*

taforma ere (iparraldeko plataforma), terminalaren eremua euskarritzen duena. Aireportuaren eraginkortasuna hobetzeko eta Terminal Eraikina irisgarritasunaren araudira egokitze-ko, hurrengo hilabeteetan aireportua handitzeko jarduketak egingo dira. 2008an bertako instalazioetatik 4,15 milioi bidaiari igaro, 61.682 hegaldi egin eta 3.170 tona merkantzia mugitu ziren.

Hondarribiako aireportua (Gipuzkoa) Donostiatik 22 kilometrora kokatuta dago, bertako ipar-ekialdean. Batez ere, trafiko nazional erregularrerako eta nazioarteko trafikorako erabiltzen da; 2008an 396.000 bidaiari izan zituen. Gainera, 12.736 he- galdi egin eta 64 tona merkantzia mugitu ziren.

Forondako aireportua (Araba) Gasteizetik 8 kilometrora dago, bertako ipar-mendebaldean, hiriburuko udal mugartean bar- ruan; aireportuaren jardura nagusia merkantzien trafikoa da. Izan ere, trafiko horrek bilakaera ona izan du, batez ere 1994tik (1993an 427 tona mugitu zituen); hain zuzen ere, kargako konpainia batzuek aireportu horixe aukeratu zuten, merkant- zia iristeko puntutzat, horiek gero banatzeko (iragankorrak), baita beste merkantzia batzuk (paketeak) beste zenbait helmugarantz irteteko lekutzat ere. 2008an, instalazioak 67 mila bidaiarik erabili zituzten, 12.225 hegaldi egin ziren eta 14.763 tona merkantzia mugitu ziren. Horrenbestez, merkant- zia-bolumenik handiena mugitzen dituzten aireportuei dago- kienez, Espainiako hirugarren aireportua da, Madril-Barajasen eta Bartzelonakoaren atzean.

(b) Trafikoaren bilakaera

EAEko hiru aireportutatik 4,613 milioi bidaiari igaro ziren 2008an; beraz, %5,6ko murriztapena egon da, aurreko urtetik. Merkantzien trafikoari dagokionez, bolumenak %11,2ko murriz- tapena izan du aldi horretan.


Loiuko aireportutik 4,15 milioi bidaiari igaro ziren 2008an; hor- taz, %2,4ko murriztapena egon da aurreko urtetik. Merkantzien trafikoari dagokionez, bolumenak %20,2ko murriztapena izan du aldi horretan.

2007tik 2008ra, Forondako aireportuak %12,2ko murriztapena izan zuen merkantzien trafikoa.

4.1.11. LAUKIA. EUSKO TREN ETA METRO BILBAO ENPRESETAKO BIDAIRIAK

	2000	2002	2004	2006	2007	2008	2000-08	2007-08
Eusko Tren guztira	18.139.002	18.031.909	18.896.716	21.045.775	21.223.949	20.898.398	15,2	-1,5
Bizkaia	7.602.391	7.399.323	9.124.769	10.167.450	9.996.416	9.698.594	27,6	-3,0
Deustua - Lezama	2.379.388	2.309.525	2.107.986	2.146.331	2.178.769	2.205.520	-7,3	1,2
Bilbo - Bermeo	2.444.836	2.326.543	2.199.683	2.274.004	2.215.664	2.099.169	-14,1	-5,3
Bilbo - Ermua	2.557.661	2.501.093	2.421.431	2.614.081	2.513.980	2.365.443	-7,5	-5,9
La Reineta funikularra	220.506	214.914	203.973	198.182	181.651	181.749	-17,6	0,1
Bilboko tranbia	—	47.248	2.191.696	2.934.852	2.906.352	2.846.713	5.925,0	-2,1
Gipuzkoa	10.536.611	10.632.586	9.771.947	10.878.325	11.227.533	11.088.624	5,2	-1,2
Ermua - Amara	3.537.602	3.862.839	3.711.414	4.028.910	4.090.639	4.059.363	14,7	-0,8
Lasarte Oria - Hendaia	6.973.967	6.743.713	6.026.775	6.812.493	7.094.864	6.994.603	0,3	-1,4
Azpeitia - Lasao lurren-trena	25.042	26.034	33.758	36.922	42.030	34.658	38,4	-17,5
Araba								
Gasteizko tranbia*	—	—	—	—	—	111.180	—	—
Metro Bilbao	54.173.349	66.705.570	73.088.978	79.780.094	85.864.456	86.333.743	59,4	0,5

* 2008ko abenduaren 23tik aurrera. Iturria: EUSTAT.

I.4.2. Grafikoa. Bidaia- eta merkantzien aireko garraioaren bilakaera EAEn

Iturria: Eustat eta Sustapen Ministerioa.

I.4.12. LAUKIA. AIREKO TRAFIKOAREN BILAKAERA, KONTZEPTUAREN, EREMUAREN ETA AIREPORTUAREN ARABERA

	EAE				Foronda				Loiu				Hondarribia				2007-08			
	00	06	07	08	00	06	07	08	00	06	07	08	00	06	07	08	EAE	For.	Loiu	Hon.
Hegazkinak guztira	58.933	69.540	72.745	70.418	13.210	9.015	8.599	9.054	40.254	51.712	54.353	52.523	5.469	8.813	9.793	8.841	-3,2	5,3	-3,4	-9,7
Nazionala	39.038	49.155	50.813	49.205	7.883	4.860	4.558	5.108	25.772	35.729	36.680	35.419	5.383	8.566	9.575	8.678	-3,2	12,1	-3,4	-9,4
Nazioartekoa	19.895	20.385	21.932	21.213	5.327	4.155	4.041	3.946	14.482	15.983	17.673	17.104	86	247	218	163	-3,3	-2,4	-3,2	-25,2
Bidaia-ak guztira (milatan)	2.936	4.389	4.886	4.613	119	172	172	67	2.539	3.857	4.254	4.150	278	360	460	396	-5,6	-61,0	-2,4	-13,9
Nazionala	2.095	3.295	3.702	3.511	102	81	71	63	1.715	2.855	3.174	3.053	278	359	457	395	-5,2	-11,3	-3,8	-13,6
Nazioartekoa	841	1.094	1.184	1.101	17	91	101	4	824	1.002	1.080	1.096	0	1	3	0,5	-7,1	-96,0	1,5	-83,3
Merkantziak guztira (tonak)	37.812	47.356	20.276	17.997	33.599	17.523	16.811	14.763	4.037	3.391	3.220	3.170	176	281	245	64	-11,2	-12,2	-1,6	-73,9
Nazionala	6.379	10.698	5.281	5.763	3.783	3.048	2.887	3.227	2.421	2.132	2.162	2.480	175	270	232	56	9,1	11,8	14,7	-75,9
Nazioartekoa	31.433	36.658	14.995	12.233	29.816	14.475	13.924	11.536	1.616	1.259	1.058	690	1	11	13	7	-18,4	-17,2	-34,8	-46,2

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Bidaia- kopuruari dagokionez, trafikoaren bolumenak 172 milatik 67 milara jaitsi da, eta, beraz, %61eko murriztapena egon da. 2007tik 2008ra Hondarribiako aireportuan bidaia-aren trafikoak %13,9ko murriztapena izan du, eta merkantzien trafikoak %73,9koa.

4.1.4. Itsasoko garraioa**(a) Azpiegitura**

EAeko itsas portuak hiru talde nagusitan sailkatu ahal dira. Lehenengo taldean, interes orokorreko bi merkataritza-portu nagusiak sartzen dira, Bilbokoa eta Pasaia, eta horiek Portu Agintaritzak kudeatzen ditu, Estatuko titulartasunekoak baitira; bigarren taldean arrantza-portuak sartzen dira, eta horien eskumena Eusko Jaurlaritzak dauka; eta hirugarren taldean,


azkenik, aisialdiko itsas jardueretarako portuak sartzen dira, eta jardura horietarako gehienak sorberriak dira EAEn. EAeko bi portu nagusiak aztertuko ditugu hemen: Bilbo eta Pasaia.

(b) Trafikoaren bilakaera

Bilboko portua lehengaiak inportatzeko portua izan da, batez ere, Estatuko merkatuan; hain zuzen ere, ontziratu gabe garraiaturiko produktu likidoen inportaziorako portua; izan ere, jokabide horrekiko salbuespen bakarra edukiontzietan sarturiko merkantzien jarioarena da.


Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera ("2007ko Estatistika Urtekaria"), Estatuko merkantzia-porturik garrantzitsuenen artean 2006an Bilboko portua laugarren postuan egon da, kargaturiko eta deskargaturiko 37,2 milioi tonako bolumen-

I.4.3. Grafikoa. Itsasontzi kopurua eta garraiatutako merkantziak EAEko portuetan



Iturria: Eustat.

I.4.3. Grafikoa. Miles de toneladas y mercancías transportadas en los puertos de la CAPV



Iturria: Eustat.

narekin; aurretik Algeciraskoa (66,3 milioi tona), Valentziakoa (47,3 milioi tona) eta Bartzelonakoa (46,4 milioi tona) egon dira. 2005ean ere posizio horixe izan zuen sailkapenean. 2007tik 2008ra, Bilboko portuko trafikoa (merkantziak, hornidurak eta arrantza) %1,6ko murriztapena izan zuen, aurreko urtean %3,7ko hazkundea izan ondoren; hain zuzen ere, 39,398 milioi tonara heldu zen: horietatik 28,324 milioi solteko gaiak, eta azken horietatik %81 (23,057 tona) ontziratu gabeko

likidoak. Beste modu batera esateko, gaur egun garraiatutako merkantzien %58,5 oraindik ere ontziratu gabeko likidoak dira, batik bat petrolio-produktuak. Bestalde, itsasontzi kopuruak beheranzko joera izan du azken urteotan, eta 2008an 3.585 itsasontzi egon dira. Pasaiaiko portuko kotak askoz ere txikiagoak dira. Merkantzien trafikoa, 2006an susperraldia izan ondoren, beheranzko joera dauka, eta 4.778 milioi tonakoa izan da. Izan ere, azken 6 ur-

1.4.13. LAUKIA. ITSASOKO GARRAIOAK MUGITURIKO MERKANTZIAK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA

		Tonak milatan							Aldaketaren %	
		2000	2004	2005	2006	2007	2008	%	00-08	07-08
Bilbo	Guztira	28.745	33.214	34.090	38.591	40.023	39.398	100,0	37,1	-1,6
	Ontziratutako gabeko likidoak	14.835	18.596	19.685	22.290	22.682	23.057	58,5	55,4	1,7
	Solteko gai solidoak	4.495	5.030	4.251	4.989	5.832	5.267	13,4	17,2	-9,7
	Edukiontzia	4.389	4.941	5.468	5.629	5.920	6.139	15,6	39,9	3,7
	Merkantzia konbentzionala	3.957	3.940	3.824	4.300	3.997	3.518	8,9	-11,1	-12,0
	Beste trafiko mota bat	1.069	708	863	1.383	1.592	1.418	3,6	32,6	-10,9
Pasaia	Total	4.529	5.736	5.409	5.511	5.078	4.778	100,0	5,5	-5,9
	Ontziratutako gabeko likidoak	202	100	2	0	0	0	0,0	—	—
	Solteko gai solidoak	2.716	3.479	3.274	3.253	2.784	2.353	49,2	-13,4	-15,5
	Edukiontzia	1.550	2.099	2.081	2.202	2.240	2.372	49,6	53,0	5,9
	Merkantzia konbentzionala	0,0	0,0	0,1	0,2	0,0	0,4	0,0	—	—
	Beste trafiko mota bat	61	58	53	57	54	53	1,1	-13,1	-1,9

Iturria: Sustapen Ministerioa.

teotako mugimendu-bolumenik txikiena izan du. Murriztapen hori, izatez ere, solteko gaien trafikoak izandako beherakadaren eraginezkoa izan da (batik bat, txatarrak eta produktu siderurgikoak): %15,5. Horrela, solteko gaien trafikoak garrantzia galdu du, trafiko osoari dagokionez; izan ere, hamarkadaren hasieran %60 ingurukoa zen, eta 2008an, berriaz, ez da %50era iristen. Bestalde, itsasontzi kopuruak beherantz joera izan du, 2003tik, eta 2008an 1.320 itsasontzi egon dira.

4.2. Energia**(a) Azpiegitura**

Inportaturiko energiaren transformazioa garrantzi handiko industria da, EAEko jarduera ekonomikoaren barruan, eta horren barruan petrolio-finketaren eta sorkuntza elektrikoaren sektoreak sartzen dira. Azken urteotan gas- eta elektrizitate-azpiegitura berriak sartu dira, eta horrek indartu egin du EAEko energia-erreserba.

Gas-azpiegitura

Petronor findegiak urteko 11 milioi tona gordineko edukiera dauka; Rivavellosako eta Valladolideko CLH biltzeko zentroekin lotuta dago, oliobideen bitartez, baita Bilboko portuarekin ere; neurri handiko petrolio-ontziak lehorrerako instalazioak ditu (billetak eta banaketa-logistikako beste instalazio batzuk ere baditu EAEko beste leku batzuetan). EAEen petrolio gordina eta horren deribatuak biltze- eta gaitasuna, Petronorren eta beste operadoreen artean dutena, 2,9 milioi m³-koa da.

Gas-sektoreak, 2003tik, gas natural urtuko (GNU) inportazio-terminal bat dauka Bilboko portuan (300.000 m³-ko biltze- eta gaitasuna, metanoko 140.000 m³-ko itsasontzietarako kaia, 150.000 m³-ko 2 biltze- eta gaitasuna eta berriro gas bihurtzeko 800.000 Nm³/h-ko ahalmena), baita gasa garraiatzeko eta banatzeko oinarritzko beste terminal bat ere, 3.700 km ingurukoa, Estatuko gas-sistemarekin hegoaldeko eta Europako sarearekin Irunitik lotuta dagoena.

“Gaviota” izeneko antzinako gas-meatokia (Bermeo aurrean) biltze- eta gaitasuna dauka, orain (780 milioi Nm³

gas inguruko bolumen erabilgarria); gaur egun, Estatuko gas naturaleko erreserba estrategikorako sistema nagusia da.

Elektrizitate-azpiegitura

Sektore elektrikoaren elektrizitate-sorkuntzako parke batek eratzen du, eta hori, gaur egun, modernatzen ari dira. Izan ere, Santurtziko antzinako planta termoelektrikoak, apurka-apurka, ixten joango dira (I. eta II. taldeak, fuel-olioa edo gas naturala), baita Pasaia-ko ere (inportazio harriak); halaber, ziklo konbinatuko hiru zentral jarri dira martxan: *Bahía Bizkaia Electricidad* (800 MW), Bilboko portuan (2003an), *Iberdrola* enpresaren zentral termikoa (400 MW) Santurtzin (2004an), eta *Bizkaia Energía* Boroan (Amorebieta-Etxano), 2005ean.

Gainera, produkzioa neurri handiko bi instalazio hidraulikorekin osatzen da (Sobron eta Barazar, bien artean 113 MW-ko gaitasuna), baita 100 instalazio minihidrauliko baino gehiago-ekin (10 MW-tik beherako potentzia, eta denen artean 60 MW inguru) eta 3 instalazio mikrohidrauliko txikirekin ere.

Bestalde, garraio-sarea, zenbait puntutan, Estatuko sarearekin eta Frantziarekin konektaturik dago (220 kV eta 400 kV, eta 486 Km-ko luzera); hori, era berean, azpiegitzaileekin eta transformadoreekin osaturik dago, baita energia elektrikoaren produktorekin banaketa-sarera eramaten duen banaketa-sare batekin ere; horrek, gainera, tentsio ertainean eta baxuan egiten dio hornidura azken kontsumitzaileari, eta Frantziarekin ere trukeak egiten ditu Hernani-Cantegrit (400 kV) eta Arkale-Mouguerre (220 kV) lineen bidez.

Energia-azpiegitura energia berriztagarrien arloan

Eolikoan bost parke ari dira jardunean, eta horietan instalaturiko potentzia osoa 144 MW-koa da (Elgeak 27 MW, Urkila 32 MW eta Baida 49 MW, Araban; eta Oiz 26 MW eta Bilboko portua 10 MW, Bizkaian); gainera, instalazio “minieolikoak” gero eta ugariagoak dira (400 W-tik 45 kW-ra bitartekoak).

Biomasa- eta hondakinen balorazioaren arloan, hondakin-degiko biogaseko sei instalazio ari dira jardunean (BioArtigas Bilbon, BioSanmarkos Donostian, BioGardelegi Gasteizen, Bio-

Sasieta Beasainen, Jata eta Igorre), eta araztegiko lokatzen bat ere bai (Galindo, Sestaon); guztira 8,7 MW dira.

Bilboko Artigaseko hondakindegitik hurbil, 2005ean hiri-hondakinak suspertzeko Zabalgarbiko planta jarri zen abian; ziklo konbinatuko instalazioa da, eta 95 MW-ko potentzia elektrikoa dauka, guztira. Berantevillan, Araban, Bionor-en plantak erabilitako elikadura-olioak suspertzen ditu, biodiesel erregaia egiteko, automoziorako. EAEn, gainera, industria-planta batzuk eta baterako sorkuntzakoak daude; horiek hondakinezko energia aprobetxatzen dute, euren prozesuari energia emateko edo elektrizitatea sortzeko.

Gainera, **baterako sorkuntzako** 90 instalazio inguru daude (gehienak industriakoak), eta horien potentzia osoa 440 MW-koa da; plaka fotovoltaikoen 1.189 instalazio ere badaude, eta horien potentzia osoa 4,9 MWp-koa da, energia elektrikoaren sorkuntzari dagokionez (autokontsumorako edo sare elektriko-ara konektaturik, sistema hornitzeko); era berean, 378 instalazioek **eguzki**-kolektore termikoak dituzte, eta horien azalera osoa 10.669 m²-koa da, bai ur bero sanitarioa sortzeko, bai igerilekuak eta halakoak berotzeko, etxebizitzetan eta zerbitzu-sektoreko instalazioetan.

(c) Energiaren produkzioa eta kontsumoa

Energiaren Euskal Erakundeak argitaraturiko "Energia 2007. Euskadi. Datu energetikoak" txostenak agerian jarri duenez, 2007an energiaren barne-kontsumo gordinak edo eskariak¹ %0,7ko hazkundea izan du, eta 7.773 Ktep-koa² izan da. Bestalde, EAEko oinarritzko energiaren kontsumoak %10,8ko hazkundea izan du, eta 420 Ktep izan dira.

Energiaren produkzio urri horrek EAEko energia-eskariaren %5,4 baino ezin du hornitu (7.773 Ktep). Horrenbestez, EAEk kanpoarekiko duen energia-mendekotasuna %94,6koa da.


Gas naturalak 1996tik 1997ra izandako beherakadaren ostean, gaur egun EAEko oinarritzko energiaren produkzioa, batez ere, energia berriztagarrietan (hemengo produkzioko iturri nagusia) eta energia deribatuetan oinarritzen da. 2006tik 2007ra, lehenengoen %13ko hazkundea izan dute (346 Ktep-etik 391ra), eta bigarrenen %24,1ekoa (29tik 22 Ktep-era).

Oinarritzko produkzio berriztagarritik, biomasa %86 da, hidro-
elektrikoa %7 eta eolikoa %7.

Energiaren azken kontsumoari dagokionez, hori interes handikoa da ingurumenaren ikuspegitik; izan ere, energia mota bakoitzak eragin desberdinak sortzen ditu: horri dagokionez, EAEko energia-eskariaren zatirik handiena petrolioak eta horren deribatuak osatzen dute, %39,5ekin, eta aurreko urtearekiko %3,4ko hazkundea egon da Ktep kopuruan. Petrolioaren atzetik, energia elektrikoak (eskariaren %28,7; eta %1,9ko hazkundea aurreko urtetik) eta gasa daude; azken hori eskari osoaren %22,3ra heldu da, eta %2,2ko hazkundea izan du aurreko urtetik. Horien atzetik, eta oso urrun, honako hauek daude: energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatz eta horren deribatuak) eta energia deribatuak (batik bat, industriako edo energia transformazioko prozesuetan —adibidez, baterako sorkuntza— berreskuraturiko beroa).

Aurten, azken kontsumoak %2,7ko hazkundea izan du, eta 5.746 Ktep izan dira; hazkunde hori, batez ere, garraioko (%7,6; 1.867 Ktep-etik 2.008ra) eta industriako (%2,8; 2.569 Ktep-etik 2.642ra) sektoreek kontsumoan izandako hazkundearen eragi-


1.4.5. Grafikoa. Oinarritzko energiaren produkzioa (Ktep)



Iturria: EVE.

¹ Balantze energetikoetan barne-kontsumo gordinak edo energia-eskaria eta azken kontsumoa bereizten dira. Energia-eskaria edo barne-kontsumo gordinak, funtsean, lurraldean bertan sorturiko oinarritzko energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioa, biltegiratzea, banaketa, ...) arteko balantzea da. Azken kontsumoa, bestalde, azken sektore kontsumitzaileen kontsumoaren batuketa da; hain zuzen ere, industria, garraioa, lehen sektorea, zerbitzuak eta egoitza.

² Ktep-ak: Mila tona baliokide petrolio.

I.4.6. Grafikoa. Energiaren azken kontsumoaren banaketa sektoreka (%)

Iturria: EVE.

I.4.14. LAUKIA. EAE-KO BALANTZE ENERGETIKOA

Ktep	2007						
	Erregai solidoak	Petrolio eta derib.	Gas naturala	Energia deribat.	Energia berriztag.	Energia elektrik.	GUZTIRA
Oinarritzko energiaren sorkuntza	0	7	0	22	391	0	420
Barne-konts. garbi erabilgarria	456	3.159	3.047	22	400	689	7.773
Transformazio-sarrerak	417	9.715	1.687	34	55	0	11.908
Transformazio-irteerak	83	9.460	0	203	0	1.025	10.771
Energiaren azken konts.	122	2.272	1.279	137	286	1.650	5.746
Industria	122	103	971	125	231	1.091	2.643
Garraioa	0	1.966	0	0	24	18	2.008
Nekazaritza eta arrantza	0	87	0	5	0	4	96
Zerbitzuak	0	31	90	7	1	293	422
Egoitza	0	85	218	0	30	244	577

Ktep	2006-07ko aldaketa						
	Erregai solidoak	Petrolio eta derib.	Gas naturala	Energia deribat.	Energia berriztag.	Energia elektrik.	GUZTIRA
Oinarritzko energiaren sorkuntza	—	75,0	—	-24,1	13,3	—	11,1
Barne-konts. garbi erabilgarria	-0,9	-0,1	-4,5	-24,1	19,0	27,8	0,7
Transformazio-sarrerak	14,2	-0,1	-11,3	-8,1	66,7	—	-1,3
Transformazio-irteerak	27,7	0,8	—	1,0	-100,0	-10,4	-0,3
Energiaren azken konts.	-23,8	3,4	2,2	2,2	18,2	1,9	2,5
Industria	-23,8	106,0	1,0	0,8	12,7	2,1	2,9
Garraioa	—	6,7	—	—	301,7	-4,7	7,6
Nekazaritza eta arrantza	—	-48,2	—	66,7	—	0,0	-45,1
Zerbitzuak	—	-20,5	3,4	0,0	0,0	2,4	0,5
Egoitza	—	-13,3	7,4	—	0,0	0,8	0,7

Iturria: EVE.

I.4.15. LAUKIA. TRANSFORMAZIO IRTEERAK EAE-N, ZENTRAL MOTAREN ARABERA

	Ktep				2007ko % bertikala	Aldaket. %	
	2004	2005	2006	2007		2004-07	2006-07
Guztira	10.774	10.448	10.798	10.772	10.772	0,0	-0,2
Findegiak	9.756	9.045	9.395	9.460	87,8	-3,0	0,7
Zentral termoelektrikoak	514	911	951	824	7,6	60,3	-13,4
Baterako sorkuntza	384	378	361	377	3,5	-1,8	4,4
Koke-produkzioarako instal.	117	104	88	111	1,0	-5,1	26,1
Sorkuntza termoelektriko berriztagarria (eguzkikoa)	3	10	3	—	—	—	—

Iturria : EVE.

nezkua da. Horiexek dira, hain zuzen ere, kontsumoan eraginik handiena dutenak: lehenengoa kontsumo osoaren %46 da, eta bigarrena %34,9. Zerbitzu- eta egoitza-sektoreetan kontsumoak, hurrenez hurren, %1,2ko eta %1,4ko hazkundea izan du. Lehen sektorean, aldiz, %44,5eko murriztapena izan du (175 Ktep-etik 97ra).

EAEko energia-produkzio osoak (transformazioko irteerak) %0,2ko murriztapena izan du 2007an, zentral termoelektrikoetako jarduera murriztearen (%-13,4) eta energia termoelektrikorik (eguzki-energia termikoa) ez sortzearen eraginez.

Azkenik, energia-intentsitatearen azterketak (intentsitate hori BPGren unitateko azken kontsumotzat neurtuta) agerian jarri duenez, 2007an hori 1997koaren %95 da, eta, aurreko urteari dagokionez, puntu bateko hobekuntza izan du, BPGk energiaren azken kontsumoak baino hazkunde handiagoa izan baitu.

Sektoreka bananduta ikusten denez, EVEren datuak aintzat hartuta, industriako energia-intentsitateak, 2007an, 1997ko balioaren %90 izan du, eta 2006ari dagokionez egonkor

mantendu da. Aldiz, garraioan, energia-intentsitateak %6,6ko hazkundea izan du 1997koari dagokionez, eta %3,9koa aurreko urtekoari dagokionez; zerbitzu-sektorean intentsitatea 3,2 puntu handiagoa da, aurreko urtekoa baino; hala ere, oraindik 1997koa baino %11,9 handiagoa da.


4.3. Telekomunikazioak

(a) Azpiegitura

Telekomunikazio-azpiegituren Informazioaren Gizartea euskarritzen duten zerbitzuen oinarria osatzen dute; horrela, hiritarrei Sareko testuko, irudiko edo soinuko zerbitzuak eskuratzeko aukera ematen die.

Informazioa eta horren tratamenduari, azterketari eta transmisioari lotutako teknologiak berebiziko baliabide estrategikoak dira edozein gizartetako ekonomia, gizartea eta kultura garatzeko. Herri batek Informazioaren eta Jakintzaren oraingo aroan duen posizioa bere azpiegituren araberkoa izango da, ez bakarrik kapital fisikoari lotutako azpiegituren araberkoa.

I.4.7. Grafikoa. Intentsitate energetikoaren bilakaera



Iturria : EVE.

baita inguru berri honetara egokitzeko duen giza kapitaleko azpiegituren araberakoa ere.

Beraz, informazioa aztertze eta helarazteko azpiegiturak telekomunikazioko mota guztiak hartu behar ditu barruan (adibidez, gaitasun handiko telefono-lineak, kablea, satelitea, ordenagailuen azpiegiturak, Internet), eta gizarte-azpiegitura ere izan behar du, informazioa askatasunez jariatzeko aukera ematen duen gizartea.

Horrela, arlo honetan egindako inbertsioak ezinbestekoak dira garapenerako, gainerako jardueren ekonomikoaren garapen lehiakorra euren mendekoa baita. Horrenbestez, telekomunikazioen sektorea balio erantsi handiko industriadatzen eratu ari da (zerbitzuen operadoreak eta kudeatzaileak, ekipamenduko ondasunen enpresa fabrikatzaileak/hornitzaileak...); halaber, enplegua eta aberastasuna sortzen ditu.

Telekomunikazioen maparen eraketa konplexua da, zerbitzu berrien eskaintza etengabea delako; horren eragileak honako hauek dira: teknologia-aurrerakuntza etengabeak, baldintza berrietara egokitu eta, sarritan, nekez zehazteko moduko produktuak nahiz zerbitzuak arautu nahi dituzten lege-gintza-aldaketak, eta arlo hauetan ikusten diren enpresa-mugimendu etengabeak.

Azken urte hauetan zerbitzu tradizionalen geraldia egon da, eta telefonia mugikorrari lotutako zerbitzuek goraldia izan dute; halaber, banda zabalaren eskariak ere gora egin du. Izan ere, telekomunikazioen merkatuak azken urteotan izandako protagonista nagusia banda zabala da (batez ere, ADSLaren garapenaren bidez).

Garapen handia izan duten beste berritasun batzuk Operadore Mugikorraren Birtualak-OMB dira (telefonia-zerbitzua euren sarearen bidez eskaintzeko maiztasun-espektrorik ez duten enpresak, telefonia mugikorreko zerbitzuek euren markaren bidez berriro saltzen dituztenak, zerbitzu mugikorreko beste operadore baten sarearen bidez), baita Interneten bidezko telefonia ere, IP, VoIP, VoIP deritzenen (ingeleseko siglak) gainera. Aholtsa izena ere hartzen duena; IP telefonia ere esaten zaio, eta aholtsa Interneten bidez igortzeko aukera ematen du (erabiltzaileek datu-sare batera konektaturiko ordenagailuen bidez egiten dituzte deiak).

EAEn ahalegina egiten ari gara telekomunikazio-azpiegituren gaitasuna garatzeko eta sare osoa eta eraginkorra bermatzeko, bai enpresentzat, ikerketa-zentroentzat eta herri-administrazioentzat, bai erabiltzaile partikularrentzat. Azpiegitura horiek telefonia-sare tradizionalak, mikrouhindunak eta banda zabalekoak osatzen dituzte, eta horiek zerbitzuak eskaintzen dizkiete Euskadin finkaturiko telekomunikazio-enpresei.

EAEko Herri Administrazioak Euskadi Informazioaren Gizartea garatzeko planteaturiko ekintzen artean, aipagarria da *"Euskadi Informazioaren Gizartean Plana. Euskadiko Agenda Digitala 2010 (EIGP 2010)"*; horrek zazpi ekimen planteatzen ditu: Hiritartasun aktiboa, Enpresa ekintzailea, Zerbitzu Publiko Digital aurreratuak, Euskadi sarean, Azpiegiturak, Erakundearen Agenda Digitalak eta Ezarkuntza, Jarraipena eta Ebaluazioa. Horri buruzko informazio gehiago lortzeko, I+G+B jardueri eta IKTei buruzko kapituluak irakur daitezke.

(b) Bilakaera

Informazioaren Gizarteari buruzko adierazleak aztertuta ondorioztatzen denez (Europako Berrikuntza Indizeko datuak,

hain zuzen ere, banda zabalak enpresetan duen ezarkuntza-tasa eta IKTetan egindako gastua):

- EAEko enpresen %87k banda zabala dute, eta, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoa EB-27ko batez bestekotik gora (%77) eta Estatuko batez bestekotik behera (%90) dago, ezarkuntza-tasa horretan. Horrela, EAE zazpigarren postuan dago herrien sailkapenean, Islandiaren, Finlandiaren, Espainiaren, Frantziaren, Maltaren eta Suediaren atzetik.
- IKTetan egindako gastu txikiari dagokionez, EAE bederatzigarren postuan dago, eta gure atzetik Errumania, Bulgaria, Portugal, Lituania, Italia, Irlanda, Espainia eta Grezia baino ez daude.

INEk emandako datuen arabera, Estatuan Interneteko konexioa duten enpresen %97,1ek banda zabaleko soluzioaren bat dute, eta soluziorik erabiliena XDSL deritzona da (ADSL, SDSL...), Internetera konektatzen diren enpresa guztien %94,4k horixe

I.4.16. LAUKIA. BANDA ZABALAREN SARTZE TASA ETA GASTUA IKTETAN

Posizioa tokiko sailkapenean		Banda zabala duten enpresen %, 2008	Gastua IKTetan, 2008
	Suitza	85	3,7
1	Suedia	87	3,8
2	Finlandia	91	3,2
3	Alemania	80	2,9
4	Danimarka	80	3,2
5	Erresuma B.	78	3,5
6	Austria	72	2,8
7	Irlanda	68	1,5
8	Luxenburgo	81	—
9	Belgika	86	2,8
10	Frantzia	89	3,1
11	EAE	87	2,1
12	Herbehereak	87	3,3
	EB-27	77	2,7
13	Zipre	69	—
	Islandia	95	—
14	Estonia	78	2,9
15	Eslovenia	79	2,2
16	Txekiar E.	77	3,2
	Norvegia	85	2,4
17	Espainia	90	1,4
18	Portugal	76	1,8
19	Grezia	72	1,2
20	Italia	76	1,7
21	Malta	89	—
22	Hungaria	70	2,5
23	Eslovakia	76	2,5
24	Polonia	53	2,6
25	Lituania	53	1,8
	Kroazia	—	—
26	Errumania	37	2,1
27	Letonia	57	2,3
28	Bulgaria	61	2,0
	Turkia	80	—

Fuente: EUSTAT, Índice Europeo de Innovación 2008.

1.4.17. LAUKIA. IKT EKIPAMENDUAK DITUZTEN ETXEBIZITZEN % (16tik 74ra bitarteko kide bat, gutxienez)

	2005 (2. bolada)		2006 (bolada)		2007	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Ordenagailua	56,4	61,0	58,4	60,6	60,4	63,6
Interneteko konexioa	37,0	43,2	41,1	45,7	44,6	50,0
Banda zabaleko konexioa (ADSL, kableko sarea, etab.)	24,5	24,2	32,6	33,1	39,2	40,0
Telefono finkoa	84,0	92,1	82,8	92,4	81,2	91,2
Sakelako telefonoa	86,4	90,3	89,1	89,8	90,9	91,9

Iturria: INE.

erabiltzen baitute; konexio finkoen kasuan (adibidez, kablea), berriz, ehunekoa %81ekoa da. EAEen konexioen erabileraren ehunekoa %93,4 da, eta Estatuko batez bestekotik behera dago, baita AAE gehienaren ehunekotik behera ere.

EUROSTATek emandako datuek diotenez, 2008an, EB-27an banda zabalaren bidezko konexioa zuten enpresen ehunekoa %81ekoa zen (2007an %77). Espainiako estatuan ehunekoa, iturri horrexek diotenez, %92koa da (2007an %90ekoa).

INEren datuen arabera, banda zabalak EAEko etxebizitzetan duen ezarkuntza (2007an %40) Estatuko batez bestekotik gorakoa da (%39,2), baina autonomia erkidego askoren ehunekotik beherakoa: Madrilak %51,7; Melillak %47,7; Ceutak %46,2;

Kataluniak %46; Balearrak %44,8; Kanariak %42,5; Kantabriak %41,9; eta Nafarroak %40,1.

EUROSTATen datuek diotenez, 2008an banda zabalaren bidezko konexioa zuten etxeen ehunekoa %48koa zen EB-27an (2007an %42 eta 2006an %30). Espainiako estatuan ehunekoa, iturri horren arabera, %45ekoa da (2007an %39 eta 2006an %29). Ratorik altuenak honako estatu hauetan daude: Holandan %74, Danimarkan %74, Suedian %71, Finlandian %66, Erresuma Batuan %62 eta Luxenburgon %61.

Banda zabaleko konexioen estaldura horrek Herri Administrazioen kezka eragin du, besteak beste, Europar Batasunaren kezka; izan ere, azken horrek estrategia bat abiatu du, Interneteko

1.4.18. LAUKIA. IKT-AK ENPRESETAN ERABILTZEAREN ALDAGAIK (2007ko eta 2008ko urtarrila), ALDAGAIEN ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Tokiko Sarea (LAN)		Tokiko Sarea 'hari barik		IKT funtzio espezif. dituzten langileak		Interneteko konexioa											
							Modema		RDSI		Banda zabala		XDSL (ADSL, SDSL,...)		B. konexio finko batzuk (Kablea, LMDS,...)		Telefonia mugikorra (GSM, GPRS, UMTS,...)	
	07	08	07	08	07	08	07	08	07	08	07	08	07	08	07	08	07	08
Estatua	70,9	78,5	19,3	29,2	12,1	23,7	16,9	9,6	19,3	15,1	95,2	97,1	92,4	94,4	7,6	8,1	24,7	29,4
Andaluzia	66,2	76,9	16,3	27	7,4	24,5	16,2	10,5	18,4	14,4	96,1	96,6	94	94,3	6,1	6	18,9	26,3
Aragoi	69,6	76,6	17	27,8	11,4	22,5	19,8	6,5	20,3	16,2	94	95,9	90,7	94,7	8,30	4,6	20,2	25,4
Asturias	67,4	77,6	19,3	29,8	12,2	23,3	9,6	6,4	15,7	11,6	98,2	98	89,2	92,2	15,3	12,9	17,7	29,1
Balearrak	63,8	77,1	18,1	24,5	6,4	18,8	18,7	9,2	18,5	11,3	98	97	95,9	96	5,1	4,9	18,5	22,8
Kanariak	67,9	75,9	17,6	23,2	11,5	23	17,7	10	17,7	12,9	95	98,6	93,8	97,8	5,3	4,8	18,6	25,7
Kantabria	63,4	64,6	16,5	26,3	8,2	20,2	20,7	9,1	15,9	17,9	93,9	94,3	90,4	89,1	5,9	8,8	21,1	20,5
Gaztela eta Leon	64,9	75,6	13,2	24,2	8,8	20,8	17,1	10,7	20,9	17	91,6	96,5	88,9	93,7	6,8	5,6	19,8	24
Gaztela-Mantxa	60	64,5	17,1	24,6	6,7	15,6	21	9,5	19	15,6	92,7	96	89	93,7	6,7	5,2	17,3	26,8
Katalunia	77,4	85	21,8	32,1	15	24,1	16,1	8,6	18,9	13,9	95,8	98,6	93,4	96,8	6,7	6,8	32,9	33,9
Valentziako E.	70,5	74,4	16,1	25,2	12,4	20,4	15,3	7,6	15,6	15,8	97	97,8	94,8	93,2	6,1	8,7	27,6	27,3
Extremadura	55,5	69,1	15,5	25	5,9	17,8	26,1	15,9	16,2	14,6	93,9	95,5	93,6	95,2	2	2,4	17,2	24,9
Galizia	66,8	76,6	19,1	29,7	8,4	21,2	18,2	10,8	23,5	14,2	91,6	93,7	87,3	87,1	10,6	14	21,4	27,7
Madril	80,9	83,6	27	37,4	20,1	31,2	16	11,7	20	17,1	97,8	97,8	94,2	95,3	11,9	13,5	29,2	36
Murtzia	63,8	71,5	18,6	29,1	9,1	21,2	18,5	10,2	24,1	14	87,4	94,8	84,2	92,4	6,1	5,7	21	23
Nafarroa	71,6	83,9	16	26	8	26,1	20	8,8	26,5	19,5	91,9	97,8	89,3	94,8	7,2	8,1	20,9	33,6
EAE	67,7	82,5	18	28,7	12,3	25,1	17,1	8,6	20,6	15,3	93,1	96,7	89,1	93,4	8,1	8,1	21,4	31,8
Errioxa	65,8	72,5	14,6	25,2	7	16,6	16,3	7,3	26,3	18,2	93,7	93	91,4	92	6,1	4,3	20,7	18,4
Ceuta eta Melilla	83,1	70,3	17,4	16,7	3	12,4	22,6	8,5	34,8	12,8	99,8	96,3	96,7	96,3	4,4	3,3	16,7	21,5

Iturria: INE.

banda zabaleko konexioek lurralde komunean %100eko estaldura izateko, eta etxeetako ezarkuntza-tasa %50ekoa izateko 2010ean; horretarako, baliabide komunitarioak mugiaraziko ditu, adibidez, egiturazko eta landa-garapeneko funtsak, landa-eskualdeen eta eskualde pobreen lubaki teknologikoa murrizteko. Bestalde, OCDEk adierazitakoaren arabera, sareetan, softwarean eta hardwarean egindako hobekuntza teknologiko

etengabeei esker (zerbitzu mugikorak eta hari gabeak barne, baita edukiak babesteko sistemak ere), eduki digital berriak garatu ahal izan dira; dena den, etorkizuneko erronka eduki-garatzailleen, erreminta-produktoreen eta banatzaileen arteko lankidetzaren lortzea da. Horrenbestez, elkarrekiko eragingarritasuna eta bateragarritasuna soluzio azkarra behar duten arazoak dira.



02.

EKONOMIA EAEñ



1. KANPOKO INGURU EKONOMIKOA

1.1. Faktore ekonomiko nagusiak

Munduko ekonomiak hogeita hamarreko hamarkadatik honako finantza-shock handiena jasan du. Izan ere, 2007ko abuztuan, Amerikako Estatu Batuetako arrisku handiko hipoteken merkata geldiarazi ondoren, hasitako finantza-krisia asaldura-fasean sartu zen 2008ko irailean, eta horrek kalte egin zion munduko finantza-merkatuen eta erakundeen konfiantzari.

Kaudimenik ezaren ondoriozko kezka gero eta handiagoak elkarren atzeko porrotak, derrigorrezko bat-egiteak eta esku-hartzeko publikoak eragin zituen Amerikako Estatu Batuetan eta mendebaldeko Europan, eta horrek guztiz aldatu du finantza-panorama. Gainera, banku arteko merkatuak ia geldiarazi egin ziren, konfiantza galtzearen ondorioz.

AEBetan, abuztutik aurrera, enpresa erdi publiko erraldoi biek (Fannie Mae eta Freddie Mac)¹ presio handiak jasan zituzten, euren kapitalizazio-oinarriekiko beldurren eraginez, galerak gero eta handiagoak baitziren. Gobernuak etxebizitza finantzatzeko erakunde federalaren zaintzapean jarri zituen bi erakundeok, eta, gainera, euren kapitalizazio eta finantzazio egokia mantentzeko behar zen finantza-laguntza eman zuen.

Ahalegin horiek egin arren, munduko finantza-merkatuak astinduta gelditu ziren irailaren erdialdean, Amerikako Lehman Brothers inbertsio-bankuak porrot egin zuenean. Hurrengo egunetan, merkatuaren presioaren ondorioz, beste inbertsio-banku batek (Merrill Lynch & Co.) bat egin behar izan zuen merkataritza-banku garrantzitsu batekin, eta Erreserba Federalak munduko aseguru-enpresarik handiena eskuratu zuen (American International Group, AIG), ordenarik gabeko porrota ekiditeko. Konfiantza hautsi eta banku arteko merkatuak geldiarazi egin ziren, likidezia-injekzioak egin arren. Gero, Amerikako Estatu Batuetako beste banku batzuk eta Europako zenbait banku itxi egin ziren, nazionalizatu egin ziren edo bat egin zuten, Estatuaren babesarekin.

Apurka-apurka, finantza-arazoen eragina ekonomia errealeira iritsi zen. Transmisio-bide nagusienetarikoa bat bankuen kreditu-baldintzak murriztea izan zen, bai AEBetan eta bai Europan. Bankuak despalankatzen² saiatu ziren, merkatuak balantzeen arrisku txikiagoa onartzen zuelako, bankuetako kapitala gero eta garestiagoa zelako, eta finantziario handi gutxiago eskuratzen zelako.

Bankuek konfiantza galdu ahala, utzi egin zitoten elkarri maileruak emateari; horrela, bankuen kapitalizazio ezaren ondorioz, finantzazkoak ez ziren enpresentzako eta familientzako kredituak ere moteltzen hasi ziren.

Finantza-sistema desblokeatzeko, Amerikako Estatu Batuetako eta Europako agintariek irismen handiko neurriak iragarri zituzten urrian, funtsezko erakundeei babesa emateko, merkatuak

egonkortzeko eta konfiantza indartzeko; hala ere, urte amaieran egoera ez-egonkorra eta ziurgabetasunez bete izan zen. Amerikako Estatu Batuetan, legeriaren bitartez, 700.000 milioi dolarreko erreskate-plana sortu zen, bankuei hipoteka-titulu arazotsuak erosteko eta, horrela, arriskuari eutsi ahal izateko, aktibo horien arteko balorazio gardenagoa sustatzeko eta likidezia handitzeko. Aldi berean, gordailuen bermeak handitu egin ziren.

Bestalde, urriaren 12an, euroaren zonan orduan zeuden 15 estatu-tako agintariek, erreskate-plan britainiarrean oinarrituz, beharrezko neurri guztiak hartzea erabaki zuten, finantza-erakundeek likidezia segurtatzeko eta horiei kapital-baliabide gehigarriak emateko, eta, horrela, ekonomiaren funtzionamendu egokia segurtatu ahal izateko. Hiru erabaki nagusiak honako hauek izan ziren: egoera txarrean zeuden bankuei likidezia ematea, aktiboak erosita (Espainiak 50.000 milioiko funtsa eman zuen horretarako); arazoak zituzten erakundeak berriro kapitalizatzea, bertako akzioak erosita (Espainiako gobernuak ez zuen neurri hori aplikatu nahi izan); eta bankuen zor berria bermatzea, 2009ko abenduaren 31ra arte, enpresentzako maileguak eta finantza-jardueraren funtzionamendua errazteko.

Hala eta guztiz ere, NMFren arabera, orain arte hartu diren politika-neurri anitzak eta, sarritan, ez-konbentzionalak ez dira guztiz eraginkorrak izan, finantza-merkatuak egonkortzeko eta produkzioaren beherakada geldiarazteko orduan.

Mundu osoko ekonomiek finantza-krisiaren eta jarduera moteltearen eragina jasan dute. Munduko BPGren hazkundea, eskuratzeko ahalaren parekotasunaren arabera haztatuta, Nazioarteko Moneta Funttsak (NMF) egindako zenbatespenak aintzat hartuz, ehuneko 2 puntuko murriztapena izan zuen, aurreko urtean izandako hazkundeari zegokionez: %+3,2 eta %+5,2, hurrenez hurren.

Ekonomia aurreratuen BPG erreala, 2008ko laugarren hiru hileroan, aurrekorik gabeko zifra batean murriztu zen, %7,5ean. AEBetako ekonomiak agian beste ekonomia batzuek baino neurri handiagoan jasan ditu finantza-tirabira gero eta handiagoen ondorioak eta etxebizitza-sektorearen hozte iraunkorra; hala eta guztiz ere, mendebaldeko Europak eta Asiako ekonomia aurreratuek ere gogor jasan dute munduko merkataritzaren kolapsoa, baita euren finantza-arazoen larriagotzea eta higiezinaren sektoreak merkatu nazional batzuetan izandako zuzenketek ere.

Oro har, ekonomia aurreratuek %0,9ko hazkunde urria izan dute, aurreko urtean %2,7ko hazkundea izan ondoren; bertan, AEBetako BPGk bederatzi hamarrenetan urritu du bere hazkundea (%1,1 eta lehen %2); euroaren zonan %0,9ko hazkundea egon da, aurreko urtean baino 1,8 puntu gutxiago, eta Japonian %0,6ko murriztapena egon da. Oraituak industrializaturiko Asiako lau herrietan (Korea, txinako Taiwan probintzia,

¹ Amerikako Estatu Batuetako hipoteken %50 erabiltzen edo bermatzen dituzte, eta hipoteka-kreditu berriaren %80rako abala eman zuten. Gainera, euren tituluak munduko finantza-sisteman oso hedatuta dauden inbertsioak adierazten dituzte, eta kontu korronteko defizitaren kanpoko finantziariorako bide nagusienetarikoa izan ziren, Amerikako Estatu Batuetan.

² Kredituak ematean murriztapenak handiagoak.

Singapur eta Hong Kongeko EAB) hazkundea %1,5ekoa izan zen, aurreko urtean %5,7koa izan ondoren. Merkatu sorberrien ekonomiek ere arazo larriak izan zituzten, eta, zifra agregatuetan, laugarren hiruilekoan %4ko murriztapena izan zuten. Kaltea finantza- eta merkataritza-bideetatik iritsi zen, batez ere ekialdeko Asiako herrietan, horiek manu-fakturen esportazioarekiko mendekotasun handia baitute, baita Europako eta Estatu Independenteen Erkidegoko (EIE)

ekonomia sorberrietan ere, horien hazkundea kapital-sarrera handien mende egon baita orain arte.

Oro har, BPG erreala %6,1 inguruko tasa batera hazi zen (aurreko urtean baino 2,2 puntu gutxiago). txina eta India %9 eta %7,3 hazi ziren, hurrenez hurren.

Munduko jardueraren hozte azkarrarekin batera, inflazio-presioak arin barreiatu ziren. Lehengaien prezioek atzerakada nabaria izan zuten, urteko erdialdean izandako gehienekoei

II.1.1. LAUKIA. ALDAGAI MAKROEKONOMIKO NAGUSIAK

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
BPG (Urteko ehuneko aldaketa)									
Mundua	4,7	2,2	2,8	3,6	4,9	4,4	5	5,2	3,2
Ekonomia aurreratuak	3,9	1,2	1,6	1,9	3,2	2,6	3	2,7	0,9
AEB	3,7	0,8	1,6	2,5	3,6	3,1	2,9	2,0	1,1
Japonia	2,9	0,2	0,3	1,4	2,7	1,9	2,4	2,4	-0,6
Euroaren zona	3,8	1,9	0,9	0,8	2,1	1,6	2,8	2,7	0,9
B. ekonomia aurreratu batzuk (goikoak ere barne)	5,2	1,7	3,2	2,5	4,1	3,2	3,8	4,7	1,6
Ekonomia sorberriak eta garatzeko bidean daudenak	5,9	3,8	4,7	6,2	7,5	7,1	7,8	8,3	6,1
Afrika	3,5	4,9	6,1	5,3	6,5	5,7	5,9	6,2	5,2
Amerika	4,1	0,7	0,4	2,1	6,2	4,6	5,5	5,7	4,2
Estatu Independenteen Erkidegoa (Mongolia ere barne)	9,1	6,1	5,2	7,8	8,2	6,5	8,2	8,6	5,5
Erdialdeko eta Ekialdeko Europa	4,9	0,4	4,2	4,8	6,9	6,1	6,6	5,4	2,9
Ekialde Ertaina	5,4	3	3,9	6,9	5,9	5,7	5,8	6,3	5,9
Asian garatzeko bidean dauden herriak	6,9	5,8	6,9	8,1	8,6	9	9,6	10,6	9,0
txina	8,4	8,3	9,1	10	10,1	10,4	11,1	13,0	9,0
India	5,4	3,9	4,6	6,9	7,9	9,1	9,7	9,3	7,3
Ondasunen eta zerbitzuen mundu-merkataritza (ondasunen eta zerbitzuen munduko esportazioen eta inportazioen urteko % aldaketaren batez bestekoa)	12,2	0,3	3,5	5,4	10,7	7,6	9,2	7,2	3,3
Langabezia-tasa (%)									
Ekonomia aurreratuak	—	—	—	—	—	—	5,7	5,4	5,8
Prezioak kontsumitzaileari (urteko ehuneko aldaketa)									
Ekonomia aurreratuak	2,2	2,1	1,5	1,8	2	2,3	2,4	2,2	3,4
Ekonomia sorberriak eta garatzeko bidean daudenak	8,5	7,6	6,7	6,6	5,9	5,7	5,4	6,4	9,3
North Sea Brent petrolioaren prezioa (\$/upel, urteko b.b.)	28,5	24,4	24,9	28,8	38,2	54,5	65,2	72,5	97,2
Erregaiak ez diren oinarritzko produktuen prezioak 5-tan (2000 = 100 oinarria)	100	—	—	—	128,3	134	170,8	202,3	227,4
Metalak 5-tan (2000 = 100 oinarria)	100	—	—	—	130,7	152,1	246,4	278,4	245,5
Esku hartzeko interes-tasa (aldiaren amaieran)									
EMB	4,75	3,25	2,75	2	2	2,25	3,5	4	2,5
AEB - fondo federalen tasa objektiboa	6,5	1,75	1,25	1	2,25	4,25	5,25	4,25	0,25
Japonia - call Money (2)	0,25	0	0	0	0	0	0,25	0,5	0,1
Euroaren kanbio-tasa (euroko moneta -unitateak)									
Dolarra	0,924	0,896	0,945	1,131	1,243	1,245	1,256	1,371	1,471
Libera esterlina	0,609	0,622	0,629	0,692	0,679	0,684	0,682	0,685	0,797
Yen japoniarra	99,53	108,73	118,07	130,97	134,4	136,87	146,06	161,23	152,331
Burtsa: kotizazio-indizea (urteko ehuneko aldaketa)									
Dow Jones (New York)	2	-5,1	-9,5	-1,8	14,5	2	9	15	-15
Nikkei	-0,5	-29,1	-16	-7,7	20,9	12,1	29,3	4,4	-28,9
Eurotoxx	27,9	-20,2	-23,1	-17,7	18,2	17,4	22,3	16,1	-26
Ibex 35	6,8	-18,1	-20,2	-4,5	21,9	20,8	24,7	20,7	-21,2

(1) Ekonomia aurreratuak (30 estatu): AEB, Kanada, Japonia, Euroaren zona, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, Asiako ekonomiak (oraintsu industrializatuta), Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Oraintsu industrializaturiko Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur.

(2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes-tasa.

Iturria: NMF "Munduko ekonomiaren aurreikuspenak" (2008ko apirila), Ekonomia Ministerioa eta EBZ.

zegokienez, eta, horren ondorioz, Ekialde Ertaineko EIEko ekonomietako diru-sarrerek galera handia izan zuten, baita Amerika Latinoan eta Afrikan produktu horiek esportatzen zizuten beste estatu batzuetan ere.

Brent upelaren batez besteko prezioa 133,39\$-koa izan zen uztaillean. Harrezkero, hileko batez besteko prezioak murrizten hasi ziren, eta finantza-merkatuetako turbulenziek nabarmendu egin zuten beheranzko joera hori; horrela, 2008ko amaieran, prezioak upeleko 40,26\$-koak izan ziren. Horrela, urteko batez besteko prezioa upeleko 87,25\$-koa izan zen.

Testuinguru sozioekonomiko honen eraginez, banku zentral nagusiek moneta-politika hedakorrak aplikatu zituzten, eta, horrela, interes-tasa ofizialak zerotik gero eta hurbilago daude.

2008an, Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalak bost aldiz aldatu zuen beherantz esku-hartze tasa. Horrela, 2007ko abenduan erreferentziako interes-tasa %4,25koa zen; 2008ko urtarrilean %3ra murriztu zen, martxoan %2,25era, apirilean %2ra, urrian %1era, eta urtea %0,25arekin amaitu zuen (2007ko abendukoa baino 4 puntu gutxiago).

Europako Banku Zentralak bitan igo zuen egun baterako esku-hartze tasa, 2007ko ekainean finkaturiko %4tik 2008ko uztailera %4,25era. Hala eta guztiz ere, 2008ko urritik abendura murriztapenak egin zituen, guztira oinarritzko 1,75 puntukoak: urrian 0,5, azaroan 0,5 eta abenduan puntu 1. Horrela, erreferentziako interes-tasa %2,5koa izan zen urte amaieran, urtarrilean izandakoa baino 1,5 puntu txikiagoa.

Japoniako Bankuak bitan murriztu zuen bere esku-hartze tasa (urrian eta abenduan), bakoitzean 2 puntutan. Horrela, erreferentziako interes-tasa (*call money*) %0,1koa izan zen urte amaieran, urtarrilean izandakoa (%0,5) baino 4 hamarren txikiagoa.

Moneta-merkatuko interes-tasek, bestalde, hasieran gora egin zuten epe guztietan, eta, gero, irailetik urrira, beherantz hasi ziren. Horrela, hilabeterako euriborrak urtea %4,2an hasi eta %2,99an amaitu zuen; hiru hileraiko euriborra urtarrilean %4,88koa izan zen, eta abenduan %3,29; eta urtebeterako euriborrak urtarrila %4,5ekin hasi eta abendua %3,45ekin amaitu zuen.

Azkenik, finantza-tirabirek kanbio- eta burtsa-merkatuetan ere eragina izan zuten.

Dibisen merkatuan, AEBetako dolarren kanbio-tasa errealek balioa galdu zuen, eta, hortaz, euroaren balioak gora egin zuen. Hain zuzen ere, Europako dibisak balioa irabazi zuen, dolarri eta libera esterlinari zegokienez, eta, yenarekiko, ordea, balioa galdu zuen.

Burtsa-merkatuei dagokienez, 2007ko abuztutik 2008ko azken bi asteetara bitarteko aldia mundu guztiko finantza-merkatuen historia osoko aldirik negatibo, konplexu eta garrantzitsuenetakoa izan zen. Adierazle batzuek euren historia osoko galerarik larrienak adierazi dituzte, eta galera horiek Depresio Handian eta petrolioaren 1974ko krisian izandakoekin baino ezin dira konparatu.

IBEX 35 deritzonak %40ko murriztapena izan zuen 2008an; bere historia osoko urteko erregistrorik txarrena eta Espainiako

burtsak azken 135 urteetan (adierazle orokorrak ordutik hona) izandako erregistrorik txarrena izan zuen. Urtea %39,4ko murriztapenarekin itxi zuen (15.182,3 puntuetatik 9.195,8 puntuetara). Urteko batez besteko murriztapena %21,2koa izan zen (14.894,23 puntuetatik 11.742,69 puntuetara).

Europako *Euro Stoxx* indizeak %26ko murriztapena izan zuen (418,9 puntutik 309,80 puntura), aurreko urtean %16,1eko hazkundera izan ondoren. New Yorkeko burtsako *Dow-Jones* indizeak urteko %15eko batez besteko murriztapena izan zuen, aurreko urtean %15eko hazkundera izan ondoren; eta Tokioko burtsako Nikkei indizeak %28,9ko murriztapena izan zuen (aurreko urtean %4,4ko hazkundera).

1.2. BILAKAERA EKONOMIKOA ARLOKA

NMFren eta Europako Banku Zentralaren (EBZ) datuen arabera, munduko ekonomiak 2008an arloka izandako bilakaera hau da.

Amerikako Estatu Batuak. Bertako ekonomiaren erritmoak moteltze handia izan zuen 2008an. Laugarren hiru hilabekoan BPGk %6,3ko murriztapena izan zuen. Horrenbestez, urteko batez besteko hazkundera %1,1koa izan zen, aurreko urtean %2koa izan ondoren.

Kontsumo pribatuak kontsumitzaileen konfiantza galtzearen eta lan-merkatuko egoeraren eragin negatiboa jasan zuen; gainera, familien aberastasuna murriztu egin zen, etxebizitzaren prezioa eta burtsa-kotizazioak erortzearen ondorioz. Halaber, enpresa-inbertsioa ahuldu egin zen, enpresen irabaziaz murriztearen, maileguak emateko irizpideak gogortzearen eta eskariaren itxaropenak narriatzearen eraginez.

KPlren urte batetik besterako batez besteko aldaketa-tasa %3,8koa izan zen 2008an, aurreko urtean %2,9koa izan ondoren. Hala ere, urte amaierarantz, tasa horrek erortze handia izan zuen, eta abenduan %0,1ean gelditu zen.

Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federaletako Merkatu Irekiko Batzordeak murriztu egin zuen 2008ko hasieran fondo federaletarako helburutzat finkaturiko %4,25eko interes-tasa, eta urte amaieran %0-0,25 bitartekoa izan zen.

Kanpoko merkataritzaren ondorio positiboa desagertu egin zen urte amaieran. Kontu korronteko defizita 2007ko BPGren %5,3tik %5era murriztu zen, 2008ko lehenengo hiru hilabeteetan; hala ere, petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioak aldiko zatirik handienean izandako igoerak mugatu egin zuen, neurri batean, hobekuntza hori.

Zerga-politikari dagokionez, aurrekontu-defizit federalak gora egin zuen 2008an, batez ere zergazko diru-sarrerak murriztearen (ekonomiaren erritmoa moteltzearen eraginezko murriztapena) eta gastu publikoa handitzearen ondorioz (zerga-pizgarriko neurriak aplikatzearen ondoriozko handitzea). 2008an defizit hori BPGren %3,2koa izan zen.

Europako ekonomia sorberriak (Turkia, Baltikoko Estatuak, Erdialdeko Europa, Hegoaldeko eta Hego-mendebaldeko Europa eta Eslovenia). Adituek uste zuten ekonomia horiek tasa baxuagoan baina hazten jarraituko zutela. Hala eta guztiz ere, mota guztietako kapital-jarioekiko mendekotasun handia

izatearen ondorioz (batik bat, mendealdeko bankuen finantziakzioa, tokiko kredituak eusteko), finantza-krisiak eragin handia izan zuen ekonomia horietan. Asiako ekonomia sorberrietan izandakoa baino handiagoa.

Hazkundeak ehuneko 2,5 puntuko murriztapena izan zuen (%5,4tik %2,9ra). Beherakada nabarmenagoa izan zen Baltikoko Estatuetan: Estoniak eta Letoniak, hurrenez hurren, ehuneko 9,9 eta 14,6 puntu galdu zituzten, eta %6,3ko eta %10eko hazkunde-tasak izatetik %3,6ko eta %4,6ko hazkunde tasak izatera igaro ziren, hurrenez hurren.

Asiako ekonomia sorberriak. Krisi globalaren eragina oso gogorra izan da ekonomia horietan. Adituek uste zuten krisiak ez zuela zona horretan eraginik izango: Europan ez bezala, zona ez dago Amerikako *securitized assets* deritzenen eraginpean. Hala eta guztiz ere, 2008ko irailetik aurrera, krisia Asiarantz hedatu zen, eta eragin larria izan zuen bertako ekonomietan. Horrela, orainsu industrializaturiko Asiako ekonomiek (Korea, txinako Taiwan probintzia, Hong Kongeko EAB eta Singapur) murriztapena izan zuten 2008ko laugarren hiruhilekoan, %10 eta %25 bitarteko tasetara.

Mundu osoko ekonomiaren hazkunde-erritmoa moteltzearen eta finantza-baldintzak gogortzearen testuinguruan, esportazioen hazkunde nabarmen murriztu zen, urteko bigarren seiuhilekoan, batez ere Singapurren, txinako Taiwan probintzian eta Hong Kongeko EABn. Hala ere, jarduera ekonomikoaren moteltze orokorra barne-ekaria ahultzearen ondoriozkoa izan zen: ahultze hori, berriz, kontsumitzaileen eta enpresen konfiantza narriatzearen eta higiezinaren sektorean inbertsioak behera egitearen eraginezkoa izan zen.

Eskari globala erortzea, bestalde, honako sektore hauetan oinarritu zen, batez ere: automozioa, elektronika eta kontsumo iraunkorreko beste ondasun batzuk. Esportazioen eta industria-produkzioaren ondorioz, hondatu egin ziren.

Inflazio-presioei dagokionez, horiek murrizten hasi ziren bigarren seiuhilekoan, petrolioaren eta janarien prezioek behera egitearen eraginez.

txina eta India ere esportazioen beherakadaren eraginpean gelditu ziren, baina bertako ekonomiek hazten jarraitu zuten, kanpoko merkataritza ekonomiaren proportzio txikiagoa delako eta neurri politikoek etxeko ekonomiei laguntza eman zitetelako.

txinari dagokionez, bertako BPGk %13tik %9rako murriztapena izan zuen 2007tik 2008ra. Merkataritza-superabitaren eta kapital-sarreraren ondorioz (kanbio-tasak gora egiteko itxaropenaren eta interes-tasa positiboaren diferentziala 2008ko irailera arte mantentzearen eraginezko sarrera), kanpoko erre-serbek handitzen jarraitu zuten.

Kontsumoko prezioen batez besteko inflazioa %8,7koa izan zen otsailean, baina gero nabarmen murriztu zen, janarien barne-prezioak egonkortu zirenean. Irailean, inflazioak atzera egin ondoren, eta munduko krisia gogortu zenean, txinako agintariek aldatu egin zuten euren politika, eta hazkunde ekonomikoa sustatzeko neurriak hartu zituzten. Horrela, txinako Herri Errepublikako Banku Zentrala moneta-politika bigunagoa

aplikatzen hasi zen, eta urtebeterako gordailuen eta maileguren erreferentziako interes-tasak lau eta bost aldiz murriztu zituen, hurrenez hurren. Gainera, laugarren hiruhilekoan geldiarazi egin zen yuanaren balioaren hazkunde-eritmo iraunkorra, dolarrari zegokionez.

Japonia. Hedapen ekonomikoa bat-batean amaitu zen 2008an.

Kanpoko eskari garbiaren eta enpresa-inbertsioaren murriztapen nabariak (inbertsio hori aurreko urteetako susperraldiaren eragilea izan ondoren) eta kontsumoaren murriztapenak (lan-merkatuko ziurgabetasunaren eta errentek behera egitearen eraginezkoa) aldatu egin zuten lehenengo hiruhilekoan izandako hazkunde positiboa; horrela, urteko gainerako hiruhilekoetan BPGren hazkunde-tasak negatiboak izan ziren (laugarren hiruhilekoan %12).

Bestalde, Japoniako banku-sektoreak finantza-turbulentziekiko iraunkortasun nahiko handia erakutsi arren, burtsa-merkatuetan izandako galera handiek eta turbulentsia horien hazkundeak eragina izan zuten finantza-sektorean, eta tirabirek, azkenean, eragin negatiboa izan zuten enpresa-inbertsioan eta kontsumoan, bigarren hiruhilekoan.

Japoniako yenaren balio-irabazte handiak beherantzko presio gehigarriak sortu zituen, esportazioa orientaturiko sektoreen errentagarritasunean eta inbertsioan.

Inflazioak, kontsumoko prezioen bidez neurtuta, hazkunde nabaria izan zuen lehenengo seiuhilekoan, baina abenduan %0,4raino murriztu zen.

Egoera ekonomikoren narriadura azkar hori ikusita, Japoniako Bankuak egun baterako interes-tasa %0,1eraino murriztea erabaki zuen, bermerik gabeko maileguetan, hori 2007ko otsailetik aldatu gabe mantendu ondoren.

Amerika Latinoa eta Karibe. 2008ko lehenengo hiruhilekoan hazkunde ertaina izan zuen (Amerika Latinoak %5, baina Mexikok %2,1 baino ez). Hala eta guztiz ere, irailetik aurrera, finantza-egoera narriatu egin zen, finantza-krisia gero eta gehiago handitu ahala.

Estatu Independenteen Erkidegoa (EIE). 2008an BPGren hazkundeak ehuneko 3,1eko murriztapena izan zuen, %8,6tik %5,5era; baina NMFk egindako aurreikuspenaren arabera, ekonomia globaleko eskualde guztien artean, EIEko estatuak izango dute kalte ekonomikorik larriena, epe laburrean. Izan ere, ekonomia horiek hiru shocken eraginpean daude: kanpoko finantziakzioa lortzea guztiz murriztu duten finantza-turbulentziak, ekonomia aurreratuetan eskariak izandako murriztapena eta lehengaien prezioek izandako beherakada (batik bat, energiaren prezioak izandakoa).

Ekialde Ertaina. Krisi globalak ez dio barkatu zona horri. Petrolioaren prezioak izandako beherakada handiak gogor eragin du zona horretan. Kanpoko finantza-egoeraren narriadurak eta finantza-jarioen norabidearen aldaketak galera handiak sortu dituzte finantza- eta burtsa-merkatuetan. Gainera, kanpoko eskariaren narriadurak (turismoak beherakada handia zona horretan) eragin negatiboa izan du esportazioen hazkudean; eta, eragin hori murrizteko politika hedakorak in-

II.1.2 LAUKIA. BPG ERREALA, PREZIOAK KONTSUMITZAILEARI ETA SALDOAK KONTU KORRONTEAN (NMF)

	BPG errealaren ehuneko aldaketa		KPIren urteroko ehuneko aldaketa		Garapen-tasa	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008
Ekonomia aurreratuak- 31 estatu (1)	2.7	0.9	2.2	3.4	5.4	5.8
AEB	2.0	1.1	2.9	3.8	4.6	5.8
Japonia	2.4	-0.6	0.0	1.4	3.8	4.0
Euroaren zona (16 estatu)	2.7	0.9	2.1	3.3	7.5	7.6
Oraintsu industrializaturiko Asiako ekonomiak (4 estatu: Korea, txinako Taiwan probintzia, Hong Kongeko EAB eta Singapur	5.7	1.5	2.2	4.5	3.4	3.5
	BPG errealaren ehuneko aldaketa		KPIren urteroko ehuneko aldaketa		Kontu korronteko saldoa, BPGren % gisa	
Ekonomia sorberriak eta garatzeko bidean daudenak						
Asiako ekonomia sorberriak (garatzeko bidean dauden herriak, oraintsu industrializaturiko Asiako ekonomiak eta Mongolia)	9.8	6.8	4.9	7.0	6.6	5.5
txina	13.0	9.0	4.8	5.9	11.0	10.0
Asiako hegoaldea (Maldivak, Nepal eta Sri Lanka)	8.7	7.0	6.9	9.0	-1.4	-3.4
India	9.3	7.3	6.4	8.3	-1.0	-2.8
ASEAN-5 (Indonesia, Thailandia, Filipinak, Malaysia eta Vietnam)	6.3	4.9	4.3	9.2	4.9	2.8
Amerika Latinoa eta Karibe	5.7	4.2	5.4	7.9	0.4	-0.7
Hego Amerika (10 estatu) eta Mexiko	5.7	4.2	5.3	7.7	0.7	-0.3
Erdialdeko Amerika (6 estatu)	6.9	4.3	6.8	11.2	-7.0	-9.2
Karibe (15 estatu)	5.8	3.0	6.7	11.9	-1.5	-2.8
Europako Ekonomia Sorberriak-Erdialdeko eta Ekialdeko Europa (14 estatu)	5.4	2.9	6.2	8.0	-7.7	-7.6
Turkia	4.7	1.1	8.8	10.4	-5.8	-5.7
Baltikoko estatuak	8.7	-0.7	7.3	12.2	-18.0	-11.6
Erdialdeko Europa	5.4	3.8	3.7	4.6	-5.2	-6.1
Hegoaldeko eta hego-ekialdeko Europa	6.1	6.1	5.1	8.4	-14.2	-13.8
Estatu Independenteen Erkidegoa (12 estatu +1)	8.6	5.5	9.7	15.6	4.2	5.0
Errusia	8.1	5.6	9.0	14.1	5.9	6.1
Energia-esportatzaile garbiak	8.6	5.8	9.4	14.5	5.6	7.0
Energia-inportatzaile garbiak	8.4	4.3	11.4	21.3	-5.5	-8.7
Afrika	6.2	5.2	6.3	10.1	1.0	1.0
Magreb	3.5	4.0	3.0	4.4	12.1	10.6
Saharatik hegoalderakoa	6.9	5.5	7.2	11.7	-2.2	-1.8
Hego Afrika	5.1	3.1	7.1	11.5	-7.3	-7.4
Petrolio-esportatzaileak	7.5	5.9	5.5	9.3	9.6	10.7
Petrolio-inportatzaileak	5.4	4.7	6.8	10.6	-5.0	-6.9
Ekialde Ertaina	6.3	5.9	10.5	15.6	18.2	18.8
Petrolio-esportatzaileak (10)	6.2	5.6	10.9	16.7	21.9	22.5

(1) Ekonomia aurreratuak (31 estatu): AEB, Kanada, Japonia, Euroaren zona, Erresuma Batua, Australia, Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda Berria, Suitza eta Oraintsu industrializaturiko Asiako ekonomiak. Estatu Independenteen Erkidegoa- (12+1 estatu):

Sobietar errepublikak izandakoak, Mongoliarekin 13.

Iturria: NMF "Munduko ekonomiaren aurreikuspenak" (2009ko apirila).

plementatu arren, egindako aurreikuspenaren arabera, shock kaltegarri horiek eragin negatibo handia izango dute jarduera ekonomikoan.

Saharatik hegoalderako Afrika. Zona horrek ekonomia aurreratuekin duen finantza-lotura nahiko ahula izan arren, zonak ez du krisi ekonomikoa saihestu. Kanpoko eskariak eta lehen-gaien prezioek beherakada itzela izan dute, eta kreditu-baldintzak murriztu egin dira; horrela, kanpoarekiko maileguen kos-

tuak gora eta kontinentera iritsitako finantza-jarioek behera egin dute.

1.3. Europar batasuna. Euroaren zona

Euroaren zonako BPG errealaren hazkundeak %0.7ko murriztapena izan du 2008an, 2007an eta 2006an %2.6ko eta %3ko hazkundeak izan ondoren, hurrenez hurren. Horrela, urte hasieran jarduerak nolabaiteko iraunkortasun-gaitasuna

erakutsi arren, urteko erdialdetik aurrera ahultzen hasi zen, barruko eskariak behera egitearen eta munduko ekonomiaren hazkunde-eritmoa gogor moteltzearen ondorioz; azkenik, laugarren hiruhilekoan urte batetik besterako %1,5eko aldaketa-tasa negatiboa egon zen.

Moteltze hori, batez ere, kontsumo pribatuaren eta egoitza-inbertsioaren bilakaeraren eraginezkoa izan zen. Hala eta guztiz ere, udaren ostean, kanpoko eskaria uzkurdura-seinaleak ematen hasi zen, agerian gelditu baitzen Amerikako Estatu Batuetako ekonomiak berriro ere dinamismoa galdu zuela eta merkatu sorberrietako jardueraren hazkunde-eritmoa moteldu egin zela; izan ere, une horretara arte bazirudien merkatuok nazioarteko finantza-turbulentzietatik kanpo mantenduko zirela.

Enpresak erreakzionatzen hasi ziren, eskarien murriztapen handiari aurre egiteko, eta atzeratu egin zituzten inbertsio-eta hedapen-planak; gainera, izakinak murriztu egin zituzten, finantziazioa lortzea zailagoa zelako; familien aurrezpena, berriz, hazi egin zen, enpleguaren egoeraren inguruko ziurgabetasun handiagoa egotearen ondorioz.

Lehengaien prezioen igoera garrantzitsuek garestitu egin zituzten familien kontsumo-saskiaren kostuak, eta familiek gastua murriztea erabaki zuten, kontsumoa mantendu beharrean (aurrezpena murriztuta). Inflazioa, KPIHren bidez neurtuta, batez besteko %3,3ra heldu zen (aurreko urtean baino ehuneko 1,2 puntu gehiago).

Lan-merkatuko aurreikuspenak narriatzea ere lagungarria izan zen kontsumitzaileen konfiantza-indizea murrizteko (horren maximoa 2007ko erdialdean).

Ikuspegi sektorialetik begiratuta, jarduera ekonomikoaren beharakada orokorra izan zen, baina industrian handiagoa izan zen, industriak ziklo ekonomikoekiko sentikortasun handiagoa baitu. Manufaktura-industriak beharakada itzela izan zuen, gehienbat ekipamenduko ondasunen arloan; izan ere, horiek kanpoko eskari ahulagoaren eta eskari-zorroaren murriztapen handiaren eragina jasan zuten, eta egoitza-sektoreak ere narriadura iraunkorra izan zuen, batez ere estatu batzuetan. Zerbitzuek, berriz, gora egin zuten, baina 2004an baino eritmo motelagoan, kontsumo pribatua ahultzeko eta industria-jardueraren eritmoa galtzeko testuinguru batean.

II.1.3 LAUKIA. EUROAREN ZONAKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK

	2006	2007	2008	I	II	III	IV
Urte batetik besterako aldaketa-tasak. Urtarotik kanpoko datuak.							
BPGa merkatuko prezioetan	3,0	2,6	0,7	2,1	1,4	0,6	-1,5
BARRUKO ESKARIA (BPG errealearen hazkunderako ekarpena)	2,8	2,3	0,6	1,5	0,8	0,4	-0,3
Barruko eskaria (hazkundera)	2,9	2,4	0,7	2,1	1,4	0,6	-1,5
Kontsumo pribatua	2,1	1,6	0,3	1,4	0,5	0,1	-0,6
Kontsumo publikoa	1,8	2,2	1,9	1,5	2,0	2,0	2,1
FBC finkoa	5,8	4,7	-0,3	3,1	1,6	-0,3	-5,6
KANPOKO SALDOA (BPG errealearen hazkunderako ekarpena)	0,2	0,4	0,0	0,6	0,7	0,1	-1,4
Esportazioak	8,5	5,9	1,2	5,0	3,7	1,8	-5,8
Inportazioak	8,4	5,3	1,2	3,7	2,4	1,7	-2,9
BEG erreala:							
Industria (eraikuntza izan ezik)	4	3,5	-1,0	2,7	1,4	-1,0	-7,1
Eraikuntza	2,7	3	-0,8	1,7	0,3	-1,3	-4
Merkatuko zerbitzuak (merkataritza eta jatetxeak, konponketa, garraioa eta komunikazioak)	2,9	2,8	1,3	2,3	1,7	1,2	0
Urte batetik besterako aldaketa-tasa							
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA							
Biztanleria aktibo landuna	1,6	1,8	0,8	1,5	1,1	0,6	-0,1
Langabezia-tasa	8,3	7,4	7,5	7,2	7,3	7,6	8,0
Urte batetik besterako aldaketa-tasa							
LANEKO KOSTUAK ETA PREZIOAK							
Inflazioa (KPIH) Indize orokorra (urteko b. bestekoa)	2,2	2,1	3,3	3,4	3,6	3,8	2,3
Soldatapeko bakoitzeko ordainketa	2,2	2,5	3,2	3,1	3,2	3,4	3
Laneko produktibitatea (erreala)	1,4	0,8	-0,2	0,6	0,3	-0,1	-1,7
Laneko kostu unitario erreala	0,8	1,7	3,4	2,4	2,8	3,5	4,8
Ehunekoak							
MONETA MERKATU MOTAK (banku artekoak)							
Hilabeterako gordailuak. Hilabeterako euriborra	2,94	4,09	4,27				
3 hilerako gordailuak. 3 hilerako euriborra (*)	3,08	4,28	4,63				
Urtebeterako gordailuak. Urtebeterako gordailuak	3,44	4,45	4,81				

(*) Liborratekin konparatzeko erabiltzen da.

Iturria: Espainiako Bankua, Aldizkari Ekonomikoa, 2009ko maiatza. EOM, Adierazle Ekonomikoen Laburpena, 2009ko otsaila.

Laneko kostuak, 2007ko amaierara arte joera moderatua mantendu ondoren, handitzen hasi ziren, eta laneko kostu unitarioek (produktibitatearen aldatetaren eta laneko kostuen arteko aldatetatzat neurtuta) goranzko joera iraunkorra izan dute 2008an, aipaturiko hazkunde horren eta lanaren produktibitatearen hazkunde murriztearen eraginez, hori 2008ko hirugarren hiruilekotik aurrera negatiboa baita.

Lanaren produktibitatearen hazkundeak (ekonomia osoari dagokionez), BPGren eta enplegu osoaren artean neurtuta, %0,2ko murriztapena izan zuen 2008an, eta 2007an, berriz, %0,8ko hazkunde izan zuen.

Europako Banku Zentralak bitan igo zuen esku-hartze tasa, 2007ko ekaineko %4tik 2008ko uztaileko %4,25era. Hala eta guztiz ere, 2008ko urritik abendura, murriztapenak egin zituen, guztira oinarritzko 1,75 puntuok: urrian 0,5, azaroan 0,5 eta abenduan puntu 1. Horrela, erreferentziako interes-tasa %2,5ekoa izan zen urte amaieran, urtarilean baino ehuneko 1,5 txikiagoa.

Moneta-merkatuko interes-tasei dagokionez, horiek hasieran gora egin zuten epe guztietan, eta, gero (irailetik urrira), beheranzko joera hasi zuten.

Estatukideak kontuan hartuta, egoera hauxe da. EB-15ean, Irlandak eta Suediak izan ezik, per capita BPG (EAPtan neur-

II.1.4. LAUKIA. EUOPAR BATASUNAREN BILAKAERA EKONOMIKOA

	BPG per capita (1)		BPG errealearen hazkundea			Langabezia-tasa (2)		Enpleguaren hazkundea		Inflazioa (KPIH) (urteko b. bestekoak)		Langileko produktibit. (3)		Laneko Kostu Unit. Err. aldak. % (4)	
	07	08	07	08	09 (aurr.)	07	08	07	08	07	08	07	08	07	08
Euroar. zona 15	109,6	—	2,6	0,8	0,1	7,4	7,5	1,8	0,8	2,1	3,3	109,7	—	-0,6	0,9
EB-15	111,7	110,3	2,7	0,7	-0,1	7,0	7,1	1,7	0,8	—	—	110,2	109,2	-0,7	0,5
Alemania	114,7	115,6	2,5	1,3	0,0	8,4	7,3	1,7	1,4	2,3	2,8	107,2	106,9	-1,4	0,5
Austria	123,8	124,7	3,1	1,8	0,6	4,4	3,8	1,7	1,6	2,2	3,2	115,0	114,8	-1,1	0,6
Belgika	118,0	118,4	2,8	1,2	0,1	7,5	7,0	1,8	1,6	1,8	4,5	129,8	128,8	0,4	2,2
Danimarka	120,0	117,1	1,6	0,7	0,1	3,8	3,3	2,7	1,1	1,7	3,6	102,1	99,7	2,2	2,6
Espainia	105,4	104,2	3,7	1,2	-0,2	8,3	11,3	3,0	-0,5	2,8	4,1	103,6	105,1	-0,2	0,4
Finlandia	115,8	115,5	4,2	0,9	1,3	6,9	6,4	2,2	1,5	1,6	3,9	111,0	110,2	-1,7	3,4
Frantzia	108,9	108,1	2,2	—	0,0	8,3	7,8	—	—	1,6	3,2	122,0	121,8	-0,7	0,3
Grezia	94,8	96,5	4,0	2,9	2,5	8,3	7,7	1,3	1,2	3,0	4,2	102,0	103,5	3,3	2,2
Holanda	130,9	132,2	3,5	2,0	0,4	3,2	2,8	2,5	1,5	1,6	2,2	112,4	112,9	0,4	1,8
Irlanda	150,2	143,1	6,0	-1,6	-0,9	4,6	6,3	3,6	-0,9	2,9	3,1	139,8	137,6	2,2	7,3
Italia	101,9	99,3	1,6	-1,0	0,0	6,1	6,8	1,2	0,3	2,0	3,5	108,5	106,9	-0,7	1,3
Luxemburgo	267,2	258,4	5,2	2,5	1,2	4,2	4,9	4,5	4,7	2,7	4,1	173,9	164,3	1,5	5,5
Portugal	76,2	75,5	1,9	0,0	0,1	8,1	7,7	0,0	0,4	2,4	2,7	71,2	70,8	-1,6	1,7
Erresuma B.	119,0	118,4	3,0	0,7	-1,0	5,3	5,6	0,7	0,1	2,3	3,6	111,8	111,6	-1,4	0,3
Suedia	122,2	120,2	2,6	-0,2	-0,2	6,1	6,2	2,2	0,9	1,7	3,3	111,8	110,3	1,7	-0,6
EB-25	103,7	103,7	2,9	0,8	0,1	7,2	7,1	1,9	0,9	—	—	103,7	103,7	-0,8	0,5
Zipre	90,8	92,5	4,4	3,7	2,9	4,0	3,8	3,2	2,0	2,2	4,4	83,6	84,2	-2,4	-1,8
Eslovakia	67,0	70,7	10,4	6,4	4,9	11,1	9,5	2,1	2,8	1,9	3,9	75,0	77,5	-0,5	2,3
Eslovenia	89,2	90,8	6,8	3,5	2,9	4,9	4,4	3,0	2,9	3,8	5,5	84,6	84,9	-1,5	3,7
Estonia	67,9	65,0	6,3	-3,6	-1,2	4,7	5,5	0,7	0,2	6,7	10,6	64,2	61,6	9,3	9,0
Hungaria	62,7	62,6	1,1	0,5	0,7	7,4	7,8	-0,1	-1,4	7,9	6,0	73,1	74,0	-0,5	2,7
Letonia	57,9	55,1	10,0	-4,6	-2,7	6,0	7,5	3,5	0,8	10,1	15,3	53,5	50,6	5,6	7,0
Lituania	59,5	60,6	8,9	3,1	0,0	4,3	5,8	2,8	-0,5	5,8	11,1	59,4	60,8	1,4	0,3
Malta	77,7	78,9	3,6	1,6	2,0	6,4	5,9	3,1	2,5	0,7	4,7	90,5	90,5	-1,8	1,2
Polonia	53,7	56,1	6,6	4,8	3,8	9,6	7,1	4,4	2,7	2,6	4,2	60,9	61,5	-2,3	3,5
txekiar Err.	80,2	81,3	6,0	4,4	3,6	5,3	4,4	2,7	1,2	3,0	6,3	71,8	73,1	-0,5	2,5
EB-27	100	100	2,9	0,9	0,2	7,1	7,0	1,8	0,9			100	100	-0,8	0,5
Bulgaria	37,2	39,2	6,2	6,0	4,5	6,9	5,6	2,8	3,3	7,6	12,0	34,9	35,7	5,9	4,3
Erumania	42,1	44,9	6,2	7,1	4,7	6,4	5,8	—	—	4,9	7,9	43,7	46,6	2,6	0,2

(1) EB-27=100 (2) 15-74 urte. (3) lanean dabilen pertsona bakoitzeko BPG prezio korronteetan, EB-27an. Hau da, EB-27=100.(4) Enplegatu bakoitzeko ordainketa eta produktibitatea konparatzen ditu: ratioaren hazkunde-tasa [enplegatu bakoitzeko prezio korronteko BPG].(5) Eurozona (13): Belgika, Alemania, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Holanda, Austria, Portugal, Eslovenia eta Finlandia. Eslovenia 2007ko urtarilaren lehen batu zen. (6) Eurozona (15): 13 estatu horiek gehi Zipre eta Malta. Eurozona (16): aurrekoak gehi Eslovakia, hori 2009ko urtarilaren lehen batu baitzen. Iturria: Eurostat (BPGren 2009ko hazkundearen aurreikuspenaren datua: 2009ko martxoaren 30a).

tuta³⁾ EB-15eko batez bestekotik gorakoa duten estatukideek (Luxenburgo, Irlanda, Holanda, Austria, Suedia, Erresuma Batua, Belgika, Danimarka, Alemania eta Finlandia) hazkunde-tasa positiboak dituzte. Hala eta guztiz ere, hazkunde-ratio horretan beherakadarik handienak Irlandan (hazkunde-an 7,6 puntuko galera, %6tik %-1,6ra igarota), Finlandian (3,3 puntuko galera), Suedian (2,8 puntuko galera), Erresuma Batuan (2,3 puntuko galera) eta Belgikan (1,6 puntuko galera) izan dira.

EAPtan neurtuta EB-15eko batez bestekotik beherako per capita BPG dutenen artean (Frantzia, Espainia, Italia, Grezia eta Portugal), BPGren hazkunde negatiboa izan duen bakarra Italia izan da. Beherakadarik handienak Italian (hazkundearen 2,6 puntu galdu) eta Espainian (2,5 puntu galdu) egon dira.

EB-25eko kide berriei dagokionez, guztien EAP EB-25eko eta EB-27ko batez bestekotik beherakoa da. Bestalde, BPGren hazkunde-tasak positiboak eta altuak dira, Maltan (positiboa, baina %2tik beherakoa) eta Letonian eta Estonian (%-4,6 eta %-3,6, hurrenez hurren) izan ezik.

Lan-merkatuari dagokionez, langabezia-tasak euroaren zonan %1,4ko batez besteko hazkunde izan du 2007tik 2008ra; EB-15en barruan hazkunde izan du Espainian, Irlandan, Italian, Luxenburgon, Erresuma Batuan eta Suedian; eta EB-25eko kide berrien artean, Estonian, Hungarian, Letonian eta Lituanian.

Lehen esan dugunez, inflazioak, Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren arabera, urteko batez besteko %3,3koa izan da eurozonan⁴⁾, aurreko urtean baino 1,2 puntu gehiago. Batez ere, aipagarriak dira Letoniako, Lituaniako eta Estoniako tasak.

Langile bakoitzeko produktibitatearen hazkundera dagokionez, horien mailaren arabera neurtuta (EB-27=100), eta ez bilakaeraren arabera, esan daiteke 2008an EB-15ean tasarik handienak Luxenburgon, Irlandan eta Belgikan izan zirela. Gainera, guztiz kontrakoagatik, aipatzekoak dira Danimarkako eta Portugaleko ratioak.

2007an, mendebaldeko Europako gobernuak gehienek nabarmen murriztu zuten zerga-defizita. Euroaren zonan, gobernuaren defizit orokorra BPGren %0,6koa izan zen. Zor publikoa, BPGri dagokionez, %66,2koa izan zen. Hobekuntza global horrek aurrerakuntza garrantzitsua ekarri zuen iraunkortasunaren arloan, eta, horrela, egonkortasuneko eta hazkundera itun berriak sinetsgarritasun handiagoa izan zuen.

Hala ere, 2008an, administrazio orokorren defizita, euroaren zonan, hazi eta BPGren %1,9ra heldu zen; eta zor publikoa ere igo eta BPGren %69,6ra iritsi zen.

EB-15ean, Irlandak, Erresuma Batua, Greziak, Frantziak eta Espainiak gaintu egin zuten Egonkortasun eta Hazkunde Itunean ezarritako BPGren %3ko muga. Superabita izan zuten artean, aipatzekoak dira Holanda (%+1), Suedia (%+2,5), Luxenburgo (%+2,6), Suedia (%+3,5), Danimarka (%+3,6) eta

II.1.5. LAUKIA. FINANTZA PUBLIKOAK EB-N

	Gobernuaren zor publikoaren %, BPGri dagokionez		Defizit/superabit publikoaren %, BPGri dagokionez (moneta nazionalan)	
	2007	2008	2007	2008
Euroa. zona 15	66,2	69,6	-0,6	-1,9
EB-15	60,4	—	-0,8	—
Alemania	65,1	65,9	-0,2	-0,1
Austria	59,4	62,5	-0,5	-0,4
Belgika	84,0	89,6	-0,2	-1,2
Danimarka	26,8	33,3	4,5	3,6
Espainia	36,2	39,5	2,2	-3,8
Finlandia	35,1	33,4	5,2	4,2
Frantzia	63,8	68,0	-2,7	-3,4
Grezia	94,8	97,6	-3,6	-5,0
Holanda	45,6	58,2	0,3	1,0
Irlanda	25,0	43,2	0,2	-7,1
Italia	103,5	105,8	-1,5	-2,7
Luxenburgo	6,9	14,7	3,6	2,6
Portugal	63,5	66,4	-2,6	-2,6
Erresuma B.	44,2	52,0	-2,7	-5,5
Suedia	—	—	3,8	2,5
EB-25	59,3	62,2	-0,8	-2,3
Zipre	59,4	49,1	3,4	0,9
Eslovakia	29,4	27,6	-1,9	2,2
Eslovenia	23,4	22,8	0,5	-0,9
Estonia	3,5	4,8	2,7	-3,0
Hungaria	65,8	73,0	-4,9	-3,4
Letonia	9,0	19,5	-0,4	-4,0
Lituania	17,0	15,6	-1,0	-3,2
Malta	62,1	64,1	-2,2	-4,7
Polonia	44,9	47,1	-1,9	-3,9
txekiar E.	28,9	29,8	-0,6	-1,5
EB-27	58,7	61,5	-0,8	-2,3
Bulgaria	18,2	14,1	0,1	1,5
Errumania	12,7	13,6	-2,5	-5,4

Iturria: EUROSTAT.

Finlandia (%+4,2). Bestalde, zor publikoa (BPGri dagokionez) estatu guztietan hazi zen, Finlandian izan ezik, eta %60tik gorakoa izan zuten herrien artean, Alemania, Austria, Belgika, Frantzia, Grezia, Italia eta Portugal daude.

EB-25ean eta EB-27an, defizit publikoa BPGren %0,8koa izan zen 2007an, eta 2008an %2,3ra hazi zen; zor publikoa %59,3tik %62,2ra igaro zen EB-25ean, eta %58,7tik %61,5era EB-27an. Zor publikoan BPGren %3ko muga gaintu zuten estatukide berrien artean Hungaria, Letonia, Lituania, Malta eta Polonia daude. Eta zor publikoan BPGren %60ko muga gaintu zutenen artean, berriz, Hungaria eta Malta.

³⁾ EAP: erosteko ahalmenaren parekotasuna.

⁴⁾ Eurozona (EB-15): Belgika, Alemania, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Holanda, Ausria, Portugal, Eslovenia eta Finlandia. Eslovenia 2007ko urtarilaren lein batu zen; eta Zipre eta Malta 2008ko urtarilaren lein.

1.4. Espainiako ekonomia

INEren Hiruhileko Kontabilitateko (HHKN) datuen arabera, 2008ko azken hiruhilekoan Espainiako ekonomiak nabarmendu egin zuen urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan izandako sustapen-galera. Horrela, hazkundearen hiruhileko profila beheranzkoa da; hain zuzen ere, lehenengo lauhilekoan %2,7ko hazkunde erreala eta laugarrenean %0,2ko murriztapena egon da.

Horren ondorioz, 2008aren amaieran BPGren batez besteko hazkunde erreala %1,2koa izan da, aurreko urtekoa baino 2,5 puntu txikiagoa. Hazkunde hori EB-15ekoa (%0,7), EB-25ekoa (%0,8) eta EB-27koa (%0,9) baino txikiagoa da; baita euroaren zonakoa baino txikiagoa ere: EROSTATen arabera %0,8.

Gastuaren ikuspegitik begiratuta, 2008ko aldian jarraitasuna egon da aurreko urtean hasitako joerari dagokionez⁵, barruko eta kanpoko eskariaren eraginez, baina malda handiagoa izan du. Horrela, barruko eskariak BPGren hazkundearen egindako ekarpena 4,3 puntutan murriztu da (4,4 puntutik 0,1 puntura),

azken kontsumo pribatuaren moteltzearen ondorioz (hazkunde-tasa %3,4tik %0,1era igaro da), baita kapital finkoan egindako inbertsioak izandako uzkurduraren ondorioz ere (%5,3tik %-3,0ra). Aldiz, Herri Administrazioek azken kontsumoan egindako gastuaren batez besteko hazkunde 4 hamarrenetan bizkortu da (%4,9tik %5,3ra).

Datu-iturri horrek dioenez, familien batez besteko gastua gehiago moteldu da ondasunetan zerbitzuetan baino; gainera, lehenengoen barruan, ondasun iraunkorretan gehiago moteldu da ez-iraunkorretan baino.

Kapitalaren eragiketa gordinari dagokionez, zenbait produktu kontuan hartuta, beherakada gogorragoa izan zen erakuntzan (%+3,8tik %-5,3ra) ekipamendu-ondasunetan baino (%+10,0tik %-1,1era).

Bestalde, 1,8 puntutan hobetu da kanpoko sektoreak BPGren hazkundearen egindako ekarpena, eta 2007ko 0,7 puntuetatik 2008ko 1,1 puntuetara igaro da, inportazio-jarduera moteltzearen ondorioz.

II.1.6. LAUKIA. ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA (Urte batetik besterako aldaketa-tasak)

	2007					2008				
	b.b.	I	II	III	IV	b.b.	I	II	III	IV
Erreferentziako bolumen kateatua, 2000. Urtaoetako eta egutegiko eraginak zuzendu osteko datuak.										
Barruko eskaria (*)	4,4	5,1	4,9	3,9	3,8	0,1	2,6	1,2	-0,2	-3,0
Familien kontsumo pribatua	3,4	3,8	4,1	3,0	2,9	0,1	2,0	0,8	-0,2	-2,3
Kontsumo publikoa	4,9	5,3	5,0	4,8	4,4	5,3	3,7	5,0	6,1	6,3
Kapital-eraketa gordina	5,3	6,6	5,8	4,6	4,5	-3,0	2,4	-0,8	-4,1	-9,3
Ekipamendu-ondasunak	10,1	13,3	11,3	8,5	7,1	-1,1	5,2	1,8	-1,3	-9,7
Eraikuntza	3,8	5,1	4,2	3,3	2,9	-5,3	0,2	-3,1	-7,3	-10,9
Kanpoko saldoa (*)	-0,7					1,1				
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	4,9	3,3	3,9	8,2	4,0	0,7	4,8	4,4	1,5	-7,9
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	6,2	6,1	6,2	7,6	4,9	-2,5	3,6	1,8	-2,0	-13,2
BPG merkatuko prezioetan	3,7	4,0	3,9	3,6	3,3	1,2	2,7	1,8	0,9	-0,7
Nekazaritza eta arrantza	3,0	4,6	2,5	2,8	2,1	-0,6	1,1	-0,1	-0,5	-2,7
Energia eta industria	2,5	3,5	2,8	2,5	1,1	-2,0	0,3	-1,4	-2,2	-4,7
Energia	0,8	0,2	1,1	0,2	1,7	1,9	1,6	3,5	2,5	0,0
Industria	2,8	4,1	3,1	2,9	1,0	-2,7	0,0	-2,2	-2,9	-5,5
Eraikuntza	3,5	3,8	4,3	3,1	2,8	-3,3	1,5	-2,0	-4,6	-8,0
Zerbitzuak	4,6	4,5	4,6	4,3	4,8	3,1	4,0	3,7	2,9	1,7
Merkatuko zerbitzuak	4,6	4,6	4,7	4,3	4,8	2,6	4,0	3,4	2,3	0,7
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	4,4	4,2	4,3	4,3	4,7	4,8	4,1	4,7	5,1	5,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,7	1,6	1,4	1,5	-1,5	-0,1	0,5	0,3	-0,1	-0,9
Lan-merkatua										
Lanaldi osoko lanpostu baliokideak										
Landunak	2,9	3,2	3,2	2,8	2,2	-0,6	1,6	0,1	-0,9	-3,1
Soldatapekoak	3,3	3,8	3,8	3,1	2,5	-0,6	1,8	0,2	-0,9	-3,4
Langabezia-tasa (BAI ⁵)	8,3					11,4				
Errentak										
Langile bakoitzeko produktibitatea	1,7	0,7	0,7	0,7	1,0	1,8	1,0	1,7	1,8	2,5
Laneko Kostu Unitarioa (LKU)	2,9	2,7	2,7	3,1	3,0	3,4	4,2	3,6	3,4	2,6

(*) Merkatuko prezioak BPGren hazkunderako ekarpena.

(**) Metodologia berria 2005eko lehenengo hiruhilekotik.

(***) Urteko batez bestekoak eta hiruhilekoetan urteko aldaketa.

Iturria: INE Hiruhileko Kontabilitatea eta BAI.

⁵ 2006an hautsi egin zen barruko eta kanpoko eskariak aurreko hiru urteetan izandako joera.

Eskaintzaren aldetik begiratuta ikusten denez, jarduerak behera egin du adar guztietan. Industriak urtea zero hazkundearekin hasi eta laugarren hiruilekoan %5,5eko murriztapena izan du; horrela, urteko batez besteko murriztapena %2,7koa izan da, aurreko urtean %2,8ko hazkundea izan ondoren. Eraikuntza, lehenengo hiruilekotik laugarrenera, %1,5eko hazkundetik %8ko murriztapenera igaro da, eta, horrela, urte batetik besterako aldaketa-tasa %-3,3koa da, aurreko urtean %3,5 hazkundea izan ondoren. Bestalde, zerbitzuetan ere moteldu egin da hazkundearen hiruileko profila, hain zuzen ere, lehenengo hiruilekoan izandako %4tik hirugarrenean izandako %1,7ra; horrela, urteko tasa %4,6tik %3,1era igaro da 2007tik 2008ra. Merkatukoak diren eta ez diren zerbitzuen artean bananduta ikusten denez, hiruilekoetan zehar bigarrenen bizkortu egin dute euren hazkundea. Horrela, urteko batez besteko aldaketa-tasa %+4,8koa izan da, aurreko urtean %4,4ko hazkundea izan ondoren.

II.1.7. LAUKIA.

Kontu korronteko balantza (KKB)

- Merkataritzaren balantza (ondasunena)
- Zerbitzuen balantza (turismoa eta b. batzuk)
- Errenten balantza
- Transferentzia arrunten balantza

Kapitalaren balantza (Kapitalaren b.)

- Kapitalaren transferentziak (FEDER, Kohesio Funtsa...)
- Finantzazkoak ez diren aktibo sortugabekoak lortzea eta besterentzea (lurra, lurzorua baliabideak, aktibo ukiezinak, egile-eskubideak...)
- Errenta-balantza

Kanpoko aurrezpenerako deia = Finantziazio-gaitasuna (beharrizana)

KKB + Kapital Balantza + Kanpoko egoiliarren inbertsioak.

2008an ekonomiaren hazkunde-erritmoa moteltzearekin batera, enplegu maila ere murriztu egin zen. Lanaldi osoko lanpostuen guztizkoak %0,6ko murriztapena izan zuen; hau da, INEren datuen arabera, 112,1 mila lanpostuko murriztapena egon zen, batez ere eraikuntzan eta nekazaritzan eta arrantzaz; aldiz, zerbitzuetan enplegua sortu eta industria-energian ez zen aldaketarik egon (zero hazkunde). Soldatapekoen murriztapena ere antzekoa izan zen, %0,6koa. INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI), bestalde, agerian jarri du langabezia-tasak 3,09ko hazkundea izan zuela, %8,31tik %11,4rakoa. Jarduera agregatuak eta enpleguak izandako aldaketaren eraginez, ekonomiako lan-faktorearen itxurazko produktibitatea %1,8ko erritmoan hazi zen, aurreko urtean baino puntu bat gehiago. Produktu Unitateko Lan Kostua (ULK) %3,4ra arte bizkortu zen 2008an (aurreko urtean baino bost hamarren gehiago).

INEren datuen arabera, inflazioak, KPIren bidez neurtuta (*urteko batez bestekoa*), %4,1eko hazkundea izan zuen (2007an bano 1,3 puntu gehiago). Hala ere, kontsumoko prezioen joera beheranzkoa da, eta abendu-urte batetik besterako datua %1,4koa izan da (urtarrilean %4,3).

EUROSTATen datuen arabera (aurreko epigrafeari buruzko datuak), EDBrekiko prezio-diferentziala hazi egin da apur bat, 2007ko 0,7tik 2008ko 0,8ra igaro baita, KPIHk %4,1eko hazkundea izan du Espainian, eta euroaren zonan %3,3koa (aurreko urteko %2,8tik %2,1era); horrela, euroaren zonan inflaziorik handiena duten estatuen artean, Espainia seigarren postuan kokatu da.

Kanpoko sektoreak BPGn egindako ekarpen handiagoa aintzat hartuta, Espainiako ekonomiak hobetu egin du bere finantza-egoera, munduko gainerako eskualdeei dagokienez. Ekonomiaren finantziazio-beharrizana edo defizita (ekonomiako sektoreek sorturiko aurrezpenera inbertsioari aurre egiteko nahikoa ez denean, eta Kontu Korronteko Balantzaren eta Kapitaleko Balantzaren saldoak eta kanpoan bizi direnen

II.1.8. LAUKIA. ESPAINIAKO EKONOMIAKO ORDAINKETA BALANTZA (EUROAK MILIOIETAN)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
BPG mp	680.678	729.206	782.929	841.042	908.792	982.303	1.050.595	1.095.163
Finantziazio Gaitasuna/Beharrizana	-23.829	-19.421	-23.070	-40.712	-59.489	-82.280	-101.412	-99.193
BPGri dagokionez (%)	-3,5	-2,7	-2,9	-4,8	-6,5	-8,4	-9,7	-9,1
Kontu Korronteko eta Kapitaleko Saldoa	-21.434	-16.102	-19.311	-35.736	-58.680	-82.119	-100.800	-98.898
Kontu korrontea	-26.823	-23.764	-27.476	-44.164	-66.860	-88.313	-105.378	-104.454
Ondasunak (merkataritza-balantza)	-38.601	-36.510	-39.839	-53.660	-68.603	83.246	-91.246	-87.654
Zerbitzuak (zerbitzu-balantza)	22.957	22.609	23.301	21.753	22.240	22.235	23.076	26.504
Errentak eta transf. arruntak	-11.179	-9.863	-11.016	-12.256	-20.496	-27.302	-37.209	-43.303
Kapitalaren Kontua	5.389	7.662	8.165	8.428	8.180	6.194	4.578	5.556
Finantza Saldoa	21.703	15.381	17.825	34.851	60.818	85.624	101.065	94.910
Zuzeneko inbertsioa	-5.250	6.915	-2.568	-28.809	-13.517	-58.547	-50.902	-8.040
Zorroko inbertsioa	-18.924	4.726	-26.592	85.808	58.734	199.615	104.779	4.268
B. inbertsio batzuk eta deribatuak	28.402	179	45.410	-8.138	17.715	-29.644	32.866	67.683
Esp. Bankuko aktiboak (erreserbak)	17.475	3.561	1.575	-14.010	-2.114	-25.800	14.322	30.137

Iturria: Espainiako Bankua "Finantza Kontuak".

inbertsioak batuta kalkulatzen da) 2007an BPGren %9,7 izate-
tik 2008ko %9,1era igaro da; hain zuzen ere, 99.193 milioi euro,
eta aurreko urtean baino 2.216 milioi gutxiago.

Azkenik, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren "Adierazle
Ekonomikoen Laburpena" deritzon hiruhileko txosteneko be-
hin-behineko datuen arabera (2009ko otsaila), Estatuko Herri

Administrazioek 41.840 milioi euroko defizitarekin (BPGren
%3,8) amaitu dute 2008. urtea (Kontabilitate Nazionalaren
arabera neurtuta), aurreko urtean 23.272 milioiko superabita
eduki ondoren (BPGren %2,2).

Desagregazioa eginez, Estatuko Administrazioak eta
Autonomia Erkidegoek (AAEE) eta Toki Korporazioek (TTKK),

II.1.9. LAUKIA. SALDO PUBLIKOA ERAGILEEN ARABERA* (EUROAK MILIOITAN)

	€-ak milioitan				BPGren %			
	2005	2006	2007	2008	2005	2006	2007	2008
Herri Administrazioak. Finantzazio Gaitasuna (+) /Beharizana (-)	8.752	19.844	23.272	-41.840	1,0	2,0	2,2	-3,8
Estatuko Administrazioak	11.904	19.440	27.408	-21.679	1,3	2,0	2,6	-2,0
Estatua eta Erakunde Autonomoak	2.043	6.780	13.691	-29.998	0,2	0,7	1,3	-2,7
Gizarte Segurantzak	9.861	12.660	13.717	8.319	1,1	1,3	1,3	0,8
Lurralde Erakundeak	-3.152	404	-4.136	-20.161	-0,3	0,0	-0,4	-1,8
AAEE	-2.604	-361	-1.695	-15.861	-0,3	0,0	-0,2	-1,4
Toki Korporazioak	-548	765	-2.441	-4.300	-0,1	0,1	-0,2	-0,4

(*)Finantziazio Gaitasuna/Beharizana, Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera.
Iturria: Espainiako Bankua

II.1.10. LAUKIA. ESTATUAREN AURREKONTU BETEARAZPENA (A. Erkidegoen eta T. Korporazioen partaidetza barne) (euroak milioitan)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozietateak	B. b.	Guztira	BEZ	Bereziak (1)	B. b.	Estatua	AAEE eta TTKK	Guztira
2003	70.132,5	46.445,7	21.912,6	1.774,2	59.590,4	40.569,3	16.853,1	2.168,0	95.596,3	34.126,6	129.722,9
2004	75.978,8	47.715,3	26.018,8	2.244,7	64.498,4	44.491,8	17.512,6	2.493,2	100.020,4	40.456,8	140.477,2
2005	89.434,1	54.722,6	32.495,3	2.216,2	70.705,3	49.870,1	18.022,3	2.813,0	115.281,6	44.857,8	160.139,5
2006	102.448,1	62.768,9	37.207,0	2.472,2	76.262,3	54.652,2	18.602,7	3.007,4	129.458,1	49.253,0	178.711,1
2007	120.968,4	72.614,3	44.823,2	3.530,9	78.860,1	55.849,4	19.786,4	3.224,3	145.423,0	54.405,4	199.828,5
2008	102.024,1	71.341,2	27.301,4	3.381,5	70.671,1	48.015,3	19.570,0	3.085,9	113.324,8	59.370,4	172.695,1
Alda. 2006-07	18,1	15,7	20,5	42,8	3,4	2,2	6,4	7,2	12,3	10,5	11,8
Alda. 2007-08	-15,7	-1,8	-39,1	-4,2	-10,4	-14,0	-1,1	-4,3	-22,1	9,1	-13,6

(1) Ez da sartzen garraiobide batzuk matrikulatzeko zerga.
Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Adierazle Ekonomikoen Laburpena.

II.1.11. LAUKIA. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: ESTATUAK ONARTURIKO BETEBEHARRAK (euroak milioitan)

	Langileria	Ondasun. eta zerbi- tzu. erosketak	Interesak	Transferentzia arruntak	Kapital- transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2003	18.425,5	3.196,8	19.802,0	58.042,8	6.690,0	7.269,1	113.426,2
2004	19.490,1	3.411,7	17.426,8	61.288,4	7.102,7	7.356,0	116.075,7
2005	20.649,2	3.459,7	16.978,0	64.003,9	7.136,7	8.752,7	120.980,2
2006	22.276,0	3.853,0	15.619,7	71.061,4	7.943,6	9.401,5	130.155,2
2007	23.797,6	4.365,7	14.537,9	77.483,3	9.461,6	10.176,6	139.822,5
2008	25.384,7	4.553,9	15.929,0	84.217,7	18.164,2	10.675,7	158.925,1
Alda. 2007-08	6,7	4,3	9,6	8,7	92,0	4,9	13,7

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Adierazle Ekonomikoen Laburpena.

hurrenez hurren, %2,7ko, %1,4ko eta %0,4ko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak.

Ekonomiaren erritmoa moteltzearen ondorioek eta aplikaturiko neurriek eragina izan dute diru-sarrera eta gastu publikoetan. Izan ere, lehenengoak murriztu egin dira, eta bigarrenak, berriaz, gora egin dute, langabeziaren eta kontsumo publikoaren prestazioen eraginez.

Zerga nagusien bilketak, AAEEn eta TTKKen partaidetza ere kontuan hartuta, %13,6ko murriztapena izan zuen 2008an, aurreko urtean %11,8ko hazkundea izan ondoren. Horrela, zerga zuzenek %15,7ko murriztapena izan zuten (PFEZk %1,8koa eta Sozietateen gaineko Zergak %39,1ekoa), zeharkako zergen %10,4koa baino handiagoa (BEZek %14ko murriztapena eta Zerga Bereziek %1,1ekoa).

Bestalde, Estatuak onarturiko betebeharrak %13,7ko hazkundea izan dute, aurreko urtean baino ehuneko 6,2 puntu gehiago. Zalantzarik gabe, hazkunde nagusia kapital-transferentzien kapituluaren izandakoa da (%92).

1.5. Autonomia erkidegoak

INEren Eskualdeko Kontabilitateko datu ofizialen arabera, 2008an BPGren hazkunde errealeko tasarik handiena izan duen autonomia-erkidegoa EAE izan da, %2,1ekin (Estatuko batez bestekoa baino 0,9 puntu gehiago). Ondoren, Nafarroa (%1,9), Balearrak, Extremadura, Galizia eta Ceuta datoz (guztiek %1,8).

Hazkunderik urrieneko erkidegoak Valentzia (%0,5), Gaztela-Mantxa eta Katalunia (%0,7) eta Andaluzia (%0,8) izan ziren. EB-27 (EUROSTATen arabera, %0,9) baino gutxiago hazi ziren bakarrak izan ziren.

Datu iturri horrek dioenez, EAEn, Nafarroan, Galizian eta Extremaduran hazkundearen eragile nagusia industria-sektorearen dinamismo handiagoa izan da.

Aipatzekoa da Aragoik (2007an eraikuntzaren hazkunde handia izan ondoren, 2008ko Nazioarteko Erakusketaren ondorioz) 2008n BPGn izandako hazkundea Estatuko batez bestekoa baino apur bat txikiagoa izatea, eta, hala ere, zerbitzu-adarretan hazkunderik handiena edukitzea.

Per capita BPG kontuan hartuta, lehenengo postuan EAE dago, biztanleko 32.133 euroko BPGrekin (batez bestekoa baino %33,8 handiagoa); gero, Madril 31.110 euroko per capita BPGrekin (batez bestekoa baino %27 handiagoa), Nafarroa 30.614 euroko BPGrekin (batez bestekoa baino %27 handiagoa), Katalunia biztanleko 28.095 eurokoekin, Aragoi (26.323), Balearrak (25.967), Errioxa (25.895) eta Kantabria (24.508). Guztiak ere Estatuko 24.020 euroko batez bestekotik gora daude.

Aipatzekoa da, INEren datuen arabera, Estatuko batez bestekoa baino per capita BPG altuagoa duten zortzi erkidegoetatik zazpik EB-27ko 25.100 euroko batez bestekoa ere gainditzea. Aldiz, zerrendako azken postuetan Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia daude, hurrenez hurren, biztanleko 16.828, 18.471 eta 18.507 euroekin.

II.1.12. LAUKIA. BPG-REN HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA TASAK AUTONOMIA ERKIDEGOETAN (urteko b. bestekoak)

	Aldaketa enpleguan (1)			Aldak. langabetu kopuruan (1)			Langabezia Tasa (1)			BPG Bolumen Aldaketa (2)			BPG per capita (2)		
	05-06	06-07	07-08	05-06	06-07	07-08	05-06	06-07	07-08	00-08 (1. zenb.)	06-07 (b)	07-08 (1. zenb.)	Estatua = 100	Estatua = 100	Biztanl. euroak
Andaluzia	5,1	3,5	-2,2	-5,0	4,2	45,1	12,7	12,8	17,9	3,3	3,6	0,8	77,5	77,0	18.507
Aragoi	1,5	5,8	0,1	-3,7	-0,3	39,3	5,5	5,2	7,2	3,2	4,5	1,1	109,4	109,6	26.323
Asturias	4,5	2,3	4,2	-5,8	-7,8	4,0	9,3	8,5	8,5	2,8	3,5	1,2	92,2	93,9	22.559
Balearrak	6,0	2,4	0,4	-5,8	11,1	51,7	6,5	7,0	10,2	2,4	3,6	1,8	108,2	108,1	25.967
Kanariak	5,3	4,0	-5,9	4,9	-8,3	69,7	11,7	10,4	17,5	3,1	3,6	1,3	88,3	87,9	21.105
Kantabria	4,4	3,5	0,8	-21,2	-7,4	24,1	6,6	5,9	7,2	3,2	3,7	1,3	100,1	102,0	24.508
Gaztela eta Leon	2,2	2,6	-0,5	-5,5	-10,1	35,2	8,1	7,2	9,6	2,9	3,6	0,9	96,9	97,3	23.361
Gaztela-Mantxa	4,5	5,6	0,0	0,1	-9,9	59,0	8,8	7,6	11,7	3,2	4,2	0,7	78,1	76,9	18.471
Katalunia	3,9	2,7	-0,5	-1,7	1,8	40,6	6,6	6,6	9,1	2,9	3,5	0,7	117,2	117,0	28.095
Valentziako E.	4,8	3,2	0,3	-0,8	8,4	44,1	8,4	8,8	12,2	3,0	3,4	0,5	90,6	89,4	21.468
Extremadura	3,2	3,6	-0,8	-14,5	0,3	18,4	13,4	13,1	15,3	3,4	3,9	1,8	68,8	70,1	16.828
Galizia	3,0	2,5	0,6	-13,6	-8,4	16,2	8,5	7,6	8,8	3,1	4,0	1,8	84,3	85,8	20.619
Madril	4,1	2,5	0,4	-2,9	1,2	42,2	6,4	6,3	8,8	3,4	3,7	1,6	129,9	129,5	31.110
Murtzia	4,9	5,9	-0,8	2,6	1,8	75,3	7,9	7,6	12,7	3,6	3,9	1,5	82,5	82,0	19.692
Nafarroa	3,4	2,2	-0,1	-3,0	-8,8	43,4	5,3	4,8	6,8	3,1	3,8	1,9	126,2	127,5	30.614
EAE	2,8	0,6	0,5	-2,6	-12,6	6,4	7,0	6,1	6,5	3,0	3,7	2,1	130,1	133,8	32.133
Errioxa	2,1	1,5	0,5	2,2	-8,4	42,5	6,2	5,7	7,9	3,0	4,0	1,5	107,4	107,8	25.895
Ceuta	-10,7	-0,9	12,6	-3,1	-4,8	-8,5	21,0	20,3	17,5	3,0	3,8	1,8	92,6	92,9	22.320
Melilla	3,6	0,0	-3,1	-2,8	45,7	13,7	13,4	18,2	20,9	3,2	3,5	1,2	90,5	89,5	21.493
Guztira	4,1	3,1	-0,5	-3,9	-0,2	41,3	8,5	8,3	11,4	3,1	3,7	1,2	100,0	100,0	24.020

Iturria: 1. zenb.: 1. zenbatespena, b: behin-behinekoa. (1) Metodologia berria 2005ean. (2) INEren eskualde-kontabilitatea.

Lan-merkatuari dagokionez, langabezia-tasarik baxueneko autonomia-erkidegoak honako hauek dira: EAE %6,5ekin (aurreko urtean %6,1), Nafarroa %6,8rekin (aurreko urtean %4,8), Aragoi %7,2rekin (aurreko urtean %5,2), Kantabria %7,2rekin eta Errioxa %7,9rekin. %8-11, bitarteko tasekin (Estatuko batez bestekoa) Asturias (%8,5), Madril (8,8), Galizia (%8,8), Katalunia (%9,1), Gaztela eta Leon (%9,6) eta Balearrak (%10,2) daude. Estatuko batez bestekoaren gainetik Gaztela-Mantxa, Valen-

tzia, Murtzia, Extremadura, Kanariak, Ceuta eta Melilla daude. Enpleguaren arloan galtzerik handienak honako hauetan egon dira 2008an: Kanariak (%-5,9), Melilla (%-3,1), Andaluzia (%-2,2), Murtzia eta Extremadura (bakoitzak %-0,8) eta Gaztela eta Leon eta Katalunia (bakoitzak %-0,5). Handitzerik handienak, berriz, Murtzian (%75,3), Kanarietan (%69,7), Gaztela-Mantxan (%59), Balearretan (%51,7), Andaluzian (%45,1), Valentiako Erkidegoan (%44,1) eta Nafarroan (%43,4).



2. EAE-KO KOIUNTURA EKONOMIKOA

2.1. Bilakaera orokorra

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako datuen lehenengo aurrerapenaren arabera¹ (2009ko otsailari buruzko datuak), EAEko ekonomiak, 2008an, %2ko urte batetik besterako hazkunde erreala izan zuen, aurreko urtean izandakoaren erdia baino txikiagoa (%4,1); BPG, berriz, 69.212.109,3 mila eurokoa izan zen. Horrenbestez, BPGren aldaketa-tasak zenbait urtetan hazkunde handiak izan ondoren, EAEko ekonomiak jarduera ekonomikoaren hazkunde-tasa nahiko txikiagoarekin itxi du

urtea. Izan ere, EAEko hiruhileko hazkunde-profilak %3,2 dezelazioa izan du lehenengo hiruhilekoan, eta %0,4koa lau-garrenean.

Hala eta guztiz ere, urteko emaitza Estatukoa eta EBkoa baino apur bat handiagoa da. Estatuari dagokionez, urteko batez besteko hazkundea zortzi hamarren handiagoa izan da, bertako urteko batez bestekoa %1,2koa izan baita; eta, EBri dagokionez, EAEren hazkunde-aldea handiagoa izan da, hain zuzen ere, 1,1 puntukoa EB-27rekin konparatuta (%0,9ko hazkunde), 1,3 puntukoa EB-25en kasuan (%0,8ko hazkunde) eta 1,4 puntukoa EB-15en kasuan (%0,7ko hazkunde).

II.2.1. LAUKIA. EAE-KO EGOERA MAKROEKONOMIKOAREN BILAKAERA

Urte batetik besterako aldaketa-tasak	2002	2003	2004	2005	2006	2007 (a)	2008 (a)	I	II	III	IV
BPG erreala merkatuko prezioetan	2,4	3,1	3,7	4,0	4,4	4,1	2,0	3,2	2,5	1,8	0,4
Eskaria											
Barruko eskaria (hazkunde)	3,2	4,4	5,2	4,4	4,4	4,4	1,9	3,1	2,5	1,9	0,0
Barruko eskariaren ekarpena (I)	3,3	4,5	5,4	4,6	4,6	4,5	2	3,3	2,7	2	0
Gastua azken kontsumoan	2,5	4,1	4,4	3,8	3,8	3,8	2,0	3,1	2,3	1,9	0,9
Kontsumo pribatua	2,5	3,7	4,6	4,1	3,7	3,4	1,1	2,4	1,4	0,9	-0,4
Kontsumo publikoa	2,5	5,8	3,7	2,7	4,3	5,5	5,9	5,9	6,0	5,8	6,1
Kapital Eraketa Gordina	5,0	5,1	7,5	6,1	5,9	5,5	1,4	3,1	3,0	1,8	-2,2
Kapital-eraketa gordina	6,1	6,7	6,6	6,3	5,8	5,9	—	—	—	—	—
Izakinen aldaketa	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Kanpoko saldoaren ekarpena (I)	-0,8	-1,3	-1,9	-0,7	-0,3	-0,5	-0,1	-0,1	-0,1	-0,3	0,5
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	-0,9	-0,8	4,8	5,1	6,2	7,6	4,5	7,0	9,1	6,1	-3,8
Estatuko gainerako AAEak	-1,4	-1,0	6,1	6,6	3,4	4,2	—	—	—	—	—
Atzerria	-0,4	-0,6	3,4	3,3	9,5	11,3	—	—	—	—	—
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	0,3	1,3	7,3	5,8	6,1	7,6	4,2	6,6	8,4	6,0	-4,2
Estatuko gainerako AAEak	2,8	1,0	4,8	5,5	2,0	8,8	—	—	—	—	—
Atzerria	-4,3	1,8	12,0	6,3	12,8	6,0	—	—	—	—	—
Eskaintza											
Lehen sektorea	-0,7	-6,1	31,3	-13,8	-4,4	9,8	-0,2	5,6	0,2	-6,0	-1,2
Industria	1,1	1,2	2,9	4,9	4,2	4,0	0,2	1,7	1,4	0,5	-2,8
Eraikuntza	5,2	4,9	4,4	4,7	4,2	4,6	-0,1	2,3	1,1	-1,0	-2,9
Zerbitzuak	2,7	3,3	3,3	3,5	4,5	4,2	3,3	3,9	3,4	3,2	2,5
Merkatuko zerbitzuak	2,7	3,6	3,5	3,5	4,8	4,5	2,5	3,3	2,6	2,3	1,6
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	2,6	1,7	2,0	3,4	3,3	2,6	7,3	7,0	7,4	7,7	7,1
Balio erantsi gordina oinarrizko prezioetan	2,3	2,7	3,6	3,8	4,3	4,2	2,0	3,2	2,6	1,9	0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,6	7,6	4,5	5,0	4,8	3,4	1,5	3,3	2,0	0,7	-0,1
BPG nominala merkatuko prezioetan	5,2	6,5	8,3	7,5	7,8	6,7	5,0	6,5	6,3	4,6	2,6
BPGren deflatoarea	2,8	3,3	4,4	3,4	3,3	2,5	3,0	—	—	—	—
Enplegu osoa CETen arabera	2,2	2,5	2,8	2,2	2,2	2,8	1,1	2,0	1,6	0,7	-0,1
Lanaren itxurazko produktibitatea (2)	0,2	0,6	0,9	1,7	2,1	1,2	0,9	—	—	—	—
Langabezia-tasa BJAren arabera (3)	8,3	8,6	7,8	5,7	4,1	3,3	3,8	3,3	3,5	3,5	4,6
KPI (urteko batez bestekoen aldaketa) 2006ko oinarria	3,7	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1	—	—	—	—

(a) aurrerapena. (I) BPGren hazkundeari egindako ekarpenaren ehuneko puntuak. (2) ez dago arduraldi osoko enpleguari buruzko informaziorik. (3) Aldaketa metodologiko baten eraginez, 2002 baino lehenagoko eta geroko datuak ezin dira konparatu. Iturria: Kontu Ekonomikoak (2008ko iraila) eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak-2005eko oinarria (Eustaten behin-behineko datuak: 2009ko otsaila). BJA eta INE.

¹ 2005eko 2. hiruhilekotik, Hiruhileko Kontu Ekonomikoak eta Urteko Koiuntura Ekonomikoak neurteta-metodo berria erabili dute, eta horrek ordeztu egin ditu orain arte erabilitako oinarri finkoko prezio arrunteko edo bolumeneko balioak. Metodologia berriarekin, aldi bakoitzeko agregatuen hazkundeak ez da oinarri-urteko prezioetara deflatatzen, aldi bakoitzean agregatuen balioa aurreko urteko prezioetan adierazten baita, eta, beraz, oinarria mugikorra da. Oinarri mugikor horrekin indize-zenbakien aldi baterako seriea lortzen da, iBolumen Kateatuko Indize izenekoa.

Eskariari dagokionez, jardueraren beherakada barruko eskaria erortzearen ondoriozkoa izan da; hain zuzen ere, %1,9ko hazkunde-tasa izan du, 2007ko hazkunde-tasa (%4,4) baino 2,5 puntu txikiagoa, kontsumo pribatuak behera egitearen (%1,1) eta aurreko urtean %3,4) eta inbertsioa murriztearen eraginez (%1,4ko hazkunde eta aurreko urtean %5,5ekoa).

Bi aldagai horien (kontsumo pribatua eta inbertsioa) hiru hileko hazkunde-profila beheranzkoa izan da, eta negatiboa ere bai, urteko laugarren hiru hilekoan.

Azken kontsumoaren aldaketak, beraz, bi alde desberdin ditu. Familien (kontsumo pribatua) azken kontsumoan gastuak gora egin du, eta Herri Administrazioen (kontsumo publikoa) gastuaren hazkunde azeleratu egin da; izan ere, barruko eskariaren osagairik dinamikoena da.

Kanpoko eskariari dagokionez, esportazioek² inportazioek³ baino bilakaera positiboagoa izan dute. Lehenengoek %4,5eko hazkunde izan dute, eta bigarrenek %4,2koa; horrenbestez, kanpoko merkataritzak hamarren leku murriztapena izan du BPGren hazkunderan.

Eskaintzaren aldetik, hazkundearen oinarria zerbitzuen sektorean dago, batez ere merkaturako ez diren kasuan, eta %7,3ko hazkunde-tasa egon da. Bestalde, merkaturako zerbitzuen hiru hileko hazkunde-profila beheranzkoa da, lehenengo hiru hileko %3,3tik laugarren hiru hileko %1,6ra, eta urteko

batez besteko hazkunde %2,5ekoa izan da. Sektorearen hazkunde orokorra %3,3koa izan da.

Jardueraren beherakada oso handia izan da eraikuntzan eta industrian. Eraikuntzak %0,1eko urteko batez besteko hazkunde izan du, eta industriak, berriz, zero hazkundetik gora amaitu du urtea, baina horren hiru hileko profila beheranzkoa izan da: lehenengo hiru hilekoan %2,3ko hazkunde izan du, eta laugarrenean, ostera, %2,8ko murriztapena.


BEGen hazkunde aurreko urtekoa baino 2,2 puntu txikiagoa izan da (hurrenez hurren, %2 eta %4,2).

Enpleguak, Kontu Ekonomikoen arabera, hiru hileko %2ko beheranzko hazkunde izan du, 2008ko lehenengo hiru hilekoan, eta %0,1ekoa laugarren hiru hilekoan. Urteko batez besteko hazkunde %1,1ekoa izan da, eta, hain zuzen ere, 10.671 enplegu sortu dira (urteko batez bestekoa 1.025.768 enplegukoa izan da). Langabezia-tasak, EUSTATen BJaren datuek diotenez, aurreko urtekoa baino handiagoa izan da (%3,3tik %3,8rako gorakada). Bestalde, lanaren ageriko produktibitateak 3 hamarrenen murriztapena izan du, %1,2tik %0,9ra.

Bestalde, inflazioak gora egin du. BPGren deflatorea %3koa izan da (aurreko urtean baino 5 hamarren gehiago), eta kontsumoko prezioen urteko batez besteko hazkunde %4,1ekoa izan da (Estatukoaren berdina).

Abenduan, Estatuko KPIk %1,4ko urte batetik besterako aldaketa-tasa izan du, eta Kontsumoko Prezioen Indize Adostuak


II.2.1. Grafikoa. Barruko eta kanpoko eskariak BPGren hazkunderan egindako ekarpena



² Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak salmentak, opariak edo dohaintzak dira; horien bidez, egoiliarrek ondasunak eta zerbitzuak ematen dizkiete ez-egoiliarrei.

³ Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak lorpena, opariak edo dohaintzak dira; horien bidez, ez-egoiliarrek ondasunak eta zerbitzuak ematen dizkiete egoiliarrei.

II.2.2. Grafikoa. Eskaintzaren agregatuen bilakaera (bolumen-indizearen urte batetik besterako aldaketa-tasak)



Iturria: CET, Eustat.

(KPIA)⁴ %1,5eko urte batetik besterako aldaketa-tasa izan du. EAEn kasuan, abenduan KPIk %1,9ko urte batetik besterako aldaketa-tasa izan du.

Prezioei eta produktibitateari buruzko ikerketa zehatzagoa egiteko, prezioei, kosteei, produktibitateari eta errete buruzko kapitulua irakurtzea gomendatzen dugu.

2.2. Barruko eskaria

Lehen esan dugunez, jarduera ekonomikoaren murriztapena barruko eskariak behera egitearen ondoriozkoa da, hori aurreko urtean baino 2,5 puntu gutxiago hazi baita (%1,9 eta %4,4, hurrenez hurren); urtean zehar, hain zuzen ere, dezelerazioa izan du, lehenengo hiru hilabeteak %3,1etik laugarren hiru hilabeteak zero hazkundera.

Hazkunde-eritmoa moteltzea kontsumo pribatuak eta inbertsioak azaltzen dute. Hain zuzen ere, kontsumo pribatuak %1,1eko hazkundera baino ez du izan, aurreko urtean %3,4ko hazkundera izan ondoren, eta inbertsioaren hazkundera %1,4koa izan da, aurreko urtean %5,5eko hazkundera izan ondoren. Izan ere, lehen esan dugunez, horien hazkunde-profila negatiboa izan da urteko laugarren hiru hilabeteak (kontsumo pribatuak %0,4 eta inbertsioak %2,2).

Kontsumo publikoak (Herri Administrazioen gastua), bestalde, urteko %5,9ko batez besteko hazkundera izan du, eta barruko eskariaren osagaririk dinamikoa da. Horrek, hala ere, ez du konpentsatu lehenengo bi aldagaiek izandako murriztapena.

Barruko eskariak BPGren hazkunderari 2008an egindako ekarpena 2007koa baino 2,5 puntu txikiagoa izan da, eta %4,5etik %2ra igaro da.

EUSTATEk eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, kontsumo pribatuaren kointura-adierazle nagusiek egon den murriztapena jarri dute agerian. Horrela, Industria Produkzio Indizearen⁵ urte batetik besterako aldaketa-tasak, kontsumoko ondasunei dagokienez, %6,9ko murriztapena izan du, aurreko urtean %0,3ko hazkundera izan ondoren. Barruko merkataritzaren indizea %3,4ko hazkunde positibotik %3,9ko hazkunde negatibora igaro da, eta, beraz, 73 puntuko beherakada izan du. Azalera handietako salmentek, 2008an, ia %5eko murriztapena izan dute.

Turismoen matrikulazioek %25,2ko murriztapena izan dute, aurreko urtean %2,2ko hazkundera izan ondoren.

Inbertsioari dagokionez, inbertsioko ondasunen Industria Produkzio Indizea %7,3ko hazkunde positibotik %2,2ko negatibora igaro da, eta, beraz, 9,4 puntuko beherakada izan du. Kargako industria-ibilgailuen matrikulazioak %41,2ko murriztapena izan du, 2007an %5,4ko hazkundera izan ondoren. Azkenik, ekipamenduko ondasunen inportazioaren balioak %1,1eko murriztapena izan du, aurreko urtean %14,5eko hazkundera izan ondoren.

Aireko trafikoak, bestalde, %5,6ko murriztapena izan du, aurreko urtean %11,3ko hazkundera izan ondoren, eta hoteletan igarotako gau kopuruak %4,2ko murriztapena izan du.

⁴ KPIA estatistika-adierazlea da; horren helburua inflazioaren batez besteko komuna eskaintzea da, nazioarteko konparazioak egiteko eta, horrela, Maastrichteko Itunak, arlo honetan, Europako Diru Batasunean sartzeko eskatzen duen betetzea aztertzeko. Gogoratu behar da egonkortasun-helburuak urteko %2tik beherako hazkundera ezartzen duela Kontsumoko Prezioen Indize Amortizatuaren (KPIA), euroaren zonarako.


⁵ IPIk industrian (erauzketa-industriak, manufaktura eta elektrizitatearen, uraren eta gasaren produkzioa eta banaketa, eraikuntza izan ezik) sorturiko BPGren zatia bolumenean duen bilakaera neurtzen du. HILren barruan eraikuntza ere sartzen da.

II.2.2. LAUKIA. BARRUKO ESKARIAREN ADIERAZLE BATZUEN BILAKAERA (URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETA TASA)

	2004	2005	2006	2007	2008
Kontsumo publikoaren adierazleak					
HHAk kontsumotzen duten gastua (CETen arabera)	3,7	2,7	4,3	5,5	5,9
Kontsumo pribatuaren adierazleak					
Kontsumo-ondasunen IPI	-0,8	0,5	1,5	0,3	-6,9
Turismoen matrikulazioa	3,9	2,8	-0,9	2,2	-25,2
Barruko merkataritzaren indizea	2,7	0,1	5,9	3,4	-3,9
Azalera handiko salmenta	3,5	8,8	1,7	-0,2	-4,9
Beste batzuk					
Aireko trafikoa	17,1	12	4,1	11,3	-5,6
Hoteletan igarotako gauak	9,5	10,6	10,8	0	-4,2
Inbertsioaren adierazleak					
Inbertsio-ondasunen IPI	4,3	7,2	8	7,3	-2,2
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	14,9	12,0	-5,4	5,4	-41,2
Ekipo-ondasunen inportazioaren balioa	17,5	3,4	6,1	14,5	-1,1

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

II.2.3. Grafikoa. Kontsumitzailearen Konfiantza Indizearen bilakaera



Iturria: Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa

Egoera horri dagokionez, Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioaren Kontsumitzailearen Konfiantza Indizeak (KKI) bilakaera negatiboa adierazten du, 2007ko urteko 96ko batez bestekotik 2008ko 80kora; balio hori 1994koaren (81) eta 1991koaren (79) antzekoa da, eta 1992an (67) eta 1993an (75) bakarrik izan da txarragoa. Horrek agerian jartzen du EAEko kontsumitzaileen ezkortasuna, eta hori EBn ere ikusi da (KKI 96 puntutik 83 puntura igaro da 2007tik 2008ra), baita Espainian ere (87tik 67ra).

Ondoko grafikoa ikusten denez, 2007ko bigarren hiruhileko-tik aurrera, kontsumitzaileen konfiantza murrizten hasi da, bai

Estatuan eta bai EBn, eta 2008ko laugarren hiruhilekoan KKI 55ekoa izan da Estatuan eta 75ekoa EBn. EAEn hobekuntza-txoa egon da 2007ko laugarren hiruhilekoan eta 2008ko lehenengo hiruhilekoan (KKI 88tik 92ra igaro), baina horrek gero berriro ere behera egin du, eta 2008ko laugarren hiruhilekoa 71rekin amaitu da.

Beste modu batera esateko, 2008ko laugarren hiruhilekoa amaitzean, itxaropenak ezkorragoak izan dira EAEn EBn baino, baina Estatuan baino baikorragoak.

EAEko KKIren osagaiak aztertuta ikusten denez (2008), aurrezteko itxaropenak kenduta, gainerako guztiek txarrera egin

II.2.3. LAUKIA. EAE-KO KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ITXAROPEN INDIZEA: OSAGAIK

		ICC	Familien egoera ekonomikoaren itxaropenak (hurrengo 12 hilabeteotan)	Egoera ekonomiko orokorraren itxaropenak (hurrengo 12 hilabeteotan)	Aurrezteko itxaropenak (hurrengo 12 hilabeteotan)	Langabeziaren itxaropenak (hurrengo 12 hilabeteotan)
2005	I	98,0	99,0	94,0	112,0	87,0
	II	100,0	101,0	94,0	113,0	90,0
	III	97,0	103,0	91,0	116,0	77,0
	IV	95,0	97,0	84,0	116,0	81,0
	BEST.	97,5	100,0	90,8	114,3	83,8
2006	I	97,0	96,0	82,0	124,0	85,0
	II	97,0	99,0	89,0	113,0	87,0
	III	94,0	101,0	92,0	102,0	81,0
	IV	97,0	99,0	93,0	105,0	92,0
	BEST.	96,3	98,8	89,0	111,0	86,3
2007	I	99,0	99,0	92,0	107,0	98,0
	II	101,0	95,0	89,0	114,0	107,0
	III	96,0	97,0	89,0	115,0	84,0
	IV	88,0	86,0	76,0	95,0	93,0
	BEST.	96,0	94,3	86,5	107,8	95,5
2008	I	92,0	93,0	81,0	109,0	83,0
	II	80,0	90,0	77,0	92,0	59,0
	III	75,0	86,0	65,0	93,0	57,0
	IV	71,0	79,0	48,0	106,0	50,0
	BEST.	80,0	87,0	68,0	100,0	62,0

Iturria: Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa.

dute. Izan ere, aurrezteko itxaropenen indizeak soilik egin du hobera laugarren hiruhilekoan, hirugarren hiruhilekoari dagokionez (+13), eta 106 punturekin zuhurtasun-egoera gelditu da agerian, ekonomia orokorraren narriadura etxeko ekonomiara eta, batez ere, enplegura iritsiko dela aurreikusita. Beste modu batera esateko, aurreikuspen-aurrezpena da, kontsumoa eta inbertsioa gelditzearen ondoriozkoa, eta ez baliabideen soberakina sortzearen eraginezkoa.

Langabeziako itxaropen-indizera itzulita (2008ko laugarren hiruhilekoan 50 puntu), esan behar da azken hamar urteotako itxaropenik txarrena izan duela, eta 43 puntu galdu ditu, 2007ko laugarren hiruhilekoari dagokionez.

Azkenik, inflazioaren bilakaerari buruzko itxaropenen kasuan (elementu hori ez da aintzat hartzen KKI egiteko), esan behar da onak direla: hobera egin dute (72 puntutik 89ra), petrolioaren prezioak behera egitearen ondorioz.

2.3. Kanpoko sektorea

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako behin-behineko datuek (2009ko otsailean argitaratuta, eta *Estatuko* eta *munduko gainerako eskualdeetako* ondasunen eta zerbitzuen salmentei buruzkoak) agerian jarri dutenez, esportazioak urteko %4,5eko batez besteko hazkunde erreala izan du (2007ko tasa baino 3,1 puntu txikiagoa), eta inportazioak %4,2eko hazkunde (aurreko urtean baino 3,4 puntu


txikiagoa). Bi aldagaion hiruhileko bilakaera-profila antzekoa da. Esportazioek %7ko hazkundearekin hasi dute lehenengo hiruhilekoa, hori bigarreanean %9,1era hazi da, eta hortik aurrera hazkunde-erritmoa moteltzen hasi da; laugarren hiruhilekoa %3,8ko murriztapenarekin amaitu da. Inportazioek, bestalde, %6,6ko hazkundearekin hasi dute lehenengo hiruhilekoa, bigarreanean %8,4ra igaro dira, eta gero, hazkunde-erritmoa moteldu egin da; laugarren hiruhilekoa %4,2ko murriztapenarekin amaitu dute.

EAEko ekonomiaren irekiera mailak⁶ (harremanak Estatuarekin eta atzerriarekin) gorantz jarraitu du, eta %138,6tik %139,9ra igaro da; gauza bera gertatu da ondasunak eta zerbitzuak inportazioarekin estaltzeko mailarekin, horrek 2 hamarreneko hazkunde izan baitu (%91,5etik %91,7ra).

Kanpoko Merkataritzaren estatistikak ondasunen atzerriko merkataritzari buruz eskainitako datuek agerian jarri dutenez, esportazioen balioak 2008an %4,3ko hazkunde izan dute, 2007ko hazkunde baino 10,3 puntu txikiagoa; hain zuzen ere, energetikoei %18,9ko hazkunde izan dute, eta ez-energetikoei (guztizkoaren %91) %3ko hazkunde. Bestalde, inportazioek %6,3ko hazkunde izan dute (2007an baino 1,9 puntu gutxiago); inportazio energetikoei (guztizkoen %35,3) %22,8ko hazkunde izan dute (aurreko urtean %3,2ko murriztapena), eta ez-energetikoei %0,9ko murriztapena (2007an %14,5eko hazkunde).

⁶Prezio korronteko esportazioen eta inportazioen batuketaren ehunekoa prezio korronteko BPGn.

II.2.4. Grafikoa. EAEko kanpoko sektorearen bilakaera (Bolumen-indizearen urte batetik besterako aldaketa-tasa. Zuzendutako datuak)



Datu horietan oinarrituz, esan daiteke EAEko ekonomiaren irekiera maila (harremanak atzerriarekin) %57,6tik %57,8ra igaro da, eta ondasunek eta zerbitzuek inportazioarekin duten estaldura maila %100,9tik %98,9ra igaro da.

EAEko esportazio ez-energetikoen muga-zerga taldeen araberako azterketak agerian jarri duenez, ekipamenduko ondasunak berriro nabarmendu dira, esportaturiko guztia %41,4rekin (makinen eta aparatuen kasuan 4.220,8 milioi, eta garraio materialean 4.005,3 milioi euro). Hala ere, eta aurreko urtean gertaturikoaren alderantziz, ekipamenduko ondasunek %1,5eko murriztapena izan dute, garraio materialaren esportazioak izandako beherakadaren ondorioz (%-6), makinen eta aparatuen atalak %3,2ko hazkundea izan baitu (aurreko urtean %18,1). Bigarrenez, metal komunak eta horien manufakturen esportazioa nabarmendu da (guztizkoaren %29,8), hazkunde-tasa handiak mantenduta, tasa horiek aurreko urtekoak baino txikiagoak izan arren: 2007an %20,9ko hazkundea eta 2008an %13,5koa. Hirugarrenez, plastikoen eta kautxuaren esportazioa dago, guztizkoaren %6,7arekin, baina aurreko urtetik %4ko murriztapena izan du.

Inportazio ez-energetikoei dagokionez, berriro ere aipatzekoak dira metalak eta horien manufakturek, inportazio guztien %25,2rekin, baina aurreko urtetik %1,8ko murriztapena izan dute. Bigarrenez, ekipamenduko ondasunak inportazio guztien %20,6ra iritsi dira, eta %0,8ko murriztapena izan dute, garraio materialaren inportazioak izandako %-6,5eko beherakadaren ondorioz, makinen eta aparatuen inportazioak %2,6ko hazkundea izan baitu. Gainerako muga-zergen kasuan, beherakada handiagoak egon dira paperaren (%-5,1) eta plastikoen eta kautxuaren (%-2,4) inportazioetan, eta aipa-

tzeak da produktu kimikoen inportazioek izandako %+25,2ko hazkundea.

Kanpoko saldoak, aurreko urtean superabita izan ondoren (170,1 milioi euro, BPGren %0,3), defizita izan du: -213,9 milioi euro (BPGren %0,3).

Ondasun eta produktu energetikoen eta ez-energetikoen be-reizita ondorioztatzen denez, saldo energetikoen defizita izan du (-5.314,4 milioi euro). Aldiz, produktu ez-energetikoen saldoak 5.100,4 milioi euroko superabita izan du; hain zuzen ere, BPGren %7,4 izan da, eta ratio hori aurreko urteko %6,8koa baino 6 hamarren handiagoa da.

EAEko esportazio ez-energetikoen harrerako eremu geografikoen arabera, ELGAra eta, eremu horren barrura, EB-15era doazenak dira berriro garrantzitsuenak, eta guztizkoaren %64,7ra heldu dira; hain zuzen ere, %4,8ko hazkunde-tasa izan dute. Aipagarriak dira Frantziara, Alemaniara, Italiara eta Erresuma Batura egindako esportazioak, EAEk EB-15era egindako esportazio guztien %74,6 izan baitira. Hala ere, beherakadak egon dira Italiarako (aurreko urteko joerari jarraituz) eta Erresuma Batuetarako esportazioetan.

Estatu kide berrietara egindako esportazioari dagokionez (%+0,5), aipatzekoak dira Poloniara egindakoak (guztizkoaren %38,2), aurreko urtekoen aldean %5,4ko murriztapena izan duten arren.

ELGAren eremuan, baina EBtik kanpo, gora egin dute Japoniarako (%44) eta, neurri txikiagoan, AEBetarako (%+18,6) esportazioek; Mexikorakoek, oster, %-36,1eko murriztapena izan dute.

ELGAtik kanpo, aipatzekoak dira, hazkunde-tasa handiak aintzat hartuta, Errusiarako (%+50,5) eta, neurri txikiagoan, txinarrako

II.2.4. LAUKIA. EAE-K ATZERRIAREKIN DUEN ONDASUNEN ETA ZEBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA
(euroak milioitan) (muga-zerga taldeen arabera sailkapena)

MUGA-ZERGA TALDEAK	ESPORTAZIOAK					IMPORTAZIOAK					SALDOA		
	2006	2007	2008 p	Var.	07-08	2006	2007	2008 p	Var.	07-08	2006	2007	2008 p
	miloiak	miloiak	miloiak	%berti.		miloiak	miloiak	miloiak	%berti.		miloiak	miloiak	miloiak
Guztira	16.647,4	19.072,7	19.888,4	100,0	4,3	17.478,1	18.902,7	20.102,3	100,0	6,3	-830,7	170,1	-213,9
Energetikoak (Produktu eta mineral energetikoak)	1.334,5	1.501,5	1.785,8	9,0	18,9	5.975,4	5.783,8	7.100,2	35,3	22,8	-4.641,0	-4.282,3	-5.314,4
Ez-energetikoak	15.312,9	17.571,3	18.102,6	91,0	3,0	11.502,7	13.118,9	13.002,1	64,7	-0,9	3.810,3	4.452,4	5.100,5
Nekazaritza-produktuak	534,5	621,6	647,7	3,3	4,2	812,1	863,4	894,8	4,5	3,6	-277,6	-241,8	-247,0
Produktu kimikoak	426,3	403,5	414,7	2,1	2,8	541,1	487,4	610,0	3,0	25,2	-114,8	-83,9	-195,4
Plastikoak eta kautxua	1.370,5	1.395,7	1.339,4	6,7	-4,0	792,1	868,3	847,5	4,2	-2,4	578,4	527,4	491,9
Papera	452,3	489,1	503,3	2,5	2,9	368,5	403,3	382,6	1,9	-5,1	83,8	85,8	120,7
Metal arruntak eta horien manufaktura	4.321,4	5.222,5	5.928,5	29,8	13,5	4.287,9	5.161,7	5.069,6	25,2	-1,8	33,4	60,8	858,9
Ekipo-ondasunak	7.246,0	8.350,5	8.226,1	41,4	-1,5	3.641,9	4.168,3	4.134,7	20,6	-0,8	3.604,1	4.182,2	4.091,4
Makinak eta aparatuak	3.463,7	4.089,7	4.220,8		3,2	2.469,1	2.617,8	2.684,9		2,6	994,6	1.471,9	1.535,9
Garraioko materiala	3.782,3	4.260,8	4.005,3		-6,0	1.172,8	1.550,5	1.449,8		-6,5	2.609,5	2.710,3	2.555,5
B. manufaktura batzuk	812,0	933,8	924,1	4,6	-1,0	1.039,6	1.148,9	1.041,8	5,2	-9,3	-227,6	-215,1	-117,7
Sailkatu gabe	150,0	154,6	118,8	0,6	-23,1	19,5	17,7	21,2	0,1	20,0	130,5	136,9	97,6

b behin-behinekoak.

Iturria: Eustat. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika


II.2.5. LAUKIA. EAE-KO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN KANPOKO MERKATARITZA, EREMU GEOGRAFIKOEN
ARABERA (euroak milatan) (muga-zerga taldeen arabera sailkapena)

	ESPORTAZIOAK				IMPORTAZIOAK				SALDOA		
	2006	2007	2008 b	Aldak. 07-08	2006	2007	2008 p	Aldak. 07-08	2006	2007	2008 b
Guztira	15.312.931	17.571.267	18.102.599	3,0	11.502.673	13.118.893	13.002.098	-0,9	3.810.258	4.452.374	5.100.501
ELGA	12.798.450	14.103.178	14.281.795	1,3	8.656.647	9.834.132	9.593.557	-2,4	4.141.803	4.269.046	4.688.238
EB-15	10.538.456	11.568.038	11.716.174	1,3	7.554.811	8.453.098	8.144.999	-3,6	2.983.645	3.114.940	3.571.175
Alemania	2.525.671	2.918.840	3.060.292	4,8	1.793.956	2.437.592	2.420.647	-0,7	731.715	481.248	639.645
Austria	204.704	204.704	179.547	-12,3	138.733	149.006	201.882	35,5	65.971	55.698	-22.335
Belgika	505.129	695.727	807.199	16,0	410.237	443.645	406.006	-8,5	94.892	252.082	401.193
Frantzia	2.989.453	3.181.453	3.298.690	3,7	1.729.787	1.879.120	1.901.634	1,2	1.259.666	1.302.333	1.397.056
Italia	1.400.249	1.378.714	1.323.123	-4,0	1.117.294	1.263.817	1.198.271	-5,2	282.955	114.897	124.852
Luxenburgo	19.888	23.455	24.818	5,8	36.111	26.192	30.839	17,7	-16.223	-2.737	-6.021
Portugal	739.436	839.995	915.295	9,0	284.727	291.751	277.717	-4,8	454.709	548.244	637.578
Erresuma B.	1.110.949	1.217.892	1.055.232	-13,4	944.859	809.751	632.972	-21,8	166.090	408.141	422.260
EBKB	715.205	920.428	924.731	0,5	328.838	377.555	413.350	9,5	386.367	542.873	511.381
EB-25	11.155.544	12.377.553	12.509.324	1,1	7.832.401	8.772.921	8.504.981	-3,1	3.323.143	3.604.632	4.004.343
Polonia	265.197	373.991	353.704	-5,4	69.032	87.125	113.683	30,5	196.165	286.866	240.021
EB-27	11.253.661	12.488.466	12.640.905	1,2	7.883.649	8.830.653	8.558.349	-3,1	3.370.012	3.657.813	4.082.556
ELGA, ez EB	1.716.380	1.812.419	1.860.196	2,6	894.585	1.124.445	1.155.885	2,8	821.795	687.974	704.311
AEB	641.898	590.936	701.063	18,6	289.577	366.814	373.027	1,7	352.321	224.122	328.036
Japonia	52.780	52.104	75.055	44,0	157.153	168.409	165.357	-1,8	-104.373	-116.305	-90.302
Mexiko	321.227	405.259	259.052	-36,1	13.485	36.102	38.123	5,6	307.742	369.157	220.929
EEEH	129.585	142.634	166.388	16,7	66.215	100.114	79.817	-20,3	63.370	42.520	86.571
AED	179.783	197.097	238.447	21,0	312.496	349.929	354.940	1,4	-132.713	-152.832	-116.493
MERCOSUR	263.222	363.478	429.592	18,2	218.589	190.234	214.635	12,8	44.633	173.244	214.957
Brasil	201.287	294.302	332.540	13,0	189.536	159.429	159.185	-0,2	11.751	134.873	173.355
Errusia	96.686	139.377	209.700	50,5	430.364	460.033	485.311	5,5	-333.678	-320.656	-275.611
txina	248.746	300.102	391.931	30,6	782.336	1.139.568	1.111.992	-2,4	-533.590	-839.466	-720.061

b. behin-behineko datuak EBKB: Ebko Kide Berriak. MERCOSUR: Hegoaldeko Amerikako Merkatu Batua. EEEH: Erdialdeko eta Ekialdeko Europako Herriak. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak.

Iturria: Eustat. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika.

II.2.5. Grafikoa. EAEko Kanpoko Merkataritzaren bilakaera, eduki teknologikoaren arabera euroak milioietan



b: behin-behineko datuak. Iturria: Eustat

II.2.6. LAUKIA. KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA EAE-N, MAILA TEKNOLOGIKOAREN ARABERA

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008 b
Esp. guztira (€-ak milioitan)	9.698	9.927	11.672	11.355	11.416	11.577	13.301	14.049	16.351	18.710	19.511
% maila teknologiko altuko eta ertaineko esp., guztizkoarekiko	51,7	55,5	50,8	52,0	51,1	52,5	51,4	51,1	47,8	46,5	45,3
% maila teknologiko altuko esp., guztizkoarekiko	3,2	5,0	4,3	4,0	3,4	4,8	2,9	2,3	1,9	2,2	2,3
Inp. guztira (€-ak milioitan)	5.883	6.399	7.795	7.692	8.040	8.211	9.701	10.633	12.756	14.773	14.618
% maila teknologiko altuko eta ertaineko inp., guztizkoarekiko	44,3	48,9	47,0	45,9	44,4	42,6	42,1	40,1	36,4	34,4	35,3
% maila teknologiko altuko inp., guztizkoarekiko	3,8	5,3	4,5	4,3	4,0	3,6	3,6	3,5	3,4	3,0	3,5

Iturria: Eustat.

(%+30,6) esportazioak, baita Asiako Ekonomia Dinamikoetara egindakoak ere (AED: %+21). Bestalde, MERCOSUR eremurako esportazioek ere gora egin dute (aipatzekoa Brasilerakoen %13). Inportazioei dagokionez, gehienak ELGAtik izan dira, eta, hain zuzen ere, EB-15eko herrietatik; batez ere, Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik (EB-15eko inportazio guztien %67,8). Aipagarriak dira Austriatik (%+35,5), Poloniatik (%+30,5) eta Luxenburgotik (%17,7) iritsitako inportazioen hazkundera; Alemaniatik, Belgikatik, Italiatik, Portugaletik eta Errusuma Batutik iritsitakoek, berriz, behera egin dute. ELGaren eremuan, baina EBtik kanpo, aipagarria da Japoniatik iritsitako inportazioek izandako %-1,8ko murriztapena. ELGaren eremutik kanpoko jokabideari dagokionez, aipatzekoa da erdialdeko eta ekialdeko Europako herrietatik (EEEH) heldu-

tako inportazioen beherakada (%-20,3), baita txinatik (%-2,4) eta Brasiletik (%-0,2) iritsitakoek beherakada ere. Halaber, Errusiatik iritsitakoek %+5,5eko hazkundera izan dute. Azkenik, EAEko kanpoko saldo ez-energetikoa hobetu egin da, eta 2007ko 4.452,4 milioi euroko superabitetik 2008ko 5.100,5eko superabitera igaro da, honako hauekiko kanpoko merkataritzak izandako bilakaera onari esker: Alemania, Belgika, Portugal, Errusuma Batua, EEEHak eta MERCOSUR. Hala ere, merkataritza-saldo negatiboak egon dira Japoniarekin, AEDekin, Errusiarekin eta txinarekin. Horren ondorioz, ondasun ez-energetikoen estaldura-tasak %133,9tik %139,2rako hazkundera izan du 2007tik 2008ra. Bestalde, beste sailkapen mota baten arabera, hau da, maila teknologikoa aintzat hartuta, ikusten da 2004tik teknologia

maila ertain-altuko eta altuko esportazioek garrantzia galdu dutela esportazio guztien artean, maila ertain-baxukoen eta baxukoen mesedetan. Hala ere, azterketa horretan sakonduta ikusten denez, hau da, altua eta ertain-altua bereizita ikusten denaren arabera, 2007tik 2008ra gorakadaxoa egon da eduki teknologiko altuko ondasunen eta zerbitzuen esportazioetan, esportazio guztiei dagokienez; hain zuzen ere, %2,2tik %2,3ra igaro dira.

Inportazioen kasuan, 2007tik 2008ra, maila teknologiko ertain-altukoaren eta altukoaren garrantziak gora egin du, inportazio guztiei dagokienez; eta, altukoak eta ertain-altukoak bereizita ikusten denaren arabera, maila teknologiko altukoak %3tik %3,5erako hazkundea izan dute.

2.4. Atzerriko inbertsioa

Atzerriko inbertsioa EAE

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren Atzerriko Inbertsioen Erregistroko datuen arabera, EAEko atzerriko inbertsioak beherakada nabaria izan du, 2008ko behin-behineko datuak aztertuta ikusten denez (urtarrila-abendua). Guztira, EAEk jasotako atzerriko inbertsio gordina 333,7 milioi eurokoa izan da, eta, atzerriko balioak dituzten enpresak (ABDE) kenduta, 239,6 milioi euro dira. Horrela, EAEko atzerriko inbertsio gordinaren jarioak, ABDEak kenduta, %82,3ko murriztapena izan du.

Estatuan atzerriko inbertsioak (ABDEak kenduta) %2,5eko murriztapena izan du 2007tik 2008ra, eta EAEk guztizko horretan duen ehunekoa %4,6koa izan da 2007an eta %2,5koa 2008an. Madriliko Erkidegoak jasotako inbertsioa kenduta,

ehunekoa %4,8koa da, baina 2007tik 2008ra aipaturiko %19,8tik %4,8ra murriztuta.

Horrela, 2008an EAE bosgarren postuan egon da inbertsioen bolumenaren arloan, honako hauen atzetik: Madril (23.802,7


II.2.7. LAUKIA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* AAEE-EN ARABERA (euroak milioitan)

	2004	2005	2006	2007	2008 b
GUZTIRA	8.907,3	13.717,5	9.853,3	29.537,8	28.792,9
EAE	291,2	190,4	306,3	1.351,4	239,6
Andaluzia	313,1	307,8	244,3	245,8	196,2
Aragoi	43,4	57,1	91,4	208,8	99,1
Kantabria	24,7	1,1	4,5	59,4	46,5
Gaztela eta Leon	3,7	24,0	35,7	23,2	45,7
Gaztela-Mantxa	28,4	30,0	261,8	22,2	88,9
Katalunia	1.544,7	2.212,3	2.592,8	2.597,8	2.124,4
Madril	3.522,3	3.959,1	4.218,0	22.714,2	23.802,7
Valentzia	682,4	218,6	162,7	1.740,4	256,2
Extremadura	3,8	8,9	3,9	3,7	4,9
Galizia	391,0	205,4	96,1	50,1	22,5
Balearrak	125,5	212,0	116,8	144,4	504,8
Kanariak	338,7	26,7	41,3	127,9	17,5
Errioxa	1,6	3,8	0,5	2,8	0,4
Nafarroa	21,4	11,3	136,5	9,6	15,9
Asturias	696,0	8,3	32,6	8,3	7,0
Murtzia	323,5	41,5	113,3	42,3	189,1
Ceuta eta Melilla	16,7	5,4	8,9	2,6	0,6
Esleipen barik	535,4	6.193,8	1.385,7	182,7	1.130,9

* ABDEak kenduta.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa.

II.2.6. Grafikoa. Atzerriko inbertsio gordina* EAE



*ABDEak kenduta.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

milioi, ABDEak kenduta), Katalunia (2.124,4 milioi euro), Balearrak (504,8) eta Valentzia (256,2 milioi euro). 2007an EAE laugarren postuan egon zen inbertsioen bolumenean, Madrilen, Kataluniaren eta Valentziaren atzetik, eta 2006an hirugarren postuan, Madrilen eta Kataluniaren atzetik.

Beharakada hori, bestalde, honako hauetan izandako murriztapenen ondoriozkoa da:

- Eraikuntza-sektorea,
- finantza-bitartekotza, banka eta aseguruak
- salmenta eta merkataritza, eta
- makineria eta ekipamendu mekanikoa eraikitzeke industria, hain zuzen ere, *ibulegoko makineriaren fabrikazioa* eta, neurri txikiagoan, *imaterial elektrikoaren fabrikazioa* azpisektoreetan.

Aipagarriak dira, guztizkoaren barruan duten garrantzia aintzat hartuta: Higiezin agentzietan eta zerbitzuetan egindako inbertsioak, sektore horrek, hain zuzen ere, EAEko inbertsioen %53,6 jasotzen baitu (Estatuan sektore horretan egindako inbertsio osoaren %6,5); Garraioan eta komunikazioetan egindako inbertsioak (EAEko inbertsioen %20,9 eta Estatuan sektore horretan egindako inbertsioen %6,4); Metalurgian eta metalezko produktuen fabrikazioan egindako inbertsioak (EAEko inbertsioen %6,1 eta Estatuan sektore horretan egindakoaren %27,4); Ehungintzan egindako inbertsioak (EAEko inbertsioen %5,8 eta Estatuan sektore horretan egindako inbertsioen %39,7); eta Makineria eta ekipamendu mekanikoa eraikitzeke industrian egindako inbertsioak (EAEko inbertsioen %4,6 eta estatuan sektore horretan egindako inbertsioen %3,6).

II.2.8. LAUKIA. EAE-KO INBERTSIO GORDINA SEKTOREAREN ETA HERRIAREN ARABERA (€-ak milatan)

		2006	2007	2008 b	Estatua 2008 b	EAEko banak.	% Estat.	%06- 07	%07- 08
Nek., Abel., Eh., Bas. eta Arrantza		1.257,2	1,2	18,0	60.682,9	0,0	0,0	-99,9	1.400,0
Elek., gas. eta uraren prod./banaketa		303,0	15.327,5	12.120,2	7.863.808,0	5,1	0,2	4.958,4	-20,9
Erauzketa-indus., petrolio finntzea		0,0	0,0	6,0	93.118,9	0,0	0,0	—	—
Janariak, Edariak eta Tabakoa		22.197,8	0,0	3.007,0	59.638,0	1,3	5,0	-100,0	—
Ehungintza		80,0	0,0	13.808,6	34.779,8	5,8	39,7	—	—
Papera, edizioa eta arte grafikoak		0,0	3,0	6,0	31.264,2	0,0	0,0	—	—
Ind. kimik. eta kautxuaren eta plastikoen transf.		681,5	93,9	3.697,9	195.585,8	1,5	1,9	-86,2	3.838,9
Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa		169.069,1	1.703,0	14.595,6	53.273,5	6,1	27,4	-99,0	757,0
Eraikuntza, makineria eta ekip. mekanikoa		8.541,1	30.886,5	10.940,8	307.531,3	4,6	3,6	261,6	-64,6
Altzarien fabrik., beste manufaktura-industria batzuk		280,0	3,8	3,0	68,7	0,0	4,4	-98,7	-20,0
Beste manufaktura batzuk		0,0	0,0	334,9	9.315,3	0,1	3,6	—	—
Eraikuntza		15,1	1.231.278,7	166,0	412.136,7	0,1	0,0	8.137.895,2	-100,0
Salmenta eta Merkataritza		15.627,0	18.897,2	2.024,5	13.542.309,5	0,8	0,0	20,9	-89,3
Ostalaritza		1.891,4	8,9	9,6	215.699,7	0,0	0,0	-99,5	7,9
Garraioa eta komunikazioak		7.823,2	9.403,4	50.101,0	782.705,9	20,9	6,4	20,2	432,8
Finantza-bitartekotza, banka eta aseguruak		47,4	5.541,7	295,3	2.704.636,1	0,1	0,0	11.598,6	-94,7
Higiezin agentziak eta zerbitzuak		78.396,9	38.263,9	128.400,9	1.964.293,0	53,6	6,5	-51,2	235,6
Beste batzuk		124,2	6,1	15,0	462.016,6	0,0	0,0	-95,1	146,0
Inbertsioa guztira		306.335,0	1.351.418,7	239.550,3	28.792.863,9	100,0	0,8	341,2	-82,3
Inbertsioaren azken titularraren herria	O.C.D.E.	117.374,7	754.178,9	238.552,7	28.134.032,3	99,6	0,8	542,5	-68,4
	EB-15	93.413,1	726.235,1	229.177,6	26.764.070,2	95,7	0,9	677,4	-68,4
	EB-27	93.422,2	726.450,4	229.267,2	26.844.429,6	95,7	0,9	677,6	-68,4
	IPAR AMERIKA	3.903,0	20.831,1	2.803,4	582.095,5	1,2	0,5	433,7	-86,5
	KANADA	—	15.289,5	90,2	134.069,2	0,0	0,1	—	—
	AEB	3.903,0	5.541,7	2.713,2	448.026,4	1,1	0,6	42,0	-51,0
	LATINOAMERIKA	188.557,3	6.213,8	7.049,1	229.449,2	2,9	3,1	-96,7	13,4
	ARGENTINA	—	199,0	4,0	3.784,6	0,0	0,1	—	—
	BRASIL	166.208,0	770,0	507,9	6.936,4	0,2	7,3	-99,5	-34,0
	txILE	24,0	—	60,1	1.955,8	0,0	3,1	-100,0	—
	MEXIKO	13,0	5.086,4	6.230,7	98.526,1	2,6	6,3	38.996,4	22,5
	ASIA ETA OZEANIA	146,34	592.465,2	14,3	197.643,4	0,0	0,0	40.385,5	—
	txINA	—	477,5	—	1.016,1	0,0	0,0	—	—
	INDIA	—	591.849,8	—	24.725,5	0,0	0,0	—	100,0
	JAPONIA	1.329,3	—	13,0	72.748,0	0,0	0,0	100,0	—
	AFRIKA	15	—	—	191.590,2	0,0	0,0	-100,0	—
	ZERGA PARADISUAK	408,4	3.564,5	94,7	323.275,3	0,0	0,0	772,8	-97,3

(*) Inbertsio Gordina ABDEak kenduta. b. Behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren weben.

Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, inbertsioaren azken titularrara bizi den herria, kasu guztien %95,7an, EB-15ean dago (guztira, 229,2 milioi euro), eta inbertsio horiek garrantzia hartu dute guztizkoari dagokionez.

Estatuko gainerako eskualdeek Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten inbertsioa kenduta (49,4 milioi euro), EB-15eko herri inbertitzaile nagusiak Herbehereak (88,9 milioi euro), Alemania (65,6 milioi) eta Italia (6,1 milioi euro) dira.

EAEko inbertsioa atzerrian

EAEk atzerrian egindako inbertsioa, ABDEak kenduta, 2007 baino lehenagoko mailetara itzuli da, eta 28.243,4 milioi euroetatik 4.483,4 milioi euroetara murriztu da. Estatukoak ere behera egin du, eta 95.712,4 milioi eurotik 28.902,6 milioi eurora igaro da.

Aurreko urtean ez bezala, urte horretan EAE Estatuko bigarren autonomia-erkidegoa izan baitzen Madrilen atzetik (atzerrian egindako inbertsioaren arloan), 2008an laugarren postuan egon da, Kantabriaren (5.224,8 milioi)⁷, Kataluniaren (5.898,3 milioi) eta Madrilen (9.370,5 milioi) atzetik.

Horrela, EAEk atzerrian egindako inbertsioa Estatuko guztizkoaren %29,5 izatetik (Madril kenduta %46,1) %15,5 izatera igaro da (Madril kenduta %23), 2007tik 2008ra. 2006an ehunekoak %4,5 eta %16,5 izan ziren.

Sektoreka, eta energiaren sektorea alde batera utzita, aipagarriak dira Banka eta finantza-bitartekotza (EAEko kanpoko inbertsioaren %25,9 eta Estatuak sektore horretan atzerrian egindakoaren %7,7) eta Higiezinaren agentziak eta zerbitzuak

(hain zuzen ere, ibeste enpresa-jarduera batzuk⁸ adarra: EAEk atzerrian egindako inbertsioaren %1,3 eta Estatuak sektore horretan atzerrian egindako inbertsioaren %2,1).

Bigarren taldea honako hauek osatzen dute: Salmenta eta merkataritza (EAEk atzerrian egindako inbertsioaren %0,9


II.2.9. LAUKIA. EAE-K ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA* (euroak milioitan)

	2004	2005	2006	2007	2008 b
GUZTIRA	37.856,70	30.545,27	61.200,55	95.712,38	28.902,64
EAE	3.745,16	1.557,94	2.735,35	28.243,35	4.483,42
Andaluzia	171,69	849,48	433,28	482,66	155,96
Aragoi	4,84	65,83	78,71	149,80	50,42
Kantabria	13.058,23	169,80	4.573,39	21.208,12	5.224,82
Gaztela eta Leon	50,67	186,18	70,57	102,20	125,61
Gaztela-Mantxa	4,40	49,00	11,49	157,21	89,95
Katalunia	5.136,52	2.888,50	6.224,48	6.908,12	5.898,26
Madril	14.898,36	22.840,99	44.615,91	34.450,21	9.370,47
Valentzia	140,61	266,66	259,69	746,66	1.310,53
Extremadura	1,50	4,84	10,22	131,12	1,57
Galizia	506,47	1.149,21	1.236,14	1.525,04	644,36
Balearrak	36,64	292,85	395,40	1.464,26	1.425,21
Kanariak	10,60	1,03	77,19	4,92	48,06
Errioxa	6,17	0,53	4,30	1,23	0,69
Nafarroa	35,35	79,28	206,49	15,58	5,13
Asturias	1,96	5,48	120,39	14,52	3,52
Murtzia	47,52	137,68	147,56	107,38	64,66

* ABDEak kenduta.

Iturria: Atzerriko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

II.2.7. Grafikoa. EAEk atzerrian egindako inbertsio gordina*



*ABDEak kenduta
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

⁷ Inbertsio hori desagregatuz ikusten denez, % 96,8 Banka eta beste finantza-bitartekari batzuk sektoreari (65. sektorea) dagokio.

II.2.10. LAUKIA. EAE-K ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA, SEKTOREAREN ETA HERRIAREN ARABERA (€-ak milatan)

	2006	2007	2008 b	Estatua 2008 b	EAEko banak.	% Estat.	%06- 07	%07- 08
Nek., Abel., Eh., Bas. eta Arrantza	423,1	124,4	5.818,0	90.843,5	0,1	6,4	—	—
Elek., gas. eta uraren prod./banaketa	453.362,6	19.309.529,9	3.163.246,6	4.927.773,5	70,6	64,2	4.159,2	-83,6
Erauzketa-indus., petrolio fintzea	0,0	79.309,1	0,0	16.194,1	0,0	0,0	—	—
Janariak, Edariak eta Tabakoa	55.125,5	4.168,5	0,0	96.632,3	0,0	0,0	-92,4	-100,0
Ehungintza	85.726,5	20.057,3	0,0	18.957,9	0,0	0,0	-76,6	—
Papera, edizioa eta arte grafikoak	20,0	0,0	0,0	29.233,4	0,0	0,0	100,0	—
Ind. kimik. eta kautxuaren eta plastikoen transf.	11.174,8	35.315,5	2.482,8	120.693,7	0,1	2,1	216,0	-93,0
Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa	168.935,5	552.583,1	3.230,4	247.633,0	0,1	1,3	227,1	-99,4
Eraikuntza, makineria eta ekip. mekanikoa	24.802,4	297.308,4	15.977,7	232.832,9	0,4	6,9	1.098,7	-94,6
Altzarien fabrik., beste manufaktura-industria batzuk	1.716,8	628,5	0,0	153,1	0,0	0,0	100,0	—
Beste manufaktura batzuk	21.472,7	35.612,4	906,5	2.154.739,9	0,0	0,0	65,8	-97,5
Eraikuntza	12.822,4	12.860,5	30.527,5	378.733,2	0,7	8,1	0,3	137,4
Salmenta eta Merkataritza	20.650,8	11.054,3	42.015,4	2.114.030,1	0,9	2,0	-46,5	280,1
Ostalaritza	0,0	0,0	0,0	128.837,0	0,0	0,0	—	—
Garraioa eta komunikazioak	49.755,0	57.492,3	562,0	445.840,3	0,0	0,1	15,6	-99,0
Finantza-bitartekotza, banka eta aseguruak	1.699.617,2	7.794.236,5	1.162.005,1	15.024.441,0	25,9	7,7	358,6	-85,1
Higiezin agentziak eta zerbitzuak	129.655,9	32.061,6	56.650,0	2.640.652,6	1,3	2,1	-75,3	76,7
Beste batzuk	0,0	1.012,4	0,0	234.417,4	0,0	0,0	100,0	—
Inbertsioa guztira	2.735.346,9	28.243.354,6	4.483.421,9	28.902.639,1	100,0	15,5	932,5	-84,1
O.C.D.E.	2.496.160,95	27.612.820,16	3.789.901,11	24.806.484,69	84,5	15,3	1006,2	-86,3
EB-15	647.255,93	18.874.183,56	479.504,15	13.805.065,60	10,7	3,5	2816,0	-97,5
EB-27	690.822,45	18.933.397,37	543.372,43	14.234.340,65	12,1	3,8	2640,7	-97,1
IPAR AMERIKA	1.685.203,53	8.357.611,00	3.163.799,94	6.575.217,44	70,6	48,1	395,9	-62,1
KANADA	—	—	—	59.574,66	0,0	0,0	—	—
AEB	1.685.203,53	8.357.611,00	3.163.799,94	6.515.642,78	70,6	48,6	395,9	-62,1
LATINOAMERIKA	160.632,61	183.464,26	110.834,43	5.055.939,68	2,5	2,2	14,2	-39,6
ARGENTINA	1.224,20	474.01,88	30,00	161.086,49	0,0	0,0	3772,1	-99,9
BRASIL	8.773,56	35.783,09	6.891,24	573.420,38	0,2	1,2	307,9	-80,7
txILE	—	6.977,72	19.747,24	131.488,44	0,4	15,0	100,0	183,0
MEXIKO	133.255,68	67.824,36	83.603,94	3.305.683,65	1,9	2,5	101,0	23,3
ASIA ETA OZEANIA	18.753,98	505.600,24	662.968,00	1.095.133,03	14,8	60,5	2596,0	31,1
txINA	6.798,04	504.153,35	6.728,81	93.346,49	0,2	7,2	731,6	-98,7
INDIA	84,12	274,92	1.285,06	115.351,58	0,0	1,1	226,8	367,4
JAPONIA	—	—	—	30.069,73	0,0	0,0	—	—
AFRIKA	170.341,96	—	906,45	703.790,77	0,0	0,1	-100,0	—
ZERGA PARADISUAK	11.014,81	493,40	655.516,14	978.652,06	14,6	67,0	-95,5	132.756,9

(*)Inbertsio Gordina ABDEak kenduta. b. Behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren weben.

eta Estatuak sektore horretan atzerrian egindakoaren %2), Eraikuntza-industria (EAEK atzerrian egindako inbertsioaren %0,7) eta Makineria eta ekipamendu mekanikoa eraikitzeke industria (EAEK atzerrian egindako inbertsioaren %0,4 eta Estatuak sektore horretan atzerrian egindako inbertsioaren %6,9). Hirugarren taldean hauexek sartzen dira: Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa (EAEK atzerrian egindako inbertsioaren %0,1 eta Estatuak sektore horretan atzerrian egindakoaren %1,3), eta Industria kimikoa eta kautxuaren eta plastikoen transformazioa (EAEK atzerrian egindako inber-

tsioaren %0,1 eta Estatuak sektore horretan egindako inbertsioaren %2,1).

Herrien arabera, EAEK atzerrian egindako inbertsioaren jasotzaile nagusiak AEBak (EAEK atzerrian egindako inbertsioaren %70,6), Asia eta Ozeania (EAEK atzerrian egindako inbertsioaren %14,8) eta Zerga-paradisuak (inbertsioaren %14,6) dira.

EB-15en barruan, EAEK atzerrian egindako inbertsioaren jasotzaile nagusiak Herbehereak (EAEren inbertsioaren %1,54), Frantzia (%0,09), Erresuma Batua (%0,04) eta Alemania (%0,01) dira.

3. EAEKO SEKTORE PUBLIKOA

EAEko sektore publikoaren jarduerari dagokionez, hasteko, nabarmendu behar dugu 2008an diru-sarrera publikoak %2,3 murriztu direla (aurreko urtean, ordea, %10,5 gehitu ziren). 2008ko jaitzieraren arrazoiak da zeharkako zergen bilketan gutxikuntza egon dela (%-11,5) eta zuzeneko zergetan ere bai, neurri txikiagoan halere (%-1,1). Horrela, EAEko sektore publikoaren diru-sarrera guztiak (14.430 milioi euro), BPGarekin alderatuta, 1,6 puntu murriztu dira: 2007an %22,4 izatetik 2008an %20,8 izatera igaro dira.

Euskal sektore publikoaren gastu osoa, bestalde, %8,1 gehitu da, hau da, aurreko urtean baino 1,4 puntu gutxiago. Gehiago gehitu da Eusko Jaurlaritzan (+%8,5) foru aldundietan baino (+%0,3). Beraz, magnitude hau BPGarekin alderatuta errepresentatzen duen portzentajea sei dezima igo da aurreko urtetik hona, %21,7raino. Horrenbestez, diru-sarreraren beharadadak eta gastuaren gehikuntzak aurrezpen publikoan %54,1eko gutxikuntza ekarri dute (2007an +%8,9), baina 518 milioi euroko defizit publikoa ere (lau urteko superabitaren ondoren), ekitaldiko BPGaren %0,7 alegia.

Bestalde, EAEko sektore publiko osoaren (toki entitateak kontuan izan gabe) zorpetze garbia 2008an gehitu egin da, bi urtez jaitsi ondoren. Urtearen amaieran, zor bizia 2.730 milioi eurokoa zen, 2007an baino %5,6 gehiago beraz.

3.1. Diru-sarrerak

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek likidatutako diru-sarrera guztiak (14.429,676 milioi euro) 2008an %2,3ko gutxikuntza

pairatu dute, aurreko urtean +%10,5eko gehikuntza izan ondoren. Gutxikuntzaren arrazoi nagusia da zeharkako zergen bilketan gutxikuntza bat gertatu dela (%-11,5). Zeharkako zergak eta zuzeneko zergak (%1,1 jaitsi direnak) administrazio hauen diru-sarrera guztien %89 dira.


Gehikuntzak izan dituzten kapituluak dira hauek, Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreraren barruan pisu txikiagoa daukaten arren: transferentzia arruntak (+%29,2) eta ondareko diru-sarrerak (+%67,6), baina inbertsio errealeen besterentzeak ere (+%339,3). Era berean, finantzetako diru-sarrerak %415,8 gehitu dira, batez ere zoraren jaulkipenaren ondorioz, 2007an 59 milioi euro izatetik 2008an 413,5 milioi euro izatera igaro dena.

Orotara, Euskal Sektore Publikoaren diru-sarrerak EAEko BPGaren aldean %20,8ra jaitsi dira 2008an. 2003an %20,7 izan zen, 2004an %21, 2005ean %21,5, 2006an %21,6 eta 2007an %22,4. Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiak bereziz gero, Eusko Jaurlaritzak BPGaren %12,5eko diru-sarrerak izan ditu, eta foru aldundiek BPGaren %20,7.

Lurraldeka, 2007an (hiru foru aldundien informazio ofiziala banakatuta eman zen azken urtea) Arabako Foru Aldundiaren diru-sarreraren gehikuntza nabarmendu behar dugu. %14koa izan zen, zuzeneko eta zeharkako zergen eboluzioa hobea izan zelako beste bi lurraldeetan baino: Bizkaian (+%11,5) eta Gipuzkoan (+%8,7).

Zerga itunduak zuzeneko eta zeharkako diru-sarreraren gehien-goia dira, eta zenbateko osoaren %90 baino gehiago. Zerga itunduen bilketaren xehetasunari dagokionez, 2008rako behin-behineko datuek %6,8ko erorketa erakusten dute, 2007an

II.3.1. Grafikoa. Euskal sektore publikoaren magnitude nagusien bilakaera BPGari dagokionez



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina.

II.3.1. LAUKIA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. 2007-08. Euroak, milaka.

	2007			2008			aldak % 2007-08		
	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP
SARRERAK GUZTIRA	8.998.569	14.711.349	14.773.380	8.679.986	14.342.271	14.429.676	-3,5	-2,5	-2,3
Zuzeneko zergak	—	6.742.758	6.742.758	—	6.671.570	6.671.570	—	-1,1	-1,1
Zeharkako zergak	6.263	6.988.136	6.994.400	5.555	6.181.558	6.187.113	-11,3	-11,5	-11,5
Tasak eta bestelako sarr.	151.561	311.380	462.942	154.951	257.680	412.631	2,2	-17,2	-10,9
Transferentzia arruntak	8.699.954	456.661	279.275	8.006.721	799.252	360.887	-8,0	75,0	29,2
Ondareko sarrerak	87.012	50.542	137.554	180.036	50.507	230.543	106,9	-0,1	67,6
Inbertsio errealeen bester.	528	2.876	3.405	8.803	6.153	14.957	1.567,2	113,9	339,3
Kapital transferentziak	42.720	79.476	62.999	75.880	159.158	87.543	77,6	100,3	39,0
FINAN. EZ SARR. GUZT.	8.988.038	14.631.829	14.683.333	8.431.946	14.125.878	13.965.244	-6,2	-3,5	-4,9
Finantza-aktiboen aldak.	10.530	20.519	31.049	48.040	2.893	50.932	356,2	-85,9	64,0
Finantza-pasib. aldak. (zorra)	—	59.000	59.000	200.000	213.500	413.500	—	261,9	600,8
FINAN. SARR. GUZT.	10.530	79.519	90.049	248.040	216.393	464.432	2.255,6	172,1	415,8
% SARRERA / BPG	13,64	22,31	22,41	12,54	20,72	20,85	-8,1	-7,1	-7,0


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

izandako %9,7ko gehikuntzaren aldean. 2008koaren moduko bilakaera hain negatiboa behin bakarrik gertatu da: 1994an. Arrazoiak, jarduera ekonomikoaren ahuldadea eta gobernuak 2007an eta 2008an onartutako arau-aldaketa eta neurri batzuen eragina.

Urteko azken hilabeteetako bilakaera bereziki negatiboa izan da. Zeharkako zergen erorketa (aurreko hilabeteetan gertatzen ari zena) zuzeneko zergengatik bilketaren jaitsiera gehitu behar diogu. Azken horien artetik PFEZ baztertu behar dugu. Halere, haren bilketaren gehikuntza (%4,5) aurreko ur-

teetakoa baino txikiagoa da, alde batetik 400 euroen kenkari aurreratuaren ondorioz, zerga honen bilketa-ahalmena murriztu duena. Bestalde, sozietateen gaineko zergak balio nahiko negatiboak erakusten ditu (%-16,8), arrazoi ekonomikoengatik, 2007ko zerga-tasaren jaitsieragatik eta zatitutako ordainketak kalkulatzeko sistemaren aldaketagatik, besteak beste.

Analisia zeharkako zergapetzean kokatzen badugu, BEZarekin hasita, esan behar dugu zerga hori, beraren pisu erlatiboa eta jasan duen beherakada garrantzitsua (%-13,3) kontuan izanik, zerga-sarreraren erorketa globalaren oinarritzko elementuetako

II.3.2. Grafikoa. Eusko jaurlaritzaren eta foru aldundien diru-sarreraren bilakaera BPGari dagokionez (%)

batean bihurtu dela. Gastu gehituaren dinamismo galera mai-lakatuak, 2007an hasi zena, zerga-bilketaren jaitsiera azaltzen du neurri handi batean. Halere, finkatutako taldeentzako adierazpen araubide berriak ere kontzeptu horretako diru-sarrerak murrizten lagundu du.

Azkenik, zerga berezien bilketaren eboluzioa (%-0,3) negatiboa izan zen lehendabizi 1997. urteaz geroztik (foru aldundiak urte hartan hasi ziren zerga hau kudeatzen). Bilakaera nega-

tibo honen arazoia da bere zerga-figura nagusia (hidrokar-buroak) %1,9 jaitsi zirela, erregaiek oro har beherantzko joera daukatelako. Bien bitartean, tabakoak %3,6 gehiago bildu du, tabako-kutxen prezioak igo direlako.

Guztira, bildutako bolumen osoa 12.834 milioi euro da. Zenbateko hori EAEko BPG arruntaren %18,5 da 2008. urtean (2007an %20,9). Bildutako diruaren %34,7 PFEZari dagokio, %33,2 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketenga-

II.3.2. LAUKIA. FORU ALDUNDIAK: ZUZENENKO ETA ZEHARKAKO ZERGENGATIKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA (Euroak, milaka)

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		FF.AA. GUZTIRA	
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak
2003	660.512	818.995	2.171.351	2.414.507	1.381.476	1.644.585	4.213.339	4.878.087
2004	711.438	958.821	2.262.421	2.703.629	1.405.910	1.816.043	4.379.769	5.478.493
2005	818.845	1.023.691	2.660.239	3.091.806	1.603.713	1.977.315	5.082.797	6.092.812
2006	912.856	1.102.212	3.020.511	3.486.695	1.793.349	2.154.056	5.726.715	6.742.964
2007	1.056.881	1.142.798	3.619.667	3.525.649	2.041.773	2.288.435	6.718.320	6.956.882
% 05/06	11,5	7,7	13,5	12,8	11,8	8,9	12,7	10,7
% 06/07	15,8	3,7	19,8	1,1	13,9	6,2	17,3	3,2

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOA. Euskal ogasunaren urteroko txosten integratua, 2007.

II.3.3. LAUKIA. EAEko FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOA. (Euroak, milaka)

	EAE 2007	2008				% bertik. 2008	% ALDAK. 2007-08
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	13.772.123	2.034.174	6.671.149	4.128.876	12.834.199	100,0	-6,8
ZUZENENKO ZERGAK	6.706.737	1.003.539	3.523.884	2.073.757	6.601.180	47,9	-1,6
ERRENTAREN ZUZ. ZERGAK	6.476.276	974.904	3.371.950	1.991.189	6.338.043	46,0	-2,1
PFEZ	4.266.304	686.335	2.319.673	1.452.230	4.458.238	32,4	4,5
Laneko atxik. eta jard. prof	4.040.736	694.469	2.234.675	1.393.061	4.322.205	31,4	7,0
Kapital higigarrien etekinen atxikip.	237.211	40.875	160.983	110.311	312.169	2,3	31,6
Kapital higiezinaren atxikipenak	41.587	10.138	36.196	24.616	70.950	0,5	70,6
Ondare-irabazien atxikipenak	40.254	4.602	22.413	12.857	39.872	0,3	-0,9
Profes. eta enpr. ordainketa zatituak	181.643	28.445	76.279	68.980	173.704	1,3	-4,4
Kuota diferentzial garbia	275.128	92.194	210.872	157.596	460.662	3,3	67,4
Sozietateak	2.034.171	278.136	884.332	529.765	1.692.233	12,3	-16,8
Ez-egoiliarren errentaren zerga	175.801	10.433	167.945	9.194	187.572	1,4	6,7
KAPITALAREN ZUZ. ZERGA	230.461	28.634	151.935	82.569	263.138	1,9	14,2
Oinordetzak eta dohaintzak	76.164	10.071	45.789	25.969	81.829	0,6	7,4
Ondarea	154.297	18.563	106.146	56.600	181.309	1,3	17,5
ZEHARKAKO ZERGAK	6.946.919	1.019.438	3.077.113	2.022.779	6.119.330	44,4	-11,9
BEZ	4.837.429	723.000	2.137.008	1.405.478	4.265.486	31,0	-11,8
Kudeaketa propioa	3.661.087	538.872	1.589.815	1.045.597	3.174.284	23,0	-13,3
Doikuntza	1.176.342	185.128	547.193	359.880	1.092.201	7,9	-7,2
OEZ	372.128	18.433	98.673	67.956	185.062	1,3	-50,3
EJZ	134.867	18.769	58.239	38.536	115.544	0,8	-14,3
Garraioaren Z.B.	77.001	7.248	26.613	15.336	49.197	0,4	-36,1
Fabrikazioko ZZ.BB.	1.394.142	232.837	688.207	452.623	1.373.667	10,0	-1,5
Hidrokarburoen T.S.Z.	51.957	8.995	26.587	17.486	53.068	0,4	2,1
Aseguruaren Primen Z.	78.121	10.155	41.621	25.365	77.141	0,6	-1,3
TASAK ETA BESTE SARRERAK	118.466	11.198	70.151	32.340	113.689	0,8	-4,0
Joko-tasak	68.738	7.731	37.216	18.305	63.252	0,5	-8,0
Errekarguak, berandutzak eta zehap.	49.728	3.467	32.935	14.035	50.437	0,4	1,4

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoa.

II.3.4. LAUKIA. GASTU FISKALAK ZERGA ITUNDUENGATIK. EUROAK, MILAKA

	2005	2006	2007				aldak % 2006/07
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	
PFEZ	1.763.508	1.869.327	290.744	1.037.905	625.331	1.953.980	4,5
Ondare zerga	124.618	125.843	16.227	87.499	51.616	155.342	23,4
Sozietateen zerga	514.773	525.504	109.118	280.321	197.762	587.201	11,7
ZUZENAKO ZERGAK GUZTIRA	2.402.899	2.520.674	416.089	1.405.725	874.709	2.696.523	7,0
BEZ*	2.524.063	2.936.215	537.568	1.521.902	922.288	2.981.758	1,6
OEEJDZ	76.427	107.704	44.703	61.516	37.949	144.168	33,9
Garraioaren Z.B.	21.041	19.308	2.972	10.169	5.354	18.495	-4,2
Fabrikazioko Z.B.	159.782	191.220	30.824	92.932	60.487	184.243	-3,6
Hidrokarbuoen Salm. Z.	3.939	4.027	260	4.105	512	4.877	21,1
Aseguruen Primen Z.	14.001	14.367	2.702	8.145	5.302	16.149	12,4
ZEHAHAKO ZERGAK GUZTIRA	2.799.253	3.272.841	619.029	1.698.769	1.031.892	3.349.690	2,3
GUZTIRA	5.307.870	5.793.515	1.035.118	1.104.494	1.906.601	6.046.213	4,4

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOAN oinarrituta egina.


tik eta aduanengatik doikuntza), %13,2 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, %18,9, zenbait zerga bereziri. Sarreraren murrizpena dakarten partidei dagokienez, 2007rako gastu fiskala¹, aurrekontuaren arabera, (urte hori baita informazio xehea daukagun azken urtea), hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak (salbuespenak, gastu kengarriak, murrizpenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak

eta abar izan daitezkeenak) 6.046,2 milioi eurotar iristen dira, aurreko urtean baino %4,4 gehiago, hau da, zerga itunduen diru-sarreraren %43,9. Gastu fiskalen %46,8a (2.841 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie.

3.2. Gastuak

Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, 15.012.455 milioi euro dena (toki erakundeak kanpo), 2008an %8,1 gehitu da, aurre-

II.3.3. Grafikoa. EAEko gastu publikoaren bilakaera BPGari dagokionez



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egina.

¹ Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definizioz ogasunaren doktrinaren barruan. Halere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga-sarreraren murrizpenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbideraketa da. Arruntaren eta erabilien zerga-oinarriko murrizpenak eta kuotako kenkariak dira.

ko urtean baino 1,4 puntu gutxiago alegia. Beraz, magnitude honek EAEko BPGan duen portzentajea sei dezima gehitu da aurreko urtekoaren aldean, %21,1etik %21,7ra igoz.

Gastuaren gehikuntza askoz ere txikiagoa izan da aurreko aldundien artean: %0,3 baino ez da hazi (2007an %8,5). Eusko Jaurlaritzan, ordea, %8,5 hazi zen (2007an %10,5). Ondorioz, gastu publikoaren ratioa BPGaren gainean %21,6tik %20,6ra igaro da foru aldundientzat eta %13tik %13,5era Eusko Jaurlaritzarentzat.

Euskal Sektore Publiko osoko gastu kapituluetak aldakuntzarik garrantzitsuenak ez dira asko aldatu aurreko urteetatik hona. Batez bestekoa baino hazkunde handiagoak gertatu dira funtzionamendu gastuetan (+%11,6) eta kapital transferentzietan (%23,7). Haien atzetik, batez bestekoa baino hazkunde txikiagoekin, langileria-gastuak (%7,7), transferentzia arruntak (%6,6) eta inbertsio errealak (%6,5) daude. Ordea, ondoko hauek murriztu dira: finantza-gastuak (%-5,3), zorraren amortizazioa (%5,8 murriztu da 2007koaren aldean) eta finantza-aktiboen aldakuntza (%-17,8).

Eusko Jaurlaritzaren gastuari erreparatu gero, 2008ko likidazioak %8,5eko gehikuntza dauka. Ondoko sail hauetan gehikuntza handiak izan ditu: Lehendakariordetza (+%39,3), Industria, Merkataritza eta Turismoa (+%14,9), Garraioak eta Herri Lanak (+%13,9) eta Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzak (%10,9). Gasturik handiena duten bi sailek, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza (guztiaren %30,2) eta Osasuna (%37,7), gora egin dute, %7,7 eta %10,7 hurrenez hurren.

Gainerako sailetan gastua gutxiago gehitu da. Batzuetan jaitsi ere egin da (adibidez, Lurralde Antolaketan, %-6,7). Gainera, kontuan izan behar da 2004-2007ko Ekonomi eta Gizarte Inbertsioen Plan Berezian² izandako beherakada garrantzitsua (%-90,2), beraren indarraldia amaitu baita. Azkenik, Eusko Jaurlaritza %9,8 gehitu da. Lan Harremanen Kontseilua eta Ekonomi eta Gizarte Kontseilua, berriz, batzuek bestekoa baino gutxiago hazi dira, Euskal Kontu Auzitegia bezala.

3.3. Aurrekontuko saldoa

2008an sektore publikoaren diru-sarrera arruntak %5,2 jaisteak eta izaera bereko gastuak %8,1 igotzeak aurrezpen gordinen jaitziera handia dakar (%-54,1), gure erkidegoaren BPGaren %2,1eraino (behin-behineko datuak); 2007an, ordea, BPGaren %4,7 izan zen.

Gainera, 500 milioi euro baino gehiagoko defizit publikoa dago (BPGaren %0,7), finantzetaoak ez diren gastuek diru-sarrerak gainditzeko; aurreko ekitaldian, ordea, 1.400 milioi euroko superabita egon zen (BPGaren %2,1).

3.4. Sektore publikoaren zorpetzea

2008ko aurrekontuaren betearazpen estatistikak kalkulatu du EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia 2008an gehitu dela, aurreko ekitaldian gertatu denaren kontrara. Urtearen amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 2.730 milioi euroko zorbolumena zeukaten, 2007an baino %5,6 gehiago (urte hartan

II.3.5. LAUKIA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. 2007-08. EUROAK, MILAKA

	2007			2008			% ald. 2007-08		
	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP
GASTUA GUZTIRA	8.584.886	14.241.115	13.889.462	9.317.300	14.287.736	15.012.455	8,5	0,3	8,1
Langileria-gastuak	1.688.304	306.835	1.995.139	1.815.083	332.924	2.148.006	7,5	8,5	7,7
Funtzionamendu gastuak	2.751.918	373.490	3.125.408	3.072.013	414.826	3.486.839	11,6	11,1	11,6
Finantza-gastuak (interesak)	29.128	45.658	74.786	17.660	53.164	70.824	-39,4	16,4	-5,3
Transferentzia arruntak	2.718.063	12.471.534	6.312.256	2.887.679	12.287.982	6.730.576	6,2	-1,5	6,6
Inbertsio errealak	316.100	581.502	897.602	317.646	638.305	955.951	0,5	9,8	6,5
Kapital-transferentziak	679.755	261.974	882.531	925.426	313.523	1.091.453	36,1	19,7	23,7
FINAN. EZ GASTUAK GUZT.	8.183.268	14.040.993	13.287.722	9.035.507	14.040.724	14.483.649	10,4	0,0	9,0
Finantza-aktiboen aldak.	185.102	130.396	315.497	104.925	154.298	259.222	-43,3	18,3	-17,8
Finantza-pasib. aldak. (amort. zorra)	216.516	69.727	286.242	176.869	92.714	269.583	-18,3	33,0	-5,8
FINANTZA-GASTUAK GUZTIRA	401.617	200.122	601.739	281.794	247.012	528.805	-29,8	23,4	-12,1
% LIKIDATUTAKO GASTUA / BPG	13,0	21,6	21,1	13,5	20,6	21,7	3,4	-4,4	3,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

² Plan hau Ogasun eta Herri Administrazio Sailak sustatzen du, gizarte, kultur, teknolog, energi eta ingurumen azpiegiturretan inbertsioak egiteko zenbait proiektu finantzatzeko asmioarekin. Naturcop sozietatea pribatizatze prozesuaren amaieratik sortutako diruaren bidez. Pribatizazio horren ondorioz Eusko Jaurlaritzak 232,5 milioi euro eskuratu zituen.

II.3.6. LAUKIA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA BILAKAERA SAILEN ARABERA

	Euroak, milaka				2008	% aldakuntza		
	2005	2006	2007	2008	banak. %	05/06	06/07	07/08
GUZTIRA	7.312.911	7.770.938	8.584.886	9.317.300	100,0	6,3	10,5	8,5
Legebiltzarra	23.617	25.786	27.789	30.514	0,4	9,2	7,8	9,8
Jaurilaritzako Lehendakaritza	20.510	23.111	27.159	29.427	0,3	12,7	17,5	8,4
Lehendakariordetza	12.553	13.861	16.912	23.562	0,3	10,4	22,0	39,3
Ogasuna eta Herri Administrazioa	171.829	188.429	185.433	196.448	2,3	9,7	-1,6	5,9
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzak	410.777	469.077	511.747	567.700	6,6	14,2	9,1	10,9
Herrizaingoa	526.690	555.618	617.932	669.641	7,8	5,5	11,2	8,4
Industria, Merkataritza eta Turismoa	285.864	298.286	346.684	398.206	4,6	4,3	16,2	14,9
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	209.721	244.353	258.280	280.332	3,3	16,5	5,7	8,5
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza	2.021.892	2.140.099	2.403.160	2.589.172	30,2	5,8	12,3	7,7
Osasuna	2.421.574	2.632.903	2.926.682	3.240.668	37,7	8,7	11,2	10,7
Kultura	209.021	232.235	253.223	275.734	3,2	11,1	9,0	8,9
Lurralde Antolaketa eta Ingurumena	114.616	120.197	113.185	105.638	1,2	4,9	-5,8	-6,7
Garraioak eta Herri Lanak	182.424	188.236	274.226	312.373	3,6	3,2	45,7	13,9
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	190.704	173.916	187.613	177.817	2,1	-8,8	7,9	-5,2
Inbertsio Ekon. Sozialen Plan Berezia	67.207	27.828	14.528	1.428	0,0	-58,6	-47,8	-90,2
Lan Harremanen Kontseilua	2.338	2.384	2.470	2.545	0,0	2,0	3,6	3,0
Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1.624	1.678	1.739	1.792	0,0	3,3	3,6	3,0
Kooperatiben Goren Kontseilua	745	769	944	972	0,0	3,3	22,7	3,0
Euskal Kontu Auzitegia	6.144	6.353	6.623	7.045	0,1	3,4	4,2	6,4
Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.161	1.666	1.780	1.869	0,0	43,5	6,8	5,0
Zor Publikoa	281.918	271.288	239.639	191.146	2,2	-22,9	10,3	-20,2
Baliabide Institutuzionalak	149.754	206.867	167.060	208.412	2,4	38,1	-19,2	24,8
Zenbait sailen gastuak	229	—	78	4.861	0,1	-100,0	—	6.132,1
% BPGmp	12,8	12,6	13,0	13,5	—	-1,4	3,5	3,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko aurrekontu orokorren betearazpena.

II.3.7. LAUKIA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN AURREZPENA ETA SUPERABITA / DEFIZITA 2007-08. EUROAK, MILAKA.


	2007			2008			aldak. % 2007-08		
	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP
SARRERAK GUZTIRA	8.998.569	14.711.349	14.773.380	8.679.986	14.342.271	14.429.676	-3,5	-2,5	-2,3
Eragiketa arruntak	8.944.791	14.549.478	14.616.927	8.347.263	13.960.567	13.862.745	-6,7	-4,0	-5,2
Kapital-eragiketak	43.249	82.352	66.403	84.683	165.311	102.499	95,8	100,7	54,4
Finantza-eragiketak	10.530	79.519	90.049	248.040	216.393	464.432	2255,6	172,1	415,8
GASTUAK GUZTIRA	8.584.886	14.241.115	13.889.462	9.317.300	14.287.736	15.012.455	8,5	0,3	8,1
Eragiketa arruntak	7.187.413	13.197.516	11.507.589	7.792.435	13.088.896	12.436.245	8,4	-0,8	8,1
Kapital-eragiketak	995.855	843.476	1.780.134	1.243.072	951.828	2.047.404	24,8	12,8	15,0
Finantza-eragiketak	401.617	200.122	601.739	281.794	247.012	528.805	-29,8	23,4	-12,1
AURREZPEN GORDINA	1.757.378	1.351.962	3.109.338	554.828	871.671	1.426.500	-68,4	-35,5	-54,1
FINANTZ. BEH. KAP.	804.772	590.838	1.395.607	603.561	85.154	518.405	-175,0	-85,6	-137,1
% aurrezpena / BPG	2,7	2,1	4,7	0,8	1,3	2,1	-69,9	-38,6	-56,3
% superabita-defizita/BPG	1,2	0,9	2,1	-0,9	0,1	-0,7	-171,4	-86,3	-135,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

%8,1 murriztu zen). Gehikuntza hau batez ere foru aldundietan gertatu da, urteko zor bizia %12,7 gehitu zutena. Eusko Jaurlaritzan neurri txikiagoan gertatu da (+%1,4). Halere, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren %60,7). Zorpetze gordina nabarmen gehitu da aurreko urtearen aldean, %600. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak bi ekitaldi zeramatzan zorpetu

gabe eta berriro egin du 2008an, 200 milioi eurotan. Ia 177 milioi amortizatu dituenek, ekitaldiko zor garbia 23 milioi eurokoa da. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren zor bizia urtearen amaieran, 1.656,9 milioi eurokoa dena, BPGaren %24,4koa da (2007an %2,5koa). Foru aldundiek, bestalde, 213,5 milioi euroko zorra hartu dute, 2007an baino %262 gehiago, eta 92,7 amortizatu dute. Beraz,

II.3.4. Grafikoa. Aurrezpen eta superabit/defizit publikoaren bilakaera EAEn. BPGaren %



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

II.3.8. LAUKIA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA

	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zor garbia		Zor bizia urte amaieran	
	(1)	% aldakuntza	(2)	(1)-(2)=(3)	% aldakuntza	Guztira	% aldakuntza
EUSKO JAURLARITZA							
2003	390.000	6,3	128.922	261.078	80,8	1.813.939	16,8
2004	275.000	-29,5	115.935	159.065	-39,1	1.964.186	8,3
2005	300.000	9,1	230.719	69.281	-56,4	2.033.467	3,5
2006	0	—	183.182	-183.182	-364,4	1.850.285	-9,0
2007	0	—	216.516	-216.516	18,2	1.633.769	-11,7
2008	200.000	—	176.869	23.131	-110,7	1.656.900	1,4
FORU ALDUNDIAK							
2003	61.000	-74,7	61.195	-195	-100,1	975.132	0,3
2004	146.001	139,3	162.471	-16.470	8.338,60	958.661	-1,7
2005	126.000	-13,7	67.564	58.436	-454,8	1.017.097	6,1
2006	127.215	1,0	181.172	-53.957	-208,3	963.140	-5,3
2007	59.000	-53,6	69.727	-10.727	-80,1	952.413	-1,1
2008	213.500	261,9	92.714	120.786	-1226,0	1.073.199	12,7


Iturria: Zerga Koordinazioko Organoaren eta EUSTATEN datuekin egina.

ekitaldiko zorpetze garbia 121,7 milioi eurokoa da. Ondorioz, ekitaldiaren amaieran haien zor bizia 1.073 milioi eurokoa da, aurreko urtean baino 121 gehiago.


Foru aldundi bakoitzari buruzko informazioa dakarren informazio bakarra 2007ari buruzkoa da, EUSTATEN "Sektore publikoaren aurrekontuko estatistikan" oinarrituta. Urte hartan, jaulkitako zorraren %100 (59 milioi euro) Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio (Arabakoak eta Gipuzkoakoak ez zuten zorrik jaulki). Gainera, foru aldundien zorraren amortizazioa 2006koa baino %61,5 txikiagoa da: 69,7 milioi euro guztira. Horren %85,4 Bizkaiko Foru

Aldundiari dagokio, %6,6 Gipuzkoakoari eta gainerakoa (%8) Arabakoari. Aldundien zorraren saldo bizia %1,1 jaitsi da horrela aurreko urtekoaren aldean. BPGarekiko erlazioan ere hala egin du: 2006an %1,56 izan zen eta 2007an %1,44. EAEko udalei dagokienez, estatistika honek erakusten du 2007an 58,1 milioi euroko zorra jaulki zutela eta 82,2 amortizatu; horrekin, ekitaldiaren amaieran, ordaintzeke zegoen zorra 17 milioi murriztu zen, 523,6 milioi euroraino.

Guztira, EAEko administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak gehi aldundiek gehi udalek) 2007an 3.110 milioi euroko zorra

II.3.5. Grafikoa. EAEko administrazioen finantza-zorra (euroak, milaka).

Iturria: EUSTAT. Sektore publikoaren aurrekontu-estatistika.

II.3.6. Grafikoa. EAEko administrazioaren zorpetze-ratioen bilakaera eta zor publiko osoak BPGan duen pisuaren bilakaera**

Iturria: EUSTATen datuekin egina. Sektore publikoaren aurrekontu-estatistika.

(*) Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien 2008rako datuak estimazioak dira. Ekonomi eta Plangintza Zuzendaritzaren datuetan oinarrituak.

(**) Zorpetze-ratioa: Zorren finantza-kargaren (amortizazioa gehi interesak) eta diru-sarrera arrunt guztien arteko koefizientea.

zeukaten. Diru-zenbateko hori aurtengo BPG arruntaren %4,7 da (2006an, %5,4). Portzentaje hori 90eko hamarkadan egoten zirenetatik oso urrun dago; orduan BPGaren %12 gaindizera iritsi zen. Zorren %52,5 Eusko Jaurlaritzari dagokio,

%26,5 Bizkaiko Foru Aldundiari, %2,2 Arabakoari eta %1,9 Gipuzkoakoari. Gainerakoa, 523,6 milioi euro, EAEko udaltako finantza-zorri dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren %16,8 da (2006an %16,1).

Bestalde, zor honek %2,8ko zorpetze-ratioa³ dauka, aurreko urteko %3,7aren aurrean. Ratorik txikiena foru aldundiei dagokie: 2007an, erakunde guztiei buruzko informazio anal-ogoa daukagun azken urtean, %0,7. 2008an %1 izan zen, Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontu Betearazpeneko Estatistikan oinarrituta egin den gutxi gorabeherako kalkuluaren arabera. Kalkulu horren arabera, Eusko Jaurlaritzak 2008an %2,3ko ratioa luke (2007an, %2,7, behin betiko datuen arabera). Bestalde, EAEko udalek 2007an, informazio hau jaso zen azken urtean, %3,5eko zorpetze ratioa zeukaten, aurreko urtearen antzean.

3.5. Erakundeetako transferentziak

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du, kupoa deritzonaren bidez. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga bilketa lurralde historiko bakoitzeko foru aldun-diek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga bilketa egiten dute. EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zen-bait fondo ematen dizkiete, arrazoi ezberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, foru aldundiek eta udalek zerga ez itunduetan duten partaide-tzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatuko Loteria eta Apustuaren Erakunde Nazionaletik bildu-tako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta


erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

Lehenik eta behin, foru aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten di-zkieten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia bai-tute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin erabakitzen du foru aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transfe-ritu behar dioten aldundiek Eusko Jaurlaritzari, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreraren %90 baino gehiago ekarpen hauetatik da-toz). 2008an, ekarpenak 7.896 milioi eurokoak ziren, 2007an baino %8,2 gutxiago beraz, eta aurreko urtean, +%9,1.

2007-2011 denboraldiko nobedadeen artean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zenbait aldaketa ezarri zituen aldundien ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologian. Besteak beste ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefi-ziente bertikala %70,44tik %70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; foru aldundien artean BEZagatik bil-tzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurral-de historikoentzako berme-mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa %0,75 izatetik %1 izatera igaro zen.

Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu-konpro-misoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daitezke,

II.3.7. Grafikoa. Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkieten ekarpenen bilakaera. Euroak, milaka



Iturria: Kupoaren eta finantza-ekarpenen zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzak.

³ Zorpetze ratioa zorren finantza-kargaren (amortizazioa gehi interesak) eta ekitaldiko diru-sarrera arrunten arteko koefizientea da. Ratio honen balioak, gure erkidegoan, Estatuko 8/80 Lege Organikoak (autonomi erkidegoak finantzatzeari buruzkoa) ezartzen duen %25eko mugatik oso urrun daude.

II.3.9. LAUKIA. FORU ALDUNDIEK EAEko ERAKUNDE KOMUNEI EGITEN DIZKIETEN EKARPENEN BILAKAERA. 2004-2008 (EUROAK, MILAKA)

KONTZEPTUA	2004	2005	2006	2007	2008	aldak % 06-07	aldak % 07-08
EK. OROKORRA	6.181.796	7.085.585	7.865.095	8.460.069	7.754.813	7,6	-8,3
EK. BEREZIAK	—	2.760	17.968	140.973	141.316	684,6	0,2
GUZTIRA	6.181.796	7.088.345	7.883.063	8.601.042	7.896.129	9,1	-8,2
ARABAREN EK.	1.028.033	1.185.171	1.287.304	1.451.855	—	12,8	—
BIZKAIAREN EK.	3.112.534	3.568.273	4.001.443	4.314.282	—	7,8	—
GIPUZKOAREN EK.	2.041.229	2.334.901	2.594.316	2.834.903	—	9,3	—
% ARABA	16,63	16,72	16,33	16,88	—	3,4	—
% BIZKAIA	50,35	50,34	50,76	50,16	—	-1,2	—
% GIPUZKOA	33,02	32,94	32,91	32,96	—	0,2	—

Iturria: Kupoaren eta Finantza-Ekarpenen Zuzendaritzan oinarrituta egina. Ogasun eta Herri Administrazioen Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.3.10. LAUKIA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATUTAKO DIRU-SARRERAK, JATORRIAREN ARABERA. 2005-2007. (EUROAK, MILAKA)

	2005	2006	2007	Banak. % 2007	% ald. 05-06	% ald. 06-07
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	7.088.345	7.883.063	8.601.042	95,6	11,2	9,1
Ekarpen orokorrak	7.085.585	7.865.095	8.460.069	94,0	11	7,6
Ekarpen bereziak	2.760	17.968	140.973	1,6	551	684,6
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	196.546	142.032	134.277	1,5	-27,7	-5,5
EAEko erakundearen transferentziak	7.205	9.767	12.796	0,1	35,6	31,0
Estatuaren transferentziak	43.615	7.838	25.526	0,3	-82	225,7
Europar Batasunaren fondoak	145.726	124.427	95.955	1,1	-14,6	-22,9
EGIF	21.485	9.404	17.838	0,2	-56,2	89,7
EGEF	38.798	28.079	301	0,0	-27,6	-98,9
NBBEF- Orientazioa	1.391	460	1.644	0,0	-66,9	257,4
NBBEF- Bermea	61.224	75.903	—	—	24	—
NBEUF*	—	—	48.949	0,5	—	—
ABFT	14.223	6.240	19.237	0,2	-56,1	208,3
Kohesio fondoa	8.283	2.157	7.443	0,1	-74	245,1
Beste fondo batzuk	322	2.184	543	0,0	578,3	-75,1
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	480.787	222.553	263.250	2,9	-53,7	18,3
Zor Publikoa	300.000	0	0	0,0	—	—
Zeharkako zergak	6.986	6.422	6.263	0,1	-8,1	-2,5
Ondareko sarrerak	36.569	57.342	87.012	1,0	56,8	51,7
Inbertsio errealen besterentzeak	1.897	1.116	528	0,0	-41,2	-52,7
Beste transferentzia batzuk	9.207	14.247	7.356	0,1	54,7	-48,4
Finantza-aktiboen aldakuntza	9.371	14.479	10.530	0,1	54,5	-27,3
Tasak	116.756	135.370	151.561	1,7	15,9	12,0
SARRERAK GUZTIRA	7.765.678	8.247.648	8.998.569	100,0	6,2	9,1

(*) 2007ko urtariletik aurrera NBBEF-Bermea desagertu zen, eta LGENF (ekitaldi honetan partidarik gabe) eta NBEUF sortu ziren.
Iturria: Zerga Koordinazioko Organoan oinarrituta egina.


kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2002. urteaz geroztik, EB-tik datozen fondoen bolumen osoak beherakada izugarria izan du, 2005. urtean izan ezik. 2007an %22,9 murriztu dira, guztira 96 milioi eurora iritsiz.

Partida nagusiak hauei dagozkie: Europako Gizarte Fondoak (17,8 milioi euro, EB-aren fondoen %18,6), lan-merkatuan jarduteko sortu zen finantza-tresna; ABFT (19,2 milioi, guztia %20), arrantza-politikaren tresna, eta lehenengo postuan, NBEUF berria (48,9 milioi euro, fondoen %51), Nekazaritza Bermatzeko

Europako Fondo berria, 2007ko urtarilaren laz geroztik indarrean dagoena. 2007rako laguntzen aurreikuspena 60,9 milioi eurokoa zen. 48,9 milioi soilik kontabilizatu dira.


Azkenik, 2007an LGENF, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoak, sortu zen. Fondo horrek eta NBEUFek NBBEF-Bermea ordezkatu zuten. Nekazaritzari zuzendutako europar laguntzak kudeatzeko jaio ziren. LGENFen aurrekontua 2007. urterako 11,2 milioi eurokoa zen, baina ez zen diru-sarrerarik jaso kontzeptu horrengatik.

II.3.8. Grafikoa. Kupo estatuari: kupo likidoen, konpentsazioen eta ordaindu beharreko zenbatekoen bilakaera. Euroak, milaka.



Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

II.3.9. Grafikoa. BEZarengatiko doikuntzaren bilakaera lurraldeka. Euroak, milaka



Iturria: Zerga Koordinazioko Organoa

Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupo da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2008. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 1.601 milioi eurokoa da. 2007. urtearen aldean %4,1 gehitu da.

Azkenik, estatuari egiten zaizkion ordainketa hauek ez ezik, zenbait diru-zenbateko jasotzen dira. Jasotzen diren diru-zenbateko horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko

Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik egiten dena. Doikuntza hori estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga-administrazioen artean zerga bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga-administrazioek zeinek bere lurraldean jarduten baitute, muga fiskalik gabeko espazio batean. Doikuntza horiei, zerga bereziei dagozkienak

erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek kargatzen zaizkien produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egitean gertatzen den distortsioa zuzentzeko beharrezkoak dira.

2007. urtean, informazioa dugun azken urtean, BEZagatik doikuntza EAEn 1.176 milioi eurotara iritsi zen. Kopuru hori aurreko urtekoarekin erkatuta %2,7 jaitsi zen. Partida horren barruan, aduanetan bildutakoagatik doikuntza guztiaren %47,5 da. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

3.6. Eako sektore publiko enpresariala

a) Eusko Jaurlaritza

EAEko administrazio orokorrak partaidetutako enpresa-sektore publikoari buruz dauden azken datuen arabera⁴, 2007. urteari buruzkoak, sektore honen emaitza orokorra positiboa da. Azken urte honetan 52,5 milioi euroko etekina ematen dute, 2006. urtean baino 43,2 gehiago.

Eusko Jaurlaritza partaidetuta daukan enpresa-sektore publiko honen egitura iraunkorra da bere ezaugarri nagusiei dagokienez. SPRI, EVE, EITB eta Eusko Trenbideak taldeak eta Ejie, Euskadiko Orkestra, Neiker eta Mendikoi sozietateak dira handienak, lanpostu-kopurua eta partaidetzaren bolumena kontuan izanik.

EAEko enpresa-sektore publikoaren sailkapen ekonomikoak talde hauek bereizten ditu:

- EVE taldea: Energia produkzioarekin, banaketarekin, ikerkuntzarekin eta aurrezpenarekin zerikusia duten sozietateak.
- EITB taldea: EAEk komunikabideen alorrean daukan eskumenak garatzeko sortutako sozietateak.
- SPRI taldea: Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Bultzua, S.A.ren mendeko enpresak. Sektore ezberdinetako enpresek eratzen dute. Industrialdeetako sustatzaileak dira nagusi (*Industrialdeak*), Sprilur, S.A. mendeko sozietatean integratua. Sprilur, bestalde, enpresa-talde handi baten barruan dago. Beste sozietate batzuk ere daude SPRI taldean, euskal enpresei zuzendutako zerbitzuak ematen dituztenak batez ere. Garrantzi berezia daukate SPRI S.A.k sustatutako teknologi parkeek eta enpresa eta berrikuntza zentroek, teknologia aurreratuko enpresetan ekimen eta inbertsio industrialak sustatzen eta bultzatzen dituztenak.
- Eusko Trenbideak taldea: ET-FV S.A. sozietateak eta Euskotren Participaciones S.A. bere mendeko enpresak osatzen dute.
- Gainerako erakunde eta sozietateak: EAEren partaidetza zuzenekoak eta gehiengoak duten gainerakoak.

Enpresarik gehienetan, sektore publikoaren partaidetza zeharka egiten da. 2007an, Eusko Jaurlaritza 56 erakunde eta sozietate publikotan zeukan partaidetza; haietatik 39tan zeharka. Beraz, aurreko urtean baino bi gutxiago (Zazpitu- rri S.A. eta Biogardegui S.A.). Haietako 23tan %100eko

partaidetza zeukan (14tan zuzenean egiten zuen —2006an baino bat gehiago, UNIQVAL, “*Agencia de Evaluación de Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco*” sortu baitzen— eta 9tan zeharka), eta 33tan %100 baino proportzio txikiagoan eta %50 baino proportzio handiagoan parte hartzen zuen (3tan zuzenean eta 30etan zeharka parte hartzen zuen).

Bestalde, Eusko Jaurlaritza gehiengoarekin partaidetutako sozietateetako plantilla egonkorra da (2.800-3.000 langile inguru), urte batetik bestera aldakuntza txikiekin (2007an %5 hazi zen, batez ere Ets erakundeak eta Eusko Trenbideak taldeak izan zuten gehikuntzaren ondorioz). Enpresetako

II.3.11. LAUKIA. EUSKO JAURLARITZAK PARTAIDETUTAKO ERAKUNDE ETA SOZIEATE NAGUSIA, PARTAIDETZA BITARTEKOAREN ETA PORZENTAJEAREN ARABERA. 2007

	ZUZENEAN	ZEHARKA
%100	• Ets-RFV S.A.* • EITB S.A. • EVE • Euskadiko Kirol Portua S.A. • EJIE S.A.** • ET-FV	• ETB S.A.
%50 ETA %100 ARTEAN	• SPRI S.A. • VISESA S.A.***	• SPRILUR S.A. • Parque Tecnológico S.A. • Parque Tecnológico de San Sebastián S.A. • Parque Tecnológico de Álava S.A.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko sektore publiko enpresariala. 2007.

* Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca, S.A.

** Eusko Jaurlaritza Informatika Elkartea – Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A.

*** Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.

II.3.12. LAUKIA. EAEko ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAN LANEAN ARI DIREN PERTSONAK. 2007

SOZIEATEA EDO TALDEA	2007	%	2006	%
EITB TALDEA	936	31	918	31
EUSKO TRENBIDEAK TALDEA	799	26	889	31
Ets	257	8	134	5
SPRI TALDEA	191	6	188	6
EJIE	176	6	173	6
NEIKER	169	6	155	5
BESTEAK	534	17	459	16
GUZTIRA	3.062	100	2.916	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko sektore publiko enpresariala. 2007.

⁴ Kontuan izan behar dugu 1998. urtetik aurrera zuzenbide pribatutako erakunde publikoak dela. Beraz enpresa publikoetatik handiena da, plantilla eta aurrekontuak kontuan izanik. Halere, ez da atal honetan sartu, baizik eta EAEko osasunari eta osasun sistemari buruzko atalean.

II.3.13. LAUKIA. EAEko ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOKO ENPRESEN DIMENTSIOA. 2007

2007ko PLANTILLA	ENPRESA KOP.	LANGILE KOP.	AKTIB. GUZT. (MILIOI €)	% AKTIB. GUZT.
< 50 langile	43	270	768,9	31
50 - 250 langile	10	1.107	1.183,3	48
> 250 langile	3	1.685	510	21
GUZTIRA	56	3.062	2.462,3	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko sektore publiko enpresariala. 2007.

plantillak eta beren aktibo-bolumenak erkatuz gero, enpresa-sektore publikoa eratzen duten enpresen tamaina ikus dezakegu: enpresen %77ak 50 langile baino gutxiago daukate eta aktibo guztien %31, guztira 769 milioi euro direnak. Beste muturrean, hiru enpresek bakarrik (ETB, Eusko Trenbide Sarea eta Eusko Trenbideak) daukate 250 langile baino gehiagoko plantillak. Aktibo guztien %21 daukate.

Erantsitako magnitude nagusiei dagokienez, 52,5 milioi euroko etekin garbia aipatu dugu dagoeneko, zergetako 2,5 milioi deskartatu ondoren. Etekin horiek %466 gehitu dira 2006ko ekitaldiaz geroztik (ekitaldi hartan 9,3 milioi euro ziren). Negozioaren zifrari dagokionez, 2007an 474 milioi eurokoa zen, aurreko ekitaldian baino %12,6 gehiago. Horren arrazoi nagusia da etxebizitzaren eta lokalen sektorean gehikuntza gertatu dela (+%50,3) eta, bigarrenik, trenbidezko eta errepidezko garraioa igo dela (+%44,8).

b) Foru aldundiak

Foru aldundien aldetik, 2007an 25 foru merkataritza-sozietate zeuden (2006ko berberak): 8 Araban (Araba Garapen Agentzia, Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa, Kalkulu Zentroa, Fernando Buesa Arena, Naturgolf, Arabako Lanak, Araba Uraren Agentzia eta Arabako Bideak), 3 Gipuzkoan (IZFE, Etorlur eta Bidegi) eta gainerako 14ak Bizkaian (Aparcabis, Azpiegitura, Basalan, Beaz, Bizkaiko Bideak, Bizka-ilur, BBA Berrikuntza Agentzia, Euskalduna Jauregia, Garbiker,

II.3.14. LAUKIA. EAEko ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAREN NEGOZIOEN KOPURUAREN ZENBATEKO GARBIA. EUROAK, MILAKA

JARDUERA SEKTOREA	2006	2007	Ald. 06/07
Enpresa sustapena	76.218	94.655	24,2
Etxebizitzak eta lokal komertzialak	87.647	131.744	50,3
Energia	115.625	83.824	-27,5
Zerbitzu informatikoak	57.499	65.287	13,5
Publizitatea irratian eta telebistan	36.894	34.490	-6,5
Trenbidezko eta errepidezko garraioa	30.932	44.792	44,8
Komunikazioetako azpiegiturak	9.611	10.497	9,2
Bestelakoak	6.895	9.146	32,6
GUZTIRA	421.348	474.436	12,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko sektore publiko enpresariala. 2007.

II.3.15. LAUKIA. FORU ALDUNDIEK PARTAIDETUTAKO SOZINETATE PUBLIKOEN EMAITZAK. (EUROAK, MILAKA)

	ARABA	GIPUZ.	BIZK.	GUZT.	ald. %
2003	-4.553	22.461	1	17.909	-372,6
2004	-3.283	47.192	8.530	52.439	192,8
2005	8.565	46.907	15.145	70.617	34,7
2006	1.430	51.244	17.057	69.371	-1,3
2007	-10.409	74.935	8	64.534	-7,5

Iturria: FORU ALDUNDIEN datuekin egina.

Lantik, Kirolgintzan, Seed Capital de Bizkaia, Rekalde Erakusketak Aretoa eta Interbiak).

Enpresa publiko hauen emaitzei dagokienez, azken urteetan gertatzen ari denez, emaitza orokorra Bizkaian eta Gipuzkoan AB autopista kudeatzeko sortu diren bi sozietateek (Interbiak eta Bidegi) baldintzatzen dute. Behin-behineko datuen arabera, 64,5 milioi euroko etekina egon da, aurreko ekitaldian baino %7,5 gutxiago; halere, bi sozietate horiek kontuan hartzen ez baditugu, gehieneko partaidetza foru aldundiena duten merkataritza-sozietateen emaitza 2007rako 31,2 milioiko galaraz liteke.

4. GIZARTE-EKONOMIA

Gizarte-ekonomiaren izendapen orokorrak zenbait erakunde mota hartzen ditu barruan, eraketa eta helburu ezberdinak dituztenak. Memoria honen aurreko urteetako edizioetan, atal hau jorratzerakoan, merkaturako ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten erakundeen errealitatea aztertu dugu: gizarte izaera hutsezko jarduerak egiten dituzten erakundeei, ordea, ez zaie erreparatu. Erakundeak aukeratzeko orduan, iturri ezberdinek emandako informazioa erabili da (Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Ekonomiako Zuzendaritzarena eta Lan eta Inmigrazio Ministerioarena, batez ere). Oraingo honetan, gainera, lehenengo atalean Europako Gizarte-Ekonomiaren panorama orokorra zentzu zabalagoan eskaintzen duen lehenbiziko atal bat sartu dugu. Merkatukoa ez den jarduna daukaten erakundeak hemen sartu ditugu, beste iturri batzuetatik abiatuta, gure herrian gero eta garrantzi handiagoa (bai alderdi ekonomikoan, bai alderdi humanoan) daukan sektore baten ikuspegi osagarri bat emateko helburuarekin.

4.1. Gizarte-ekonomiaren sektorea: kontzeptuak eta magnitude nagusiak

Gizarte-ekonomiak erakunde mota ezberdinak hartzen ditu barruan, eraketa eta helburu ezberdinak dituztenak. Oro har, jende guztiak onartzen du definizio hau: *“enpresa pribatuaren multzo bat da, formalki antolatuta dagoena. Enpresek erabakitze-ko autonomia dute eta multzo horretan sartzeko askatasuna ere bai. Haien helburua beren bazkideen beharrianak asetzea da, merkatuaren bidez, ondasunak eta zerbitzuak sortuz, segurtatuz edo finantzatuz. Bazkideen artean balizko etekinak edo soberakinak banatzeko orduan edo erabakiak hartzeko orduan, bazkide bakoitzaren ekarpenak edo kapitala ez dira erabakigarriak; bazkideek boto bana daukate. Gizarte-ekonomian, bestalde, ondoko hauek ere sartzen dira: erakunde pribatuak, formalki antolatutako, erabakitze-ko autonomiarekin eta bat egiteko askatasunarekin, familientzat merkatukoak ez diren zerbitzuak egiten dituztenak. Erakundeak sortzen, kontrolatzen edo finantzatzen dituzten eragile ekonomikoek ezin dituzte soberakinak eskuratu, izatekotan”*¹.

Definizio honek Kontabilitate Nazionalaren terminologia erabiltzen du, bi zati handi eratuz: a) merkatukoa edo enpresena eta b) ekoizleena, ez merkatukoa, *“hirugarren sektorea”* esan ohi zaiona. Azken sailkapen hori oso erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren analisiak egiteko orduan, gaur egun indarrean dauden kontabilitate nazionalako sistemen bat etorritz.

Aurreko definizioaren arabera, gizarte-ekonomiaren bi zatiek ezaugarri hauek berdinak dituzte:

- 1) Pribatuak dira. Hau da, ez daude sektore publikoan eta sektore publikoak ez ditu kontrolatzen.
- 2) Formalki antolatuta daude. Hau da, nortasun juridiko propioa izan ohi dute.
- 3) Erabakitze-ko autonomia dute. Erabateko ahalmena dute beren gobernu-organismoak aukeratzeko eta karguak utz arazteko, eta beren jarduera guztiak kontrolatzeko eta antolatze-ko.
- 4) Bat egiteko askatasuna, hau da, ez da nahitaezkoa haietan izena ematea.
- 5) Etekinak edo soberakinak bazkide erabiltzaileen artean banatzen badira, ez da egiten bazkideen erakarpenen edo kapitalaren proportzioan, baizik eta haiek erakundearekin egiten duten jardueraren arabera.
- 6) Jarduera ekonomiko bat egiten dute, jarduera gisa onartuta dagoena, pertsonen, etxeen edo familien beharrianak asetze-ko.
- 7) Erakunde demokratikoak dira. Merkatukoak ez diren zerbitzuak familientzat sortzen dituzten boluntario-erakunde batzuetan izan ezik, gizarte-ekonomiaren lehen mailako erakundeen erabakiak hartzeko prozesuan “persona bat, boto bat” printzipioa aplikatzen da, bazkide bakoitzaren kotizazioak edo kapitala gorabehera. Beste maila batzuetako erakundeak ere demokratikoki antolatuta daude. Erakundearen erabakitzeko-ahalmen osoa edo gehiengoa bazkideek dute.

Bestela esanda: gizarte-ekonomiak erakunde multzo bat hartzen du barruan. Erakunde horiek helburu ekonomikoak eta sozialak dituzte, partaidetza sustatzen eta bultzatzen dute eta, nahitaezko baldintza gisa, erabakiak hartzeko unean kide guztiak dute erantzukizuna. Sektore publikoan eta enpresa-sektore konbentzionalean ez bezala, erakunde hauek merkatuko askatasun ekonomikoa eta gizarte-arazo kolektiboaren konponketa (lana, etxebizitza, hezkuntza eta abar) uztartzen saiatzen dira. Gizarte-ekonomian, beraz, ez dira sartzen etekinik bilatzen ez duten erakundeak, baizik eta funtzionamendu-eredu jakin bat erabiliz etekina bilatzen dutenak.


Deskribatutako ezaugarri guztiak kontuan izanik, **merkatuko edo enpresa-izaerako** gizarte-ekonomia, batez ere, lan-sozietateek eta kooperatibek eta mutuek eratzen dute².

Bestalde, **merkatukoa ez den** gizarte-ekonomia, batez ere, elkarteek eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalan ezarritako irizpideen arabera, merkatuz kanpoko

¹ CIRIEC (2005): “Gizarte-ekonomia Europar Batasunean”. Europako Ekonomi eta Gizarte Batzordea. CESE/COMM/05/2005. Gizarte-ekonomiaren definizioa eta hura osatzen duten zatien ezaugarritzea CIRIECek (*Centre international de recherches et d'information sur l'economie publique, sociale et cooperative*) CESErentzat egindako txosten honetatik hartuta daude.

² Honako hau jotzen dugu mutuatzat: “erakunde autonomo bat da. Hura osatzen duten pertsonak beren borondatez elkartu dira, funtsean aseguruaren (bizi-aseguruak eta bestelakoak), osasun-aurreikuspenaren eta bankuen sektoreetan erakundearen bazkide guztiak dituzten beharrian komunak asetzeko asmoz. Erakunde hauen jarduna lehiaren mende dago. Enpresaren gobernuan parte hartzen duten kideen artean elkartasun-printzipio baten arabera administrazioa da. Ondoko printzipio hauek ditu: ez dago akziorik, bat egiteko askatasuna dago, helburuak ez bakarrik dirua irabazteko, elkartasuna, demokrazia eta kudeaketa-autonomia”. CIRIEC (2005).

II.4.1. Grafikoa. Gizarte-ekonomiako langileak estatuan: banaketa motaren arabera. 2007-12-31



Iturria: Gizarte-ekonomiaren urtekaria 2007-2008.

ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeek osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohainik edo prezio ekonomiko ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeek osatzen dute. Hau da, "hirugarren sektorea" deritzonak mota askotako erakundeak hartzen ditu barnean, jarduera ezberdinetan lan egiten dutenak (ospitaleak, klubak, elkarteak, mutua, talde ekologikoak, ...). Haien definiziorik orokorrena dirua irabazteko asmorik gabeko boluntario-elkarteak litzateke³.

Sektoreak oro har (merkatukoak zein merkatuz kanpokoak) Europar Batasunean lanean ari diren biztanleen %6 (2005eko datuak dira). Datu agregatu hauek (estimazio gisa soilik kontuan hartu behar direnak, EB osatzen duten herrialdeek forma juridiko eta ezaugarri sozial eta kultural oso ezberdinak baitituzte) adierazten dute gizarteak eta bere erakundeek ezin dutela errealitate honen aurrean ez ikusiarena egin.

Gizarte-Ekonomiaren Espainiar Enpresa Konfederazioak (CEPES) uste du 2007ko abenduaren 31n espainiar gizarte-ekonomian guztira 51.762 erakunde zeudela eta 101.555 milioi euro fakturatzeko zutela. Gizarte-ekonomiarekin erlazio ekonomikoak duten pertsonen kopurua (langileak) 2,5 milioi baino gehiago da (lanean ari diren biztanleen %12,6). Bazkideak (langileak ez diren bazkideak, mutualistak eta abar) 11,3 milioi pertsona dira.

4.2. Gizarte-ekonomia EAEn

Sozietate kooperatiboek eta lan-sozietateek osatzen duten gizarte-ekonomiako merkatu-arloaren (edo ekoizpen-arloaren) dimentsio erlatiboa definitzeko orduan, dauzkagun datuek erakusten digute balio erantsiaren %5,3 inguru eta lanpostuen

%6,6 inguru direla EAEn, gizarte-ekonomiaren estatistikaren arabera (2005-2006 urteetako).


Gainera, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak egiten duen estatistika honetako 2007. urterako datuen aurrerapenaren arabera, EAEko gizarte-ekonomiak guztira EAEn dauden 3.167 establezimendu hartzen ditu barruan. Establezimendu horiek 64.719 pertsonari lana ematen diete (batez bestez, establezimendu bakoitzak 20,4 lanpostu ditu). Establezimendu hauek, aipatutako urtean, 10.315 milioi euro inguruko fakturazioa izan zuten (2006an baino %10,4 gehiago). Bestalde, Gizarte Segurantzak 2008. urtearen amaieran EAEn guztira 1.511 sozietate erregistratu zituen kooperatiben izaera juridikoarekin altan, aurreko urtean baino 20 gehiago. Sozietate horiek 55.507 langile dituzte (2007an baino %0,9 gutxiago). Horrenbestez, batez bestez kooperatiba bakoitzak 36,7 langile ditu, aurreko urtean bezalaxe. Langile-kopuru hori estatuko handiena da, eta estatuaren batez bestekoa (12,6) baino askoz ere handiagoa. Iturri berak adierazten du 931 lan-sozietate daudela kotizatzen, 2007an baino 92 gutxiago, eta 12.435 pertsonari lan ematen dietenak (2007an baino %7,6 gutxiago). Sozietate bakoitzaren batez besteko langile-kopurua 13,4 da, estatuko datuak baino askoz ere gehiago (5,7 langile batez bestez).

Guztira, gizarte-ekonomiako langileen pisua. Lan eta Inmigrazio Ministerioak BAiren datuetan oinarrituta egin dituen kalkuluen arabera, gure erkidegoko lanpostuen milako 69,7 da. Kopuru horrek estatuaren batez bestekoa (mila langileko 20,8) hiruizten du eta autonomi erkidego guztietan altuena da (abenduaren 31ko datuekin). Gainera, EAEko gizarte-ekonomiak lanpostu guztien funtsezko zati bat jartzen du, estatuko gizarte-ekonomiako lanpostuen %16,4 baita.

Era berean, Lan eta Inmigrazio Ministerioaren Gizarte-Ekonomiako Datu-Baseak gure erkidegoan sektore horretan

³ CIDEK, 2004: "Hirugarren sektorea, ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa". Lan-koadernoak, 39. zk., Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, EUSKO JAURLARITZA.

II.4.2. Grafikoa. Gizarte-ekonomia EAEn: lanpostuen eta establezimendu kopuruaren bilakaera



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika. 2007ko datuen aurrerapena.
(*) Aurrekaria.

II.4.1. LAUKIA. GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUKO ADIERAZLEAK. DATUAK 2008-12-31n.


	GIZARTE-EKONOMIAN LANEAN ARI DIREN BIZT.	GIZARTE-EKON/ BAI (BIDER MILA)	TAMAINA BATEZ BESTEZ	
			KOOPERATIBAK	SS.LL.
Andaluzia	79.475	26,0	11,1	5,1
Aragoi	10.124	16,8	8,7	4,2
Asturias	6.356	14,4	11,1	5,8
Balearrak	3.958	8,0	14,1	5,8
Kanariar Uharteak	8.600	10,3	16,7	4,3
Kantabria	2.755	10,7	12,8	9,3
Gaztela-Mantxa	20.913	25,5	8,6	4,8
Gaztela eta Leon	15.070	14,3	7,6	4,5
Katalunia	50.611	14,9	7,7	5,8
Valentziar Kom.	62.296	28,5	18,0	5,4
Extremadura	8.695	21,9	9,1	5,3
Galizia	12.916	10,8	8,9	4,8
Madril	26.884	8,8	14,3	5,7
Murtzia	24.017	39,2	11,6	5,9
Nafarroa	10.131	35,7	20,2	8,0
EAE	67.942	69,7	36,7	13,4
Errioxa	1.997	13,8	10,0	6,2
Ceuta eta Melilla	513	10,5	10,5	5,2
Guztira	413.253	20,8	12,6	5,7

Iturria: MTIN. Gizarte-ekonomiaren datu-basea.

ari diren langileen zenbait ezaugarri azaltzen dizkigu eta estatukoekin erkatzen laguntzen digu: emakumeen portzentajea EAEn %46,9 da (estatuan, batez bestez, %42,8 da). Atzerriko langileen portzentajea, berriz, %2,4 da (estatuko batez bestekoa %9,7). Era berean, lanaldi partzialean lan egiten duten

langileak %15,1 dira (estatuan %16,4), eta langilerik gazteenen parte hartzea (25 urtetik beherakoak) estatuan dagoena baino askoz ere txikiagoa da: plantillako %4,5 EAEn eta %8,9 estatuan. Aitzitik, langilerik zaharrenen (55 urtetik gora) portzentajea handiagoa da EAEn (%13,1) estatuan baino (%10,7).

II.4.3. Grafikoa. Gizarte-ekonomiako sozietateen kopuruaren bilakaera



Iturria: Gizarte-ekonomiaren erregistroak, Eusko Jaurlaritzak.

Bestalde, kapituluan xeheago ikusiko dugunez, Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Ekonomiako Zuzendaritzako erregistroetan 2008ko abenduaren 31n 3.817 lan-sozietate eta kooperatiba ageri dira. Gizarte-ekonomiako enpresen kopurua 2007an baino 14 gehiago da. Azken urteetan lan-sozietate anonimoen kopurua murrizteko dagoen joera mantendu da (2008an, 15 gutxiago, eta aurreko urtean, 22). Sozietate kooperatiboen kopurua 47tan murriztu da 2007. urteaz geroztik. Sozietate mugatuak 18 gutxiago dira (aurreko urtean baino %1,6 gutxiago).

4.2.1. Gizarte-ekonomiaren kontuak 2006an

Gizarte-ekonomiaren estatistikako azken datu finkatuen arabera, 2005-2006 bi urtekoari dagozkionak, gizarte-ekonomia guztira 2.387 enpresa osatzen dute, EAEan 3.096 establezimendu dauzkatenak⁴. Aipatutako denboraldian 63.073 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen %6,6) eta 2.944 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (EAEko ekonomiaren BEGaren %5,3).

Bilakaera-dinamikari dagokionez, establezimendu-kopuruaren hazkundera 2004 eta 2006. urteen artean %2,1ekoa izan zen, enplegua %3,8 gehituz. Sortutako BEG, bestalde, bi urteko honetan %19,2 gehitu zen termino nominaletan (termino errealetan, %12,4). Enplegu garbiaren hazkundera 2004-2006 denboraldian sektore industrialaren suspertzeari zor zaio neurri handi batean. Sektore tertziarioko kooperatiba handien eboluzio onak ere bere eragina izan du.

Oro har, gizarte-ekonomiak 2004 eta 2006. urteen artean izan duen bilakaeraren ondorioz, ekonomia orokorraren barruan daukan pisua gehitu du, bai lanpostuei dagokionez bai BEGari dagokionez: %6,6 eta %5,3 dira, hurrenez hurren. Kopuru horiek 2004ko mailak gainditzen dituzte, nahiz eta 2002. urtean jo zuten sabaira iritsi ez (enplegua %6,8 eta BEG %5,6).


Enpleguari dagokionez, denboraldi horretako ezaugarri nabarmenetako bat da gizarte-ekonomian industriako lanpostuak berreskuratu direla. Honelako lanpostuak %3,2 gehitu dira, aurreko bi urtean izan zuten beheranzko joeraren aldean. Gizarte-ekonomiak industriako enpleguan daukan pisua %12,5 izatetik %13,2 izatera igaro da aztertutako bi urtekoan. Gainerako sektoreetako partaidetzak, berriz, dezima bateko aldaketa txikiak baino ez ditu izan.

Aurreko bi urtekoetan baino intentsitate txikiagoarekin bada ere, gizarte-ekonomian tertziarizatze prozesuak aurrera jarraitzen duela ikus dezakegu. Horrela, zerbitzuen sektoreko lanpostu kopurua %5,2 areagotu da 2004 eta 2006. urteen artean, sektore industrialaren gehikuntzatik (%3,2) gora, baina aurreko bi urtekoan izan zuen hazkuntzatik (%8,8) urrun.


BEGari dagokionez, 2006an 2004an baino emaitza hobeak izan ziren, neurri handi batean gizarte-ekonomiako enpresa handiek (bai industriakoak, 2004an emaitza negatiboak edota oso pobreak izan zituztenak, bai zerbitzuetakoak) egin zuten ekarpenari esker. Zehazki, 2004-2006 denboraldian gizarte-ekonomiaren BEG osoa %19,2 hazi zen, industriako gizarte-ekonomia %16,5 eta

⁴ Kontuan izan iturrien artean datuak asko aldatzen direla. Izan ere, gizarte-ekonomiako 2006ko kontuen arabera 2.387 enpresa daude, 3.096 establezimendurekin, baina urte horretan bertan Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Ekonomiako Zuzendaritzak 3.788 erakunde (2.187 lan-sozietate eta 1.601 kooperatiba) zeuzkan bere erregistroekin.

II.4.4. Grafikoa. Gizarte-ekonomiaren pisuaren bilakaera EAEn.



II.4.5. Grafikoa. Gizarte-ekonomiaren garrantzi erlatiboa enpleguan: sektoreka duen pisua



tertzarioa %24, termino arruntetan (prezioen eragina kenduz gero, %12,4, %11,5 eta %17,5 hazi zen hurrenez hurren). Gainera, azaldutako bilakaeraren ondorioz eta aurreko bi urtekoan baino testuinguru ekonomiko hobea izatearen ondorioz,


gizarte-ekonomiako enpresen emaitza ekonomikoak hobek izan dira 2006ko ekitaldian: 527,2 milioi euroko etekin agregatua sortu dute, 2004an sortutakoa (368,1 milioi euro) baino askoz ere handiagoa (+%43,2).

II.4.2. LAUKIA. EAEko GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEN DIMENTSIOA. 2006.

	ENPRESA KOP.	%	LANPOSTUAK	%	TAMAINA BATEZ BESTEZ
Gehienez 5 lanpostu	1.290	54,0	4.020	6,4	3,1
6tik 15era	599	25,1	5.765	9,1	9,6
16tik 50era	335	14,0	9.337	14,8	27,9
51tik 100era	80	3,4	5.616	8,9	70,2
101etik 200era	38	1,6	5.405	8,6	142,2
201etik 500era	26	1,1	8.106	12,9	311,8
500 lanpostu baino gehiago	19	0,8	24.824	39,4	1.306,5
GUZTIRA	2.387	100,0	63.073	100,0	26,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika, 2006.

II.4.6. Grafikoa. Gizarte-ekonomiaren esportazioen destinoa EAEn. 2006




Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, azpimarratzen du, destokitze prozesuak gorabehera⁵, gizarte-ekonomiako industriako enpresa handien esportazio-jarduerak indar handiagoa hartzeari zor zaiola, neurri handi batean, emaitzen hobekuntza. Azken horiek esportazioetan toki hobea hartu dute, euroaren sendotasunak ekarri dituen eragozpenak gorabehera.

Esportazio hauetatik gehienak Europara doaz (%74,8). Halere, Asiak ere pisu erlatibo handia du (%7) eta 2004. urtetik hona lau puntu gehitu ditu. Bilakaera hau Hegoamerikaren eta Ertamerikaren kaltetan da, gizarte-ekonomiaren esportazioen kontzentrazioan hiru puntu galdu baitituzte.

Deskribatutako testuinguru positiboan, establezimenduen eta enpresen batez besteko dimentsioa, lanpostuei dagokienez, 2004. urteaz geroztik gehitu da. Gainera, forma juridiko horiek dute joera hori. Aitzitik, bereizgarri batzuk aipatu beharra dago:

II.4.7. Grafikoa. Gizarte-ekonomiaren lanpostuen lurraldekako banaketaren bilakaera EAEn. %



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

⁵ Eusko Jaurlaritzak gizarte-ekonomiaren kontuei buruz egin duen txostenaren atal honetan, MCCko enpresek sortutako planta berriak aipatzen dira: 2007ko lehen seihilekoan, txinan sortzen ari den merkatuan 4 filial irekitzea aurreikusi zen, eta 18 herrialdetan 65 filial produktibo zeuden, MCC taldearen memoriaren arabera.

- Lan-sozietate anonimoek (SAL) gero eta garrantzi erlatibo txikiagoa dute gizarte-ekonomian, bai establezimenduei dagokienez, bai lanpostuei dagokienez (adierazle horiek %14 eta %3,8 jaitsi dira hurrenez hurren).
- Lan-erantzukizun mugatuko sozietateetako (SLL) establezimenduak termino absolutuetan egonkortu dira eta zenbait posizio galdu dituzte termino erlatiboetan. Halere, enplegu terminoetan partaidetza hobetu dute, dauzkaten plantillen tamaina handitu delako. Horrela, SLLek sortu dituzten lanpostuak SALen lanpostuen %61 baino gehiago dira, %16,1 areagotu baitira.
- Azkenik, sozietate kooperatiboek nabarmen hobetu dute beren posizio erlatiboa establezimenduei dagokienez (%8 hazi dira, guztien %59,9raino) eta lanpostuei dagokienez duten garrantzia ere sendotu egin dute (%4,1 hazi dira, gizarte-ekonomiaren lanpostu guztien %78,9raino).

Lanpostuen lurralde-dinamikari dagokionez, aurreko urteetako joerak mantendu dira. Gipuzkoak paper garrantzitsuena du (EAEko gizarte-ekonomiako lanpostuen %51,7).

Ikuspegi sektorial batetik, gizarte-ekonomiak lurralde bakoitzean duen pisu espezifikoak erakusten du industriak

Gipuzkoan daukan garrantzia, lurralde horretan baitaude industriako kooperatiba handietako asko (Gipuzkoako industriako lanpostuen %21,9 gizarte-ekonomiakoak dira). Bestalde, Bizkaian gizarte-ekonomiaren sektore tertziarioak pisu espezifiko handiagoa du eta gehitzen ari da, bai establezimendu kopuruari dagokionez bai lanpostu kopuruari dagokionez.

4.2.2. Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Ekonomiako Zuzendaritzaren erregistroak

a) Sozietate kooperatiboak

Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Ekonomiako Zuzendaritzaren Kooperatiben Erregistroaren abenduaren 31ko datuen arabera, 2008an 47 kooperatiba gehiago daude. Beraz, aurreko urtean baino %2,9 gehiago (2007an, hazkundea %2,5ekoa izan zen, 40 kooperatiba berriekin). 2008. urtearen amaieran, EAEko kooperatiba kopurua 1.688 da guztira.

Aurreko urteetako joerari eutsiz, elkarlaneko kooperatibak dira kooperatiben hazkundean indartsuenak. Hain zuzen ere, urte honetan elkarlanerako 26 kooperatiba berri daude, gehikuntza osoaren %55,3 alegia, 1.083 kooperatibaraino, guztiaren %64,2 (2007an guztiaren %64,4 ziren).

II.4.3. LAUKIA. KOOPERATIBA KOPURUA EAEn, MOTAREN ARABERA SAILKATUAK (abenduaren 31n)

	2006	2007	2008	%	07-08 gehikuntza	aldak % 00-08
GUZTIRA	1.601	1.641	1.688	100,0	47	44,5
Nekazaritza	95	99	97	5,7	-2	10,2
Kontsumoa	31	32	32	1,9	—	14,3
Zerbitzuak	73	76	80	4,7	4	63,3
Elkarlana	1.017	1.057	1.083	64,2	26	37,6
Irakaskuntza	96	92	93	5,5	1	9,4
Etxebizitza	228	224	236	14,0	12	138,4
Kreditua	2	1	1	0,1	—	—
Mistoak	13	17	20	1,2	3	400,0
2. maila	46	43	46	2,7	3	70,4


Iturria: Kooperatiben erregistroa. Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.4.4. LAUKIA. KOOPERATIBA KOPURUA LURRALDE HISTORIKOETAN, MOTAREN ARABERA (abenduaren 31n)

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2006	2007	2008	2006	2007	2008	2006	2007	2008
GUZTIRA	332	338	341	625	644	659	644	659	688
Nekazaritza	49	50	49	22	24	23	24	25	25
Kontsumoa	2	2	3	16	17	16	13	13	13
Zerbitzuak	11	12	12	29	28	29	33	36	39
Elkarlana	142	149	149	451	467	473	424	441	461
Irakaskuntza	9	10	11	44	43	43	43	39	39
Etxebizitza	108	104	105	53	54	61	67	66	70
Kreditua	0	0	0	1	1	1	1	0	0
Mistoak	2	2	2	1	2	2	10	13	16
2. maila	9	9	10	8	8	11	29	26	25


Iturria: Kooperatiben erregistroa. Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.4.8. Grafikoa. Lan-sozietateen kopuruaren bilakaera EAEn, motaren arabera.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan-sozietateen erregistroa.

II.4.9. Grafikoa. Lan-sozietateen kopuruaren bilakaera EAEn, jarduera sektorearen arabera



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan-sozietateen erregistroa.

Bigarrenik etxebizitzetako kooperatibak daude, guztien %14.1. Urte honetan 12 gehiago sortu dira; guztira 236 dira beraz. Gainerako sozietate motei dagokienez, haien pisua askozaz ere txikiagoa da. Aurreko urtetik honetara izandako aldakuntzei dagokienez, txikiagoak dira eta beraien artean konpen-tsatzen dira.

Gainera, EAE osorako azalduetako lurralde historiko bakoitzetan aplika daiteke, bai sozietate kopuruaren aldakuntzetan bai sektore nagusiei dagokienez. Gipuzkoan 29 kooperatiba berri sortu dira (gehienak elkarlanekoak), eta aurreko urtean 15 sortu ziren. Bizkaian 15 kooperatiba berri sortu dira 2007ko amaieratik (gehienak etxebizitzetakoak kasu honetan), eta au-

rreko urtean 19 sortu ziren. Araban hazkunde garbia 3 sozietate kooperatibokoa da.

b) Lan-sozietateak

Gizarte-ekonomiako enpresek hartzen duten forma juridikoe-tako beste bat lan-sozietateena da (anonimoak edo mugatuak). Hauetan, kapital sozialaren gehiengoa bazkide langileena da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Horregatik, gutxieneko bazkide kopurua 3 da.

Kapital soziala akzio izendunetan banatzen direnean, lan-sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen direnean, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateak dira (SLL). Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.

EAEko lan-sozietateen erregistroan, 2008. urtearen amaieran, bi mota horietako 2.129 lan-sozietate zeuden guztira, 2007an

baino 33 gutxiago alegia. Mugatuak gehiago dira anonimoak baino, 81 gehiago zehazki (2007an, 84 gehiago). Azken urtean, sozietate mugatuak 18 gutxiago dira (%-1,6). Lan-sozietate anonimoak, berriz, 15 gutxiago dira (%-1,4).

Sektoreka, sozietate mugaturik gehienek, %56,6ak, zerbitzuetan egiten dituzte beren jarduerak. SALen artean, berriz, gehienek (%51,4ak) industrian jarduten dute. Bereizketa hori, gainera, EAEko hiru lurraldeetan ematen da.

Lan-sozietateen plantillaren tamainari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Ekonomiako Zuzendaritzaren informazio eguneraturik ezin izan dugunez lortu⁶, daukagun daturik berriena Lan eta Inmigrazio Ministerioarena da. Ministerio horrek estimatzen du, esan dugunez, 2008ko abenduaren 31n batez besteko plantilla 13,4 langilekoa dela lan-sozietate bakoitzeko (aurreko urtean 13,2 langile ziren) eta estatuko batez bestekoa 5,7 langilekoa zela (2007an, 6,2).

II.4.5. LAUKIA. EAEn KALIFIKATUTAKO LAN-SOZietateak 2008-XII-31n

	Guztira				Mugatuak				Anonimoak			
	EAE	Araba	Bizk.	Gipuzk.	EAE	Araba	Bizk.	Gipuzk.	EAE	Araba	Bizk.	Gipuzk.
Sozietate kop.	2.129	231	1.146	752	1.105	136	632	337	1.024	95	514	415
Nekazaritza	20	2	12	6	10	1	6	3	10	1	6	3
Industria	781	66	376	339	255	28	129	98	526	38	247	241
Eraikuntza	359	49	206	104	215	26	123	66	144	23	83	38
Zerbitzuak	969	114	552	303	625	81	374	170	344	33	178	133

Iturria: Lan-sozietateen erregistroa. Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza Saila. EUSKO JAURLARITZA.

⁶ 2007. urteaz geroztik, ezinezkoa da EAEko lan-sozietateen erregistroan izena emanda dauden lan-sozietateetako bazkideen eta kapital sozialaren gaineko informazioa eguneratzea. Erregistro honek jakinarazi du ezinezkoa dela datu fidagarriak ematea. Izan ere, batetik, kapital sozialaren kuantifikazioaren edota osaeraren aldakuntzak erregistroari jakinarazi behar zaizkio nahitaez, baina praktikan sozietateek hala egiten dute merkataritza-erregistroan izena emateko interesa dutenean soilik, izena eman aurretik egin beharreko zeregina baita. Bestalde, sozietate asko Lan Ministerioaren erregistro egokian izena emanda zeuden EAEra transferituak izan aurretik. Horregatik, transferentziekin batera ez zirenez datu estatistikoak eman eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Ekonomiako Zuzendaritzak transferentzia hau egiterakoan lan-sozietateen inskripzio liburua eramateko sortu zuen aplikazio informatikoak aplikazio hori abiarazi zenez geroztiko datuak soilik biltzen dituzenez, ezinezkoa da gaur egun datu fidagarriak izatea aurretik inskribatua zeuden sozietateen bazkide kopuruari buruz. Horregatik, ez dira datu horiek ematen, erregistroko iturriek azaldu dutenez.

5. LAN MERKATUA EAE-N

2008 urtea 18.600 enpleguren galera garbiarekin amaitu zen, 2007ko gehieneko historikoaren aldean. Lehenik eta behin, behera egiten du lana duen pertsona kopuruak, 2006ko batez besteko mailan kokatuz. Bigarrenik, enplegua suntsitu izana garrantzitsua izan da % -2tik gertu— eta, gainera, bat-batean gertatu da urteko azkeneko hiruhilekoan. Horrek lan merkatua testuinguru ekonomikoarekiko subsidiarioa dela agerian uzten du.


Gainera, BAIk nahiz BJAk agerian uzten duten enplegu hon-damenarekin bat eginez, Gizarte Segurantzak hileko batez besteko afiliazioetan beherakada egon dela adierazten du¹, nahiz eta hori ez den hain adierazgarria. Urtearen amaieran, EAEko afiliatu kopurua aurreko urtekoa baino % 1,1 baxuagoa zen. Abenduko batez besteko afiliazioaren datua 965.494 per-sonakoa zen, 2007ko abenduan baino 10.766 gutxiago. Bestalde, erregistratutako langabetu kopurua % 11,8 areagotu da batez beste. Abenduan bakarrik % 6,2 hazi zen, Estatuko batez bestekoa baino 1,6 puntu gehiago. Erregistratutako

II.5.1. LAUKIA. ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N. URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA TASA ETA BALIO ABSOLUTUAK (MILAKOETAN)

	MEDIA 2007	MEDIA 2008	2007	2008			
			IV	I	II	III	IV
OCUPACIÓN (PRA)	1,1	0,3	0,3	1,0	1,9	0,1	-1,9
Número de ocupados según la PRA	964,8	967,9	974,4	971,5	970,8	971,4	955,8
PUESTOS DE TRABAJO (CET)	2,4	1,1	2,3	2,0	1,6	0,7	-0,1
Número de ocupados según las CET	1.015,1	1.025,8	1.022,3	1.024,5	1.031,6	1.025,7	1.021,2
AFILIACIÓN SEGURIDAD SOCIAL	2,6	1,2	2,4	2,1	1,8	1,3	-0,3
Número de afiliados a la S. Social	957,9	967,9	968,7	966,8	971,9	966,5	955,9
PARADOS (PRA)	-19,7	16,0	-8,5	-1,5	4,7	15,3	47,8
Número de parados según la PRA	32,5	37,7	31,4	33,6	35,5	35,5	46,4
PARO REGISTRADO (SPEE)	-6,4	11,8	-2,6	2,3	8,5	10,2	27,1
Número de parados registrados en el SPEE	75,6	84,6	74,6	82,6	79,0	83,0	100,6
TASA DE PARO (PRA)	3,3%	3,8%	3,1%	3,3%	3,5%	3,5%	4,6%

Fuente: Informe Koiunturaz. Dpto. de Hacienda y Administración Pública. Gobierno Vasco y elaboración propia.

II.5.1. Grafikoa. Enpleguak EAEn izandako bilakaeraren adierazleak. Urtetik urterako aldakuntza tasak



Iturria: EUSTATen, EInen eta Gizarte Segurantzaren datuekin landutakoa.

Kapitulu honetan, hain zabaldua dagoen Gizarte Segurantzako afiliazioan izandako aldakuntzari buruz hitz egiterakoan, Gizarte Segurantzari alta egoeran dagoen pertsona kopuruan izandako aldakuntzari buruz hitz egiten ari gara benetan.


100.000 langabetuen muga gainditu egin da, eta kopuru horretara ez gara iritsi izan azkeneko 8 urteetan. Hala eta guztiz ere, EAEa EEZPn, urtetik urterako erreferentzian, hazkunde txikiena eduki duena da erregistratutako langabetu kopuruan. Erreferentzia hori % 34,9ra iristen da. Estatu osoaren kasuan, hazkunde hori % 46,9koa da, eta horrek esan nahi du ia milioi bat langabetu berri dagoela.

5.1. Jardueraren, lanaren eta langabeziaren bilakaera

5.1.1. Okupazioa

BJAko datuek agerian uzte dute gure autonomia erkidegoan 2008an erregistratutako lan galerak % 67an kokatzen duela 16 eta 64 urte arteko okupazio tasa edo lan tasa. 2007ko kopuruekiko puntu bateko beherapena da, eta horrek enplegu helburu europarretik urruntzen gaitu, 2010erako % 70ean finkaturik baitago. Emakumeen lan tasari dagokionez, puntu erdia hazi dela esan behar da, % 59,1era iritsi arte, beraz, 0,9 puntu faltako lirateke 2010erako % 60ko hel-

II.5.2. Grafikoa. Enplegua EAEn: Urtetik urterako aldakuntza tasen bilakaera, EUSTATEN BJAREN eta EINEN BAIren arabera



Iturriak: EUSTAT eta EIN.

II.5.2. LAUKIA. BILAKAERA LISBOAKO ETA STOCKHOLMEKO HELBURUEN BETETZE MAILA GORABEHERA

	Erabateko Okupazio Tasa				Emakumeen Okupazio Tasa				55/64 Okupazio Tasa			
	Egungoa	Falta da	Azken urtea	2000tik	Egungoa	Falta da	Azken urtea	2000tik	Egungoa	Falta da	Azken urtea	2000tik
EB 27	66,4	3,6	0,4	4,2	59,5	0,5	0,7	5,8	46,0	4,0	0,9	8,4
Danimarka	78,6	-8,6	1,5	2,2	74,4	-14,4	1,1	2,3	56,7	-6,7	-3,2	2,1
Herbehereak	77,5	-7,5	1,0	4,6	71,5	-11,5	1,4	8,1	53,5	-3,5	2,1	15,6
Suedia	75,7	-5,7	0,0	2,3	73,2	-13,2	-0,1	1,9	70,3	-20,3	-0,3	5,7
Austria	72,8	-2,8	0,3	4,4	66,3	-6,3	1,0	7,1	41,2	8,3	1,8	11,9
Finlandia	72,1	-2,1	0,4	4,0	69,6	-9,6	0,4	4,4	57,0	-7,0	1,9	15,8
E. Batua	71,5	-1,5	-0,1	0,5	65,8	-5,8	0,2	1,3	57,8	-7,8	0,5	7,4
Alemania	71,3	-1,3	1,4	6,0	65,7	-5,7	1,4	7,9	54,2	-4,2	2,3	16,7
Zipre	71,0	-1,0	-0,3	5,6	62,4	-2,4	0,0	9,4	55,1	-5,1	-1,5	5,6
Estonia	70,4	-0,4	0,2	10,1	67,5	-7,5	0,8	10,3	61,9	-11,9	3,4	18,6
Eslovenia	70,1	-0,1	1,1	7,4	65,5	-5,5	1,9	7,0	3,4	16,6	-1,7	11,1
Gipuzkoa	69,5	0,5	-1,2	8,4	62,4	-2,4	0,6	15,7	45,8	4,2	0,4	10,9
Letonia	69,0	1,0	0,0	1,4	65,4	-5,4	0,7	1,4	59,9	-9,9	2,2	4,7
Araba	68,3	1,7	-1,0	5,9	58,8	1,2	0,0	9,4	42,9	6,1	-1,3	7,0
Portugal	68,1	1,9	0,0	-0,1	62,5	-2,5	0,2	2,0	51,2	-1,2	-0,4	-0,1
Irlanda	68,0	2,0	-1,9	3,5	60,7	-0,7	-0,8	7,5	53,8	-3,8	-0,2	8,7
EAE	67,0	3,0	-1,0	9,5	59,1	0,9	0,5	16,1	41,7	8,3	-0,5	7,7
txekiar E.	66,7	3,3	0,4	1,8	57,6	2,4	0,3	0,8	47,5	2,5	1,1	11,4
Frantzia	65,7	4,3	0,6	3,6	61,0	-1,0	0,6	5,8	38,3	11,7	0,1	1,0
Bizkaia	65,2	4,8	-0,8	11,1	57,2	2,8	0,6	17,9	38,9	10,1	-0,7	5,8
Lituania	65,2	5,0	-1,1	-0,4	62,7	-2,7	-0,2	0,0	53,7	-3,7	-1,7	-0,2
Bulgaria	65,0	5,0	2,3	13,5	60,4	-0,4	1,8	13,2	47,3	2,7	3,5	25,2
Espainia	64,5	5,5	-1,5	8,4	55,1	4,9	0,1	13,9	45,6	4,4	1,1	8,8
Luxenburgo	64,3	5,7	-0,4	1,6	55,1	4,9	-1,1	5,1	36,0	14,0	1,2	8,8
Eslovakia	63,1	6,9	2,4	6,8	55,4	4,6	2,7	4,3	40,8	9,2	4,4	19,3
Belgika	62,6	7,4	0,5	1,7	56,6	3,4	1,3	4,7	35,6	14,4	1,1	10,6
Grezia	62,2	7,8	0,4	5,6	49,1	10,9	0,9	7,3	42,8	7,2	0,1	3,4
Errumania	60,5	9,5	0,0	-3,7	54,3	5,7	-0,2	-4,7	45,9	4,1	0,8	-6,1
Polonia	60,0	10,0	2,2	4,9	53,0	7,0	1,5	3,7	32,0	18,0	1,7	3,0
Italia	59,0	11,0	-0,1	5,6	47,2	12,8	0,3	7,9	34,9	15,1	0,7	7,6
Hungaria	57,3	12,7	-0,4	1,4	51,0	9,0	0,0	1,6	32,0	18,0	-1,2	10,1
Malta	56,1	13,9	1,2	1,6	38,6	21,4	2,6	5,1	29,7	20,3	0,2	1,1
% 70					% 60tik gora				% 50			

Iturria: LANBIDE, EUROSTAT, EFT eta EUSTAT, BJA-ren datuekin.

EAEko datuak 2008ko 4. hiruhilekoak dira; gainerako herrialdeetako datuak 2008ko 3. hiruhilekoak dira.

burua lortu ahal izateko. Azkenik, Europar Batasunak 2000n finkatu zuen Lisboan okupazioko % 50 lortzeko helburua, 55 urtetik gorako kasuan. EAEk % 41,7 erregistratu zuen 2008an, puntu erdi bat urrunduz helburutik 2007ko datuarekiko.

Une honetan EAE Espainiaren, Luxenburgoren edo Belgikaren aurretik kokatzen da EBko Enplegu Helburuei dagokienez, eta Irlanda edo Portugaletik gertu. Aitzitik, oraindik bide luzea du egiteko adierazle hobeko beste batzuen kokalekura iritsi arte, adibidez Danimarkaren, Holandaren edo Suediaren adierazleetara iritsi arte, izan ere, % 70aren muga gainditzen dute jada beren okupazio tasan.

2007ko abenduaren eta 2008ko abenduaren artean EAEn jazotako lan murriztapena gizonezkoek jasan dute batez ere (-20.600), emakumezkoen enpleguak 1.900 lanpostu inguruko kopuruan gorantz egin duen bitartean.

Adinari erreparatuz gero, gazteenak izan dira murriztapenaren eraginak gehien jasan dituztenak: 25 urtetik beherako kasuan, beherakada garrantzitsua da bi sexuentzako (% -13,5 batez beste); eta 25 eta 34 urte artean, lan murriztapen

garrantzitsua ikusi da ere (% -5,1), batez ere gizonezkoengan (% -8,4).

Industriak, eraikuntzaren beherakada orekatzeko itxaropen garrantzitsuenak dituen sektoreak, giza baliabideen zuzenketak garrantzitsua jasan du 2008ko laugarren hiru hilabetean (% -3,7), eta horrek urtetik urterako bilakaera % 0,7ko beherapenera darama. Eraikuntza, bestalde, egonkortu egiten da, baina % 9,2ko erorketa izan du azkeneko urtean. Hirugarren sektorea enplegua galdu duen azkenekoa izan da, baina laugarren hiru hilabetean galdu egin du ere (% -0,9) eta urteko bilakaeran % 1,4 galtzen du. Okupazioaren sektorekako banaketa aztertzerakoan, ikus daiteke aurten

ere zerbitzuen sektoreak eutsi duela lehenik eta behin enplegua. EAEn enpleguaren % 64,2 hartzen du -2007an baino 4 hamarren gutxiago-.

Lanak behera egitearekin batera, biztanleria aktiboaren beherakada ere jazo da (% -0,4), hainbat aldi positiboan egin ondoren. Zeinu aldaketa horrek nolabaiteko etsipena adieraz dezake lan bila dabilen biztanleriaren artean. Hasiera batean, aktiboan dauden gizonezkoen artean bakar-bakarrik gerta-

II.5.3. LAUKIA. ENPLEGU ADIERAZLEAK EUROPAR BATASUNEAN 2007-2008

	JARDUERA T.		LANGABEZIA T.		GAZTE LANGAB. T.		ALDIBATERAK. T.	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008
EB -27	57,5	57,7	7,1	7,0	15,3	15,4	14,5	14,0
EB -15	58,2	58,4	7,0	7,1	14,7	15,2	14,8	14,4
BEM	57,1	57,4	7,5	7,5	14,8	15,1	16,8	16,4
Belgika	54,0	53,5	7,5	7,0	18,8	18,0	8,6	8,3
Bulgaria	53,0	53,5	6,9	5,6	15,1	12,7	5,2	5,0
txekiar E.	58,8	58,6	5,3	4,4	10,7	9,9	8,6	8,0
Danimarka	65,4	66,1	3,8	3,3	7,9	7,6	8,7	8,4
Alemania	59,9	60,1	8,4	7,3	11,1	9,8	14,6	14,7
Estonia	59,9	62,2	4,7	5,5	10,0	12,0	2,1	2,4
Irlanda	63,9	62,5	4,6	6,3	9,1	13,3	7,3	8,5
Grezia	53,3	53,5	8,3	7,7	22,9	22,1	10,9	11,5
Espainia	58,4	59,4	8,3	11,3	18,2	24,6	31,7	29,3
Frantzia	56,8	57,0	8,3	7,8	19,4	18,9	14,4	14,2
Italia	49,3	49,2	6,1	6,8	20,3	21,3	13,2	13,3
Zipre	64,7	64,2	4,0	3,8	10,1	9,5	13,2	13,9
Letonia	61,8	61,5	6,0	7,5	10,7	13,1	4,2	3,3
Lituania	55,9	57,5	4,3	5,8	8,2	13,4	3,5	2,4
Luxenburgo	55,9	55,3	4,2	4,9	15,6	16,8	6,8	6,2
Hungaria	50,4	50,2	7,4	7,8	18,0	19,9	7,3	7,9
Malta	48,7	49,3	6,4	5,9	13,8	11,9	5,1	4,3
Holanda	66,1	66,9	3,2	2,8	5,9	5,3	18,1	18,2
Austria	60,7	61,3	4,4	3,8	8,7	8,0	8,9	9,0
Polonia	54,1	54,7	9,6	7,1	21,7	17,3	28,2	27,0
Portugal	62,7	62,3	8,1	7,7	16,6	16,4	22,4	22,8
Errumania	53,6	53,8	6,4	5,8	20,1	18,6	1,6	1,3
Eslovenia	59,4	59,5	4,9	4,4	10,1	10,4	18,5	17,4
Eslovakia	59,2	59,4	11,1	9,5	20,3	19,0	5,1	4,7
Finlandia	60,4	60,5	6,9	6,4	16,5	16,5	15,9	15,0
Suedia	63,1	63,1	6,1	6,2	19,1	20,0	17,5	16,1
Erresuma B.	62,7	62,9	5,3	5,6	14,3	15,0	5,9	5,4
EAE	54,6	55,0	3,3	3,8	7,6	9,8	21,0	20,4

Iturria: EUROSTATetik (2009ko maiatzaren 13ko datuak) eta EUSTAT, BJA-tik abiatuz landutakoa.

II.5.4. LAUKIA. LANEAN ETA LANGABEZIAN DAGOEN BIZTANLERIA SEKTOREKA

	BATEZ BESTEKOAK (milakoetan)		HAZKUNDEA (milakoetan)		Urtetik urterako aldakuntza tasa	
	2007	2008	06-07	07-08	06-07	07-08
OKUPAZIOA - BJA	964,8	976,4	10,6	11,6	1,1	1,2
LEHEN SEKTOREA	12,0	12,0	-0,6	0,0	-4,4	0,0
INDUSTRIA	245,5	247,1	1,0	1,6	0,4	0,7
ERAIKUNTZA	83,6	81,3	2,9	-2,3	3,6	-2,8
ZERBITZUAK	623,7	626,9	7,3	3,2	1,2	0,5
LANGABEZIA - BJA	32,5	37,7	-8,0	5,2	-19,8	16,0
LEHEN SEKTOREA	0,1	0,2	-0,2	0,1	-66,7	100,0
INDUSTRIA	6,2	8,0	-1,2	1,8	-16,2	29,0
ERAIKUNTZA	3,4	4,4	-1,3	1,0	-27,7	29,4
ZERBITZUAK	20,1	22,0	-4,7	1,9	-19,0	9,5
1. lana bilatzen dabil	2,7	3,1	-0,6	0,4	-18,2	14,8

Iturria: EUSTAT, "Inkesta. Biztanleria Jardueraren Arabera".

II.5.5. LAUKIA. JARDUERA ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA SEXUAREN ETA ADIN TALDEEN ARABERA. URTEKO BATEZ BESTEKOAK

	Jarduera tasa			Langabezia tasa		
	2006	2007	2008	2006	2007	2008
16tik gorako bizt.	54,6	54,6	55,0	4,1	3,3	3,8
16-24	34,9	33,5	34,6	8,2	7,6	9,8
25-34	87,0	87,6	86,7	5,6	4,1	4,9
35-44	83,7	84,3	86,3	3,8	3,2	3,2
45-54	77,2	77,9	79,4	2,3	2,0	2,5
55-64	42,7	41,9	42,8	2,2	1,6	1,8
+64	0,9	0,9	0,9	0,0	0,0	0,0
Gizon. GUZTIRA	64,4	65,0	64,3	3,7	3,0	3,4
16-24	37,5	37,8	37,1	7,5	7,6	10,4
25-34	90,3	92,4	89,7	5,7	4,5	5,3
35-44	93,7	93,8	94,9	3,3	2,6	2,7
45-54	92,7	92,3	92,0	2,0	1,6	1,7
55-64	57,5	58,8	57,5	1,9	1,6	1,7
+64	1,3	1,5	1,6	0,0	0,0	0,0
Emak. GUZTIRA	45,2	44,9	46,3	4,5	3,6	4,2
16-24	32,2	32,2	31,9	9,0	7,7	9,2
25-34	83,5	83,5	83,4	5,5	3,6	4,6
35-44	73,4	73,4	77,3	4,5	4,1	4,0
45-54	62,3	63,8	67,2	2,8	2,5	3,6
55-64	28,1	27,4	28,9	2,5	1,6	2,0
+64	0,5	0,5	0,5	0,0	0,0	0,0

Iturria: EUSTAT, BJA.

tzen den inguruabarra da. Haien kopuruak % 2,3 egiten du beherantz, emakume aktiboek kopuruak % 2,3ko aurrerape-
nak ageri dituen bitartean. Ondorioz, 2008ko laugarren hiru-
hilekoko parte-hartze tasa orokorra aurreko hiru hilekoko tasa
baino bi hamarren azpitik geratzen da.

EAEn lan jarduera duten pertsonen okupazio mailari dagokio-
nez, BJAk "zorrozki okupatuta" deritzen pertsonen behera egin
dutela erregistratu du (hain zuzen ere 15 eta 44 ordu arteko
asteko lanaldia egiten dutenak). Haien kopurua % 0,5 erori
da, 912.400era iritsiz (2007ko kopurua baino % +2,7). Horiek

soldatapeko guztien % 94,3 dira. Aldiz, "neurritz gain okupatu-
rikoen" hazkunde nabarmena jazo da (asteen 44 ordutik go-
rako lanaldia). % 17,2 hazi dira (2007an baino % -22,9), 40.300
kopururaino iritsiz eta azken urteetako joerak apurtuz. Haiek
okupatuta dauden pertsonen % 4,2a hartzen dute. Azkenik,
azpiokupazioa, hondarreko okupazioa edo ia okupatuta
daudenek ageri duten bolumena (erreferentziako astean 15
ordutik behera egiten dituztenak) % 9,8 hazi da, aurreko ur-
tean % 18,9 murriztu bazen ere. Guztira 14.600 pertsona dira.
Bestalde, kapitulu honetako 5.3.3 idatz-zatian xehetasun osoz

islatzen den moduan, EAEn 2008an sinatutako hitzarmen kolektiboek murriztu egin dute azken urteetako lanaldiaren murriztapenaren joera. EAEko hitzarmen kolektiboetatik eskuratu datuek urteko batez besteko 1.695 orduko lanaldia finkatzen dute, 2007an baino bat gutxiago, eta EAEn erregistratutako hitzarmenen kasuan, kopurua 1.690 ordukoa da (aurreko urtekoa baino bat gutxiago ere).

Aldi baterakotasun mailetara igaroz, BJAren datuek beherako joera erakusten dute jarraikako.

Diferenzial hori murriztu egin da 2008an, izan ere, 2007an 10,7 puntukoa zen. LANBIDEk, Laneko Merkatuaren Behatokiak, 2008ko laugarren hiruhilekoko "Laneko Merkatuaren koiuntura" izeneko buletinean adierazi egiten du Estatuan aldi baterakotasuna nabarmenki erori izanaren arrazoia iraunaldi zehatzeko kontratuekin soldatapean zeudenen artean lana bortizki suntsitu izana dela. EAEren mailan, soldatapekoen murriztapena dezente txikiagoa izan da eta, azkeneko hiruhilekoan, mugagabeei eragin die gehiago aldi baterakoei baino, harrigarria badirudi ere seigarren urtez, eta soldatapeko biztanleriaren portzentajea, aldi baterako kontratuarekin, % 20,4ko kopuruan kokatzen da, 2007an baino 6 hamarren gutxiago. Beheranzko joera, gainera, bi sexuen kasuan gertatzen da: emakumeen artean 1,1 puntu jaitsi da, eta 2 hamarren gizonezkoen artean. Ondorioz, sexuen arteko aldi baterakotasunean zegoen tartea murriztu egin da gure erkidegoan 2008an zehar, eta 4 puntutan geratzen da, aurreko urtean baino 9 hamarren gutxiago.


Arrazoia gizonezkoen artean emakumeen artean baino gutxiago jaitsi izana da.

Aitzitik, eta beste behin murriztu egin bada ere aldi baterako kontratuen indarra (horrelako kontratuei atxikitako langile kopurua % 2an jaitsi da), aldi baterako ratioek Europako batez bestekoaren gainetik jarraitzen dute (% 14 EB27ren kasuan), nahiz eta, adibidez, 8,9 puntu Estatuako tasaren azpitik.

Bestalde, kontraturik gabeko egoerak eta bestelakoak jasotzen dituen tasak, funtsean emakumeen taldeari eragiten dietenak (gizonezkoen kasuan % 0,4koa da tasa 2008an), beherantzkoak izan dira aurten ere. Emakumeen kasuan, % 5,4an kokatzen da, aurreko urtean baino zortzi hamarren gutxiago eta hamarkadako tasa txikiena.

Adin taldeka, oraindik ikusi egiten da aldi baterako kontratuekin eta kontraturik gabe lan egiten duten pertsona gehienak gazteenak direla, nahiz eta kopuruak murriztu egin diren aurreko urtekoen aldean. Zehazki, 16 eta 24 urte arteko emakumeen % 61,5ak (2007an baino 8 hamarren gutxiago) eta adin berdineko gizonezkoen % 61ak (aurreko urtean baino 7 hamarren gehiago) aldi baterako kontratua dute. "Kontraturik gabe eta bestelakoak" egoeran dauden soldatapeko pertsonen tasak, adin berdinerako, % 3 eta % 2 dira hurrenez hurren². Emakume gazteei dagokienez, % 62,2ak aldi baterako kontratuak ditu eta % 4,6a "kontraturik gabe eta bestelakoak" egoeran dago. Azkenik, Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez 2008ko abenduan, esan beharra dago afiliazioak behera egin zuela.


II.5.3. Grafikoa. Okupatutako biztanleriaren bilakaera (milaka), lan egindako ordu kopurua gorabehera




Iturria: EUSTAT.

² EAEn gazteen lan baldintzak xehetasun gehiagoz aztertzeko, irakurleari 2007ko "Taldea ahul jakin batzuen Bizi Baldintzak: Gazteria" Memoria Sozioekonomikoko IV.1.2 Kapitulura jotzeko gonbitea luzatzen zaio.

II.5.4. Grafikoa. EAEko eta Estatuko Gizarte Segurantzaren afiliazioaren bilakaera. Urtetik urterako aldakuntza tasa



II.5.5. Grafikoa. Soldatapeko finkoen eta aldi baterako bilakaera EAEn. %a aurreko hiruhilekoaren aldean



Iturria: EUSTAT, BJA.

jada esan den moduan, % 1,3an aurreko urteko kopuruaren aldean. Erregimenei dagokienez, eta ekitaldi amaierako kopuruak gorabehera, harrigarria da ekonomiaren alorreko ziurtasun ezeko testuinguru batean Etxebizitzako Erregimena areagotu egin dela % 6,9an 2007ko amaierarekiko. Autonomoen erregimenak ere hazkunde garrantzitsua bizitu du (% 1,8), baina artifiziala da. Nekazaritza Erregimenak norberaren konturako langileak xurgatu izatetik eratorrita³. Faktore hori neutralizatuta, saldoa negatiboa da bi sektoreetan. Erregimen Orokorra erori egin da % 1,4an, baina Itsasoak egonkortzea lortu du eta % 0,5 hazi da. Jarduera sektoreka, urtearen azkeneko tartean erorketa igarri da eraikuntzan eta industrian: lehenengoak afiliazioaren % 10,1 galdu badu 2008an zehar, abenduan bakarrik erorketa % 6,2koa izanez. Industriak % 4 galdu du urte osoan eta % 2,1 abenduan, aurreko hilabeteko kopuruaren aldean. Bi sektoreetan, afiliazioaren suntsiketa udan hasi zen, eta ordudanik gaur arte hazten joan da. Zerbitzuek, bestalde, mantentzea lortu dute, eta % 0,8 hazi dira urtean zehar. Lehen sektorea, azkenik, % 1 murriztu da.

5.1.2. Langabezia

2008an zehar, langabeziak onuragarria izan ez den bilakaera eduki du (langabezia tasa % 3,8koa izan da batez beste EUSTATEN urteko erreferentzian, 2007an baino 5 hamarren gehiago). Tasa honen hiruhileko bilakaera aztertuz gero, ikusiko dugu % 3,3rekin hasten dela, baina laugarren hiruhilekoan % 4,6arekin amaitzen dela. Ia Europa guztia nabarmentzen ari

da une txarra dela, eta azpimarragarria da Baltikoko herrialdeetan eta Espainian langabeziaren hazkundearen azkartasuna. EAEk oraindik neurri bateko abantaila du Europar Batasunaren batez bestekoarekiko: 4,6 puntu 2008ko laugarren hiruhilekoan.


Aldiko batez besteko datuaren arabera, EAEk 37.700 langabetuko taldea du, 2007an baino 5.200 gehiago. Horrek esan nahi du % 16ko hazkunde egon dela (2006 eta 2007 artean jazotako % 19,8aren murriztapenaren aldean). Sexuen arabera, langabezia areagotu egin da ia berdinki gizonen artean zein emakumeen artean, eta haien batez besteko langabezia tasak % 5,3an eta 4,1ean kokatu dira hurrenez hurren.

Sektoreka, langabetuen % 58,4 zerbitzuen sektorekoa da, han langabezia areagotu egin baita % 9,5ean. Halaber, industrian, langabezia areagotu egin da % 29an (batez bestekoaren gainetik). Aldi berean, eraikuntzak langabetuen hazkunde handiagoa erregistratu du: % 29,4. Bestalde, lehenengo lana bilatzen dabilen pertsonen taldeak gora egin du 400 pertsonatan. Ondorioz, 3.100 zenbatu dira batez beste urtean. Aldiz, iraunaldi luzeko langabetuek hazkunde garrantzitsua eduki dute (% +7,6), eta egoera horretan dago langabezia dagoen bost pertsonatik bat (% 20ko tasa, 2007ko batez besteko % 18,6aren aldean).

Adinei begiratuz gero, erdi mailako taldean areagotu da langabezia nabarmenkiago termino absolutuetan (+ 2.000), baina 25 urtetik beherako gazteen artean ageri da proportzio handiena (% +30,4). Aldiz, 45 urtetik gorakoen kasuan, deigarria da

³ 2008ko urtariretik, Norberaren Kontura Lan Egiten duten Langileak edo Autonomoak Erregimen Orokorren barruan kokatu dira, alegia, Nekazaritzako Langileen Sistema Berezian (NLSB). Nekazaritzako Erregimen Bereziko norberaren konturako langileak, 18/2007 Legea aplikatzeagatik.

II.5.6. Grafikoa. Langabezia tasa EAEn adinaren arabera. Hiruhileko bilakaera



Iturria: EUSTAT, BJA.

II.5.8. LAUKIA. BIZTANLERIA LANGABETUA EAE-N. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA.

	Pertsona kop.			Aldea		Aldakuntzaren %a		Langabezia tasa	
	2006	2007	2008	2006-07	2007-08	2006-07	2007-08	2007	2008
GUZTIRA	40.500	32.500	37.700	-8.000	5.200	-19,8	16,0	3,3	3,8
GIZONAK	21.300	17.500	19.500	-3.800	2.000	-17,8	11,4	3	3,4
EMAKUMEAK	19.200	15.100	18.200	-4.100	3.100	-21,4	20,5	3,6	4,2
ADINA: 16-24	5.400	4.600	6.000	-800	1.400	-14,8	30,4	7,6	9,9
ADINA: 25-44	27.300	21.400	23.400	-5.900	2.000	-21,6	9,3	3,7	4,1
ADINA: +45	7.800	6.600	8.300	-1.200	1.700	-15,4	25,8	1,9	2,2
Lehen mailako ikasketak	3.700	2.700	2.500	-1.000	-200	-27	-7,4	2,3	2,2
Erdi mailako ikasketak	26.500	21.200	27.300	-5.300	6.100	-20	28,8	3,7	4,7
Goi mailako ikasketak	10.300	8.600	8.000	-1.700	-600	-16,5	-7,0	2,8	2,6
Aurretik lan egin dute	37.300	29.900	34.700	-7.400	4.800	-19,8	16,1		
Lehenengo lana bilatzen dabilta	3.300	2.700	3.100	-600	400	-18,2	14,8		


Iturria: EUSTAT "PRA".

ere % 25,8a iritsi izana. Langabezia tasari erreparatuz gero, 25 urtetik beherakoentzako da hiruhileko bilakaera kaltegarrien, izan ere, lehenengo hiruhilekoan langabezia tasa % 8,8koa bazen (% 3,3 batez beste), urteko azkeneko hiruhilekoan % 11,8a iritsi zen (% 4,6 batez beste). % 12aren muga horretan, EAEa Europako batez bestekoa baino 4,6 puntu beherako kokatzen da gazteen langabeziari dagokionez. Laneko merkatuan hondamen handiena duten estatuak dira gazteen artean langabezia areagotze handienak bizitzen ari direnak. Espainian, ratioa 10 puntu areagotu da, eta % 29,4an kokatzen da, Batasuneko kopuru altuena. Irlandan 8,3 puntu areagotu

da eta % 17,4an kokatzen da; Suedian 4,8 puntu areagotu da eta % 23,8an jarri. Europako ekialdeko estatu batzuen kasua azpimarragarria da, adibidez Bulgaria, Polonia eta Eslovenia. Italiar gain. Bertan, hain koiuntura ekonomiko konplexuan, murriztu egin da gazteen arteko langabezia.

Bestalde, Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoan erregistratutako langabezia estatistiken gainetik kokatzen dela ikusi da. 2008ko abenduan, 100.637 langabetu erregistratu zen EEZP-n (% +34,9 aurreko urteari dagokionez), EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako Inkestak urteko laugarren hiruhileko-rako kalkulaturiko 46.400 pertsonen aldean. Horren arrazoia

II.5.7. Grafikoa. EAEen erregistratutako langabeziaren hileko bilakaera sexuaren arabera. 2008 urtea



Iturria: EEZP.

II.5.9. LAUKIA. LANGABEZIAN EGON GABE LAN ESKATZAILE DIRENAK EAE-N. ABENDUA

	2006	2007	2008
Etendako eskaerak	904	710	796
Gizarte lankidetzak	5	10	9
Erretiroa hartu dutenak	807	789	1.014
Pentsiodunak	1.349	1.351	1.609
Enplegua Erreg. Esp.	136	85	113
Koiunturako enplegua	0	0	1
20 ordutik beherako lanaldia	2.529	1.979	1.793
Ikasleak	509	309	333
Aldizkako finkoak	2.852	3.016	3.482
EO-ko okupatuak eta autonomoak	19.325	20.079	22.008
Nekazaritzan okupaturikoak	180	175	295
Beste arrazoi batzuk	486	643	766
GUZTIRA	29.082	29.146	32.219

Iturria: EEZP.

da inkesta honetako langabetuen sailkapenak kontzeptu honetatik kanpo uztea lan eskatzaile gisa izena eman duten pertsona ugari⁴.

Jarduera ekonomikoen mantsotzeak gehien eragindako sektoreak oso maskulinizatuta daudenez (eraikuntza eta industria),

II.5.10. LAUKIA. EEZP-REN BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (ABENDUA)


	2006 AB.	2007 AB.	2008 AB.	% 06-07	% 07-08
GUZTIRA	76.203	74.582	100.637	-2,1	34,9
GIZONA	31.317	31.068	48.694	-0,8	19,4
EMAKUMEA	44.886	43.514	51.943	-3,1	56,7
Adina < 25 urte	5.957	5.677	9.275	-4,7	63,4
Adina: 25-44 urte	38.062	36.265	52.260	-4,7	44,1
Adina: 45 eta gehiago	32.163	32.640	39.102	1,5	19,8

Iturria: EEZP.

gizonezkoak dira erregistratutako langabezi hazkundera gehien jasan dutenak. Gizonezkoen langabezia areagotu egin da 2008an % 56,7an. 2007ko abenduko kopuruaren aldean. Aldiz, emakumeen langabezia % 19,4an areagotu da. Azkenik, hiru Lurralde Historikoen antzeko joera mantentzen dute 2008an. Urteko batez besteko langabezia tasak (BJA) hazi egin dira batez bestekoaren gainetik Gipuzkoan (+ 7 hamarren), haren azpitik Bizkaian (+ 3 hamarren) eta batez bestekoaren kopuru berdinean Araban (+5 hamarren). Aldiz, urte amaierako egoerari arreta emanez gero (IV. Hiruhilekoa),

⁴ Bi eragiketen arteko alde metodologikoak oso garrantzitsuak dira eta ez dute alderaketak egiteko aukerarik ematen, izan ere, langabetuen sailkapen ezberdinez gain, EEZPren kopuruak erregistroetatik datozen bitartean, BJAkoak lagin jakin batetik abiatuz egindako inkestatik datoz. Gainera, aintzat hartu behar da Europako Batzordearen 1897/2000 Erregelamendua jarraituz, urte horretatik aurrera, BJAk langabetutzat hartzen dituela soldatapeko enplegurik edo enplegu aserik ez edukitzeaz eta gaur egun lan bila eta lan egiteko moduan egoteaz gain, aurreko lau asteetan erregelamendu horretan "aktibotzat" jotako lan bilaketako kudeaketa batzuk egin baditu. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea egiteagatik edo prestakuntza ikastaroengatik enpleguaren zerbitzu publikoarekin harremanetan jartzea. Ondorioz, EUSTATEN inkestak "langabetuaren" kontzeptu horretatik kanpo uzten du EEZPk benetan langabetutzat hartutako pertsonetatik asko.

II.5.8. Grafikoa. Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn eta Europan



Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuekin landutakoa.

II.5.II. LAUKIA. ESKATZAILE LANGABETUAK OKUPAGARRITASUNAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA: % GUZTIAREN/G, 2008KO ABENDUA

	OKUPAGARRITASUN MAILA				
	OSO BAXUA	BAXUA	BATEZ BESTEKO	ALTUA	IZENA EMANDAKO GUZTIAK
Andaluzia	14,00	31,35	38,02	16,53	719.378
Aragoi	9,37	32,49	47,74	10,40	67.266
Asturias	11,28	22,02	37,05	39,65	63.614
Balearrak	6,65	23,67	44,43	25,25	73.298
Kanariar Uharteak	14,81	25,35	38,82	21,02	202.993
Kantabria	10,36	19,85	38,01	31,77	33.771
Gaztela-Mantxa	10,61	29,24	42,75	17,40	147.817
Gaztela Leon	14,01	28,88	39,61	17,49	150.545
Katalunia	14,44	36,54	36,85	12,17	423.232
Valentziako E.	10,77	23,78	35,35	30,10	357.824
Extremadura	17,58	29,95	37,05	15,43	97.574
Galizia	17,10	27,86	37,61	17,43	189.903
Madril	7,60	16,11	40,12	36,17	345.333
Murtzia	10,05	39,99	38,55	11,42	90.956
Nafarroa	9,28	14,03	35,85	40,84	32.956
EAE	12,67	20,20	35,78	31,35	100.637
Errioxa	11,68	32,58	43,53	12,20	16.671
Zeuta	14,41	39,35	40,42	5,81	7.486
Melilla	13,22	26,45	39,85	20,48	7.709
Guztira	12,59	27,90	38,38	21,13	3.128.963

Iturria: EEZP.

Araba izango litzateke zigortuena, ekonomiak okerrera egiteagatik eta, ia-ia erabateko enplegu egoeran egotetik, 2008aren amaieran % 5,5eko langabezia tasan kokatzen da, 2007ko amaieran baino 3,4 puntu gehiago. Gipuzkoak eta Bizkaiak,

hazkunde askoz ere arinagoak izan badituzte ere, kaltea agertzen dute ere beren langabezia tasetan.

Eskualdeka erregistratutako langabeziako EEZPren datuen bilakaerari dagokionez, ikus daiteke termino absolutuetan

II.5.12. LAUKIA. EAE-N ESKUALDEKA ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. 2008KO ABENDUA

ESKUALDEA	2008ko abendua			2008ko abendua			2007/2008 ALDAK. %a		
	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.
Bilbo	13.832	6.018	7.814	18.156	8.873	9.283	31,3	47,4	18,8
Ezkerraldea	10.800	4.844	5.956	14.123	7.378	6.745	30,8	52,3	13,3
Vitoria-Gasteiz	8.399	3.428	4.971	11.954	5.915	6.039	42,3	72,6	21,5
Donostia	5.884	2.465	3.419	7.218	3.350	3.868	22,7	35,9	13,1
Gobela	3.536	1.512	2.024	4.357	2.037	2.320	23,2	34,7	14,6
Behe Bidasoa	3.483	1.253	2.230	4.336	1.866	2.470	24,5	48,9	10,8
Ibaizabal	3.206	1.327	1.879	4.194	1.994	2.200	30,8	50,3	17,1
Oarsoaldea	2.508	1.078	1.430	3.321	1.590	1.731	78,3	118,7	52,4
Donostia Mendebaldea	2.460	897	1.563	3.250	1.588	1.662	29,6	47,3	16,2
Uribealdea	1.863	727	1.136	3.096	1.413	1.683	25,9	57,5	7,7
Durangaldea	1.838	792	1.046	2.775	1.394	1.381	53,2	81,8	32,2
Deba Barrena	1.812	767	1.045	2.520	1.123	1.397	47,0	73,8	30,8
Tolosaldea	1.714	646	1.068	2.375	1.155	1.220	29,2	45,8	16,6
Deba Garaia	1.471	568	903	1.913	958	955	47,7	78,4	26,0
Aiarako harana	1.295	537	758	1.872	808	1.064	27,3	42,3	17,8
Busturialdea	1.280	442	838	1.825	930	895	46,4	74,5	25,4
txorierrri	1.247	533	714	1.817	805	1.012	42,0	82,1	20,8
Urola Kosta	1.211	464	747	1.511	682	829	24,8	47,0	11,0
Enkarterriak	1.108	480	628	1.472	716	756	51,6	82,7	30,6
Goierri	971	392	579	1.432	697	735	29,2	45,2	17,0
Nerbioi ertaina	953	357	596	1.244	566	678	30,5	58,5	13,8
Arratia-Zornotza	780	312	468	1.236	608	628	75,3	102,0	55,5
Urola Erdia	705	301	404	1.157	595	562	82,2	105,9	62,4
Urola Garaia	638	251	387	1.046	508	538	34,1	62,8	15,0
Lea-Artibai	635	289	346	963	468	495	50,9	86,5	27,9
Arabako Lautada	338	130	208	504	224	280	49,1	72,3	34,6
Arabako Errioxa	227	90	137	394	183	211	73,6	103,3	54,0
Arabako Ibarak	179	70	109	266	135	131	86,0	136,8	52,3
Gorbeialdea	143	57	86	236	98	138	31,8	40,0	26,6
Arabako Mendialdea	66	41	25	74	37	37	12,1	-9,8	48,0
Guztira	74.582	31.068	43.514	100.637	48.694	51.943	34,9	56,7	19,4

Iturria: EEZP.

Bilbo dela oraindik langabetu kopuru handiena duen eskualdea. Atzetik, Ezkerraldea, Gasteiz, Donostia eta Eskualdea egongo lirarteke. Kopuru erlatiboetan, 2008ko laugarren hiruhilekoko datuek agerian uzten dute Ezkerraldea dela beste urtebetez ere langabezia maila altueneko eskualdea, hurbil izanez atzetik Behe Bidasoa, Ibaizabal eta Bilbo. Langabezia tasak hurrengo eskualdeetan jasan du hazkunde azkarrena: Lea-Artibai, Durangaldea, Arratia-Zornotza, eta Deba Garaia eta Deba Barrena. Arabako landa zonaldeetan Mendiko edo Arabako Haranetako biztanleria oso gutxi dago, eta han gutxi hazi da erregistratutako langabezia.

Kopuru absolutuetan, eskualde guztietan areagotu da langabetu kopurua. Ehunekoei dagokienez, hazkunde handienak Arratia-Zornotza, Durangaldea, Lea-Artibai eta Gorbeialdea eskualdeetan jazo dira. Hazkunde arinenak Arabako Mendian, Donostian eta Gobelan igarri dira, % 24tik beherako ratioekin. Kopuru absolutuetan, hiru hiriburuak hartzen dituzten eskualdeez gain, azpimarragarriak dira hurrengoak langabeziak gora egin izanagatik: Ezkerraldea, Durangaldea, Behe Bidasoa, Ibaizabal eta Deba Garaia.

5.2. Lan merkatuko sarrera eta irteera fluxuak

5.2.1. Kontratazioaren inguruabarrak

2008ko kontratazioen azterketak egungo koiuntura ekonomikoa islatzen du. EAE % 5,3ko atzerakada erakutsiz kontratu kopuruan (Estatuan % -10,8). Aurreko bost urteetan emaitza positiboa izana zen bi lurraldeetan. Kontrataturiko pertsona kopuruak ere beherantz egiten du, nahiz eta atzerapena txikiagoa izan (% -4,1). Sektoreka, eraikuntzak kontratuen % 14,3 galdu zuen, industriak % 9,2 eta zerbitzuen sektoreak % 4,2. Nekazaritzak bakarrik agertu zuen urtetik urterako emaitza positiboa (% +13,1). 11.500 kontratu baino pixka batzuk gehiagorekin.

Guztira, EEZPk 822.866 kontratu erregistratu ditu 2008an (beherriak nahiz bihurtetako aintzat hartuta), 2007an baino 46.396 gutxiago. Horietatik % 52,4 emakumeek sinatu dituzte (aurreko urteko % 51,2aren aldean), eta horiek kontratatutako pertsonen % 45,4 dira. Lurraldeka, Gipuzkoak kontratuen % 29,5 hartzen du (2007an baino puntu bat gehiago), eta Bizkaiak % 53,6, indarra galduz (-1,2 puntu) eta Araban % 16,9 (2007an kontratuen % 16,7 hartu zuen).

II.5.13. LAUKIA. LAN KONTRATUEN BILAKERA EAE-N, EREDUAREN ETA SEXUAREN ARABERA 2007-2008

	2007				2008				Aldak. %a, 2007-08		
	Gizona	Emak.	Guztira	% bertik.	Gizona	Emak.	Guztira	% bertik.	Gizona	Emak.	Guztira
Mugagabe bihurtutakoak	18.260	14.487	32.747	3,8	16.431	13.262	29.693	3,4	-10,0	-8,5	-9,3
Lanaldi partzialeko aldi baterakoak	69.715	172.952	242.667	27,9	68.670	170.807	239.477	27,5	-1,5	-1,2	-1,3
O. Mugagab. / M. 12/2001-24/2001 Legea	13.587	6.669	20.256	2,3	12.876	6.675	19.551	2,2	-5,2	0,1	-3,5
Mugagabea lanaldi osoan. Elbarriak	216	71	287	0,0	178	56	234	0,0	-17,6	-21,1	-18,5
Mugagabea lanaldi osoan. Hobariarekin.	4.334	4.888	9.222	1,1	3.380	4.005	7.385	0,8	-22,0	-18,1	-19,9
Mugagab. LO / M. LO. 5/2001 LED	2.668	3.948	6.616	0,8	2.802	4.501	7.303	0,8	5,0	14,0	10,4
Mugagabea l. partzalean. Elbarriak.	31	56	87	0,0	33	34	67	0,0	6,5	-39,3	-23,0
Mugagabea l. partzalean. Hobariarekin	917	3.831	4.748	0,5	902	3.198	4.100	0,5	-1,6	-16,5	-13,6
Aldizkako finkoak. / Aldiz. finkoak. 5/2001 LED	975	1.643	2.618	0,3	985	1.446	2.431	0,3	1,0	-12,0	-7,1
Aldizkako finkoak. Elbarriak.	1	3	4	0,0	2	3	5	0,0	100,0	0,0	25,0
Aldizkako kontratu finkoa. Hobariarekin	126	174	300	0,0	157	268	425	0,0	24,6	54,0	41,7
Obra edo Zerbitzua Lanaldi Osoan	140.093	54.051	194.144	22,3	122.303	49.651	171.954	19,8	-12,7	-8,1	-11,4
Ebentuala LO-n, ekoizpeneko inguruabarrengatik	133.993	107.976	241.969	27,8	122.105	97.018	219.123	25,2	-8,9	-10,1	-9,4
Bitartekoa lanaldi osoan	29.185	69.392	98.577	11,3	31.708	75.214	106.922	12,3	8,6	8,4	8,5
Praktikak lanaldi osoan	3.734	2.422	6.156	0,7	3.178	2.182	5.360	0,6	-14,9	-9,9	-12,9
Prestakuntza	1.164	837	2.001	0,2	1.028	718	1.746	0,2	-11,7	-14,2	-12,7
Aldi baterako. Elbarriak. Lanaldi Osoan.	585	247	832	0,1	485	229	714	0,1	-17,1	-7,3	-14,2
txanda kontratua lanaldi osoan.	3.384	952	4.336	0,5	3.692	1.118	4.810	0,6	9,1	17,4	10,9
Gizarte Lankidetzako kontratua	50	6	56	0,0	48	21	69	0,0	-4,0	250,0	23,2
Erretiro berezia. 64 urte.	53	25	78	0,0	33	15	48	0,0	-37,7	-40,0	-38,5
Bestelakoak	870	691	1.561	0,2	766	683	1.449	0,2	-12,0	-1,2	-7,2
Guztira	423.941	445.321	869.262	100%	391.762	431.104	822.866	100,0	-7,6	-3,2	-5,3

Iturria: EEZP.

II.5.14. LAUKIA. LANALDI PARTZIALEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BILAKERA, MOTAREN ARABERA. 2006-2008

	2006		2007		2008		% 2006/07		% 2007/08	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%				
Obra Lanaldi Partzalean	83.899	36,8	84.011	34,6	83.911	35,0	0,1	-0,1		
Ebentuala L. Partzalean, Ekoizpenaren ing.	92.737	40,7	98.642	40,6	89.832	37,5	6,4	-8,9		
Bitartekoa	46.040	20,2	54.218	22,3	59.733	24,9	17,8	10,2		
Praktikak Lanaldi Partzalean	828	0,4	759	0,3	650	0,3	-8,3	-14,4		
Aldi baterakoa lanaldi partzalean. Elbarriak.	77	0,0	133	0,1	169	0,1	72,7	27,1		
Erretiro partziala	3.979	1,7	4.451	1,8	4.693	2,0	11,9	5,4		
txandakoa Lanaldi Partzalean	303	0,1	453	0,2	489	0,2	49,5	7,9		
Laneratze Kontratua L. Partzalean	26	0,0	—	0,0	—	—	—	—		
GUZTIRA	285.334	100,0	242.667	100,0	239.477	100,0	-50,0	-1,3		

Iturria: EEZP.

Azpimarratu egin behar da aurren, kontratazio eredu ezberdinen erabilera, egon den intentsitate ezberdina. Horrela, adibidez, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak sinatutako hamar kontratutik hiru izaten jarraitzen dute (guztien % 29,1, 2007an baino 1,2 puntu gehiago), baina % 1,3 jaitsi dira batez bestekoaren azpitik. Horien barruan azpimarragarriak dira, beren garrantziagatik, lanaldi partzialeko obra kontratuak, ia 84.000 iritsiz (lanaldi partzialeko aldi baterako kontratu guztien % 35), eta baita ekoizpen inguruabarrak tarteko dituz-

ten kontratu ebentualak ere, 90.000 kontratura iristeagatik ia ia (% 37,5). Biak erori egin dira 2008an: lehenengoa oso gutxi (% -0,1) eta bigarrena neurri handiagoan (% -8,9). Bigarrenik, lanaldi osoko aldi baterako kontratazioak EAEn erregistraturiko kontratuaren % 62,2 dira guztira (2007an % 63,2 izan ziren), eta horrek % 6,8ko murriztapena suposatzen du. Guztira, horrelako 512.195 kontratu erregistratu dira. Horien artean, nolabait garrantzitsua den pisua dute obra kontratuak eta "ekoizpenaren inguruabarrak" epigrafearen pean sinatu-

II.5.15. LAUKIA. EAE-N KONTRATATURIKO PERTSONA KOPURUAREN BANAKETA (2008)

Sinatutako kontratu kop.	Guztira	Gizona	Emakumea	< 20 urte	20-24	25-29	30-44	45 urte eta gehiago
Kontratu 1	171.470	100.547	70.923	10.940	29.579	34.188	66.916	29.847
2 kontratutik 3 kontratura	90.144	47.588	42.556	5.403	18.821	19.320	34.537	12.063
4 kontratutik 5 kontratura	24.210	11.019	13.191	1.401	5.368	5.172	8.999	3.270
6 kontratutik 10 kontratura	17.912	7.263	10.649	960	3.987	3.488	6.682	2.795
11 kontratutik 20 kontratura	8.439	3.141	5.298	420	1.776	1.502	3.295	1.446
21 kontratutik 50 kontratura	3.676	1.342	2.334	167	786	630	1.354	739
+50 kontratu	701	328	373	13	130	136	288	134
GUZTIRA	316.552	171.228	145.324	19.304	30.447	64.436	122.071	50.294


Iturria: EEZP, Zerbitzu Teknikoen Zuzendariordetza Orokorra.

II.5.16 LAUKIA. LAN TXANDAKATZEA EAE-N

	2005	2006	2007	2008
Kontratuak guztira	806.176	849.868	869.262	822.932
Gizona	398.000	420.723	423.941	391.777
Emakumea	408.176	429.145	445.321	431.155
Kontraturikoko pertsonak guztira	314.553	320.806	327.119	309.869
Gizona	173.673	176.860	177.441	169.062
Emakumea	140.880	143.806	149.678	140.797
Bi sexuen txandakatzea	2,56	2,65	2,66	2,66
Gizona	2,29	2,38	2,39	2,32
Emakumea	2,90	2,98	2,98	3,06

Iturria: EEZP.


II.5.9. Grafikoa. Kontratazioaren bilakaera EAE-n jardura sektorea gorabehera



Iturria: EEZP.


rikoek (kontratu guztien % 20,9 eta 26,6 hurrenez hurren). Horiek % 11,4 eta 9,4ko beherakada eduki dute. Azken batean, datuek agerian uzten dute pisu gehieneko bi kontratazio ereduak -bien artean erregistratutako kontratuen ia erdia hartzen dute- murriztapen gehien jasan dutenak direla, aipatutako % -5,3ko batez bestekoaren gainetik.

II.5.10. Grafikoa. Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena EAE-n (egunetan)




Iturria: EEZP-EIN, Zerbitzu Teknikoen Zuzendariordetza.

II.5.II. Grafikoa. EAE-n erregistratutako lan kontratuen bilakaera, eredia gorabehera



Iturria: EEZPren datuetatik abiatuz landutakoa.

II.5.I2. Grafikoa. Kaleratzeen bilakaera EAE-n.



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa. Lan Estatistiken Buletina.

Aldi baterako kontratu ezberdinen batez besteko iraupenari dagokionez, adierazi egin behar da badiruduela 2008an gelditu egin dela aurreko urteetako iraunaldi laburretan zoko joera. Gauzak horrela, murriztu egin da Obra edo Zerbitzu eta Prestakuntza kontratuen kasuan bakarrik amaitu diren kontratuetako batez besteko egun kopurua (3 eta 2 egun murriztu dira, hurrenez hurren). Aldiz, areagotu egin da Erretiro Par-

tzialeko kontratuen batez besteko iraupena (+23 egun batez beste), txandakako kontratuena (+15 egun) eta Prestakuntzakoena (+6 egun), eta baita 64 urteetako erretiro bereziena ere (+17 egun). Horrela, iraunaldi zehatzeko aldi baterako kontratu guztien batez besteko iraupena EAEn 83 egunekoa da (2007an baino 3 egun gehiago), Estatu osorako emandako datua baino lau gehiago.

Bestalde, 2008an eten egiten da 2004 urtean kontratazio mugagabearen kasuan agerian geratzen hasi zen goranzko joera positiboa, batez ere ohiko kontratu mugagabeei esker. Orokorrean, kontratazio mugagabea murriztu egin zen azkeneko urtean % 6,3an, eta EEZPk gure erkidegoan erregistratutako kontratu berri guztien % 4,7a hartzen du (2007an % 5,3 izan zen). Ohiko kontratu mugagabeak, kontratazio guztien % 2,4, % 3,5 murriztu dira urte honetan.

Amaitzeko, lan txandakatzeei buruzko datuek geldialdia adierazten dute 2008an, ratioa 2,66 kontratu pertsonako kopuruan mantentzen baita. Aitzitik, bilakaera ezberdina da sexua gorabehera, izan ere, txandaketak murriztu egiten badiara ere gizonen kasuan (2,39 kontratutik 2,32ra igarotzen dira), areagotu egiten da emakumeentzat (2007ko 2,98 kontratuetatik 2008ko 3,06 kontratuetara igaroz).

5.2.2. Bakarkako eta taldeko kaleratzeen bilakaera

Lehenik eta behin, komeni da gogoraraztea erregistraturiko bakarkako kaleratzeak autonomia erkidegoan eskudun den Laneko Agintaritzaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak ordezkatua) egindako adiskidetzeetatik erorritakoak direla, eta bi alderdien adostasunarekin amaitzen dutenak direla. Bertan sartzen dira ere

gizarte gaietako epaitegien bitartez izapideturikoak (lehengo Lan Magistratura), Lan eta Immigrazio Ministerioari jakinarazten zaizkionak.

Bestalde, taldeko kaleratzeak enpresak aurkeztutako enplegua erregulatze espediente baten bitartez egiten direnak dira (langileen legezko ordezkarien adostasunarekin edo hura gabe). Horren helburua laneko harremanak bertan behera utz daitezela eskatzea da (etendura edo lanaldia murriztea ere eskatu daitezke), arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak, ekoizpenekoak, halabeharrezkoak edo enpresaburuarren nortasun juridikoa desagertzekoak egoteagatik.

Auzia laneko agintaritzak eskudunak ebatzi behar du. Agintaritzak hori Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saileko Lan Zuzendaritzak da, alor horretako funtzioak eskualdatuta baititu. Edonola ere, kontuan hartu behar da Lan eta Immigrazio Ministerioak gai publiko horri buruz bildutako estatistikek ez dituztela egindako kaleratze guztiak jasotzen, izan ere, ez da beharrezkoa administrazioaren baita edukitzea kaleratzeak egiteko arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak edo ekoizpenekoak tartean badiara, betiere, kaleratzeak taldeko kaleratze modura ezarritako langile kopuruaren azpitik kokatzen den kopuruari eragiten

II.5.17. LAUKIA. EAE-N ONARTUTAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK: KOPURUA ETA ERAGINDAKO LANGILEAK (EUSKO JAURLARITZA)

	2005	2006	2007	2008	Aldak.%a, 07/08
Espedienteak	328	173	282	496	75,9
Eragindako pertsonak	6.158	3.338	4.815	12.794	165,7
Espediente mota					
Murriztapena	41	4	17	108	535,3
Etendura	4.714	1.704	3.856	11.216	190,9
Az kentzea	1.403	1.630	942	1.470	56,1


Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.5.18. LAUKIA. KALERATZEEN BILAKAERA EAE-N (LAN MINISTERIOA)

	Balio absolutuak			Aldakuntzaren %a	
	2006	2007	2008	06/07	07/08
Eragindako langile GUZTIAK	9.163	9.662	19.574	5,4	102,6
Bitartekaritza, Arbitrajea eta adiskidetzea	1.989	1.777	1.789	-10,7	0,7
Gizarteko gai judizialak	2.688	2.556	2.988	-4,9	16,9
Enplegu erregulazioak	4.486	5.329	14.797	18,8	177,7
Adostasunarekin amaitutako kaleratzeen bakarkako adiskidetzeetan erabakitako kopuruak					
Zenbateko osoa (mila €)	84.046	77.394	76.741	-7,9	-0,8
Bitartekaritza, Arbitrajea eta adiskidetzea	81.482	75.380	73.093	-7,5	-3,0
Gizarteko gai judizialak	2.564	2.014	3.648	-21,5	81,1
Batez besteko zenbatekoa (€)	17.970	17.862	16.065	-0,6	-10,1
Bitartekaritza, Arbitrajea eta adiskidetzea	40.966	42.420	40.857	3,5	-3,7
Gizarteko gai judizialak	954	788	788	-17,4	0,0

Iturria: MTIN, Laneko Estatistiken Buletina.

II.5.13. Grafikoa. Enplegu Erregulazioko Espedienteek eragindako langileen hileroko bilakaera EAEn, motaren arabera, 2008



badio⁵. Halaber, aurre-erretiroak, enplegu erregulazioko akordioetatik eratortzen direnean, adostutako azkentze gisa hartzen dira estatistikei dagokienez, eta ez kaleratze gisa.

Bestalde, gainera, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila iturri gisa duen taulan ikus daitekeen moduan, hark EAEn baimendutako enplegu erregulazioko espedientei buruzko estatistikak argitaratzen ditu. Iturri bateko eta besteko datuak bat ez datozen arren (Ministeriokoak altuagoak dira Erkidegotik haratagoko eremu bateko espedienteak erregistratzen dituelako, euskal langileei eraginez), interesgarria da biak aztertzea, bien bilakaera, noski, norabide berdinean doa eta.

Guztira, EAEn erregistratutako kaleratze kopuru osoak (iturri gisa Lan Ministerioa hartuz) 19.574 pertsona hartu zituen 2008an, 2007an baino % 102,6 gehiago. Hazkunde hori, halaber, Estatuaren multzorako jazotzen da (% +66,7), eta, gainera, EAEko kaleratzeen pisua kopuru osoaren aldean hazi egin da. Azken urte honetan % 5,7tik % 7ra igaro da.

2008ko kaleratze kopurua areagotzea enplegua erregulatzeko espedienteek eragindako langileetan jazo da (% +177,7). Horiek Estuan erregistratutako espedienteen % 10 dira. Han, guztira, % 153,6 areagotu dira horrelakoak. Urte honetako hileroko bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke urrian hazkunde garrantzitsua egon zela, 269 langiletik 2.017 langilera igaroz (% +650). 2008ko azkeneko bi hilabeteetan, gainera, hazkundeek oso garrantzitsuak izaten jarraitu dute. Abenduan 6.517 langilek jasan zituen ondorioak, utarrilean erregistratutako 247en aldean.

Gainera, eragindako langile gehienak etendura espedienteen baitan daudenak dira, zehazki urteko kopuru osoaren % 86,1. Bestalde, bitartekaritza, arbitraje eta adiskidetze gaiek eragindako langile kopurua % 0,7 eskas hazi da, eta gizartearen alorreko gai judizialean esku hartzen dutenak % 16,9 areagotu dira.

Kaleratzeengatik kalte-ordain gisa adostutako kopuruei dagokienez, kopuru osoa 76,7 milioi eurokoa izan zen 2008an, 2007an baino % 0,8 gutxiago. Murriztapen horren arrazoia laneko agintaritzak baimendutako espedienteetan adostutako kopuruak % 3an jaitsi izana da, horiek kalte-ordain guztien % 95,2 baitira. Izan ere, organo judizialek baimendutako kaleratzeetan adostutako kopuruek gora egin dute % 81,lean. Kalte-ordainen batez besteko zenbatekoa, 16.065 eurokoa, % 10,1 murriztu da 2007ko kopuruekiko.

5.3. Laneko harremanak eta laneko osasuna

5.3.1. Laneko osasuna

EAEn laneko ezbeharrei buruz OSALANen (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) erregistratutako datuei dagokienez, agerian uzten dute 2008an laneko 50.640 istripu izan zirela, 2007an baino % 1,1 gehiago. Hazkunde hori deigarria da urte horretan, aurrekoaren aldean, izandako % 8,1eko beherapenarekin. Hala eta guztiz ere, azkeneko lau urteetan igarritako bilakaera aztertuz gero, laneko ezbehar kopurua egonkortu egin da gure erkidegoan, % 0,2 inguru besterik ez baita erregistratu.


⁵ Taldeko kaleratzeetat hartuko da hark 5 langile baino gehiagoko lantalde osoari eragiten dionean, enpresa jarduera erabat bertan behera gertatzeagatik edo, lauogeita hamar eguneko aldian 100 langiletik beherako enpresetan soldatapeko 10 langileri gutxienez eragiten badio, edo 100 eta 300 langile arteko enpresetako lantaldearen % 10ari edo soldatapeko 30 pertsonari 300 langiletik gorako lantaldeetan.

II.5.19. LAUKIA. LANEKO EZBEHARREN BILAKAERA EAE-N: LANEKO BAJAK ERAGINDAKO LANGILEAK

	BAJA EKARRI DUTEN ISTRIPUAK LANALDIAN								IN ITINERE	LAN. GAIX.	GUZTIRA
	GUZTIRA	LARRITASUNAREN ARABERA			SEKTOREKA						
		ARINAK	LARRIAK	HILKO- RRAK	NEKAZA- RItZA	INDUS- TRIA	ERAIKUN- tza	ZERBI- tzUAK			
2004	43.857	43.431	373	53	850	17.651	8.480	16.876	4.508	2.159	50.524
2005	47.881	47.403	416	62	924	19.198	9.027	18.732	5.233	2.439	55.553
2006	46.730	46.356	322	52	1.044	18.686	8.709	18.291	4.977	2.075	53.782
2007	43.934	43.548	335	51	916	17.956	7.963	17.099	4.783	726*	49.443
2008	44.437	44.115	275	47	896	18.327	7.659	17.555	4.656	1.547	50.640
Aldak. %. 06/07	-6.0	-6.1	4.0	-1.9	-12.3	-3.9	-8.6	-6.5	-3.9	-65.0	-8.1
Aldak. %. 07/08	1.1	1.3	-17.9	-7.8	-2.2	2.1	-3.8	2.7	-2.7	113.1	1.1

Iturria: OSALAN. (*) Lanbide gaixotasunen jakinarazpen sistema berria, hertsatzaileagoa: gaur egun mutuek jakinarazten dute (lehen enpresek eurek egiten zuten).

II.5.14. Grafikoa. Baja eragin duten istripuen bilakaera EAE-n. 2000 URTEA=100



(*) Guztira atalak gaixotasun profesionalak ere biltzen ditu.
Iturria: OSALANetik abiatuz landutakoa.

Lanaldian baja sortu duten istripuak, 44.437, % 1,1 areagotu dira 2007aren aldean. Bestalde, Lan eta Immigrazio Ministerioak Estatu osorako emandako behin-behineko datuek 922.253 istripu azaltzen dituzte bajarekin, 2007an baino % 9,8 gutxiago. EAEan, garrantzi gutxieneko istripuak (arinak) % 1,3 areagotu dira, hilkorrak (% -7,8) eta, batez ere, larriak (% -17,9) murriztu egiten diren bitartean. Bestalde, "in itinere" jazotako istripuak guztien % 9,2 dira, eta % 2,7 murriztu dira.

Aitortutako laneko gaixotasunei dagokionez, laneko ezbehar guztien % 3,1 hartzen dutenak, azken bi urteetako bilakaeraren azterlana baldintzatuta dago jakinarazpen sisteman sartutako aldarazpenengatik. Ondorioz, 2008an 2007ko datuari dagokionez erregistratu den % +113,1eko datua kautelaz hartu behar da. Hala eta guztiz ere, 2008an 1.547 laneko gaixotasun berri

erregistratu da bajarekin. Horietatik % 61,6 industriakoa da, % 27,6 hirugarren sektorekoa eta gainerako ia guztia eraikuntzako. Larritasunari dagokionez, 2008rako datu horren berririk ez badago ere, esan beharra dago 2007an jakinarazitako gaixotasun bajadun berrien % 99,7 arinak izan zirela, % 0,3 (bi jakinarazpen) larri gisa katalogatu zen eta ez zen heriotzarik erregistratu.

Sektoreka, ikus daiteke laneko ezbeharrek eskasagoak izan zirela 2008an, aurreko urtean izandakoen aldean, nekazaritzan (% -2,2) eta eraikuntzan (% -3,8). Aldiz, hazi egin zen industrian (% 2,1) eta zerbitzuen sektorean (% 2,7). Kopuru horiek sektore bakoitzean okupatutako pertsona bolumenarekin uztartzen baditugu, bilakaera berdina izango da nahiz eta intentsitate handiagoarekin, batez ere eraikuntzan, izan ere, istripuen bolumenean % 3,8ko murriztapena jasan du okupatutako 1.000 langileko. Edonola ere, eraikuntza da oraindik ez-behar gehieneko sektorea: 94,2 milako. Lanean dagoen 1.000 pertsonako istripua jasan dutenen batez bestekoa 45,9koa da, 2007an baino % 0,9 gehiago.

Autonomia Erkidegoko aztertuz gero, lan orduetan izandako istripuen indizeak⁶, hain zuzen ere Lan eta Immigrazio Ministerioak kalkulatzeko duena, agerian uzten du 2007ko istripu hurrenkeraren buruan Balearrak zeudela, atzetik Gaztela-Mantxa edukita. EAEa, 5.654ko indizearekin (2006an baino % -11,9), Estatuko batez bestekoaren azpitik dago eta Nafarroarekin eta Gaztela eta Leonekin alderatzeko mailatan.

Halaber, kontratu motaren arabera lan istripuen datuek agerian uzten dute istripu tasa bikoitza baino gehiago dela aldi baterako lan kontratua dutenen artean, kontratu mugagabea dutenen artean baino.

Horixe diote Lan eta Immigrazio Ministerioak azken datuek, 2007koek hain zuzen. Zehazki, kontratu mugagabeko per-

⁶ Istripu indizea 100.000 langileko dagoen istripu kopuruaren eta laneko istripuen inguruabarra berariaz estalita duten Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruaren arteko zatiketa eginez kalkulatzen da.


II.5.20. LAUKIA. LANALDIAN IZANDAKO ETA BAJA EKARRITAKO ISTRIPUEN ERAGIN* INDIZEA AUTONOMIA ERKIDEGOKA

	2004	2005	2006	2007	Aldak. %05/06	Aldak. 06/07
Estatua	6.136	6.012	5.880	5.760	-2,2	-2,0
Andaluzia	6.289	6.265	6.246	6.081	-0,3	-2,6
Aragoi	5.160	5.091	5.174	5.232	1,6	1,1
Asturias	6.297	6.018	6.072	6.317	0,9	4,0
Balearrak	7.662	7.702	7.876	7.677	2,3	-2,5
Kanariar Uharteak	7.124	6.897	6.608	6.423	-4,2	-2,8
Kantabria	5.741	5.470	5.636	5.388	3,0	-4,4
Gaztela-Mantxa	7.517	7.748	7.663	7.461	-1,1	-2,6
Gaztela Leon	5.866	5.728	5.707	5.655	-0,4	-0,9
Katalunia	6.131	5.824	5.437	5.682	-6,6	4,5
Valentziako E.	6.658	6.277	5.804	5.532	-7,5	-4,7
Extremadura	5.013	4.889	4.867	4.974	-0,4	2,2
Galizia	5.756	5.687	5.733	5.803	0,8	1,2
Madril	5.499	5.506	5.400	5.066	-1,9	-6,2
Murtzia	5.731	5.782	5.707	5.577	-1,3	-2,3
Nafarroa	5.965	5.722	5.661	5.593	-1,1	-1,2
EAE	6.224	6.157	6.418	5.654	4,2	-11,9
Araba	7.218	7.293	7.212	6.453	-1,1	-10,5
Gipuzkoa	5.632	5.718	6.155	5.495	7,6	-10,7
Bizkaia	6.239	6.033	6.305	5.475	4,5	-13,2
Errioxa	5.673	5.730	5.806	5.762	1,3	-0,8
Ceuta	5.461	5.758	5.217	5.465	-9,4	4,8
Melilla	3.799	4.074	4.827	4.813	18,5	-0,3

Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA, Laneko Istripuen Estatistikak.

(*) Istripu indizea 100.000 langileko dagoen istripu kopuruaren eta laneko istripuen inguruabarra berariaz estalita duten Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruaren arteko zatiketa eginez kalkulatzen da.

II.5.15. Grafikoa. Istripua izan dutenen indizea EAE-n okupatutako 1.000 Langileko. Jarduera sektoreka



Iturria: OSALANEN eta EUSTATen datuetatik abiatuz landutakoa.

tsonen arteko istripu tasa % 40,7koa izan zen, eta, aldiz, aldi baterako lan kontratua zuten pertsonen arteko istripu tasa % 112,3koa izan zen. Edonola ere, interesgarria litzateke istripuen

banaketa ezagutzea sektoreka, adinka eta lanbide mota gorabehera, modu horretara behin betiko ondorioak atera ahal izateko.

II.5.21. LAUKIA. EZBEHARREN BILAKAERA KONTRATU MOTAREN ARABERA EAE-N.

	2004	2005	2006	2007	% 05/06	% 06/07
Kontratu mugagabeak						
Soldatapekoak (BJA)	516.100	543.400	558.500	603.400	2,8	8,0
Baja ekarri duten istripuak	23.914	25.131	26.553	24.565	5,7	-7,5
Ezbehar tasa (milako) (A)	46,3	46,2	47,5	40,7	2,8	-14,3
Aldi baterako kontratuak						
Soldatapekoak (BJA)	203.100	197.100	198.200	166.800	0,6	-15,8
Baja ekarri duten istripuak	20.073	19.621	21.137	18.735	7,7	-11,4
Ezbehar tasa (milako) (B)	98,8	99,5	106,6	112,3	7,1	5,4
B / A	2,13	2,15	2,24	2,76		

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindako, "Laneko Istripuen Estatistikak", eta EUSTAT "BJA".

5.3.2. Laneko gatazkak


2008an zehar, EAEn 282 greba erregistratu da guztira. Horiek 46.343 parte-hartzaile eduki dituzte, eta, guztira, lan egin gabeko 73.769 lanaldi sortu dituzte. Lan Harremanen Kontseiluak emandako kopuru horietatik ondorioztatzen da 2007ari dago-kionez greba kopurua areagotu egin bada ere, aldi berean murriztapena egon dela bai parte-hartzaile kopuruan (% -11,4), bai lan egin gabeko lanaldi kopuruan. Orokorrean, grebak jazo diren enpresetako lantaldeetako % 34ak jasan ditu eraginak. Gainerakoen artean nabarmen agertzen jarraitzen duen faktorea negoziazio kolektiboarekiko desadostasunena da oraindik, nahiz eta "beste arrazoi batzuegatik" sortu diren grebak nabarmenki areagotu diren. 2008an, greben % 48aren, parte-hartzaileen % 57aren eta lan egin gabeko lanaldien % 65aren

arrazoia adostasun falta izan da hitzarmen kolektiboak negoziatzerakoan. Arrazoi horrengatik sortutako greba kopurua ez da ia aldatu 2007an izandakoen aldean, eta bai parte-hartzaileak, bai lan egin gabeko lanaldiak nabarmenki murriztu dira.

Bestalde, azpimarratzekoa da 2008an izandako 23 grebetatik 217 enpresaren eremuan izan direla (parte-hartzaileen % 67 eta lan egin gabeko lanaldien % 81), eta horrek esan nahi du aurreko urtearekiko hazkundea egon dela (parte-hartzaileen % 55 eta lanaldien % 74). Sektore ekonomikoen multzoaren barruan, grebengatik eragin gehien jasan duen jarduera zerbitzuena izan da, 134 grebarekin, langileen % 77arekin eta lan egin gabeko orduen % 67arekin.

Azkenik, lurralde azterketak bilakaera ezberdina agertzen du laneko gatazketan: Greba kopurua areagotu egin da Araban

II.5.16. Grafikoa. Laneko gatazken bilakaera EAE-n




Iturria: LHKren datuekin landutakoa.

II.5.22. LAUKIA. GREBA KOPURUA, ERAGINDAKO LANGILEAK ETA GALDUTAKO LANALDIAK EAE-N

		Kopurua			Hazkunde tasaren %a		
		Greba kop.	Eragindako langileak	Galdutako lanaldiak	Greba kop.	Eragindako langileak	Galdutako lanaldiak
EAE	2006	224	62.577	168.433	27,3	17,8	58,6
	2007	204	46.492	112.497	-8,9	-25,7	-33,2
	2008	232	41.183	73.769	13,7	-11,4	-34,4
Araba	2006	57	6.359	12.036	-75,4	-84,6	-83,7
	2007	42	4.916	7.940	-26,3	-22,7	-34,0
	2008	54	4.793	8.910	28,6	-2,5	12,2
Bizkaia	2006	109	44.543	122.216	101,9	829,3	1271,7
	2007	91	27.873	68.507	-16,5	-37,4	-43,9
	2008	107	27.182	41.998	17,6	-2,5	-38,7
Gipuzkoa	2006	58	11.675	34.181	-45,8	-57,0	-18,6
	2007	71	13.703	36.050	22,4	17,4	5,5
	2008	71	9.208	22.861	0,0	-32,8	-36,6

Iturria: LAN HARREMANEN KONTSEILUA.

II.5.17. Grafikoa. Lan gatazkak EAEn eta Estatuan. 2003 urtea=100

Iturria: LHKren datuekin eta Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin landutakoa.

Emitza modura, grebagatik parte-hartzaile kopuruak (670. 2007an baino % 2,2 gehiago) nahiz grebagatik lan egin gabeko lanaldi kopuruak (% 18,3) gorantz egin dute.

5.3.3. Negoziazio kolektiboa: soldata igotzea eta lanaldia

LHKren 2008ari buruzko "Negoziazio Kolektiboaren Balantzen" arabera, urte honetan zehar gure autonomia erkidegoan lan egiten dutenen % 50,8ari eragiten dioten hitzarmen kolektiboak berriitu behar ziren. Portzentaje hori beste urte batzuetakoa baino txikiagoa da (2007 urtean % 69,4 eta 2006 urtean % 65,6), batez ere 2008an indarrean zeuden sektoreko hitzarmenak egoteagatik aldeztu aurretik eta langile bolumen garrantzitsua biltzeagatik horietan⁷.

Aurten ere, azken urteotan negoziazio kolektiboaren ezaugarri izan den agente sozialen arteko adostasun faltarengatik egon da behar baino portzentaje altuagoa. 2008an, negoziazio kolektiboan, langileen % 19,7arentzat bakarrik lortu dira akordioak (2007an % 37,9 izan zen). Urtea amaitu denean negoziazio kolektiboaren eraginak jasotzen zituzten langileen % 31,1ak ez zuen berritutako hitzarmen kolektiborik⁸.

Datuak eremu funtzionalen arabera bereiziz gero (enpresa hitzarmenak eta sektorea), ikus dezakegu aurreko urteetan ez bezala berrikuntza falta antzekoa dela enpresa hitzarmenetan eta sektorekoetan. Gauzak horrela, sektoreko hitzarmen honek eragindako pertsonen % 31,1 urtea amaitu zain dago, enpresaren eremuan portzentaje hori % 30,7koa den moduan ere. Aitzitik, abiaburua ezberdina da, izan ere, 2008an erregistratutako enpresa hitzarmenek eragindako langileak bikoiztu egiten dute sektorearen eremuan erregistraturikoen portzentajea. Zehazki, sektoreen eremuan azpimarratzekoa da hitzarmen kopuru


eta Bizkaian (% 28,6 eta 17,6 hurrenez hurren), Gipuzkoan egonkor mantendu den bitartean. Parte-hartzaileei dagokien, Gipuzkoan behera egin dute (% -32,8), eta baita Araba eta Bizkaian ere, nahiz eta kopuru murriztagoetan (% -2,5 bi lurraldeetan). Bestalde, lan egin gabeko lanaldiek behera egin dute Bizkaia eta Gipuzkoan (% -28,7 eta % -36,6 hurrenez hurren), Araban gorantz egin duten bitartean (% +12,2).

Estatuko datuei dagokien, greba kopuruak gora egin du ere 2008an. Lan Ministerioko datuen arabera, gatazka kopuru osoa —810 guztira— % 7,9 areagotu da, eta parte-hartzaile kopurua, berriz, % 10,2 areagotu da. Gainera, lan egin gabeko lanaldi kopuruak % 27,6ko hazkunde izan du, guztira 1.508.719ira iritsiz.

⁷ Hiru lurralde historikoetako Eraikuntzaren Hitzarmenak 45.221 langile biltzen ditu, Bizkaiko Ostalaritzak 16.980 kide, Gipuzkoako Siderometalurgiak 53.303 eta Estatuko Kimikakoak 12.365.

⁸ Aitzitik, LHKak dio portzentaje hori txikiagoa zatekeela estatutuz gaindiko indarreko hitzarmenak aintzat hartuz gero, adibidez Arabako eta Bizkaiko metalarena. Horiek negoziazio kolektiboaren egitura eratzen duten langileen % 12 hartzen dute.

II.5.18. Grafikoa. EAE-n erregistratutako hitzarmenek eragindako pertsonak




II.5.23. LAUKIA. EAE-N 2007 ETA 2008RAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	IGOERA BERRAZTERTZEKO KLAUSULARIK GABE		BERRAZTERTZEKO KLAUSULEN ERAGINAK		SOLDATA IGOERA OSOA	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008
ARABA	3,40	4,12	1,13	-0,01	4,53	4,11
BIZKAIA	4,00	5,01	0,29	-0,01	4,28	5,00
GIPUZKOA	3,90	5,25	0,03	0,00	3,93	5,25
LURRALDE ARTEKOAK	4,77	4,43	0,00	0,00	4,77	4,43
EAE-N ERREGISTRATUAK	3,93	4,98	0,28	-0,01	4,22	4,97
ESTATU MAILAN	2,62	2,82	1,67	-0,08	4,29	2,74
EAE-N GUZTIRA	3,64	4,46	0,59	-0,02	4,23	4,44

Iturria: LHK.

II.5.19. Grafikoa. Prezioen, lanbide arteko gutxieneko soldataren eta hitzarmenean adostutako soldaten urteko hazkundeen bilakaeraren %a



garrantzitsu batek lau urte baino gehiago daramatzala berritu gabe. EAE-n erregistratutako sektoreko 121 hitzarmenetatik, 23 berazterketa zain dago 2005 baino lehenagotik. Hitzarmen horiek eraginak dituzte 16.806 pertsonarentzat, eta hori sektoreko negozio kolektiboak eragindako langile guztien % 4 da. Orokorrean atzerapen handiena lurralde arteko hitzarmenetan jazotzen da, irakaskuntza pribatuaren eta ikastolen sektoreko hitzarmenetan adostasun falta egoteagatik. Lurraldeka, Bizkaian (2008 amaitzean hitzarmenak berritu gabe zituzten langileen % 38,3ak) eta Araban (% 42,5), LHKak dio eraginkortasun mugatuko itunak zeudela siderurgiaren eta metalurgiaren industrian. Gipuzkoak berritzeko zain zegoen hitzarmena zuen pertsona portzentaje txikiagoarekin hasi zuen urtea (% 33), eta urtearen amaieran % 19,6ari eragiten dioten hitzarmenak bakarrik geratu dira berritzeko. Aitzitik, oro har, hitzarmen horiek hainbat urte daramatzate berritu gabe. Azkenik, ikusi ahal izan da egiteko dagoen negozio kolektibo txikiagoa dela EAE-n eragina duten estatu mailako hitzarmenetan (% 16,9 eraginda-ko pertsona kopuruari dagokionez).

Labur adieraztearren, 2008 urtearen amaieran, eta eskura dauden azkeneko datuei jarraiki (2008/12/31ra arte erregistratutako hitzarmenak), guztira 661 hitzarmen berritu zegoen, 443.020 pertsonari eraginez (pertsona horietatik % 81 sektoreko hitzarmenen babesean zegoen, eta gainerako % 19 enpresako hitzarmenen babesean), eta berritzeko beste 365 hitzarmen geratu zen, 199.616 langileri eragiten dietenak. Guztira, 2008rako itundutako batez besteko soldata hazkundea % 4,44koa da (% 4,97 gure erkidegoan erregistratutako hitzarmenentzat eta % 2,74 EAEn eragina duten estatu mailakoetan). Halaber, enpresa hitzarmenetan, soldaten hazkundea % 3,62koa izan da eta sektorekoen kasuan % 4,63koa. Oro har, azpimarragarria da 2008rako adostutako soldatek jasandako bilakaera arina 2007koek izandakoaren aldean (% 4,23), eta handiagoa zatekeen inflazioak urte amaieran jasandako geldialdia jasan ez balu.

Berrikuspen klausulei edo KPlaren bilakaerari dagokionez soldata bermeei dagozkien egokitzapenen kasuan, ehuneko bi ehunen batez besteko eragin negatiboa (% -0,02) zenbatesi da, 2008ko abenduko inflazioa % 1,4koa izan zelako, aurreikusitakoa (% 2) baino gutxiago. 2008an berritutako hitzarmenetatik % 45,1ak berraztertze klausula badu ere (langileen % 32), klausula horrek beheranzko aukera kasu gutxi batzuetan bakarrik aintzat hartzen du.

Azkenik, berritzen ari diren hitzarmenek geldiarazi egin dute azken urteetako lanaldi murrizketaren joera. Lanaldia murrizten duten hitzarmenen portzentajea, adierazgarria izanda ere (% 25,8), aurreko urteetan izandakoa baino baxuagoa dela ikusi da (2007an % 29koa izan zen). EAEn eragina duten hitzarmen berrituen multzoan, 1,5 ordu urteko murrizketa eskuratu da batez beste (2007an 2,2koa izan zen), eta, aldiz, EAEn bakarrik erregistratutako hitzarmenetan murrizketa hori 1,8koa izan da (2007an 2,5koa izan zen). E-maila modura, EAeko hitzarmen kolektiboetan eskuratutako datuek urtean batez besteko 1.695 orduko lanaldia finkatzen dute, 2007an baino bat gutxiago, eta EAEn erregistratutako hitzarmenen kasuan kopurua 1.690 ordukoa da (urtebete lehenago baino ordubete gutxiago ere).


5.4. Soldatak EAE-n

5.4.1. 2006ko Soldata Egituraren Inkestaren emaitzak

EINen "Soldata egituraren inkestak" Autonomia Erkidegoen mailako datuak ematen ditu soldatei buruz, sexuari eta okupazioari begira, beste hainbat aldagairen artean. Horien berri lau urtetik behin edukitzen zen, Soldata Egituraren Inkesten bitartez eta, gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresentzako bakarrik. Inkesta honek iturri ezberdinetako administrazio erregistroak erabiltzen ditu, adibidez Gizarte Segurantzaz edo Zerga Agenteak, EINek berak hiru hiletik behin Lan Kostuari buruz egiten duen Inkestaren zati batetik eskuratutako informazioaz gain. Emaitzetan erabiltzen diren soldata kontzeptuak balio osoetan biltzen dira, hau da, langileari PFEZagatik konturako atxikipean edo Gizarte Segurantzarentzako ekarpenak egin baino lehen.


⁹ Estatutako datuak dira, informazio hau ez dago autonomia erkidego mailan.

II.5.20. Grafikoa. Langileen portzentaje banaketa, lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokionez izandako irabazia gorabehera. 2006. Estatu



Fuente: Elaboración a partir de datos de INE. Encuesta de Estructura Salarial 2006. Nota: SMI de 2006: 7573 euros.

II.5.21. Grafikoa. Urteko batez besteko irabazia langile bakoitzeko. Eurotan



Iturria: EIN. Soldata Egituraren Inkesta.

Inkesta honek azpimarratzen duen lehen emaitza bat da 2006ko langileen % 36ak, informazioa eskuratzeko azkeneko urtea, 7.500 eta 15.000 €⁹ arteko urteko batez besteko irabazi eduki zuela —edo urteko soldata osoa—. Aldiz, portzentajea % 40,8ra iristen da 15.000 eta 30.000 euro arteko ordainsari tarterako. Halaber, langileen % 9,1 urteko 7.500 euro oso baino

II.5.24. LAUKIA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA LANGILEEN, SEKTOREEN, EAE DEN EDO ESTATUA DEN GORABEHERA. EURO/URTEKO

	2005			2006			Aldakuntza %a 2005-06		
	Bi sexuak	Emakumezk.	Gizonezkoak	Bi sexuak	Emakumezk.	Gizonezkoak	Bi sexuak	Emakumezk.	Gizonezkoak
ESTATUA									
Sektore guztiak	18.677	15.295	21.094	19.681	16.245	22.051	5,4	6,2	4,5
Industria	21.998	16.675	23.914	22.584	17.506	24.296	2,7	5,0	1,6
Eraikuntza	17.569	15.484	17.765	17.848	15.636	18.049	1,6	1,0	1,6
ZERBITZUAK	18.071	15.111	21.387	19.281	16.100	22.714	6,7	6,5	6,2
EAE									
Sektore guztiak	21.730	17.981	24.214	22.930	18.581	25.947	5,5	3,3	7,2
Industria	25.046	20.321	26.201	25.733	21.160	26.781	2,7	4,1	2,2
Eraikuntza	21.499	—	21.755	21.807	—	22.211	1,4	—	2,1
Zerbitzuak	20.274	17.579	23.430	21.789	18.186	26.382	7,5	3,4	12,6
EAE/ESTATUA %a									
Sektore guztiak	116,3	117,6	114,8	116,5	114,4	117,7	0,2	-2,7	2,5
Industria	113,9	121,9	109,6	113,9	120,9	110,2	0,0	-0,8	0,6
Eraikuntza	122,4	—	122,5	122,2	—	123,1	-0,2	—	0,5
Zerbitzuak	112,2	116,3	109,6	113,0	113,0	116,2	0,7	-2,9	6,0

Iturria: Elnetik abiatuta landutakoa, Soldata Egituren Inkesta.

II.5.25. LAUKIA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA LANGILEEN, SEXU ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA. EUROTAN ETA EAE-N

	Guztira	Kontratu mugagabeak	Aldi baterako kontratuak
2004			
Bi sexuak	21.067	24.075	15.219
Emakumezkoak	16.913	19.290	12.574
Gizonezkoak	23.710	27.016	17.020
2005			
Bi sexuak	21.730	25.092	15.891
Emakumezkoak	17.981	19.990	14.348
Gizonezkoak	24.214	28.557	16.871
2006			
Bi sexuak	22.930	25.186	16.562
Emakumezkoak	18.581	20.005	14.988
Gizonezkoak	25.947	28.602	17.821
Aldakuntza %a 2005-06			
Bi sexuak	5,5	0,4	4,2
Emakumezkoak	3,3	0,1	4,5
Gizonezkoak	7,2	0,2	5,6

Iturria: EIN, Soldata Egituren Inkesta.

gutxiago irabazten ariko litzateke. Ratio hori % 14,1eraino irlsten da bakar-bakarrik emakumeei buruz hitz eginez gero. Inkestaren arabera, urteko batez besteko irabazia langile bakoitzeko 2006an, EAEn, 22.930 €-koa zen, aurreko urtearekiko % 5,5 areagotuz. Kopuru hau aldi berdineko Estatuko batez bestekoa baino % 16,5 handiagoa da, eta, autonomia erkidegoen artean, Madrilak bakarrik gainditzen du. Soldata oso hori

25.947 €-koa zen gure erkidegoan gizonekoentzat eta 18.581 € emakumeentzat, beraz, % 39,6ko aldea dago bi generoen artean. Azken urtean alde hori ia autonomia erkidego guztietan murriztu den bitartean (2,2 puntu batez beste Estatuan), deigarria da EAEn 5,5 puntu areagotu dela (% 34,7ko portzentajea 2005ean), izan ere, gizonekoen soldata % 7,7 areagotu da eta emakumeena % 3,3 bakarrik.

Zentzu horretan bertan, PFEZaren 2006ko likidazioak hartuz gero, EAE osorako informazio finkoa eskuragarri duen azkeneko ekitaldia, ikusiko dugu laneko etekinak eskuratzen dituzten pertsona aitorleen % 81,8ak aitortu egiten duela 30.000 eurotik beherako etekinak eskuratzen dituela urtero, eta, aldi, % 2,8ak bakarrik eskuratzen ditu 51.600 eurotik gorako kopuruak. Aitortutako batez besteko etekina 20.643 eurokoa da, aurreko urteko kopurua baino % 4,4 gehiago.

Jarduera sektoreen arabera soldatak aztertuz gero, altuenak bat datoz industriarekin, bai EAEn, bai Estatu osoan. Zehazki, sektoreko batez besteko urteko irabazia 25.733 €-koa da gure erkidegoan. Kopurua 26.781 €, gizonekoentzat, eta 21.160 €, emakumezkoentzat, artean ibiltzen da batez beste. Industriako batez besteko soldata hau % 13,9 altuagoa da Estatu osoan baino, eta genero aldeak ere islatzen dira kasu honetan.

Bigarrenik, eraikuntzako sektoreko soldatak egongo lirateke (21.807 € urteko batez beste EAEn, 2005ean baino % 1,4 gehiago), Estatuko batez bestekoa baino dezente altuagoak direnak, zehazki % 22,2 altuagoak. Azkenik, zerbitzuen sektoreko soldatei erreparatu gero, 21.789 €-ko kopurua dugu batez beste, eta hori sektoreen multzo osoaren batez bestekoaren azpitik egongo litzateke eta, gainera, Estatuko balioetatik hurbilago (% 13 gainetik).


Bestalde, langile bakoitzarengatik batez besteko irabazia ezberdina da ere dagoen kontratu harreman motaren arabera,

II.5.26. LAUKIA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA LANGILEEN ETA JAIOTERRIAREN ARABERA. EUROTAN. 2006

	Guztira	Estatua	Gainerakoa	Estatua/gainerakoa %
Estatua	19.681	20.123	14.982	134,3
Andaluzia	17.372	17.611	12.887	136,7
Aragoi	19.135	19.548	15.546	125,7
Asturias	19.758	19.860	16.091	123,4
Balearrak	18.096	18.767	14.150	132,6
Kanariar Uharteak	16.431	16.759	12.793	131,0
Kantabria	17.999	18.224	13.460	135,4
Gaztela-Mantxa	17.695	17.954	13.003	138,1
Gaztela eta Leon	17.158	17.551	13.295	132,0
Katalunia	21.210	21.820	16.322	133,7
Valentziako E.	18.065	18.353	15.543	118,1
Extremadura	15.570	15.640	12.094	129,3
Galizia	17.011	17.121	13.248	129,2
Madril	23.622	24.747	15.245	162,3
Murtzia	16.586	17.047	13.113	130,0
Nafarroa	21.661	22.119	16.513	133,9
EAE	22.930	23.120	16.605	139,2
Errioxa	17.902	18.320	14.170	129,3

Iturria: EIN. Soldata Egituraren Inkesta.

II.5.22. Grafikoa. Urteko soldata osoa adinaren arabera. Eurotan. 2006



Iturria: EIN. Soldata Egituraren Inkesta.

eta emaitza hori logikoa da enpresan antzinasunaren ondorioz eratorritako ordainsari hazkundeak aintzat hartuz gero. Zehazki, ikus daiteke urteko soldata osoa % 52 altuagoa dela batez beste kontratu mugagabeko langileentzat, aldi baterako kontratuarekin lan egiten dutenentzat baino. Diferentzial hori, gainera, altuagoa da gizonen artean (% 60), emakumeen artean baino (% 33).

Soldata mailetan alde garrantzitsuko beste faktore bat langileen adinarena da. EAEn, Inkestak 13.881 €-ko batez besteko soldata osoa kalkulatzeko 25 urtetik beherakoentzat, adin taldeen arabera murriztena. Kopuru hori areagotzen joango

litzateke 55 urte eta gehiagokoen taldean kopuru altuena lortu arte (27.357 €). Banaketa hori, ezberdintasunak ezberdintasun, sexuaren arabera nahiz Autonomia Erkidegoaren arabera islatzen da ere. Estatuko batez bestekoari dagokionez, EAEko datua % 16,5 altuagoa da 45 eta 54 urte tartean (alde handiena). Aldiz, aldea txikiena da (% 12,1) 35 eta 44 urte arteko langileentzat.

Azkenik, EINen inkestak atentzioa jartzen du Estatuan jaiotako pertsonen artean eta beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen artean dauden soldata aldean gainea. Gauzak horrela, urteko batez besteko irabazia EAEn % 39,2 altuagoa litzateke Estatuan jaiotako pertsonentzat, hartatik kanpo jaiotakoentzat baino, eta alde hori % 38koa litzateke Gaztela-Mantxan. Aitzitik, aintzat hartu behar da soldata aldeak garrantzitsuak direla jatorriko herrialdeen arabera. Autonomia erkidegoen mailan informaziorik ez badago ere, Estatu osoarentzat EINek azpimarratu egiten du 2006an zehar Ipar Amerikako eta Europar Batasuneko langileek batez bestekoaren gainetik kokatzen den soldata eduki zutela, beste naziotasun batzuetakoek batez besteko horren azpitik % 25 (Europako gainerakoak) eta % 35 (Asia) arteko soldatak eduki zituzten bitartean.

5.4.2. Lan Kostuaren Urteko Inkestaren emaitzak 2007


EINen bigarren estatistika eragiketa bat, langileen soldatekiko hurbilketa bat agertzen duena, "Lan Kostuaren Urteko Inkesta" da. Inkesta hori "Lan Kostuaren Hiruhileko Inkestari" erantsitako galdeketa batetik abiatuz lantzen da. Horri esker, posible da lanaren faktorearen kostuaren urteko maila eta haren osagarriena ezagutzea. Horien artean, "soldaten eta lansarien" partidak ordainsari guztiak biltzen ditu, bai dirutan eskuraturikoak, bai gauzatan eskuraturikoak, horiek besteren kontura lan egiten duten pertsonen egindakoak direnean. Soldata Egituraren Inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak kopuru osotan jasotzen dira, langileak atxikipenak edo Gizarte Segurantzarako ordainketak egin baino lehen.

Inkesta hau urtero egiten ari da 2000tik hona, eta, Soldata Egituraren xehetasun maila ematen ez badu ere (sexuari, adinari, kontratu motari... dagokienez), aukera ematen du soldaten bilakaeraren ikuspegia edukitzeko, azkeneko zortzi urteetako ikuspegiarekin. Eragiketa bateko eta beste ikuspegiak ezberdinak badiira ere, emaitzak, beste era batera izan ezin zitekeen moduan, oso antzekoak dira, bai Estatu mailan, bai EAEn.

2007ko Lan Kostuen Inkestaren arabera, langile bakoitzarengatik lan kostu osoa 32.106 €-koa da guztira EAEn. Horietatik % 73 "soldatak eta lansariak" partidakoa da, hau da, 23.425 €. Batez besteko soldata hau Estatuko batez bestekoa baino % 16,2 altuagoa da, eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen multzoko altuena da.

"Soldatak eta ordainsariak" partida hori areagotuz joan da etengabe 2002tik. 2007an % 4,8 hazi zen aurreko urtearen aldean eta Estatuko batez besteko % +3,9 gehiago. Ondorioz, bi magnitudeen arteko aldea, % 16aren ingurukoa izaten dena beti, areagotu egin da 0,9 puntuan azkeneko urtean.

II.5.23. Grafikoa. "Soldatak eta ordainsariak" partidaren zenbatekoa langile bakoitzaren urteko Laneko Kostuan



Iturria: EIN. Lan Kostuaren urteko inkesta.

II.5.27. LAUKIA. LAN KOSTUA LANGILE BAKOITZEKO ETA URTEKO. DATUAK AAEE ETA KOSTU OSAGIAIEN ARABERA. 2007

	KOSTU OSOA	Soldatak eta ordainsariak	Nahitaezko kotizazioak	Boronda-tezko kotizazioak	Zuzeneko gizarte prestazioak	Bestelakoak (1)	Diru-laguntzak eta kenkariak	KOSTU GARBIA	Soldaten eta o.ºa / GUZTIA
ESTATUA	27.673	20.158	6.305	188	268	754	267	27.406	72.8
Andaluzia	24.931	17.997	5.868	131	184	752	226	24.706	72.2
Aragoi	27.852	20.238	6.521	166	301	627	292	27.560	72.7
Asturias	27.385	19.976	6.501	275	248	385	335	27.050	72.9
Balear Irlak	26.050	19.077	5.962	141	277	593	241	25.810	73.2
Kanariar U.	23.369	16.808	5.494	150	234	684	177	23.191	71.9
Kantabria	25.701	18.601	6.255	153	331	361	263	25.438	72.4
Gaztela eta L.	25.673	18.518	5.960	185	261	748	237	25.436	72.1
Gaztela-M.	24.444	17.718	5.834	138	184	569	195	24.250	72.5
Katalunia	29.702	21.752	6.739	159	264	787	298	29.404	73.2
Valentziako E.	24.702	17.855	5.807	142	194	705	258	24.444	72.3
Extremadura	22.591	16.352	5.362	133	244	499	294	22.297	72.4
Galizia	23.899	17.255	5.643	183	212	606	300	23.599	72.2
Madril	32.839	24.178	6.847	299	389	1.126	263	32.576	73.6
Murtzia	23.406	16.964	5.584	143	226	489	253	23.153	72.5
Nafarroa	30.347	22.094	7.212	214	383	445	362	29.985	72.8
EAE	32.106	23.425	7.442	296	371	572	361	31.746	73.0
Errioxa	25.362	18.560	6.089	178	203	332	265	25.097	73.2

Bestelakoak (1): Kaleratzeengatik kalte-ordainak, lanbide prestakuntzagatik gastuak, garraiokoak, gizarte izaerako gastuak, kontratua amaitzeagatik kalte-ordainak, konpentsazio erako ordainketak, laneko tresnak/jantziak eta beste gastu batzuk biltzen ditu. Kanpoan gertatzen dira dietak eta bidaiaagatik gastuak. Iturria: EIN: Lan Kostuen Urteko Inkesta 2007.

5.5. Lan politikak eta zerbitzuak EAE-n

Lan politikak sortu egiten dira langileak bermatu eta babesteko helburuarekin, langabeziak sor ditzakeen arazoen aurrean. Politika horiek laneratzeara azkar eta aktiboki ahalbidetzerazuzendutako neurri ezberdinen bitartez

garatzen dira. Enpleguaren Politika Aktiboaren (EPA) barruan, mota ezberdineko neurri multzo heterogeneoa jasotzen da. Bertan, prestakuntza ematera, lana sustatzea eta lan malgutasuna eta lan askotarako balio izatea bezalako neurriak sartzen dira, informazioarekin eta orientazioarekin.

II.5.28. LAUKIA. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA POLITIKAK EAE-N

	Lan eta Immigrazio Ministerioa - EEZP	Eusko Jaurlaritza
Bitartekaritza, erregistroa eta informazioa	Enplegu Bulegoak	EGAILAN, LANBIDE
Orientabidea	EALOP ¹ - EZIP	Euskal Orientazio Zerbitzua
Lanerako prestakuntza	EEZP, zentro laguntzaileak	Zentro Laguntzaileak
Enplegu eta prestakuntzako programak, esperientziakoak, laneratzekoak	Tailer erako eskolak, enplegurako tailerrak, lanbide etxeak, EEZP programak, tokiko korporazioak	Dekretuak (sustatzaile berriak, prestakuntza txandaketan, junior enpresa...)
Diru-laguntzak kontratazioarako	GS, ezgaitu, autonomo... hobariak	Enpleguko Dekretu Programak
Prestakuntza Iraunkorra	Tripartita Fundazioa eta HOBETUZ	HOBETUZ

¹ EALOP: Enplegurako eta Autoenpleguan Laguntzeko Orientazio Profesionala. EZIP: Enplegurako Zerbitzu Integratuen Planak.

kin batera. Pertsona horien "laneragarritasuna" sustatzen saiatzen da.

EPAen gaineko eskumenaren titulartasuna Autonomia Erkidegoarena bada ere, Autonomia Estatutuak hala finkatzeagatik, hura Estatuko Administrazio Nagusiak gauzatzen du, izan ere, Memoria hau itxi den datan oraindik ez zaio eskumena erkidego honi eskualdatu. Estatu espainiarreko gainerako 16 autonomia erkidegoekin gertatzen den moduan (Lanari Laguntzeko Programen eta Prestakuntza eta Lanbide Heziketa eta Enpleguko Zerbitzu Publikoko funtzioak kudeatzeko ardura gain hartzen dutenak).

Ondorioz, lan politika eta haren finantzazioa Lan eta Immigrazio Ministerioak egiten du hasiera batean. Ministerioak Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoari (EEZP) agindu dio kudeaketa lan hori. EEZPk EAEn laneko politika aktiboetan egindako gastuaren % 75 baino gehiago kudeatzen du, eta Administrazio Nagusiak eta Gizarte Segurantzak eta Europako Gizarte Funtzak¹⁰ finantzaturikoa da.

Gainera, EAEn, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek, udalerriek eta Garapenerako Eskualde Agentziek ere ekintzak egiten dituzte xede horrekin. Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak, funtsean Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzak Sailaren bitartez, enplegu eta prestakuntza programa jakin batzuk kudeatzen ditu. Bigarrenik, orientazio eta bitartekaritza ekintza jakin batzuk ere egiten ditu LANBIDEren bitartez, EGAILAN SAREN mende-koa hura¹¹. Administrazio Autonomoak kudeatutako politika aktiboan multzoa EAEn egindako EPA guztien % 11 inguru da; % 55ean Gobernu Autonomoak finantzatzen du eta % 40an Europako Gizarte Funtzak.

Foru aldundiei dagokienez, alde handiak daude lurralde historikoen artean horrelako jardueretan. Batetik, Araba eta Gipuzkoa egongo lirateke; haietan, esku-hartze maila txikiagoa

da. Bestalde, Bizkaia; bertan, jarduera nahiz sortutako egitura zabalagoa da. Edonola ere, erakunde hauek finantzatzen duten EPA guztitik, % 80 zuzenean kudeatzen dute (hau da, EAEn EPAek duten agerpenaren % 5 inguru), gainerako % 20 entitate laguntzaileek, prestakuntzakoak batez ere, egiten duten bitartean. Bestela, beste administrazio batzuekin batera jarduerak finantzatzen dituzte, adibidez Eusko Jaurlaritzarekin edo udalekin.

Tokiko entitateak (tokiko garapenerako agentziekin batera) enpleguko politika aktiboan kudeatzaile dira funtsean. EAEn egindako gastu osoaren % 3 finantzatzen badute ere ia, hiru aldiz handiagoa den bolumena kudeatzen dute Eusko Jaurlaritzatik, Administrazio Nagusi-EEZP-EGFtik eta, kopuru txikiagoan, Foru Administrazioetik eskuratutako finantzazio laguntzari esker. Azkenik, eta kudeaketa hutsaren alderdian, irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakunde pribatu ezberdinak, enpresa erakundeak eta sindikatuak eta prestakuntza zentroak daude. Horiek jarduerak kudeatzen dituzte alor honetan, batez ere gizarteratzeko arazoak dituzten talde eta pertsonen gizarte eta lan integrazioari eta prestakuntzari dagokienez.

5.5.1. Lan eta Immigrazio Ministerioaren Enplegu Politikak-EEZP

a) Informazioa eta Orientazioa: irabazi asmorik gabeko enplegu agentziak eta enpleguan orientatzeko eta autoenpleguan laguntzeko zerbitzuak

Enpleguko Zerbitzu Publikoek eskainitako beste zerbitzu bat orientazioarena da. Hori EEZPk egiten du bere Enplegu Bulegoen bitartez eta autonomia erkidegoen bitartez. Azken horiek bere zerbitzu propioei eskualdatutako kudeaketaren bitartez betetzen dute lana. EEZP-az eta entitate laguntzaileez gain, badira irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuk, adibidez enplegurako eta autoenpleguan laguntzeko orienta-

¹⁰ Europako Gizarte Funtzaren Unitate Administraria, Lan eta Immigrazio Ministerioaren mendeko, EGFtik Espainiara joandako baliabideen administrazioa egiteko arduraduna da eta EGFren funtsak autonomia erkidegoen eta Estatuko Administrazio Orokorraren kudeaketa erakundee- tan banatzearen kudeaketa egiteko ere bai. EGFren ekarpen finantzarioa laneko politika aktiboetan, Espainian, 1997-2003 aldian, % 25ean zenbatetsi da.

¹¹ Ez da nahastu behar EGAILAN, SA sozietatea, Prestakuntza eta Enplegua Sortzeko Sozietate Publikoa, Eusko Jaurlaritzaren mendekoa, 1993an eratutakoa LPAen emaitzak hobetzeko sortua, eta LANBIDE, Euskal Enplegu Zerbitzua, lan merkatuan bitartekaritza lanak egiten dituen. EGAILA- Nen funtzioetako bat, hain zuzen ere, LANBIDE kudeatzea da.

II.5.29. LAUKIA. ENPLEGURAKO ORIENTAZIO PROFESIONALEKO ETA AUTOENPLEGUAN LAGUNTZEKO EKINTZEN ONURADUNAK

	EEZP			Entitate laguntzaileak			GUZTIRA		
	2006	2007	2008	2006	2007	2008	2006	2007	2008
Araba	3.415	515	407	514	3.208	2.547	3.929	3.723	2.954
Bizkaia	710	6.561	39.555	4.799	7.881	6.628	8.633	14.442*	46.183
Gipuzkoa	0	0	1.388	7.923	4.238	6.420	4.799	4.238	7.808
EAE	4.125	7.076	41.350	13.236	15.327	15.595	17.361	22.403	56.945

(*) Bizkaian, 2007an, onuradun kopurua nabarmenki areagotu izanaren arrazoia orientazio zerbitzu ezberdinen hartzaile direnak zenbatzeko sistema hobetzea izan da.

Iturria: EEZP (Enplegua Sustatzeko Zuzendariordetza Orokorra).

zio profesionaleko zentroak (EALOP). Horiek Enplegu Zerbitzu Publikoekin lankidetzan aritzen dira, Enplegu Bulegoetan izena emanda dauden lan eskatzaileen okupazio aukerak hobetzeko ekintzak egiterakoan.

2008an, guztira 56.945 lan eskatzailek eskuratu zuen EAEn lanerako orientazio erako laguntzaren bat. Hori % 154,2ko hazkundera da aurreko urtearen aldean. Hazkunde hori, funtsean, EEZPk atenditutako pertsonengatik jazo da (% +484,3; 7.000tik 41.000 pertsona baino gehiagora igarotzen da).

b) Lanbide heziketa

Lanerako prestakuntza

Lanbide eta lanerako heziketak eta heziketa iraunkorrak al daketa batzuk jasan zituzten 2007an, Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpistema arautzen duen 395/2007 Errege Dekretua onestearen ondorioz. Horrek lanerako LH eta heziketa iraunkorari dagokienez indarrean zegoen araudia ordezkatzen du, sistema bakarrean bi eredu integratuz. Errege Dekretu berriak ezarri egiten du beharrezkoa dela gizarte kontzentrazioa eta autonomia erkidegoen eta Estatuaren arteko ekimen koordinazioa ezartzea gai honetan. Horretarako, enplegurako lau prestakuntza ekimen biltzen ditu:

1. Eskariaren arabera prestakuntza; enpresek eta langileek planteatutako prestakuntzako berariazko beharrei aurre egiten diete. Enpresei dagokie plangintza eta kudeaketa egitea, eta Gizarte Segurantzako kuotetan hobari sistema bat jarri finantzatzeko da. Enpresek portzentaje oso txiki batekin parte hartzen dute kostu osoaren finantzazioan, eta prestakuntza antolatu eta kudeatu ahalgo dute bere kabuz edo, bestela, zentro edo entitate espezializatu bat kontratatatu. Nahierara taldekatzerik ere izango dute, entitate antolatzaile bat izendatuz. Halaber, banakako prestakuntza baimenak eman ahalgo dira, langileen ekimenez.
2. Eskaintza Prestakuntza, lanean ari diren nahiz langabezia dauden langileei zuzendurikoa. Hori gauzatzea enpresa eta sindikatu erakundeei dagokie, gizarte ekonomia nahiz autonomoak ordezkatzen dituztenei bezalaxe. Xede objektiboa lan merkatuaren beharretara eta ekoizpenaren eta lehiaren egungo eskakizunetara egokitzen den prestakuntza eskaintzea da.

II.5.30. LAUKIA. EEZP-K BATEZ ERE LANGABEZIAN DAUDEN LANGILEEI EAE-N ZUENDUTAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK. ZEIN ZENTROTAN EMATEN DIREN GORABEHERA

		GUZTIRA	Lanerako prestakuntzako zentroak	Zentro Laguntzaileak
2006	EAE	770	45	725
	Araba	117	3	114
2007	Bizkaia	205	17	188
	Gipuzkoa	483	30	453
	EAE	805	50	755
2008*	Araba	93	3	90
	Bizkaia	372	22	372
	Gipuzkoa	148	11	148
	EAE	613	36	613

(*) Guztira urtean amaitutakoak. Ez dira zenbatu 2008an funtzionamenduan jarraitzen duten ikastaroak.

Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntzaren Kudeaketaren Zuzendariordetza Orokorra).

3. Enpleguarekin txandakatzeko prestakuntzak ikaskuntza mistoko prozesua ezartzen du enpleguaren eta prestakuntzaren artean. Horri esker, langileak ikaskuntza formala eta lanpostuko praktika profesionala bateratzerik edukiko du.
 4. Prestakuntzan lagundu eta harekin batera joateko ekintzak enplegurako prestakuntzaren azpistemaren eraginkortasuna hobetzea ahalbidetzen dutenak dira.
- Prestakuntza ekintzak eskumen eta gaitasun profesionalak hartu eta hobetzera zuzenduta egongo dira pertsona guztien kasuan, langile nahiz langabetu. Hala eta guztiz ere, gizarteratzeko edo laneko merkatuan mantentzeko zailtasun gehien edukiko duten talde batzuk lehentasuna edukiko dute (emakumeak, 45 urtetik gorakoak, ezgaituak...).
- Langabezia dauden langileentzako lanerako prestakuntza jarduerak Enplegurako Lanbide Heziketako Azpistemaren, Tailer erako Eskola eta Lanbide Etxeetako programen, Sustapen eta Garapen Unitateen eta Enpresa Ekimeneko Zentroen

II.5.31. LAUKIA. EEZP-K BATEZ ERE LANGABEZIAN DAUDEN LANGILEEI EAE-N ESKAINITAKO PRESTAKUNTZA EKINTZETAN PRESTAKUNTZA ESKURATU DUTEN IKASLEAK, 2008. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

EBALUAZIO POSITIBOAREKIN PRESTATURIKOAK (1)	EAE 2007	2008				Aldak. %a, 2007-08
		EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	
Iraunaldi luzeko langabetuak	2.048	548	60	395	93	-73.2
25 urte baino gutxiagokoak	1.661	1.206	166	807	233	-27.4
30 urte baino gutxiagokoak	3.705	2.721	379	1.812	530	-26.6
Emakumeak (2)	489	385	83	190	112	-21.3

(1) Ebaluazio negatiboko ikasleak, lana topatzeagatik edo bestelako arrazoiengatik ikasturtean zehar baja hartu zutenak edo behin 2008 urtea amaitu ondoren prestakuntzarekin jarraitu zutenak kanpoan geratzen dira.

(2) Ordezkaritza eskasa duten lanbide familetan prestakuntza hartzen duten emakumeak bakarrik zenbatzen dira.

Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntzaren Kudeaketaren Zuzendariordetza Orokorra).

II.5.32. LAUKIA. TAILER ERAKO ESKOLETAN ETA LANBIDE ETXEETAN PARTE HARTZEN DUTENAK EAE-N

	GUZTIRA			TAILER ERAKO ESKOLA			LANBIDE EtxEA - ENPLEGU TAILERRA		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2004	1.112	634	478	226	188	38	886	446	440
2005	1.122	595	527	151	133	18	971	462	509
2006	1.219	623	596	154	118	36	1.065	505	560
2007	1.146	560	586	205	161	44	941	399	542
2008	1.251	608	643	200	167	33	1.051	441	610

Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntzaren Kudeaketaren Zuzendariordetza Orokorra).

bitartez egiten dira¹². EEZPk lanerako prestakuntza ekintzak egiten ditu, eta bere zentro propioetan ematen ditu (EAEn bi ditu: Lasarten eta Sestaon) eta, nagusiki, Zentro Laguntzaileetan homologatutako prestakuntza espezialitateetan egindakoak finantzatzen ditu, horretarako kontratu-programak edo lankidetzak hitzarmenak sinatuz. Hain zuzen ere, horrela egiten da prestakuntza ekintza horien % 95 baino gehiago. Jarduera horiek Europako Gizarte Funtsek diruz laguntzen ditu nagusiki, eta ikasleentzat doakoak dira. Parte hartzen dutenek 16 eta 65 urte artean eduki behar dituzte, eta hurrengo taldeei zuzendurik daude:

- 25 urte baino gutxiagoko langabetuak: Iraunaldi labur eta luzeko langabezia jasan duten pertsonak eta ordezkaritza gutxi duten espezialitateetan jardun nahi duten emakumeak zuzenduta, haien kualifikazio profesionalak behar bestekoak edo egokiak ez direnean.
- 25 urte baino gehiagoko langabetuak: Iraunaldi labur eta luzeko langabezia jasan duten pertsonak eta emakumeak (iraunaldi labur nahiz luzekoak, lanik gabe 5 urte egin badituzte ordezkaritza gutxi duten lanetan eta familiako erantzukizunak badituzte) zuzendurikoa ere. Helburua oinarritzko kualifikazioa eta perfektzionamendua edo lanbide birziklapena da.

- Beste talde batzuk: Ezintasunak dituzten pertsonak (Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalarekin lankidetzan); etorkinak eta haien familiak (Emigrazioaren Institutu Nazionaleko Zuzendaritza Orokorra edo beste entitate batzuekin egitokia); askatasuna mugaturik duten pertsonak, eta abar.

- Prestatzaileak: Plan honetan parte hartzen duten irakasleen prestakuntzara edo eguneratze tekniko-pedagogikora zuzenduak.

Guztira, 2008an zehar, EEZPk 613 prestakuntza ekintza finantzatu zituen. Bolumen hori % 23,9 murriztu da aurreko urtearen aldean. Funtsean, Gipuzkoako bilakaera negatiboagatik gertatu da hori, izan ere, Araban eta Bizkaian prestakuntza ekintzek behera egin dute baina ez horrenbeste.

Bestalde, enplegu eta prestakuntzako prestakuntza jarduera misto modura, EEZPk Tailer erako eskolak, Enplegu tailerrak, EAEko lanbideen 3 etxeak finantzatzen ditu. Horiek 25 urteko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak badituzte. Tailer erako eskolak eta Lanbide Etxeak enplegu eta prestakuntza programak dira, eta horien helburua laneratzea da, praktika profesionalarekin txandakatuz prestakuntza emanez ondare historikoa, kulturala edo naturala berreskuratzearekin zerikusia duten okupazioetan. Enplegu tailerrak prestakuntza eta enple-

¹² Enplegurako Lanbide Heziketako Azpisistema berria martxoaren 23ko 395/2007 ED-k arautzen du. Horren bitartez, Lanerako Prestakuntzaren aurreko Plana indargabeturik geratzen da.

II.5.33. LAUKIA. FTFE: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N. 2004-2007 EKITALDIEN BILAKAERA

Eskari prestakuntza	2004	2005	2006	2007 (behin-behinekoa)	2008 (aurrerapena)
AE-n prestatutako parte-hartzaileak	26.065	51.305	60.449	102.744	117.964
(Eremu autonomikoa)*** prestatutako parte-hartzaileak	8.728	24.782	29.498	42.560	—
Prestakuntzako batez besteko ordu kopurua	29,8	31,3	30,0	25,7	26,4
Finantzazioa					
Esleitutako kreditua	4.168.458	9.453.121	12.377.107	14.972.028	19.457.618
Erabilitako kreditua	1.849.353	5.151.791	6.630.691	9.382.122	12.434.417
Prestakuntzako enpresak	1.034	2.349	3.088	4.412	7.744
Estaldura tasa*	1,6	3,6	4,7	6,5	11,3
Estatu mailako Eskaintzako prestakuntza					
Prestakuntza hartu duten parte-hartzaileak	2.554	18.392	24.128	11.434	45.041
Prestakuntzako batez besteko ordu kopurua	36,3	50,6	52,0	63,8	105,0
Autonomia erkidego mailako Eskaintzako prestakuntza					
Prestakuntza hartu duten parte-hartzaileak	148	13.578	19.759	23.535	—
Prestakuntzako batez besteko ordu kopurua	76,9	54,1	67,8	87,5	—
Prestakuntza guztira					
Prestakuntza hartu duten parte-hartzaileak	28.767	83.275	104.336	137.713P	163.005P
Okupatuaren estaldura tasa*	3,6	10,0	12,3	—	—

Iturria: Enpleguan Prestatzeko Hiru Aldeko Fundazioa (FTFE).

(*) Sektore publikoa salbu, GSDOn inskribatutako enpresa kopuruaren gainean kalkulaturako estaldura tasa.

(**) EPAren (EIN) arabera, sektore publikoa salbu, okupaturiko langile guztien gainean prestatutako parte-hartzaileak.


(***) Eremu autonomikoa bakar-bakarrik diren enpresetako parte-hartzaileak. Aurreko lerroan aintzat harturikoak; EAEen parte hartu duten langile guztiak hartzen ditu.

gu ekintzak konbinatzen dituzten programak dira, 25 urteko edo gehiagoko langabetuei zuzenduta laneratzeko zailtasun bereziak badituzte (iraunaldi luzeko langabezia jasan dutenak, 45 urtetik gorako langileak, emakumeak, ezgaituak) interes orokorreko edo gizarte intereseko lan eremuetan. Azkenik, EEZPk lagundu egiten die udalbatzei, gizarte intereseko enplegu programen barruan. Bertan, diru-laguntza publikoak sartu ohi dira laneratzeko esperientzia planak egiteko, horren bitartez tokiko udalbatzek kontratatutako langabetu taldeen okupazio ahalmena hobea izan dadin interes orokorreko eta gizarte intereseko obra eta zerbitzuetan, edo toki administrazio baten mendeko edo hari lotutako entitateetan.

Prestakuntza Iraunkorra

Enpleguan Prestatzeko Hiru Aldeko Fundazioak sustatutako langileen prestakuntza iraunkorrerako ekintzei dagokienez (Sektore arteko prestakuntza planetarako, sektorekakoetarako, Gizarte Ekonomiarako eta Langile Autonomoentzako), 2008an, behin-behineko datuen arabera, 117.964 parte-hartzailek parte hartu zuen guztira, aurreko urtean baino % 14,8 gehiago. Hori 7.744 enpresa prestatzailearen esku-hartzeari esker jazo zen. Kategorien arabera, parte-hartze handiena eduki duen lanbide taldea langile kualifikatuena izan da (prestatutako parte-hartzaileen % 41,6 eta egindako prestakuntza orduen % 40,6). Aldiz, eremu funtzionalen arabera, ekoizpenarena nabarmendu behar da gainerakoen artean (parte-hartzaileen % 55,3 eta prestakuntza orduen % 52,5). Batez beste, langile bakoitzaren ordu kopuruaren batez bestekoa 2008an 26,4koa izan zen.

II.5.24. Grafikoa. FTFE: EAEen prestatutako parte-hartzaileak sexuka eta adin taldeka. 2008



Iturria: Enpleguan Prestatzeko Hiru Aldeko Fundazioa.

Azpirarragarria da zuzendaritzaren alorreko langileentzako parte-hartzaile bakoitzak agertzen duen prestakuntzako 36,9ko datua.

Bestalde, eta aurreko urteetan bezala, emandako ikastaroen 100 izendapen tekniko baino gehiagoren artean, azpirarragarriak dira beren partaidetzagatik laneko osasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak, hizkuntzakoak eta erabilitzaile-ofimatika mailako informatikakoak. Hiru gai horietan prestakuntza eskuratu dute azken hiru urteetan, batez beste, langile parte-hartzaileen heren batek.

II.5.34. LAUKIA. LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOAK EAE-N ENPLEGUA SUSTATZEKO DITUEN PROGRAMAK (MILA EUROTAN)

	GUZTIRA*	Tokiko garapena sustatzea eta B+E proiektuak eta enpresak sustatzea	Enplegu autonomia sustatzea	Ezinduk laneratzea
2003	22.934	2.638	3.024	17.233
2004	26.467	2.294	2.820	21.353
2005	28.322	2.295	2.565	23.462
2006	34.141	1.885	2.722	29.533
2007	35.822	2.243	3.507	30.072
2008	48.724	1.887	16.140	30.697

(*) Guztizkoaren eta programen baturaren arteko aldea Kooperatibetan Enplegua Babesteko eta Sletako programei dagokie.
Iturria: EEZP (Enplegua Sustatzeko Zuzendariordeztza Orokorra).

c) Enplegua sustatzeko programak

Enplegu sorrera babesteko Lan eta Immigrazio Ministerioaren aldetik pizgarri ekonomikoa duen programen artean, enplegua sustatzeagatik hobaria da adierazgarria. Hori, funtzio honetan baliabide gehien pilatzen dituen izateaz gain, EAEn egindako EPA multzoan baliabide gehien biltzen dituen da, hain zuzen. Laguntza hauek aldi berean zuzentzen dira kontratazio mugagabea sustatzera eta, aldi berean, zailtasun gehieneko taldeei arreta ematera (iraunaldi luzeko langabetuak, emakumeak, gazteak, ezgaituak eta berrogeita bost urtetik gorako langileak), eta 1997ko lan erreformatik aurrera ematen dira¹³.

Bestalde, 45/2002 Legeak 2002ko lana sustatzeko Programako langabetu talde batzuk kontratu mugagabeekin kontratatze pizgarriak zabaldu zituen, eta hiru programa berri ezarri zituen (langabeziako prestazioen hartzaile direnak kontratatzea bultzatzeko, prestakuntza eskuratzen ari diren langileak ordezkatu bitartean; langabeziagatik eskuratzen den laguntza besteren konturako lanarekin bateratzea posible izatekoa; eta langabetuen mugikortasun geografikoa sustatzeko).

Ordudanik geroz eta gehiago erabili ziren kontratazioak bultzatzeko horrelako pizgarriak. 2006an, informazioa dagoen azkeneko urtea, 207.988 mila euroko kopurua izan zen, aurreko urtean baino % 14,5 gehiago. Programa honen pean

II.5.35. LAUKIA. EAE-KO ENPRESEN PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA FTFE-REN BITARTEZ. LANEKO PROFILAREN ARABERA PRESTATUTAKO PARTE-HARTZAILEAK

Lanbide kategoria	2007					2008*				
	Prestakuntza hartu duten parte-hartzaileak		Egindako prestakuntza orduak		Batez b. ordu kop.	Prestakuntza hartu duten parte-hartzaileak		Egindako prestakuntza orduak		Batez b. ordu kop.
	Absolutua	%	Absolutua	%		Absolutua	%	Absolutua	%	
Zuzendaria	4.369	4,3	163.889	6,0	37,5	4.889	4,1	184.060	5,9	37,6
Erdi-mailako ard.	10.390	10,1	314.531	11,5	30,3	11.136	9,4	349.285	11,2	31,4
Teknikaria	23.718	23,1	737.215	27,0	31,1	27.105	23,0	774.011	24,9	28,6
Langile kualifikatua	45.368	44,2	1.092.839	40,0	24,1	49.033	41,6	1.262.736	40,6	25,8
Kualifikatu gabeko lang.	18.895	18,4	423.901	15,5	22,4	25.789	21,9	540.944	17,4	21,0
Eredu funtzionala										
Administrazioa	17.847	17,4	563.586	20,6	31,6	18.533	15,7	637.362	20,5	34,4
Merkataria	20.053	19,5	418.998	15,3	20,9	22.352	19,0	494.037	15,9	22,1
Zuzendaritza	4.030	3,9	164.401	6,0	40,8	4.517	3,8	166.818	5,4	36,9
Mantentze-lanak	6.548	6,4	185.770	6,8	28,4	7.270	6,2	179.193	5,8	24,6
Ekoizpena	54.262	52,8	1.399.620	51,2	25,8	65.280	55,3	1.633.626	52,5	25,0
GUZTIRA	102.744	100,0	2.732.463	100,0	27,6	117.964	100,0	3.111.408	100,0	26,4

Iturria: Enpleguan Prestatzeko Hiru Aldeko Fundazioa (FTFE).

(*) Behin-behineko datuak 09.3.31n.

¹³ "Enpleguaren Egonkortasunerako Konfederazio Arteko Akordioa", aurrerago hurrengoetan islatu zena: maiatzaren 16ko 8/1997 Errege Lege Dekretua, irailaren 26ko 63/1997 Legea, Lan Merkataria hobetzeko eta Kontratazio Mugagabea Sustatzeko Presazko Neurriak hartzen dituen, eta abenduaren 26ko 64/1997 Legea, Gizarte Segurantzaren alorreko pizgarriak eta izaera fiskalekoak arautzen dituen kontratazio mugagabea sustatzeko, 1999 urtetik 2003 urtera arte enplegua sustatzeko programak, urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearekin batera joan ohi den zerga, administrazio eta gizarte mailako neurrien Legean sarturikoak, eguneratu egiten dute aldizka pizgarrien sistema (Zerga, Administrazio eta Gizarte Mailako Neurrien abenduaren 30eko 53/2002 Legea; BOE, 2002ko abenduaren 31koa).

kontraturiko langile kopurua 215.532koa izan zen (2005ean baino % +11,9 gehiago), eta hori 965 euroko hobaria izan zen kontraturiko pertsona bakoitzeko batez beste. Hain zuzen ere, aurreko urtean baino 22 gehiago izan zen.

Beste programa osagarri batzuk Tokiko Garapenaren Sustapenean enplegua babesteari eta "B+E, enplegu autonomia eta ezgaituen laneko integrazioa sustatzea" modura kalifikatutako proiektu eta enpresen bultzadari buruzkoak dira. 2008ko datuen arabera, guztira 48,7 milioi euro eman zen jardura hauek gara zitezen, aurreko urtean baino % 36 gehiago. Horien banaketa oso egonkorra izaten ari da azkeneko urteetan zehar. 2008an, laguntza hauen % 63 ezinduen Laneratzera zuzendu dira, % 33 Enplegu Autonomia Sustatzera eta gainerako % 19 Tokiko Ekimenei. Azken horiek, funtsean, kontratazio mugagabeak eta tokiko enplegu agenteak diruz laguntzeko izan dira.


5.5.2. Eusko Jaurlaritzako Enplegu Politikak

a) Bitartekaritza, Informazioa eta Orientazioa:

"LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuak", lanerako orientazio, laguntza eta prestakuntzakoak, Enpleguako Erakunde Arteko 2003-2006 Planetik abiatuz martxan jarritakoa, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren mendekoa da erakunde aldetik. Bertan, bitartekaritza zerbitzu horiez gain, beste batzuk eskaintzen dira, adibidez informaziokoak, lanbide orientaziokoak eta enplegua sustatzekoak.

LANBIDEK 51.547 lan eskabide erregistratu zituen guztira 2008ko laugarren hiru hilabeteetan (2007ko azkeneko hiru hile-

II.5.25. Grafikoa. Lan eskatzaile aktiboak LANBIDEn izena emanda. Adinaren arabera. IV hiru hilabeteak



Iturria: Lanbide.

koan baino % 17,6 gehiago). Horietatik, iturri honen arabera, % 83 langabezia egoeran dago (hau da, 42.783 pertsona, BJAren datuaren arabera 2008ko laugarren hiru hilabeteetako datua 46.400 pertsona denean). Enplegu eskatzaile kopuru handieneko adin tarteak 25etik 34 urterako bitartekoa da (% 37), gainera duena ondoren etorritik, alegia, 35etik 44ra bitartekoa (eskatzaileen % 28). Sexuaren arabera banaketari dagokionez, % 53,5 emakumeak dira (urtebete lehenago % 57 zen portzentajea).

II.5.36. LAUKIA. LANBIDEREN BITARTEZ GEHIEN ESKAINI ETA ESKATUTAKO LANPOSTUAK. 2008KO IV. HIRUHILEKOA

Okupazioa	Eskaintzak	Eskaria	EI*
ESKARI GEHIEN (LANBIDEN AKTIBO DAUDEN ESKATZAILEEN ARABERA)			
Garbiketa lanetarako langileak	799	9.435	8,0
Dendako saltzaileak	410	7.155	5,0
Administrazio langileak	497	6.512	7,0
Metalurgiako langileak	160	5.341	2,0
Zamalanetarako, biltegirako edota merkaturako langileak	274	5.207	5,0
Hipermerkatuko apal-betetzaleak	173	5.086	3,0
ESKANTZA HANDIENA (aurrekoak ez dira sartzen)			
Elkarriketatzaile, inkestak	1.173	292	401,0
Agente komertzialak	741	1.322	56,0
Administrazio teknikariak	526	4.011	13,0
Hezkuntza eta aisialdiko begiraleak	438	887	49,0
Zerbitzaria, orokorrean	370	2.134	17,0
Telefonoguneko operadoreak	356	1.877	18,0
ENPLEGAGARRITASUN INDIZEAREN ARABERA** (aurrekoak ez dira sartzen)			
Modeloa, orokorrean	63	3	2.100,0
txartelak saltzeko langileak (ONCE)	70	5	1.400,0
Aseguru agentak	253	60	421,0
Mantentze-lan elektronikoak eta makinak konpontzeko langileak	18	5	360,0
Igogailuak eta antzekoak konpontzeko mekanikariak	36	14	257,0
Galdaragintza teknikariak	82	40	205,0

(*) Enplegagarritasun indizea, lana eskaintzen duen 100 pertsonako enpresek eskatutako lanpostu kopurua.

(**) Eskaintza 15 lanpostu baino gehiago.

Iturria: Lanbide.

II.5.37. LAUKIA. ENPLEGU ESKATZAILE AKTIBOAK LANBIDEN. 2008KO IV. HIRUHILEKOA

	Guztira	%a, guzti-aren/a.	BJA langab. tasa	Gizonak	Emak.
16-24	8.438	16,4	11,6	4.958	3.480
25-34	19.092	37,0	6,1	8.518	10.574
35-44	14.458	28,0	4,4	6.318	8.140
45-54	7.876	15,3	2,9	3.356	4.520
55 eta +	1.660	3,2	2,1	817	843
GUZTIRA*	51.547	100,0	4,6	23.978	27.569

Iturria: Lanbide.

(*) adin ezezaguneko izen emandakoak hartzen ditu.

Bestalde, LANBIDEk eskaintza egiten du zerbitzu honen bitartez eta zentro laguntzaileen bitartez. Eskaintza 22.709 lanpostukoa izan zen (2007ko laugarren hiruhilekoan baino % 10,9 gutxiago).

LANBIDEren bitartez gehien eskaini eta eskatutako lanpostuei dagokienez, aurreko urteetako joera mantendu da: titulazio edota espezializazio eskasa, zerbitzuen sektorean batez ere (ohikoa izaten da enpleguko zerbitzu publikoetan, izan ere, "kalitatezko" langileak langile aukeraketako enpresa pribatuaren bitartez mugitu ohi dira). Aitzitik, enplegarritasun maila altuengatik eta behar besteko eskaintza egoteagatik, azpima-

rragarriak dira aseguru agenteen, mekanikako teknikarien eta makineria mota ezberdinetako langileen lanpostuak.

b) Lanbide heziketa

Lanerako prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren prestakuntza programetan aldakuntza adierazgarriak jazo ziren 2004tik aurrera, hain zuzen ere hurrengoak onestearen ondorioz: 327/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Lan-aukerak areagotzeko eta Laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen; 328/2007 Dekretua, abenduaren 23koa, Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesten duena, eta 329/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, lanerako laguntzak arautzen dituen. Halaber, indarrean mantendu zen 191/2003 Dekretua, uztailaren 29koa, enpresariaren elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak ematea arautzen duena. Beren jardura eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko dira diru-laguntzak.

Guztira, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzako Prestakuntza Programak eta Ekintzak 19 milioi euroko ordainketa izan ziren 2008an, aurreko urtean baino % 32,9 gehiago. Funts hauen % 61 Lanerako Prestakuntzari buruzko ekintzetarako erabili ziren, % 6,8 enpresa sustapenari zuzendurikoak izan ziren eta beste % 6,8 sindikatu eta enpresa erakundeetako kideen prestakuntzara zuzendurikoak.

II.5.38 LAUKIA. EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZAKO PRESTAKUNTZA PROGRAMAK ETA EKINTZAK

	2007				2008			
	Ekintza kop.	Ordu kop.	Parte-hartzaile kop.	Diru-laguntza osoa (€)	Ekintza kop.	Ordu kop.	Parte-hartzaile kop.	Diru-laguntza osoa (€)
Enplegurako Orientazio Zerbitzua	524	5.486	4.067	0	122.551	127.337	58.234	4.758.355
Europar Batasuneko Planak	11	0	0	609.869	0	0	0	0
Lanerako prestakuntza	585	713.924	8.366	10.517.071	551	454.653	7.182	11.644.912
Enplegu eta prestakuntza ekintzak	61	20.287	608	1.391.821	32	12.113	292	816.568
% 60ko Kontratazio Konpromisoa duten ekintzak	36	44.398	574	1.089.203	49	56.292	640	1.307.566
Erakunde Arteko Planetatik eratorritako ekintzak	23	35.083	391	625.142	29	53.832	369	674.070
Beste prestakuntza ekintza batzuk	465	614.156	6.793	7.410.906	441	332.416	5.881	8.846.709
Enpresa Sustapena	525	32.668	16.035	1.861.733	1.461	36.107	9.851	1.276.235
Kultura ekintzailea zabaltzeko ekintzak	68	3.367	12.037	206.330	328	3.645	5.811	214.230
Taldeko prestakuntza ekintzak	199	10.054	2.486	639.968	184	9.506	2.226	612.920
Bakarkako aholkularitza ekintzak	60	19.247	1.314	592.435	53	12.753	918	490.805
Gaztenpresa	198	0	198	423.000	896	10.203	896	400.000
Enpresa eta sindikatu erakundeetako kideen prestakuntza	338	14.219	21.795	1.250.080	803	11.806	19.515	1.287.580
Prestakuntza enpresa erakundeetan	232	4.896	6.812	409.147	129	2.382	4.507	426.282
Prestakuntza erakunde sindikaletan	106	9.323	14.983	840.933	674	9.424	15.008	861.298
Terrorismoaren biktimentzako arreta	24	0	24	60.000	33	0	33	61.800
GUZTIRA	2.007	766.297	50.287	14.298.753	125.366	629.903	94.782	18.967.082

Iturria: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.5.39. LAUKIA. HOBETUZ, 2008KO DEIALDIA

		PLAN MOTA	ESPEDIENTEAK	DIRU-LAGUNTZA (mila €)	BERTARATU ZIRENAK
ENPRESAK		ENPRESA PLANAK	275	4.739	25.434
		TALDEKO PLANAK ENPRESAKOAK	57	1.354	8.399
		ENPRESAK GUZTIRA	332	6.093	33.833
		SEKTORE ARTEKO SINATZAILEA	16	7.581	26.990
LANGILEAK	SEKTOREKO PLANAK SEKTORE ARTEKOAK	ANT. SEKTOREKOA, SINATZAILEA	3	519	2.556
		SEKTOREARTEK. ENT.PRESTAKUNTZA	120	4.383	33.281
		SEKTOREKOA ENT. PRESTAKUNTZA	20	377	5.104
		MODULUEN ARABERAKO KATALOGOA	75	7.090	20.028
	ENTITATEETAKO PLANAK PRESTAKUNTZA KOAK AUTONOMOAK-EKONOMIA GIZARTEKOA ETA EZ SINATZAILEAK	GIZARTE EKONOMIA	2	244	1.066
		AUTONOMOAK	3	356	1.128
		ANT., EZ SINATZAILEAK	19	521	4.880
		LANGILEAK GUZTIRA	258	21.072	95.033
		GUZTIRA	590	27.165	128.866

Iturria: HOBETUZ.

Prestakuntza iraunkorra¹⁴

Indarrean dagoen araudi eta eskumen banaketaren ondorioz, pertsonen eta enpresen arteko prestakuntza iraunkorreko jarduerak Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Enpleguan prestatzeko Hiru Aldeko Fundazioaren (FTFE) bitartez kudeatzen dira EAEn. Ekintza hauen finantzazioa Gizarte Segurantzaren kuotetan hobariak jarrit eta Europako Gizarte Funtsetik eta aurrekontu publikoetatik —administrazio zentrala (EEZPri esleitura) edo Eusko Jaurlaritzak, HOBETUZen kasuan— etorritako funtsetatik etorritako kopuruak erabiliz egiten da nagusiki.


Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) bitartez egiten diren prestakuntza iraunkorreko jarduerak dagokionez, hain zuzen ere EAEn lanean ari diren pertsonen prestakuntza iraunkorraren kudeaketa gain hartzen duenari dagokionez (bertan enpresaburuen, sindikatuen eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak daude), hark ez ditu laguntza deialdiak argitaratzen 2003tik aurrera. Horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitate Sailak kudeatzen ditu egun. Gainera, 2006an ere ez zuen deialdi hori kudeatu, ez baitzen horren gaineko akordioak lortu bere Patronatuaren baitan. 2007an, jarduera horri ekin zion berriro ere.

2008 ekitaldirako, eta benetako gauzatze datuak finkatzea falta bada ere, HOBETUZek 590 plan kudeatu ditu guztira. Horrek aukera eman dio 128.866 langileri prestakuntza eskuratzeko. Horretarako, diru-laguntzak eman ziren 27,16 milioi euroko kopuruan.

Bestalde, 2007ko emaitzak finkatzetik aurrera ezagutzen da deialdi horretan parte hartu zuten langileen profila: Parte-hartzaileak gizonezkoak dira funtsean (% 58) eta 25 eta 45 urte arteko adina dutenak (guztien % 71,8). 25 urtetik beherakoak


% 11,4 dira eta 45 urtetik gorakoak % 16,8. Bere ikasketa mailari dagokionez, % 43,2ak bigarren hezkuntzako ikasketak ditu eta % 36ak, aldiz, unibertsitate mailakoak. Lan egiten duten jardura sektoreari dagokionez (parte-hartzaileen % 6,7 bakarrik dago langabezia), nagusia da hirugarren sektorea (% 54), atzetik industria izanez (% 33,3). Gehienek enpresa pribatuetan egiten dute lan (% 63ak, langile autonomoak barne), eta % 18,6ak gizarte ekonomian egiten du lan. Azkenik, parte hartzen duten langileen erdiak 50 langiletik gorako enpresetan egiten dute (% 55,6), eta % 15,8 eskas batek bakarrik betetzen du bere lana 10 langiletik beherako enpresa batean.

II.5.26. Grafikoa. Resultados de los Programas y Acciones Formativas de la Dirección de Empleo y Formación del Gobierno Vasco



Fuente: Gobierno Vasco.

¹⁴ 5.5.2 idatz-zatian xehetasunez azaltzen den moduan, LH Iraunkorrak eraginak jaso zituen 2007an EAEn, 395/2007 EDaren onespeneraren ondorioz. Horren bitartez, Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisisistema arautu zen, eta Lanbide Heziketa Iraunkorra arautzen zuen 1046/2003 Errege Dekretua ordezkatu zuen, prestakuntza iraunkorra eta lanerakoa bateratuz.

II.5.27. Grafikoa. Hobetuz-en deialdietako emaitzen bilakaera.

Iturria: Hobetuz.

II.5.40. LAUKIA. EUSKO JAURLARITZAREN PROGRAMAK 2008AN ENPLEGUA SUSTATZEKO. (DIRUZ LAGUNDUTAKO LANGILEAK, DIRU-LAGUNTZAK MILA EUROTAN ETA BATEZ BESTEKO DIRU-LAGUNTZAK EUROTAN)

	EAE			Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Langile kop.	Diru-lag. Guztira	Diru-lag. B. bestekoa	Langile kop.	Diru-lag. Guztira	Langile kop.	Diru-lag. Guztira	Langile kop.	Diru-lag. Guztira
Kontratazioa (1)	1.026	4.668	4.550	91	458	452	2.411	483	1.801
Lantaldeak berritzea (2- txanda kontratua)	909	4.781	5.259	125	680	427	2.216	357	1.885
Lantaldeak berritzea kooperatibetan (2- Erretiroa hartzen duen bazkidearentzako laguntzak)	56	508	9.073	3	27	9	69	44	412
Lantaldeak berritzea kooperatibetan (2- Gizarteko kontratu berriak)	86	410	4.771	5	27	15	73	66	310
Laneko denboraren banaketa (3)	53	123	2.329	0	0	39	94	14	29
Enplegu eta prestakuntza proiektuak (4)	296	2.342	7.912	81	560	145	1.278	70	465
Laneko eta familiako bizitza bateratzea (5 - Enpresak)	697	833	1.196	133	146	248	276	316	411
Enpresak sortzea (6)	1.473	8.810	5.981	182	1.084	712	4.262	579	3.464
PROGRAMAK GUZTIRA	4.596	22.476	4.890	620	3.021	2.047	10.678	1.929	8.776

329/2003 Dekretua. (1) II. kap.; (2) III. Kap.; (3) IV. Kap.; (4) V. Kap.; (5) VI. Kap.

328/2003 Dekretua. (6) IV. kapitulua.

2007ko abenduaren 28ko Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuena: (7).

Iturria: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Saila. Eusko Jaurlaritza.

c) Enplegua sustatzeko programak

Eusko Jaurlaritzak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren bitartez egindako enplegu politika aktiboak aldatu egin ziren nabarmenki, jada esan den bezala, 2004an, lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuaren

eta Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren onespeneren ondotik.

Lehenengo dekretuaren oinarria Erakunde Arteko Enplegu Plana 2003/2006 da, eta laneratzeko zailtasunak dituzten


langabetu taldeen kontrataziorako laguntza berriak arautzen ditu. Horrez gain, dekretu honek indargabetzen dituen arau ezberdinetan jaso ohi ziren aurreko jarduerak multzokatzen ditu. Bestalde, 328/2003 Dekretuak diru-laguntzak finkatzen ditu langabetuez eratutako enpresak sortzen laguntzeko eta indargabetu egiten du abenduaren 24ko 305/1996 Dekretua, autoenplegua sustatzeko neurriak arautzen dituen Dekretu hauek garatutako enpleguarentzako laguntzak bost jarduera ildotan sailkatzen dira:

- Lehenengo laguntza ildoaren xedea lan merkatuan sartzeko zailtasun gehien dituzten taldeen laneratzearen alde egitea da, kontratazio mugagabea sustatzearekin eta aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzearekin batera.
- Laguntzen bigarren ildoak babestu egiten du enpresetako lan-taldeak berritzea txandako kontratuari emandako laguntzen bitartez, inskribatutako pertsonekin nahiz langabetuekin edo enpresarekin iraunaldi zehatzeko kontratua adostuta dutene-kin egin alde batera utzita¹⁵. Halaber, kooperatiba erako sozie-tateetan lantaldeak berritzeko laguntzak ere hartzen ditu.
- Laguntzen hirugarren ildoak laneko denboraren banaketa sustatzen du. Horretarako, laguntzak ematen dira ezohiko orduak deuseztatzeko eta lanaldia murriztea edo askatzea

adostu edo heldu ahal izan duten langileak edo bazkideak ordezkatzeko kontratazioak egiteko.

- Laugarren laguntza ildo baten xedea laneko kontratuak di-ruz laguntzea da, Enplegu eta Prestakuntza Proiektuen ba-rruan, toki esparruan. Hura eratzeko fasean diru-laguntzak jasoko ziren okupagarritasuna hobetzera eta laneratzea sustatzera zuzendutako neurriak arautzen dituen Dekretuan xedatutakoari jarraiki.
- Laguntzen bosgarren ildoak laneko eta familiako bizitza bateratzearen alde egitera zuzentzen da, entitate pribatuei laguntzak emanez langabezia dauden pertsonak kontra-tatuz gero besteren kontura lan egiten duten pertsonak ordezkatzeko eszedentzia eskubidea edo sei urtetik behe-rako haurrak edo ezintasuna edukita adin horretatik go-rakoak zaintzeko eskubidea baliatzea erabakitzen denean¹⁶. 2008an Enplegu Programa horiek edukitako emaitzek 4.596 onu-radun lortu zituzten, pertsonen eta entitateen artean (2007an baino % 58,3 gutxiago), eta 22,5 milioi euroko diru-laguntzak eman dira (aurreko urtean baino % 28,8 gutxiago). Onuradun kopuruak programen zenbateko osoak baino neurri handiagoan behera egin izanaren emaitza modura, batez besteko zenbate-koa, 4.890 €-koa, aurreko urtekoa baino % 70,5 altuagoa da.

II.5.28. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren enplegu prestakuntzako programen emaitzen bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia eta Gizarte Segurantzako Saila.

(*) 07.28tik bateratzeko laguntzak Familia Zuzendaritzak kudeatzen ditu.

¹⁵ Txanda kontratua lanaldi osorako izan behar da eta mugagabea, edo, bestela, iraunaldi zehatzekoa izatea adosten den kasuan, hasierako konpromiso gisa jaso beharko da amaieran denboraldi mugagabeko kontratu bihurtuko dela.

¹⁶ 2007ko erdialdera arte, ildo horrek eszedentziak edo lanaldi murrizketak heltzen zituzten langileei emaniko laguntzak biltzen zituen. Uztai-laren 28tik aurrera, horiek Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Saileko Familia Zuzendaritzak kudeatuko ditu. Idatz-zati honek onuradun kopuru handia eta funts bolumen garrantzitsua biltzen zituenez, lana sustatzeko programen emaitzen urteko bilakaera aztertzen badugu, ikus daiteke 2007an eta 2008an murrizketa garrantzitsuak erregistratu direla onuradunen kopuruan eta laguntzen zenbatekoan, aurreko urtean izandakoen aldean (ikusi grafikoa).

Laneko eta familiako bizitza bateratzeko laguntzen onuradun diren langileei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, irakurleari Memoria honetako "Demografia eta Immigrazioa" kapitulura jotzeko gonbitea luzatzen zaio.

6. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK


6.1. Kontsumo-ondasunen prezioak

INEn "Kontsumoko Prezioen Indizeak" 2008. urtean erakusten duen prezioen bilakaerak bi fase izan ditu: Lehenik eta behin, urtea tasa handi batekin abiatu zen (%4,1), 2007ko irailean hasi zen goranzko joeraren barruan. Joera horren arrazoa petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioen gorakada handia izan zen, maximo historikoetara iritsi zena. Joerak uztailera arte jarraitu zuen; hilabete horretan inflazioa %5,2ra iritsi zen.

Harrezkero, eboluzio horrek alderantzizko bidea hasi zuen: urte arteko tasa bat-batean erori zen. Urtea %1,9arekin bukatu zen, familien kontsumoaren moderazioaren ondorioz eta lehengaien eta petrolioaren prezioen erorketaren ondorioz. Petrolioaren prezioa uztailera 150 dolarrekoa izan zen upel bakoitzeko, eta urte amaieran 40 dolarrekoa izan zen. Urtea amaitzean, EAE inflazio-tasarik handiena daukan erkidegoa zen (%1,9), Ceutaren atzetik (%2,1). Estatuko batez bestekoa %1,4 zen.

Euro-eremuan, ekitaldiko lehenengo zazpi hilabeteetan inflazioak goranzko joerarekin jarraitu zuen, baina abuztutik aurre-

II.6.1. Grafikoa. Kontsumorako prezioen indizea: urte arteko aldakuntzaren tasak. EAE eta Estatuak



Iturria: INE

II.6.1. LAUKIA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA. EAE ETA ESTATUA

	EAE						Estatua	
	Urteko batez bestekoa			Abendua (urte artekoa)			2007ko	2008ko
	2006	2007	2008	2006	2007	2008	abendua	abendua
INDIZE OROKORRA	3,4	2,8	4,1	2,6	4,2	1,9	4,2	1,4
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	4,1	3,8	6,3	3,0	7,3	2,6	6,6	2,4
Alkoholun edariak eta tabakoa	2,0	6,6	4,0	1,6	5,6	4,1	6,1	3,9
Arropa eta oinetakoak	1,1	1,4	0,7	1,7	1,3	0,6	1,2	0,5
Etxebizitza	6,2	3,6	6,4	4,0	4,5	6,8	4,8	5,9
Etxeko tresnak eta zerbitzuak	3,0	3,5	3,0	3,5	3,1	3,1	2,5	2,6
Zerb. medikoak eta osasuna	1,9	-0,5	-0,1	1,8	-1,1	0,2	-2,1	0,3
Garraioa	4,2	2,3	5,7	1,6	7,0	-5,3	7,1	-5,6
Komunikazioak	-1,3	0,2	0,0	-1,5	0,8	-0,3	0,8	-0,3
Aisialdia eta kultura	0,4	-0,9	0,3	-0,5	-0,8	0,9	-0,8	0,3
Irakaskuntza	4,5	4,5	4,7	4,7	4,6	5,1	4,1	4,0
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	3,9	4,6	4,6	3,9	4,2	4,6	4,9	4,0
Bestelako ondasun eta zerbitzuak	3,0	3,2	3,4	3,3	2,9	3,8	3,0	3,5

Iturria: INE.

II.6.2. LAUKIA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA. BATEZ BESTEKO ALDAKUNTZA-TASAK ETA EKARPENAK

	2004	2005	2006	2007	2008	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3.0	3.3	3.4	2.8	4.1	1.9
Azpiko inflazioa (%82.9)	2.7	2.7	2.9	2.8	3.2	2.3
Prestatutako jakien KPI (%15.6)	3.7	3.5	3.6	4.0	6.6	0.5
Ondasun industrialen KPI (%28.6)	0.5	0.7	1.4	0.7	0.6	0.2
Zerbitzuen KPI (%38.7)	4.0	3.9	3.7	3.9	3.9	1.6
Hondar inflazioa (% 17.1)	4.6	6.3	6.1	3.0	8.5	-0.3
Prestatu gabeko jakien KPI (%8.5)	5.1	4.3	4.3	4.2	5.0	0.1
Energia KPI (%8.6)	4.2	8.4	7.9	1.9	11.6	-0.5

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE).

ra joera eten zen, EAEn bezala, baina EAEn intentsitate handiagoarekin. Beraz, bien arteko diferentziala puntu erdiraino jaitsi da urte amaieran. Hobekuntza honen arrazoiak da abenduan prezioak txikiagoak izan zirela bai prestatutako elikagaietan bai energia-produktuetan. Erregaien prezioaren beherakada nabarmenak eragin handiagoa izan zuen EAEn, erosketa-saskian daukan pisua Europan baino handiagoa baita hemen. Azpiko inflazioari dagokionez (energia-produktuei eta elikagai freskoei dagokien inflazioa, hau da, "hondar-inflazioa" kendu ondoren gelditzen den inflazioa), inflazio orokorrean bezala, urtearen amaieran desazelerazio nabarmena dago: lehen hiruhilekoko %3,5etik abenduko %2,7ra. Moderazio honen azalpen bakarra prestatutako elikagaien prezioen moderazioa da, lehengaiak garestitzea ekarri zuen egoera aldatu zenean. Horrela, %7 baino gehiagoko hazkuntzen aurrean, urtearen amaieran, prestatutako elikagaien igoera %3,3ra jaitsi zen. Bestalde, ondasun industrialek eta zerbitzuek ez dituzte aldakuntza-tasak aldatu urtearen azken tartean. Bereziki kezagarria da zerbitzuen prezioen igoera, ez baitu ia moderaziorik erakusten, abagune ekonomikoari kasu egin gabe. Hain zuzen ere, kontsumo prezioen batez besteko igoera bikoiztu du. Produktu-taldeen araberrako analisisian ikusten da etxebizitzaren atalean oso igoera handiak daudela oraindik. Atal honetan, elektrizitatearen igoera ez ezik, alokairuen prezioa, etxebizitzaren erostearen alternatiba gisa, garestitu dela ikusten dugu. Irakaskuntzak ere moderazioari aurre egiten dio eta prezioak igotzen ditu, indize orokorraren oso gainera. Gainera, deigarria da aisialdiarekin zerikusirik handiena duten bi produktu multzoak (batetik, hotelak, jatetxeak eta kafetegiak, eta bestetik aisialdia eta kultura) estatuari dagokionez diferentziala baino puntu erdi gorago egotea. Beste muturrean, garraioen taldea igoera handietatik %5 baino gehiagoko merkatzera igaro da. Azkenik, Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuaren¹ (KPIH) 2008ko abenduko datuek, estatu osorako, %1,5eko gehikuntza dakarte 2007ko abenduaren aldean, aurreko urtean gertatutakoa baino 2.8 puntu gutxiago. EDBrako, ordea,

II.6.3. LAUKIA. KPIH: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. 2005eko OINARRIA

	2006ko abendua	2007ko abendua	2008ko abendua
EB	2.2	3.2	2.2
EDB	1.9	3.1	1.6
BELGIKA	2.1	3.1	2.7
BULGARIA	6.1	11.6	7.2
txEKIAR ERR.	1.5	5.5	3.3
DANIMARKA	1.7	2.4	2.4
ALEMANIA	1.4	3.1	1.1
ESTONIA	5.1	9.7	7.5
IRLANDA	3.0	3.2	1.3
GREZIA	3.2	3.9	2.2
ESPAINIA	2.7	4.3	1.5
FRANTZIA	1.7	2.8	1.2
ITALIA	2.1	2.8	2.4
ZIPRE	1.5	3.7	1.8
LETONIA	6.8	14.0	10.4
LITUANIA	4.5	8.2	8.5
LUXENBURGO	2.3	4.3	0.7
HUNGARIA	6.6	7.4	3.4
MALTA	0.8	3.1	5.0
HOLANDA	1.7	1.6	1.7
AUSTRIA	1.6	3.5	1.5
POLONIA	1.4	4.2	3.3
PORTUGAL	2.5	2.7	0.8
ERRUMANIA	4.9	6.7	6.4
ESLOVENIA	3.0	5.7	1.8
ESLOVAKIA	3.7	2.5	3.5
FINLANDIA	1.2	1.9	3.4
SUEDIA	1.4	2.5	2.1
ERRESUMA BATUA	3.0	2.1	3.1

Iturria: EUROSTAT.

%1,6an jarri dira, 2007an baino 1,5 puntu gutxiago. Estatu inflazioa euro-eremukoa baino txikiagoa izatea 2001etik gertatzen zen, uztailean eta abuztuan. 2008an, Europar Batasuneko sei herrialdek bakarrik gehituko dute inflazio-tasa

¹ Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasunean inflazioaren neurri komuna ematen digu. Konparazio homogeneoak lortzeko, KPIH jasotzen diren eta beraren %5 inguru diren kontsumoko partida batzuk baztertu behar izan dira (adibidez, zerbitzu medikoak, irakaskuntza arautua, sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar KPIHtik baztertuta daude). 2006an oinarritzko urtea aldatu zen: 1996 izatetik 2005 izatera.

II.6.4. LAUKIA. LAN-KOSTUAREN ADIERAZLE MAKROEKONOMIKOAK

	EAE			Lanpostuagatiko ordainketa (% aldak)				Soldata gehikuntza hitzarmeneta ⁴	
	Soldatadunen ordainketa (milioi €)	Lanpostuak	Ordainketa lanpostu bakoitzeko (€)	EAE ¹	Estatuta ²	EB25 ³	EDB ³	EAE (% aldak.)	Estatua (% aldak.)
2002	22.760	896.887	25.378	3,8	3,7	3,0	2,7	4,0	3,9
2003	24.170	919.110	26.297	3,6	4,0	0,8	2,2	4,2	3,7
2004	26.069	944.699	27.595	4,9	3,2	2,9	2,0	3,8	3,6
2005	27.915	965.358	28.917	4,8	4,0	2,6	2,0	4,2	4,0
2006	29.779	987.058	30.169	4,3	4,4	2,8	2,4	4,7	3,6
2007	31.814	1.015.097	31.341	3,9	4,1	3,0	2,4	4,2	4,2
2008*	:	:	:	:	5,2	0,9	3,2	4,4	3,6

Iturriak: (1) EUSTATEN hiruhilekoko kontuak. (2) INEren hiruhilekoko kontabilitatea. (3) EUROSTAT. (4) Lan eta Inmigrazio Ministerioa.

(*) Behin-behineko datuak.

II.6.5. LAUKIA. LAN-KOSTUAREN INDIZEAREN EBOLUZIOA. EAE-ESTATUA KONPARAZIOA

	Langile bakoitzeko kostua (€ urteko)						Orduko kostua (€ orduko)					
	Estatua			EAE			Estatua			EAE		
	KO	SKO	SKA	KO	SKO	SKA	KO	SKO	SKA	KO	SKO	SKA
2003	23.909	17.762	15.403	27.519	20.495	17.668	14,4	10,7	9,3	17,5	13,0	11,2
2004	24.619	18.251	15.722	28.276	21.084	18.123	14,9	11,1	9,5	18,2	13,6	11,7
2005	25.321	18.722	16.141	29.426	21.849	18.809	15,4	11,4	9,8	19,0	14,1	12,1
2006	26.203	19.364	16.780	30.111	22.328	19.156	16,1	11,9	10,3	19,5	14,4	12,4
2007	27.263	20.120	17.175	31.519	23.394	20.223	16,8	12,4	10,8	20,5	15,2	13,1
2008	28.685	21.153	18.383	33.323	24.780	21.493	17,7	13,0	11,3	21,7	16,1	14,0
% ALDAKUNTZA												
2004	3,0	2,8	2,1	2,8	2,9	2,6	3,8	3,6	2,8	3,9	4,0	3,7
2005	2,9	2,6	2,7	4,1	3,6	3,8	3,5	3,2	3,4	4,3	3,8	4,0
2006	3,5	3,4	4,0	2,3	2,2	1,8	4,2	4,2	4,6	2,7	2,6	2,1
2007	4,0	3,9	4,1	4,7	4,8	5,6	4,5	4,4	4,6	5,3	5,4	6,2
2008	5,2	5,1	5,2	5,7	5,9	6,3	5,0	4,9	5,1	5,6	5,8	6,2

KO: Kostu osoa; SKO: soldata kostu osoa; SKA: Soldata kostu arrunta.

Iturria: INE "Lan-kostuaren hiru hileroko inkesta".

aurreko urtearen aldean: Lituania, Malta, Holanda, Eslovakia, Finlandia eta Erresuma Batuak. Gainerakoei urte artekoa murriztu zaie, eta ratioak nabarmen jaitsi zaie. %1 baino gutxiagoko inflazio-tasak dituzte Luxenburgok eta Portugalak: %0,7 eta %0,8 hurrenez hurren.

6.2. Kostuak

6.2.1. Lan-kostuak


EAEko lan-kostuen adierazleek azken urtean azelerazioa erakusten dute, ikusiko dugunez, EAEn, estatuan eta EB-n:

- Lehenbiziko adierazlea indarrean dauden hitzarmenetan itundutako soldata igoerei dagokie. Gure erkidegoan 2008an %4,4ko soldata igoera berrikusia² egon dela erakusten dute. 2007ko datua baino 2 dezima gehiago eta estatu osoan itundutakoak baino 8 dezima gehiago, Lan eta Inmigrazio Ministerioaren datuen arabera.
- Bigarren adierazlea soldatadunen ordainketa lanpostu bakoitzeko³ da. EUSTATEN *kontu ekonomikoetan* eta INEren estatistikan oinarrituz kalkulatzeko badugu, ikusiko dugu ordainketa %4,3 igo dela 2006an eta 2007an %3,9 (behin-behineko

² Jatorriz itundutako soldata-igoerari "babes-klausulagatiko" soldata-berrikuspenak eranstearen emaitza. Kontuan izan behar da adierazle partziala dela. Izan ere, azken urteetan batez besteko gehikuntza hauek itundu diren hitzarmenek, batetik, soldatadunen %50 estaltzen dituzte. Bestetik, soldata-igoera "arruntei" dagozkie; hau da, ez dute aintzat hartzen aparteko orduen ordainketaren ondorioa, ezta lan egindako ordu kopurua ere, eta ez dute jasotzen soldata-kostuez besteko kosturik.

³ Datu zuzena soldatadunena izan beharko litzateke, baina EUSTATEN hiruhilekoko kontabilitateak lanpostuen kopuru zehatza bakarrik ematen du, eta ez lanaldi osoari dagozkion lanpostuak.

II.6.2. Grafikoa. Lan-kostuen hazkuntza sektoreka EAEn. Kostua: € orduko




Iturria: INE. Lan-kostuei buruzko hiru hileroko inkesta.

datuak), estatuko datuen azpitik bigarren urtez segidan, estatua %4,1 igo baita (eta %5,2raino, Hiruhileko Kontabilitate Nazionalaren behin-behineko datuen arabera).

Bestalde, EUROSTATen 2008ko datuek erakusten dute gehikuntza lanpostu bakoitzeko ordainsaria baino askozaz ere txikiagoa izan dela EB-n. Zehazki, EB25erako %0,9 gehitu dira (2007an %3), eta euro-eremuan %3,2 (%2,4 2007an). Beraz, aurreko urtearen aldean nolabaiteko azelerazioa dago.

- Lan-kostuen hirugarren adierazleak koiuntura-izaera du, *Lan-kostuaren hiru hileroko inkesta*⁴, osagai ezberdinetan banakapena egitea baimentzen duena. Inkestaren datuek 2008rako EAEn erakusten dute langile bakoitzeko lan-kostuak %5,7 gehitu zirela (2007an baino puntu bat gehiago eta estatuan baino 6 dezima gehiago). Jarduera-sektorearen arabera, kostuen gehikuntza bereziki handia da industrian (+%7,1). Eraikuntza eta zerbitzuak, berriz, batez bestekoa baino gutxiago hazi dira (%5,5 eta %5,3 hurrenez hurren). Balio absolutuetan, 2008an langile bakoitzeko kostu osoa, batez bestez, 33.323 euro zen, estatu osoan baino %16,2 gehiago. Bestalde, EAEn lan egindako ordu bakoitzeko kostu osoak 2008. urtean %5,6 igo dira, aurreko urtean baino 3 dezima gehiago eta estatuan baino 6 dezima gehiago; estatukoak baino %22,6 gehiago dira. Sektoreka, langile bakoitzeko kostuen adierazlearekin gertatzen den bezala, industria batez bestekoa baino gehiago igo da, %7,6 zehazki. Eraikuntza eta zerbitzuak, berriz, batez bestekoa baino gutxiago igo dira.

II.6.3. Grafikoa. Lan egindako ordu bakoitzeko lan-kostuen bilakaera. EB, estatua eta EAE. Urteko aldakuntza, ehunekotan



Iturria: INE eta EUROSTATen datuekin egina.

Kostu hauen hiru hileroko bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu kostuek 2008. urtean zehar ez dietela erantzuten atzeraldiak ekarri dituen zailtasunei. Hain zuzen ere, laugarren hiru hilekoan aurrekoan baino gehiago handitu dira. Azkenik, euro-eremuan lan-kostuak %3,5 gehitu dira 2008an (aurreko urtean %2,7); EB-27an, berriz, %4,2 gehitu dira (2007an %3,7), EUROSTATen "Lan-eskuaren kostuaren indizearen" arabera.

⁴ Inkesta honetan oinarriturik, lan-kostu harmonizatua indizea egiten da. Neurri hau EB osorako lan-kostuekin erkatu daiteke.


II.6.6. LAUKIA. LANAREN ITXURAZKO PRODUKTIBITATEAREN EBOLUZIOA EAEn

	BENETAKO PRODUKTIBITATEA (KATEATUTAKO BOLUMENA)					PRODUKTIBITATE NOMINALA (PREZIO ARRUNTAK)				
	Guztira	Primarioa	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Primarioa	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2002	0,2	-0,5	-0,5	-1,4	0,5	3,0	3,9	0,7	4,1	3,7
2003	0,6	-3,3	-0,1	-1,2	0,4	3,9	0,3	1,7	10,2	3,4
2004	0,9	29,4	0,0	-0,4	-0,1	5,3	8,3	6,1	4,9	3,4
2005	1,7	-9,1	5,5	1,0	0,0	5,1	0,9	8,1	5,5	3,0
2006	2,1	-0,9	3,7	0,8	1,4	5,4	1,8	5,2	4,9	5,0
2007	1,2	14,3	0,7	3,5	1,0	3,7	-1,9	3,8	7,4	3,7
2008*	0,9	-1,9	0,5	4,1	0,9	3,9	-7,0	4,7	8,4	4,4

Iturria: EUSTATen hiru hileroko kontu ekonomikoekin egina.

(*) Behin-behineko datuak.

II.6.4. Grafikoa. Lanaren produktibitate errealearen hazkuntzaren bilakaera EAEn. Ehunekotan



Iturria: Eustat. CET.

6.2.2. Produktibitatea

Produktibitatea oso kontzeptu garrantzitsua da, haren gehikuntzek ekonomia baten lehiakortasuna gehitzea ahalbideratzen baitute. Erraz ulertzen da, produkzioaren eta hura lortzeko erabiltzen diren baliabideen arteko erlazioan datza. Baina kalkulatzeko zaila da. Izan ere, produktibitatea baldintzatzen duten faktoreak asko dira: lanean ari diren pertsonen kopurua, kapital-ondasunen zuzkidura, baliabide horien erabilera eraginkorra, eta beren erabilera beste faktore batzuekin konbinatua (hala nola instituzionalak, legalak eta abar). Horregatik, lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptuak, enfoke ezberdinen bidez neurtua, produktibitateari hurbiltzeko balio du.

Lehenik eta behin, lanaren itxurazko produktibitatea, BPGaren (2008an %2 gehitu zena) eta lanpostu-kopuruan neurtutako enpleguaren⁵ (EUSTATen hiru hileroko kon-

tu ekonomikoaren arabera azken urtean %1,1 gehitu zena) arteko koefiziente gisa kalkulatu, 2008an %0,9 handitu zen; aurreko urtean baino hiru dezima gutxiago, alegia⁶. Produktibitatearen eboluzioa 2008an eraikuntzaren aurreapenari lotuta dago: sektoreak 2007an baino irabazi gehiago izan zituen (%3,5etik %4,1era), sektorean enplegua galtzearen ondorioz. Aitzitik, industriaren eta zerbitzuen emaitzek urte horretan okerrera egin zuten, eta ekonomia-aren emaitza orokorren azpitik daude (+%0,5 eta %0,9 hurrenez hurren).

Produktibitate errealearen eboluzio hori Europar Batasunean erregistratutakoa baino handiagoa da (bai EB27an bai euro-eremuan emaitza negatiboa izan da 2008an: %0,1 biek, 2007an %1aren inguruan egon ondoren). Espainiar estatuan, berriz, tasa erreala handiagoa zen: %1,6 (2007an %0,6 zen), lanpostu galera handiagoa egon delako.


EAEk Europako testuinguruan daukan lehiakortasuna eratzeko orduan kontuan izan dezakegun produktibitateko beste adierazle bat laneko produktibitatea da. BPGaren (erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera kalkulatu) eta enpleguaren arteko erlazioa da. Informazio hori eskuragarria denez gero, abantaila bat du konparazioak egitea erraza dela, baina kasu honetan analisisa mailari dagokio eta ez eboluzioari. Ratio jori aintzat hartuta, 2007an EB-ko batez bestekoaren gainetik zegoen EAE (%32,1), Belgikaren mailaren antzekoarekin. Europar Batasunean Luxenburgok eta Irlandak soilik gainditzen zuten EAE (lehenengoak %184 eta bigarrenak %134,8). EAEren maila Espainiar estatuarena baino askoz ere handiagoa zen.

Estatua EB-aren batez bestekotik apur bat gorago dago kontuan hartu diren urte guztietan. Era berean, adierazle horrek erakusten du EAEren posizio erlatiboa EB-aren barruan hobera egiten ari dela aurreko urtean aldean (1995-2003 denboraldiko batez bestekoari erreparatu gero, produktibitate erlatiboa EB-aren batez bestekoaren %125,7 zen).

⁵ Berez lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua izan beharko litzateke, baina ez daukagu datu hori.

⁶ Produktibitate erreala, kateatutako bolumenaren indizeetan, EUSTATen datuetan oinarrituta kalkulatu.

II.6.5. Grafikoa. Lanaren produktibitate errealearen aldakuntza EAEn, estatuan eta Europar Batasunean



Iturria: EUSTAT eta EUROSTATen datuekin egina.

6.2.3. Aleko lan-kostuak

Produktibitatearen eta lan-kostuen eboluzioa ikusita, EAEko ekonomiaren aleko lan-kostuak (ALK)⁷ aztertu behar ditugu. 2008ko datuek gure ekonomiaren ALK arruntetan gehikuntza garrantzitsu bat erakusten dute aurreko urtearen aldean (%4.8, eta 2007an, %2.5), batez ere industriaren eta zerbitzuen emaitzen ondorioz (+%6.6 eta +%4.4). Bietan gertatzen da laneko kostuak gehiago gehitu direla produktibitate erreala baino. "Prezioen" efektua BPGaren deflatorearen bidez deskontatzen badugu, lan-kostuen aldakuntza errealek tasak txikiagoak dira bi sektore horietan, eta negatiboak eraikitzen. Europar Batasunean, bestalde, soldatadunen lanpostu bakoitzeko ordainketan kalkulaturako ALKak %0.9 gehitu dira 2008an (EB27) eta %3.2 euro-eremuan (aurreko urtean +%1.6). ALK errealek kontuan izanez gero, ordea, 2008ko datuak

II.6.7. LAUKIA. LANeko PRODUKTIBITATEA LANGILE, HERRIALDE ETA URTE BAKOITZEKO (EB 27 = 100)

	2005	2006	2007
EB 27	100.0	100.0	100.0
ALEMANIA	109.2	108.6	107.2
AUSTRIA	115.4	115.4	115.0
BELGIKA	130.2	129.8	129.8
BULGARIA	33.5	34.7	34.9
ZIPRE	82.8	83.4	83.6
DANIMARKA	106.6	105.5	102.1
ESLOVAKIA	68.6	71.6	75.0
ESLOVENIA	83.5	83.9	84.6
ESPAINIA	101.1	102.0	103.6
ESTONIA	60.0	61.4	64.2
FINLANDIA	109.9	110.4	111.0
FRANTZIA	122.1	121.6	121.6
GREZIA	99.8	100.7	102.0
HOLANDA	113.8	113.4	112.4
HUNGARIA	72.3	73.0	72.9
IRLANDA	134.4	136.7	139.8
ITALIA	110.9	109.6	108.5
LETONIA	48.0	49.9	53.5
LITUANIA	54.4	56.4	59.4
LUXENBURGO	169.0	176.2	173.3
MALTA	91.1	90.1	90.2
POLONIA	61.3	61.2	60.9
PORTUGAL	70.1	70.2	71.2
ERRESUMA BATUA	112.2	111.9	111.8
txEKIAR E.	68.5	69.8	71.8
ERRUMANIA	35.9	38.5	43.7
SUEDIA	109.9	111.1	111.8
EAE	127.2	130.1	132.1
AEB	141.1	141.1	140.3

(p) Aurreikuspena.

(e) Estimaturako balioa.

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.


II.6.8. LAUKIA. ALEKO LAN-KOSTUAK: URTEKO ALDAKUNTZA

	LAN-KOSTUEN ALDAKUNTZA		PRODUKTIBITATEAREN ALDAKUNTZA		ALK ARRUNTEN ALDAKUNTZA		ALK ERREALEN ALDAKUNTZA	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008
GUZTIRA	4.7	5.7	1.2	0.9	2.5	4.8	0.0	1.5
INDUSTRIA	4.3	7.1	0.7	0.5	3.6	6.6	0.5	2.4
ERAIKUNTZA	6.8	5.5	3.5	4.1	3.3	1.4	-0.6	-2.9
ZERBITZUAK	4.7	5.3	1.0	0.9	3.7	4.4	1.0	0.9

Iturria: EUSTAT eta INEren datuekin egina.

⁷ Laneko kostu osoan (KO) enplegatzaileak, lan, soldata eta soldataz kanpoko kostu faktoreak erabiltzeagatik dauzkan kostu guztiak sartzen dira. Soldata kostu osoan (SKO) oinarritzko soldata, osagarria, aparteko orduak, haborokinak eta gauzakzko soldata sartzen dira (kalte-ordainak eta dietak izan ezik). Termino gordinetan ematen da (hau da, langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak edo atxikipenak egin aurretik). Soldata kostu arruntetan (SKA) ez dira sartzen aparteko haborokinak (aparteko ordainketak, etekinetan parte hartzeagatik, primak eta abar) eta ordainketa atzeratuak.

II.6.6. Grafikoa. Aleko lan-kostu errealak: Urteko aldakuntza, soldatapekoen ordainketan oinarrituta kalkulaturik



Iturria: EUSTAT eta EUROSTATen datuekin egina.

txikiagoak dira (%0,5 EB27an eta %0,9 EDBn), baina positiboak, zenbait ekitalditan tasa negatiboak izan ondoren. Bien bitartean, estatuan, azken lau urteetan nolabaiteko egonkortasuna egon da. Hazkuntza-tasa nominalak %3aren inguruan egon dira (2008an %3,4, EUROSTATen datuen arabera). Europar Batasun osoan bezala, 2008an ratio positiboa lortu da (%0,4), aurreko urteetan 0 baino datu txikiagoak izan ondoren. Eraitza hauek eta ALK errealak erkatzen baditugu, gure erki-degoko soldatadunen ordainketan oinarrituta, 2008ko daturik ez daukagun arren, 2007an joera aldaketa ikusten zen, balio positiboarekin (+%0,2), grafikoan azaltzen denez.

6.3. Errentak

6.3.1. Errenten banaketa faktoriala

Gure ekonomian sortzen den balio erantsia hura sortzen lagundu duten produkzio-faktoreen artean banatzen da batez ere: soldatapeko lanaren ordainsari gisa, soldatapekoa ez den lanaren eta kapitalaren ustiapenaren soberakin garbi gisa, kapital finkoaren kontsumo gisa produkzio-ekipoak urtean zehar izan duen depreziazio-balioagatik eta, azkenik, produkzioari eta inportazioari lotutako zerga gisa (diru-laguntzak kontuan izan gabe) administrazio publikoari dagozkionak. Modu sekundarioan, errenta hau pertsonen eta familien artean banatzen da, produkzio-faktore horien jabetzan duten partaidetzaren arabera eta jasotzen dituzten errenten arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, BPGaren hazkunde, 2007ko prezio arruntetan, %6,7koa izan dela kontuan izaten badugu (behin-behineko datuen arabera), ikus dezakegu zerga garbiak 3,2 puntu gehitu direla horren azpitik; hau da, urtean batez bestez %3,5 gehitu dira. Soldatapekoen

errenta, berriz, dezima bat igo da horren gainetik (%6,8). Kapital finkoaren kontsumoa batez bestekoaren azpitik 2,2 puntu gehitu da (%4,5), eta ustiapeneko soberakin garbia batez bestekoaren gainetik 1,7 puntu (%8,4).

Horrela, soldatapeko laneko errentak BPGaren %48,3 dira, aurreko urtean baino dezima bat gehiago. Ustiapeneko soberakin garbia, berriz, %31,9 da (BPGaren gaineko pisua puntu erdi gehitu du) eta kapital finkoaren kontsumoa %8,9, aurreko urtean baino bi dezima gutxiago. Produkzioaren eta inportazioaren gaineko zergen kasuan (produkzio-sektoreetan emandako diru-laguntzak kenduta), BPGan daukaten proportzioa gutxitu dute; %10,9 dira, aurreko urtean baino hiru dezima gutxiago.

Errenten bilakaera berri hau estatukoekin erkatuta, ikus dezakegu 2007. urtean soldata-errentak hiru dezima gehiago hazi direla gure erkidegoan. Ostera, EAEko ustiapenaren soberakinaren eta errenta mistoaren batura estatukoa baino 1,3 puntu gutxiago hazi da. Diru-laguntzen zerga garbiei dagokienez, BPGaren gaineko proportzioak ezberdinak dira (%10,9 EAEn eta %8,2 estatuan), 2006. urteaz geroztiko aldakuntza tasak bezala: EAEn %3,5 hazi diren bitartean, estatuan %10,3 gutxitu dira.


EDBk aurkezten dituen datuetan, aztertzen diren faktoreen hazkunde-tasak EAEkoak eta estatukoak baino txikiagoak dira. Izan ere, euro-eremuaren BPG gutxiago hazten ari da (2007an %5,3 eta EAEn %6,7). Neurri txikiagoan bada ere, ikusi da EAEn bezala azken hiru urtekoan soldatapekoen ordainketak modu egonkorrean igo direla (azken urtean %4,7, baina BPGan duten partaidetza hiru dezima murriztu da). Berdin gertatzen da ustiapenaren soberakin garbiarekin eta ezarpenarekin, batez bestekoa baino gehiago hazi baitira.

II.6.9. LAUKIA. ERRENTAREN BANAKETA EAEn, ESTATUAN ETA EURO-EREMUAN

	Millones de euros				% vertical			% urteko aldakuntza		
	2004	2005	2006	2007p	2005	2006	2007	04-05	05-06	06-07
EAE										
Soldatapekoen ordainketa	26.069	27.915	29.779	31.814	48,7	48,2	48,3	7,1	6,7	6,8
Ustiapenaren soberakin garbia	16.675	17.902	19.417	21.053	31,2	31,4	31,9	7,4	8,5	8,4
Kapital finkoaren kontsumoa	4.859	5.170	5.643	5.897	9,0	9,1	8,9	6,4	9,2	4,5
Diru-laguntzen zerga garbiak	5.703	6.302	6.922	7.164	11,0	11,2	10,9	10,5	9,8	3,5
BPG, merkatuko prezioak	53.305	57.289	61.761	65.929	100,0	100,0	100,0	7,5	7,8	6,7
ESTATUA										
Soldatapekoen ordainketa	400.953	430.655	463.656	496.498	48,1	48,0	48,4	7,4	7,7	7,1
Ustiapeneko soberakin gordina / Errenta misto gordina	352.121	378.983	409.037	444.852	42,3	42,3	43,4	7,6	7,9	8,8
Diru-laguntzen zerga garbiak	76.771	86.335	93.308	83.729	9,6	9,7	8,2	12,5	8,1	-10,3
BPG, merkatuko prezioak	829.845	895.973	966.001	1.025.079	100,0	100,0	100,0	8,0	7,8	6,1
EURO-EREMUA										
Soldatapekoen ordainketa	3.748.831	3.850.233	4.015.772	4.203.754	48,0	47,6	47,3	2,7	4,3	4,7
Ustiapeneko soberakin gordina / Errenta misto gordina	3.088.336	3.199.072	3.382.569	3.576.810	39,9	40,1	40,2	3,6	5,7	5,7
Diru-laguntzen zerga garbiak	915.648	965.238	1.045.962	1.108.912	12,0	12,4	12,5	5,4	8,4	6,0
BPG, merkatuko prezioak	7.752.815	8.014.543	8.444.302	8.889.476	100,0	100,0	100,0	3,4	5,4	5,3

Iturria: EUSTAT "Kontu ekonomikoak (2000ko oinarria)", INE "Espainiako Kontabilitate Nazionala.. 2000ko oinarria" eta EUROSTAT.

II.6.7. Grafikoa. Faktoreen errenten banaketa EAEn.



Iturria: EUSTAT: hiru hileroko kontu ekonomikoak.

6.3.2. Per capita errenta

Horrela, dauzkagun azken datuen arabera (2006koak) EAEko etxeetako errenta, 38.815 milioi eurokoa dena, estatuko errenta erantsiaren %6,21 da. Gainera, aurreko urtekoa baino %7,7 handiagoa da. Hazkunde hau batez bestekoa baino apur bat

handiagoa izan zen. Beraz, partaidetza hori 2006. urterako aurreko urtekoa baino hiru zentesima handiagoa da. Era berean, EAEko etxeak izan ziren biztanle bakoitzeko errenta gordin handiena izan zutenak, 18.335 euro. Hau da, estatuko batez bestekoa (14.192 euro) baino %29,2 gehiago. Gure erki-

II.6.10. LAUKIA. PER CAPITA BPG (PCB), HERRIALDE ETA URTE BAKOITZEKO (EB 27=100)

	2005	2006	2007
EB 27	100,0	100,0	100,0
ALEMANIA	116,9	115,8	114,8
AUSTRIA	124,8	124,3	124,0
BELGIKA	119,4	118,5	118,2
BULGARIA	34,5	36,5	37,3
ZIPRE	90,9	90,3	90,7
DANIMARKA	123,6	122,9	120,1
ESLOVAKIA	60,2	63,5	67,0
ESLOVENIA	87,4	87,7	89,3
ESPAINIA	102,0	104,1	105,5
ESTONIA	61,1	65,3	68,0
FINLANDIA	114,3	114,9	115,9
FRANTZIA	110,8	109,5	109,2
GREZIA	92,8	94,1	94,9
HOLANDA	130,8	130,9	131,0
HUNGARIA	63,2	63,6	62,6
IRLANDA	144,1	147,4	150,4
ITALIA	104,7	103,5	101,5
LETONIA	48,6	52,6	54,7
LITUANIA	52,9	55,5	59,5
LUXENBURGO	254,1	267,1	266,5
MALTA	78,2	76,9	77,8
POLONIA	51,3	52,3	53,4
PORTUGAL	76,9	76,4	76,2
ERRESUMA BATUA	121,8	120,4	119,2
txEKIAR E.	75,9	77,4	80,2
ERRUMANIA	35,0	38,4	42,2
SUEDIA	120,3	121,5	122,2
EAE	130,8	135,9	139,5

Iturriak: EUROSTAT eta EUSTAT.


degoaren ondotik Nafarroa, Madril eta Katalunia datoz, ordena horretan. Lurraldeka, errenta gordin erabilgarriak handiena per capita Araba eta Gipuzkoako etxeei dagokie (estatuko batez bestekoa baino %32 gehiago). Bizkaian, berriz, estatuko baino %26,4 gehiagoko balioa dago, hirugarren postuan. Nafarroarekin batera. Eboluzioa kontuan izanik, EAEaren biztanle bakoitzeko errenta gordina azken urtean %7,2 hazi da, estatuaren batez bestekoa %5,6 izanik.

Bestalde, EUROSTATEk, per capita BPGari buruz (PCB) eta erosketak ahalmenari buruz dauzkan estatistiken bidez, EAEk Europar Batasunaren batez bestekoaren barruan eta EB-ko herrialde eta erregioen artean daukan posizio erlatiboa ezagutzeko bidea ematen du. Biztanle bakoitzeko BPG positiboki erlazionatuta dago herrialde bateko biztanleen bizi-kalitatearekin. Horrela, errenta-banaketa antzekoa izanik, adierazle hori zenbat eta handiagoa izan, herrialdeak ongizate maila handiagoa izango du.

2007an, EB-aren batez bestekoa erreferentziatzat harturik, EAEren per capita BPG %139,5 da (EUSTATEk egindako datuen arabera). Beraz, indize honen hamahirugarren hazkundera dugu segidan, 1995etik aurrera (orduan EB-ko batez bestekoaren %109,6 zeukan EAEk). 2007an lortutako balioarekin, EAEk EB-ko hirugarren posturik onena izango luke, Luxenburgo eta Irlandaren atzetik.

Azkenik, INEaren arabera, EAE, 2008. urterako lehenengo datu-estimazio baten arabera, estatuko lehenengoa litzateke biztanle bakoitzeko BPGan, 32.132 euro baino gehiago baliatuzke (estatuaren batez bestekoa 24.020 da). Urte honetan, desazelerazio ekonomikoa gorabehera, per capita BPGak bere hazkunde azkarra luzatu ahal izan du. Gainera, aurreko

II.6.8. Grafikoa. Per Capita BPGaren (pcb) bilakaera. EB-27 = 100



Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

II.6.II. LAUKIA. ETXEEN ERRENTA ERABILGARRI GORDINA PER CAPITA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

	2005(P)			2006(P)		
	Balioa (eurotan)	indizea	2005/2004 aldakuntza	Balioa (eurotan)	indizea	2006/2005 aldakuntza
Andaluzia	10.829	80,57	6,74%	11.438	80,59	5,62%
Aragoi	14.615	108,74	6,20%	15.623	110,08	6,90%
Asturias	13.416	99,82	8,66%	14.645	103,19	9,16%
Balear (Uhartek)	14.865	110,60	4,36%	15.494	109,17	4,23%
Kanariak	12.000	89,29	5,04%	12.598	88,77	4,98%
Kantabria	14.048	104,52	7,94%	14.935	105,24	6,31%
Gaztela eta Leon	13.511	100,53	7,16%	14.669	103,36	8,57%
Gaztela-Mantxa	11.191	83,27	5,19%	11.790	83,07	5,35%
Katalunia	15.358	114,27	6,18%	15.956	112,43	3,89%
Valentziako E.	12.332	91,76	4,49%	12.880	90,76	4,44%
Extremadura	10.358	77,07	8,30%	11.098	78,20	7,14%
Galizia	12.033	89,53	7,75%	12.929	91,10	7,45%
Madril	16.145	120,13	5,54%	17.039	120,06	5,54%
Murtzia	11.087	82,49	6,53%	11.456	80,72	3,33%
Nafarroa	16.950	126,12	6,24%	17.887	126,04	5,53%
EAE	17.100	127,23	6,96%	18.335	129,19	7,22%
Araba	17.656	131,37	7,93%	18.866	132,93	6,85%
Gipuzkoa	17.445	129,80	6,76%	18.755	132,15	7,51%
Bizkaia	16.745	124,59	6,81%	17.940	126,41	7,14%
Errioxa	14.606	108,68	3,69%	15.475	109,04	5,95%
Ceuta	13.463	100,17	10,05%	14.146	99,68	5,07%
Melilla	13.105	97,51	7,01%	14.236	100,31	8,63%
ESTATUA	13.440	100,00	6,19%	14.192	100,00	5,60%

Iturria: INE. Espainiako Erregio Kontabilitatea. 2000ko oinarria.

urtearen aldean hazkunderik handiena EAErena da (+%5,5).
Haren atzetik Asturias, Kantabria, Extremadura eta Galizia

daude, denak +%4,5eko tasarekin (estatuen batez beste-
koa +%2,6 da).